

Ramos Azkarate



Galtzaundi

berriz ere (I)





Ramos Azkarate Otegi
(1847-1904)

«Iñori gaitzik egin badiyot
bizimoduko lanetan,
eskatzen diyet barkaziyua
biyotzetikan benetan;
ta miña eman badiyet noizbait
politikako gauzetan,
ez det nik uste iñoiz paltatu
badetenikan ezertan».

Orrela zion Ramos Azkaratek, urteak aurrera eta burua atzera jiratu zuan batean: etzala bein ere iñori gaitzik egin asmotan ibili; ezta ere, zekiala beintzat, min eman eta paltatu nairik; ala balitz, barkazioa eskatzen zuala.

Aitorkea leiala da ori; baiña arek bere 3.500 bat bertsoekin altxor bat utzi zigun: XIX mendean Gipuzkoako iriburu zaarreko euskera; orduko gizartearen ispillua eta politikaren kronika, alderdi baten begiekin ikusita bada ere.

Orregatik, barkaziorik ez, baizik-eta gure eskerrak merezi ditu, dirurik izan ez eta alako ondare aberatsa utzi zigulako.

Galtzaundi
berriz ere
(I)

AZKARATE, Ramos

Galtzaundi berriz ere / Ramos Azkarate ; bilketa, argitaralpena eta itzaurrea, Antonio Zavala. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza, 2004.

<1> libk. : argk., mus. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 286)

Aurkibidea

LG SS 196-2004. – ISBN 84-7907-440-X

I. Zavala, Antonio. II. Gipuzkoa. Dirección de Cultura, ed. III. Título. IV. Serie.

821.361-1"18"

© Ramos Azkarate Otegi

© edizio honena: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Tolosako Udalaren laguntza izan du liburu honek

1.000 aleko tirada

ISBN: 84-7907-439-6 (lan osoa)

84-7907-440-X (I. tomoa)

Legezko Gordailua: S.S. 196/04

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Ramos Azkarate

Galtzaundi
berriz ere
(I)

Bilketa, argitaralpena eta itzaurrea:
Antonio Zavala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza
Dirección de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2004



Ramos Azkarate Otegi (1847-1904),
Ibarrako iturrian.

(Liburu ontatik: Jose Maria Tuduri Esnal: *Argazkiak, Tolosa, Fotografias (1842-1900).*)

Ramos Azkarate Otegi

(1847 - 1904)

Agirietako argibideak

Ramos Azkarate Otegi Tolosan jaio zan, 1847-ko Martxoaren 28-an, eta Aroztegieta kalean, berak bertso batean onela esaten duanez:

ta naizelarik gañera berriz
Arotz-kalean jaiua.

Egun ori Erramu-eguna zan urte artan. Orregatik bataiatuko zuten aur ura *Ramos* izenarekin. Eliz-agirian *Ramon* irakurtzen da; baiña kopiaztaillearen okerren bat izango da, dudarik gabe. Berak beti *Ramos* firmatu baitzuan, eta danak ere ez baitzioten *Ramos* edo, obeto esateko, *Ramox* beste izenik eman. Gaur ere orrela esaten zaio bere jaioterrian. Il-agirian ere *Ramos* idatzita dago.

Aita, Meltxor, Arabako Legutiano edo Billarrealekoa zan; ama, Joakina, Billabonakoa.

Beraren emazteak Isabel Barrena zituan izen-abizenak, eta Urrestildarra zan.

Gure Ramos Azkarate, bere denbora guzia jaioterrian egin ondoren, naiko gazterik il zan, 1904-ko Martxoaren 26-an. Ona eliz-agiriak nola dion:

«En la villa de Tolosa, Provincia de Guipúzcoa, diócesis de Vitoria, a veinte y ocho de marzo de mil novecientos cuatro, yo el infrascrito Cura Ecónomo de la Iglesia parroquial de Santa María, mandé dar sepultura eclesiástica al cadáver de D. RAMOS AZCARATE OTEGUI, natural de Tolosa, de cincuenta y siete años de edad, de profesión zapatero. Falleció a las doce de la noche del día anteayer en la Santa Casa Misericordia de esta villa, de muerte natural ocasionada según certificación facultativa por afección orgánica del co-

razón. Era hijo legítimo de D. Melchor Azcárate, natural de Villarreal de Alava y de Doña Joaquina Otegui, natural de Villabona, provincia de Guipúzcoa. Se hallaba viudo en el acto del fallecimiento de Doña Isabel Barrena, natural de Urrestilla, Guipúzcoa. Recibió los Santos Sacramentos de Penitencia, Viático y Extrema. No otorgó testamento. Se le hizo el oficio de sepultura. Fueron testigos D. Secundino Alberdi, presbítero, natural de Azpeitia, y D. Lázaro Rezola, enterrador, natural de esta villa. Para que conste lo firmo fecha ut supra. Patricio de Orcáiztegui».

Zapataria zan, beraz. Biotzekoa izan zuan. Alargunduta zegoan eta Erruki Etxean bizi zan.

Berrogei ta amazapí urterekin il zala esaten da; baiña osatu gabe zegoan. Bi egun falta zituan ortarako.

Lur eman zion Lazaro Rezola ori, Tolosako beste bertso-jartzaille ugari baten aurrekoa izango zan: Luis Rezola bera, *Tximela* esaten zitzaiona, familiaren izengoitia orixe zan eta. Orregatik, *Tximelaren baratza* esan oi zioten tolosarrak kanposantuari garai batean. Luis Rezolaren bertsoak bi liburutan bildu genituan: *Bakardadeko ametsak*, Auspoa 204-205.

Il-agiria firmatzen zuan erretorea, Patrizio Orkaiztegi jaun-a alegia, Ramos Azkaraterekin auzitan ibilia zan, aurrerago adieraziko degun bezela.

Lanbidea

El Diario Vasco egunkarian, 1994-VI-20-an, izen ontako idazlana agertu zan: *Desempolvando libros viejos de actas del Ayuntamiento / Retazos retrospectivos de la vida tolosana de ayer*. Egillea: «P. E.». Idazlan onek oso argibide jakingarria ematen digu Ramos Azkarateri buruz:

«En mayo de 1871 fue nombrado primer suplente sereno el famoso bardo Ramos Azcárate, que el mes de junio fue nombrado sereno primero, siendo sereno segundo Nicolás Ormaechea».

Ogei ta lau urte zituan orduan Ramos Azkaratek. Arekin batera izendatzen dan laguna, *sereno segundo* izateko, Nikolas Ormaetxea zeritzan. Dakigunez, andik urteetara *Orix*e olerkaria izango zanaren izen-abizenak ere oietxek ziran. Baiña idazlan orrek onela jarraitzen du:

«En julio de 1877 fue destituido como sereno Ramos Azcárate».

Zergatik ote? Ez dakigu.

Baiña zapataria ere izan zan, il-agiriak dionez. Ori bera esaten da Tolosan. Lan-tokia, euskeraz *Plazatxo*a edo *Berdura-plaza* eta erderaz *Plaza de la Verdura* esaten zaion ortan izan zuan, “*N. I*” jartzen zuan arkupean. Bere buruaren irudia antxe dauka gaurko egunean, arku oietako batean andik urteetara ipiña.

Norbaiti entzun izan nionez, denda txiki bat ere idiki omen zuan azkenean; baiña ez dakigu zein tokitan, eta gauza segurua ere ez da.

Ramosen lantegiari buruz ona zer dion Juan Garmendia Larrañaga adiskideak, bere *Iñauteria, El carnaval vasco* liburuan (1973):

«Ramos Azcárate fue zapatero remendón. Tenía el puesto de trabajo en el arco número uno de la Plaza de Carlos VII. En el arco donde podemos contemplar una placa a él dedicada, y que fue colocada a iniciativa de la sociedad “Txinparta”, el año 1965.

Cerca del puesto de trabajo de Ramos Azcárate, enfrente del portal hoy número dos... se sentaba, asimismo como zapatero remendón Santos Goñi, conocido por “Galtzaundi” ...

Estos artesanos acostumbaban a trabajar mirando hacia el interior de su respectivo arco, teniendo a sus espaldas, para resguardarse del viento y de la lluvia, una arpillera con marco de madera”.

Galtzaundi orretzaz aurrerago itzegingo degu. Baiña gizarajo aiek babes aula eta eskaxa izango zuten ori, negurako batez ere. Naiko otz-bero, euri eta aize jasan bearko zituzten.

Plaza orrek ere garai artan etzuan gaur daukan kristalezko es-talkia. Kanpo librean jardutea bezela izango zan ori. *Zer errukarriya dan gizon gazterik zartutakoa* izeneko bertsoak ere baditu Ramosek. Ez gera batere arritzen, alako lantokian urte-tan lan egin ondoren.

Baiña etxea nun ote zuan Ramosek? Juan Garmendia onek onela dio bere liburu ortan, oar batean:

«...don Pedro Elósegui Hidalgo... recuerda asimismo a Ramos Azcárate –algo cojo–, a quien fija su residencia en la casa número 24 de la calle Mayor».

Iñauterietako bertsoak, kanta-paperak eta esku-idazkiak

Ramos Azkarate bertso-jartzaille ugaria izan zan, bertso-bilduma onek argi eta garbi erakusten duanez.

Bere andregaiari eskeiñitako bertso batzuekin asi omen zan langintza ortan. Iñauterietako bertso-saillekin jarraituko zion, mutil-talde bat –*konpartsa* deizen zioten– jantzi berezi batekin beren gorputza estali eta kalez kale kantari ibil zedin. Talde auek jende aurrean antzerki-moduko bat egingo zutela ez dago dudarik.

Orregatik, bide ortan aurrera jarraituz, bi antzerki idazte-raiño ere iritxi zan gure Ramos Azkarate: bata, *Ijitoen kontratuba eta ezkontza*, 1885; eta bestea, *Beotibarko jatzarraren oroipena Gaon judubaren galerarekin*, 1886. Baiña antzerki auetaz aurrerago mintzatuko gera.

Kanta-paperak ere argitara eman zituan Ramos Azkaratek bere bertso-saillekin, bein baiño geiagotan. Gure erri-literaturaren jenero ori indar-indarrean zegoan, izan ere, garai artan. Tolosako Zerkausian merkatu-egunetan, larunbatetan alegia, zenbat milla bertso-paper saltzen ziran urtearen buruan? Aietan erabiltzen ziran gaiak, eta bai bertso-gintza ere, Ramose-

nak baiño errikoiagoak izaten ziran. Baiña onek, bide ori arztearekin, aitorpen bat egiten dio kanta-paperari, beraren garrantziaz jabetuta.

Baditu, ordea, kanta-paperetan eta aldizkarietan, bietan alegia, argitaratutako lanak. Orrela danean, leenengo agerraldia nun egin zuan artu degu kontuan; aurrena kanta-paperetan azaldutakoak, kanta-paperen talde ontan sartu ditugu; eta aldizkarietan agertuak, aldizkarietako mordoetan: *Euskal-Erria, El Cántabro, El Correo de Guipúzcoa...*

Ortaz gaiñera, aren bertso batzuk esku-idazkietan ere agertu zaizkigu. Batzuk, berak bere eskuz idatziak; eta besteak, beste norbaitek kopiatuak: Fakundo eta Timoteo Adurriaga ziranak, Manuel Urreta zana eta abar.

Orregatik, bertso-bilduma onen leenengo mordoari *Iñauterietako bertsoak, kanta-paperak eta esku-idazkiak* ezarri diogu izenburua. Ramos Azkarateren bertsorik zaarrenak ortxe daude.

Euskal-Erria

Donostiako euskal aldizkari au 1880 urtean asi zan, beraren fundatzailea bertako Jose Manterola izanik. Jaun onek idatziko zuan, dudarik gabe, leenengo zenbakian egiten dan *saludo* edo agurra, onela esanez:

«Y esto que viene haciéndose con provecho en casi todas las provincias españolas, en las que cada día aparecen nuevas bibliotecas y revistas especiales de carácter local, como sucede en Cataluña, Aragón, Asturias, Galicia, Valencia y Andalucía, es lo que nos proponemos realizar, en la medida de nuestras fuerzas, con relación a la región Euskara...».

Bertso-jartzailleak berealaxe asi ziran beren saillak aldizkari ortan azaltzen: Ramon Artola, Serafin Baroja, Biktoriano Iraola, Felipe Arrese Beitia, Martzelino Soroa, Klaudio Otaegi, Jose Inazio Arana, Antonio Arzak...

Ildako batzuenak ere bai: Agustin Iturriaga, Jose Bizente Etxagarai, Eusebio Maria Azkue, Indalezio Bizkarrondo *Bilintx...*

Aldizkari orren aleak Tolosara ere iritxiko ziran, eta bai Ramos Azkarateren eskuetaraiño ere. Onek ortxe ikusiko zuan bere bertso-lanak agertzeko bidea, eta 1885 urtean asi zan, *Agur, agur, Bizkarrondo* izeneko sail batekin; eta urrengo bertso-gaiak: San Inazio, Iparragirre, Okendo, *Ama Euskara-ren bakartasuna*, *Jesukristo gure Jaunaren gurutzeko zazpi itzak*, eta abar izan ziran.

Gai kulturalak beti ere *Euskal-Erria* aldizkari ortan. Or etzuan bere politikarik sartzen. Ikusten danez, bazekian arek nun zer komeni zan.

El Cántabro

Ramos Azkaratek ogei ta bost urte zituan azken karlista gerratea asi zanean, 1872-an alegia: eta, bukatzerakoan, ogei ta bederatzi. Bere adiñekoak gerra artan ibiliko ziran. Eta berak armarik eskuan artu al zuan? Ez dakigu. Ez diogu iñori orretzaz ezer ere entzun. Eta berak ere ez du bere bertso eta idazlanetan olakorik ezer ere esaten.

Eta ibili bazan ere, zein aldetan? Liberala izan baitzan gaztetan. Eta gero karlista biurtu.

Urteetara, aldizkari bat ateratzeari ekin zioten karlistak Tolosan 1893-ko Otsaillaren 25-ean. Orrelako lantegi bat ez baita bat-batean zutik jartzen, aiek ere denbora-puskaren bat pasako zuten beren asmo ori bideratzen eta gauzatzen; eta us-te etzuten albiste illun batekin asi bear izan zuten: beren erre-giñaren il-berria emanez. Ala, aldizkari orren leen zenbakia-ren leen orrialdea luto beltzez jantzita agertu zan: gurutze aundi bat goien; eta urrena, ildakoaren argibideak:

«La augusta Señora Doña Margarita de Borbón y Parma, esposa de Carlos VII, falleció en Viareggio (Italia) a las nueve de la ma-

ñana del día 29 de Enero de 1893 a los 46 años de edad. Descanse en paz».

Eta ondoren, *Ill da gure Erregiña!* izenburuarekin, zazpi bertso, Ramos Azkaratek firmatuak, bertso oietan bere buruaren berri ere ematen duala:

Ni nere Erregien
etsai nintzarian,
nebillen Eliza ta
Fueroen kaltian.

Bañan ikusirikan
zerbait istoriya,
ikasi nuben zerbait
maitatzen egiya;
maitatzen Fueroakin
euskaldun erriya,
maitatzen euskera ta
zure familiya.

Eta Tolosako Emeterio Arrese olerkariari onela esangozion andik urteetara:

Ni ere itxu nengoanian
ez negon baratz dontsuban,
damu det bañan ibilli nitzan
osin beltz kondenatuban.

Baiña konbertitu egin zan, eta bai dotriña berria biotz sutuz artu ere. Andik aurrera eta il arte, karlista purrukatua izan zan. Erderazko esaera ezaguna da: *«más papista que el Papa»*. Ramos Azkaraterengatik ere zera esan dezakegu: Don Karlos bera baiño karlistagoa zala.

Edozein moduz, arek bere politika euskeraz predikatzen zuan. Eunka eta eunka bertso moldatu zituan bere irizbideak

zabaltzearren. Andik urteetara ortan nabarmenduko zana, Kepa Enbeita izango zan. Baiña Ramos Azkaratek bertso geiago atera zituala uste det. Kontatu ditut eta iru milla ta bosteunetik gora dira. Ala, Xalbador zanarengatik norbaitek esaera gogoangarri bat atera zuan: uraxe izan zala bertsolarietan olerkariena eta olerkarietan bertsolariena. Itz-joku orren antzekoa egin dezakegu, bada, tolosar bertso-jartzaille ugari onentzat ere: bera izan zala bertsolarietan politikoena eta politikoetan bertsolariena.

Politika-bertso oietan orduko politika-gizon askoren izeinak agertzen dira: Nocedal Romea, Cánovas, Gamazo, Tirso Olazabal, Cerralbo, Sánchez Toca, Eusebio Zubizarreta, Joakin Maria Arana, Llorens, Frantzisko Zeberio... Oietako batzuk karlistak dira; besteak, berriz, liberalak, integristak, republikanoak... Bakoitzaren argibideak emen ematea ondo legoke, baiña ez du merezi. Denbora geiegi joango litzaiguke zeregin ortan. Bertan esaten danetik atera bearko du irakurleak aitatzen dan ori zein alderdi edo koloretakoa zan eta abar. Edo, bestela, iztegi edo entzikoplediaren bat azter dezala.

Gertakizun baten berri emango degu, ala ere, aren zipriztiñak Ramos Azkarateren bertsoak betetzen dituzte eta. Karlisten gerra ondoko buruzagia Kandido Nocedal izan zan. Pake-zale purrukatua bera; ez gerra-zalea. Botoen bidez ekarri bear zala Don Karlos; ez tiroen indarrez. Irizbide oiekin lan asko egin zuan. Baiña 1885-ean il zan.

Urrengo buruzagia Francisko Navarro Villoslada nobelista izan zan, *Amaya* nobelaren egillea. Baiña bereala utzi zuan kargu ori. Urrena Don Karlosek lau jeneral izendatu zituan: Cavero, Maestre, Martinez-Fortún eta Valdespina. Azkeneko au, Ermuko eta Astigarragako jauregi ederren jabea zan.

Izendapen au gaizki artu zuan Nocedal-en semeak, Ramon Nocedal Romea-k alegia. Buzuzagitza beretzat nai zualako, batzuek diotenez. Orduan zer egin zuan? On Karlosek gerra-denboran, 1874-an, Naparroako Morentin erritik zabaldutako

agiri bat illunpetik atera zuan, eta an esaten ziranak liberal kutsua zutela salatu. Au zera zan: Aita Santua protestantea zala esatea bezelatsu. Ramon Nocedal karlista alderditik bota egin zuten. Berak orduan alderdi berria sortu zuan, Erregeagatik ajola etzitzaiona eta *integrista* izena artuz. Edo, Ramosek esaten dienez, *intrigoak*. Asieran jarraitzaille asko izan zituan Nocedal-ek, eta karlismoaren zugaitz zaarrak adar aundi bat orduan galdu zuan.

El Cántabro orrek argitara ematen zituan bertsoak geien-geienak Ramos Azkaraterenak izaten ziran; baiña aldizka beste firmaren batzuk agertzen dira: Kintin Larrañaga, Baleariano Mokoroa eta abar. Ramosek, berriz, era askotara firmatzen zuan: *Ramos Azkarate*, *Ramos Azkaratekoak*, *R. A. O.*, *Urrengo-arte*, *O. A. R.*, *R. Arranz-illun*, *Ur-zale batek*, *Gaiñtxurisketak*, *J. Zabalhidekuak*, *Iruretan-goienak* eta abar eta abar. Baiña bere izen-abizenak izkutatu arren, benetako egillea nor zan bereala igerriko zion irakurleak, aren bertsogintza ain ezaguna eta nabarmena zan ezkeru.

Auzitara

El Cántabro orrek, 1894-III-1-ean, onela adierazten zien bere irakurleei:

«Al bardo éuskaro D. Ramos Azcárate le ha procesado el juzgado de esta villa a petición de D. Patricio Orcáiztegui, cura párroco de la misma, D. Pedro Aldalur, D. Juan Bautista Pagadizabal y D. Francisco Felipe, párrocos también de Azcoitia, Régil y Amézqueta respectivamente....

Por supuesto que hay quien asegura que el proceso obedece a que los querellantes quieren volver por su honra, que suponen ultrajada en unos versos que hace un año publicó el expresado Ramos».

Ramos Azkarateren aurka alkar artu zuten lau apaiz jaun oietan famatuena On Patrizio Orkaiztegi zan, punta-puntako euskalzalea garai artan.

Apaiz jaun oiek beren izen onagatik ari omen ziran, baiña auzitegian beste arrazoibide bat agertu zuten, *El Cántabro*-k adierazten duanez:

«Pero se nos figura que para pedir la reparación del supuesto ultraje, no era necesario denunciar la falta de que no hubiera cumplido el autor de aquellos versos con el requisito que ordena la Ley de Imprenta de que se presenten tres ejemplares a la alcaldía.

Sin este requisito parece que se considera la publicación clandestina.

Y este hecho, denunciado por los citados querellantes, ha sido motivo de procesamiento contra Ramos.

¿Se repara con ello la honra que suponen ultrajada los querellantes?».

Ez degu uste. Baiña ona nola bukatzen duan *El Cántabro* aldizkariak idazlantxo ori:

«Felicitamos a nuestro amigo Ramos por la persecución de que viene siendo objeto.

Acuérdese de aquello que en otros tiempos le decía uno de los que hoy le persiguen: Más méritos contraes cuanto más se ensañen contra ti».

Ori esaten ziona, ziur aski, On Patrizio Orkaiztegi Tolosako erretorea izango zan. Jaun au ere, beste ainbeste bezela, karlista izango zan leenengo, eta Ramos Azkarateren adiskide-a ere bai. Baiña gero integrista egingo zan, Ramosen ezten-kadak artu ere bai, eta azkenean alkarren arteko artu-emanak oztu egingo ziran.

Integristak *El Fuerista* izeneko egunkari bat ateratzen zuten Donostian. Egunkari au, Ramos auzitegira eramana zala jakindakoan, txaloka asi zan, onela esanez:

«Bien merecido lo tiene. Era hora de que se le sentara bien la mano a ese pajarito que a pretexto de las verzas no hace otra cosa que dirigir ataques personales a todos los integristas, especialmente a los

sacerdotes. *Que escarmiente de una vez y no se meta en camisa de once varas».*

El Cántabro-k onela erantzun zion Donostiako El Fuerista orri:

«Puede que el pajarito, a pesar de haberle sentado bien la mano, alce más su vuelo aún y desde lo alto descubra mejor todavía entre las verzas, que se dice El Fuerista, los rastros de muchas babosas integristas.

Sin que para ello le sirva de estorbo esa camisa de once varas.

Que al fin y al cabo le vendrá muy bien para abrigarse, envuelto en ellas, contra el frío que en torno suyo quieren producir algunos santos varones».

El Fuerista-k onela zion:

«El mencionado señor lo que hace en sus escritos es ridiculizar aquellos actos que no debían ser ridiculizados ni censurados, entrando en un terreno que le está vedado y que aparte de todo “no lo entiende”. De donde resulta que los disparates de sus escritos son más grandes y dignos de que la justicia intervenga en ellos».

Eta El Cántabro-k erantzun:

«Lo que hace Ramos es exponer ciertos actos de los nocedalinos, que nadie puede ridiculizar, porque son en sí muy ridículos, impropios de quienes alardean del puritanismo ese de que tanto se jactan los nocedalinos.

Y si los escritos de Ramos son dignos de que la justicia intervenga en ellos, acudan a ese medio los que se crean ofendidos, pidiendo que se les devuelva su honra, si es que resultase ultrajada, lo cual les ha de ser imposible justificar; porque nuestro amigo tiene buen cuidado de no ofender a persona alguna, sobre todo a quien se halla revestido de dignidad sacerdotal.

Pero denunciar, como han hecho los nocedalinos, simples delitos que consisten en haber faltado a trámites gubernamentales que señala la Ley de Imprenta, eso es muy poco noble.

En cualquiera; pero mucho más aún en los que se llaman discípulos predilectos de Jesucristo».

Donostiako Auzitegiak emandako epaia eskuratu aal izan degu, makinaz idatzita, eta iturria onela adierazten duala: «Cfr. Arch. parroquial Tolosa, Sec. A. Neg^o. 1^o, Aptd^o. b. Exped. n^o . . .) Luze samarra izango da, baiña merezi du onera osorik aldatzea, tarteka komentario batzuk egiñez:

«Sentencia:

En la Ciudad de San Sebastián a 6 de setiembre de 1894, en la causa que por delito de injurias graves por escrito y con publicidad que, procedente del Juzgado de instrucción de Tolosa, pende ante esta Audiencia, entre partes, de la una el procurador D. Alejandro Artiz, en representación de los querellantes don Pedro de Aldalur e Iriarte, D. Francisco de Felipe y Munita, D. Juan Bautista de Pagadizabal y Toledo, y D. Patricio de Orcaiztegui e Ichaso-Asu, curas párrocos y vecinos respectivamente los tres primeros de Azcoitia, Amézqueta y Régil, y cura ecónomo y vecino el último de Tolosa; y de la otra el procurador D. José María Aguirre, en nombre del procesado Ramos Azcarate y Otegui, conocido por Ramos, hijo de Melchor y Joaquina, natural y vecino de Tolosa, viudo, zapatero, de buena conducta, instruido, anteriormente procesado, sin que conste fuera penado, insolvente y en libertad provisional».

Emen esaten danez, ordurako alargunduta zegoan, zapataria zan, ongi portatzen zana, eskolatua eta leen ere auzitara eramana, naiz eta etzan kondenatua izan. Ondoren onela jarraitzen du:

«Vista en juicio oral y público, habiendo sido ponente el Presidente D. Joaquín Castro Ares.

1^o. Resultando que en 7 de febrero último el procurador D. Policarpo Arribillaga, representando a los querellantes, obcurrió (sic) ante el Juzgado de Tolosa, entablado querella criminal contra el procesado como autor de unos versos impresos en vascuence, y constan en autos con la traducción al castellano, que circularon públicamente y en los que, aludiendo, dice a sus representados, a quienes, sin nombrar-

les, se determinaba o señalaba con los groseros motes de Trampan-lur, de Azcoitia, o sea “Engaña-mundos” al señor Aldalur, “Por-diru-zabal”, de Régil, “Todo por dinero” al señor Pagadizabal, “Patrio de Tolosa” al señor Orcaiztegui, Y “Felipe Prascu de Amezqueta” al señor Felipe, se les injuriaba gravemente diciendo “que son lobos disfrazados de pastores y viven cómodamente y quieren vender a los demás; a quienes no se les debe reconocer por padres; hombres de perversos propósitos, que pertenecen a la masonería, y a los cuales ordena el Fuero que se les mate; hipócritas, que han perdido la vergüenza; embusteros, que han olvidado los mandamientos; perjuros, que obran con falsía, trampas y engaños; sectarios, que andan en malos pasos”; cuya querella fue admitida después de presentada la correspondiente certificación del acto conciliatorio celebrado sin avenencia, y sustanciada por todos sus trámites, como así se estima probado».

Bertso oiek kanta-paperetan zabaldu ziran, eta 166 orrialdean arkituko ditu irakurleak. Zenbait arrazoi erderatu egiten dira, baiña ez legunduz edo gozatuz, leenaz gain zorrozuz eta ozpinduz baizik. Pake-pakean konponketa batera iritxi asmoz ere alkarrengana bildu omen ziran, baiña alperrik. Urrena:

«2º. Resultando que el procesado confesó haber hecho dichos versos, publicándolos después, por creer hacía uso de un medio de propaganda política para conseguir mayoría de votación en favor del candidato carlista que apoyaba en contra del integrista en las últimas elecciones generales de diputados a Cortes, sin que su ánimo, como así también lo entendieron los mismos testigos presentados por la acusación, fuese aludir a nadie y menos a los querellantes, que no eran conocidos por tales apodos, y a quienes estaba dispuesto a dar toda clase de explicaciones, reconociendo el buen concepto público de que gozaban, y así se declara probado».

Garai artan gaur bezela ziran gauzak, beraz: politikan, auteskundeen aurretik, zernai esatea libre... Onela jarraitzen du:

«3º. Resultando, que la representación de los querellantes acusó al procesado como autor del delito de injurias graves hechas por escrito y con publicidad, sin circunstancia alguna modificativa de cri-

minalidad, pidiendo se le impusiese la pena de 4 años, 9 meses y 10 días de destierro a un radio de 80 kilómetros de Tolosa, multa de 2.000 pesetas y costas procesales».

Ondo berotuta zeuden Ramosen aurka, arentzat ainbeste-ko zigorra eskatu baldin bazuten. Dударик ez da aien naia zer zan: ura nola edo ala ixil araztea. Baiña aurrera jarrai deza-gun:

«4º. Resultando, que la defensa del procesado en sus conclusiones definitivas, solicitó la absolución de éste, con imposición de costas a los querellantes, por no ser ofensivos para ellos ninguno de los conceptos vertidos en la hoja impresa, ni para persona alguna determinada, circunstancias que acreditaban la temeridad de la querrela».

Oi danez, alde bakoitzak berari komeni bezela adierazten zituan gauzak. Esaera zaarrarena, beraz: «Nork bere astoari arre». Urrena, epaillearen txanda:

«1º. Considerando, que calificándose por la parte querellante el hecho de autos, como delito de injurias graves, hechas por escrito y con publicidad, previsto en los artículos 471, nº. 2º, 3º y 4º, del 472, y castigado en el 473 del Código Penal, es indudable que no son de aplicación en este caso dichos preceptos legales; porque, aun cuando constan vertidos conceptos más o menos ofensivos y afrentosos de que fue autor el procesado, y que determinándose las personas contra quien fuesen dirigidos, elemento esencial y uno de los constitutivos del delito de injuria no encubierta, pudieran precisarla, desconociéndose completamente quiénes son las individualidades indicadas de la manera que aparecen en la hoja impresa, o a quienes se refieran, no siendo, además, conocidos los querellantes por los motes que se emplean, y negado por el acusado tuviese intención de aludirles, es evidente la falta de motivo legal que funda la persecución y corrección de dicho delito, por la sencilla razón de que no existe, procediendo en su consecuencia la desestimación de la querrela».

Giroa Ramos Azkarateren alde jartzen asia zan. Epaia nolakoa izango zan errez igerri zitekean:

«2º. Considerando que, en atención a lo expuesto debe decretarse la absolución del procesado con las declaraciones de derecho;

3º. Y considerando, que tampoco puede apreciarse mala fe en el proceder de los querellantes, y a su vista no procede la imposición de costas a los mismos.

Vistas las disposiciones legales citadas, artículos 142, 239, 240, 741 y 742 de la Ley de Enjuiciamiento criminal,

FALLAMOS, que debemos absolver y absolvemos libremente en esta causa a Ramos Azcarate y Otegui, conocido por Ramos, con las costas de oficio, dejando sin efecto y canceladas las obligaciones y fianzas que hubiere prestado a consecuencia del procedimiento.

Así, etc.^a., etc.^a....

(Notifica el 7 de setiembre de 1894).

Es copia de minuta. Alejandro Artiz (rubricado)».

Epai ori entzunda, ez dago esan bearrik Ramos Azkarate pozik geldituko zala, eta lau apaizak goibel.

Kanpaiak bueltaka jarriko zituana *El Cántabro* aldizkaria izango zan, noski. Baiña aldizkari orren guk erabili degun kolezioan, 1894-IX-6-ko alea antxe dago, 116-garren zenbakia alegia; eta urrena 119-garrena da, 1894-IX-16-koa. Bi falta dira, beraz: 117 eta 118; eta albiste pozgarri ori, epaileak Ramos errugabe eta aske utzi zuala alegia, zenbaki oiek emango zuten.

Ala ere, Ramosen sentimentuak zer izan ziran, berak esaten digu, andik iru urtera, *El Cántabro* itxi aurretik jarritako bertsoetan:

Eraman ere izandu naute
erri batetik bestera,
da esatea *Kaifasenetik*
iru *Ponzion* aurrera;
nola onrarik galdu ez niyen
libre ta lasai ostera...
Ardi bat baño umillago ni
etorri nitzan etxera.

Pottaje-ren eraso

Ama Birjiña Doloretakoari jaiera aundia izan dio beti Tolosako erriak. Kofradi bat ere bazan izen orrekin. Elkarte orren dirua biltzeko ardura integrista batek zeukan: Ruperto Rezolak. Baiña kofradiko zuzendariak, zergatik ez dakigula, kendu egin zuten, eta beste bat jarri.

Orduan integristen egunkariak, *El Fuerista*-k alegia, idazlanen bat atera zuan, onelatsu esanez: kofradi ortako zuzendariak, geienak beintzat, karlistak zirala; diru-biltzaillea, berriz, integrista, eta orretxegatik kendu zutela; ori Eliz-gauzekin politika egitea zala eta abar.

El Cántabro-k, etzala ori egia erantzun zion; leengo diru-biltzaillea integrista baldin bazan ere, berria ere alaxe zala, zera zan ezkeror: «*el mismísimo conserje del Círculo nocedalino de la plaza de Santa María*»; ori garbi jokatzea zala; integristak, berriz, aspalditik ari zirala bidegabeko lanetan; Rezolak bere egitekoa betetzeko astirik etzuala eta konserje orrek laguntzen ziola diru-biltze ortan; eta gero soldata erdi-bana partitzen zutela; aien *Círculo*-ra iñortxo ere etzala joaten; eta bestela ezin eta orrela, kofradiko diruekin, osatzen ziotela ogibidea beren kontserjeari; orixe zala Eliz-gauzekin politika egitea. Eta bukatzeko onela zion:

«Puesto que resulta ser un hecho el que de antes sacaban de ella (kofraditik, alegia) los nocedalinos siquiera para potage, como suele decirse, del conserje de su Círculo».

Itz oiek ezten zorrotza zuten. Konserje orri *Pottaje* esaten baitzioten gaitzizenez. Idazlan ori iñoren firmarik gabe agertu zan; baiña, itxura danez, oso ezagun zuan Ramos Azkarate beste jaberik etzuala. Ori igandeko zenbakian agertu zan, 1896-ko martxoaren 25-ean. Urrengo asteazkenean zer gertatu zan *El Cántabro* aldizkariak kontatzen du, osteguneko zenbakian, 1896-III-29-an.

Ramos paseatzen zijoan, arratsaldero bezela, Ibarako erria igaro eta Berastegiko kamiotik Belauntza aldera. *Pottaje* orrek oitura orren berri bazekian eta zai zegoan, izkutuan jarrita. Ramos gizarajoa periodikoa irakurtzen zetorren, lasai asko.

Parera irixtean, *Pottaje* orrek sekulako ukabilkada eman zion arpegian. Ramos lurrera erori zan erdi kordegabetuta. Ala ere, *Pottaje*-k jo eta jo jarraitu zuan, bere amorrua ezin aserik. Emakume bat gertuan zan eta, ori ikusiz, karraxika asi zan. Orduan *Pottaje*-k alde egin zuan Tolosa aldera. Gero jakin zanez, *Pottaje*-k ordubete baiño geiago egin zuan Ramos-en zai.

Orregatik, onela epaitzen du *El Cántabro*-k: «*De manera que el acto se ha realizado con premeditación, alevosía y ensañamiento*».

Irazusta mediku jaunak egin zion Ramosi leenengo sendaketa. Baita Ibarako epaile jaunari gertatuaren berri eman ere. Baiña, zoritxarrez, ez degu iñun arkitu epaille orrek zer erabaki zuan.

***El Cántabro*-ren bukaera**

El Cántabro aldizkariak 1893-II-25-ean izan zuan asiera, astean bi aldiz kaleratzen zan eta 1897-XII-29-an etorriko ziztaion bukaera. Karlista alderdiaren buruzagien erabakiz eta aginduz bukatu ere, noski. Ala adierazten du azken zenbakian agertu zan eskutitz onek:

*«San Juan de Luz 26 Diciembre 1897
Sr. D. Francisco Zeverio
Director de El Cántabro
Tolosa*

Mi distinguido correligionario y amigo: al suspenderse la publicación de su periódico, que tan valiente y desinteresadamente ha defendido durante cuatro años los principios simbolizados por la bandera carlista, tengo que cumplir un deber de gratitud y de justicia,

No olvidaremos los carlistas guipuzcoanos que cuando nuestros adversarios, alentados por una escisión que mermaba nuestras fuerzas, pretendieron dar el golpe de gracia al carlismo, El Cántabro fue quien desde ese valiente distrito de Tolosa sostuvo lo más rudo de la pelea.

Por eso, hoy que cede su puesto de honor a otra publicación llamada a continuar en mayor escala sus esfuerzos, es justo que envíe a Ud. y a todos sus dignos colaboradores el testimonio de nuestra gratitud.

Como lo ha hecho El Cántabro, El Correo de Guipúzcoa defenderá ante todo y sobre todo la causa de Dios Nuestro Señor y de su Santa Iglesia, observando la más absoluta intransigencia con el liberalismo, fuente de los errores modernos.

Defenderá en segundo término los intereses de la Patria, cuidando de que en esta defensa no se abandone ni uno solo de nuestros venerandos fueros.

Sostendrá, en fin, los derechos del Señor que, puesta la mano sobre los santos Evangelios, renovó, por decirlo así, en Villafranca, el pacto que nos unió a Castilla.

No dudo que coadyuvará Ud., con el entusiasmo de siempre, al buen éxito de esta empresa, y termino repitiéndome suyo afectísimo amigo y correligionario

Q. B. S. M.

Tirso de Olazabal».

Eskutitz ori arreta pixka batekin irakurtzen bada, karlismoaren lau oiñarriak edo sustraiak azaltzen zaizkigu: Jaungoikoa, Sorterria, Fueroak eta Erregea.

Eta orixe da Ramos Azkaratek bere bertsoetan aldarrikatzen zuan dotriña ere. Aldi artan, *El Cántabro* orri azken agurra eman bearrez, dozena bat bertso argitaratu zituan:

despedidako agur bat egin
bear dizuet bada nik.

Alde batetik triste, baiña bestetik pozaz zegoala esaten du. *El Cántabro*-ren ordaiña Donostian aterako zala. Eta barkazioa eskatuz bukatzen du:

Nai ez detala bost urteetan
badet ezertan paltatu,
agur, karlista biyotzekuak,
barka nazute, barkatu!

Adurriaga anaien esku-idatziak

El Cántabro-ren ordaiña, *El Correo de Guipúzcoa* egunkaria alegia, Donostian eta 1898-ko Urte Berri egunarekin asi zan. Baiña leenengo urteko aleak etziran jaso bertako Udal-hemerotekan. Ramos Azkaratek egunkari ortan bertsozik kaleratuko zuala ez dago duda egiterik. Bertso oiek betiko izkutatatuak ote ditugu, beraz? Kuba eta Filipiñak urte artan galdu ziran, eta Ramosek gertakizun oietzaz zer irizten zion jakin gabe gelditu bearrak al gera? Ez, bada. Utsune ori beteko zuanik izan zan, zorionez.

Adurriaga izeneko bi anai baziran garai artan Tolosan: Fakundo eta Timoteo. Fakundo orrek, txapel-fabrikan lanean ari zala, beso bat galdu zuan, eskubia gaiñera, oker ez bagaude. Andik aurrera *Besamotza* esango zioten.

Bi anai oiek oso bertsozaleak ziran. Ala, batek esku esku-biarekin eta besteak ezkerrarekin, bi album aundi bertsoz bete zituzten. Orregatik, *Auspoa Liburutegi* ontan aien aitame-nak maiz samar egiten dira, iturrien berri ematerakoan. Bestela betirako galduko ziran bertso asko, anai aiei eskerrak salbatu ziran.

Album oietako batean, oker ez bagaude Timoteok idazitakoan, Ramos Azkarateren zenbait bertso-sail arkitu ditugu. Egillearen izenik ez da esaten, baiña aita nor duten ez dago dudarik. Urterik ere ez daukate apuntaturik, baiña 1898-koak dira. Donostiako Udal-hemerotekan falta dan urte ortakoak alegia. Ori nola dakigun? Kuba eta Filipiñak galdu ziraneko albisteak eta komentarioak sail oietan ematen diralako.

Timoteo Adurriaga orrek *El Correo de Guipúzcoa* egunkari-ko aleak eskuratuko zituan; eta aietan agertzen ziran Ramos Azkarateren bertsoak artu eta bere album ortan kopiatuko zituan. Sail guziak ez, bearbada, baiña askotxo bai, gure zorionerako. Adurriaga arek etzuan asko pentsatuko zer mesede egiten zigun andik eun urteren buruko tolosarrei eta euskaldun guziei.

El Correo de Guipúzcoa

Karlisten egunkari au, 1899 urtearen asieratik aurrera, Donostiako Udal-hemerotekan gordetzen da. Beraren orrialdeetan Ramos Azkarateren bertso-sail asko arkitu ditugu. Urte ortatik eta eriotzak eraman zuan artean, ortxe izan zuan bere emaitzak kaleratzeko bidea.

Egunkari ortan beste bertso-jartzaille batzuk ere agertzen ziran: Ramon Artola, Pepe Artola, Kaietano Sánchez Irure, Jeronimo Elizegi, Jose Marino Arrieta, Jose María Eguren eta abar eta abar.

Oietako batzuk etziran karlistak, liberalak edo republikanoak baizik. Ala ere, jartzaille aiei bost ajola zitzaien egunkariaren kolorea; eta egunkariak ere etzion begiratzen jartzaille-en koloreari. Nola edo ala euskal bertsoak jendearen eskuetan jartzea zan, dudarik gabe, aiek nai zutena. Ori zala-ta, egunkariak eta aldizkariak bertso asko argitaratu zituzten garai artan.

Baiña beti ere kaletar bertso-jartzailleen bertsoak. Baserri-tar jendeak ere bertso asko ematen zituan argitara garai artan. Baiña aiek egunkari eta aldizkarietan, eta auek bertso-papere-tan. Aietakorik etzan auen taldera pasatzen, eta auetakorik ere ez aiengana. Alkarren arteko arreman gutxiko bi mundu ziran, beraz.

Zuzendari

Irakurlea oartuko zanez, zenbait aldiz *director* esaten zaio Ramos Azkarateri; zuzendaria, alegia, *El Cántabro* orrena.

Beste toki batean, berriz, 1896-III-15-ean, onela esaten du aldizkari onek: «*Nuestro director D. Francisco Zeverio...*».

Leenengo bat eta gero bestea izan ote ziran, beraz? Ez dakigu zer esan. Edozein moduz, ortik atera ditekena zera da, gure iritzirako beintzat: Ramos Azkaratek, amaren bularretik ikasitako euskera ez-ezik, erdera ere ondo zekiala, gaztelerazko aldizkari batean zuzendari-lanak egin aal izateko.

Leen ere adierazi degunez, *Pottaje* ura bere onetatik atera zuan idazkia ere etzegoan euskeraz, erderaz baizik eta firmarik gabe. Baiña edozeiñek bazekian, itxura danez, ur orren iturria nun zegoan.

Auzitegira berriz ere

El Cántabro aldizkariak, 1897-IV-25-ean, onela esaten du:

«*Estamos de enhorabuena nosotros y la justicia por cuanto la Audiencia de San Sebastián ha dictado fallo de libre sobreseimiento en la causa incoada contra nuestro director D. Ramos Azcárate a resultas de la denuncia de un escrito publicado en el número correspondiente al día 28 de Enero último*».

Zenbaki ori arretaz aztertu degu. Baiña or, gure iritzirako beintzat, betikoa dago: integristen eta *La Voz de Guipúzcoa* egunkariaren kontrako eztenkada zorrotzak ugari... Oietako zein izan zan aldi ontan gure Ramos epaillearen aurrera eramateko aitzakia? Aske atera zan eta gaitz erdi. Baiña auzitegirako bidea ondo ezaguna izango zuan...

Antzerkigille

Leen esan degunez, Ramos Azkaratek bi antzerki ere moldatu zituan: *Ijitoen kontratuba eta ezkontza* eta *Beotibarko jatzarraren oroipena Gaon judubaren galerarekin*. Auspoa-ren 197 zenbakian argitaratu genituan, itzaurrean aiei buruz zenbait berri emanez. Jendearekiko lanak bukatutakoan antzezla-

riak berentzat zer ospakizun egin zituzten ere, egillea tartean zala, an esaten genduan.

Berri oiek ere oso kontuan artu bearrak dira, gure Ramos obeto ezagutu aal izateko. Irakurleak badaki, beraz, nun arkituko dituan.

Gaixorik

El Cántabro aldizkariak, 1896-VII-8-an, albiste goibela ematen zien bere irakurleei:

«Nuestro querido director D. Ramos de Azcárate sufrió en la noche del sábado último otro ataque idéntico al anterior en San Sebastián, hallándose en casa de una hermana suya a la cual había ido a visitar. Alarmado el médico a quien llamaron a visitarle, mandó darle el Santo Viático, que le fue administrado a las diez de la noche del expresado día.

Repuesto del ataque que sufriera, tuvimos el gusto de saludar al tan famoso bardo éuskaro en ésta anteayer (Tolosan, alegia), que llegó por el tren mixto de la tarde».

Leenago beste atakeren bat ere izana zuan, beraz. Baiña leenengo ori noiz edo nola gertatu zitzaion ez degu iñun arkitu.

Andik urtebetera gaitza berritu egin zitzaion. Onela dio *El Cántabro*-k, 1897-X-13-an:

«Nuestro muy querido director D. Ramos Azcárate ha sufrido un nuevo ataque de la enfermedad que desde hace algunos años viene sufriendo; pero afortunadamente se halla en estado relativamente satisfactorio».

Eta 1897-X-17-an:

«Tenemos la satisfacción de participar a los lectores de este periódico que nuestro queridísimo director D. Ramos Azcárate se halla ya completamente restablecido del último ataque que le obligó a guardar cama durante algunos días».

Zer gaitz ote zeukan? Atake oiek zer ote ziran? Galdera oien erantzunik ezin emango degu.

Aurreko urtean, 1896-VIII-2-an agertutako bertso-sail batean, onela dio gure tolosarrak:

Etsiya nago urte askoan
ez naizela ni biziko...

Eta 1896-X-18-an, politika alde batera utzi eta bere buruaz mintzatzen zaigu bertso batzuetan. Izena onela duan saila da: «*Zer errukarriya dan gizon gazterik zartutakua!*». Eta firma: *Gazterik zartutako batek*. Bere buruaz kezkatzen asia zegoan, beraz:

Etorkizunan daukat jarrita
neronen pentsamentuba.

Sail ortan bere ajeak azaltzen ditu: labean sartuta ere ezin da berotu; oiera joan eta eztulka ezin ixildu; trikuban gisan borobilduta oiko zuluana egon bear; eta abar. Gazterik zaartu da, beraz, berrogei ta sei urte besterik ez du eta. Baiña ortaraiño nola erori ote da?

Gabaz ibiltzen nintzalakoan
iñoiz oiaren igesi...

Urrengo urtean, 1897-X-17-an, bere osasunari buruz ari dala. beste berri txar batzuk ematen dizkigu:

Beak metuta, loditu zaizkit
aurrea eta bizkarra,
naiz pixu oiek ibillitzeko
auzoan izan indarra;
zuri-zuriyak nola ditudan
illeak eta bizarra,
ez al dirudit, adiskideak,
bakallo-saldan aparra?

Ortara zerk ekarri du?

Odeietako izar argiyak
kontatzen ibillitziak.

Baiña bere buruarekin ezin egin oiñetakoekin ainbat aldiz
egin izan duana:

Zolu erdiyak urratu eta
zolu erdiyak itsasi.

Ala ere, naiz eta osasun txarra izan, beste mundura alde-
giteko gogorik ez du:

Eta Don Karlos datorren arte
nai nuke munduban bizi.

«Luzarorako bizirik» ez duala ondotxo daki, iñork esan
gabe ere. Orregatik:

Lengo Fueruak betoz agudo
illtzeko pozaz beterik.

Adurriaga anaien idatzietan arkitutako sail bat bere ama
zanari eskeintzen dio. An onela esaten du:

arro banintzan umildurikan
arki naiz gaurko egunean.

Eta:

arkitutzen naiz kale erdian
bakartasun txit tristean.

Alargundu egin baitzan, emaztea noiz il zitzaion ez bada-
kigu ere; eta azken urteak Erruki Etxean igaro zituan.

Aren gain-beerakoa laister asi zan, beraz; eta bera ongi
konturatzen zala. «O zein ituna dan beera bear au!» idatziko
zuan andik urteetara Tolosan bertan beste olerkari batek. Itu-
na eta tristeza izan zan Ramos Azkaraterena ere.

Aita Justo Maria Mokoroa zanak –Tolosako semea, daki-gunez– zera esan zidan bein batean: bere ama zanari onela galdetu izan ziola:

–Ramos Azkarate ura zer gizon-modu zan?

Eta amak erantzun:

–Ura zer zan? Bere buruari opa etzion bat.

Mokoroak onela jarraitu zuan:

–Itz oiekin zer esan nai zuan ez dakit.

Esatera ori, izan ere, alakoxea da. Ezer ere esaten ez duana dala juzga diteke; eta, denbora berean, dana esaten duana. Baiña, gure iritzirako, bere buruari kontu egiten etziola adierazten dute itz oiek. Berak ere gauza bera aitortzen du ataltxo ontan aitatu ditugun bertsoetan.

Erruki Etxean

Leenago adierazi degunez, Ramos Azkarate Erruki Etxean edo Egoitzan il zala beraren il-agiriak esaten du. Alargundu eta osasunez on-ezik zebillen ezker, nunbait ere babesa bi-llatu bear.

Etxe ori erri-sarreran zegoan, Donostitik gatozela ezker-rrera, Oria ibaia pasa aurretik, San Juan Arrameleko elizaren ondoan. Andik urte gutxira jarriko zuten gaur egunean dagoan tokian: Yurramendi muñoaren gaiñean, Tolosak duan lekurik ederrenetako batean.

Baiña leengo etxe zaarraren paperak arretaz gordetzen dituzte, eta argibide jakingarri bat aietan arkitu degu:

«Agosto 21, 1899

Azcarate Otegui Ramos ingresó con papeleta de la alcaldía hasta su curación, es natural de Tolosa, viudo de Isabel Barrera, de 52 años, zapatero, hijo de Melchor, natural de Villarreal (Álava) y de Joaquina, natural de Villabona.

Murió: Marzo 26, 1904».

Lau urte t'erdi egin zituan, beraz, etxe ortan. Osasuna gain beera zijoakiola oartuko zan, noski. Baiña bertso jartzeari leen bezin gogotsu eltzen zion. Leen bezelatsu jarraitu zuan ortan. Gizon arek bertsoa arnasa bezin bearra zuala esan diteke.

Garai artan Donostiako *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian agertzen zituan gure jartzaille onek bere bertsoak. Eta orxe, ain zuzen, tarte luze samarra ikusten degu.

Bertso-sail bat 1899-ko uztaillaren 31-n, San Inazio egunez, atera zuan; eta urrengoa, Azaroaren 11-n, San Martin egunean. Etenaldi luzetxoa gure Ramosentzat. Bere etxetik Erruki Etxera orduan aldatu zan eta orregatik izango da.

Eunka bertso jarri zituan andik aurrera ere. Bera il eta andik bi egunera Azkarateren lau bertso argitaratu zituan *El Correo de Guipúzcoa* egunkari orrek, Tolosako Jose Eloseggi jaunari eskeiñiak; txapel-fabrikako nagusiari, alegia. Itxura denez, egunkari ortan artean etzekiten bertso oien egillea mundu ontako lanak egiña zala. Zera esan nai du orrek: azken gaitza oso laburra izan zuala. Leen adierazi degunez, il-agiriak biotzekoak eraman zuala esaten du.

Erruki Etxean bizi zalarik jarritako sailen artean, bada bat berezi samarra: bertsoan moldatu zuan Gurutz-bidea. Artean gaztea zan Eduardo Mokoroa musikalariaik –Tolosako semea bera ere– doiñua jarri zien, eta Garizumako igande eta ostiraletan urteetan kantatu ziran. Elizkizun ortara jende asko biltzen omen zan. Ez legoke gaizki, gure iritzirako beintzat, oitura eder ori berrituko balitz. Ain zuzen, bertso eta doiñu oiek liburu ontan eskeintzen ditugu.

Il-berria

Ramos Azkarate il eta andik iru egunera, 1904-III-29-an, idazlantxo au agertu zan *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian, aren eriotzaren berri emanez:

«Ramos Azcárate

Acaba de bajar a la tumba uno de los tipos más populares del suelo vascongado. Su vida, trabajada por los accidentes de una varia fortuna, semeja la del bohemio que vive errante y sin fija orientación por entre el engolfado mar de hombres para los cuales está de más el mañana, y en quienes parece cumplirse a la letra aquella saludable monición de las Sagradas Letras que reprocha todo desmedido celo de adquisición de bienes temporales.

Por eso, Ramos jamás se preocupó de lo porvenir. Bien sabía él que mientras hubiera una providencia en la tierra, vascongados en Euskera y un Elósegui en Tolosa, el seguro de su vida estaba suficientemente garantido.

Poeta de rasgos mejor ingeniosos que brillantes, allí donde había una reunión, una fiesta, su presencia provocaba a modo de conjuro las más francas manifestaciones de simpatía y cariño. Y de tal modo encarnaba los sentimientos del país, que chicos y grandes, el menestral como el acaudalado propietario, rendían parias a su ardorosa inspiración. Sobre la brillante plataforma del casino como encaramado en la bisunta mesa de la taberna, Ramos era el ídolo de las muchedumbres, que le aplaudían frenéticas de entusiasmo.

Si no estuviera tan reciente la memoria de su muerte, con gusto trasladaría aquí aquellas populares y celebradas estrofas que son el regocijo de las gentes y que empiezan:

*Eta galtza aundi,
eta galtza aundi,*

pero quédense éstos y otros saladísimos pensamientos de su fecundo numen para otra ocasión más apropiada que la presente.

A muchos habrá sorprendido estos días la noticia de su muerte. Nada ha habido en ella de anuncios de su enfermedad; nada de ese fárrago de noticias con que a diario llenan los periódicos sus columnas con los pormenores de la vida de los que fenecieron. Todo ha pasado con el silencio pavoroso del olvido. No lo sé, pero presumo que una pobre mortaja habrá cubierto su cuerpo; que cuatro amigos le habrán acompañado a la última morada y que al contemplar la fría despedida que se le ha hecho, dirán con el poeta: ¡Oh qué solos se quedan los muertos!

*Descanse en paz el popular bardo, el tradicionalista de corazón,
el hijo amantísimo de Vasconia.*

Folk Lore».

Gure iritzi batzuk

Odol beroko gizona zan gure Ramos Azkarate; eta aren biotza, beti gori-gori zegoan labea. Eta arrazoiak, berriz, ondo zorrozitutako ezpata baten kolpeak ziran. Gure tolosarraren esanak aldizka gogorregiak zirala? Baietz esan genezake. Baiña bai indar aundikoak ere. Sendotasun ori zan berak nai zuana, beste ezer baiño geiago. Ala, bertsogintzari, rimari eta abar, etzion batzuetan arreta geiegirik jartzen. Aren eztenkadak, ordea, artzen zuanarentzat mingarriak izango ziran, noski.

Ala, bitan edo irutan auzitara eramana izan zan, leen esan degunez. Orrek zera esan nai du: aren bertsoak etzirala pol-bora utsa, barruan bala zorrotza zuten tiroak baizik. Orregatik, bene-benetan eta serio artzen ziran.

Leen ere an edo emen esan izan dedanez, bertso-jartzaille baten emaitzak, bertso asko baldin badira beintzat, garai artako kronika bezela ar ditezke. Ala, Ramos Azkarateren bertsoak ere urte aietako kondaira erakusten digute; baiña ori bai: gauzak alderdi politiko baten ikuspegitik ikusita.

Aren arrazoibideak, orain eun urteren buruan irakurrita, parregurea ematen digute sarritan. Baiña ez dezagun parririk egin. Politikaren kontuak, izan ere, egun batetik bestera igartzan diran loreak dira. Ordukoak irakurrita guk irriparra egingen badegu, berdin egingo dute gaurko burrukengatik gure ondorengoak.

Aren bertsoetan azterka asten badira, beren politikarentzat arrazoi egokiak arkituko dituzte gaurko politika-alderdiak, bai alde batekoak eta bai bestekoak. Bertso borobillak ditu, izan ere, euskal eta espaiñol abertzaletasunagatik. Bi sentimentu oiek le-

kua zuten, beraz, aren biotzean. Baita garai artako gaiñontzeko bertso-jartzailleetan ere. Sentimentu oien alkar ezin ikusia gero etorri da. Mesederako ala kalterako? Geroak esan beza...

Abertzaletasuna aitatu degu. Baiña Ramos Azkaratek ez du itz ori bein ere erabiltzen, Sabino Aranak edo norbaitek geroztik sortua dan ezkerero. Gure tolosarrak *sorterritasuna* esaten du; eta oso egokia iruditzen zaigu, guri beintzat.

«Fuerista izatekotan bearko izan karlista». Orixe da Ramos Azkarateren sail baten izenburua. Eta pentsamentu ori bein eta berriro arki diteke bere bertsoetan. Zera esatea da: «guretarra ez dana billau bat da». Baiña beste alderdiak ere alamoduzko esaerak zituzten, liburu ontan ikus diteken bezela. Adibidez: «Moroa lenago karlista baño» Ezin diteke olakorik onartu. Baiña belar txar ori indarrean dabil gure artean. Diktadura utsa da. Bide ortatik ez da pakerik gugana iritxiko.

Ain zuzen, ona Tolosako errian zer gertatzen zan. Gipuzkoako iriburu zaar onek lau bertso-jartzaille oparoak eman ditu: Ramos Azkarate au, karlista purrukatua; Ramon Artola, liberala; Emeterio Arrese, errepublika-zalea, oker ez bagaude; eta Luis Rezola “Tximela”, nazionalista edo jeltzalea. “Zenbat buru, ainbat aburu”, alegia. Eta lauak fuero-zaleak, lauak euskaltzaleak. Aurrerabidea ortik izango du euskerak, gure iritzirako beintzat.

Bide batez esan dezagun Tximelaren eta Artolaren bertso-liburuak leendik argitara emanak ditugula. Azkaraterena onako au eta urrengoa. Arreserena falta zaigu, baiña orren txanda iritxiko da noizbait ere.

Ramos Azkaratereren bertso-oparotasunetik ez degu politikarik jaso bear. Ez da ori aren bertsoak uzten diguten altxor eta ondarea. Zer ote da, bada? Berak esan nai zigun ura, predikatzen zuan sermoia alegia, bazterrera gelditu da, oraingo politikariena geratuko dan bezela; darabilen euskera da aurre-aurrean jarri bear deguna, biotz-biotzez estimatuz.

Garai artako euskaldunak beren erriko euskera jakiten zuten; eta beste euskalkien berri ezer gutxi, batetik bestera ibiltzeko erreztasunik etzegoan eta. Ramos Azkaratek ere Tolosa-ko euskera erabiltzen zuan geien-bat; orixe da bere bertsoetan eskeintzen diguna; orixe zan orain eun urte paseak Gipuzkoa-ko iriburu zaarraren kaleetan entzuten zan izkuntza. Dokumentu bezela dute baliorik aundiena liburu ontako bertsoak.

Gauza bera beste era batera esan dezagun: Ramos Azkarateren bertso-bilduma gurdi-kargatu bat da. Baiña orain, eun urteren buruan, ikusten degunez, gurdiak geiago balio du aren kargak baiño. Izkuntzak geiago balio du, izkuntza ortan esaten diranak baiño.

Bertso-jartzaille aren ugaritasuna arritzekoa da, noski. Eta kontuan ar dezagun eziñezkoa dala aren bertso guziak biltzea. Batzuk, betiko galduak izango dira; eta besteak, gure eskuetara baiño iritxi gabeak, baiña denborarekin azalduko diranak. Guk ala nai genduke, beintzat.. Bilduma osoa egiten aalegindu gera, beraz; baiña oso-osoa ez da izango. Zerbaiten faltan geratuko zala dudarik ez da.

Liburu au irakurtzen asteko bear ziran argibide guziak emanda daudela uste det. Itzaurre oni amaiera emango diot, beraz. Baiña ar dezadan ortarako orain berrogei ta bi urte, 1961-ean, *Auspoa*-k Ramos Azkarateri eskeiñi zion liburua-ren itzaurrea bukatzeko esaten nuana:

«Munduan bizi zala, ala esaten omen zun: “Zeruan, jai aundiren bat danean, euskeraz itzegiten dute”. Beraz, Ramosentzat beti jai aundia izango da an goian».

A. Z.

Esku-idatzi eta bertso-paperak

Auxen da lana! (I)

I

Nere maitia Donostiyan
dago joan dan aspaldiyan;
urturik nago gau eta egun
beti bere inbidian.

Istribillua

*Eziñ nezake, eziñ nezake
iñola gaizkirik esan,
zerengatikan maiteagorik
ez dezakean nik izan.*

Ikusitzean kalean
aur ori pare-parean,
alako doñu triste-triste bat
jartzen zait biyotz nerean.

Istribillua

*Jakindu ditut, jakindu ditut
maite politaren miñak;
zeluetatik izan ditugu
guztiz kontu desberdiñak.*

Zortzi urtean nork daki
zer kezka degun iduki:
eziñ ikusi, eziñ itzegiñ
eta bestetik urruti?

Istribillua

*Ai gure kartak, ai gure kartak
izanagatik zintzoak,
orra nun dauden denak penatzen
biyorengatik gaxoak.*

O zer naitasun aundiya!
O maitetasun lodiya!
O amodiyo neurri gabea,
estali zoragarriya!

Istribillua

*Elkar ikusi kalian eta
su artutzeko zoriyan,
bestarik iñor bai ote dago
orrela Euskal Erriyan?*

Etorri zan Donostira
egiñik itxasoz jira;
esku emanda egondu giñan
elkarri pozaz begira.

Istribillua

*Gero etxera joan giñaden ta
lendabiziko izketa,
biyok oñazez, biyok negarrez
amore eman ezinta.*

Akelartarrak platikan,
kiñuka sukaldetikan,
gure ezkontza sagradu ori
eragozteagatikan.

Istribillua

*Etzait kenduko, etzait kenduko,
etzait kenduko kezkarik,
zerengatikan maite politik
ez dubelako kulparik.*

Bukatu dira kontubak,
kontu txit mirarritubak;
ez ote gaitu elkarganako
egunen batez zerubak?

Istribillua

*Beñepeñ oraiñ, beñepeñ oraiñ
arkitzen gera galdurik;
mundu onetan ez da izandu
biyorentzako gustorik.*

Agur, maitetxo nerea,
Maiatz-illeko lorea,
maite zintzoa, maite garbiya,
maitetxo paregabea.

Istribillua

*Arren ta arren bizi gaitezen
alargun biren moduban,
istoritxo bat gelditu dediñ
beti-betiko munduban.*

Bertso-papera, *Tolosa: Imp. de E. López* moldiztegian argitara emana.

Bertso auk *Auspoa*-ren 7-garrenean, *Ramos Azkarate: Galtzaundi ta beste bertso asko* izenekoan alegia, azaldu genituan, bertso-paper ortatik artuta, eta Tolosako Timoteo eta Fakundo Adurriaga anaien esku-idazkietan ere bazeudela esanez; Adurriaga auk, ordea, lau bakarrik zituztela, eta oso ezberdin. Onek, laugarren bertsoaren ondoan, «Ramos Azkarate» idazten du; eta orregatik sartu genituan bertso auk Azkarateren liburu ortan, duda apur batekin bada ere.

Orain, berriz, zera eskatuko diogu irakurleari: urrengo bertso-sailla arretaz irakur dezala, eta bai ondotik emango ditugun argibideak ere.

Auxen da lana! (II)

II

Nere maitia Donostiyan
dago joan dan aspaldiyan;
arkitutzen naiz gau eta egun
beti beran inbiriyan.

Coro

*Ezin nezake, ezin nezake
gauza txarrikan nik esan,
baizikan nai det publikatzia
jendiak jakindu dezan.*

Egiten detanian topo
biyotzak egiten dit salto;
nere barrenen beste maiterik
sekulan ez zait sartuko.

Coro

*Biyok daukagu, biyok daukagu
geren denborako pena,
beste kulparik ez degulako:
alkar maitegi izana.*

Etorri zan estranjeritik
nerekin ezkontziagatik;
ala beñepin manifestatu
ziran biyotz-biyotzetik.

Coro

*Etzait kenduko, etzait kenduko
etzait kenduko kezkarik,
zeregatikan nere maitiak
ez duben batere kulparik.*

Nai ziotela galazi
maitiai niyon iritzi;
oiengandikan orrelakorik
ustez ez nuben merezi.

Coro

*Nere promesak, nere promesak
irten dirade alrebes;
biyotz gaxua arkitutzen zait
gau eta egun negarrez.*

Akabo dira kontubak,
biyok gaude penatubak;
baña arkitzen gera oraindik
guztiz enamoratubak.

Coro

*Ezagutu' itut, ezagutu' itut
maite politaren miñak;
zeluagatik izan ditugu
guztiz kontu desberdiñak.*

Ariyo, nere maitia,
ondotxo bizi zaitia;
fabore eizu beste iñorekin
ez akomodatutzia.

Coro

*Bestela ilko naiz, bestela ilko naiz
bestela ilko naiz zugatik;
bizik alargun bizi gaitezen
bakoitza bere aldetik.*

Irakurleak ikusi duanez, bertso aukeratuak bi aldiz moldatu zituan beren egilleak. Batean atera zitzaiona aurretik eskeiñita daukagu. Moldiztegiko bertso-papera danez, zera pentsa dezakegu: egilleak bertso oiek bere gustora borobil-dutakoan, orduan eramango zituala inprentatzera; bera degula, beraz, bi era oietan nagusia.

Beste au, berriz, esku-idazki batetik kopiatua degu. Letra eta paperaren itxuraz, orain eun bat urteko zaarra izango degu. Ez nuan apuntatu noren eskutik jaso nuan. Bertsoen aurretik onela dio:

«Tolosako Ramos Azkaratekoak lenen-lenengo egindako bertsoak bere emaztegaiari».

Bi argibide gogoangarri, beraz; bertso-sail onen aita nor dan, eta aita orren leenengo umea dala.

Amodioak, bearbada, ez du iñor olerkari egingo; baiña iñoren barruan illunpean dagoan olerkaria argitara atera arazi bai.

* * *

Leen esan degunez, Tolosako Fakundo Adurriagak sail ontako lau bertso ditu. Oiek, bigarren aldaera onengandik urbillago daude. Baiña aldaketaz josiak. Orregatik oso-osoirik jarriko ditugu emen:

Nere maitia Donostiyan
dago juan dan aspaldiyan:
gau eta egun arkitutzen naiz
beti aren memoriyan.

*Etzait kenduko, etzait kenduko,
etzait kenduko kezkarik,
zergatikan nere maitiak
etzuen bate kulparik.*

Etorri zan estranjeriatik
nerekin ezkontziagatik;
amoriyua manifestatu
zidan neri txit barrendik.
Etzait kenduko...

Asko ezin sufriturikan
aterarik zulo­tikan,
gure ezkontza sagradu ori
galerazitziagatikan.
Etzait kenduko...

Adios, nere maitia,
ondotxo bizi zaitia;
fabore in biazu beste iñforekin
ez akomodatutzia.

*Bestela ilko naiz, bestela ilko naiz,
bestela ilko naiz zugatik;
bizirik alargun bizi gaitezen
bakoitza geren aldetik.*

* * *

Istribillua eta *Coro* irakurri degu. Kantari batek lauko bat kantatuko zuan, beraz; eta urrengoa talde batek. Baiña bertso auek kantatzeko moldatuak izanik, talde bat biltzen eta osatzen zan egokiera edo festaren batean bearko zuan.

Eta orrela kantatzeko, doiñu bereziren bat ere izango zuten. Ea zokoren batetik azaltzen dan egunen batean.

Bertso Berriak

Tolosako Galtzaundik bere burubari jarriak

Neri deritzat Galtzaundi,
apellidua det Goñi,
Aldasoro izengoitiya
deitzen dirate neroni;
iltzerikan ez nuben
lenago pentsatzen,
bañan oraingotikan
ez naiz eskapatzen,
testamentu egitera
nua ni lenbailen,
nere parientiak
lasatu ditezen.

Aitaren, Semiaren,
Espiritu Santuaren,
Jaun Zerukuak lagun zaidala
lan onetan neri, arren.
Sentimentu bakarra
dadukat barrenen:
alaba ipurtaundiya
utzitzia emen;
orra neregatikan
oiek nola dauden,
Jaunak eraman nazala
zerura lenbailen.

Nere lengusu Pokofinori
nai diozkat bada utzi
nere eskatzeko estanteriya
bere jenero ta guzi;
bañan ango kristalik
ez dezala autsi,
bestela utziko dizkat
guziak Ramosi;
egiten badiote
jaun oni igesi,
laister juango zaizka
danak Rodriguezi.

Ni il da gero nere emazia
penaz ilko balitzake,
nere onduan enterratzia
iñola al balitz nai nuke;
eta gañian jarri
letra bat aundiya:
«Emen dago Galtzaundi
eta konpañiya;
poz aundi bat artu zun
Tolosako erriyak,
merkatu ziralako
ordun erariyak».

Entierrua nai det egitia
neri bigarren klasian,
lau zapatarik eramatia
gañera berriz aidian,
jota nabarra juaz
Enpero kalian,
sobrekamak balkoitan
naramatenian;
Arramele zubiyan
aizken-aizkenian
zagi bat ardo jarri
kajaren gañian.

Nik oraindaño egin izandu
dituan testamentubak
gaur bertatikan izango dira
aiek danak borratubak;
eta oraiñ firmatu
nere testigubak,
aditu baituzute
gaur nere kontubak,
ixillik idukiarren
nere sekretubak,
Dametako iturriyan
eran kuartillu bat.

4/1 lerroan *penaz* esan bearrean *pozaz* bear duala esaten duanik bada. Bearbada bai; baiña guk, aurkitu degun paperik zaarrenari jarraitzen diogu.

5-garren bertsoak, gorputzak kanposantura eramateko garai artako bidea esaten digu: Parrokiatik irten, eta Enpero kaletik barrena Arramale zubira.

6/11 lerroan *Dametako iturriya* aitatzen da. Rondilla kalean omen zegoan, Donosti aldeko muturrean.

* * *

Bertso-papera, *Reimpreso en Tolosa en la Imp. de E. López* moldiztegian argitara emana. *Reimpreso* baldin bada, ez da leenengo argitalpena. Baiña onen aurrekorik ez degu iñun aurkitu, eta guk ezagutzen ditugunetan auxe da zaarrena.

Beste argitalpen batzuk:

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea.

Bertso-papera, *Reimpreso en Irún en la Imp. de B. Valverde*.

Bertso-papera, *Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún*.

Bertso-papera, *Reimpreso en Bilbao en la Imp. de El Porvenir Vascongado, Jardines, 2, pral.*

Bertso-papera, *Guernica.- Imp. Artística Goitia y Hormaechea*.

Bertso-papera, *Guernica - Imp. Angel de Goitia*.

Tolosako Manuel Urreta zanaren eskuz idatzitako orritxo batean, sail ontako leenengo lau bertsoak.

Bertsolariya astekaria, 1931-X-4.

Onek eta onen urrengoak, geienak beintzat, doiñuari dagokion kantarte edo *estribillo* au dakarte, bi aldiz kantatzen dana:

Ta Galtzaundi, ta Galtzaundi,
apellidua det Goñi.

Argia astekaria, 1932-VII-10.

Euzkadi egunkaria, 1933-XI-17.

Euskalerriko Kanta Zarrak, I, Imp. Macazaga, Rentería.

Nere atsegiña, Librería Múgica, San Sebastián.

Bertso-papera, *Gráficas Izaskun - Tolosa*, izenburu onekin: *Galtzaundi / Organizado para las fiestas de Primavera de 1.957 / (Versos originales del Poeta Tolosano Ramos Azcarate)*. Sei bertso auen ondotik, *Zertarako oiekiñ ezkontzen zerate?* izenekoak ditu.

Auspoa 7, 1962.

Juan Garmendia Larrañaga: *Iñauteria El Carnaval vasco* liburuan.

El Diario Vasco, 1978-II-5, Juan Garmendia Larrañaga: *Carnaval* idazlean.

Argia astekaria, 1984-II-17.

El Diario Vasco egunkaria, 1984-III-4.

Zeruko Argia, 1985, 1048 zenb.

Aitatzetik merezi duan aldaketarik ez dute argitalpen auk.

Esan bearrik ez dago bertso auen beste argitalpenik ere izango dala.

Baiña *Ibaizabal* astekariak, 73 zenb., 1903-V-24-an, bertso auk oso aldatuta eskeiñi zituan. Orregatik, oso-osorik aldatzen ditugu onera.

Izenburua: *Zapatari baten aizkenaiia edo testamentua*. Bertsoak:

Neri deitutzen ditet Galtzaundi,
izengaña det nik Goñi,¹
Aldatxur-txoro izengoitizat
deitzen didate neroni;
iltzerikan ez nuben
iñoiz sinistatzen,
bañan gaitz ontatikan
ez naiz eskapatzen;
testamentu bat egin
nai nuke oraintxen,
nere aide lasaiak
estutu ditezen.

Ai, ai!, Aitaren ta Semearen,
Espiritu Santubaren,
Aita San Krispin, lagundu zadazu
neri lan onetan, arren!
Sentimentu aundi bat
badaukat barrenen:
alaba ipurt-aundia
utzitzea emen.
Jesus ta Jesus, Jesus,
Jesus milla bider!
Eraman, bai, eraman
zerura len-bait-len.

Nere lengusu Pokofiñori
nai niozkake nik utzi
eskaratzeko apaltea,
larru-zolu eta guzi;
bañan ango kristalik
ez dezala autsi,
austen baditu eman
guziak *Ramosi*,²
oni nai badeizkio
norbaitek erosi,
eraman zakuetan
Don Juan Rodriguezi.³

Ni il da laister nere andrea
pozaz illko balitzake,
nere ondoan lurperatzea
al baldin balitz nai nuke;
eta gañean jarri
letra txit aundiak,
esanaz: «Emen daude
senar-emaztiak,
sagardoaz eta matsez
osoro betiak,
beti burrukan bizi
ziran bi maitiak».

Entierrua edo illeta
egin bigarren klasian,
lau zapatarik eramatea
nai nuke berriz aidian;
jota nabarra joaz
Enpero kalian,
sobrakamak ipiñi
naramatenian;
Arramele zubian
aitzen-aitzenian,
zagi bat ardo jarri
kajaren gañian.

Nik lenagotik egin izandu
ditudan testamentuak,
nai nuke bada ber-bertatikan
izatea borratuak;
orain firma zazute
emen testiguak,
entzun banazkitzute
kontu sagraduak;
ondo ta ongi egin
nere aginduak,
ez dezan mokadurik
izan Juzgaduak

Tolosan, Maiatz-illaren 12-n.

Nork sartu ote zituan aldaketa auek?

* * *

Bertso-sail au, eta bai urrengoak ere, Ramos Azkaratek Iñauterietan kantatzeko moldatuak dira.

Bai kalean eta bai zezen-plazan ere, erri guziaren aurrera *konpartsak* azaltzen ziran. Lagun-taldeak izaten ziran oiek, eta mota askotakoak: baratzgilleak, artzaiak, ikasleak. langille maisuak, zapatariak, pelegriñoak, ijitoak eta abar eta abar, komeni ziran jantziak jantzita.

Ramos Azkaratek ogigilleak, baserritarrak, Ernioko euskaldunak eta erro-matarrak agertzen dizkigu urrengo bertso-sailletan. Kalez kale kantari ibiltze-ko moldatuak izango ziran, noski.

Tolosan ez-ezik, berdin egiten zan Donostian, Eibarren, Soraluzen eta abarretan.

Baiña Tolosan, beintzat, bertso oiek danak aaztu egin ziran, Galtzaundi-renak izan ezik. Auek bizi-bizirik jarraitzen dute, eta urtero kantatzen dira, 1880-tik 1890-erako Iñauteri baterako jarri ziran ezkeroztik.

Larogei ta amar urteko Tolosako andre bateri onela entzun genion: oraindik ere gogoan zuala nola txikitari ikusi zituan bertso kantari Ramos Azkarate eta Galtzaundi bera, Enpero kalean, Iñauterietan, beren kantua gitarra batekin lagunduz.

Galtzaundi oni buruz onela dio Juan Garmendia Larrañagak, bere *Iñauteria, el Carnaval vasco* liburuan:

«Cerca del puesto de trabajo de Ramos Azcárate, enfrente del portal hoy número dos, en sitio cedido por el Ayuntamiento y la propietaria del inmueble, Micaela Imaz de Arbiza, se sentaba, asimismo como zapatero remendón, Santos Goñi, conocido por “Galtzaundi” –pantalón grande-. En “Galtzaundi” teníamos a un pobre hombre, alto, enjuto, a quien los pantalones le caían ridículamente cortos.

Estos artesanos acostumbraban a trabajar mirando hacia el interior de su respectivo arco, teniendo, a sus espaldas, para resguardarse del viento y de la lluvia, una arpillera con marco de madera.

El Domingo de Carnaval, y esto lo podemos fijar allá por los años 1890-1891, la Banda Municipal de Música, dirigida por Rufo Montilla, a las dos de la tarde interpretaba dos obras en la Plaza de Idiáquez. A continuación se dirigía a las puertas de la casa número uno –antes dos– de la Calle Santa María, donde en el primer piso derecha –desde el año 1938 convertido en única planta– vivía ‘Galtzaundi’, sin que con esto, como es de suponer, queramos decir que fuese ésta su única residencia (sabemos que ‘Galtzaundi’ tuvo también su domicilio en la ya mentada casa número dos de la Plaza de la Verdura o de Carlos VII.

En la Calle Santa María, ejecutada una pieza, Goñi obsequiaba a los músicos con una copa de anís. Seguidamente se interpretaba el Galtzaundi, mientras, en el interior del anillo formado por los músicos, el matrimonio Goñi realizaba un simulacro o pantomina de baile. Pero esto no lo harían sin antes haber dejado en el suelo una bandeja con sus copas y botella».

Eta oar batean:

«Estos detalles nos han sido facilitados por don Pedro Elósegui Hidalgo. Elósegui vivió en la calle Santa María, en la casa contigua a la ya citada de 'Galtzaundi', y recuerda asimismo a Ramos Azcárate –algo cojo–, a quien fija su residencia en la casa número 24 de la calle Mayor».

Bigarren bertsoak aitatzen duan alaba ipurtaundiya, Madrilleko pikadore batekin ezkondu omen zan.

¹ Iruñako Miserikordi edo sasikoa. (*Ibaizabal*-en oarra).

² Arkupe zarretako zapataria. (*Id.*)

³ Arkupe berrietako zapatero makettoa. (*Id.*)

Berso Berriak

Tolosa-go Galtzaundie bere burubari jarriac

1

Neri deritzat galtzaundi
Apeliidua det Gohi,
Aldasoro izen goitiya
Deitzen dira neroni;
Itzerican ez nuben
Lenago pensaizen,
Bañan oraingotica
Ez naiz escapatzen,
Testamentu eguitera
Nua ni lembailen,
Nere parientiac
Lasatu ditezen.

2

Aitaren Semiaren
Espiritu Sautubaren,
'aun zeruac lagan zaidala
Lan onetan neri arren;
Sentimentu bacarra
Daducat barreren,
Alaba ipurtaundiya
Utzitza emen;
Orra neregatican
Oyec nola dauden,
Jaunac eraman nazala
Zerura lembailen.

3

Nere lengusu pocoffinori
Nai diozeat bada utzi,
Nere escatzeco estanteriya
Bere genero ta guzi;
Bañan ango cristalic
Ez dezada ausi,
Bezela utzico dizcat
Guziac Ramos-i;
Eguiten badiote,
Jaun oni iguesi,
Lazter juango zaizea
Damac Rodriguez-i.



4

Ni ilda guero nero emazia
Penaz illeo balitzaque,
Nere onduan enterratza
Inola atbalitz nai nuque;
Eta gahian jarri
Letra bat aundiya,
Emen dago galtzaundi
Eta compañaia;
Poza aundi bat arut-zun
Tolosaco erriyac,
Mercatu ciralaco
Ordun erariyac.

5

Entierrua nai det eguitia
Neri bigarren elasian
Lau zapataric eramatia
Gañera berriz aidian;
Jota nabarra juaz
Empero calian,
Sobrecama balcoitan
Naramatenian;
Arramele subiyen
Aizquen aizquenian
Sagui bat ardo jarri
Cajaren gahian.

6

Nic oraindaño aguin izandu
Ditean testamentubat,
Gaur bertatican izango dira
Ayec danao borratu;
Eta orain firmatu
Ere testigubat,
Aditu baituzute
Gaur nere contubac;
Isillic iduquiarren
Nere secretuac,
Dametaco iturriyan,
Eran cuartillu bat.

6 - GALTZAUNDI

HABANERA

Aire de Habanera.

f Ta Galtzaun-di, ta Galtzaun-di, A-pe-lli-du-a det Go-ni Ta Galtzaun di ta Galtzaun
Sol m. Re un. Sol m. Re m. Si b Sol m.6 La 7 Re m. Sol m. Re m. Sol m.

di A-pe-lli-du-a det Go-ni. Neri de-ri-tzat Galtzaun-di A-pe-lli-du-a det Go-ni Al-da-so-
Re m. Si b Sol m.6 La 7 Re m. La 7 Re m. Do 7 Fa
p *cresc. molto*

dim. roizengolti ya Deitzen-di-ri-te-ne-ro-ni. ni. It-tze-rikenez nu-en Lo-go pentze-
Do 7 Fa La 7 Re m. Re *f* La 7

tzen Bañanoreingo-likan Sol6 Eznaitz eskapa-tzen Tes tzentuog-i-te-ri-n Nu-ni len-bai-len. Ne-
Re La 7 Re La 7 Re La 7 *mf*

CODA 1. re pari-en-ti ak La-sa-tu di-te-zen. zen. Ta Galtzaun *D. C.*
Si m. Si 7 Mi m. La 7 Re Re Sol m. *Allegro*
2. -zen. Re *ff*

Galtzaundiren piztuera

Ill nintzalako aspaldi
pozaz zendeten kantari,
bañan piztuta orra etorri
Zaragozatik Galtzaundi;
egon nintzan kafian
txit ninduten maite, (*gutxi*)
uste nuben nintzala
ango sobrestante;
ontziyak garbitutzen
nizkaten txit merke:
zigarro-punttak eta
mantenuben truke.

Beti nengoan kezketan,
lotan berriz ametsetan,
emazte gabe ezin etsiya
juan dan aspaldi onetan:
beñere ezin kendu
zitzaidan burutik,
gaitzak emanda ere
gendela urruti,
izan degubelako
elkar maite beti, (*gutxi*)
oñez bire gutziyak
nituben idiki.

Iritxi nintzan etxera
familiya ikustera,
andre gaxua azkar etorri
zitzaidan neri aurrera;
eman giñokan esku
elkarri txit gogoz,
barrena beterikan
neukala nik ardoz;
gero kaballeruak
atera or datoz,
beeraño jetxitzeko
mesedez Galtza-plost.

Orduko nenguen oyian
mozkorra pasa artian.
Emaztia:
«Goñi, ojuka ari zaizkitzu
kaballeruak atian».
Senarra:
«Esan, esan jaun oiri
ia zer dan kausa,
itzegiteko obia
dala bigar goiza;
eta gauba soseguz
nai detala pasa,
egi bat esateko
ez naizela gauza».

Emaztia:

«Entzun bezate, kaballeruak,
nere senarrak zer diyon:
naiago omen du gau guztiyan
pake gozuan lo egon.
Ez omen da, ez, kapaz
oraiñ jekitzeko,
kostunbre txarra dauka
beti mozkortzeko;
orrelako gizonak
dira lotsatzeko,
lagun ederra daukat
ondo bizitzeko!

Gau on pasatu, kaballeruak,
oraiñ banua oiera,
senarrari nik egiñ deiotan
konbeni zaidan galdera.
Ondo dakite nor dan
lendandik Galtzaundi,
nola ibillitzen zan
beon farragarri;
ezpadit Aragoitik
dirurik ekarri,
matsetan jarriko det
txori-izugarri.

Nere Galtzaundi maitia,
nun daduzkatzu gordiak
Zaragozati ekarritako
Carlos tercero-n urriak?».

Senarra:

«Etzaitia zu egon
gauza orren kezketan,
ugari ekarriya
or dago maletan,
ez banaiz ari beiñtzat
oraiñ ametsetan,
denak zuretzat dira
bigar amarretan».

Emaztia:

«Ondo lo egiñ, Galtzaundi,
amore eman alkarri,
bigartandikan emango diyot
jende guztiyai arpegi.
Baldiñ zuk orrenbeste
badezu ekarri,
goiza etorritzeko
guztiz nago larri;
bazkari aunditxon bat
bearko det jarri,
gure ontasun oien
alabantzarri».

Urrengo goizian:

Senarra:

Zer ordu ote da, nere Fermina,
arren, egizu galdia.

Emaztia:

Nere Galtzaundi, or diotenez,
ia amarrak aldia.

Senarra:

Bart arratsian ala
egiñ nuben amets:
aberastu nintzala
Zaragozan errez;
maleta beterikan
zeguala urrez,
eta zu an zeundela
diru airi farrez.

Senarra:

Egiñkizuna badet nik
etxe onetan oraindik:
gauza guziyak partitutzian
alde egingo det emendik.

Emaztia:

Etzan lotan egondu
gizon bat zuzena,
Aldatxoro izena
jarri zizubena;
gauza bat bakarra da
emen dezubena:
zapateruen maia
ankik ez dubena!

Emaztia:

Zer diozu zuk, pikaro txarra?
Egiñ dezula ametsa?
Ni engañatzen ez nago bada
zuk uste beziñ errexa.
Zuazkit etxetikan
kanpora agudo,
ondo asperturikan
naukazu lenago;
alfer bizitu zera,
ala nai're gero;
etzaitut ikusi nai
aurrian geiago.

Senarra:

Ezkondu ezkeroz etxe onetan
diraden gauza guztiyak
legez ta bidez neriak dira
oriyen erdi-erdiyak.

Emaztia:

Ere diña beñere
ez dek bada egiñ,
oraiñ ere gau ta egun
zurrutian abill.
bizkarrian autsiko
dizkiat bi makill,
iri ezer eman bañan
naiago nitek ill.

Senarra:

Zure makillan bildurrik
etzait arkitzen barrendik,
Zaragozatik ekarri eta
puñal bat emen daukat nik.
Odolak iyakiten
asitzen badira,
azkar jarriko zaitut
zerura begira;
maia baño geiago
neriak badira,
elkar ill gabetanik
goazen Justizira.

Emaztia:

Nai baldiñ badek juezengana,
orobat alkatetara,
oraiñ beñepeñ ar zak jipoia
ama-alabak emanda.
Eldu, eldu, alaba,
makilla banari,
ederra emateko
mozkor txar oneri.

Senarra:

Oi! Oi! Utzi nazute
Jainkoatik neri!

Emaztia:

Ez, ez, eskallean bera
ortxen joan ari!

Senarra:

Andria nagusi ikusitzia
nere biyotzak damu du,
nere buruba nik illko nuke
baldiñ balorerik banu.
Bi aldiz ill ezkeroz
gaitza da piztutzen,
argatik eriyotzak
nau ni txit bildurtzen;
ezpanau emaztiak
agudo artutzen,
«¡Abajo las mujeres!»
asiko naiz deitzen.

Entzun dirazu, nere emaztia,
aitzeneko arrazoya.

Emaztia:

Ez, ez, iretzat ati au ziok
beti-betiko itxiya».

Senarra:

Abajo las mujeres
deabruz josiyak,
ai illda bazendete
zeraten guziyak!
Josafatan izango
ditugu auziyak,
an konponduko zaitu
zuzen Justiziyak.

Au kantatu ta sagardoteira joan zan.

Ramos Azkarate-kuak

Esku-idazki zaar bat, Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jaso. Bera izango da bertso auen iturririk zaarrena, guk arkitu ditugunetan beintzat.

Esku-idazki au letra garbi eta dotorez idatzita dago. Eta bukaeran firma bezela onela dio: «*Ramos Azcarate-cuac*». Noren eskuz idatzita ote dago paper ori?

Tolosako Fakundu Adurriaga zanaren bilduma, eskuz idatzia au ere.

Onek aldaketa batzuk baditu; baiña ez dute aitaterik merezi.

Ibaizabal astekaria, 1903-VI-14. Onek ere aldaketa batzuk baditu; baiña euskera *garbitzearren* norbaitek sartuak. Ez dute onera aldatzerik merezi.

Bertso-papera, *Imp. de Orúe, Eibar* moldiztegian argitara emana.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, baiña leen izango zuan bearbada, azpiko ertza ebakita du eta.

Tolosako Manuel Urreta zanaren beste esku-idazki bat; onako au, uste degunez, berak bere eskuz egiña.

Auspoa 7, 1962.

Zorioneko Karnabalak

Coro:

Aurtengo Karnabaletan
gutziz gabiltza neketan,
danok kontratu onetan;
konformaturik arkitzen dira
letu diran kondizioetan,
iruki gabe penetan
ezkondu ditzagun gaur bertan,
gerta gaitezen bodetan.

Ezkontzaren enkargatuak:

Au da gertaera berriz,
orain lenbiziko aldiz
inpedimentua zaldiz.

Nobiyak:

Al bada, jauna, naiago nuen
ontan gertatu ez banitz;
itzak emanik bi aldiz,
utziko nuke au berriz,
gauza okerra ez balitz.

Nobiyuak:

Nai nazula ni utzi,
ez dezu pentsatzen gutxi,
kontratua dute itxi.
Zertako etzera lenagotandik
gauza ori pentsatzen asi?
Itzak emana ta guzi,
ni izango naiz lenbizi,
pruebak orain erakutsi.

Sententziatuak:

Letu dirate sententzia,
aditzen det agonia,
Jesus, miserikordia;
emakume batengatikan
kentzen dirate bizia;
egin dirala faltsia
badaki mundu guziak;
au da nere desgrazia.

Nobiyak:

Egin dizudala faltsiya,
ez da bada ori egiya,
geldi zaitez igarriya;
aitak eta amak kulpak dituzte
ni egotia nobiya,
daudela miseriyen,
artzeko gizon argiya,
mantentzeko familiya.

Sententziatuak:

Ez dezula asko sentitzen
klaro dizut nik igartzen,
garboz ai zera kantatzen;
ni il da gero asiko zera
gizonarekin dantzatzen;
ez nuben nik au pentsatzen,
munduba det despeditzen,
bañan onraz naute iltzen.

Ezkontzaren enkargatuak:
Biar dizutet nik galde
ote zeraten konforme
egiteko gizon ta andre;
erantzun ere bear dezute
boz klaroan ta txit firme.

Nobiyak:
Bai, jauna, konforme gaude
egiteko alkarren jabe
batere lotsarik gabe.

Ezkontzaren enkargatuak:
Ez kondurikan zaudete,
alkar maitatu zazute
bizitzeko onradamente.

Eltziakikoak:
Zuen suertia oraintxen laister
ikusit biar dezute:
desiatzen al dezute
puska egitia abundantante?
Nobiyak:
Jauna, ori nai genduke.

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik.

Bertso-sail au, eta ondorengo beste batzuk ere bai, Iñauterietarako moldatuak dira, lagun-talde edo *konpartsa* batek komeni zan arropak jantzi eta kantatzeko.

Bertso auek antz aundia dute Ramos Azkarateren *Ijitoen kontratuba* antzerkian agertzen diranekin. Biak, bertso-sailla eta antzerkia, Inauterietarako moldatuak dira. Bertso-sailla jarriko zuan aurrena, lagun-talde batek kantatzeko; eta azkenerako antzerkia moldatu.

Eltzearen kontua zera da: ijitoak eztaietan eltze bat gora botatzen zutela, eta erortzen utzi; eta zenbat puska egiten zan, ainbeste urterentzat zala beren ezkontza, Ramos Azkarateren *Ijitoen kontratua* antzerkian ageri danez.

Auspoa, 7. 1962.

Bertso Berriak

Ijito-ezkontza

Koroa:

Aspalditxoko urteetan
ibilli gera neketan
kontratu eder onetan.

Eskribaba:

Gutziz konforme arkitzen dira
dituzten kondizioetan.

Gurasoak:

Iduki gabe kezketan,
ezkondu bitza gaur bertan,
dantza gaitezen benetan.

Ezkontza galerazi naiak:

Nere Frantziska Ignazi,
portatzen zera txit gaizki,
salduba naukazu noski;
legez ta bidez zure ezkontza
bear dizut eragotzi;
itzak emana lenbizi,
nai nazu mutill zar utzi,
Luzifer beziñ itsusi?

Ez dubelako baliyo
ni ez naiz gezur-jariyo,
txit benaz ari naitzayo.
Arren!, mesedez Frantziskatxori
berorrek esan bizayo;
berak erantzungo diyo
ote ninduben nobiyo
edo faltsiya dariyo.

Eskribaba:

Gezurretan edo egiz,
agertu zaizu gaur zaldiz
erazgozpen bat ausardiz.

Nobiya:

Ai, bada, jauna, naiago nuke
onela arki ez banitz;
agindu niyon bi aldiz,
utziko nuke au berriz,
gauza okerrik ez balitz.

Nobiya:

Nai nazubela zuk utzi
ez dezu pentsatzen gutxi,
kontratuba dute itxi.
Zertan etzera lenagotandik
orrela mintzatzen asi?
Itzak, karta eta guzi,
zu ote zera lenbizi?
Pruebak oraiñ erakutsi.

Sententzi gogorrak:

Letu ditet sententziya,
aditzen det agoniya,
Jesus, miserikordiya!
Frantziska zatar onengatikan
kentzen dirate biziya;
neri egiten faltsiya
daukate erakutsiya,
au da nere desgraziya!

Nobiya:

Egon zintezke etsiya
 ez dala ori faltsiya,
 pikaro gaizki aziya.
 Negar oiekiñ nai dezu artu
 Frantziskatxoren graziya;
 zure gaurko kutiziya
 deabruba da guziya,
 Judas bezin itsusiya.

Sententziatubak:

Zer da nerekiñ gertatzen?
 Iñortxok ez nau maitatzen,
 guziyak naute saldutzen.
 Zeru ederra, abia zaitetz
 milagroren bat zuzentzen;
 ez det besterik arkitzen
 danikan nitzaz kupitzen;
 orixen dizut eskatzen.

Ai, ai! Gure erregea,
 biyotz onaren jabea,
 kupitu bedi ordea!
 Arren ta arren, arren mudatu
 beza dadukan fedea;
 naiz, bada, kulpa gabea,
 umezurtza bat pobrea,
 egiyen adiskidea.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabe, Tolosako Jose Maria Esnaolaren eskutik jaso.

Bertso auek antz aundia dute *Ijitoen kontratuba eta ezkontza* izeneko antzerkian (*Auspoa* 197) azaltzen diran bertsoekin. Eta bai onen aurreko saillekoekin ere. Leen ere esan degunez, Ramos Azkarate Iñauterietarako bertsoak moldatzen asiko zan, eta denborarekin bi antzerkiren egille izatera iritxi.

Eskribaba:

Jarri zaitetzte konforme:
 bi senarrentzat bat andre,
 irurok elkarren alde.
 Baietz erantzun bear dezute
 txit egiyaz ta txit firme;
 –Ez, jauna, ez, ez, ez gaude
 gauza orretan gu trebe,
 ez-eta iñoren mende.

–Bai, jauna, bai, bai, bagaude
 irurok elkarren jabe,
 batere lotsikan gabe.

Eskribaba:

Ezkondurikan zaudete,
 alkar maita ezazute
 eltziak nai duben arte.

Eltze-botatzalliak:

Etorkizuna eta fortuna
 ikusi bear zerate.
 Orain nai al zenduteke
 bizi munduba dan arte?

Ezkonberriyak:

Bai! Bai! Ori nai genduke.

BERSO

berriak

IJITO EZCONTZA

COROA 1. Aspañchoco urteetan
Ibilliguera nequetan
Contratu eder onetan:
ESCRIBABA. Guztiz conforme arkitzen dira
Dituzten condicioetan:
GURASOAC Iduqui gabe quezquetan
Ezconda bitza gaur bertan
Dantza gaiten a benetan.

EZCONTZA GA 2. Nere Francisca Ignaci
LERACI NA- Portatzen cera chit gaizqui
YAC. Salduba naucazu nosqui:
Leguez ta bidez zure ezcontza
Bear dizut eragotzi,
Itzac emana lembici
¿Nai nazu mufill zar utzi?
¿Lucifer becin itsusi?

3. Ez dubelaco baliyo
Ni ez naiz guezur jariyo
Chit benaz ari naizayo
¿Arren! mesedez Francisca-chori
Berorrec esan bizayo,
Berec erantzungo diyo
Ote nindubea uviyo
Edo falsiya dariyo.

ESCRIBABA 4. Guezurretan edo eguiz
Aguertu zaizu gaur zaldiz
Eragozpembat ausardiz:
NOVIYA ¿Ay bada jauna Nayago nuquef
Onela arqui ez banitz,
Agindu niyon bi aldiz
Utziaco nuque au berri
Gauza oqueric ez balitz.

NOVIYA 5. Nai nazubela zuc utzi
Ez dezu pensatzen guchi
Contratuba dute ichi:
¿Certan atzera lenagotandic
Orrela mintzatzen asi?
Itzac, carta eta guci,
¿Zu otezera lembizi?
Pruebac orañi eracutsi.

SENTENCI AC- 6. Letu ditet senten ciya
GORRA. Aditzen det agoniya;
¿Jesus! ¿Misericordiya!
Francisca zatar onengatican
Quentzen dirate biciya
Neri eguiten falsiya

Daucate eracutsiya
¿Au da nere desgraciya!

NOVIYA 7. Egon cintezeque etsiya
Ez dala ori falsiya
Picaro gaizqui aciya;
¿Negar oyequiñ nai dezu artu
Franciscachoren graciya,
Zure gaurco cuticiya,
Deabruba da guciya
Judas becin itsusiya.

SENTENCIATU 8. ¿Cerdá nerequiñ guertatzen!
BAC. Inorhoc ez nau maitatzen
Guciyac naute saldutzen:
Zeru ederra abia zaitze
Mitagoren bat zucencen,
Ez det besteric arkitzen
Danican nizaz cupitzen
Oriseñ dizut escatzen.


9. ¡Ay! ¡Ay! gure erreguea
Biyotz onaren jabea
¿Cupitu bedi ordeal!
¿Arren! ta jarren! jarren! mudatu
Beza daducan fedeaa,
Naiz bada culpa gabea
Une zurza bat pobrea
Eguiyen adisquidea.

ESCRIBABA 10. Jari zaitzte conforme
Bi senarrenzat bat andre
Irucoc elcarren aide:
Bayetz erantzun bear dezute
Chit eguiyaz, ta, chit firne;
Ez jauna, ez, ez, ez gaude
Gauza orretin gu trabe
Ez eta, inoren mende

Bai jauna, bai, bai bagaude
Irucoc elcarren jabe
Batere lotsican gabe

ESCRIBABA 11. Ezcondurican zaudete
Alcar maita ezazute
Eltziac nai duben arte:
ELTZE BOTA- 12. Etorquizuna eta fortuna
TZALLIAC. kusi bear cerate
Orañi ¿nai altzenduteque?
Bici munduba dan arte,

ENCONBERRI- 13. ¡Bai! ¡Bai! ori nai guenduque
YAC. Ramos Azcarate.



Tolosa, Ramos Azkarateren garaian, Napar zubia, Parrokia eta
Oria ibaia aurrean dituala, Izaskungo egaletik.

(Liburu ontatik: Jose Maria Tuduri Esnal: *Argazkiak, Tolosa, Fotografías (1842-1900).*)

Tolosako ogi-gillearen juanera

1.º

Irten gera kalera
guztiok lanera,
ibilliyaz kantari
ogiya egitera.

Zuentzat:

Galesti eta beltza
atso zarrarentzat,
zuriya eta merke
neskatx gaztientzat.

2.º

Kalerik kalerik kale
Tolosa gurean,
zoraturikan pozez
gabiltza lanean.

Kantari:

Biotza eskañiyaz
aurtxo polit oidi,
nausiyak nai dubelako
gu ezkontzia sarri.

3.º

Orra amabi lagun
saldu naian pozik,
ez ote da izango
guretzat neskatxik?

Agudo:

Oraintxen gaude bada
ezkontzeko bero,
ez gure billa ibilli
oztu eta gero.

4.º

Saldu nai degu pozaz
onradu eta merke,
leku on banetara
juango giñake.

Maiteak:

Irikitzen gabiltza
zuetara bideak,
egiten ote geran
senar-emazteak.

5.º

Ezkontzen bazerate
gurekin gaizeman,
gogotikan biarko
subari aize eman.

Gañera:

Gizonaren ondotik
lenbizi lanera,
leamiya egin ta
sartzeko labera.

6.º

Astian bi ostiral,
ondoren larunbata,
izango dituzute
gurekin izanta.

Seguru:

Gañera zeok biar
gizona mantendu,
orain da denbora ta
gauz onari eldu.

7.º

Orra kondizioak
garbiro ipiñi,
konforme bazerate
agudo etorri.

Gugana:

Iritxitzian eman
txit triste laztana,
artuko dezutelako
gizon alper bana.

1.º

Au lana?

Ari gaitean ari
gogoz lanean,
dantzara joateko
arratsaldean;
jira ta bira
Plaza Berrira,
aurtxo politak ara
juango dira
txit pozez,
erantzutera guri
baitetz ta baitetz.

2.º

Ai!, ekusten ditugu
orrenbeste arpegi,
eguzkiyak bezela
eiten dute argi;
alde batetik poza,
bestetikan lotsa,
aur oiri eman bear
danok biotza.

3.º

Guazen, mutillak, guazen,
guazen aurrera,
esanaz badagola
emen aukera;
jende alferra
eta okerra,
zuen kontura jango
degu eperra;
bai, bai,
egunero orrela
degu bizi nai.

R. Azkarate

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman.

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bilduma.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, baiña Donostiako *Baroja* moldiztegian eskuratua.

Leenengo biak bertsoak berdin dituzte. Baiña irugarrenak *Donosti* idazten du, leengoak *Tolosa* dioten lekuetan, izenburuan eta 2/2 lerroan alegia.

Auspoa 7, 1962.

Kaleko birunka

Euskara maite degu
biotzetik asko,
beraren sabeletik
jaio giñalako;
aurrak ama gaixua
beti du maiteko,
bere bular biyetan
aziya dalako.

Onra guziyarekin
lenbizi gu gera,
Tubalekin ikasi
gendunak euskera;
izkuntza gorde degu
ordutik onera,
ala gerta dedilla
emendik aurrera.

Jaio zan Larramendi
ain zori onian,
euskera jarritzeko
bear zan oñian;
gero berriz Aizkibel
arren ondorian,
gorderikan dauzkagu
biyak barrenian.

Amak izandu dezan
beti osasuna,
aditu Larramendik
esaten diguna:
euskarai izateko
beti naitasuna,
eta ikasitzeko
dun edertasuna.

Martxa

Egiputzuan jaiuak gera
eta ez degu damurik,
Españi onek iñun bai al du
iskiñ au bezin ederrik?
Leku zelaiak arkitzen dira
erri politez jantzirik,
menditan berriz ikusten dira
jendez betiak basarrik,
o zer fabrikak lanketakuak,
kosta ederrak bestetik,
jendea franko etortzen dala
bañuetara or goitik.

R. de Azkarate

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik artuak ditugu bertso auek.

Auspoa 7, 1962.

Estudiantina Baserritarrak

Etorri gera gu basarritik
gure guraso onak
sokorritziagatik;
nagusiyari ez diogulako
aurten pagatu errentik,
despedida eman diote
ateratzeko etxetik.

Lotsatzen gera ostegunian
Tolosan ibillitzia
onela eskian;
kosetxarik ez degulako
izan aurtengo urtian,
argatikan arkitzen gera
txit nezesidadian.

Galtza bastuak eta mankutsik;
patrikarak ere daude,
dauzkagu utsik.
Tolosan ez ote da orain
errukitzen neskatxik,
botatzeko balkoitikan
pezetatxo bat pozik?

Danok gera zuen amantiak,
estudiantiak,
oraindik gaztiak;
len pasatuagatikan
ain egun tristiak,
orain kontsolatzen gaitu
zerbait bildutziak.

Ramos Azkarate

Lau bertso auek ere Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik artuak ditugu.

Auspoa 7, 1962.

Himnua

Tolosako zortzikua

Coro

Baguaz da baguaz,
baguaz kantari,
alegrantza emanaz
erri guztiari;
festa polit-polit bat
nai genduke jarri,
ikusi nai duena
plazara etorri.

Zortzikua

Saludatutzen degu
Aiuntamentua,
baita begira dagon
jende onradua;
pertsone asko ikusirik
gaude zoratuak,
ikusteko asmu
gure kontratua.

Gutziz noble ta leial
ta txit balerosa,
titulatutzen zaigu
gaur gure Tolosa;
izandua ta dalako
onen jenerosa,
meritu oiek guztiyak
mereziyak dauzka.

Tolosarrak geratu
ez degu nai gaitzik,
jendia umorian
jarritzia baizik;
plaza ontan ez da egin
orlako ezkontzarik,
gelditu biar dezute
gure ustez pozik.

Biba Tolosa eder,
Gipuzkuaren Ama,
Europa guztiyan
dadukazu fama;
onratutzera gatoz
danok zuregana,
emen jaio giñalako
daukagu afana.

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik.

Auspoa 7, 1962.

El Diario Vasco, 1985-II-14.

Erromara joan ziraneko kondiziyuak

Lartaunen eta erromatarren bainandiak

Lartaun:

Zuetatikan jarri
orain bost bat lagun,
bainandiak¹ ondo
tratatu ditzagun.

Coro:

Zerori bezin onik
bai al dago iñun?
Zuk egiten dezunera
utzitzen degu gaur.

Lartaun:

Beraz galdetutzera
nua bertatikan,
Antistio jaunari
bakar-bakarrikan;
ez dezute izango
nere peikarrikan²,
bainandiak jartzen
danon partetikan.

Coro:

Biba, biba Lartaun,
gure nagusiya,
libratzea nai duna
Kantabri guziya.

Lartaun:

–Aizazu, Antistio,
oraingo galdera:
zer itzetan juango
gera Erromara?

Antistio:

Augusto etortzian,
iñola al bada,
gauza bear bezela,
erabakiko da.

Antistio:

Galdutzen badezute
Erroman pelia,
berriz gertatuko da
gudako bidia.

Lartaun:

Gure alde gelditzen
bada onoria...

Augusto:

Libre utziko det nik
euskaldun jendia.

Lartaun:

Zer leku daukazute
Erroman jarriya,
peleatzeko danon
jende gudariya?

Antistio:

Guziok pasatzian
Tiberko ibaya,
zelai bat antxen dago
guztiz agiriya.

Antistio:

Peleatu bear da
itz orien legez,
eta emen bezela
txit gizontasunez.

Lartaun:

Naiz zelai ura bete
euskaldun odolez,
gu portatuko gera
beñepein onorez.

Lartaun:**Coro:**

Bildurrik gabetanik
Erromara guazen,
aitaren seme danak³
libratu ditezen.

Oktabiano:**Coro:**

Etzerate ertengo
lur ontan bezela,
Erromaren izena
borratu bestela.

R. Azkarate

Bertso auek ere Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik ditugu.

Auspoa 7, 1962.

¹ Bainandiak: kondizioak.

² Peikarikan: faltarikan. (Adurriaga-ren oarrak).

³ Lerro ontan *Aitorren seme danak* bearko luke agian.

Egiputzua illezkorra¹

Agur eiten diogu
alkate jaunari,
baita bere urrengo
bilguma² danari,
orobat plaza ontako
jende guztiari;
anaiatasun onek
orain zer diruri?

Au da batzarre on bat
euskaldunarena,
lur maite onentzako
gauzik ederrena;
argatik artu degu
danok oroipena,
berritzeko ipintzen
gloririk zarrena.

Jesukristo mundura
jaio zan baño len,
bi glori izan giñun
Erroman da emen:
bi milla urte iya
igarotu arren,
askok ondo gordeta
dauzkagu barrenen.

Ondoren gure asabak³
ainbeste glori
eman izan zizkaten
Egipuzkuari,
Roncesvalles-en eta
Covadonga-kin bi,
frantzes eta moruak
badakite ongi.

Oroitu utsarekin
Navas de Tolosa,
saltoka asten zaigu
danori biotza;
euskaldunak egiñik
ausardi zorrotza⁴,
moruak artu zuten
sekulako lotsa.

Aragoiko erregea
genduen bentzutu,
eta Nafarrokoa
katetik libratu;
Belaten frantzesakin
giñan peleatu,
arma Gipuzkuakoari
ia begiratu.

Aztu ditzagun bada
aserre guziak,
eta ondo maitatu
Iputzen gloriak;
esan zagun gerala
euskaldun garbiak,
eta mantxik ez dula
gure jatorriak.

Bertso auek ere Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik artuak ditugu.

Ramos Azkaraterenak diranik ez du esaten; baiña arenak dirala ondo eza-gun dutela uste det, orain arteko saillei begiratuta.

Seigarren bertsoak Gipuzkoako arma-arrian garai batean ikusten ziran kañoiak aitatzen ditu, Belateko burru-aldian irabaziak.

Auspoa 7, 1962.

¹ Illezkorra: *immortal*.

² Bilguma: Aiuntamentua.

³ Asabak: antziñakuak.

⁴ Ausardia: atrebitua. (Adurriagaren oarrak).

Gipuzkua bentzutezgarria

Coro:

Gure Kantabri onetan
gerran gabiltza benetan
Gipuzkoako menditan;
Oktabianok atiak itxi
zizkigun alde guzitan;
etsai oriek lur ontan
gu bentzutzeko asmotan
saiatu dira askotan.

Coro:

Gudari txit egokiya
degu danon giyariya:
Lartaun buruzariya,
erromatarrak ezin jiratu
diotena arpegiya;
ain dauka fede biziya
eta ausardi aundiya
libratzeko Kantabriya.

Coro:

Aurtengo inauteriyak
ditugu zoragarriyak
Ernioko gudariyak,
Lartaunek eta Uso ederrak
goza ditzaten gloriyak;
kondiziyo egokiyak
dituzte irakurriyak,

Eskribauba:

esposatzeko gaur biyak.

Eskribauba:

Asi nadin alabatzen,
oien biotzak mugitzen,
gloriaz bete ditezen.

Coro:

Eskribau jauna, abiya bedi
aur oidi biyai galdetzen:
konforme baida arkitzen
bata bestiaz jabetzen,
eztaietara guazen.

Oktabiano:

Bost urte ontan pelian
gabiltza Ernio mendian
guziontzako kaltian;
aizken batalla egin dezagun
zelaixo eder batian,
biok jende berdiñian
edo errendi ian
jartzeko gure mendian.

Lartaun:

Orain artean bezela
nai det emendik aurrera
maitatu nere bandera;
kantabriatarrak inñola ezin
jarri Erroman mendera;
ezta galdu're euskera,
ba danok jua iltzera
nai dezun zelai batera.

Oktabiano:

Gera biok konformatu,
orain lekua billatu,
onorez gaiten portatu.

Lartaun:

Nere juezak zurearekin
dezatela aukeratu;
legez nai det nik portatu,
naiz gu guziok ondatu,
edo betiko libratu.

Lartaun:

Amorioan da latza,
onraz berriz aberatsa,
euskaldunaren arraza;
etsai oriek bentzututzian
egingo degu ezkontza.
Galtzia gure izkuntza
ez al deizkiozu lotsa?

Usoa:

Bai; tori nere biotza.

Usoa:

Obe da iltzea pelean,
daramakizun fedean,
jartzia bañan mendean;
ni ere ilko naiz zure begiak
jiratuta ikustean;
biok kajatxo batean
sar gaitzatela lurpean,
lauburu onen legean.

Lartaun:

Adios, nere Usua,
agur, bion gurasuak,
pozaz ixuri malkuak.

Gurasuak:

Zu il ezkeru nola libratu
jende Kantabriakuak?

Lartaun:

Badaude oiñordekuak,
Lekobideren frutuak,
guziz fede bizikuak.

Lartaun:

Dontzella mantso-mantsua,
iritxi zaizu plazua
penaz iltzeko gaixua;
auxen da lana: ezin egiña
esposaioko plazua;
Urumeako usua,
zerorren biyotz osua
tori, maitetxo gozua.

Lartaun:

Ama Zeruetakua,
biyotz guztiz berakua,
aur au nigandik baijua;
biyotzetikan eskatzen diot
eiteko oni lekua;
da mantxarrik gabekua,
frutu Urumeakua,
Tubalen odolekua.

Antistio:

Erromako Senaduak
bigaldu dit mandatu bat:
daudela asarretuak;
zeren lurrian jende arrotza
geralako bentzutuak,
jakin nai ditu kontuak,
ote zeraten prestuak,
onra guzitan justuak.

Oktabiano:

Nai al dezute etorri
Erroma aldera txit sarri,
peleatzera an garbi?
Nik egun gizon, zuek ainbeste
zelaitxo batean jarri,
ia zein dan garailari
ikusai nai dute ongi;
Senaduak dio ori.

Lartaun:

Lengo onretan ez-ezik,
ez bada gauza ori baizik,
ez dizut ukatzen itzik;
Erroma aldian laister aituko
dituzute gure irrintzik;
etzaigu amostu lantzik,
ain gutxi oztu biotzik,
juango gera txit pozik

Erromako Presidentea:

Senaduak du tratatu
nai zaituztela maitatu
eta semetzako artu;
nai badezute gure alabak
gaur bertatikan senartu,
gerrak dirade bukatu,
alkar dezagun amatu,
pakean gaiten gertatu.

Lartaun:

Zuen alabak guretzat
ematia emaztetzat
grazi ederra deritzat;
bañan glori au geldi dedilla
Gipuzkuako mendintzat;
jarriko gera senartzat,
seme ordeko beontzat,
pake osuan danontzat.

Oktabiano:

Lartaun, gizon aditua,
euskaldunaren burua,
txit izan zera prestua;
eman dizkagun biok alkarri
orain txit pozez eskuak,
zuek eta bentzutuak,
jende guziz anaituak;
orain ekatzu musu bat.

Bertso aukeratuak ere Tolosako Fakaundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik ditugu.

Auspoa 7, 1962.

Iñauteriatarako moldatuak dirala, irugarren bertsoak esaten du.

4/7 lerroa ezin izan degu Adurriagaren bilduman osorik irakurri. Orregatik puntuz idatzitako utsune ori.

Santos iltzeko

Ibarrera juan ziran iru
sagardua eratera,
izateko ere lagun
sagardua eranda;
gauza guztiak ondo
esan ditzagun:
oiek juan ziraden
izanikan lagun.

Uste zuala Ramosek
bera nagusi,
ori bezela berriz
beste asko asi;
etzuben pentsatu
ezer gutxi,
ezta jarriko ere
gurekin nagusi.

Zertara juan ziñan,
Erramos maitea,
Beobiko zubiyan
jartzera katea?
Ondo pentsatu zendun
egitea kaltea,
zenbaiti gertatu
zaiote dotea.

Puñal zorrotza dauka
neretzat sartzeko,
enau arengatikan
ni ikaratuko;
badauzkagu egoki
gauzak esateko,
arren puñalak
eztu Santos ilko.

Erramos direttore,
guzien kapitan,
etzuben uste zanik
orrelakorikan;
eztala uste du ark
emen besterikan,
arri jarriko zaizkan
kantak emendikan.

Orra lartaundarrak
eta erromatarrak,
aiengatik egingo
ditugu guk farrak;
ez dira izango emen
alegrantzi txarrak,
oiek ekarri dituzte
bueltan indarrak.

Beobiko zubira
allegatu zanian,
istilluak an ziran
oriyen artian;
Erroma gelditu da
gutziz apartian,
onera etorri dira
ezinda bestian.

Orra zortzi bertsoarekin
zuen despatxua,
nai dubenak erosi
dauka deretxua;
gauza erosiya
dauka probetxua,
zu etzera izango
guziyon maisua.

Bertso aukerak ere Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik ditugu.

Zortzigarren bertsoaren azpian marrazki bat dago: *puñal* bat eta itz aukerak: *Toledoko puñala*.

Ez dakigu bertso aukerak norenak diran. Ramos Azkarateren aurka moldatuak ematen dute; eta beraren izena iru aldiz azaltzen da. *Lartaundarrak*, *erromatarrak* eta *Erroma* ere aitatzen dira. Nor ote zan *Santos* ori? Eta zer ziran Ramosek eta biak zerabilzkiten ixtilluak?

Kontuan artzekoa da irugarren bertsoak diona: Ramos direktore eta kapitana dala, alegia. Zertan ez da esaten, baiña bertso moldaketan dudarik gabe. Eta ari inork kantak jarriko ez dizkiola uste izateraiño.

Zortzigarren bertsoak, berriz, «gauza erosiya dauka probetxua» dio. Bertso aukerak inprentatu egingo ziran, eta erosi ditekenez gauza probetxugarri ori kanta-papera izango da.

Auspoa 7, 1962.

Azpeitiar bati

Azpeiti,
ikusten zaitut gaizki,
mutil koxkor ta guzi,
itxusi,
guztiz dezu merezi
frenuak jartzia
eta ezitzia,
zergatik zabiltzan
txit arro Tolosan,
paltatzen,
ez al dezu pentsatzen
nazula ni berotzen?
Iñigoren pamak
aitak eta amak
esaten diote
kantatzeko danak,
dalako euskalen
Aita dontsua,
santua;
mutillak kalean
kantari astean,
jaun au erotuta
dabil geiengan;
mutikoak korri,
onek berriz segi,
dabil farragarri,
legoi bat diruri,
burlaka San Juani,
gure patroiar.
Bizkarra autsiko diyot
azkar berari;
ez fiyatu geiegi,
geiegi.

Aizazu:
baldin lotsik badezu,
kontsideratu zazu
ta esan
zergatikan zabiltzan
orrela kaletan,
aspaldi onetan,
ojuka, marruka,
erdi berdoztuta,
puztuta,
nor zeraden aztuta,
begiyak gorrituta,
kopeta illunduta,
parola piztuta,
bazabiltz larruan
ezin kabituta,
bi santurekin
txit asarretuta,
a, *xapo!*;
mutillak aurretik
eta zu atzetik,
zultatzen zaituzte
lau alderditatik,
etzera lotsatzen
itxusi ibiltzen,
paltso txurizdutzen,
nazula berotzen,
asitzeko jotzen,
bizkarra puskatzen;
famiarengatik
dizut nik utzitzen;
zutzaz ez naiz kupitzen,
ez, ez, ez.

Kanta auek Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bildumatik ditugu.

Tolosako garai bateko zaarrei, berriz, onela entzun genien: bertan bizi zan azpeitiar bat, San Inazio goratzearren, San Juanengatik gaizki esaka asi zala, eta kalean mutil koxkorrekin ibiltzeraiño, kantak adierazten duan era xelebrea. Eta orduan Ramos Azkaratek kanta auek jarri zizkiola, San Inazioren mar txaren doiñuan.

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumak ere baditu kanta auek. Leenengoa, ordea, beste onela:

Azpeiti,
ikusten zaitut gaizki,
mutil koxkor da guzi,
itxusi,
guztiz dezu merezi
frenuak jartzia
eta umiltzia,
zergatik zabiltzan
fanfarroi Tolosan,
faltatzen,
ez al dezu pentsatzen
nazula ni berotzen?
Inazioren kantak
aitak eta amak
erakusten dizkate
kantatzeko danak,
izandu zalako
seme prestua,
santua.
Kanta oiek aitzean
jaun orrek kalean,
asarre ikusten
det nik geiengan,
mutillari segi,
oiek berriz korri,
dabil farragarri
burlaka San Juani.
Bizkarra autsiko diot
azkar berari;
ez fiatu geiegi, geiegi.

O Egiptuzua¹ glorioso!

Adierazi nai nituzke nik
Egiptuzuaren gloriak.
kanta ditzaten Euskal Erriko
neronen adiskidiak;
danai bezela arkitzen zaizkit
neri're eskubidiak,
eskribitzeko egatz batekin
gure on zoragarriak.

Gure asabak² nolakuak ziran
Silioren kantak diote,
berarengatik ainbeste erregek
izandu giñuzen maite;
ereje askok izan nai zuten
gure menditan alkate,
izu gogorrek beti emanda
libreak gera gaur arte.

Gure asabak beti arraiskatzen
beren ondasun da bizik,
orreatan etzaigu aztutzen
Tubalen aubeko itzik;
Egiptuzuaren arma ederrari
eztago begiratu baizik,
Nafarru ortan supita³ aundiz
dira oiek irabazik.

Jesus maitia baño lendandik
Ernion eta Erroman
ia zer gloriak izan giñuzen
orduko ere guregan;
Egiptuzuarrak sartu're ziran
gutziz ausardiz⁴ Granadan,
gañera iritxi lendabiziko
Colón jaunakin Habanan.

Ai zer gloria Noainen eta
baita Beotibarrian,
ta zer ederra Italiako
deritzaiona Pavia-n;
Joanes de Urbietak Frantziko
errega
arrapatu zun jaitian⁵,
o zer semea bataiatu zan
Ernaniako pontian!

San Martzielko mendi orretan
gogorra izan zan jaitia,
gure asabak ondatu zuten
Alemaniako jentia;
Roncesvallesen Roldan da askori
ain jipoi izugarria,
Navas de Tolosa-n omenatu⁶ zan
betiko Euskal Erria.

Ondarrabiko inguruetan
Frantzia ortako jendiak
aldi askotan menderatu nai
zitun emengo semiak;
nunai berela isten zizkaten
giltza gogorrez atiak,
ez-ta zer esan, beti izan ziran
gudari⁷ garailariak.

Emenguakin Bizkaiko batzuk
Canarias-era juanik,
Lanzarote-an legorrera irten
ziran ausardiz beterik;
jaitean asi il edo bizi,
bi erregeak arturik,
Españiara ekarri zituzten
beren ontziyan sarturik.

Itxasoz ere izandu dira
emen gizon aguroak:
Okendo jauna eta Txurruka
berdiñikan gabekoak,
Elkano, Lezo eta Bidazabal
supitaz betetakoak;
zazpi doaiak orientzat zitun
Aita Zeruetakoak.

Gure asabak ixuri zuten
gerengatikan odola,
argatik aztu ezin gintezke
glori oietzaz iñola;
oroitu gaiten negar egiñaz
onkaitua⁸ duten bezela,
euskaldunaren izen ederra
ziabestuko⁹ da bestela.

Ramos de Azcarate

Bertso-papera, *Imprenta de Eusebio López* moldiztegian argitara emana.
Baita Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik ere.
Auspoa 7, 1962.

¹ Egiputzua: *Guipúzcoa*.

² asabak: *antepasados*.

³ supita: *coraje*.

⁴ ausardi: *atrevimiento*.

⁵ jaitea: *pelea*.

⁶ omena: *fama*.

⁷ gudariya: *guerrero*.

⁸ onkaitua: *merece*.

⁹ ziabestua: *borrar*.

Gipuzkoak izan ditun semerik onenak

Gipuzkoak izan ditun
semerik onenak
esatera guaz gu
nonbreak ta izenak;
aditu zazute ondo
ez dakizutenak,
danok idukitzeko
oien oroipenak.

Manuel Larramendi,
Juan de Urbietta,
Frantzisko de Aizkibel,
Andres de Urdaneta,
Valentin de Olano,
Joakin Barroeta,
biyotzaren erdian
dauzkagu gordeta.

Damian de Txurruka,
Antonio de Okendo,
Migel de Bidazabal,
Juan de Lazkano,
Conde Peñafiorida,
Blas de Lezo,
oien frutuak gera ta
nai diotegu asko.

Juan de Idiakez,
Gonzalez de Andia,
Esteban de Garibay,
Bachiller Zaldibia,
Juan de Etxaide, Gil
Lopez de Larrea,
oietzaz egundaño
aztuko ez gera.

Ignazio de Loiola,
Migel de Legazpi,
Alberto Perez de Regil,
Lope de Isasti;
Gipuzkoako armak
eder daude noski,
zergatikan Belaten
ziran irabazi.

Orra zein ziran onak
guk adierazi,
goguan eukitzia
txit dute merezi;
orien istoriyak
ez ditzagun antzi,
baizik ondorengoai
beti erakutsi.

Ramos Azkarate

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik.
Auspoa 7, 1962.

Ama Birjiña Izazkungoaren imajiña

Tolosako parrokitik bere lekura berriro jasotzerakoan

ipiñitako itz neurtubak, 1882-garren urteko Agorraren amaiketan

Kantastea

*Birjiñak beretzako
du autu Izazkun;
menditxo ortan, bada,
ondratu dezagun.*

Tolosa eta bere
inguru-erriyak
gaur zoraturik dauzka
oso alegriyak;
berekiñ daramaten
Birjiña Mariyak,
Izazkundikan dizte
egiñgo graziyak.
Birjiñak beretzako...

Aldare bat alaia,
alai-egokiya,
ermitan det ikusi
zuretzat, Mariya;
egiyaz, zuretzako
ez da ezer diña,
bañan ontzat artzazu
gure alegiña.
Birjiñak beretzako...

Berriz diyote altxa
Amari ermita,
edozeñek diyonez
gutzizko pollita,
urrutitikan ere
ondo agiriya,
Tolosaren gañean
eder ta txuriya.
Birjiñak beretzako...

Zeñek aldare ori
ta beste lan asko
kosteatu dituan
zure ondrarako
jakiñ arren, ez naiz ni
esaten asiko,
bada berak ez luke
agertzerik naiko.
Birjiñak beretzako...

Bañan zuk, o Mariya,
dezu sarituko:
ongillerik sekulan
etzazu aztuko;
ugaritasun aundiz
dezu ordainduko,
kaltar zurekin iñor
ez da geldituko.
Birjiñak beretzako...

Zeruko Erregiña,
anpara gaitzazu:
Euskal Erri guziya
beti gorde zazu;
ezkonduben ezkontzak
bedeinka ditzazu,
seme eta alabak
iritxi zaiztezu.
Birjiñak beretzako...

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman azaldua.

* * *

Izaskun idatzi degu, eta ez *Izaskun*, Ramos Azkaratek ala daukalako, bai emen eta bai beste geienetan ere. Garai batean orrelaxe aozkatzen zan, izan ere; eta gaur egun ere ala entzuten da Tolosa inguruko baserritar zaarren aotik.

* * *

Izaskungo ermita karlisten bigarren gerratean (1872-1876) erre zan leenengo aldiz. Ona nola dion Tolosako erretore jauna izan zan Wenceslao Mayora Telleria jaunak bere *Historia de Ntra. Sra. de Izaskun (Tolosa, 1949)* liburuan:

«En la segunda guerra carlista, fue pasto de voraces llamas el Santuario, juntamente con 18 caseríos del barrio de Izaskun; pues los liberales acusaban a sus vecinos de ocultas conjuras y de maquinaciones clandestinas con el Cura Santa Cruz; y además, de espionaje...

La veneranda Imagen pudo ser salvada milagrosamente merced a la solicitud y a los incansables desvelos de los habitantes de Ibarra, que la trasladaron a su iglesia parroquial de San Bartolomé, en la imposibilidad de ser traída a Tolosa, sitiada a la sazón por las tropas carlistas.

Al retirarse de nuestra villa las tropas liberales mandadas por el tristemente célebre general Loma, los tolosanos reclamaron la posesión de la Virgen, que les fue devuelta, siendo desde entonces venerada en el templo parroquial hasta la reconstrucción del Santuario».

Ermita berritutakoan, irudia Tolosatik Izaskun gaiñera oster a igo zuten, 1882-ko agorraren edo iraillaren 11-n. Ori da bertso-sail onen gaia, eta bai urrengoa ere.

Mariyaren Alaba Tolosakoak
Birjiña Ama Izazkungoari
Parrokitik bere ermitara lagundubaz
kantatutako neurtitzak,
1882-garren urteko Agorraren amaiketan.

Parrokitik irten da laxter:
latiñezko *Ave maris stella* euskaraz.

Agur, itxasoko
izar giyariya:
Ama zeralarik
zerade Birjiña.

Ate zerukotzat
guk zaitugu artzen;
zure bidez gera
guziyok an sartzen.

Aingerubak egiñ
zizun agur bera
nator poz guzian
zuri egitera.

Zugana itzazu
bekatari danak;
bai ere argitu
itsu dabiltzanak.

Gugandik gaizkiya
aldendu ezazu;
doai on guziya
iritxi zaguzu.

Zeran ezkeroztik
gu guzienen Ama,
alaba zureak
ez aztu gerala.

Guretzat zugandik
jaio zan Semeak,
entzun bitza gutzaz
erregu zureak.

Birjiñen gañez-gañ
zaudean Birjiña,
eziñ geiagoan
garbi ta eztiya.

Erru kaltetsutik
libraturik lenen,
zure antzera ni
jar nazazu, arren!

Bizitza garbi bat,
bide seguruba
idiki neretzat,
Ama errukitsuba.

Ikusiyaz Jesus
arpegiz arpegi,
gaitean gozatu
zerubetan beti.

Alabantzak, bada,
Jaungoiko Aitari,
Seme ta Espiritu
gutziz santubari. Amen.

Aldaparen asieran

Izazkuna goaz
pozez zurekiñ;
aspaldiyan geunden
zale onekiñ

Eguna dalarik,
dalarikan gau,
Izazkungo Amak
ni gordeko nau.
Ama, Ama...

Kantartea:
Ama, Ama,
Ama Mariya,
gorde, gorde
Euskal Erriya.

Nere gurasoak
ta señaideak
defendi ditzala
Ama nereak.
Ama, Ama...

Tolosak nai zaitu
beti ondratu
inguru guziyak,
au bera nai du.
Ama, Ama...

Zuregan ustea
det idukiko:
ez nau Satanasek
pekatuz illko.
Ama, Ama...

Guziyok zugandik
asko mesede
artu ditugula
aitor gerade.
Ama, Ama...

Gañ orretatikan
begira guri;
laguntza gaberik
ez, arren!, utzi.
Ama, Ama...

Zure anparoa
orain ta gero
euskalak seguru
degu espero.
Ama, Ama...

Kanta-papera, *Tolosa: Imp. de Eusebio López* moldiztegian argitara eman. Ez da esaten bertso edo koplak aukeratuak Ramos Azkaraterenak diranik. Baiña ala izango diralakoan, liburu ontan eskeintzen ditugu.

Ama Birjiña Izazkungua eta bere elizatxo

Eliztxo polit bati
subaren indarrak
desegin ziozkan txit
eze ta igarrak;
miñez gelditu giñan
ziñez tolosarrak,
nola gazteak eta
ala jende zarrak,
an erre ziralako
Mariyan izarrak.

Guretzat miña bazan
zer zan Amarentzat,
zeruko ta munduko
Erregiñarentzat?
Ama errukitsuba,
Ama dontzellantzat,
Ama Izaskungoen
imajiñarentzat,
Ama gure begiyen
niñi maitiantzat?

Zertarako galdetu
Amarentzat zer zan,
baldin milagro batez
kixkaldu ez bazan?
Nunbait aingerutxuak
berekin zebiltzan,
Espiritu Santuba
ibilli zan gisan,
(beintzat etzuben Amak
su-txingar bat izan).

Su artu ezagatik
Amatxo guriak,
zer miñak ote zeuzkan
barrenen gordiak,
ikusirik erretzen
lore primoriak,
ikusirik kixkaltzen
beste aldariak,
ikusirikan sutan
goiak eta biak?

5
Gerok oroitu gaiten
bañan galdetuta;
zer giñake etxea
subak kixkalduta?
Zer lirake mendiyak
zelai biurtuta?
Zer gera erdaldunen
katean lotuta?
Zer litzake gurekin
euskera galduta?

Ona nun dauzkaguben
ixpilluba pranko,
euskaltasuna galtzen
ari geralako,
ta erdaldun katean
miñez gaudelako,
eta euskera maite
ez degubelako...
Geok Ama Euskera
ote degu ilko?

Onela gure Ama
gau illun tristian
oñazez egondu zan
aurreko etxian;
prozesiyua joanik
urrengo goizian,
arturik lau lagunek
Amatxo aidian,
euskeraz kantatubaz
zetozen bidian.

Ederra daukalarik
Mariyak eliza,
zer esan nai diguben
bear degu pentsa;
geokin erabaki
genentzake aisa,
urte triste oietan
gu... zertan gabiltza
nundik izango degun
euskaldun biritza?

Izaskungo menditik
Tolosa gurera,
zirudiyen zeruba
zeturrela beera;
Ama, ikusten gaude
zure etorrera,
Beotibar aldetik
ai ura sarrera,
Domenjon Andiaren
erri leialera!

Berdintsuba gertatzen
zaigu Amarekin,
arkitutzen dalarik
izar askorekin;
anbat naiagoko du
gutxiyagorekin,
Arantzazu, Itziar,
Guadaluperekin,
laurak mendi banetan
kondaira batekin.

Ezkillak batetikan,
kantuba bestera,
Ama zetorkiguben
kaletik kalera,
etxe errian eske
zebillen gisara;
sartu zan malkopean
bere elizara,
bigarren ondamena
erakutsitzera.

Alperrikan norbaitek
ezetz esango du:
aitzean jaiuak
aitzera nai du;
mendiyan tontorrean
zan Ama azaldu,
antxe gizaldiyetan
genuben apaiñdu,
andik itsas-bideak
nai ditu zuzendu.

Naiz beñ eta bi aldiz
bazaio kixkaldu,
Elosegiko jaunak
etzaizkiyo galdu.
Zeiñ da nai ez diyona
Amari lagundu?
Aiuntamentu denak
Ama maite badu,
Ama ager-lekura
eramango degu.

Ongille asko nola
diran Gipuzkuan,
nai diyenak badira
Tolosaz kanpuan;
gure biyotz leialak
nai duben moduan,
Ama jarri dezagun
bere jarlekuan:
subak erre etzuben
aldare santuan.

Ramos Azkaratekuak

Bertso-papera, *Imp. de F. Muguerza* moldiztegian argitara emana.

* * *

Beste bertso-paper bat argitara eman zuan Ramos Azkaratek bertso auekin, au ere *Imp. de F. Muguerza* ortan, baiña aldaketa askorekin:

1 Elizatxo polit bat
subaren ekaitzak
antsiyaz utzi zuben
egin zizkan gaitzak.
Zer pena miñarekin
dan tolosarrentzat
ta inguruetakoa
erri guziyentzat
barruti txit karlista
paregabiantzat!

2/1: Guretzat miña bada; 2/3: ama guzien Ama; 2/4: gozoenarentzat?; 4/3: zer penak ote zeuzkan; 4/10: goiarekin biak?

5 Geok oroi gintezke
geok galdetuta:
zer giñake etxiak
subak kixkalduta?
Zer liteke mendiyak
zelai biurtuta?
Zer gera Fuero zarra
beltzak lapurtuta?
Zer litzake gurekin
euskera galduta?

6 Ona nun dauzkaguben
 ispillurik asko,
 beltzen ezpaten mende
 bizi geralako.
 Euskal Erri gaxuak
 eri daudelako,
 egiten ari gera
 egiñala pranko,
 sendakiñen bat laister
 izango dalako.

11/4: lore askorekin; 11/5: naiago lukiala; 13/3: lengo on-egilliak; 13/5: Badira nai dutenak; 13/6: eskuba zabaldu; 13/7: arren!, ez dezaguben; 13/8: asmorik samindu; 13/9: baizik Eleizatxoan; 13/10: antsiyak ixildu.

14 Zabaldu dezaguben
 guk Egiputzuan
 gure biyotz leialak
 nai duten moduan,
 aurten ezpada ere
 urrengo neguan
 Ama jarriko dala
 nai duben lekuan;
 subak erre etzuben
 aldare santuan.

Bai ere *El Cántabro* aldizkarian, 1894-III-4-an.

* * *

Izazkungo Ama Birjiñaren ermita berritu eta irudia 1882-an ara igo ondoren, berriro erre zan andik urte gutxira, 1887-an. Orixe da bertso auen gaia. Nola gertatu zan, onela adierazten du Wenceslao Mayora jaunak, leen aitaturako liburuan:

«Muy pocos años habían transcurrido desde la última reconstrucción, cuando un nuevo incendio, ocurrido el año 1887, redujo a cenizas el Santuario. Indescriptible fue la consternación del pueblo ante el fatal siniestro.

Hombres de Tolosa y de Ibarra salvaron la Imagen con inminente peligro de sus propias vidas, cuando ya era pasto de las llamas toda la iglesia. Refiere un testigo presencial que aunque todo el Santuario no era más que un inmenso brasero, pues el techo se había desplomado, las llamas respetaron a la Virgen —adviértase que estaba vestida—, que fue sacada en medio del más espantoso chisporroteo y crepitar de aquel terrible fuego...

Es voz unánime en el seno del benemérito Instituto de las Hijas de Jesús, y la referencia ha sido transmitida de boca en boca, que su Madre Fundadora, la venerable Madre Cándida de Jesús, conoció con luz sobrenatural, y por una visión que humanamente no se explica, en la ciudad de Salamanca, el incendio del Santuario, en el mismo preciso momento en que esto ocurría en Tolosa. Nosotros se lo oímos referir a una anciana religiosa que presenció el caso.

Estaba la Comunidad en la recreación, cuando la santa Madre se puso de pronto lívida y desencajada, y llevando las manos a la cabeza exclamó presa de inmensa angustia: «¡Oh qué desgracia está ocurriendo en estos momentos en Tolosa; se está incendiando el Santuario de Izaskun!».

Predijo a continuación su restauración, y anunció que algunos objetos del culto del mencionado Santuario serían utilizados en la iglesia de la Casa que ella había de fundar en Tolosa, como así se verificó.

La Virgen fue bajada a Tolosa, y colocada en el altar de San Juan Bautista, en su templo parroquial».

Elizaren erreketan orren berri sail ontako leenengo bost bertsoetan ematen zaigu. Irudia Izaskundik Tolosara nola jetxi zuten, berriz, 7, 8 eta 9-garren bertsoetan.

AMA BIRGINA IZASKUNGUA

ETA

BERE ELIZACHOA.

1.

Elizho polit bati
Subaren indarrac,
Desequin xiozean ehit
Ese ta igarrac;
Minez guelditu guñian
Cinez Tolosarrac,
Nola gazteac eta
Ala jende zarrac
An erre ciralaco
Mariyan izarrac.

2.

Guretat miña bazan
¿Cer zan Amarentzat
Ceruleo ta munduco
Erreguñarentzat?
Ama erruquitsuba
Ama donecillantza,
Ama Izascungoen
Inajññarentzat
Ama gure beguiyen
Nini mutiantzat?

3.

¿Certaraco galdetu
Amarentzat cor zan
Baldin milagro batez
Quisscaldin ez bazan?
Numbait aingueruehuac
Berequin cebiltzan,
Espiritu Santuba
Ibilli zan guisan;
(Beintzat etabun Amac
Su ehingar bat izan).

4.

Su artu ezagatic
Amacho guriac,
¿Cer miñac ote ceuzcan
Bartenou gordiac?
Ieusiric erretzen
Lore prinoriae,
Ieusiric quisscaltzen
Beste aldariac,
Ieusiricou sutan
Goynac eta biac?

5.

Gueroe oroitu gaiten
Bahian galdetuta:
¿Cer guñaque echea
Subac quisscalduta?
¿Cer hiraque mendiyac
Celai biuruta?
¿Cer gueri erdaldunen
Catean lotuta?
¿Cer Itzaque gurequin
Eusquera galduta?

2.

Orra nun dauzcguben
Ispilluba pranco,
Euscaltasuna galtzen
Ari gueralaco;
Ta erdaldun catean
Minez gaudelaco...
Eta Euskora matte
Ez dogubelaco,
¿Gueroe Ama Euskera
Ote degu ilco?

7.

Onela gure Ama
Gau ihun tristian,
Onacez ogondtu zan
Aurreco celbian;
Procesiyua joanic
Urrengo goizian,
Arturic lau lagunec
Amacho aidian
Eusqueraz cantatubaz
Cetocen bidian.

8.

Izascungo menditic
Tolosa gurora,
Otrudiyen ceruba
Cetorrela beera;
¿Ama! leusten gaudu
Zare etorrera,
IBORTBAR aldetic
¿Ay! ura sarreara,
DOMENJON ANDIAREN
Erri Leyalera!

9.

Ezquillac batetican
Cantoba bestera,
Ama cetorquiguben
Caletic calera,
Eche errian esque
Cebillen guisara;
Sartu zan maleocean
Bere Elizara
Bigarren ondamera
Erreutitzera.

10.

Edera daucalarie
Mariyac Eliza
Cer esan nai diguben
Bear degu pensa;
Gucoquin crabaqui
Guenentzaque aisa
Urte triste oyetan
Gu... ¿certan gabiitza
Nundie izango degun
Euscaldun bieltza?.

11.

Berdintsaba guertatzen
Zaigu Amarequin
Arquitutzen dalarie
Izar ascoroquin;
Ambat nayagoco du
Guchiyagorequin,
ARANTZAZU, ICIAR
GUADALUPEREQUIN,
Laurac mendí banetan
Condaína batequin.

12.

Alperrean gorbaitec
Ezetz esango du;
Aitzean jayuae
Aitzera naidu;
Mendiyan tontorrean
Zan Ama uzaldu,
Aneche guizaldiyetan
Guenuben apañdu
Andie itsez bidenc
Nai ditu zucendu.

13.

Naiz beñ eta bi aldiz
Bazayo quisscaldin
ELOSEGUI-CO JAUSAC
Ebazquiyu galdin;
¿Cen da nai ez diyoma
Amari lagundu?
Ayuntamentu denac
Ama maito badu,
Ama aguer-lecura
Eramango degu.

14.

Onguille aseco nola
Diran Guipuzeuan
Nai diyenac badira
Tolosaz campuan;
Gure biyotz leyalac
Nai duben moduan
Ama jarri dezagun
Bero jarlecun,
Subac erre etzuben
Aldare Santan.

RAMOS AZCARATECOAC.

Imp. de F. Muguerza.



Izaskun.

Izazkungo elizatxoan adoratzen zan Ama Birjiñaren imajiña ber-bera

Tolosarena naiz ta
naukate Tolosan,
Alonso Idiakez
aundiaren plazan;
Izazkundik negarrez
etorri banintzan,
geroz negarrez nago
aurtxo baten gisan.

Nere ager-lekuba
dago argi-argi,
andik begiratu nai
diot Itziarri;
andikan Arantzazu
ta Guadaluperi,
bai eta ere Migel
Excelsis-koari.

Elizatxoa subak
ziaro erreta,
nere biotza daukat
arantzez beteta;
maite ez detalarik
bada illunpeta,
illuntasun batean
naukate gordeta.

Jarraitu zaiozute
euskaldun griñari,
Izazkungo mendiyen
ikusi arte ni;
Tolosaren gañetik
jardungo naiz ongi
lagun egiñaz beti
Euskal Erriyari.

Bertso auek Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jaso nituan. Bai Loiola-ko liburutegitik kopiatu ere.

Manuel Urretaren paper ortan oar au irakurtzen da, ziur asko jaun orrek berak idatzita, 2/7-8 lerroei buruz:

«Alusión al cajón del armario de Ayuntamiento de Tolosa donde se tuvo guardada la imagen después del incendio de su santuario».

Ermita erre ondoren, izan ere, gurezbideta asi zan Izazkungo Ama Birjiñaren irudiarentzat. Ona nola dion Wenceslao Mayora Telleria apaiz jaunak leen aitatu-tako liburuan:

«La Virgen fue bajada a Tolosa, y colocada en el altar de San Juan Bautista, en su templo parroquial.

¿Quién había de sospechar que la Santa Imagen iba a comenzar ahora una larga vía dolorosa? Que nadie nos tache de exagerados, ni de que recargamos el cuadro con colores demasiado negros y sombríos, si afirmamos que esta época puede ser considerala como las más luctuosa en toda la larga historia multiseccular de nuestra buenísima Amacho de Izaskun.

Un buen día, la veneranda imagen desapareció de su altar, siendo sustituida por otra imagen corriente y vulgar, de las fabricadas en serie, que lo mismo podía ser de Izaskun como de la Macarena de Sevilla.

Varias litografías de esta nueva imagen figuran todavía en no pocas familias con la inscripción de «Nuestra Señora de Izaskun».

Semejante escamoteo produjo general desagrado en el pueblo fiel. La auténtica talla permanecía entre tanto oculta en el seno de una piadosa familia cristiana, a la cual se había confiado su custodia.

Se hicieron una porción de gestiones para rescatarla. Uno de los que más insistió en ello –intentando incluso comprarla– fue el fundador de la fábrica de boinas, el prestigioso patricio tolosano Don Antonio Elósegui, devotísimo de la Virgen de Izaskun.

Mas ninguna de estas gestiones de índole particular y privada tuvo el menor éxito; hasta que ante el clamor del pueblo, acordó intervenir el Ayuntamiento de la Villa, obteniendo el anhelado rescate del precioso tesoro, que fue trasladado a una de las salas del Ayuntamiento. No vamos a descender a más detalles, aun persuadidos de que comprobarían más y más la providencial y casi milagrosa conservación de esta bendita Imagen, cuya odisea durante estos años ya referidos nos resistimos a describirla...

Mientras tanto, el pueblo de Tolosa se había dividido en dos bandos. En los partidarios de la reedificación del Santuario, y en los que ante el temor de romerías y de otro género de abusos eran contrarios a su reedificación».

Bertso auetan agertzen denez, Ramos Azkarate ermita berritu nai zutenetakozan. Mayora jaunak onela jarraitzen du:

«Afortunadamente, prevaleció la opinión de los primeros, que representaban al auténtico pueblo tolosano. Y así, se organizó con la mayor rapidez una suscripción popular, encabezada por el Ayuntamiento con una gruesa cantidad, y seguidamente dieron comienzo a las obras.

Era desolador el aspecto que ofrecían las ruinas del Santuario, en donde en las vísperas de San Juan se solían recoger los toros que habían de ser lidiados en las clásicas fiestas patronales. No podía haber venido a menos aquel sagrado lugar, que fue en otros tiempos centro de toda la espiritualidad mariana de nuestro pueblo...

Los muros, cubiertos de yedra y de zarzas, eran guaridas de sabandijas; de entre las grietas de los ladrillos del pavimento, habían brotado ortigas y otras plantas.

Abandono... ruinas... desolación... era lo que allí reinaba, en medio de un mudo silencio...».

(1904)

Ama Birjiña Izaskungoa bere agerlekuban berriro

Malkoak txukaturik
poza zait ingura,
edan det opa nuen
Izaskungo ura;
asmoa ez nun bota
galtzeko putzura,
igo naute agertu
nitzaden lekura.

Izazkunek dun arte
illargi-dizditza,
oroi an dagoela
Amaren bizitza,
Euskal Erri-atea
zainduko dun giltza,
sendatuaz dadukan
mingarrizko gaitza.

Tolosar eta beste
ongille guziai,
ermita antolatzen
saia diradenai,
zor zaie berrirotik
ni jartzea alai,
oien atsekabetan
egongo naiz ernai.

Goazen berriro, goazen
Izazkun mendira,
Birjiñ Ama agertu
zitzaigun tokira;
goazen erregutzera
jartzeko begira,
bere jargoi ortatik
Euskaldun Errira.

Gordeko det emendik
euskal jatorria,
erakutsiaz zuzen
zerura bidia;
besoak zabaldurik
dadukat Semia,
esanaz: «Ona zuen
danon purubia»¹.

Bertso auek Loiolako liburutegian aurkitu nituan, eskuz idatzita eta *Euskal-Esnalea* aldizkariaren 1908-1909 urteetako bildumako azalei barruko aldetik itsatsita.

Liburu ontan leku eman diegu bertso auei, baiña Ramos Azkaraterenak al dira? Izaskungo Amaren irudia Tolosatik berrirotako ermitara igotzea 1904-

eko azaroaren 6-an gertatu zan, izan ere; eta Ramos urte bereko martxoaren 26-an illa zan. Zail samarra, beraz, bertso auek berarenak izatea. Edo, bestela, ondo aurretik jarri zituan.

* * *

Wenceslao Mayora jaunak, leen aitaturtako *Historia de Ntra. Sra. de Izaskun* liburuan, onela adierazten du Izaskungo Ama Birjiñaren irudia Tolosatik Izaskuna nola igo zuten:

«Gloriosamente histórica es la fecha del día 6 de Noviembre de 1904. En este día memorable fue definitivamente trasladada la bendita Imagen de la Virgen de Izaskun a su Santuario, en medio de las delirantes aclamaciones del pueblo. Se cantó una hermosa misa mayor, en la cual actuó el Orfeón tolosano. Con un solemne acto celebrado por la tarde, fueron coronados los cultos de ese día inolvidable.

De toda la comarca acudieron nutridas peregrinaciones, hasta de Berástegui y Lizarza. Pero Ibarra fue la primera Parroquia que organizó –después de Tolosa– una fervorosa peregrinación del pueblo entero, que cantó un himno nuevo, compuesto expresamente para este acto.».

* * *

Ibarrako erriak bere peleginazio ori nola egin zuan, *El Correo de Guipúzcoa* egunkariak kontatzen du, 1904-XI-29-ko zenbakian. Onela dio:

«En Izascun

Grandiosa sobre toda comparación ha sido la peregrinación llevada a cabo ayer domingo, veinte de los corrientes, a la preciosa ermita de Nuestra Señora de Izascun, que oportunamente se anunció en el diario católico de su digna dirección.

Ya desde la víspera acudía gran número de fieles en los pueblos de Ibarra, Belaunza, Berrobi, Elduayen y Berástegui, a purificar sus almas en la piscina de la penitencia para confortarlas al día siguiente con el Pan Eucarístico. ¡No cabía en la mente de aquellos dichosos cristianos otra idea que la de la peregrinación a Izascun!

...puede decirse sin exageración que los vecinos acudieron en masa a la Mesa espiritual.

A las ocho y media próximamente empezaron a llegar a la parroquia de Ibarra las distintas procesiones organizadas en cada pueblo, llaman-

do la atención los peregrinos de Berástegui, por el gran número de hombres y por uno de los magníficos estandartes que venía a la cabeza, y siendo recibidas todas por nuestro señor párroco y el presbítero coadjutor don Juan Azcue.

Reunidos todos en la parroquia y plaza de esta villa nos encaminamos en interminable y ordenada procesión hacia el pintoresco alto de Izascun, cantando con entusiasmo que impresionaba al más frío el Ama, Ama, etc., que fue repetido incesantemente por hombres y mujeres, ancianos, jóvenes y niños. ¡Qué espectáculo más hermoso y consolador!

Una vez en el alto, fue trasladada en procesión, desde la ermita al lugar donde se improvisó un bonito altar para el Santo Sacrificio, la imagen de Nuestra Señora por cuatro señores párrocos.

Celebró la Santa Misa nuestro párroco señor Amondarain, asistido de don Agustín Zufiría y don Martín Malcorra, cantando el coro de Ibarra, que ayer se excedió a sí mismo.

Después del Evangelio ocupó el improvisado púlpito, colocado en lugar que dominaba a la apiñada multitud de tres mil peregrinos por el inteligente maestro don Pedro Sagastume, el presbítero don José J. Uragá, que empezó diciendo que para ocupar aquel lugar en momentos tan solemnes eran menester las extraordinarias dotes del melífluo y mariano San Bernardo; pero que a pesar de esto se sentía muy animado por el entusiasmo que le inspiraba aquella muchedumbre de devotos de María y la confianza que no podía menos de comunicarle la Virgen de Izascun en ocasión tan propicia.

Dio la bienvenida a todos los pueblos allí congregados, que siguiendo las tradiciones de sus religiosos antecesores se mostraban dignos hijos de Euskaria al honrar de manera tan pública y solemne a la Virgen María en el mismo punto que ella eligiera, como si desde allí quisiera, dominando a todos aquellos pueblos, tenderles su manto protector para preservarlos del contagio de los errores hoy tan extendidos.

En el curso del sermón habló de la Concepción sin mancha de María, describiendo el grandioso cuadro que el Vaticano ofrecería el día 8 de Diciembre de 1854 y el entusiasmo indescriptible que en todo el mundo católico produjo la definición dogmática pronunciada por el inmortal Pío IX. Recordó que la creencia en este dogma fue tan antigua y arraigada en Guipúzcoa que los corregidores de nuestras antiguas juntas forales juraban al posesionarse de sus cargos defender la Inmaculada Concepción de María.

Manifestó que la felicidad labrada en Euskeria por nuestras perdidas libertades se debió al espíritu religioso que las informaba, y que deben tener esto muy en cuenta aquellos vascongados que sin ser muy religiosos suspiran hoy por el bienestar de Euskal-erria.

Nos excitó a que seamos buenos vascongados, porque así seremos buenos católicos e hijos de María, terminando con un viva a la Virgen de Izascun.

Inmediatamente después de la Misa se cantó solemne Te Deum, siendo admirables la compostura y devoción de aquella masa de gente durante todo el acto religioso.

El aspecto que al poco rato ofrecía el monte de Izascun era encantador, con los numerosísimos grupos que por sus laderas se extendieron a consumir las viandas de que todos iban provistos.

A las dos y media se cantó una salve coreada por los peregrinos, bajando acto seguido en procesión a la parroquia cantando a María con gran entusiasmo.

En ella se disolvió la peregrinación, con nutridísimos vivas a , redactándose después los telegramas siguientes:

Roma, Vaticano. Cardenal Secretario. Tres mil vascongados Ibarra y contornos (Tolosa, Guipúzcoa) peregrinación Virgen Izascun aclaman Papa pidiendo bendición. Párroco Ibarra.

Obispo Segovia. Tres mil guipuzcoanos Ibarra y contornos (Tolosa) peregrinación Virgen Izascun saludan Prelado ofreciendo sumisión. Párroco Ibarra.

Vitoria, Vicario Capitular. Peregrinación Izascun brillantísima Tres mil devotos. Aclamados Virgen y Papa. Párroco Ibarra.

Y con esto termino dando gracias anticipadas por su inserción.

Un católico.

Ibarra, 21 Noviembre 1904».

Bi tokitan puntuz betetako utsuneak arkituko zituan irakurleak, egunkariak zer dion ezin irakurri izan degu eta.

¹ Purubea: casa solariega. (Egillearen oarra).

Bertso Berriak

Fernando Amezketarraren doñuban,

Lazkauko plazan

jokatu ziran bi partidu,

Martzuaren 8-an, 1885-garren urtean.

Lengoan bi partidu
Lazkaon izanik,
kantatu gabe nola
egon ixilik?

Oraintxen ere nago

eziñ sinisturik
mirabe batek ala
jokatu zubenik.

Ote du besterik,

bere parekorik,

bi partidu aiñ errez
jango ditubenik?

Ai baldin balitzake
bera bakarrik!

Emakumeak jartzen

badira nagusi,

ez gintezke iñola

soseguz bizi;

eskerrak diradela

pelotari gitxi,

eta ezin litezke

askora iritxi.

Ori da lenbizi

nubena ikusi,

gizon bi zitubena

lotsaturik utzi;

koroï bat urrezkoa

luke merezi.

Askotxo balirake

modu artakoak,

plazan nola agertu

gizonezkoak?

Arren, gorde gaitzala

gure Jaungoïkoak,

nagusi jarri gabe

emakumezkoak!

Gaur Lazkaukoak

badauzka egoak,

zerubak eman eta

bañan alakoak:

bi gizoni gañetik

eraindakoak.

Norbaiteri kendurik

soñetikan galtzak,

emango ote dizkiyot

nik berarentzat?

Otsoa lotsatzen du

gizonaren antzak,

baita ere domatu

txit ederki artzak.

Argatikan galtzak

emakumeentzat,

konbeni izan arren

bada norbaitentzat,

Paradisoko fruta

gogoratzen zait...

Gaizki baldin badatoz
zenbaitentzat galtzak,
jantzitzea dauzkate
gona gorontzak.
Arturikan linaiak,
amuko ardatzak,
irutea daukate
familiarentzat.
Lan ori kaltetzat
badute berentzat,
beste bat obegoa
badala deritzat:
moxorkak betetzea
eulearentzat.

Ibaiak badirade
eder ta aundiyak,
bañan itsasoentzat
dira guziyak;
munduba bustitzen du
zeruko euriyak,
baita ere berotu
berriz eguzkiyak.
Milagro berriyak
gaude ikusiyak:
txepetx batek bentzutzen
errez gabirayak.
Zer gloriyak dituben
Euskal Erriyak!...

R. A.

Bertso-papera, *Tolosan: Eusebio López-en moldizteguien* argitara emana.

Bertsolariya astekaria, 1931-XI-8.

Auspoa 7, 1962.

Zortzi puntuko bertsoak dira auek, berez, 11-garren lerroak rimarik ez du eta. Baiña bederatzi puntuko bertsoen doiñuban kanta ditezke. Izenburuan *Fernando Amezketarraren doiñuba* esaten zaio, antziñako bertsolari onek doiñu ori erabiliko zualako-edo.

Lazkaoko plazan emakumezko batek bi partidu jokatu, eta «gizon bi zitubena lotsaturik utzi». «Txepetx batek bentzutzen errez gabiraiak», alegia. Bertso egoki batzuk jartzeko gai oberik nun billatu?

Firma bezela letra auek: «R. A.». Ramos Azkarate ez-ezik, Ramon Artola ere izan diteke. Bertso auen aita nor dan zalantzan gelditzen da, beraz.

Txurruka biyotz aundiko umant denaren umantari

1885-garren urtean, Garagar-illaren 28-an

Benazko amets eder bat egiñ
nuben nik lengo gaubian,
nunbait ikusi bear nubela
biyotz aundiko Damian;
berarengatik arkitzen zaitut
jaio ziñaden errian,
gloriz betia, onraz jantziya
ta gizontasun aundian.

Ai!, ura egun zoragarriya
Urriyan ogei ta bata,
zenuben artu zere laguntzat
Jaungoikoaren letarta²;
beragatikan ziñaden egiñ
umant danaren umanta,
eta nork esan etzeradela
illezkor guzien Aita?

Larogei urte igaro dira
gauza gutxi gora-bera,
joan ziñadela zeruen bidez
Trafalgarreko urera;
etsai gogorrek zizuten ekiñ
orduban zure gañera,
bañan txit ondo josi zenuben
Nepomuzeno-n bandera¹.

Arrazoiakin egongo ziran
Luterotarrak negarrez,
txapel guziyak erantzi eta
«Ai! Ai! Txurruka!» esanez;
garailariyak berak izanta
onrak zuretzat emanez,
ikusgarriztat para zinduzten,
Nikolas zanak dionez.³

Pelean ziñez ari ziñala
belauna zizuten autsi,
«Au ezta ezer! Segi aurrera!»
egin zenduban irrintzi;
etzenduben nai zere ontziya
etsaien mendean utzi,
glori aundiyan zure begiyak
euskeraz ziraden itxi.

Amaren baten sabeletikan
jaio ote da semerik,
itsas-lanetan eta letretan
zu baño aundiagorik?
Pakean ona, gudan gogorra,
biyotz bat nobleagorik
izandu al da? Izango al da
Kosme Damian besterik?

Bestela nola Euriopan ta
orobat Mundu Berrian
zure izena arkitutzen da
gloririk aundienean?
Bestela nola Ferrolen eta
Kadiz kortea zanean
zure gloriyak para zituzten
itsasoan ta lurrian?

Onrarenatik igo ziñaden
umant guziyen gañera,
onrarenatik gloriyaz bete
zenduban zure euskera;
onrarenatik zera etorri
gure begien aurrera,
onrarenatik beti bizirik
munduban arkiko zera.

Zenubelako ondo ikasi
guraso zarren fedea,
kantatu dute, zabaldu dute
Kondairak zure gloria.
Noiz da gertatu? Non da arkitzen
gizontasun bat obea?
Nork eman diyo Españiari
zuk bezelako onrea?

Motrikoako erri leialak
seme aundiak baditu,
bañan azkena jaiotakoak
biyotzak mugitu ditu,
beraren bidez dizugun zorra
dizugu, noizbait!, pagatu,
zure onragan euskaldun danak
ditezen alkarganatu.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Aita Jose Inazio Aranaren bilduman azaldua. Paperaren atzeko aldean itz auek idatzita daude, ziur asko Ramos Azkarateren eskuz: «*Rdo. P. Arana, Versos compuestos por un infeliz zapatero*».

Euskal Erria, 1885.

El Cántabro, 1894-I-14, aurretik argibide auek emanaz:

«*A continuación publicamos la hermosa composición, cantada por su autor, ante la estatua del intrépido Cosme Damián Churruca. el día de su inauguración 28 de Junio de 1885, en la villa de Motrico*».

¹ *San Juan Nepomuceno* Txurrukaren itxas-ontziaren izena zan.

² Letarta: *Providencia*. (Egillearen oarra).

³ Nikolas au Nikolas Sorealuzeko kondairalaria izan ditek.

San Ignazio eta bere semeai

1885-garren urtean, Uztaillaren 31-an

Mundu guzian omenaturik
dagoen izen ederra
da gure Aita San Ignazio,
Azpeitiaren izarra;
gaztañ artean jaio ziñaden
seme gudari azkarra,
fede santuba berotutzeko
pare gabeko sugarra.

Egon naitzaie birtute asko
dituztenai begira,
ondoren onak utzi dituzten
Aita aundiyak badira.
San Ignazio bezelakoak
noiz ta nun arkitzen dira?
Nork eta zeñek eraman ditu
ainbeste seme glorira?

Soldadutzatik igo ziñaden
animak salbatutzeroa,
Lagundi ona fundatu eta
santuen bizitzetara;
geroz zeruban eta munduban
bizirik arkitzen zera,
beragatikan jendeak datozen
beti zu adoratzera.

Etsai gogorak izanagatik
San Ignaziok beretzat,
danak garaitu izan zituben
izutzen etzan biyotzak;
izandu ziran, eta badira,
seme koitadu oientzat,
bañan alferrik: Zeruko Aita
daukate beren laguntzat.

Zuk utzitako liburu danak
beti dirade aundiyak,
letra bakar bat mudatu gabe
daude txit garbi-garbiyak;
ez gaur lege bat, bigar bestea
darabilkiten pixtiyak,
fede batean itxitzen dira
zure semeen begiyak.

Ez al dakigu zertan fundatu
oi diran etsai gaiztoak?
Diradelako txit jakintsuak,
diralakoan prestuak¹,
fedearengatik illtzen diraden
seme koitadu justuak,
arbol garbiyan jaiotzen dira
orrelakoxen ostuak.

Zer erakusten digute guri
ez baldin bada fedea?
Ez baldin bada argitasuna
eta zerura bidea?
Illtzen gaituben ezpata ori
ote da bada ohea?
Libertadea oju egiñ ta
lotzea jende librea?

Aztu dirade gizaldi asko,
etorri bitez besteak,
ill ditezela ondorengoak,
sortuko dira gazteak;
iritxi arte Josafatera
jaiotzen geran jendeak,
beti biziko dira munduban
Ignazioren semeak.

Dakigu nola eta zergatik,
ai!, zure etxe santuba
egonduba da urte askoan
gaitz batek minberatuba;
noizbait bear ta iritxi zaio
sendatutzeko orduba,
edertasunez makurtu dezan
etsai gaiztoen buruba.

Erregu on bat egiñ deiogun
Ignaziori gogotik,
azpeitiar ta euskaldun danak
euskeraz geron abotik,
bedeinka ditzan iberotarrak
egunen batez zerutik,
libra ditezten mendi ederrak
etsai gaiztoen mendetik.

Bertso-papera, *Tolosa: E. López, 1885.*
Euskal Erria, 1885

¹ Lerro au beste onela izan liteke agian: *diralako ain prestuak.*

Tolosako
Misiyo Santuaren oroipena
1886-en urtean

Aurtengo garizuma
Tolosa ederrean
uste det izan dala
gure mesedean;
beñepein senti degu
orain barrunean
alako atsegin bat
zori txit onean,
arkitzen geralako
bide zuzenean.

Misiyoak kantatu
diguten fedea,
gauza guziyak baño
askoz da ohea,
zar dalarik berriya,
ona ta noblea,
mundu zabal guzian
berdiñik gabea,
Euskal Erri maiteen
lenengo bidea.

Aita San Frantziskoren
semetxo umillak
misiyo santurako
dirade abillak,
animak bideratzen
trebe ta argiyak;
ongi piztu dituzte
gure biyotz illak,
zer gozoak diraden
oien marabillak!

Habitu argal ori
soñean jantzita,
dabiltz munduko gauzak
alde bat utzita;
bide au gaztetandik
ondo ikasita,
erriyeta dute
egiten bisita,
Frantziskoren lanari
eder iritzita.

Lore oriyek jaio
diraden baratzak,
nai eta nai ez izan
bear aberatsak;
idurituagatik
zerbaitian latzak,
progratu dituanak
oriyen biyotzak,
sendakiñik onentzat
dauzka animentzat.

Len izan ginduela
dira zazpi urte,
ordukoxe dotriña
erakutsi dute;
mundu berrikoai
esango niyeke
oiek ez dabiltzala
turroiaren truke,
baizik ondo nekatzen
iltzen diran arte.

Urrutira juan gabe
ditugu ikusten
erreino ontan ere
pertonak aldatzen:
egia azturikan
gezurra laztantzen,
Eliz Ama utzita
urgulloz arrotzen,
aize apur batekin
buruak txorätzen.

Arratsaldea berriz
Maiz eta Baertel,
etziraden jaun oiek
beti lo egoten;
kontseju ona franko
eman zizkiguten,
euskera ain gozoa
itzegiten zuten,
negar-malkorik asko
atera ziguten.

Bañan iñortxo ez da
oraindikan jaio,
ez eta nere ustez
aurrera jaioko,
Euskal Erri zintzoa
duenik galduko,
saiatuagatikan
paper faltso asko;
lenago zeru goiak
dira eroriko.

Aita Gerekak berriz
gauero-gauero
fedean otz ziranak
jarri ditu bero;
gauza bat entzun niyon,
uraxen bai klaro:
blasfemiya gañean
jo zuen ordago,
Jaungoikoa fueroak
gurekin al dago.

Goizeko bostetako
Aita Beobide
sermoi santu denetan
agertu da trebe;
esnaratuak ditu
makiña bat jende,
neskatxa eta mutil,
senar eta andre,
lanera biralduaz
ez ikutu gabe.

Egunaz euskeraz da
gabean erderan,
zenbat atsegintasun
dizkiguten eman!
Egon gabetanikan
alperrikan dudan,
jarri eta pentsatu
ondo nork beregan
egin diguten gerra
gaiztoa ote dan.

Gerra egin diyote
oitura txarrari,
gerra blasfemi zatar
erderazkoari;
gerra aragiyazko
pekatu loiari,
gerra jaieko lana
dabilkiyanari,
bañan bere neurriyan
kulpa duenari.

Amar egun santutan
oriyen nekeak
pagatuko al ditu
Jaungoiko gureak;
artzaiak bezelaxen
beren artaldeak,
konfesatu dituzte
millaka jendeak,
Aita San Frantziskoren
seme ongilleak.

Ni ere ikutzen nau
oietako batek,
bañan biyotzak diyo;
«Kulpa zergatik det?». Pentsatu ondo, esan:
«Arrazoa ditek,
garbi-garbi kantatzen
ederki zekitek,
obeak izatea
mesede giñikek».

Gereka, Beobide,
Maiz eta Baertel,
dizkiyotegu esker
guziyak ematen;
Tolosan oroipena
utzi dute aurten,
badakigu geiegi
zer merezi duten,
denborak esango du
gero zer daukaten.

Ramos Azkarate

Bertso-papera, Aita Jose Antonio Aranaren bilduman.
Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren eskuz idatzitako bilduman.

Auspoa 7, 1962.

6/8 lerroan *turroia* aitatzen da; eta gero, sarri xamar, *turroi jaleak* izendatuko dira. Zer esan nai dan ondo ulertzeko, ona zer dion Erdal Akademiaren iztegiak: *turrón* (bigarren esan-naia): «*Destino público o beneficio que se obtiene del Estado*».

11/9-10 lerroak, «Jaungoikoa fueroak gurekin al dago» dioten itz oiek, ez ditugu ondo ulertzen.

(1886)

Ama Birjiña Arantzazukoari

Arantzazuko Ama,
Ama ederrena,
Señora guzietan
zerade goiena;
errukitsu denetan
bigun-bigüñena,
zikiñik gabietan
berriz garbiena
zerade, Ama maite
Euskal Erriena.

Iñork ezin ukatu
zure gertaera,
jetxi ziñadelako
Aloña gañera,
txantxangorriyen gisan
sasitxo batera,
Rodrigo Balzategi
artzaien aurrera;
«Arantzun zu?» ark egin
zizuben galdera.

Arantza izan ez da
arantzen izena,
jakiña da arantzan
jarri ziñadena;
negarrez zeguela
Euskal Erri dana,
ekarri ziguzuben
bear gendubena:
mendi berde oientzat
euri gozoena.

Lau gizaldi aundiyak
daramakizkitzu,
lendabizitik lasa,
gero berriz estu.
Ote daki frantzesak
nolaz ziran nastu?
Beiñepein gauza denak
zizkitzuten ostu,
ustelak ziran bañan
lapurreta ez aztu.

Miña eman zizuben
Rodillen kopetak,
bai eta Riegoren
Kadizko tronpetak;
diabruzkoak ziran
oien somaketak,
erretzeak baziran
aien jostaketak,
ondorean kostatu
zitzaizkaten pestak.

Zergatik miraritzat
daduzkan Zerubak,
erre nait'ere ezin
dirade Santubak.
Orra! Orra! Zurekin
bertan ixpillubak,
etzaitubena galdu
lau alditan subak,
zergatikan guziya
dezaken justubak.

Naiz betor Jordan Bruno,
naiz betor Lutero,
betoz gaizto guziyak,
egiya nun dago?
Arantzazu mendiyen
orain ta lenago,
Euskal Erriyen Amak
lukela naiago
bertan kiskaldutzea
mudatzea baiño.

Antonio Okendo
bentzutezgarriak
zuregana zituben
benazko fediak;
baita Ondarrabiko
Butron txit nobliak,
eta Terranobako
itsas-langilleak;
gaitza da kontatutzen
zure ongilleak.

Askoren on egiñak
bestek ondatuta,
utzi izan zaituzte
berriz barkatuta;
Frantziskoren semien
biyotzak minduta,
Bonaparte faltsuak
ortik biralduta,
arkitu izan dira
desanparatuta.

Baiñan urteak joan da
urteak etorri,
beti Aita oriyek
zaizkitzu ezarri;
omenak euskararen
biyotz leialari,
eskerrak Oñatiko
agintarieri,
arkitzen zeralako
orren miragarri.

Zeralako atsegin
aundiyak emana,
aurten bai gatozela
pozaz zuregana;
egiñikan bakoitzak
promes eder bana,
adoratzera gatoz
egiyazko Ama,
begiratu dezazun
beti guregana.

Lendik arkitzen zera
omenez beterik,
ta berriz koroituba
ederki aurtendik;
pentsatzen naguela
norbaitek esan dit:
ez bazaizu sortutzen
geiago etsairik,
ederrago jarriko
zerala oraindik.

Ai, biyotz biguñeko
Aloñako Perla,
arren zure jabeak
gorde zaitzate!a!
Euskara ez da bada
urdare ustela,
baizik beti izan da
gaixtoen itzala,
munduban besterikan
iñor ez bezela.

Daudelako denbora
guztiz beldurtiyak,
zuk ere ernai-ernai
eduki begiyak.
Ama-semeak gaude
miñez ta eriyak,
gaitzaren ondorean
ango blasfemiyak
zikinduta daduzka
Ibero mendiyak.

Zurekin guregana
dirade pasiak
Kadizen sortutako
oiñaze tristiak;
legoiak beti zeuden
euskera-gosiak,
eta oraindiokan
ez daude asiak,
dituztelako sabel
zabal ta luziak.

Au da ondamendiya,
Jesus milla bider!
Arantzazuko Ama,
kupi zaitez, arren!
Egin baiñan lenago
geiegiakin ler,
arren, kendu eiguzu
emendik Luzifer,
guk zuri Salbe bat
esan bezin laster.

Bertso auek *Aranzazu* (1968 - VII) aldizkaritik artuak ditugu Aurretik adierazpen luze au egiten da:

«La Coronación de la Virgen de Aránzazu, que tuvo lugar en junio de 1886, dio ocasión a un despertar de la actividad literaria y poética en torno a nuestro Santuario mariano.

En el archivo de Aránzazu se guarda un “bertso-papera”, adquirido en 1956 gracias a los buenos servicios del P. José Antonio Gárate. Está impreso en Tolosa, en la imprenta de E. López. Tiene fecha de 3 de junio de 1886. Por rotura del papel, de la firma sólo se pueden leer las primeras letras, o sea Ram. ¿Será Ramos Azkárate? ¿O Ramón Artola? Nos inclinamos por el primero.

De todos modos, tal vez el P. Antonio Zavala o algún otro experto en la materia pueda despejar la incógnita. Asimismo por rotura del papel la última estrofa está incompleta, pero creemos haberla reconstruido según el original.

El autor hace gala de cierta erudición histórica, al citar a Jordán Bruno, Lutero, Butrón, Oquendo, los balleneros de Terranova, la francesa, las cortes de Cádiz, etc.

Hemos modernizado la ortografía. L. V.»

Erderazko oar orren egillea nor dan, azken izki oiek argitzen digute: *Luis Villasante* zana, alegia. Guretzako ere dudarik ez du bertso auek Ramos Azkaraterenak dirala.

San Ignaziori

1886-garren urteko erromerian¹

O gure Aita San Ignazio,
o zer soldadu aundiya,
o koitaduben salbatzallea,
o santu miragarriya;
o koleraren itzal ederra,
o arbol maitagarriya,
o zer garbiro zenuben gorde
onrazko Euskal Erriya!

Esaten dute etsai batzubek
San Ignazio ill zala,
Jaunak gizonen fede gaiztoak,
arren!, onera ditzala.
Ildako batek nolatan jarri
bere lurrean itzala,
gure patroiak kolerarekiñ
egiñ ziguben bezala?

Egun batean esan nizuben
«Azpeitiaren izarra».
Ote nenguan burutik ongi
edo zer nuben bestela?
Ez al nekiyen izarrek baño
gorago igo ziñala?
Ez ote dakit Jaungoikoaren
omen goiena zerala?

Ez al genduben ta ez al degu
ikusten bizi-bizirik,
jende-talderi izugarriyak
Izarraitzera bildurik?
Ez da, ez, jaio Luzifertarrik,
jaioko al da besterik,
Ignaziori bizi santuba
galduaziko diyonik?

Arren ta arren barka dirazu
utsegiñ ura mesedez,
zerengatikan ez ninduben ni
zerubak jantzi doaiez!
Eta bestetik ezereza naiz
itzak neurritzen indarrez,
bañan dizutan amoriyuak
beterik nauka balorez.

Naiz European ta naiz Afriketan,
orobat berriz Asian,
ikusten daude ill eziñikan
balore aundiyanian;
len bezela gaur arkitutzen da
bizirik mundu guztian,
zenbait anima zeruratubaz
lanikan gogorrenian.

Eragozpenak purrukatubaz
badator beti aurrera,
esanaz guri: «Naiz Ignazio
antziñakoa berbera;
nator euskaldun errietatik
biralitzera kolera».
Esan ta egiñ, orra zabaldu
osasunaren bandera!

Zer gozoa da ume gaxoaz
santu bat kupitutzea!
Zer atsegiña illtzen ez dana
Loiolan idukitzea!
Zer milagro da guk Ignazio
benetan adoratzea,
eta al degun modubarekiñ
koroiez apaiñdutzea?

Beiñ batez entzun izandu niyon
abade gazte bateri,
euskal umantak zeñ ta nor diran
txit ondo dakiyenari,
euskaldunikan euskaldunena
esaten Ignaziori;
etzuben esan gezurrik baña
ez eta ere geiegi.

Bai, egiya da Aitor aundiyak
baditubela umantak,
nola itsasoz ala legorrez
mendiyak beziñ galantak;
bañan guziyak estaltzen ditu
Ignazioren kopetak,
nola munduba tapa lezaken
egunen batez kometak.

Erroman Leon amairugarren
daukagun Aita Santuba,
San Ignazio bedeiñkatutzen
ari da ziñez poztuba;
ondo merezi dubena da ta
portatutzen da justuba,
naiz jarri arren etsai gaiztoa
ernegatzen ta sutuba.

Eta guk berriz Aita aundi au
nola gentzake pagatu,
dizkigulako nola etsaiak
ala kolera garaitu?
Eskerrak eman, ondo lagundu
eta gañera kantatu
nai degula, bai!, bere fedean
geren bizitza jarraitu.

Bertso-papera, *Tolosa: Imp. de E. López* moldiztegian argitara emana.
Euskal-Erria, 1886.
Auspoa 7, 1962.

¹ Kolera izurritea izana zan. Aldendu zanean, Loiolara erromeriak egin ziran eskerrak ematearren. Baita Ramos Azkaratek bertsoak jarri ere, beste bertso-jartzaille batzuek ere moldatu zituzten bezeia.

Aita Larramendi Garagorrikoari bere 2-garren eunkidan

O Aita Larramendi
zorionekoa!
O euskaldunen eguzki eder
Garagorrikoa!
Biotz guztiz aundikua,
jakintsu gañ-gañekua,
o fedetsu, o doaitu
eskubitakua!
*Ama eriyen sendatzallia,
pare gabeko fuero-zalia,
o euskal dantza, euskal oituren
Aitatxo sendogarria!*

Ikusi ditzatzu gaur
euskaldun erriyak,
nola daukazkin iya galduban
Llorentekeriak¹.
Oiturarik garbienak,
erromeri ederrenak,
naspillatu dizkigute
morotar zekenak.
*Dantza ederrak dijoaz galtzen,
gaiztategiyak² jendez betetzen,
bizi-modu txit lasai-lasaiak
ari zaizkigu estutzen.*

Zuk agindubak egiñ
baginduzen ondo,
ez giñaden gaur erdal gaiztoen
mendean egongo;
bizi giñan gu lenago
ongi bañan ongiago,
mundu ontan beste iñor
bezin libriago.
*Euskera nastu, fedean oztu,
Fueroa nai da osoro aztu;
Erdal Erriko lege berriyak
euskalak ondatzen gaitu.*

Munduban ziñanean
bezela zerutik,
lagun egizu, ai Garagorri!,
Jaungoikoagatik,
Ama Euskera sendotutzen,
bere oiturak zabalduzen,
erromeri eta dantzak
euskeraz jarritzen.
*Fedez ta fueroz aberastutzen,
gaiztategiyak lurreratutzen,
erdalak an, euskalak emen
pake santuban bizitzen.
Amen, amen, amen!*

Ramos Azkaratekuak

Tolosan Abenduaren 27. 1890-garren urtean.

Bertso-papera, *E. Lopez-en Moldizteguien*, Tolosako Manuel Urreta zaren eskutik.

El Cántabro, 1893-XII-9. Aldaketak: 1/9: Ama Euskaran sendatzallia; 4/11; Euskalak Euskal, Erdalak Erdal.

Ramosek berak bere eskuz idatzita ere jaso ditugu bertso aukerak, firma dotorea eta guzi.

¹ *Antifuerismo*. (Egillearen oarra.)

² *Cárceles*. (Id.)

Aita Larramendi Gara gorriko-ari
bere 2garren eunkidan

(1.)

Oh Aita Larramendi
Lorionekoa
Oh euskaldunen egurki eder
Gara gorriko-
Biotz gurtin aundikua
Jakintzu gain gañekua,
Oh fedetzu, oh doaitzu
Eskubitakua!
Ama iriyen sendatzailea
Pare gabeko fuero zalia
¡Oh euskal dantza, euskal oituren
Mitako sendogarrin.

(2.)

Ykusi ditratzu gaur
Euskaldun errizak
Nola daukatzkin iya galdueban
Llorentekerrizak (us)
Oiturarik garbionak
Erroneri ederrenak
Waspillatu diskigute
Morotar zekenak:
Dantza ederrak dijar illtzen
Páirtateguizak (2) jender betetu
Bizi modu hit lasay lasayak
Hoi zainkigu eskutzen

(1) Antifuerismo.

(2) Cárcelo.

(3.)

Zuk agiñdubak eguin
Bagiñduzen ondo
Enquiñaden gaur erdalgaiñtan
Mendea egongo;

Bizi guñan gu lenago
Inqui bañan inguiago,
Mundu ortan beste inor
Berin libriago.

Euskera naste, fedean ortu
fuera naida esor astu
Erdal-eriko legue berriak
Euskalak ondaren gaitu.

(4.)

Munduban zizñanean
Berela zerutik,
Lagun egiztu ;; ay Garagorri!!
Jaungoikoa gatik;

Ara esakera sendotuzen
Bere siturak nabaldutuzen
Erromeri eta dantzak
Euskera jarritzen.

feder ta fueros aberastutzea
Gairategiak luorrotutuzen
Erdalak an euskalak emen
Pake santuban bizitzen.

Barron Acarate-kirik

Nocedal-tarrak
iñor engañatu ez dezaten
1889-garren urtian

Al dakizute zenbait traidore
zergatik dauden aserre?
Dagualako Fede Santuban
guk maite degun Errege;
nola eztan ta faltako eztan
Marototarrik beñere,
arren ondoan ipiñitzeko
txit egokiyak dirade.

Ez det, ez, esan geiegirikan
Marototarrak dirala,
gañera berriz egiten dute
iya Luzbeltzen itzala.
Ukatu ezetz Erregiaren
kontrara altxa zirala?
Ezetz progatu Printzipe on au
Jaungoikozkoa ez dala?

Integruaren kapa jantzita
abiyatu zan Nocedal,
karlista denak trabatu nairik
paltso batzuben garrangan.
Zer zan ikusi? Zer da ikusten
gaur ere aren banderan?
Zeiñ ta nor dira zizkigubenak
partidutikan eraman?

Bai; egiya da «Oi! Oi!» egiñaz
gaur diradela egongo,
gañerantzian nolatan esan
eta luteke esango
Karlista baño edozein gauza
noiznai dirala izango?
Zer mesedia familiyatik
bota balira lenago!

Lendabiziko Erramuntxo,... ooo!,
omen da oien bidia,
badirudite jaun ori dala
Cánovas baten umia;
dala Madrillko kutxa aundiko
turroi gozoen jalia,
dala Fedien, dala Furoen
guzizko ondatzallia.

Berak diote berak dirala
katolikorik fiñenak,
bakarrik berak Aita Santuben
gañetik jartzen diranak;
berak bakarrik obispoakin
fiyatzen ez diradenak,
berak, bai, berak kanta paltsoak
zabaltzen dizkigutenak.

Izan gogoia, izan garboa
kanta paltsoak jartzeko,
estranjeriyan desterratuta
dagoan Erregentzako;
katolikoan izar eder ta
etsaien mallubentzako,
justiziratu ezin leiteken
español bakarrentzako!

Esan badezu zeñekin zauden
ondo dakigu nor zeran,
bañan garbitu gure On Karlos
noiztikan liberaldu dan;
ez da, ez, aski eskribitzia
Asensioen¹ moduban,
gogor paltatzen Jaungoikoaren
legeko mandamentuban.

Zer falta eta zer tranpa dauden
Karlosen eskribuetan?
Zertan dauzkatzu zabaldu gabe
baserri eta kaletan?
Donekar onek nai baldin balu
Madrillen sartu gaur bertan,
bastante luke zu bezelaxe
lardatutzea beltzetan.

Zeñ denboretan nastu diguben
Karlosek gure bandera
etera zazu prueba bakar bat
baldiñ gizona bazera.
Zenbat tokitan usatutzen dan
Tirado² baten maskara,
itzegiteko onarengatik
masoi guziyen gisara!

España zarra berriyarekiñ
Karlosek nai al du nastu?
Zeñ ta gezurtti aundiya zeran
nai dezu ezetz apustu?
Lege Santuba ez aztu baña
guziro nai luke piztu,
Jesukristoren Erregetza ta
elkarkoakiñ segitu.

Noiz utzi ditu gure dotriña,
kostunbre eta Fueroak?
Noiz saldu naian iduki gaitu
egiyen alderdikoak?
Noiztikan dira liberal beltzak
Karlosen ingurukuak?
Noiztik ez gera Necedaltarrak
ez beziñ katolikuak?

Nai zituztela oriyek artu
Errege baten eguak,
nolatan eman, baldiñ baziran
karlista gezurrezkuak?
Buruzaririk errespetatzen
ez duten seme gaiztuak
izan oi dira familiatik
kanpora botatakuak.

Noizbait bear ta altxatu zuben
Erregek bere eskuba,
gogoratubaz Josefateko
justizi santu-santuba;
erabakirik zeñ zan faltsoa,
nor zan piña ta prestuba,
eman zioten zeken oieri
merezki zuten paguba.

Geroz or daude tripako miñez
Nocedal buru dutela,
ez barberorik, ez medikurik
iñundik ez daukatela;
Elizarekiñ denboraz dira
Erregerekiñ bezela...
Burgos aldeko arzobispoai
ia galdetu bestela.

Aurren-aurrena Jaungoikoa ta
Fueroarekiñ Patriya,
ondorenian degu Errege
katoliko txit garbiya.
Bandera onek bentzutu baietz
masoi liberalkeriya?
Baietz salbatu Gaztelani ta
Aitorren Euskal Erriya?

Zerbaitengatik esan dizute
«liberal zismatikuak
masoi-taldea indartzen ari
zeraten partidukuak».
Nocedal, Rivas³ eta Tirado,
Sánchez ta gañerakuak,
a zer piztiak sendatutzeko
Eliza eta Fueruak!

Katolikua izatekotan
bearko izan karlista,
ori ez bada iñola eziñ
izan leiteke fuerista;
Karlosekiñ gu bakar-bakarrik
zintzo ta ongi gabiltza,
indartu naian Fueroarekiñ
Jaungoikoaren Eleiza.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jaso.

Karlisten eta integristen arteko auzia da bertso auen gai nagusia. Itzaurrean adierazi degunez, Kandido Nocedal zan karlista alderdiaren buruzaria. Urrena, berriz, Frantzisko Navarro Villoslada idazlea izendatu zuan Don Karlosek 1885-ean; eta ondoren lau jeneral. Baiña Nocedal-en semeak, Ramon Nocedal Romeak, aitaren oiñordekoa bera izan nai zuan eta oso minduta gelditu zan. Zera atera zuan: Don Karlosek Morentin errian 1874-an firmatutako ageria, idazki onek liberal kutsua zuala esanez. Ramon Nocedal-ek alderdi berria sortu zuan orduan, integristena alegia, karlistetako jende asko berekin eramanez. Ramos Azkaratek traidoretzat artzen du, eta Marototarra dala leporatzen dio. Maroto karlisten jenerala zan, izan ere; baiña liberalekin alkar artu eta leenengo gerrari bukaera eman zion 1839-an, Bergarako besarkadarekin. Karlistak traidoretzat juzkatu dute beti Maroto ori.

Seigarren eta zazpigarren bertsoetan ageri danez, Nocedal jaunaren aldekoak, integristak alegia, kantaren batzuk atera dituzte, gure eskuetara iritxi ez badira ere. Eta Ramos Azkaratek beste auek ordaiñetan moldatzen ditu.

Bertso auek *El Cántabro* aldizkarian ere agertu ziran, 1894-III-11-n, aurretik oar au egiñez:

«A ruego de varios amigos y para conocimiento de nuestros lectores, insertamos aquí la composición que vio la luz pública hace cinco años próximamente, en contestación a unos versos que publicó El Fuerista, calumniando groseramente a D. Carlos de Borbón».

* * *

Donostiako *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublika-zaleak, 1889-XI-10-ean, *Mosaicos carlistas* izeneko idazlantxoak agertu zuan, onela esanez:

«Los leales y los íntegros de Tolosa ya se van arreglando, según puede verse en la carta de nuestro corresponsal.

Otro medio muy elocuente han tenido los carlistas de mostrar sus caritativos sentimientos por los íntegros.

Les han dedicado una hoja escrita en verso, de la que entresacamos para solaz de nuestros lectores algunas de las más sabrosas estrofas».

Eta ondoren lau bertso eskeintzen ditu: sail ontako 1, 8, 10 eta 16-garrena.

¹ *Ex-director del mal llamado “Fuerista”*. (Bertso-paperaren oarra.).

² *Ex-masón. (¿...?) (Id.)*

³ *Director de “El Tradicionalista”*. (Id.)

Elosegiko On Jose jaunari

bere dei edo pregoi bakarreko igandean, Tolosan,
Garagarrillaren 7-an, 1891-garren urtean.

Igarondoko txori guziyak
nola diguten kantatzen:
«Gure erriko Erregearen
semea dala ezkontzen!».
Oriya deitzen zaion ibaian
arraiak dabiltz dantzatzen,
Elosegiko Printzipearen
ezkontza ona gozatzen.

Uzturre gaña Izazkunekiñ
eta Urkizu mendiyak,
San Antoniyozen oroitu eta
guziro daude alayak;
pozaren pozaz loretu dira
Beotibarko zelayak,
bai eta ere Laurak-bateko
istori zoragarriyak.

Zure ezkontza kantatzen daude
birigarro ta zozuak,
eta nola ez, baldiñ nai badu
Birjiña Izazkunguak?
Zure ezkontza zabaltzen dabiltz
nun-naiko etxe-usuak,...
zergatikan ez, ala nai badu
Ama Doloretakuak?

Zure gloriyaz pozturik daude
langille fabrikakuak,...
atsegiñ degu inbidirikan
ez degun Tolosakuak;
kontentuz daude errukitsuen
etxe santuko gaixuak,...
gaude gozatzen Euskal Erriko
fuerista egizyakuak.

Elosegitik, Larrañagatik
datozten izar berriyak,
izango dira Jaungoikoaren
eleizen argigarriyak;
dira izango salbatutzeko
iberotarren mendiyak,...
izango dira aitaren gisan
guzizko maitagarriyak.

Zer kantatutzen ote dizute
zure baratzen txoriyak?
Zer kantatu nai ote dizute
jauregi¹ ikuskarriyak?
Ibillitzeko atz-erriyetan²
asetzen zuen begiyak,
eta len bait len etorritzeko
bertara ezkon berriyak.

Ramos Azkaratekuak

Bertso-papera, *Tolosa Imp. de F. Mugerza*.

Elosegiko Jose au txapel-fabrikako nagusiaren semea zan. Nagusi orri «gure erriko Erregea» esaten dio Ramosek 1/3 lerroan; eta semeari, Printzipea, 1/7-an. Fabrika ori da 4/2 lerroan aitatzen dana.

Esan bearrik ez dago, noski, bertso auetan aitatzen diran toki-izenak Tolosakoak edo ingurukoak dirala: Igarondo, Oria ibaia, Uzturre, Urkizu, Izazkun...

Ama Doloretakoa aitatzen da 3/8 lerroan. Debozio aundikoa baitzan Tolosan, garai artan beintzat. Entzun izan degunez, aren bederatziurrenean, txapel-fabrika gelditu eta langilleak elizkizun ortara joaten ziran. Fabrika ori parrokiaren ondoan baitzegoan.

Elosegitarren jauregia aitatzen da 6/4 lerroan. San Frantzisko komentuari ondoan zegoan, jardin zabal eta dotore batez inguratua.

Euskal-Erria, 1891.

¹ *Palacio*. (Egillearen oarra.)

² *Pueblos extraños*. (*Id.*)

**Baldespiñako Markes
txit geidiatia jaunari
oroitza bat¹**

Kosme Damian Txurrukakoa
al dakizute noiz ill zan?
Trafalgarreko bere gloriya
kantatzen nola gabiltzan?
Españientzat alako onrik
benturaz nondikan izan,
Nepomuceno-n umanta² ura
buru gertatu ez bazan?

San Juan bai *S. Juan Nepomuceno*
zan Txurrukaren ontziya,
andik izartu ziguben onraz
eguzkiyaren azpiya;
antxen ikusi zuten etsaiak
euskaldun biyotz aundiya,
nola omenez beterik³ jua zan
Kosme bentzutezgarriya⁴.

Urez ito zan *Nepomuceno*,
uretan ill zan Txurruka,
bañan egiñaz beren denboran
etsai guztiyai burruka;
munduarentzat beren izenak
utzirik illezkortuta⁶,
gaur zeruetan dauzkagu biyak
seme guziyoi ojuka.

Orbeko On Juan Nepomuceno,
Baldespiñako Markesa,
zer zan, zer zaldun maitagarri au
gozatu zuben seaska?
Zer zan ordea umant aundiya
bildur gabeko biyotza?
zer zan, bañan zer illezkor onen
mundu ontako bizitza?

Zertarako nik kantatuko det
Mariakaren bizitza,
baldiñ karlisten etsaiak ere
onratzen badarabiltza?
Laurak-bat-eko mendiyak dardar
zergatik ote dabilta?
Daudelako gaur penaturikan
eusker a eta Eleiza.

Jaungoikoa ta Fuegoengana
seme bat etzanagorik,
izandu al da Baldespiña bat
zan bañan aundiagorik?
Nork izan ziyon Sort-erriyari⁵
naitasun zintoagorik?
Noiz izandu da Erregerentzat
soldadu leialagorik?

Nola ez diye negar egiño
euskerak eta Eleizak,
paregabeko maitetasuna
izan baziyen biyentzat?
Nola ez gera miñez egongo
Erregerekiñ karlistak,
Aitarik gabe utzi bagaitu
fuerista guziyen Aitak?

Zeñ zan zeñ irten iru gerretan
Elio zana bezela,
zuben guziya arraiskatubaz
beñbat bildurtzen etzala?
Nor zan nor ala peleatutzen
Ansotegiren gisara,
beltzen katetik libratu naian
Eliz, Fuero ta euskara?

Amasei urte zitubeneko,
bere aitakiñ batera,
sartu zan ziñez Lekobide bat
gozatutzen zan larrera;
laztandurikan Covadonga-ko
Pelaio baten bandera,
zeinbait alditan beltzen aurrean
esan oi zuben: «Gu gera!».

Karlistak irten ziran guziyan
beti an zuten Markesa,
esanaz: «Ni naiz ille ta guzi
Jaun Zuriaren arraza;
naiz ill, naiz bizi, nai det odoldu
Luzbeltztarrakiñ ezpata,
Españi dana salbatutzeko
Karlos besterik ez da ta».

Galdu gerra bat, galdu bestea,
len beziñ fiñez zebillen;
galdu gañera irugarrena,
alaz guztiaz ere... zer?
Marototarren turroi paltsua
barrenen sartu baño len,
atz-errietan⁷ ibilliko zan
ogi-puskaren ondoren.

Arri bai deitu gentzaiokela
bere aitaren semea,
learanderik⁸ bazan munduban
benazko learandea;
txit banaketan izan oi diran
onraren jarraitzallea,
kristau guziyen batzarrearen
soldadu paregabea!

Ote gera gaur karlistaren bat
berari jarraitutzeko?
Al gera gauza ainbeste bider
odola ixuritzeko?
Zer gerade gaur otz, bero eta
samiñak igarotzeko?
Zer gera gure ispillubakiñ
ezertan berdindutzeko?

Baldespiña zan Españiaren
onrarik goienekua,
Nepomuzeno santu aundiyak
birtutez jantzitakua;
Zan Baldespiña Txurruka baten
biyotzen oiñ-ordekua,
Baldespiña da istoriyentzat
glori bat euskerazkua.

Nolatan ez da bere anima
oraiñ egongo zeruan,
martiri baten gisara bizi
eta ill bazan munduban?
Nepomuzeno eta Txurruka
daukazkiela onduan,
irutasun bat⁹ antxe egiñaz
lurrean dauden moduan?

Biyotz aundiko o Baldespiña!
O Bizkaiatar maitea,
Ermuan jaio, Ermuan azi
eta ill ziñan semea!
Nola tituluz ala gurutzez
bazeunden ondo betea,
betikotasun guziyan ala
zeruban goza zaitea.

Ramos Azkaratekuak

Bertso-papera, *Tolosa: E. Lopez, 1891.*

El Cántabro, 1895-III-17.

¹ *Un recuerdo al Excmo. Sr. Marqués de Valdespina.* (Egillearen oarra.)

² *Héroe.* (Id.)

³ *Gloriosamente.* (Id.)

⁴ *Invencible.* (Id.)

⁵ *Inmortalizado.* (Id.)

⁶ *A la patria.* (Id.)

⁷ *En el extranjero.* (Id.)

⁸ *Prototipo.* (Id.)

⁹ *Trinidad.* (Id.)

Notas.- *Considerando piadosamente, creemos que tanto Churruca como Valdespina están gozando de Dios en el cielo.*

Orbe, Mariaca, Elío y Ansótegui, que aparecen en diversos versos de esta composición poética, deben entenderse dirigidos a un solo personaje, pues son los cuatro apellidos que parecen en la filiación del Excmo. Sr. Marqués de Valdespina. (Id.)

Gurutz-bide edo Kalbariyuak itz neurtuetan

Obispo Jaunaren baimenarekin

Lenbiziko geraldia
Jesus iltzeko kondenatua.
(Kapillak kantatzen du)

Azotatua, katez lotuta
bizitzaren egillea,
begira nola arkitutzen dan
munduban Salbatzalea!
Zein zerade zu, Pilatos beltza?
Zer juez zera, ordea,
illazitzeko gurutzetuba
bildotx errurik gabea?

Aita gure, Agur Maria eta Gloria.
«Jauna, egin det pekatu, erruki
zaitez nitzaz».

Eta ondoren esango dezu:
«Bedeinkatua eta alabatua izan
bedi Jesukristo gure Jaunaren Pa-
sio eta Eriotza santuba».

Bigarren geraldia
Jesus gurutzarekin kargatuba.
(Kapillak)

Gurutzearen pisu astuna
sorbaldaratu dizute!
Bañan Erramu-egunekua
zerala ez al dakite?
Zure orduko garaitondua
gaur ontzat ez badaukate,
berak nor diran, zu nor zeraden
osoro aztu zaiote.

Aita gurea eta gañerakoak lenbiziko
geraldiyan bezela.

Irugarren geraldia
Emen erori zan Jesus lenengo aldiz.
(Kapillak)

Nekatu eta argaldurikan
erori zera lurrian,
zedorren malko ta odol-tanto
errukarriyen gañean.
Eta or zaude miñeriturik
zentzu galduben mendean,
izerdituta, naigabetuta,
eriotzako bidean!

Aita gurea, etc.

Laugarren geraldia
**Emen billatzen dute elkar Jesusek
eta bere Amak.**
(Kapillak)

Zu Amarekin, Ama zurekin
zertan arkitu zerate,
baldin arriyak ere negarrez
ipiñi badituzute?
Biyok elkarri begiratubaz
txutikan ezin zaudete!
Naigabeakin jausi baño len
arren aparta zaitzte!

Aita gurea, etc.

Bostgarren geraldia
Zirineotarrak laguntzen diyo
Jesusi gurutzea eramaten.
(Kapillak)

Borrero oiek errukirikan
ez dutelarik zuretzat,
ill etzaitezen Simon gaur eman
dizute zuri laguntzat.
Al da atsegiñ aundiyagorik
gizon doatsu onentzat,
zuri laguntzen gastatu arren
kemenak eta indartzak?

Aita gurea, etc.

Seigarren geraldia
Beronikak garbitzen dio
Jesusi bere arpegiya.
(Kapillak)

O Beronika guzizko santa,
andre txit errukitsuba,
etsaien aurrez garbi zaiozu
Jesusi musu santuba,
zapi orretan agertu dedin
bere arpegi justuba,
esanaz nola irabaziya
daukazuben zuk zeruba.

Aita gurea, etc.

Zazpigarren geraldia
Emen erori da Jesus
bigarren aldiz.
(Kapillak)

Odol-ustuta txit auldurikan
berriz bazera erori,
nola ez egin oñazeakin
bati biyotza bi erdi?
Jesus maitea, zauriz betea,
apur bat zaitte ibilli,
etsai oriyek Gurutz-mendiyan
ditzan gaur lotsak estali.

Aita gurea, etc.

Zortzigarren geraldia
Emen itzezin diye Jesusek
Jerusalengo alabai.
(Kapillak)

«Txit benazkuak diralarikan
zuen oraingo negarrak,
ez neregatik negarrik egin,
Jerusalengo alabak;
baizik zeon eta semeengatik,
biyotz nereko izarrak,
negarra egin bear dute, bai,
zuek bezelako amak».

Aita gurea, etc.

Boederatzigarren geraldia
Emen erori da Jesus
irugarren aldiyan..
(Kapillak)

Indar guziyak bukatu eta
irugarren aldiyan
erori zera gurutzeakin
txit era negargarriyan;
altxa nai eta ezin altxarrik
zaude egurran azpiyan,
odol-putzuba gaur zuk egiten
dezula Gurutz-mendiyan.

Aita gurea, etc.

Amargarren geraldia
Emen kendu diozkate
bere soñekuak..
(Kapillak)

Odoldutako tunika kendu
ta zaude larru gorriyan,
zauri guziyak berriturikan
era txit lotsagarriyan;
eta ozpiña edan azirik
gorroto bizi-biziyan,
arkitzen zera guregantikan
lotsaz iltzeko zoriyan.

Aita gurea, etc.

Amaikagarren geraldia
Emen jositzen dute
Jesus gurutzean.
(Kapillak)

Zeruko odei urdiñ-urdiñak
asi dirade goibeltzen,
bai eta ere mundu guziko
ibar-mendiyak tristetzen;
egazti eder kantalaririk
daude negarrez urtutzen,
ta gu kristaubak izanta nola
ez gera miñez erortzen?

Aita gurea, etc.

Amabigarren geraldia
Ill da Jesus
gurutzean.
(Kapillak)

Ill da, bai, ill da guregatan
Jaungoikoaren Semea,
munduba eta munduko gauzen
Egillea ta Jabea!
Ill da etsaiari barkaturikan
itxuben argitzallea,
zori gaiztoan kendutzalle ta
onaren jarritzallea.

Aita gurea, etc.

Amairugarren geraldia
Emen jetxi dute Jesus
gurutzetikan
(Kapillak)

Ama aundiya, sortzez garbiya,
Ama denetan goiena,
Semea artu madalean ta
miñeriturik zaudena;
nola zeraden milla birtute
txit santak dituzubena,
biyotz guretan ezarririkan
daukagu zure izena.

Aita gurea, etc.

Amakaugarren geraldia
Emen lurperatzen
dute Jesus.
(Kapillak)

Ama maitea, zenbat sufritu
dezuben mundu onetan,
Belenetikan abiyatuta
bukatu arte Golgotan!
Zaudelarikan txit errukarri
gurutzearen oñetan,
milla arantza badaukazkitzu
sartubak zure zañetan.

Aita gurea, etc.

Bertso auek liburuska batetik ditugu. Bera argitara eman zuan moldiztegia: *Tolosan F. Muguerzaren Moldizteguiari 1900-ean.*

Liburuskaren emalea: Maria Monserrat guk esaten genion, Tolosako andre bat, jostuna. Arek egindako galtzak jantzi genituan guk txikitan bein baiño geiagotan.

* * *

Liburuska orrek eliz-baimenarekin agertu zan: «*Obispo Jaunaren baime-narequin*» dio azalean.

Eta barruan:

«Licencia. Informe del censor. Leído el Via-Crucis de referencia, en vascuence, nada hallo en él que sea contrario al dogma católico.

Dios guarde a V. E. I. muchos años. Vitoria 19 de Febrero de 1900.- Dr. Liborio Azpiazu.

En atención a lo expuesto en la anterior instancia y visto el precedente informe, concedemos la licencia que en aquella se solicita.

Vitoria 19 de Febrero de 1900. - El Obispo de Vitoria.

Lo decretó y firmó S. E. I. el Obispo mi Señor de que certifico. - Andrés G. de Suso - Secretario».

* * *

Liburuska orrek ez du esaten aita nor duan. Baiña Ramos Azkaraterenak dirala ez det uste duda egin ditekunik. Alde batetik, aren bertsoen egitura eta euskera dute bertso auk ere. Bestetik, orrela esan izan da Tolosan betidanik.

Ortaz gaiñera, bertso auk musika ere badute. Partitura ori urrengo orrialdeetan eskeñiko degu: eta aren gaiñeko aldean onela irakurtzen da:

«Gurutz-bide edo Calbarioak. Letra de Ramos Azkarate. Música de Eduardo Mocoroa (2 de Marzo de 1900)».

Bertso auk erriko Erruki-etxean bizi zala jarri omen zituan Ramos Azkaratek, eta urteetan ango elizatxoan garizumako igandetan eta ostiraletan kantatu omen ziran. Jende asko joaten zan elizkizun ortara.

* * *

Bertso auk Tolosako Manuel Urreta jaunaren eskutik ere jaso genituan, berak bere eskuz idatzita. Baiña kopia ontan aldaketa asko dituzte, batenbatek euskera *garbitzarren* sartuta.

Eta aurretik, bearbada Manuel Urretak berak antolatua, beste bertso au:

Eskeñiya

Zure jaiotzez, zure bizitzez
poz atsegiñez beterik,
bañan Nekaldi ta eriyotzaz
nola gauden kupiturik,

goaz gu abesten abiyatzera
ziñez belaunikaturik,
biotza jaso zerura eta
begiyak malkoz bustirik.

* * *

Auspoa-ren 7-garrenean ere argitaratu ziran bertso auk, 1962 urtean.

El Diario Vasco egunkarian, 1975-IV-20-an, leenengo sei bertsoak agertu ziran; eta gaiñerakoak urrengo egunen batean, bearbada.

Egunkari berak, 1978-III-5-an, Manuel Urretaren kopiaren *eskeiñiya* eta leenengo eta bigarren bertsoak agertu zituan.

Letra de
 Carlos Llanusa
 Quante-tive de Colômbia
 Música de
 Eduardo Hirschhorn (2.ª e 3.ª Versões)

A-za-ta - ta - ik ka - ter lo - ta - ta bi - zi - ta - rum e - gi - lle - a ve - gi - na

no - la an - ki - tu - ven - jan mun - du - ban sal - ba - ta - lle - a - za - m - ze - ra - de - zu Pi - la - tos bod - tra zen ju - or

ze - ra or - de - ta # U - zi - te - ko quante - tu - ta Bil - dotz e - mun - ik # ga - le - a

GURUTZ BIDE

EDR)

CALVARIYUAC

itz neurtuetan.



Obispo Jauregui, baltzazarequin.

TOLOSAN

1.^o Mugueraren Moldiztegiari
1900-ean.

-3-

†

Lenbicio Gueraldiya.

Jesus iltzeco condenatua.

(Capitlac eantzen du)

Azotatua, cotez lotuta
Bicitzaren eguillea,
Beguira nola arquitutzen dan
Munduban Salbatzallea!
¿Ezin cerade zu Pilatos boltza?
¿Ezer Juez cera ordea,
Bicitzeco gurutzetuba
Baldoch errurie gabea?

Aita gurea, Agur Maria eta Gizona.

*Jacua, egua eta jantia, erragai zaita
nira.*

Eta andrea, zuzenagatena.

*Beldurakia eta albatza izan bedi le
erriko gure Jauregiari pasia eta erri
leu sarratua.*

-4-

†

Bigarren Gueraldiya

Jesus gurutzarequin
cargatuba.

(Capitlac)

¡Gurutzaren pisu aztuna
Sorbaldaratu dizute!
Bañan Erreman eguncua
Cerañ 20z aldaquite?
Zure ordueo Garait ondua
Gaur ontzat ez badaucate.
Berac nor diran, zu nor ceradon
Osoro asia zayote.

*Aita gurea eta guieracoc len-
bicio gueraldiyan bezela.*

-5-

†

Irugarren Gueraldiya

Emen erori zan Jesus
lenengo aldiz.

(Capitlac.)

Necatua eta argaldurican
Erori cera lurrean
Cedorren maleo ta odol tanto
Errucariyen gabean;
¡Eta or zaude miñeriturie
Zentzu galduben mendean!
Izerdituta, naigaberuta
Eriotzaco bidean.

Aita gurea eta.

On Antonio Okendokoari

Zortziko

1892-garren urtean

Kantastea

*Gaur daukazu esanaz
zere Donostiya,
egiñ nai dizugula
ongi etorriya.*

O euskaldun erriyen
izar gidariya!
O gure biyotzeko
Okendo aundiya!
O umant!¹ O illezkor²
garaitezgarriya!³
O parerik gabeko
itsas-gudariya!⁴

Zenbat, zenbat lezaken
benazko fediak,
lotsaturik uzteko
Lutero-zaliak!
Mundubak badakizki
zure birtutiak,
dirala eun bider
bentzutezgarriak.⁶

Ondo euskerazkua
da zure biyotza!
Dakiyena zer diran
desonra ta lotsa.
Da fede santubaren
atsegin ta poza,
da zeruban erdiyan
dagoan arrosa.⁵

Argatikan daukazu
zeruban kantari
biyotz-biyotzetikan
Aita Larramendi,
Txurruka, Bidazabal,
Lezo ta Legazpi;
kantari daukazkitzu
Elkano ta guzi.⁷

Euskaldun egiazko
zar ta gazteriyak
zu ikusteko gaude
gutziz edarriyak.
Egiño dizkitzu, bai,
zure Kantabriyak
merezi dituzuben
ongi etorriyak.

Bizi diran artian
Ibero mendiyak,
ez dira, ez, aztuko
ez, euskal gloriyak.
Adieraziko du
zure *oroikarriyak*,⁸
zein diran Gipuzkoan
ondo mereziyak.⁹

Bertso auek *Ecos de Vasvonia*, por Echeverría y Guimón. izeneko bilduman agertu ziran, 15-garren zenbakian, bai letra eta bai doña ere, urrengo orrialdeetan eskeñiko deguna. Aurretik onako argibide auek ematen ditu:

«Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.

Música de Cándido Buenechea. Poesía de Ramos Azcarate».

¹ Héroe.

² Inmortal. (Debe entenderse ill ezkorra).

³ Invencible.

⁴ Guerrero.

⁵ Considerando piadosamente.

⁶ Invencibles cien veces.

⁷ Piadosamente considerando.

⁸ Su monumento.

⁹ Benéméritos. (Egillearen oarrak).

On Antonio Oquendo_co_ari.⁽¹⁾

Zortzico.

1892 garren urtean.

Nº 15.

Música de Cándido Buenechea.

Poesía de Ramos Azcarufe.

f

Gaur dau-ca-zu e - sa - naz Ce - re Do-nos-ti - yá,

f

E-guiñ nai di - zu - gu - la on-do e-to - rri - ya. Gaur dau-ca-zu e - sa - naz

poco rit. *Fin.*

Ce - re Do-nos-ti - yá, E-guiñ nai di - zu - gu - la on-gui e - to - rri - ya.

poco rit.

p a tempo

¡Oh! Euskaldun e - rri - yeu l-zar gui-da - ri - ya! ¡Oh! gu-re bi - yo - tze - co

p a tempo

(1) Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.

rit. O - quen - do aun - di - ya! ;Oh! u - man!⁽¹⁾ ;Oh! ill - ez - cor!⁽²⁾ Ga - ral - tez gu - rri -
a tempo
rit. ya⁽³⁾ ;Oh! pa - re - ric gu - be - co I - tsas gu - da - ri - ya.⁽⁴⁾
a tempo
rit.
sf.
rit.
sf.
rit.
sf.

D. S.

Cantastea.

Gaur daucazu esanaz
 Gere Donostiyá,
 Eguia nay dizugula
 Ongui etorriya.

2.
 ;Ondo Euskerascua
 Da zure biyotza!
 Daquiyna eer diran
 Deshonru ta lotsa.
 Da Fede Santubaren
 Atseguin ta poza,
 Da Ceruban erdiyan
 Dagoan arrosa.⁽⁵⁾

3.
 ;Cemba! ;cemba! lezaquen
 Benazco Fediac!
 ;Lotsaturic uzteco
 Lutero zaliac!
 Mundubac badaquizqui
 Zure birtutiac,
 Dirala eun bider
 Bentzutez - garriac.⁽⁶⁾

6.
 Bici diran artian
 Ibero mendiyac,
 Ez dira, ez, aztuco
 Ez euskal gloriyac.
 Adieracico du
 Zure Oroicariyac⁽⁶⁾
 Cein diran Guipuzcoan
 Ondo meriyac.⁽⁶⁾

4.
 Argatican daucazu
 Ceruban cantari
 ;Biyotz biyotzetecan
 Aita Larramendi
 Churruea, Bidazabal
 Lezo ta Legazpi
 Cantari daucazquitzu
 Elcano ta guci.⁽⁷⁾

5.
 Euskaldun eguiyazco
 Zar ta gazteriyac,
 Zu icusteco gaude
 Guztiz edarriyac.
 Eguingo dizquitzu ;bay!
 Zure Cantabriyac,
 Mereci dituzaben
 Ongui etorriyac.

(1) Heroe (2) Inmortal (Debe entenderse ill ezcorra) (3) Invenible. (4) Guerrero. (5) Considerando piadosamente. (6) Invenibles eten veres
 (7) Piadosamente considerando. (8) Su Monumento. (9) Beneméritos.

On Karlos 7-nari bere egunian

Eun Errege benetakoen
illoba egiazkoa,
Laurak-bat-eko fuerista denon
Aitatxo biyotzekoa,
alik laxterren kendu eiguzu
lege beltz guztiz faltsoa,
Fuero fiñetan bizitu dedin
euskaldun erri gaxoa.

R. A.

Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jasotako orri batetik. Eskuz idatzita dago orri ori, azpian onela esaten dala:

«Se mandó a la Lealtad de Navarra para su publicación el día del Rey, con fecha 15 de Octubre de 1892».

Zer onra dan gipuzkoatarra izatea!

Menziyo edo Aipamen onragarria

Oñati-n irabazitako moldaera

1902-garren urtean.

Beste probintzi euskerazkuak
ziñez errespetaturik,
bañan euskalen etsai guziyai
galdetzen diyetalarik:
al da eguzkiaren azpiyan
gu beziñ onra zalerik,
gu beziñ ausarditsurik¹,
gu beziñ bulardetsurik eta²
gu beziñ umant aundirik,
gure moduan munduko jaunen
menpean egon ez danik?
Ezetz esango nuke ni.

Gipuzkoatarrak jatorritikan
santubak ez galararik,
(besteak ere Jaungoikoaren
semeak diradelarik),
zer esan nai du ez bada iñun
gu beziñ jende bikañik,
gu beziñ odol garbirik,
gu geran beziñ osorik,
naiz itxasoan, naiz legorrean
gu beziñ umantakorrik³,
eta kondairaz al da munduan
gurea beziñ ederrik?

Naiz fenizio, naiz kartagoak,
godo edo arabeak,
iñoiz etziran bada izandu
Gipuzkoaren jabeak,
zituztelarik ekarri beti
izugarrizko taldeak;
bada asaba gureak
ziran gudari trebeak,
naiz ill, naiz bizi ziradelako
guzizko bildurgabeak,
salbatu izan zituzten zintzo
Probintziaren onreak.

Bai al da gure euskera beziñ
izkuntza onragarririk?
Bai al da gure Lege Santubak
diran beziñ ongarririk?
Zerutikako bi izar oiek
badaude txit tristeturik,
samintasunez beterik,
oñazez erdibiturik,
daudelarikan ertsiturikan⁴
erdaldun katez loturik,
bañan ez dute alaz guziyaz
saldu nai beren onrarik!

Nola guk saldu ezerengatik
Gipuzkoaren onreak,
gure aitonak ain txukunkiro
beti ta beti gordeak?
Zenbait euskaldun gaudelarikan
erdaldun gaitzez erreak,
oraindik gera nobleak,
arrotzak baño obeak.
Nork esango du: Ez ditut maite
Gipuzkoaren Legeak,
Baldin bagera jatorritikan
onraz parerik gabeak?

Goienekoak gerala onraz
al det esan geiegirik,
baldin Cervantes argidotarrak⁵
neri erakutsi badit?
Guregatikan onek esana
bein bat nik irakurririk,
jarri nintzan arriturik,
osotoro miresturik!
Eta Gillermo Humboldtekoa,
atzerritarra⁶ zalarik,
Astarloaren adiskideak
ere erakutsitzen dit.

Ara zer diyen Cervantes eta
Humboldt euskera-zaleak:
lenbizikoak digu deitutzen:
«Onragarrizko loreak,
erregearen goarpelari⁷
izan giñezken jendeak,
geranak irakurleak
eta izkribatzalleak»,
Bigarrengoak diyo onela:
«Dirade euskal libreak
txit antziñako ibero zarren
odol garbiko semeak».

Zerbaitengatik dute kontatzen
gure kondaira garbiak
gerala Tubal ezkeroztandik
izan bantzutezgarriak!⁸
Emen kontura ekarri gaiten
zer diran ibar-mendiak,
al diran onragarriak,
etsaien garailariak⁹.
Gañerakoan esan dezala
egia... gaztelaniak:
zeñek bialdu zituben andik
moro-talderi aundiak.

Bai, bai, moroak ziran garaitu
Euskal Erriengatikan,
Kobadongatik Granadaraño
guk ziñez lagundurikan,
zazpi gizaldi luze aietan
fedea goiendurikan,
aizkenez Alanbratikan
itzuli biraldurikan;
euskal mutillak etorri ziran
osoro koroiturikan,
Opas ta beste salkindariyen¹⁰
lan denak desegiñikan.

Nun dirade, nun, Okendo eta
Txurruka bezelakoak,
bi fedetsuen gisa munduba
onraz apaindutakoak?
Zeñek egin gaur egin zubena
Elkano ausarditsubak,
Elkano bulardetsubak,
ontzi-gidari altsuak¹¹?
Egin zutena Urdaneta ta
Legazpi birtuosuak?
Bakar-bakarrik dute egiten
euskal kristau txit osuak.

Galdetu onra maite al zuten
Andia eta Lezori,
Urbietari, Bidezabali
ta beste milla zalduni.
Galde nai bada Orreaga ta¹²
Beotibar zelaiari;
galdetu San Marzial
eta Belate gañari.
Galde, bai, galde Gipuzkoaren
eskut-arma ederrari¹³,
ikusitzeko gipuzkoatarrak
zenbat nai diyen onrari!

Galdetu Aita Larramendikin
Mendiburu ta Errori,
onrarengatik zenbat on egin
zien zaldun erriari;
galde Aizkibel, Lardizabal ta
Iñigo Iztuetari,
galdetu Manterolari,
Bilintx, Iparragirreri;
galde Garibai, Zaldibia ta
Isasti, Gorosabeli;
galdetu onra maite al zuben
Nikolas Soraluzei.

Zerubarentzat ere izandu
ditugu onra-mordoak,
Aitzgorri ta Ernio baño
askozaz aundiyagoak.
Done Iñigo ta done Martin
gurutze-zale beroak,
bi santu umantagoak
al ditu eman munduak?
Aita Erkizia, Aita Lizardi
dirala done sendoak
daude esanaz biak sufritu
zituzten martiriyoak.

Kristobal Kolon illezkorrakin¹⁴
juan ziran gipuzkoatarrak,
etziralako itxasorako
errenak eta elbarrak.
Lepanton ere gure asabak
etziran izan baldarrak
(ta gutxiago zabarrak),
baizik gudari azkarrak.
Ondo ikusi ziran Flandesen
gipuzkoatarren indarrak,
nun-nai bezela giñalako gu
gudalariyen izarrak.

Jarri ziyonak Probintzi oni
izentzat *Egiputzuba*,
nai eta nai ez jaun arrek zeukan
zeruban begiratuba.
Beintzat zekiyen erri au zala
Jainkoak bedeinkatuba,
Jainkoak izarratuba,
Jainkoak doatsutuba;
eta nola dan Tubal ezkeron
onraren gorde-lekuba,
esan dezagun lotsatu gabe:
«Au da munduko zeruba!».

Nolatan ez da bada izango
mundu ontako zeruba,
birtute guzi-guziyetara
badago omenatuba?
Uzta-illaren ogei ta bata¹⁵
daukalarik goibelduba
eta guztiz turmoituba,
ekaitzez inguratuba,
bañan zerutik zalako jetxi
erri eder au mundura,
mundu ontako zerutik juango
da zuzen-zuzen zerura.

Ramos Azkaratekoak

Bertso-papera, *Tolosan*: - *F. Muguerzaren Moldizteguian* argitara emana.
Euskal-Erria, 1902. Onek, izenburuaren aurretik eta atzetik, onela dio:
«1902. Euskal-itz jostaldien batzarrea (Euskal-festen XXI garren urtea) Aipamen onragarriya Oñati-n irabazitako moldaera».

Ibaizabal, 1902-XI-23. Onek izenburuaren azpian onela dio: «Aipamen onragarriya Oñati-n irabazitako moldaera».

La Baskonia, 1906, 453 zenb.

Bertso-paperearen oarrak dira auek danak:

¹ *Atrevidos.*

² *Valientes.*

³ *Inclinados al heroísmo.*

⁴ *Sitiados.*

⁵ *Ilustre.*

⁶ *Extranjero.*

⁷ *Secretario.*

⁸ *Invencibles.*

⁹ *Vencedores.*

¹⁰ *Traidores.*

¹¹ *Piloto.*

¹² *Roncesvalles.*

¹³ *Escudo de armas.*

¹⁴ *Inmortal.*

¹⁵ *Ley de 21 de Julio de 1876.*

**Aita Julian Lizardikoaren
bizitza eta eriotza
itz neurtuetan**

Gipuzkoako Probentzi eder
leñargi eta leialak,
Tubal aundiyak erritu zuben
Kantabriyaren izarrak,
Probentzi zintzo, Probentzi gozo
Jaungoiko-zale zar-zarrak
kantatutzen du: «Ni onratzen nau
Lizardi... baserritarrak!».

Nola ez gera bada egongo
Probentziyakin batera,
baldin amaren sabeletikan
onra-zaleak bagera?
Argatik gera pozaz etorri
Lizardi onratutzero,
bere bizitza ta eriotza
euskeraz kantatutzero.

Milla sei eun larogei eta
amabostgarren urtian,
odol garbiko aiñgeru on au
jaio zan zorionian,
Azaro-illa izena duben
ogei ta bederatzian,
Asteasuko Urzuriaga
deritzan mendi-etxian.

Baserri onen aurrean dagon
gaztañ-arbolan barrenen,
umea zala, oraziyuak
antxen egin oi zituben;
Jaungoikoaren Probidentziyak
orduban eta ondoren
gure santuba beiñ bakarrikan
desanparatu etzuben.

Lazaro eta Ana Mariya
ziran senar-emazteak,
Asteasuko Eguzkiyaren
guraso maite-maiteak;
santubak izan etziralarik
ziran gurutze-zaleak,
gure Jaungoiko egiyazkoan
ziñezko adiskideak.

Aita Julian gazte-gazterik
sartu zan jesuitetan,
Santiagoko kolejiyotik
Kadizko urira joan zan;
eta andikan ontziratuta'
Paraguaira uretan,
ta arkitzen zan Uzta-illean
Buenos Airesko lurretan.

Lertu naiean zebiltzala bein
itxasoko ur gaziyak,
milagro batez pake gozoan
jarri zituben guziyak.
Zer ondo zeukan bere Jaunakin
gure Aita maitatiyak,
Gipuzkoako baserritarren
izar adoragarriyak!

Buenos Airestik joan zan Kordoba
deitzen diyoten artara,
Inazioren seme argiyak
zeukaten kolejiyora;
emen alanbrez zeatzen zuben
gogorki bere buruba,
egiteraño bizkar gañean
odol garbiko putzuba.

Mezaz ordendu zan egunetik
zan askoz santubagua,
berak aunditu zubelakoan
beretzat martiriyua;
Buenos Airesen egon berriz ta
Kordobaraño dijua,
ekaitz gaizto bat desegiñikan
egiñaz oraziyua.

Kordobatan Aita Lizardi
Loretora badijua,
zabaldutzero Jesukristoren
Ebanjeliyo santua;
an ere ondo ikusi zuten
euskal misionerua
zala doaiez eta birtutez
mallarik goienekua.

Andikan Buenos Aireseraño
birali zuten ministro,
an buruzari zegoalarikan
etzan bizitu eroso;
baizik indiyo asko ikusi
zitubenian aiñ gaxo,
karidadeko lanari ziyon
arretarekin eraso.

Paraguaira zuten biraldu
misiyuakin berriro,
txalupa batez berreun legua
urez zituban igaro;
joanera ontan Aita Julian
urperatu zan osoro,
bañan salbatu ta lau urtean
zan egon misionero.

Milla zazpi eun ogei ta amar-
garren urtea zanian,
jarri zan santu argidotarra
gradurikan goienian;
txiriguaitar biyotz gogorrak
jarriyaz bide onian,
ipiñi zuten Kontzepziyoko
misiyuaren aurrian.

Zazpi eun ta ogei ta amalau-
garrengo urtea zala,
santu aundiyak an egin zuben
konfesiyo jenerala;
bataiatu zan eran bezela
zalarikan zerutarra,
martir bizi ta martir iltzia
zan bere griña bakarra.

Zazpi eun ta ogei ta amabost-
garrengo urte artantxen,
ta Maiatzaren amazpiyan
ari zan meza ematen;
meza bukatu bañon lenago
etsaiak eldu ziyoten,
ta fletxazoka Asteasuren
onra goiena il zuten!

Bere gorputza ogei eta bi-
garreneko egunian
zegoan bada purrukaturik
mendi baten malkarrian;
ta Tarijara eramanikan
an sartu zuten lurpian,
Inazioren semeen eliz
dontsubaren barrenian.

Bañan bizi da zeruban eta
bataiatu zan pontian,
inguruetan arkitzen ez dan
elizik ederrenian;
da bizi Gaztelaniyan eta
Kolonen Mundu Berrian,
ta biziko da munduba-mundu
Tubalen Euskal Errian.

Kaja iriki diotenian
arki dizkiye gauza bi,
oiñ batean ta zanko berean
zaizkiyonak gaur agiri:
galtzerdiya ta bere zapata
osorik ditu ekarri;
ta galdetzen det: Onek milagro
aundi bat ez al dirudi?

Nola ta nondik galdu leitezke
bere ezur sagraduak,
baldin ekarri baditu onuntz
gure Diputaziyuak?
Nork eta zeñek iñoiz desegin
badira milagrosuak,
bere ondoan badauzka oraiñ
San Pedro gloriosuak?

Beragatikan nola ez altxa
Diputaziyo gurea,
berak Pedroren elizan sartu
badu beraren onrea?
Nola ez degu alabatuko
Aiuntamentu noblea,
bada izan ta izan nai badu
onraren jarraitzallea?

Asteasuko Aiuntamentu
argidotar onraduba
da izan bere eguzkiyantzat
begiratzalle justuba;
onek mugitu zubelakoan
Diputaziyo goituba,
gaude onratzen pozez negarrez
Lizardi santu-santuba.

Eta izanik Aita Lizardi
Gipuzkoaren gloria,
era berean Aita Iñigo
onratzen duben semia,
eta nola dan martiriyoko
koroi santuben jabia,
nola ez degu guk eskatuko
santuban santidadia?

Asteasu Bilguman gisan
eska deiogun bertatik
Diputaziyo txit goitubari,
biyotzan erdi-erditik,
esan guziyok modu onetan:
«Saiatu zaite bigartik
Alta Lizardi aldareratu
dedin sakristi barrutik».

Bigartandikan asiko da, bai,
Diputaziyo maitia,
Aita Santubak kantatu dezan
Lizardiren donedia;
Diputaziyo goitubak egin
badiyo oroikarria,
berak jarriko du aldarean
santu beneragarria.

Bizi dedilla Aita Lizardi
eta Diputaziya,
dedilla bizi Asteasu ta
bere Aiuntamentua;
guziyen gaiñdik dedilla bizi
Jesus gurutziltzatua,
dedilla bizi Euskal Erriyen
lege zar bedeinkatua.

Diyogularik guk Lizardiri
maitetasun bat sendua,
arren ta arren artu deiogun
gaurtandik sendoagua;
ta egin beti, beti ta beti,
euskeraz oraziya,
eta etzaigu iñoiz paltako
zeruko bendiziyua.

Ramos Azkaratekuak
1902-ko Maiatzaren 25-ean

Bertso-papera, *Tolosan*: - *F- Muguerzaren moldizteguian* argitara emana,
eta bertako Manuel Urreta zanaren eskutik jaso.

¹ Apirillaren bostean milla zazpi eun ta amazapiyan. (Egillearen oarra).

Zertarako oiekiñ ezkontzen zerate?

Euskal Erriko neskatxatxoak,
ernaitu zaitezte, arren!,...
zerengatikan gaitz pegakorra
dabilkizuten ondoren;
egiñ, egiñ gurutze,
orobat «Aitaren»,
plaga orren ekaitza
galdu dedin emen,
zergatikan kaltea
aundiya dakarren,
sartu ezkeroztandik
etxien barrenen.

«*Lo menos tengo cien millones,*
ori diru jakiñian,
y los billetes de Banco... cojo
gañezka berriz kofrian.
Tengo pueblos enteros
Malaga aldian.
Tengo dos mil molinos
gau t'egun lanian.
Tengo un gran piano
(bizkarren gañian),
porque allí dormía
(lastozko oyian).

Errañubaren gisan dabilta
beti zuen ondorian,
gauza on franko badaukatela
mingaiñ gozoen gañian:
«*Mi padre gobernador,*
mi tío alkate,
mis hermanas maestras,
conmigo cástate...».
Ai, mirabe gaztiak,
erantzun nazute:
zertarako oiekiñ
ezkontzen zerate?

Tenemos viñas, tenemos trigo,
tenemos... tanto aceite...».
Tenemos nada (ezkonduzian
beti gertatzen zerate).
Onak badiradela
esaten dezute?
Bi milletatikan bat
atera zazute;
infernutik zerura
sartzen dituzute,
egiñ ezkeroztandik
oriyen emazte.

Ezkondu eta... ondorenian
dira komedi... politik;
gaxo daudela... lanerako ta
azaltzen dirade... tranpak;
gizona etxian... ta
andria fabrikan,
gurasoak errietan
beste... aldetikan:
«Biraldu zan senarra
azkar etxetikan,
aurren bat izan bañan
lenagotandikan».

Emaztiak:

«*Mi muy querido... ¡Ay mi marido!*
¡Qué malas noticias hay!
Porque vosotros alperkerian
dezutelako bizi nai;
desde mañana asi
bearko lanian,
kixkurtzen egon bage
subaren aurrian,
“atso sukaldeturik”
eltzien gañian,
cantando seguidillas
tripa betetzian».

Senarrak:

«*Siempre me llaman Prisco Veneno,*
al mismo tiempo soy liberal,
soy mano negra y socialista,
soy monárquico y federal;
el día que me llegue
Capitán General,
con estos sagarduos
no voy a tolerar,
porque siempre me dicen
que vaya a trabajar..
En mi País es gran honra
el ser muy holgazán».

Emaztiak:

«*Con tus mentiras, con tus garbanzos*
cansos nos tienes aspaldi;
si eres liberal, si eres federal,
todas las farsas para ti;
aquí es necesario
trabajar, trabajar,
con fábulas la tripa
no se puede llenar;
el padre a palizas
hoy te va a matar...
Hasta que te entierren
no vas a descansar».

Senarrak:

«*Nadie a mí a palos me mata,
 porque soy... valientia,
 tengo en Sevilla una gambara
 gizonen larruz betia:
 hice muertes y robos
 Utrera aldian'¹
 estuve en presidio
 ogei bat urtian;
 prefiero por la honra
 morirme kation,
 tocando mi piano...
 ta ez asi lanian*».

Nota.- Ontan asi zan emaztia jokaka.

Emaztiak:

«Aita, etorri bedi aguro
 makill aundi bat artuta,
 zerengatikan alper txar onek
 narabilkiyen jokaka».

Senarrak:

«*Cállate, sagardua;
 cállate la boca,
 no grites: Guretarrak,
 bide gabe jota*».

Emaztiak:

«Aita, betor agudo,
 iya ito nau ta».

Senarrak:

«*Habla aquí en cristiano.
 ¿Por qué fuiste tonta?*».

Emaztiak:

«Ai, Jaungoikoa! Auxen da, auxen,
 auxen da bizi-moduba!
 Oi! Oi! Aitatxo! Ez al du entzun
 biotz nereko ojuba?».

Aitak:

«Bai, bai, aditu diñat,
 or naun, or, agudo.
 A, a, zer nolakoak
 dizkaten emango!
 Ez diñ, ez, etxe ontan
 bearrik egingo,
 bat, bi, iru, lau esan ta
 zionat ekingo».

Senarrak:

«*¡Vaya qué padre tan embustero,
 ¡Vaya qué padre tan bribón!*»..

Emaztiak:

«Aita, labana artu du eta
 obe du pakian egon.

Senarrak:

«*Venga Ud. cuanto antes,
 venga Ud., mal suegro;
 soy capaz de llamarle:
 lerdo, más que lerdo!*

*En figura de... estatua
 aquí le espero.*

*Me voy a hacer un héroe...
 (si no tengo... miedo)*».

Aitak:

«Zer esaten dek, mutur zikiña?
Zer esaten dek, ordea?
Ara nun dekan i zapaltzeko
labana bañan ohea:
Kis! kas! kiskas! kiskas! kas!
Iretzako zazpiyak.
Da! da!... Da, da, da, da!
Amabi t'erdiyak!
Dan!... Jo dek ordubata.
Bum!... Bum! Ordubiyak,
erleju txorogorik
etzeukak erriyak».

Aitak:

«Aixa nai uke denbora on au
aitak alperrik galtzia,
artzen ditunak egokigo dek
totala ateratzia.
Zirt! Zart! Zirtzart! Zirtzart! Zart!
Ortikan kalera
Din!... Dan!... Din dan! Din dan!
Segi zak aurrera!».

Senarrak:

«¿Usted quiere mandarme
Ebroz auntz aldera?».

Aitak:

«Bai... Bai... Piano ori
afinatutzera.

Senarrak:

«Tras de placeres vienen las penas,
oh suegro, perdón y perdón...».

Aitak:

«No, no, tomarlos a buena cuenta,
¡aprende quién es el bribón!».

Senarrak:

«¡Queridísimo padre!
¡Que día tan fatal!
¡Los huesos el entierro
me empiezan a cantar!
Usted sí que es un héroe
y también inmortal.
¿Cuántos me tiene dados?
Saque Ud. el total».

Pasa diagu Bitoriya ta
denboraz gaituk Mirandan,
ire lagunak entzun ditzaten
jotzera niak din... din... dan.
Joan ari emendikan
a tu tierra-ra,
ez ago etorririk
geiago onera;
or, or izan dedilla
zuen akabera:
erdaldunak erdera,
euskalak euskera».

Bertso auk 1894-VII-1-ean agertu ziran *El Cantabro* aldizkarian. Ramos Azkarate-ren eskuetatik aldizkari ortara zuzenean pasako ziran, beste iñoren eskuetan ibili gabe. Orregatik, bera degu agerpenik jatorrena eta fidagarriena. Ala, berari kopiatu diogu.

Euskalzale, 1899-VI-29.

Ibaizabal, 1903-V-10.

Kanta-paperetan ere sarritan argitaratu ziran bertso auk. Orregatik, bertso-paperen saillean jarri ditugu. Ona emen bertso-paperetako argitaraldi batzuk, gure eskuetara iritxi diranak:

Bertso-papera, *Imp. de la Vda- Valverde*. - Irún moldiztegia.

Bertso-papera, *Reimpreso en San Sebastián en la Imp. "La Económica"* moldiztegia.

Bertso-papera, *Imp. de S. de Diego*. - Eibar moldiztegia.

Bertso-papera, *Imp. de Fernández y Diego*. - Eibar moldiztegia.

Bertso-papera, *Eibar: P. Orue*.

Bertso-papera, *Guernica: A. de Goitia y Comp.*

Bertso-papera, *Durango: F. Elosu*.

Bertso-papera, *Elustondo*. - Zarauz moldiztegia.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Tolosako *Txinparta* elkarteak argitara arazia.

Kanta-bildumetan eta aldizkarietan ere agertu dira bertso auk, aitatzerik merezi duan aldaketarik gabe. Adibidez:

Nere atsegiña, 2gn. idaztia. Ediciones Mendiburu. Liburuska onek beste argibiderik ez du. Baiña gerra aurrekoa da, dudarik gabe.

Bertsolariya astekaria, 1931-X-11.

Euskal Erriko Kanta Zarrak, Imp. Macazaga, Rentería.

Euzkadi egunkarian, 1933-VIII-23.

Gerra aurreko *Argia* astekaria, 1935, *Galde-erantzuerak* saillean, 4.881 zenbakian. Ez dakigu zein egunetan.

Euskal Kantak (Cantos populares del País Vasco), Donostia'n 1959'ko Otsailla.

* * *

Bertso auk Galtzaundiren bertsoen doiñuarekin kantatzen dira.

Elosegiko On Jose Jaunari bere santuban egunian

“Billa-Mariyan” bizi diraden
aiñgeru pare-gabiak,
gure Tolosa onratzen duten
Printzipe leial nobliak,
Santa Mariya beti edertzen
saiatzen diran jendiak
maite ditu ta maiteko ditu
Ama Dolorez betiak.

Txit maite ditu biyotzetikan
Azkarateko semiak,
maiteko ditu bizi dan arte
bere ongille maitiak;
txit argidotar izango diran
Fueroen maitatzalliak,
goza bitzate mundu ontako
atsegintasun guztiak.

Tolosan, Martxoaren 19-an,
1894-garren urtean.

Ramos Azkarate-koak.

Bertso-pare au, bere argibide oiekin, txartel txiki batzuetan agertu ziran, 11'5 eta 15 zentimetro luze-zabalean.

Elosegitar oiek Tolosako txapel-fabrikako nagusiak ziran, eta Elosegiko Markesak izendatuko ziranak. Leen esan degunez, beren jauregia San Franzisko komentuari ondoan zuten, gaur *Gernikako Paseabidea* dagoan ortan.

Ramos Azkaratek bein baiño geiagotan aitatzen ditu bere bertso-sailletan; baita ere, bertso-pare ontan bezela, zorionak bialdu.

Adiskidetasun ori nundik zetorren bertso auetako bigarreanean garbi agertzen du, bere buruagatik ari dala onela esanez: «maiteko ditu bizi dan arte bere ongille maitiak».

Elosegiko On Antonio jaunari
Garagar-illaren 13-an,
1897-garren urtean.

Alde batera lajaturikan
aberats *biziosuak*,
besteren onik ezin eraman
duten *inbidiosuak*,...
(berenak eta besterenak jan
dituzten *orgullosuak*),
«Gu gera onak!» esaten duten
liberal fariseuak...
utsegiteko doai aundiya
dituben *Patri-osuak*...
eta onekin bildutzen diran
sorgintegiko *atsuak*,
oiek saiitzen diradelarik
zuri jarritzen lazuak,
elbarrituta dira arkitzen
arturik makillazuak,
zergatik zure izen aundiya
du maite *Egiputzuak*,
eta jarritzen zaitu goi-goian
gure *Laurak-bat* dontsuak?
Zerengatikan altxatzen zaitu
Españi oso-osuak,
esanaz zure doai ederrak
dirala birtuosuak?

Diradelako zure begiyak
guziro errukitsuak,
argatik dira *Jaungoikozkuak*
beti zedorren pausuak;
beragatikan esaten degu
pobreak eta gaxuak,
Ongitegiko¹ etxean eta
Gaiztategiko presuak,
nola kendutzen dizkigun miñak
Elosegiren besuak.
Kanta bezate mundu guziyan
zure txapela gozuak,
iñork lotsatu ezin dituben
gerrero gloriosuak;
gu illagatik gorde zaitzala
Antoniyo Paduakuak,
gorde ditzala guztiz luzaro
zedorren ondorenguak,
boinengatikan senda ditezen
euskera eta fueruak.

Ramos Azkarate-koak

Itz-neurtu luze au ere, aurreko bertso-parea bezela, Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jaso genduan, inprentatutako txartel batean.

¹ *Casa Beneficiencia*. (Egillearen oarra).

Jeiki naizenerako
goizean oietik,
atsegin bat sentitzen
nuben ingurutik;
nunbait neri birali
dirate zerutik,
zuri gaur egun onak
emateagatik;
egun onak millaka,
urteak ugari,
osasunakin opa
dizkitzut nik zuri,
zerorri bejalaxen
etxeko danari,
ala nai dakiyola
Sn. Antoniori.

Ramos Azkarate

Onako au eskuz idatzitako orri batetik degu. Gure anai Jose Marik bialdu zidan, beste orri batean onela idatziz:

«Adjunto te mando un manuscrito de bersos que me ha dado Juanito Elosegui, se trata de unos versos que en el día de su cumpleaños le dedicó Ramos Azcarate a Dn. Antonio Elosegui, escrito por su puño y letra».

Garrantzitsua azken esaldi ori: Ramos Azkarateren esku-idazki bat eta bere firma, alegia. Urrengo orrialdean eskeintzen degu esku-idazki ori.

Anzo-olako irakurtzen da izenburuan. Jaun orren abizenak, oker ez bagaude, Elosegi Ansola baitziran.

Amairugarren lerroan *bejlassen* irakurtzen da. Ez degu *bezalaxen* idatzi nai izan. Donostian, izan ere, *bezela* eta *bejela* biak entzuten ziran garai batean. Tolosan ere bai, beraz? Ez dakigu. Baiña idazkera ori errespetatu bear zala pentsatu degu.

Urretxuko erriari

Irimo mendi ibai Urolan
biyen erdiko perlari
Iparragirrek erregutzen dit
abiyatzeko kantari;
berak bezela ez dakit baña
bera daukat nik gidari,
zortzikotxo bat kantatutzeko
Urretxu pollit oneri.

Areizaga ta Jauregi baten
seaska maitagarriya,
au da erri bat berez txikiya
bañan obretan aundiya;
emen, bai, emen arkitutzen da
Labeagaren kabiya,
bai eta berak fundatu zuben
eskola ikuskarriya.

Izartutako laño urdiñ bat
ber-bera dala dirudi,
emen ez dago beñere goibel
baizikan beti otzgarbi;
onek ez diyo birtutietan
inbidirikan iñori,
zerengatikan erri guziyak
jarraitzen diyon onrari.

Au ezin dute gaurko jauntxuak
berriketakin erosi,
Balle Andorra bezel-bezela
bera da bere nagusi;
naiagatikan aundiyaquak
beren mendean ikusi,
zintzo ta garbi begiratubaz
txit libre oi da au bizi.

Urretxutarrak dira argiyak
amaren sabeletikan,
dira guzizko lan-egilleak
beren aitonetatikan;
dira fueristak nai eta nai ez
Joxe Marirengandikan,
dira garbiyak ta dantzariyak
oitura zarrengatikan.

Emen ez dago sozialistik,
ain gutxi anarkistikan;
ez dago emen Jaungoikoaren
bildur santuba baizikan.
Ez det nik uste emen izandu
badanik petardorikan,
ez det sinisten aurrera ere
iñoiz izango danikan.

. guziya pake gozoan
. go bateratuba,
. atsena beartsubakiñ
. txit anaiatuba;
. ta pesta ta teatroan
. o aurreratuba,
. . . n leiteke Urretxungatik
. . . du ontako zeruba.

Bizi dedilla euskerarekiñ
euskaldun erri maitia,
dedilla autsi erdal gaiztoak
lotu ziguten kattia;
bizi bedi, bai, Iparragirrek
bataiatu zan pontia,
dedilla bizi bere erriko
pare gabeko jentia.

Bertso auk, Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jasotako esku-idazki batetik ditugu. Berari beste orritxo bat itsatsi zion jaun orrek, itz auk idatzita:

«Bertso oiek Ramos Azkaratek bere eskuz idatzitakuak dira». Orregatik, esku-idazki ori urrengo orrialdeetan eskeintzen degu.

Zazpigarren bertsoaren itz edo letra batzuk falta dira, paperaren ertz ori puskatuta dago eta.

Bertso-sail au iñun ere argitara atera zan ez dakigu.

giniya pagua gorwan
lagu bataraluba;
tataena beartubayuin
abit anayaluba:
ka pesta, ta teatroan
a aurrenatuba,
a leiteque Vnacthuan gatti
adu ontaco Lemba

Piri didilla Euzguerazguin
Luzaldun-essi maitia
Didilla autsi endal gitatoan /
Lo riguten calia /
Piri bedi bai Sparnaguisse
Batayatu zati pontia
Didilla bizi bere essico
Pase gabeco jentia

Jesusen Lagundiko
Aita Jose Mari Laskibarkoari
Atoz pekataria-ren doñuan

Jesusen Lagundiko
Aita Jose Mari,
zenbat atsegin eman
dizkiguzun guri!

Betor, betor Satanas,
bai ere Luzifer,
betoz Judas ta Kaifas,
betoz milla bider,
betoz suak arturik
Tolosara aurten,
iya Aita Laskibar
izutzen al duten.
Jesusen Lagundiko...

Alako arbolaren
adarra zerade,
etsaiengatik iñoiz
etzerana gorde;
naiz il beti zabiltza
egiyaren alde,
zer gudariya zauden
ezpatarik gabe!
Jesusen Lagundiko...

Datorrela Moraita
eta Víctor Hugo,
betoz mahomatarrak,
masoiak naiago;
etorriyagatikan
Jordan ta Lutero,
ez diye Laskibarrek
itzuli egingo.
Jesusen Lagundiko...

Armikan ez du bañan
bai jakinduriya,
da bere erriyaren
illargi berriya;
Euskalerriko seme
maisutxit argiya,
oso oinperatu du
liberalkeriya.
Jesusen Lagundiko...

Masoi liberalakin
dago txit aserre,
eta ez da izango
iñoiz adiskide;
Laskibar zeñek jarri
pekatuen alde,
baldin naiago badu
bizirikan erre?
Jesusen Lagundiko...

O zer seme umanta
dadukan Tolosak!
Martiri izatia
dauka atzegintzat.
Nola bereganatzen
dakiyen biyotzak,
esanaz itz-tokitik
Jaungoikozko itzak!
Jesusen Lagundiko...

Deadar biyotzetik
egiten ziguben,
paper faltso oriek
ez letzeko, arren!
Arritzen da euskalak
lotan nola gauden,
ezin ikasirikan
nork iltzen gaituben.
Jesusen Lagundiko...

Adierazi digu
garizuma ontan,
zer etsaiak dauzkagun
bazter guztietan;
gu miñez ikustez
ain dago penetan,
iltzeko prestatu zan
itz-tokiyan bertan.
Jesusen Lagundiko...

Gu salbatzeagatik
ilko ziñakela,
aingeruak zerutik
gorde zaitzatela;
dakigu biyotzetik
nai diguzubela,
baita guk ere zuri
bestek ez bezela.
Jesusen Lagundiko...

Ogei urte oietan
ikusi ez arren,
Aita Jose Mariak
zer maite gaituben!
O zer guraso ona
andien ondoren,
gaur Tolosa guziyak
koroitzen zaituben!
Jesusen Lagundiko...

Zu bezela guziyak
fiñak balirake,
euskara ta fedia
ilko ez lirake;
gañera Fueroakin
biziko giñake,
ez gaur gauden bezela
masoi oien mende.
Jesusen Lagundiko...

Aundiyak diralako
zure mesedeak,
biyotzaren erdiyan
dauzkagu gordeak;
sariatu ditzala
Jaungoiko maiteak,
merezi bezelaxen
zere birtuteak.
Jesusen Lagundiko...

Zere erri maitea
fedez igurtzita,
bazuaz oroitza bat
betiko utzita.
Ai egingo bazendu
urtero bisita,
alabear eder bat
zerutik jetxita.
Jesusen Lagundiko...

Ez gera, ez, aztuko
zutuz gau ta egun,
zergatikan Aitarik
goiena zaitugun;
zuregatik iltzeko
ez gerade bildur,
agur, Aita Laskibar,
agur, agur, agur.
Jesusen Lagundiko...

A. M. D. G.

Bertso-papera, *Tolosa: Imp. de F. Muguerza* moldiztegian argitara emana.
Egillearen izenik ez da esaten; baiña Ramos Azkarateren usaia artzen diot nik
beintzat bertso auei.

Agidanean, aita Jose Maria Laskibar, erriko semea, Tolosan izana zan sermoiren batzuk edo misioak ematen, zein urtetan ez badakigu ere.

Bertso Berriak

D. Tirso Olazabalentzat

Gure begiak naiz egin negar
biotzez maite zaitugu,
gure aurreko lege ederrak
zugana zuzentzen gaitu;
naiz eta penak gau eta egun
gure bizia laburtu,
aurrera ere ill arteraño
ez genduke nai mudatu.

O gure arbol frutu txit gozo
eta ederrak emana,
erdera izan da zure sustraiak
galduarazo dituana.
Nola litzake gu elkartzea
orain erdaldunengana?
Ez da beldurrik, ez da kenduko
itz onakin gure pena.

Euskal Errian gizon jakintsun
eta prestubak badira,
beragatikan gure biotzak
poztubak arkitzen dira;
ikusirikan nola izan dan
gure lenagoko jira,
ez genduke nai aurrera egon
erdaldunari begira.

Sentimentuan denbora labur
au igarotzen degunian,
arbol maitea, aditzera eman
euskaldun danen artean,
deadar egiñaz: «Atozte, seme
txit nekatuak bidean,
eseri eta deskantsatzera
nere itzal ederrean».

Jaungoikuari bear diogu
euskaldunak erregutu,
pake gozo bat gure gañera
zurekin dezan biurtu;
bada animo sendoz nai degu
zure ondoren segitu,
ta gure arbol Gernikakua
zure eskutik aldatu.

Defenditzeko jarri nai degu
buru D. Tirso Olazabal,
jaun orren kontra dabiltzan oiek
burutik ez daude kabal;
obiagotzat jarri nai dute
kastellano bat: Nocedal;
orain integro omen da ori,
lenago zan berriz leal.

Cabrera ere jefe ona zan
guizon askoren auan,
ark egiñakin ez al ziñaten
eskarmentatu orduan?
Mingaiñ onakin engaiñatuta
faltsia egin da juan,
kastillanuak buru jarrita
orra gero zer daguan.

Orra euskaraz bertso berriak
ondo enteratziarren,
badakizute orain disputa
nola gertatu dan emen;
lenago ere erdaldunakin
ondo aspertuta geunden,
oiek kentziakin kontentuz gera,
au gerta dedilla, amen.

Don Tirso jauna etorri zaigu
baliente eta amable,
gizon batzuek jaun aundi ori
ikusi nai ez ala ere;
leal guziak burua altxatu,
esan lotsarikan gabe:
«Kastillanorik ez degu biar,
gu euskaldunaren alde».

Bertso-papera, *Eusebio Lopez-en Moldiztegui*an argitara emana.

Bertso auetan ere leenago aitatu degun karlisten eta integristen arteko auzia ageri da.

Nocedal-i euskaldunak

*Biotzean kurutza,
eskuan bandera,
euskalduna nai degu
eraman Gortera.*

Nora zatoz zu, Nocedal jauna,
Euskal Errira eskean,
zu bezelako beste gizon bat
ez dagolako ustean?
Guk baditugu gizon azkarrak
billatu gabe erbestean,
obe zenduan mugitu gabe
pakian egon etxean.
Biotzean kurutza...

Paper batekin nai izan dezu
karlista arraza desegin,
paper batekin, garaitu ez dana
burnizko arma danekin!
A, gizajoa! Zure gañean
naikua dezu zeregin,
lenago dira gure mendiak
lautu ta jarriko berdin.
Biotzean kurutza...

Oroitzen gera ondo, Erramon,
zure aitaren esana:
«Bedeinkatua izan dedilla
Zumalakarregi jauna
il zuan bala»; eta orain zatoz
lotsatu gabe gugana,
jeneral azkar aren errira
aitaren seme zerana?
Biotzean kurutza...

Zuk jardun zazu etxe ta kale
berritxukerian, jardun,
inozenterik edo ez jakiñik
baldin arrapatu... dezun;
baña jardunen ajolik gabe
ara guk zer eingo degun:
.....
.....
.....

Zu, diozunez
eta fuerista ba
nun egon ziña
giñanean gora
Jaungoikoaren eta Fueroen
altxaturikan bandera?
Urruti emendik, bada urrutira
joan zaitez orain eskera.
Biotzean kurutza...

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea. Puskatuta dago eta ez da dana irakurtzen. Orregatik puntuz idatzitako utsune oiek.

**Azpeitiko distrito edo
barrutiyen botuak dituzten
nere anai maitagarriyai
Orra nun da Urnieta-ren doñuban.**

Azpeitiko barrutiya,
o leku zoragarriya,
euskaldun garbi-garbiya!
Sartu zitzaizun oraiñ bi urte
tranpan *Nosedar-keriya*,
seta txit lotsagarriya,
Fueroen etsai aundiya,
gure desonragarriya.

Artzai-moduban lau otso,
bizi diranak eroso,
saldu nai gaituzte oso.
Turroia lasai jatiagatik
beste zortzi bat tranposo,
karlistak zirala atzo!...
Ez ezagutu guraso,
baizik bototan eraso.

Oriyen asmo larriyak
nundik diran etorriyak
dakizki masoneriyak.
Negar egiñaz oroitu gaiten
zer diyon Fuero garbiyak;
lege zar maitagarriyak
kantatzen ditu egiyak:
*illtzeko sabel zuriyak*¹.

Gaur gizon *sabel zuriya*
eta *traidore* aundiya
omen da *gutziz argiya*.
Perla oiekin abiyatu zan
emen *Nosedar-keriya*
saldutzen Euskal Erriya
eta istori garbiya,
munduban arrigarriya.

Lengo maskara kenduta,
santutzat *Ramon* artuta,
dabiltza lotsak galduta;
testimoniyo guttiz paltsuak
Don Karlosentzat sortuta,
mandamentubak aztuta,
juramentubak salduta,
trinpiti-tranpan sartuta.

Darabizkiten pausoak
diradela txit gaiztoak
daki Probintzi gaxoak!
Milla berreun ezkeroztandik
Errege egiazkoak
eta Fuero zar zintzoak
dira anaia osoak,
elkarren lagun gozoak².

Karlosen juramentua
daukagu bedeinkatua,
biotz barrenen sartua.
Jaio giñaden defenditzeko
Jaungoiko errukitsua,
Fuero zar zintzo-zintzua,
Sort-erri gaxo-gaxua
eta Errege gozua.

*Tranpan-lur*³, *Por-diru-zabal*⁴
*Patrio*⁵ eta *Nosedar*⁶,
*Pelipo-Fraxku*⁷ nunbait an!
Lege santubak agoniyan ta
oiek turroia aukeran;
saturik bostak ganbelan
ari dirade jan ta jan,
naiz gu soldadu eraman.

Maroto jaio ez bazan,
Nosedar-tarrik gaur etzan,
orduban plaga au sortu zan.
Orain bi urte paltsokeriyan
Tirsoren kontra zebiltzan;
ta... aurten orduko gisan
begira nola dabiltzan
gure botuen arrantzan!

Ez gaiten izan itxubak;
euskaldun leial prestubak,
eman Tirsori botuak.
Erramuntxontzat bazuaztenak
zerate ardi galdubak,
edo... zauzkate saldubak
seta madarikatubak;
ai gure Lege Santubak!

R. Arranz-illun

Bertso-papera, *Tolosa*: - *Imp. de E. López* moldiztegian argitara emana.

Bertso auk integristen eta karlisten auzia beroenean zala moldatutakoak dira. *Nosedar* ori, dakigunez, Ramon Nosedal jauna da, integristen buru zana. Zortzigarren bertsoan aitatzen diranak, nungoak diran egilleak berak oarretan salatzen du, eta erri oietako erretore jaunak dira, Ramos Azkarate auzitara eraman zutenak, itzaurrean esan degunez.

¹ Fueroen liburuan 2-garren Kapituloan, 29-garren Tituloan.

² Letu bitez Gipuzkoako Fueroak.

³ Azkoitikoa.

⁴ Errezillkoa.

⁵ Tolosakoa.

⁶ Egñaren faltsoztallea jakiñaren gañean.

⁷ Amezketakoa. (Bertso-paperearen oarrak).

Azpeiti-co distrito edo barrutiyan botuac dituzten

Nere Anal Maitagarriyai.

«Orra nun dan Urneta-ren doñuban.

—1—

Azpeiti-co barrutiya
¡Oh lecu zoragarriya!
Euscaldun garbi garbiya.
Bartu eiztaigun orain bi urte
Trampan *Nosedar-queriya*
Setá chit lotsa-garriya
Fuero-en etsai aundiya
Gure deshonra garriya.

—2—

Artzai moduban lau otso
Bici diranac eroso
Saldu nai gaituzte oso.
Turroya lasai jatiagatic
Beste zortzi bat trampano.
¡Curlistao cirala atzo...!
Ez ezagutu guraso
Baicie bototan eraso.

—3—

Oriyen asmo lariyac
Nun die diran etorriyac
Daquizqui masoneriyac.
Negar eguinaz oroitu-gaiten
Cer diyon Fuero garbiyac
Legue-zar maitagarriyac
Cantatzen dita eguiyac:
Ill-tseco zabel zuriyac. (1)

—4—

Gaur guizon *zabel zuriya*
Eta *traidore* aundiyn
Omenda, *guztiz arguiya*.
Perla oyequin abiyatu zan
Emen *Nosedar-queriya*
Saldutzen Euscal-erriya
Eta histori garbiya
Munduban arrigarriya.

—5—

Lengo muscara quenduta
Santutzat RAMON artuta
Dabiltaza lotsac galduta.
Tesmonioyo guztiz paltanac
Don Carlos-entzat sortutá
Mandamentubac aztutá
Juramentubac saldutá
Trimpiti trampan sartutá.

—6—

Darabizquitzen pansonco
Diradela chit gaiztoac
Daqui ¡Provinci-gasoac!
Milla berroun ezqueroz tandio
Erregue eguiyac^ooac
Eta Fuero-zar cintozac
Dirá anaya osoaco
Eloarren lagun gozoac. (2)

—7—

Carlos-en juramentua
Daucagu bedeincatua
Biyotz barrenen sartua.
Jayo guinaden defenditzeco
Jaungoico erruquitsua
Fuero-zar cintozo cintzua
Sort-erri gaso gasua
Eta Erregue gozua.

—8—

Trampan-lur, (3) *Por-diru-zabal* (4)
Patrio (5) eta NOSE-DAR (6)
Pelipo-Frasco (7) ¡numbait an!
Legue santubac agonian-ta
Oyee turroya auqueran
Sarturic hostac gambelan
Ari dirade jan ta jan
Naiz gu.soldadu eraman.

—9—

Maroto jayo ez bazan
Nose-dar-tarrie gaur etzan
Orduban plaga-au sortuzan.
Orain bi urte paltsoqueriyan
Tirso-ren contra cebiltzan
Ta... aurtin orduco guisan
¡¡Beguirá nola dabiltzan
Gure botuen arrantzan.!!

—10—

Ez gaiten izan ichabac.
Euscal-dun leyal prestubac
Eman Tirso-ri botuac.
Erramun-chon-tzat bazuaztenac
Cerate ardi galdubac
Edo... zauzcate saldubac
Setá madaricatubac:
¡¡¡AY GURE LEGUE SANTUBAC!!!

R. Arranz-illan.

(1) Fuero-co Ibursua 8-garren Capituloan 39-garren Tituban.

(2) Letu-itzez Guipuzcoa-co Fueroac.

(3) Azcoiti-coa.

(4) Berez-ili-coa.

(5) Tolosa-coa.

(6) Egitua-ren laietzaletza Jaquits-coa gaiten.

(7) Amezqueta-coa.

TOLOSA:—Imp. de E. López.

LAZCAUCO PLAZAN

JOCATU CIRAN BI PARTIDU MARZUAKEN 8^o 1885 GARREN URTEAN.

1.

Lengoan bi partidu
Lazcaon izanic,
Cantatu gabe inola
Egon isslic?
Orainchen ere nago
Ecin sinisturic,
Mirabe batec ala
Jocatu zubenic,
Otedu besteric,
Bere parecoric,
Bi partidu aian errez
Jango ditubenic,
Ay! baldin balitzaque
Bera hacarric.

2.

Ascocho baliraque
Modu artacoac,
Plazan inola aguertu
Guizonezcoac?
Arren! gorde gaitzate
Gure-Jaungoicoac,
Nagusi jarri gabe
Emacumezcoac,
Gaur Lazcaucoac,
Badauzga egoac,
Cerubac eman eta
Bañan alacoac,
Bi guizoni gaitelic
Erain dacoac.

3.

Emacumeac jarzen
Badira nagusi,
Ez guitezque inola
Soseguz bici,
Ezquerrac diradela
Pelotari inichi,
Eta ecin litezque
Ascora irichi,
Ori da lembici,
Nabena icusi,
Guizen bi zitubena
Lotsaturic utzi;
Coroi bat urrezcoa
Laque mereci.

4.

Norbaiteri quenduric
Soñetican galtzac,
Emango ote gitzquiyet
Nie berarentzat?;
Otsoa lotsatzen du
Guizonaren antzac,
Baita ere dematu
Chit ederqui artzac,
Argatican galtzac,
Emacumeentzat,
Conveni izan arren
Bada norbaitentzat,
Paradisoco fruta
Gegoratzen zait....

5.

Gaizqui baldin badatoz
Cembaitentzat galtzac,
Jantzitza douzate
Gona gorontzac;
Arturican inayac
Amuco ardatzac,
Frutea daucate
Familiarentzat,
Lan ori caltetzat,
Badute berentzat,
Beste bat obegoa
Badula derizat,
Messorcat betetzca
Eulearentzat.

6.

Ibayac badirade
Eder ta aundiyac
Bañan itsasoentzat
Dira guciyac,
Munduba bustitzendu
Ceruco euriyac
Baita ere berotu
Berriz eguzquiyac;
Milagro berriyac
Gaude icusiyac
Chepech batec benutzen
Errez gabirayac!
Cer gloriyac dituben
Euskal-erriyac....

Bi gizon beste aietakoak (Patri eta Txomiñ)

Patri:

Jaungoikoak egun on
dizubela, Txomiñ,
bartarratsean lorik
ez det nik egin.
Sánchez Ascensio-gaz
pasa zaigunakin,
oieratu nintzan ni
naigabe batekin.
Giyarrean det miñ,
bear ote det ill?
Ezin aguantatu det
oñaze oiekin,
arren!, igortzi nazu
ukendubakin.

Txomiñ:

Guzirozko txarra da
nere ukenduba,
Kadizko Korte aiek
puzunituba.
Sardá jaunak diyonez
au da pekatuba,
Ama Eliza Santak
txit kondematuba.
Ekatzu eskuba
artzeko pulsuba;
lendik... ukendu ontan
zaude... lardatuba,
etzera dirudizun
bezin santuba.

Patri:

Santuba ez naizela
neronek badakit,
bañan... trinpiti-tranpan
asko datorkit.
Karlisten familiya
galdutzeagatik,
salto egingo nuke
gaur odeietatik.
Beltzen ganbelatik
jaten det gogotik;
zer dit neri ardura
Sardá batengatik,
Aita Santu ta Obispo
guziyengatik?

Txomiñ:

Beajundaizula, Patri,
o nere anaia!
Zu bai zerala gizon
guztiz ernaia!
Biyon partiduba da
turroia, turroia,
gañera ez txikiya
baizikan larriya.
Planon bat berriya
al dezu jarriya,
galdutzeko Karlosek
daukan familiya?
Nolakua dan esan
nazu egiya.

Patri:

Ni beti nola naizen
gutziz intrigua,
saltsa jarritzen nazu
oso pijua.
Ala erriyan jarri
nuben enredua,
esanaz Karlos jauna
etzala lengua,
baizik oraingua,
txit katolikua,
Nocedal-tar guziyak
ez bezelakua;
orra bada, Txomintxo,
nere planua.

Txomiñ:

Zer esaten didazu?
Erotu al zera?
Don Karlos famatutzen
dezu ostera?
Zuazkit emendikan
agudo etxera,
Nocedal-i itz oiek
eskribatutzero.
Bañan zu zer zera?
Neronen antzera,
nolanai ibillitzen
zeran egabera?
Beñepein politikan
piña etzera.

Patri:

Ni paltsua naizela
esan nai dirazu,
zuk ere titulu au
ortxen daukazu.
Republika jenero
denak nai dituzu,
Doña Kristina ere
gustatuzten zazu.
Berotzen banazu
damutuko zaitzu;
nor naizen oraindik
ondo ez dakizu;
muturreko bat laixter
artuko dezu.

Txomiñ:

Zuk ni muturrean jo,
demonstre petrala?
Uste dezu ni bañan
geigo zerala?
Subak nere odola
berotu ditzala,
naiz zure burubakiñ
nik autsi kristala.
Ez naiz, ez, motela,
ez eta ustela,
ezpazaitue zapaltzen
merezi bezela,
nere buruba illko
det nik bestela.

Patri:

Txomiñtxo, utzi nazu
piska bat pakian,
letzera nua kartan
zer datorkiran.
«Salamankan Martxuen
ogeitabostian,
Ascensio eta Robles
dabiltza airian,
Luzbeltzen birian
kiskali nayian;
intrigo diabrubak
aitzen-aitzenian,
obispuaren kontra
dabiltz lanian.

Txomiñ:

Ai zer berri tristiak
dituzuben, Patri!
Zuen entierrua
ez da urruti.
Elizak kondenatzen
zaituztela beti,
zuk jakiñ bear dezu
nik bezin obeki;
zabiltza poliki,
aubik ez idiki,
Erromak balezake
laxter erabaki;
rusuak zeratela
zeñek ez daki?

Patri:

Ascensio eta Gil-ek
arrazoia dute:
alako Obispua
zertan daukate?
Naiz umildadetikan
ni bizi aparte,
aien alde izango naiz
bizi naizen arte.
Tentaka nabilte,
iya bete naute,
politikan zer naizen
jakiñ nai badute,
«¡Viva Alfonso trece!»
deitzen det fuerte.

Txomiñ:

Patri, mundu onetan
al da gozamenik,
ondo jan, ondo edan
bezin ederrik?
Nola ezer ez dagon
Don Karlosengandik,
oraiñ ez degu beintzat
Karlosen bearrik.
Naiz zuk eta naiz nik
ez degu oberik
al sol que más calienta
gozatu besterik;
Jaungoikua eta Fueruak
dira alferrik.

Patri:

Zertan sartutzen zera
zu orren aurrera,
baldin Jaungoikoagatik
bizi bagera?
Datorrela nai badu
Zorrilla berbera,
azkar jarriko gera
gu bere aldera,
gu biyok batera,
mau mau egitera;
Don Karlos etorritzen
bazaigu onera,
esan muñ egin eta:
«Karlistak gera».

Txomiñ:

Guk ori esan arren
siñistuko al du?
Len ere gure berri
jakiñ bear du.
Zenbat aldiz zenuben
Erregia saldu?
Zerbaitezaz biziya
nai zizuten kendu.
Ni galdubak galdu
ninduten biraldu,
eskerrak akordatu
zirala berandu;
bestela onezkeroz
nintzan usteldu.

Patri:

Nik aztuta naukana
gogoratu zaitzu;
Txomintxo, premiyo bat
merezi dezu.
Tximu zarrak ainbeste
tranpa badituzu,
Salomon jakintsuak
aiña badakizu.
Ni zerbait banazu,
bañan, bañan gaur zu
Jeremias profeta
bera dirudizu;
zer gauza nai dezuen
eska dirazu.

Txomiñ:

Nik bear detan gauza
ez dago garesti:
bototan ibilltzia
nerekin beti.
Karlista txar oieri
biriak ebaki,
eta al baldin bada
sabelak idiki.
Biyotzeko Patri,
saiatu gogoti;
oraiñ zer ari geran
Ramosek baleki,
ondoren kantatuko
luke ederki.

Patri:

Etzaiozula egiñ
kasorik Ramosi;
jakingo balu ere
ajola gutxi.
Trikorniyua sisak
ezpadizu autsi,
azkar bear zaituzte
alkate ikusi.
Bañan zu lenbizi
jantzi zaitez, jantzi,
txapela eta gabana,
polaina ta guzi,
ematen dizun ondo
edo itsusi.

Txomiñ:

Orra nun naukazuben
alkate jantziya,
ta arraio polatu
ez itxusiya!

Patri:

Txomiñ,... trikorniyua
daukazu autsiya,
polaina bat lumeraz
berriz igortziya;
gabana guziya
txit gaizki eziya;
naigo nuke bazeunde
oraiñ erantziya;
dirudizu zaku bat
gaizki josiya.

Txomiñ:

Patri, ez dakit nik gaur
zer ari zeraden,
ez dakit burutikan
ondo al zauden.
Ez nazu gaizki utzi
pozaren ondoren,
ez dakit zeñ deabru
zurekiñ dabillen.
Ni oraiñ baño len
alkatetzan emen
entierro batian
txit pintatu nuben;
zedorri kantatutzen
antxen ziñaden.

Patri:

Beste trikorniyo bat
bear da erosi,
bi polainak lumeraz
ondo igortzi;
bizkarreko gabana
makinakin ezi,
eta ber-bertatikan
zaude zu nagusi.
Gerran gogor asi,
txandarme ta guzi,
karlista bat bakarrik
ez bizirik utzi,
laztan bat ekatzu ta
ondotxo bizi.

Ramos Azkarate

Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jaso nuan orri pare batetik. Orri oiek eskuz idatzita daude. Bertso auek Azkaraterenak diranik ez da iñun esaten; baiña 16 eta 17-garrenak Ramosen izena aitatzen dute, eta berarena izango da, ziur aski, sail au ere.

***Euskal-Erria* eta beste
zenbait aldizkari**

Agur, agur, Bizkarrondo!

Zurekin lotan, zurekin esna
zurekin zergatik nabill?
Zekizulako itzak neurritzen
zuzen, sendo ta biribill;
zuregatikan nere biotza
zoratu naiean dabill,
zurekin nai du aurrera bizi,
zurekin nai luke ere ill.

Zure izena etzait kendutzen
beñere begietatik,
ikusitzen det ezkerretan ta
orobat eskubitatik;
irakurtzen det nere atzean,
letzen ari naiz aurretik,
ez naiz irten ta ez naiz irtengo
baratza eder ontatik.

Zure omenak kantatutzeko
letartak erregutzen dit,
bañan bai al det, izango al det
lan ontarako modurik?
Gañera berriz etzait arkitzen
zure doaien laurdenik,
auxen da lana!, ezin naiz asi,
ezin naiz egon ixillik.

Sinista zazu, Indalezio,
zerala nere maitea,
beraren bidez nola nai dezu
ixillikan egotea?
Ez egon arren nere buruba
jakinduriyaz betea,
itz argal oiek aditutzeko,
arren!, altxatu zaitea.

Zure amaren sabeletikan
ziñadeneko jaioa,
zerorren billa abiatu zan
txit zuzen amoriyoa;
bai eta ere legundu zizun
eztiyarekin aboa;
ziñaden txori onena baño
kantari ederragoa.

Zu izan arren itzak neurtutzen
jatorritikan abilla,
ez ziñaden zu arroa izan
baizikan guztiz umilla;
zure lan onak gordetzen berriz
mutu bat beziñ ixilla,
orreatika millak baterez,
batek baliyo du milla.

Amoriyoan gazte denboran
pasa zenduban bizitza,
amoriyoan egin zenduban
zori oneko ezkontza;
gogoz maitatzen ari ziñala
etxadiari biyotza,
gerta zitzaizun zori gaiztoan
negarrezko eriyotza.

Zure izena galdutzen bada
galdu dira naitasunak,
galdubak dira gure artean
diran anaiatasunak;
galduko dira emakumeak,
galduko gera gizonak,
galduko dira Jaun Zerukoak
para zizkigun gauz onak.

Ai!, etziñaden bakarrikan ill,
ill zan luma bat azkarra,
galdu zitzaion amoriyuari
giyatzat zeukan izarra;
igartu're zan lore bat berriz
bost llaga beziñ ederra,
errenkada oiek izkribatutzen
egiten dizut negarra.

Uste al dezu zure izena
arkitzen dala galduta?
Zure izena ikusten degu
lore ederrez beteta;
gañera berriz uste ez dezun
sugarren batek erreta,
Urume eta Kontxa ederrak
erdiyan zauzka gordeta.

Amoriyoa etzenduban zuk
ez erosi ta ez saldu,
baizik zitzaizun gorputz danean
sube bat bezela bildu;
beraren bidez iguzu guri
Euskal Erriyan zabaldu,
amoriyuak seme oberik
izan ta izango al du?

Amoriyua erakutsitzen
umanta ziñalakuan,
amoriyuan izen goiena
daukazu Egiptuzuan;
amoriyuan sartuba zaude
betiko gure goguan,
eztago dudik amoriyuan
gozatzen zaude zeruan.

Zu izanikan amoriyuak
paregabeko semea,
zu izan ziñan itzak neurtutzen
zazpi doaien jabea.
Nola nai dezu, nola liteke,
nola gentzake ordea?
Norengandikan, nundik nai dezu
zure izena galtzea?

Ondo dakizu zuri begira
daudela gure begiyak,
ongi dakizu gaur nola dauden
iberotarren mendiyak;
ondo dakizu nola dauzkagun
txit negar izugarriyak,
ongi dakizu gaur zure bear
dirala Euskal Erriyak.

Zuk itzegiten dakizulako
gutziz garbi eta ondo,
egin diozu erregu on bat
Jaungoikoari agudo.
Ez al dakizu zer moduz bizi
izandu giñan lenago?
Agurtzen zaitut, Indalezio,
agur, agur, Bizkarrondo!

Ramos de Azcárate

Euskal-Erria 1885

Izenburuaren azpian onako oar au egiten du aldizkari onek:

«Publicamos con gusto esta composición dedicada al malogrado Bilintx por un joven tolosano, de quien esperamos ver en lo sucesivo interesantes trabajos literarios».

Ama Euskararen bakartasuna

Nun zabilzate, seme ederrak,
Amari eskapatuta?
Edan zenduten bular gozoaz
ote zaudete aztuta?
Nai zinduzteket nereganatu
benetan erregututa,
zaudetelako iñudearen
esne txarrakiñ galduta.

Ernio mendi oñazez dago
zueidi begiratuta,
ta Orreaga¹ beti negarrez
asabaz² gogoratuta;
ai!, Kobadonga arkitutzen da
egiyaz minberatuta,
an dago Nabas zuen galeraz
errukipeñ bat artuta.

Titi samiña edaten asi
ziñaten zori gaiztoan,
ordu ezkeroz gauza bat onik
ez daukazute gogoan;
pixkabanaka sartu zerate
deabruaren lazoan,
Adan ta Eba orrela galdu
ziraden Paradisoan.

Errekatxoak zapuztu dira,
ibaiak datoz aserre,
Kantabriyako ur gazi fiñak
orruak egiñaz daude;
eta ni, Ama, nola naiz arki
batere laguntza gabe,
ikusirikan seme nereak
beren borerreruen alde?

Iñude orrek jarri zaituzte
guziyok biurriturik,
zer zabilzate, ume nereak,
elkar ikusi eziñik?
Ona utzita txarraren billa
bazabilzate nasturik,
bide orretan ez daukazute
zuentzat salbaziyorik.

Ama zarra ta Ama garbiya
negarrez iya urturik,
zueidi deika ementxen nago
nere besoak zabalik;
utzi nazute bildotx galduben
gisara bakar-bakarrik,
ez dakit nola otso artean
arkitzen naizen bizirik.

Baldiñ aurrera segi ezkeroz
oraiñ artean bezela,
ez det nik uste urte askoan
bizi izango naizela;
gauzik onenak jan dizkirate,
gertatzen naiz txit argala,
len eguzkiya baldin banintzan
gaur ez naiz... baizik itzala.

Ez badute nai zuben biyotzak
Amarengana makurtu,
gañean diran etsai gogorak
nork eta nola garaitu?
Obe dezute alik laxterren
guziyok nereganatu,
bestela turmoi izugarriak
azpiyan artuko gaitu.

Ramos Azkarate eta Otegi

Euskal-Erria, 1886

Oar batean argibide auek ematen ditu:

«*Publicamos con mucho gusto este fragmento de una pieza dramática titulada Beotibar-ko jatzarraren oroipena Gaon judubaren galerarekin, original del conocido poeta euskaro D. Ramos Azcarate, cuyas felices dotes son ya apreciadas por los lectores de la Euskal-Erria*».

(Antzerki ori *Auspoa*-ren 197-garrenean aurkituko du irakurleak.)

Antzerki orrek eta *Euskal-Erria* aldizkariak aldaketa bat dute: 2/1 lerroan, antzerkiak *titi samiña* esaten du; eta *Euskal-Erria*-k, *bular samiña*.

El Cántabro, 1893-XI-18.

Onek beste izenburu au du: *Erdal legeen alde dabiltzan euskaldun fede onekoai dongitua*.

Ibaizabal, 1902-IV-6.

Baserritarra, 1908-II-27

Baserritarra, 1909, 115 zenb.

La Baskonia, 1908, 532 zenb.

Iparragirreri ill zan denboran jarritako bertsuak

Lore eder bat galdu da
gure mendietan,
usaia zabaldua
lau probintzietan!
Negarrez asko gaude
Euskal Errietan,
bai ere euskaldunak
Mundu Berrietan.

Luzaro ez genduban
izandu berririk,
koitaduba ill zala
geunden sinisturik;
jakindu zubenian
giñala galdurik,
etorri zan onontza
su-garrez beterik.

Ai, ai, Iparragirre!
Ai, gure lorea,
Urretxuaren seme
parerik gabea!
Txit zuzen erakusten
ziguzun bidea,
zutik nola iduki
arbola maitea.

Antziñako dotriña
zigun erakusten,
odolak jartzeraño
guri irakiten;
eriotza latzean
gertatu da aurten,
jaiotako erriyan
lurperatu zuten.

Etsai asko zeuzkatzun
errabiz beterik,
birali zinduzten zu
kanpora emendik;
lurrari ta amari
agur bat egiñik,
joan ziñaden itsasoz
omenez beterik.

Negar samiña egiñ
zazu, Gipuzkoa,
galdu zaizubelako
seme alakoa.
Ai, Araba, Bizkaia,
ai, ai, Nafarroa,
ixuri dezazute
egiyaz malkoa!

Arbolari adar bat
zaiolako galdu,
nola ez bada izan
biotzean damu?
Osatu dedin azkar,
Laurok-bat, lagundu,
berak oñaze danak
kenduko dizkigu.

Jose Mariren gisa
bear degu izan,
Aitorren seme denak
libre izan ditzan;
euskeraz jaio eta
ala bizitu zan,
euskera maitatubaz
koitaduba ill zan!!

Euskal-Erria, 1886.

Echeverría y Guimón: Ecos de Vasconia kanta-bilduma, 18-garren zenbakia.
Onek dakarren doiñua urrengo orrialdeetan eskeiñiko degu.

Argia, 1934, 701 zenb. Aldaketa batzuk baditu onek, baiña ez dute emen aitatzerik merezi.

Izenburuak dionez, Iparragirre il zan denboran jarritako bertsoak dira. Bostgarren bertsoak ere ori bera dio. Eriotz ori 1881-IV-6-an gertatu zan. Orduan jarritako bertsoak, beraz, onako auek.

Iparragirre - ri.⁽¹⁾

Zortzico.

Nº 18.

III zan demoran jarritako bertsuak.

Música de Cándido Buenechea.

Poesía de Ramos Azcarate.

Lo-re e-der bat gal - du - - da Gu-re men-di - e -
 tun U - sa - ya za - bal - du - - da Lau pro-bin-zi - e -
 tan! Lo - re e-der - bat gal - du - - da Gu-re men-di - e -
 tan U - sa - ya za - bal du - da Lau pro-bin-zi - e - tan!

(1) Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.

f a tempo

Ne-ga-rrez as-ko gau - de Eus-kal-e-rri-e - tan, Bai-e - re eus-kal - du - nak

f a tempo

Mun-du be-rri - e - tan. Ne-ga-rrez as-ko gau - de Eus-kal - e - rri - e -

rit.

tan, Bai - e - re eus - kal - du - nak Mun - du be - rri - e - tan.

2

¡Ay! ¡al! Iparragirre
Ay gure lorea,
Errechuaren seme
Parerik gabea;
Chit zuzen erakusten
Ziguzun bidea,
Zutik nola iduki
Arbola maitea.

3.

Etsai asko seuzkazun
Errabiz beterik,
Biralí zinduzten zu
Kampca emendik,
Lurra-ri ta amari
Agur bat egiñik,
Joan zihaden itsasoz
Omenez beterik.

4.

Luzaro ez genduban
Izandu berririk,
Koitatuba ill zala-
Geunden sinisturik;
Jakindu zubenian
Gihala galdurik,
Etorri zan omuntza
Su garrez beterik.

5.

Antziñako dotriña
Zigun erakusten,
Odolak jartzeraño
Guri irakiten;
Erietza latzean
Gertatu da aurten,
Juyotako Erriyan
Lurperatu zuten.

8.

José Mariren gisa
Beardegu izan,
Aitorren seme denak
Libre izan ditzan;
Euskeraz jayo eta
Ala bituzi zan,
Euskera maitatubaz
Koitatuba ¡¡Il-zan!!

6.

Negar samilña egiñ
Zazu Gipuzkoa,
Galdu zaizubelako
Seme alakoa,
¡Ai! ¡Araba! ¡Bizkaya!
¡Ai! ¡ai! Nafarroa!
¡Suri! deazute
Egiyaz malkoa.

7.

Arbolari adar bat
Zayolako galdu,
Nola ez bada izan
Biotzean danu?
Osatu dediñ azkar
Lauruk-bat lagundu,
Berak oñaze danak
Kenduko dizkigu.

Letemendiako On Modestori

Aldegiñ badu Tolosatikan
Modesto Letemendiak,
nola ez diyo negar egiñgo
bere Euskal Erri maitiak?
Nola ez bada begiyak busti
anaiak eta aidiak?
Nola ez gera samiñ egongo
beraren adiskidiak?

Lore aundiyak galtzen dijoaz,
jaiotzen dira txikiyak,
noiz eta bear diradenean
Euskal Erriko mendiyak;
alderdi ona sendatutzeko
bizi bagera eriyak,
soñu arrotzak nola nastuta
daukazkiñ Euskal Erriyak.

Auxen da auxen ala bearra
lore onenak galtzeko,
usai gozoak naiz guri utzi
beretzaz gogoratzeko;
ai, ai, Modesto, nunbait zerubak
nai zaitu berarentzako,
gozoki zure *Balentziyako*
Negarra kantatutzeko¹.

Jeremiasi lagun egiñik
abiya zaitez kantari,
Larunbat Santuz itsasoz ito
ziraden koitadubari;
kanta deiezu *Arbola bat*, ai!,
zeruko euskaldunari,
kanta deiezu negar egiñaz
aita Adan ta Ebari.

Kanta ditzazu zortziko eder
argitaratu gabiak,
kanta ditzazu joairak eta
Maiatz-illeko loriak;
esan itzazu txilibituben
soñu poz emangarriak,
lengo denboran nola jolasten
ziran asaba guriak.

Agurtzen zaitut, Modesto piña,
agur ikusi artian;
Jaunak zeruban bildu gaitzala
euskalok egun batian,
zortziko denak antxe kantatzen
Jaungoikoaren aurrian,
Bera onratzen eta alabatzen
betikotasun guztian.

Ramos Azkarate
Euskal-Erria, 1887.

Modesto Letemendia au musikalaria bat zan, tolosarra. Bertso auetan aren doiñuak gogora arazten dira.

Euskal Erriaren alde

Nere besoak zabaldu eta
belaun gorriyen gañean,
ai, Jaungoikoa, jarri naitzazu
egiyaz zure aurrean;
itzak neurritu nai nituzke nik
Euskal Erriyan onean,
arren!, zerutik lagun zadazu
asitzerako lanean.

Ai zer umilla zeran pakean,
gudan berriz txit gogorra,
etsaiari zuk sartu izandu
diozu beti bildurra;
zure arbolan ez du ebaki
oraindik iñork egurra,
beti egiya maitatu dezu,
lotsatu berriz gezurra.

Ezin liteken gauzarik ezta
izan ta izango zuretzat,
berarengatik erregututzen
dizu gaur nere biyotzak;
baldin ta baldin zure letarta
arkitzen bazait laguntzat,
nere promesa egikaritzen
abiyatzea deritzat.

Omanea txit erlijjiyoan,
lanean zerade latza,
supitarekin egiten dezu
itsasoz berriz arrantza;
alferkerian bizitutzea
zuretzat dalako lotsa,
ondra aldera begira dago
beti zerorren biyotza.

O mendi eder zoragarriya!
O zure edertasuna!
O zure zelai polit-politak!
O zer alaiatasuna!
Oitueretan ondrik goiena
beti daramakizuna,
nork eta zeñek nola neurritu
zure atsegintasuna?

Gazte jendeak gazte bezela,
guraso zarrak guraso,
bakoitzak bere lan modubari
oi diyozu zuk eraso;
izerdiyakin bedeiñkatutzen
dezu lurra txit eroso,
berak ondoren ematen dizu
zenbait atsegin ta gozo!

Non da arkitzen zure jenteak
baduben argitasuna?
Non da gertatzen zure etzantzak
daukaten gozotasuna?
Non da topatzen zure dantza ta
pestaren edertasuna?
Non da billatzen justizientzat
dezuben beldurtasuna?

Aberatsakin umildadea,
orobat apaiz jaunari,
eztiyozu zuk federik eman
beñere esku beltzari.
Gaitzik opatu bage bizitzen
zeradelako iñori,
beraren bidez katez lotuta
txit gutxi zera agiri.

Txakurtxo baten etxendiakin
oiera zerade juaten,
lapur-bildurrik gabetandikan
lotan zerade egoten;
gabaz negarrik ez dakizu zuk
auzokoari ematen,
baizikan bear zeradenean
lagun diyozu egiten.

Ate ondoko pobre gaixoa
egiyaz kupitzen zaizu,
al dezazuken modubarekin
ala laguntzen diyozu;
iltakoaren oroitza berriz
luzaro gordetzen dezu,
bizitza ona eriyotzakin
berdin daramakizkizu.

Ez dezulako oitueretan
beste iñoren antzikan,
bizitu zera lege gogorrik
bearrik gabetandikan;
len eta oraiñ aldendu gabe
kristau lege santutikan,
Euskal Erria, bizi zintezke
ondra oiezaz pozikan.

Lau gauza dira zerubak zuri
gutziz antziña emanak,
eunkietan egondu dira
beti zurekin etzanak;
izkribatuta ikusten dira
kondairan beren izenak,
lozez zu bete izan zaituzte
gizonik jakintsuenak.

Lauburugatik munduko jaunak
zinduzen ala bigundu,
euskeragatik godoen mende
etziñaden zu egondu;
fedegatik Pelaiori zuk
zeniyon bada lagundu,
Fueroengatik zure kondaira
zenduben lozez apaindu.

Baldin munduban zerurik bada,
Euskal Erria, zu zera;
Euskal Erria, etzoazela
beste bidetan galtzera;
gorderik ondo erlijijyoa
maitatu zazu euskera,
saiatu zaitez zure legeak
lenbailen billatutzero.

Ramos Azkarate
Euskal Erria, 1887.

Kristau guzien Batzarrearen errege maitagarriari

Sinistaturik Ama Euskera
dala parerik gabia,
zer pozarekin esan oi detan
naizela bere semia!
Zer esan nai du ez baldin banaiz
doaikiñ baten jabea,
altxatutzeko bear bezela
bedorren Santidadea?

Ama garbia erakusten ta
nik eziñ badet ikasi,
guzieraren izar guzia
alxtatzen nundikan asi?
Abiyatzeko nago kezketan,
ez nuke joan nai igesi,
auxen da lana: ni portatuko
ote naitzaio itsusi?

Ni ez-ezikan aundiyagoak
gerta litezke benturaz
pixu aundiya artu ta gero
iñola ezin jasoaz;
gaurko gizonak, beintzat batzuek,
atzerakara bagoaz,
nolatan jarri pentsamentuba
nai dan erara igoaz?

Sinista bezait, o nere Aita,
sinista bezait benetan,
ezerez txar bat beste gauzarik
ez naizela ni letretan;
Ama maitiak bezela baldiñ
banekike nik izketan,
alxtatu eta jarriko nuke
zeruetako atetan.

Baña nik nola ez dakiten ta
jakingo ere ez detan,
zertan nago ni denbora galtzen?
Ni zertan nago kezketan?
Astera noa dakidanakiñ
zerbait moldatzen al detan,
zerengatikan bedorregana
zor bat aundia daukatan.

Galdetutzera nua lenbizi:
Al da munduan artzairik,
bedorrek aña artalde eder
zintzoro darabilzkinik?
Al da lurrian beste izar bat
doaiez jantziyagorik,
nola mundura ala zerura
diz-diz egiten dubenik?

Galdetutzen det bigarren aldiz:
Al da munduban besterik,
bedorren seme umantak bañan
umanta aundiyagorik?
Armikan gabe, Jesukristoren
fedearakiñ bakarrik,
anima asko zeruratutzen
ausardiz badabiltzanik?

Utzi al zuben Lutero zanak
ispillu orrelakorik?
Ondorengoak egiñ al dute
mirari arrigarririk?
Nolatan egiñ sinistu gabe
Aita Santuben federik?
Zer da gizona, ez baldiñ badu
Jaungoikoaren bildurrik?

Obe al dira baionetakiñ
eskupetaren indarrak?
Al dira obe sutunpak eta
tupikiakzko miñgarrak?
Ontziak asko itsasorako,
gizon iltzaille azkarrak,
etxez kanpoan edukitzeko
a zer nolako maiztarrak!

Lendik esana ez det damurik,
geiago bear det esan,
gizadiyakin jakinduriya
arkitzen dala Eleizan;
Leon umanta silla santuban
beñ bat exeri ez bazan,
zenbait koitadu onezkeroztik
negarrez ote gebiltzan?

Oni ez eman, arri ez kendu,
guzia darama berdiñ,
eragozpenak doai santubaz
oi ditu beti desegiñ;
batzubek pozaz utzi baditu,
besteak dute atsegiñ,
zenbat lan eder egiñ dituban
dudarik izan ez dediñ!

Kristau guzien batzarrearen
errege maitagarriya,
nik altxa gabe altxatzen dute
beraren etsai aundiyak;
dute igotzen zeruetara
dituben zazpi doaiyak,
dute apaintzen lore ederrez
bere urrezko eztaiyak.

Berrogei ta amar urte dirala
apaiztu dala bedorri,
o zer koroia fedearentzat
zeruban zigun birali!
Pedroren sillan Aita txit onak
badira beti exeri,
aiek ainbeste dala esan ta
ote litzake geiegi?

Beintzat dakigu baditubela
birtute zoragarriak,
gaurko birunkak ezagutzeko
nork eta zeñek obiak?
Gudak ez diyo maitetasunik,
zenbat nai diyon pakiak!
Nola kantatzen duben goi-gora
Mesiaseren fediak!

Zabaldutzen du, zabaldu beza
Alemanian fedia,
iriki zuben, iriki beza
Bretaña Aundira bidia;
salbatu beza, ai!, ai!, Irlanda,
Irlanda doakabia,
bedeinka beza doai santubaz
euskaldun erri beria!

Onenbestekin agurtutzen det
Aitatxo maite-maitia,
agurtutzen det pozaz negarrez
bedorren Santidadia;
naizelarikan beartsuba ta
doaikiñikan gabia,
beñitatzat biotzez bukatzen diyot
nere ezerezkeria.

Azkarateko Ramosek

Euskal-Erria, 1888

Onako oar au egiten du *Euskal-Erria* aldizkariak Klaudio Otaegiren Aita Santuari eskeiñitako beste bertso-sorta batengatik:

«Esta composición, leída por su autor en la función euskara celebrada el 26 de Diciembre último en el Teatro Principal, siendo muy aplaudida, y las demás composiciones dedicadas a Su Santidad que saldrán a luz en este tomo de nuestra Revista, pertenecen al álbum euskaro dedicado al excelso León XIII con motivo de su Jubileo sacerdotal, por el Consistorio de Juegos florales de esta Ciudad».

Beste sail oien tartean, Ramos Azkarateren onako au arkitzen da

El Cántabro, 1894-I-7. Onek aurretik onako beste oar au: «A fin de que la conozcan nuestros lectores, publicamos a continuación una composición vascongada, compuesta con motivo de las Bodas de Oro de Su Santidad León XIII, que se celebraron en Roma en el mes de Diciembre de 1887».

Euskal Erriari

Gañez egin ta naigabez
biyotza daukat negarrez;
odoltzen dit arantzak,
dit berotzen su-gaitzak,
osoro daukat oñazez
Euskal Erriaz pentsatzez.

Biztanlen zoragarriya,
Tubalen oroikarriya,
izkuntzen mirariya,
umanten sorterriya,
erri bentzutezgarriya,
gaur zaude errukarriya.

Gau t'egun dauzkan antsiyak
dira samin ta gaziyak;
zañetan biurtuta,
ari zait erreguka,
abiyatzeko kantari
siaskik maitienari.

Lanaren garailariya,
alferren etsai aundiya,
onraren iturriya,
lurreko eguzkiya,
ispillu ikusgarriya,
zaude, bai, negargarriya.

Bai!, nere biyotz eriya,
badaukagu, bai, premiya
kantatzeko benetan
Aitorren mendietan
oitura onak non diran,
esan ez dedin: «Il ziran!».

Galdetutzen det ostera:
gu euskaldunak al gera?
Ez, ez erdibanatu,
ukatu edo aitortu,
baña begiyak jarririk
Amari begiraturik...

Ai!, Euskal Erri zintzoa,
euskaldun jende gozoa,
Euskal Erri garbiya,
fedez, fueroz guriya,
ai!, gizadien kabiya,
zapuztu zaituzte iya.

Ama Euskerak bai al du
oitura txarrik zabaldu?
Alferrik dute damu,
omenik ez du galdu,
jaio zanetik gaurdaño
zer onra, zarra da baño!...

Mundu guziyen aurrean
bizi da zori-onean,
oitura txarrik gabe,
itz gaiztotatik libre,
Ama maite ta garbiya,
Ama jakiñtsu aundiya.

Ama zintzoen umeak,
ez dirudigu bereak.
Zenbat gauden galduta,
lo-zorroak artuta,
gozo on aiek aztuta,
samiñak menderatuta!

Jaiotzen geranetikan
ez degu kutsu txarrikan;
baizik dira onenak,
berdiñik ez dutenak,
munduban gizadientzat,
zuzena nai dutenentzat.

Amaika urtez onuntza
auxen da, auxen, mudantza!
Non dira lengo antzak,
jolasak eta dantzak?
Non dira kantu alaiak,
jakintsubaren langaiak?

Nola miñduko ez gera,
Amaz lotsatzen bagera?
Daudenak Amarekin
daude on askorekin;
arrotzez bizi geranak
txit eri gaude geienak.

Ai, erri maitagarriya!
Au da, au, negargarriya!
Gure onra aundiya
dirurite euliyak
ari batetik zintzilik,
sufritzen ixil-ixillik.

Izanik gure begiyak
izarrak bezin argiyak,
ez degu ikusitzen
gerala eroritzen
gañ-gañetikan be-bera,
arrotz jendeen mendera?

Ez degu baña pentsatzen
zertaz geraden galdutzen?
Ezin gera gogora
nola dagon denbora,
nola goazen ondora,
argitatikan linbora?

Egiñaz gogotik negar
mendiyak dabiltz dar-dar-dar;
jo ez dezaten elkar
esnatu gaiten azkar;
zelai biurtu ezker
guretzat zer dago gero?

Euskal Erriko txoriyak
zer kanta negargarriyak
dauzkaten aspaldiyan
Muru-mendi aundiyan,
Aizkorriyan ta Erniyon,
adierazten zenbait on!

Aritz arbola maiteak
oñazez daude beteak;
orroaz pagadiyak,
ojuka sagastiyak,
gaztañadiyaz batera,
esanaz: «Ai, ai, euskera!».

Batzubek lotan gaudela,
besteak esna daudela,
erdera apaindutzen,
Ama larrugorritzen
gerok ibiltzen bagera,
gu euskaldunak ez gera.

Odeyak dabiltz birunkan,
denborarekin burrukan.
Ai, ai aien antsiyak
dirade, bai, burniyak
euskalak zulatutzeko,
Amarekin bat jartzeko!

Irutasun bat gurea
da euskaldunen bidea:
euskerakin fedea...
ta Furoen legea...
garrangarikan gabea
benazko libertadea...

Ibaietako arraiak
osoro daude ernaiak;
dabilta ur gañean
guri esan naiean,
lotan egoten bagera,
gañean dala galera.

Azkarateko Ramosek
Euskal-Erria, 1888

Salzedo-ko On Pedro jaunari bere lendabiziko eunkidan

O Begoña azpiko
seme doaitsuba!
O, o Bizkaia maitagarriyen
Aita jakintsuba!
Zaldun mantxa gabekua,
katoliko guzizkua,
Sort-erriyen on merezi
lendabizikua;
fueristarikan illezkorrena,
euskera-zale ez motelena,
baizikan zera Larramendiren
ikaslerikan onena.

Lagun eiguzu, Pedro,
arren, zerutikan,
gure borrero oiek biraltzen
Euskal Erritikan;
gaitezen gu libre bizi
Naparrua eta guzi,
euskalduna izan dediñ
euskalen nagusi;
jarri gaitzatzu laurok elkarren
Jainkoen alde benaz lenbaitlen,
esanaz: «Bizi bedi Euskera
Fuero Santuben barrenen!».

Fedien eguzkiya
daukagu txit gaizki,
Fuero maitien izar ederra
nun ote da bizi!
Euskeraren illargiya
izkutatu zaigu iya;
illunpetan arkitzen da
Aitorren kabiya;
Erdal Erriko egoraldiya
da Iberoen ondamendiya.
zorigaiztoan sartu zitzaigun
bein bat *Llorente-keriya!*

Ramos Azkarate-koak
Euskal-Erria, 1890

Iparragirreko On Jose Mari illezkorrari

Zer da bañan gertatzen
gaur Egiputzuan,
Migel Legazpikoa
jaio zan auzuan?
Urretxu deritzaion
uri txit zintzuan,
izar bat agertu da
seaska gozuan.

Da Iparragirreko
gure Jose Mari,
diz-diz egiten duben
gizon aundi ori;
egiten ote digun
euskaldunai argi,
begiratu besterik
ez dago berari.

Ama Euskerarekiñ
itzak neurritubaz,
zortziko txit ederrak
dabill zabalubaz;
Gernikako Arbola
ernai kantatubaz...
Iparragirre preso
sartzera dijoaz.

Zer da sartuagatik
gizon bat itxiyan,
ispilluba utziyaz
guri agiriyan?
Zer da arkitutzia
naiz Mundu Berriyan,
bizi nai dubenentzat
euskera garbiyan?

Argatik etorri zan
Amerikatikan,
antziñako bandera
erakutsirikan;
koroï izugarriya
irabazirikan,
begira zer diyon gaur
arri gañetikan.

Lenago eroriko
dirade izarrak,
ez erdaldun biurtu
Euskal Erri zarrak;
lenago urak edo
subaren indarrak
galdu bearko ditu
kantaauritarrak.

Ibillitzen gaituzte
onera ta ara,
Prantziyako andare
askoren gisara,
batzubetan gora ta
bestietan beera;
bañan gu nola galdu
euskalak bagera?

Alfer-alferrik dabill
erdaldunkeriya,
bere modura jartzen
Aitorren kabiya;
oraindik ikusiko
da Euskal-Erriya,
arkume bat dalarik
lotsatzen legoya.

Ez du nai, ez, euskerak
erdal biurtzia,
baizik seme guziyak
elkarganatzia;
nai du bere kondaira
benaz maitatzia,
eta etsaiari ortzak
erakutsitzia.

Jose Mari aundiyak
egindako lanak,
arren, kanta ditzagun
euskaldun geranak!
Egiten baditugu
beraren esanak,
euskeraz illko dira
Euskal Erri danak.

Ramos Azkarate-kuak
Euskal-Erria, 1890.

Jose Maria Iparragirreraren irudia Urretxuko plazan 1890-IX-28-an bedeinkatu zan. Ospakizun ortarako moldatu zituan tolosar bertso-jartzailleak bertso auek.

Mariatxo Elozegi eta Larrañaga deritzan aingeruari

Elozegiko familiyaren
bizitza Tolosakua,
bizitza garbi, bizitza txukun,
errurikan gabekua;
dalako alde guzietara
bizitza Jaungoikozkua,
bizitza euskerazkua,
bizitza onorezkua,
biyotz nereko *sukaldetxotik*
kantatutzeroa nijua.

Nola dakitan ez daukatala
luzarorako bizirik,
O Mariatxo, oroitzatxo bat
donkitu bear dizut nik;
bost sentidubak elbarritubak
ta aulak dauzkatararik,
kantatzen badet gezurrik,
ez izan nizaz kupirik,
baizikan jarri buruz bera ni
izarretatik zintzillik.

Ez litzateke besterik palta:
jolasten abiyatzia,
Elozegiko etxadia nik
gezurrez apaiñdutzia!
Ez nuke nai, ez, dagoan baño
gorago altxatutzia,
ez eta beeratutzia,
aiñ gutxi mugitutzia;
nai detana da egiyarekin
kantari onratutzia.

Errota koxkor ximur batean
izen au argi bat bazan,
alaz guziaz ekaitzengatik
beñere illundu etzan,
baizik ondoren bere *kaiaurren*
eguzki printzaz jantzi zan;
arrezkerotik Tolosan
obra onakin du esan
arkitzen dala diz-diz egiñaz
Jaungoikoaren Elizan.

Aita oso bat dalako izan
ongite etxe barruan,
urretan bere izen gozoa
irakurtzen dan lekuan,
gurasoa da *Txapeltegiyan*,
da aita on bat kanpuan;
kristau osoen moduan
dabilelako munduan,
da bizitutzen etsairik gabe
lurreko Paradisuan.

Maite badute biyotz aundi au
señide eta aideak,
ez dadukate, ez, salduzko
pobre lotsazko jendeak,
naiz Jaungoikuan izeneko ta
naiz mojak eta praileak,
naiz zarrak eta gazteak,
alaiak eta tristeak,
bedeñkatutzen dituzte txit maiz
Uri-Marian atreak.

Ondo merezi dubena bada
bere Tolosa guriyan,
dabil beraren izen aundiya
Kolonen Mundu Berriyan;
dabil Afrikan, Ozeanian,
Europan eta Asiyan,
dabil bere jauregiyan,
bai ete loretegiyan,
dabil gozatzen, zuzen pentsatzen
Talomuñoko mendiyen.

Bizitu bitez ondo egille
zaldun txit argidotarrak,
gure Tolosa dan bezelako
leñargi eta leialak;
animan senti dituztelako
ibar-mendiyen negarrak,
Elosegiko izarrak,
nola diraden sugarrak,
dira saiatzen pixtu ditezen
euskaldun lege *igarrak*.

Ramos Azkarate-kuak
Euskal-Erria, 1898

Jesus gurutzilltzetuari

Aita betikuak zu
lendaatuturik,
ta asmagitegiak
adierazirik,
Eguberri bezperan,
etzala berorik,
Belenen txit beartsu
jaio ziñalarik
Ama guzizko santa
Mariyarengandik,
ordurako etsai bat
bazenubelarik,
ta salbatu baziñan
Ejiptora joanik,
Erodesek etzuben
izan atsegiñik,
beste aur doatsubak
ill zitubelarik.
Ogei ta amar urtean
txukun biziturik,
guraso txit doneai
zintzo jarraiturik,
beste iru urtetan,
Jaunak ala nairik,
egiya predikatzen
zu ibilliturik,
mirari aundiyenak
aldiyaz egiñik,
Jaungoikua ziñala
beti bedoiturik,
illunpean zeudenak
argitan jarririk,

eragozpen guziyak
ziñez garaiturik,
elkarte ordukua
oso mudaturik,
zeregana begira
ardiyak jarririk,
Erramu egunean
omenez beterik,
Jerusalenen sartu
ziñan goiendurik.
Etzan an agintari,
etzan erregerik,
etzan aberatsikan,
etzan beartsurik,
etzan uri guziyan
etzan bat bakarrik
zure garait-ondoa
maite etzubenik.
Bañan ostegun santuz,
zentzuba galdurik,
judu fariseuak
elkarganaturik,
zure kontra altxatu
ziran arroturik,
Judas salkindariya
diruz erosirik.
Apostolo etoiak
lotsik gabetanik
laztan paltso batekin
nor ziñan esanik,
borrero gaizto aiek
zuzaz jabeturik,

bildotx bat ziñadela
bazekitelarik,
zuretzako etzuten
errukimenturik.
Naigabe ta oñaze
asko igarorik,
onkeriol guziya
umill sufriturik,
erregeen Errege
zu zeradelarik,
gure pekatu denak
zure gañ arturik,
gurutzean arkitzen
zera zu zintzilik,
bi lapurren erdiyan
larrugorriturik,
arantzazko koroi bat
buruban jantzirik,
eskubak eta oñak
entengaz josirik,
Lonjinos-ek saietsa
lantzaz irikirik,
gorputz sagradu dena
dena zauriturik,
zure Aitaren naia
egikariturik,

buruba makurtuta,
begiyak itxirik,
or zaude zu munduba
erredimiturik.
Era triste orretan
nik zu ikusirik,
ta zeñengatik zauden
pentsatzen jarririk,
ez baldin banu bada
iñoiz ill bearrik,
ta baneki ez dala
beste bizitzarik,
ez dala infernu ta
satikuztegirik,
ez balitzake ere
gañera zerurik,
beti zure bildurra
izango nuke nik,
nadukezubelako
beti ertsiturik.
(Bañan zure fedean
joan nai det emendik,
dauzkatzubelako zuk
besoak zabalik).

Euskal-Erria, 1899

Gure Jaunari zerurako igoeran

Mundu goibeldu illun-illuna
zure jaiotzan aurretik
arkitutzen zan ezjakiñian
zorigaiztoko aldetik,
nola zeukaten infernutarrak
zartagiya kirtenetik,
eragozpenik gabetanikan
ibillitzeko nun-naitik.
Luzbel, Satanas eta besteak,
jarriyaz gure gañetik,
mundu guzian zeuden nagusi
infernubaren partetik;
gure asabak eziñ irtenik
illunpe triste artatik,
zeudelakoan katez lotubak
alderdi guzietatik;
bañan Belenen jaijo ziñan zu
Mariyaren sabeletik,
eta argiya abiyatu zan
zabaldutzen ber-bertatik.
Era berean infernutarrak
aserraturik ordutik,
ziruditela eraginazi
ziyezula zuk burutik,
eziñ exeriz, eziñ etzanik,
egon eziñikan txutik,
suturik zeuden gañ eta azpi
aurretik eta atzetik,
zu galdu nai ta eziñ galdubaz
irten naican larrutik,

Erodes alde batetikan ta
deabru zarrak bestetik,
zer ote zuten bada emango
zu azkar illtzeagatik?
Bañan etorri ziñadelako
Jaungoikoturik zerutik,
oiek joan bear izandu zuten
surtara mundu gozotik.
Nola jaijo ta nola bizitu
zeran zu ibar onetan
santutasunik aundiyenian
ogei ta amar urtetan!
Beste irurak igaroturik
artzai justuban lanetan,
zure Aitaren naia egiñaz
egunaz eta gauetan,
Pasiyo santu, santu-santuba,
sufriturikan benetan,
odol guzizko garbi-garbiya
ixuririkan Golgotan,
eta aizkenik gurutzean ill
bazinduzten zu lotsetan,
zedorren Ama miñerituba
zegola bere oñetan,
ostiral santu arratsaldeko
iru ordu santuetan,
luz-azpiratu zinduztelarik
Ama goienaren bistan,
irugarrengo egunian zu
zeunden obian ber-bertan

pixtuta altxa ziñadelako
koroiturikan batetan,
oroikidatzen du Eleizak au
zintzoro gizaldiyetan.
Ondorenian zuk egiñikan
agerkera egokiyak,
eta emanaz ikasleai
eskubide txit aundiyak,
egidaturik zure sinismen
guzizko garailariyak,
banaturikan Jaungoikoaren
lege on gozagariyak,
desegiñikan iritzi txar ta
oitura lotsagarriyak,
zabaldurikan bildotx guziyai
itxu zeuzkaten begiyak,
alaiturikan len triste zeuden
munduko ibar-mendiyak,
utzirik pozaz ta atsegiñez
arkumetxo ta ardiyak,
lajaturikan iñoiz galduko
ez diran oroigarriyak,

kristautu eta anaiaturik
basati errukarriyak,
erakutsirik zeruko bide
gure poz-emangarriyak,
berrogeigarren egunean zu
jantzirik apaiñgarriyak,
diz-diz egiten zizubela, bai!,
buru dontsuban koroiyak,
ziñaden igo zeruetara
eramanikan gloriyak,
eta an zaude beti zaiturik
artaldearen premiyak.
Ez baditugu bada betetzen
pekatuakin neurriyak,
gaur gizon asko geraldurikan
argalak eta utziyak,
gaitubelako biziro maite
zura Ama maitatiyak,
ama guziyen gañetik dagon
Ama sortzez txit garbiyak,
onen bitartez salba itzatzu
zedorren bildotx guztiyak.

Ramos Azkarate-kuak
Euskal-Erria, 1900

Apaiz jaun on Jose Joakin Urangakoari lenengo meza zelebratzeko egunean

Banintzake ni zenbait bezela
eliztar erakuslea,
Jaungoikoaren jakindeko ta
doai batzuben jabea,
jaun On Domingo Agirren gisan
banitz ni euskal-zalea,
jakintsuba ta trebea,
Euskal-Erriyan onrea,
pozaren pozaz altxako nuke
gaur nere adiskidea,
animatikan txit maite detan
bere aitaren semea.

Ez ote ditu ere onratzen
senide eta aideak,
jakintsutako baratzan dagon
erdoi gabeko loreak?
Ez ote gaitu onratutzen gu
euskal kondairen zaleak,
eskribatzalle erneak,
egiyen sendotzalleak,
milla berreungarren urteko
asaben jarraitzalleak,
onrazko izar guzi-guziyen
benazko maitatzalleak?

Bañan banaiz ni moldakaitza ta
ezjakiñ doakabea,
nundikan asi bada altxatzen
On Jose Joakin nerea?
Banaiz pentsatzen eta kantatzen
beartsu edo pobrea,
doaikiñikan gabea,
zarra ta gaitzak errea,
nola nik jarri nai detan eran
zazpi doaien jabea,
bere guraso maitagarriyen
ziñezko onratzallea?

Bai, bai, biziro onragarriyak
dira orlako apaizak,
onragarriyak bereentzako,
txit ongarriyak guretzat,
gutziz leiala jatorritikan
dalako Jainkoarentzat,
da ala gurasoentzat,
bai ere senideentzat,
bada prestuba aideentzako
ez da zurra iñorentzat,
baizikan biyotz biguñekua
naiz bere etsaiarentzat.

Zeran ezkerro katoliko ta
fuero-zale txit osua,
ibar mendiyak maite dituzun
apaiz euskaldun gozua,
zeralako zu onra-zale ta
izugarrizko zintzua,
ikasi-zale altsua,
ikasten birtuosua,
nola latinez ala erderaz
iztun eder eztsua,
erregutxo bat egin nai dizut,
Aitatxo biyotzekua.

Ikusten dezu Ama Euskera
dagola miñerituta,
daukatelako seme geienak
guztiz desanparatuta.
Zuk badakizu nola dan arki
lege santubak kenduta,
uztarripean lotuta,
kemen guziyak galduta,
eta ez dezu negar egiten
Amari begiratuta,
ikusirikan gure onra bat
erderak elbarrituta?

Ez al diyozu lagundu bear
arretarekin Amari,
erdal izkuntzak azpiyan daukan
Ama zar argaldubari?
Ez al diyozu benaz elduko
Ama errukarriyari,
Ama seaskakoari,
onrarik aundiyenari,
atzeritarrak uztarripean
iduki etzutenari,
Marko Agripa ta Karlo-Magno
garaitu zitubenari?

Ez al zerade bada izango
leiala euskerantzako,
ainbeste bular eman dizuben
Amatxo dontzellantzako?
Al da izkuntza gozoagorik
euskaldun apaizentzako,
naiz dala predikatzeke,
naiz artaldeai deitzeke,
nola artzaiak ala bildotxak
pakean bizituzteke,
bizitza au ondo igaro eta
gero zeruban sartzeke?

Eta bestetik nola ekarri
euskal lege maitatiyak,
Amari kendu gabetanikan
erdaldun lokatz aundiyak?
Entzun izandu bazinduzen zuk
euskal jaietan sermoyak,
itzaldi garbi-garbiyak,
guztiz atsegingarriyak,
Aita Agirre, Aita Mendia,
Aita Baertel-en egiyak,
pozaz negarrez anbat jarriko
ziraden zure begiyak.

Neri eragin azitzerako
eliztar oiek negarra,
izanikan ni ezjakiña ta
euskal-zale txit baldarra,
zuri barrenen erazekiko
zitzaitezun bada sugarra,
etzeralako zabarra,
aiñ gutxi berriz elbarra,
baizik ikastez zeradelako
gogotsuba ta azkarra,
Ama Euskera zan ordutikan
izango zure izarra.

Bañan bukatu bañon lenago
zuk zure zuzenbidea,
etzan erraza zu izatea
nai arren euskal-zalea.
Gaurtandik zera gai ontan beintzat
zere buruban jabea,
gaurtik zure goiendea
da guzizozko librea,
eta onratu dezazun beti
euskaldun apaiz-taldea,
arren, abiya zaite sendatzen
Ama zar doakabea.

Erdera bañon lenagokoa
da gure Ama prestuba,
Ama fedetsu, Ama jakintsu,
Ama txit omenatuba,
dalako gure Jaungoiko Jaunak
zeru goian moldatuba,
ber-berak bedeinkatuba,
santu artean oituba,
eta dalako Paradisotik
etorritako dontsuba,
On Jose Joakin, arren, izazu
Amaz errukimentuba.

Onran aurretik ez dezazula
maitatu iñoiz diruba,
(dalarikan au guzizongandik
geiegi estimatuba).
Ta egiya da Judas onekin
dagoala bizi-moduba,
bañan bai ere munduba
onek daukala galduba,
onengatikan anbat batzuek
daukate Ama aztuba,
eta besteak nagitasunez
guziro gorrotatuba.

Amarentzako etzerala zu
izango seme paltsua,
dago esaten oraiñtxen bertan
zure biyotz doatsua.
Zer datorkigu bada galduta
Ama Euskera gaixua,
Amatxo bulardetsua,
Ama on gloriosua?...
Euskerarekin erri au bada
lurreko Paradisua,
ez al dakigu nolakoa dan
erbeste erderazkua?

Ez al da obe ujolde batek
euskal mendiyak galtzia,
nola jendeak ala erriyak
uretari ondatutzia?
Bai, bai, obe da Armeniatik
Tubal bat etorritzia,
berriro an erritzia,
arrek kasta zabaltzia,
euskalak berak beren legeak
emen erabakitzia,
eta ez Ama Euskerazkua
uztarribean iltzia.

Ez deizkiyotzu dala onra bat
euskera salbatutzia,
izkuntzarikan eztitsubena
benetan sendotutzia?
Au galdu bañon obegoa da
izarrak eroritzia,
euskal erriyak sutzia,
zigaro kixkaldutzia,
lau milla bizi izan ta ere
obe da denak iltzia,
ez gure Ama Euskara ona
euskaldunok aztutzia.

Ramos Azkarate-koak
Euskal-Erria, 1901

Ama Euskerak eliztar batzuei oju bat

(1901. Euskal-itz jostaldien Batzarrea

Euskal festen XX-garren urtea)

Berrogei ta amar pezeta eta bitezarra Azpeitiyan irabazitako
lenbiziko aldeera.

Leñargi jaio, leñargi bizi
zeraten izar nereak,
biziro maite dituzutela
Jaungoikoaren legeak,
artaldearen artzai zaudeten
doai aundiyen jabeak,
kristau guzizko trebeak,
illunen argitzalleak,
uju triste bat bear dizute
gaur egin Ama tristeak,
Paradisotik etorritako
Ama oñazez beteak.

Euskal batzuek ortxen dabilta
Amaren gaitzez poztuta,
papertxo bana erosirikan,
zeñenak diran aztuta!
Salomon baño bizkorraguak
dirala irudituta,
osoro itz-ontzituta,
txit atso-sukaldetuta,
erdal gaiztoen bizi-moduba
guziro ontzat artuta,
zagitxo baten moduban daude
buruba aizez puztuta.

Nola ez dizute oju egingo
Ama zar doakabeak,
baldin ta baldin desanparatu
banaute nere semeak?
Beragatikan entzun nazute,
nere semetxo maiteak,
ta batez ere gazteak,
onraren adiskideak,
zuek zeraten ezkeroztandik
egiyan sendotzalleak,
zuek zerate Ama sendatu
bear dezuten loreak.

Era onetan nola ni bizi
semeai begiratuta,
erdalkeriyak baldin banauka
osoro menperatuta?
Nerekin nere ibar-mendiyen
omenak bururatuta,
nago ni minberatuta,
ziaro naigabetuta,
naukatelako erdal lokatzez
orrela itxusituta,
negar ta negar dar-dar-dar nabill
gurutzeari elduta!

Mintsu ta eri nagoalarikan
naukate elbarrituba,
maisu ta maistra arrotzengandik
gañera pertsegituba;
erdal biraubak ta blasfemiyak
banaukate zatituba,
nago izarrak kenduba,
erdi larrugorrituba;
bestetik berriz nola nagoan
Lege Santubak kenduba,
uztarribean arkitutzen naiz
erdaldun katez lotuba!

Indarrak joanta apartatutzen
banaiz ni Gurutzetikan,
ez daukat bada eriyotzatik
iñola libratzerikan;
ta era ontan irauteko nik
al daukat zimendurikan?
Al daukat laguntzarikan
bear dan añakorikan?
Eta otsoak jan nai banaute
alderdi denetatikan,
zeñek libratu zuek ezpada
Ama eriyotzatikan?

Euskal-Jostaldien Batzarreak
libratu nai naularikan,
Diputaziyo txit goitubakin
zintzoro elkaturikan,
urtero-urtero ni salbatzeko
festak egiñagatikan,
eltzen diratelarikan,
benetan onraturikan,
laister joan bear izango naiz ni
nere Paradisotikan,
ez banazute bada artutzen
ziñezko naitasunikan!

Ai, eliztarrak, ez al dezute
neretzat errukirikan,
agoni guztiz negargarriyan
Ama bat ikusirikan?
Ez bazerate azkar kupitzen
ez daukat eskaporikan,
Jaungoikoarengatikan
ez galdu denborarikan!
Bai al dizute Amak eskaten
beste munduko gauzikan,
Ama sendatzen apur-apur bat
nekatutzeko baizikan?

Zertan artu nai ez dirazute
amoriyo txit sendua?
Ez dagolako bada nerekin
animen salbaziya?
Bañan banaiz ni erdera baño
nerez jakintsubagua,
banaiz aberatsagua,
banaiz txit txukunagua,
banaiz oituraz ta usariyoz
guziro garbiyagua,
ez al naiz bada izkuntza denak
bañon zerutarragua?

Bestela galde Larramendikin
Astarloa ta Mogeli,
Mendibururi, Kardaberazi,
galdetu Añibarrori;
galde Zabala, Uriarte ta
Arana, Lardizabali!
Galde al ziran ibilli
laguntzen beren Amari;
galde animak ez al zituzten
Paradisora birali;
galde amarraiz ez al dauden gaur
zeru goietan kantari.

Bai al det nere desonrarako
blasfemi nazkagarririk?
Zergatik ez det? Ez detalako
beste izkuntzen kutsurik.
Nere semeak erdal jantzita
arretan dabiltzalarik,
boinak nerekin utzirik,
uztarripean loturik,
soldadubaren lan guzietan
bizkorrenak diralarik,
ezetz euskaraz inoiz moldatu
ernegu lotsagarririk?

Erderak nere itzak ugari
badauzka arrapatuta,
bañan blasfemi Satanastarrak
nola ditu moldatuta?
Nai eta nai ez Gaztelaniyan
zortzi diabru bilduta,
aiek erderaz sortuta,
zortziyak ontzat artuta,
gero erdaldun olatu batek
onera karraiatuta,
ementxen daukat otso lapur au
biyotzetikan elduta.

Beragatikan begira jarri
zaitezte Larramendiri,
izan ta izango diran euskalen
gidari zuzenenari,
ainbeste egi esan ziozkana
bere Euskal Erriyari,
erririk garbiyenari,
erririk umantenari!
Gaur ere zuek jarraitzeakin
Aita-len fedetsubari,
ni lur azpira naramatenak
juango lirake itzuli...

Nola Bilboon ala Iruñan
deserrituba naukate,
Bitoriyako uriyan ere
nor naizen bai al dakite?
Bi probintziyak oso ta bizi
zokoratzen ez banaute,
semeak nai al dirade?
Bañan zeñek nau ni maite,
Gipuzkoako baztar ontara
bultzaka banakarkite?
Emen bakarrik nola ni bizi?
Bizi ta ere... noiz arte?

Galde apaiz jaun batzuei eta...
(bañan ez frantziskotarrak,
zergatik oiek asko nai diyen
Amaren birtute zarrak),
galdetu jende aberatsai,
galdetu beartsubenai,
galde neskatx ta galaiari,
ez jakiñai ta argiyai;
galde milla bat euskal kenduta
nai bada beste guziyai,
beren onrariak goien-goiena
sendatzerikan duten nai!

Nola ez naiz ni ibillituko
negarrez eliztarretan,
baldin ta baldin arkitzen banaiz
azkeneko asnasetan?
Zer esan nai du lagundu arren
euskal-zaleak letretan,
batzuek itz neurtueta,
besteak itz larriyeta,
gañerakuak desanparatu
banaute guztiz benetan,
errukirikan ez daukatela
Amarentzako ezertan?

Ez al zerate gogoratutzen
orain ogei ta bost urte
nola ninduten lenaz gañera
erdaldun arantzez bete?
Ordu ezkeru odol-ustutzen
ikusten ez al nazute?
Euskalak ez al zerate?
Ardurik ez al dizute?
Ni era ontan ikusirikan
kupitzen ez bazerate,
nik daramatan galera bera
gañera datorkizute.

Ez dizutet nik bada esaten
armetan altxatuzeko,
baizik naitasun egiazko bat
zuen onrari artzeko;
eta arreta biziyaiekiñ
Amari lagunduzeko,
erdal lokatzak kentzeko,
arantzak ateratzeko!
Dizutet benaz erregututzen
ez ixillik egoteko,
baizikan nere glori aundiyak
bildotxai erakusteko.

Jaungoikoaren Seme bakarra
Belenen jaio baño len,
badakizute Amak Lauburu
nola adoratzen zuben;
gurutz onekin munduko Jaunak
ala garaitu ninduben,
ta Mesiasen ondoren
Orreagan, Beotibarren,
Errondal eta Aibarko Martin
nik bentzutu banintuben,
Gaztelaniyan ere moroak
euskerak galdu zituben!

Argatik ala onratutzen nau
Inazioren kopetak;
naute onratzen Elkano, Okendo,
Lezok eta Urdanetak;
Txurruka, Andia, Legazpi, Urbietta,
Idiakez, Gaztañetak;
badira zaldun galantak,
dira ill-ezkor umantak;
beste bi milla baditut baña
ditut agertzen amaikak,
oiek izarrez zituztelako
bete Amaren abarkak.

Amaren glori pare gabeak
noski poztuko zaituzte,
beintzat euskeragandik jaiuak
damutan ez bazaudete.
Berarengatik, arren eta arren,
arren kupitu zaitezte!
Arren sendatu nazute!
Nereak bazeradete,
desleial edo seme dollorak
izan nai ez badezute,
ni sendotuta Fiero dontsubak
piztuko dizkiratzute.

Zerbaitengatik deitutzen zuben
Zumaian Baertel pijuak:
euskerak bizi bada piztuko
dirala euskal Fueruak.
Eliz barruban gañera deitu
zuben euskaldun senduak,
euskal-zale onraduak,
euskal praille doatsuak.
Zer miñarekin esango zuben
Diputaziyo goituak:
Obe giñikek eleiztar denak
balira orrelakuak!

Naiko dezute noski Fueruak
piztuta ikusitzia,
eta erdalen menpetik bildotx
guziyak libratutzia;
dezute naiko artaldeakin
pakea gozatutzia,
Eliza sendotutzia,
zintzo errespetatzia;
ta nai dezuten ezkeroztandik
animak zeruratzia,
al dezute nai itzkuntzarikan
zerutarrena galtzia?

Ez nuke nai nik bada iñola
zuekin aserratzia,
baizik ni Ama naizen bezela
nai nuke maitatutzia.
Ez dizutet nik debekatutzen
erderaz itz-egitia;
bañan ez al da tristia
zuen Ama zar maitia
Fuero ta guzi erdal gaiztoak
lurran azpiyan sartzia,
eta ondoren nere illeta
erderaz kantatutzia?

Nai al dezute beti otsoen
menpean bizitutzia,
euskera sartu lur azpiyan ta
erderak estalitutzia?
Ez al da ori erri umant bat
osoro errenditzia,
guziro makurtutzia,
onra guziyak galtzia?
Eta ez al da nere kondaira
ederrez ernegatzia,
Aitor nai ez ta Cervantes zana
euskalak omenatzia?

Ai, eliztarrak! Ez al det bada
merezi lagundutzia,
erdal lokatzak, erdal arantzak
semeak ateratzia?
Ote da lotsa euskaldunentzat
Amakin lotaratzia,
Amakin esnatutzia,
Amakin gosaldutzia,
Ama zarrakin bazkaldu eta
Amakin afaldutzia,
gozotasunak, samintasunak
Amakin igarotzia?

Ez da, ez, lotsa, izar nereak,
euskeraz errezzatia,
euskal jendeak santu guziyak
euskeraz adoratutzia;
baizik da onra, ta ez txikiya,
euskeraz izkribatzia,
euskeraz kantatutzia,
euskeraz ibillitziatza.
Zer mirari da zuek Amaren-
gatikan nekatutzia,
nai badezute zuen onra bat
betiko salbatutzia?

Ez al dezute bada txit maite
euskaldun libertadia,
erdal gaiztoak lapurtutako
zori oneko legia?
Nai badezute zuek igaro
guztiz bizitza obea,
bizitza libre-librea,
bizitza paregabea,
badezute nai betiko galdu
lege txar gaitzak errea,
asi zaitzte ber-bertatikan
sendatzen Ama maitea!

Atozte bada elkarturikan
Amaren aldamera,
ote zeraten nitzaz kupitzen
Amari aitortutzero.
«Bai, gure Ama, ikusten degu
zurekin gure galera;
bañan emendik aurrera
zureak izango gera.
Nagiyak edo utzi-samarrak
zuretzat izan bagera,
guk, guk igoko zaitugu laister
erdal izkuntzan galera!».

Aski dezute esan bezela
ni ziñez onratutzia,
nai badezute zuen Amaren
erdal errubak iltzia.
Badezute nai Ama Erderan
gañetik ikusitzia,
aski det maitatutzia,
benetan indartutzia.
Jaungoikuari nai dakiyola
zuek nerekin iltzia,
zuek Amakin betikotasun
guziya gozatutzia!

Ramos Azkarate-koak

Euskal-Erria, 1901.

Aldizkari onek, 21/1 lerroan, *pake gabeak* esaten du. Dударик ez da *pare gabeak* bear duala, eta orrela idatzi degu.

Maiatz-illeko Loreak

Goazen eramatera
loreak ugari,
animatikan maite
deguben Amari;
lorez koroitutzera
goazen gu kantari,
gorde gaitzan Amatzok
txukun eta garbi.

Aitorren ibar-mendiyetako
lore-talderi osuak,
birtute denen ispillubatzat
nola diraden jayuak
lore altsuak, lore gozuak,
aberats ta beartsuak,
nai degu izan, Ama txit Santa,
zure amoriyozkuak.

O Jainkoaren Ama Santa ta
egun sentiko izarra,
estutasunen pozagarri ta
eriyen Ama laztana!
Ama sortzetik garbiya eta
birjiña guziyen Ama,
zu zerade, zu, birtute denak
dituzun Ama bakarra.

Goazen Amatzongana
elkarganatuta,
lore-sorta guziyak
koroï biurtuta;
Ama, len egon arren
lorez apaiñduta,
apaiñago jartzera,
gaur guk koroituta.

Nai degulako izan
guk beti zureak,
izan nai degu zure
koroitutzalleak;
ez izanagatikan
lore primoreak,
zureak dira biyotz
gureko loreak.

Jakinduriyan eserleku ta
esku aundiko Birjiña,
zeruko ate dizdizari ta
erregiñen Erregiña.
O pekatari guzi-guziyen
igesleku atsegiña!
Ai, zu koroitzen ari gerala
txit zuzenduko bagiña!

Nola ez zu koroitu
pozaren indarrez,
gure poz emallea
zedorri izanez?
Jantziya zaudelarik
lozez ta izarrez,
zaitugu gaur koroitzen
pozaz ta negarrez.

Deboziyuan ontzi aundi ta
Ama parerik gabea,
batasunaren kutxa dontsu ta
kristauen laguntzallea!
O zorigaitzen kendutzalle ta
onaren ekartzallea!
Kristau talderi guzi-guziyaz,
arren, kupitu zaitea!

Bazaude zu jarriya
gure bitarteko,
nola etzera bada
gutzaz kupituko?
Nola etzaitugu guk
ziñez apaiñduko,
zu gabe ez bagera
zeruban sartuko?

Ama guzizko miñerituben
Ama miñeritubena,
urrezko etxe bat egiñikan
guk koroituta zaudena;
zeran ezkerro gure Ama ta
txit maite gaituzubena,
arren, erruki izan zazu, bai,
euskaldunaren izena.

Ramos Azkarate-kuak

Euskal-Erria, 1901

Ibaizabal, 1902-VI-29

El Cántabro
(1893)

Ill da gure Erregiña!

Galdetutzen det: «Nun da,
nun da gure Ama,
ainbeste bular gozo
fueristai emana?».
Negar egiñez esan
dezagun: «Au lana!
Juan zaigu mundutikan
Erregiña zana!».

Sinistu dezazuke,
aingeru laztana,
esango dizugula:
«Gure Ama zana!».
Gorde nai degu zintzo
Aitorrek esana,
naiagatikan beltzak
galduko ez dana.

Iñoiz gaitz aundiren bat
banizuben egiñ,
arren!, barka dirazu
sosegatu nadiñ;
nago penaz beterik,
gañera det txit miñ
nik zu ikusi gabe
zeradelako ill.

Ill zera, ai, ill zera
nere edadian,
berrogei ta sei urte
zeuzkatzubengan;
ni nere Erregien
etsai nintzarian,
nebillen Eliza ta
Fueroen kaltian.

Bañan ikusirikan
zerbait istoriya,
ikasi nuben zerbait
maitatzen egiya;
maitatzen Fueroakin
euskaldun erriya,
maitatzen euskera ta
zure familiya.

Ta guziyen gañetik
zure bertutiak
dirade neregandik
oso apartiak;
argatik, o Amatxo,
Jaungoiko maitiak
zabaldu zizkitzuben
zeruko atiak¹.

Arren!, begira zazu
kausa txit santura,
lurrean begiratzen
zeniyon modura,
senda dediñ euskera
ta Lege zar ura,
naiz juan orduban bertan
ni beste mundura.

Ramos Azkarate-kuak
El Cántabro, 1893-II-25

Au izan zan aldizkari orren leen zenbakia. Gai illun batekin izan zuan, beraz, asiera.

Aurretik, letra aundietan idatzita, onela esaten da erderaz: *La augusta Señora Doña Margarita de Borbón y Parma, esposa de Carlos VII, falleció en Viareggio (Italia) a las nueve de la mañana del día 29 de Enero de 1893 a los 46 años de edad. Descanse en paz.*

Bertso paperetan ere agertu ziran bertso auek, *Tolosa - Imp. de E. López* moldiztegian argitara emanda. Gure artxiboan dagoan alea, Ibarrako Eusebio Ezeiza bertsolaria zanaren eskutik jaso genduan.

Izenburua onela du kanta-paper onek: *Doña Margarita Borbon-goa zanari.*

Aldaketa bakarra arkitu degu bertsoetan: *El Cántabro*-k onela du 1/6 le-
rroa: *Aitor-ek esana*; eta bertso-paperak, *Ait-orrek esana*. Esan-naiean bada al-
de pixka bat batetik bestera: batean, euskaldunen leen asaba mitiko arek esa-
na izango litzake; bestean, *Aitaren* batek, karlisten Karlos VII erregeak-edo,
esana.

Egunkari edo aldizkariren batean ere agertu ziran. *El Cántabro*-ri kopia-
tuta. Ezin esango degu zein egunkari edo aldizkari dan, eta ez egunik ere, To-
losako Manuel Urreta zanak gordetako *rekorte* bat baita, eta olakorik apunta-
tzea aaztu egingo zitzaion.

Laugarren bertsoak zera esaten digu: Ramos Azkarate etzala beti karlista
izan, itzaurrean esan degunez, eta *konbertitu* egin zala.

¹ Kontsideratubaz biyotz-beraro. (*El Cántabro*-ren oarra).



Doña Margarita Borbon-goia zanarí.

—1—

Galdetutzen det ¿nun dá?
 ¿Nun dá gure Amá,
 Aimbeste bular gozo
 Fuerista-i emaná?
 Negar eguiñaz esan
 Dezagun ¡¡au laná!!
 Juan zaigu mundutican
 ¡¡Erreguiña zaná!!

—2—

Siñistu dezazuque
 Aiñgueru laztaná,
 Esango dizugula
 ¡¡Gure Ama zaná!!
 Gorde nai degu cintzo
 Ait-orrec esaná
 Beltzac galdu nai arren
 Galduco ezdaná.

—3—

Iñoiz gaitz aundirembat
 Banizuben eguiñ.....
 ¡Arren! barca dirazu
 Sosegatu nadiñ;
 Nago penaz beterie
 Gañera det chit miñ
 Nie zu icusi gabe
 Ceradelaco ill.

¡Arren! beguira zazu
 Causa chit Santurá,
 Lurrean beguiratzen
 Ceniyon modurá;

—4—

¡Ill cerá! ¡ay! ¡ill cerá!
 Nere edadian,
 Berroguet ta sei urte
 Ceuzcatzubenian;
 Ni nere Erreguien
 Etzai nintzarian
 Nebillen Eliza ta
 Fuero-en caltían.

—5—

Bañan icusirican
 Cerbait historiýá,
 Icasi nuben cerbait
 Maitatzen eguiya;
 Maitatzen Fuero-aquin
 Euscaldun erriýá
 Maitatzen Eusquera-ta
 Zure Familiýá.

—6—

Ta guciyen gañetic
 Zure bertutiac,
 Dirade neregandio
 Oso apartiac;
 Argatic ¡Oh Amachol
 Jaungoico maitiac
 Zabaidu eizquitzen
 Ceruco atiac. (*)

—7—

Senda dediñ Eusquera
 Ta legue-zar hurá
 Naiz juan orduban bertan
 Ni beste mundurá.

IBICI BEDI DON CARLOS!

RAMOS AZCARATE-CU-AC.

TOLOSA—Imp. de E. López.

(*) Consideratubaz biyotz-beraró.

Elosegui-co On Josè Jaunari

BERE DEY EDO PREGOY BACARRECO IGANDEAN

Tolosán Garagarrillaren 7. ^{an} 1891 ^{garren} urteán.

— 1 —

Ygarondoco chori guciyac
¡Nola diguten cantatzén!
«Gure errico Erreguearen
Semea dala ezcontzén»
Oriya deitzen zayon ibayan
Arriyac dabiltz dantzatzén
Elosegui-co Principe aren
Ezcontza ona gozatzén.

— 2 —

Uztarre gaña Yzazcunequiñ
Ela Urquizu mendiyac,
San Antoniyo z oroitu eta
Guciro daude alayac:
Pozaren pozaz lorela dira
Beotibar-co celayac,
Bay eta ere Laurac-bateco
Histori zoragarriyac.

— 3 —

Zure ezcontza cantatzen dande
Birigarro ta zozuac.....
Eta ¿nola ez, baldiñ nay badu
Virgiña Yzazcunguac?
Zure ezcontza zabaltzen dabiltz
Nun naico eche-usuac.....
¿Gergatican ez ala nay badu
Ama doloretacuac?

— 4 —

Zure gloriyaz pozturic daude
Languille fabricacuac.....
Atseguñ degu imbidirican
Ez degun Tolosacuac:
Contentuz daude erruquitsuen
Eche Santuco guissuac.....
Gaude gozatzen Euscal-errico
Fuerista eguiyazuac.

— 5 —

Eloseguitic, Larranagatic
Datozten izar berriyac,
Yzango dira Jaungoicoaren
Eleicen arguigarriyac:
Dira izango salvalutzeco
Ybero tarren mendiyac.....
Yzango dira aitaren gisan
Gucizeo mailagarriyac.

— 6 —

¿Cer cantatutzen ote dizute
Zure baratzen choriyac?
¿Cer cantatu nay ote dizute
Jauregui ⁽¹⁾ icuscariyac?
Ybillitzeco atz-erriyelan ⁽²⁾
Asetzen zuen beguiyac,
Eta len bait len etorritzeco
Bertara ezcon berriyac.

(1) Palazio
(2) Puchbas estruñiz.

Ramos Azcarate-cu-ac.

«Moroa lenago karlista baño»
esaten ari dan bati

Dakit ez naizela ni
ezertan abilla,
baña naiz arbazta bat
gutziz biribilla.
Erriyan bai omen da
gizon bat umilla,
eterako zaidana
noski nere billa;
orra bada ni emen,
etorri dedilla.

Artillero txit beltza
izanagatikan,
tiruak juaten zaizka
Sorabillatikan;
beltzik aundiyenaren
lagun egiñikan,
Zu-bi-e-ta-tik tranpan
ari dalarikan,
Andoaingo polborak
ez du indarrikan.

Gizon ori emen da
gutziz intrigista,
Erramuntxo bezela
oso turronista;
Donostiyan daukana
paper bat *Fuerista*,
antxe abiyatu zan
bere organista,
esanaz: «Nik ilko det
famili karlista».

Urrengo arte
El Cántabro, 1893-II-25

Ramos Azkaratek, itzaurrean esan degunez, izenorde asko erabili zituan. Oietako bat, *Urrengo arte* ori.

Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jasotako orri batean, makinaz idatzita, sei bertso aurkitu ditugu. Oietako iru, sail ontako iru bertso oiek, baiña oso aldatuta. Dan-danak eta oso-osorik eskeiñiko dizkiogu irakurleari:

Neri nere izenez
deritzat *Makilla*,
norbaitekin nik egiñ
bear det *tortilla*;
erriyan bai omen da
gizon bat abilla,
aterako zaidana
noski nere billa,
orra bada ni emen,
etorri dedilla.

Gizon ori omen da
txit nocedalista,
Erramuntxo bezela
guztiz turronista;
Donostiyan daukana
paper bat *Fuerista*,
antxe abiyatu zan
bere organista,
esanaz: «Nik illko det
famili karlista».

Kapitan jenerala
izanagatikan,
tiruak joaten zaizka
atzeko aldetikan.
Unión Granuja len
lagun egiñikan,
Gaztelutik tran... pan... pan
ari dalarikan,
gezurrarekin ez da
iltzen karlistikan.

Siñistu dubenian
ez gaitubela ill,
arma paltsoagoak
deskargatzen dabill.
Txomin bat eta Prati,¹
Prati eta Txomin,
(Andoain ta Betelu)
baziran bat egiñ,
Andoaiñek tratuban
al zuben utsegiñ?

Erregiñan aldeko
republikanuak
dira Txomin jauna ta
bere antzekuak;
plaga orretan daude
anai ordekuak,
Don Leandroneko
tertulianuak,
Bartolis maite duten
nozederalinuak.

Donostiyako *La Voz*
ta anaia *Fuerista*,
edozeñek dakigu
dirala bi aizpa;
abiyatu naitzaie
gaurtik *kis-ki kas-ka*,
ikusi dedin nor zeñ
joaten dan eskapa.

¹ Txomin eta Patriren arteko elkarrizketa or goien aurkituko du irakurleak.

**Rau, rau, rakataplau,
au dek umorea!
Utzi alde batera
karlista jendea.
Beren himno nabarran**

D. Fraxku maitia,
oiera zaitia!
zergatikan zauden zu
oñazez betia. Bai!
Bi jipoi aundiyak
emen arturik,
ez dakigu nola
zauden bizirik.
Ez badezu billatzen
botika oberik,
etzaude sendatuta
kortera joanik!
Emengo karlistak
dira gogorak,
zatitzeko benaz
etsai dollorak.

Andoaingo... zapi...
zarpazoka beti!
Obe dezu Ameztoi
kaiolan iduki! Bai!
Zortzi eun boto
oraiñ bi urte,
aurten gutxiyago
nola zerate?
Elizan etsaiari
eman diozkatzute,
apaizak guztiz maite...
dituben truke.
Sardá-n liburuba'
dezute saldu,
edo Luzbeltzena
perlaz apaindu.

D. Anttoñ, kir-kir-kir
gezurretan abill:
armiarmak oi dituk
paltsokeriyan ill. Bai!
Gure elkarte
dediñ ondatu,
Pilatosen gisan
dek ik firmatu.
Zerbaitengatik Kristok
ziran eskapatu!
Judubak zutelako
gurutz-illtzatu.
Ai zori-gaiztoko
judu saldubak,
dirubarengatik
zeudek galdubak!

Nose-dar, Nose-dar²,
dakizu nor geran,
dizugulako aurten
garrotia eman. Bai!
Fueroaz konforme
degu obratu,
zuk etsai bezela
dezu pagatu³.
Zumaiako erriyan
zein gera portatu?
Rameri bere faltaz
dute urkatu.
Gipuzkoa bizi
dediñ txit libre,
deitzen degu: «Biba
gure errege!».

Urrengo arte

El Cántabro, 1893-III-18

¹ Felix Sardá y Salvany, *El liberalismo es pecado* liburuaren egilea. Sarritan aita-tzen du Ramos Azkaratek liburu ori bere bertsoetan.

² *Nosedar* zera da: *Nocedal* abizenaren aldaketa, Ramos Azkaratek asmatua, *Ramon Nocedal y Romea* politikoagatik burla egitearren. Bera izan baitzan, leen ere esan degunez, integrismoa sortu zuana, karlista alderditik talde aundi bat berekin eramanik. Integrismoa eta integristak etzituan Ramosek begi onez ikusten, bere bertsoetan bein eta berriro ageri danez.

³ Fuerista izateko beariko izan karlista. (*El Cántabro*-ren oarra).

Izenburuan aitatzen dan *himno nabarra* ori ez dakigu zer doiñu edo kanta izan di-teken.

Ez aspertzia beti jipoiak artzen!

Ai, ai, don Fraxku biyotzekua,
ez dizut burlaz nai ekiñ,
zerengatikan gaitzikan asko
badaukatzuben zerekiñ;
nunbait txit samiñ arkitzen ziñan
lengo bi jipoi aiekin,
gaur samiñago gertatzen zera
Donostiyako orrekin.

Nunbait libriak izan oi dira
zuen arteko gustoak,
berarengatik daramaizkitzu
kirten gabeko zestoak;
zuretzat beltzak eta txuriyak
aurten dirade gaiztoak,
ta etzizuten onikan egin
Ameztoi *zanan* botuak.

Birtuterikan izan ez eta
goiak arrapatu naiak,
saldu zaituzte txinuan gisan
zedorri zere anaiak;
ta eriturik lajatu zaitu
Errezusta-ren arpoiak,
nola Nose-dar ebaki zuen
Olazabalen jipoiak¹.

Republikano monarkikotan
bizi danikan *martiri*,
(Kristoren kontra zabilta bañan)
ez diradela beste bi?
Zure larruban baldin banego
eta... banuke ugari,
bizi naizela oroitgarri bat²
bearko liteket jarri.

Zere erritar batek
El Cántabro, 1893-III-25

¹ Tirso Olazabal, karlisteetako jaun ospetsua.

² *Monumento*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

«D. Brixko jerente...»

Rau, rau, rakataplau,

Au dek umorea!

Utzi alde batera

karlista jendea!

Beren himno nabarran

D. Brixko jerente,
konturatu zaitte
etzerala biziko
karlistak ill arte. Bai!
Damu badu ere
zure kopetak,
goian kantatzen du
Zubizarretak.
Al dakizu nor diran
emengo karlistak?
Euskera maite degun
guztiz fueristak.
Zuen beltz-intrigo,
zuen naspillak
ez dauzka illikan
mendi-mutillak!

Gutxiyenez *Ban-tres*¹
buruz eta oñez,
gerran abilla ziñan
eta gaur ezer ez. Ez!
Sarturikan zaude
zaku salduan,
gure kapoteak
dauden moduan.
Aurten ez noski, baña...
urrengo neguan
asi biarrak gera
oial-tratuan.
Laxter guregana
pasatu zaitetz
fueristak jaztera
zorri-kolorez.

O, D. Oial-ertza!
Lastima! Zer beltza!
Nose-dar-en tirante
zu omen zabilta. Pun!
Zu zeraden bañan
gogorraguak,
(alrebes esan det)
gizenaguak,
dabiltza tiratutzen
karlistai tiruak,
Maroto traidorian
artilleruak.
Kir-kir-kir eta zu,
zu eta kir-kir,
sumar dakizute,
bañan ez *partir*.

Nose-dar-en akta
dabil balantzaka,
moztu ziotelako
Azpeitian anka. Baai!
Purutasun asko
mingañian ta...
Intriguak beti
trinpiti tranpa.
Nola anaia duten
Don Masoi Sagasta,
katu zar bat erbitzat
nai dute pasa.
Biba Olazabal!
Biba Rezusta!
Biba Eusebio
Zubizarreta!

Urrengo arte

El Cántabro, 1893-IV-1

Bertso-sail onek *El Cántabro* aldizkari ortan izenbururik ez du. Zein doi-ñutan kanta bear dan adierazten da; besterik ez. Emen kako artean daukan izenburua gerok erantsia da, leenengo bertsoaren asierako itzak artuta.

Leenengo bertsoan aitatzen dan Zubizarreta orrek, Eusebio izeneko, dipu-tadu karlista zan Tolosako barrutitik.

1 Iru bider paltsua karlistakin. (*El Cántabro*-ren oarra).

Intriguak karlistai kanpanak jotzen!

Ostera egun santuz Fueristak publikatu zuan

Tolosako kartaren egillean onran eta alabantzan.

(Potajiaren doñuban)

Errez-illko erriyan,
lengo egun batez,
pollita pasa zaie,
berak ziotenez:
Nose-dartar batzubek
jantziyak soñ beltzez,
anaien zai an zeuden
kontentuz ta pozez,
martir deklaratzeko
Gil Robles ta Sanchez.

«Konde Artillerua»
kantatzen Tirsori!
Noiz, noiz bizitu zera
Tirso bezin garbi?
Obe zeñiyon kanta
Aita Marotori,
zere moduko faltso
traidore zanari,
Judasen seme gaizto
turroi zaleari.

Oiek nola diraden
denak obispuak...
edo beren ustian
aundixeaguak,
dauzkate eskubide
bañan... nolakuak?
Kanpana jotzia ta...
ta... orrelakuak,
dira pentsuba libre
duten aldekuak.

Berak dauzkate oraiñ
kanta gizenenak,
Salamankan beiñ batez
jarri ziozkatena.
Gero Erromak ontzat
eman ditubena,
dira kanta denetan
kanta ederrenak,
intriguak kantatzen
ez dakizkitena.

Karlisten familiya
galdu nai dutena,
damu zuten jotzia
karlistai kanpanak;
Don Tirsori tiroka
an jardun ziranak,
dira kanpo ta barren
gutziz beltzeranak,
«Biba! Biba ganbela!»
deika dabilzanak.

Elizan aldekorik
Elizangandikan
kondenaturik ez da
izan oraiñdikan.
D. Sanchez eta Robles¹
duda gaberikan
ziran kondenatubak
bizi-bizirikan,
merezi bezelaxe
azotaturikan.

Jarriyaz jaun oieri
urrezko loreak,
ziyon Bitoriyatik
bein batez *Gorbeak*:
«Artzaiak pertsegitzen
zituben jendeak
zirala katoliko
txuri ta garbiak»,
(naiz Erregerentzako
izan traidoreak.

Zer dira gaur, zer dira,
alako gizonak,
Región-i arrazoi
ematen ziyenak?
Beren artzaien kontra
aíñ gogor zeudenak,
ta... gaur ere benturaz
alaxen daudenak...
ez al dira Ruso-en
anai aundiyeak?

Ez balira izandu
oiek traidoriak,
nola familiyatik
bota Erregiak?
Nola Salamankako
autoridadiak?
Nolatan kondenatu
bere arkumiak,
ez baldin baziraden
izan *rebeldiak*?

Erregerekin izan
diranak traidore,
aundiyeakin ala
gertatu dirade;
maitatzen degubena
biyotzez Errege,
bata ta besteakin
gutziz ondo gaude,
bestela Españiko
obispoai galde.

El Cántabro, 1893-IV-8.

Aurretik onako argibide auek ematen ditu:

«*Una persona que se hallaba en la plaza de Régil cuando pasaron por allí los Diputados provinciales carlistas, que desde Tolosa se dirigían a Loyola con objeto de felicitar al R. Ps. Martín por su nombramiento de General de la Compañía de Jesús, nos remite para su inserción los siguientes versos*».

¹ *Naturales de los pueblos*. (*El Cántabro*-ren oarra).

Zazpigarren Karlosen onra aundirako

emengo karlisten elkartean kantatutako amaseikoa,
1892-garren egunean, Jesukristo zerura igo zan egunian

Munduban Printzipe bat
katolikorikan
nun da gure On Karlos
bezelakorikan?
Fuero santu aundiyan
gordetzallerikan,
eguzkiyan azpiyan
ez da besterikan.
Voltaire-tarrak dabiltz
alper-alperrikan,
Donekar¹ onek ez du
tanto paltsorikan.
*Bizi bedi Gurutze
Santuko fedia,
bizi dedilla, bizi,
gure Erregia!*

Eun bat Erregeen
illoba maitia
daukate sort-erritik
kanpora botia.
Erakutsiyaz ondo
zer dan birtutia,
Venecia-n bizi da
gloriyaz betia.
Loredan Jauregitik
Printzipe noblia
ari da sendotutzen
bere artaldia.
*Nor da, nor, benetako
koroian jabia?
Naiz legez eta bidez,
Errege guria.*

Elizaren aldeko
beso eskubiya
da zazpigarren Karlos
kristau txit garbiya.
Da buruzari piña,
da biyotz aundiya,
da Luzifer-keriyan
mallu galgarriya.
Biyotzaren gañetik
dauka Gurutzia,
beragaz Españaia
nai du salbatzia.
*Elizari eman nai
diyona pakia
da bakar-bakarrikan
Madrilko Dukia.*

Elizaren burubak
Elizaren buru,
gañerantzian berriz
On Karlos daukagu.
Lenago itsasoak
suba botako du,
ez *Fuerista*-k Errege
turroi truka saldu.
Saldubakin Errege
saltzen da *Fuerua*,²
egiten da Judasen
anai ordekoa.
*Bizi bitez Fueruak
traidorerik gabe,
bizi bedi On Karlos,
bizi bedi Jaime!*

Tolosako *El Cántabro* aldizkaria, 1893-IV-15.
Izenburuaren aurretik argibide auek ematen dira:

«*Un querido amigo nuestro ha tenido la amabilidad de proporcionarnos el precioso amaseico compuesto por el aventajado joven D. Maximino Olariaga, y cuya letra es como sigue*».

Eta bertsoen ondoren beste firma bat: *Ramos Azkarate-kuak*.

Maximino Olariaga ori norbait ere izango zan, bearbada. Baiña bertso auek, gure iritzirako beintzat, Ramosenak dira. Orregatik sartu ditugu liburu ontan.

¹*Soberano. (El Cántabro-ren oarra).*

²*Irakurri bitez Gipuzkoako Fueruak. (Id.)*

Cerralbo-ko Markesan

onra aundirako

Fueruak juratu zituben 17-garren urte betian

Etorri banaiz Bizkai aldera
Tolosa ederretikan,
zer kontentuz ta zer atsegiñez
arkitzen naizen Gernikan!
Aita Cerralbo, anaia Mella
gaur emen ikusirikan,
pozaz darizkit txanpona añako
malkuak biyotzetikan.

Gezurra esan ote det bada
arbola santubangatik:
martiri ill ta juan zaigubela
Jaun Zuria-ren lurretik?
Novia Salcedo-k, ikusirikan
eriyosuan zerutik,
bere ondora eraman dizka
osto guztiyak mundutik.

Nola etzaizkit gaur eroriko
pozaren pozaz malkuak,
ikusirikan Laurak-Bat-eko
fuerista egiazkuak?
Ikusirikan Gaztelaniko
karlista biyotzekuak,
Erregiaren soldadu leial,
benazko katolikuak?

Kadizko Korte andik asi ta
arbola maitagarriyak
pasa zituben arrezkeroztik
guziz oñaze aundiyak.
Beti kozkaka nola zeukazkiñ
goseak zeuden legoyak,
jan zizkiyoten koitadubari
ezurrak eta mamiyak...

Alde batetik pozaz banago,
bestetik daukat tristura,
gogoratubaz aritz santubak
orain daukan itxura.
Galdetutzen det: «Au al da lengo
arbola garbi zar ura?»
Erantzuten det: «Ill zan bai ill zan
Berriotxoan modura».

Kristau jaiο ta kristau azi zan
aritz arbola maitia,
nola zezaken erejiyaren
mendean bizitutzia?
Nola zezaken bere Lau-buruz
beñere ernegatzia?
Nola zezaken Lekobideren
patriya desonratzia'?

Nola zezaken Castaños jaunak²
gañetik ikusitzia?
Nola zezaken Llorente baten
gezurrak aguantatzia?
Nola zezaken Kristina zarra
Amatzat ametitzia?
Nola zezaken Isabela bat
etxeoandretzat artzia?

Saldubak izan ziradenian
Españiyako karlistak,
bere borrero serbitu zuten
Cánovas eta Sagastak...
Lotu zizkaten koitadubari
burnizko kate galantak,
sartu zizkiyen kirten ta guzi
biyotzeraño ezpatak.

Nola zezaken Esparteroren
golpiak sufritutzia?
Nola zezaken moderatubun
pildorak tragatutzia?
Nola zezaken Bravo Murillo-n
izena maitetutzia?
Nola zezaken Sánchez Silva-ri
estatua bat jartzia?

Amasei urte igaroturik
agoni penagarriyan,
ill da, bai, ill da gure izarra
traidore biyen erdiyan.
Illa da, bai, ill da Jesusen gisan
osoro larru gorriyan,
ill da Cánovas Pontzio Pilatos
bigarrenaren azpiyan.

Nola zezaken Amadeori
ezertan segitutzia?
Nola zezaken errepublika
txar aiek adoratzia?
Nola zezaken Alfontso zana
bere jaun ezagutzia?
Nola zezaken Nocedal-tarrak
berekid idukitziat³?

Ill da, bai, ill da, baña utzirik
bere lekuban semia,
erakutsiyaz aita bezela
Mesias baten fedia;
erakutsiyaz Euskal Erriyen
zeruko libertadia,
erakutsiyaz mundu ontako
bizitza pare gabia.

Ill da blasfemiz eta biraubez
nazkaturikan osoro,
ill da, bai, beltzen lege paltsuak
gorrotatubaz guziro.
Ilda kostunbre eta oiturak
utzirik guziz garbiro,
joan da zerura bañan deitubaz:
«Biba Don Karlos...!»

Orain atzenik, Aita maitia,
zer det geiago esango?
Karlosik gabe Fuero Santurik
ez degubela izango;
gure Erregen juramentubak
sinistaturik gozoro⁴,
deitzera nua: «Biba Don Karlos!
Biba Jaime ta Cerralbo!»

Ramos Azkaratekuak

El Cántabro, 1893-V-13

Aurretik oar au: «*Se nos han facilitado los siguientes versos pronunciados por su autor, en conmemoración de la jura de los fueros por D. Carlos*».

¹ Como no podía transigir. (*El Cántabro*-ren oarra).

² El año 1813 empezó la pasión del árbol de Guernica. (Id.)

³ El que es desleal al R... es desleal a los Fueros. (Id.)

**Sagastaren Haciendaren
Ministruaren gabirai beltza
onela dago gaur kantari:**

«Ta txiru txiruli ta... miru miruli...
pezetak... pezetak... milloi bi».
(Himno nabarran)

Gamazo, Gamazo,
mangi zaude oso!
Euskal Erriyak nola
zure kargak jaso? Noiz?
Entzun utsarekin
zure asmoak,
altxa dira emen
gure atsoak.
Burruntziz armatuta
zugana dijuaz,
«Biba! Biba Fueruak!»
gogor deituaz.
Diyote: «Erdaldun
jarri bañan len,
liberalkeriyak
egingo dik ler».

Zer libertadia!
Gamazo *kofria*...
Zuek dana libre ta...
guretzat katia. Bai!
Bi milloi pezetan
bear zerate?
Zuen tripak zeñek
odolkiz bete?
Euskaldun liberalak,
zuek zer zerate?
«Biba! Biba Sagasta»
deitutzen dezute?
Bere borrrua
dubenak maite,
bera borrrerotzat
juzga liteke.

Larogei bat urte
ez dira aparte,
Uzta-illian noski
izan biar dute. Baaai!
Soldadu zar bat
Deban, bai!, Deban
lenengo golpia
ziguben eman¹.
Erdal lege gosia
sartu zitzaigun an,
geroztikan ari da
jan ta jan ta jan.
Libertade piñak
ill dizkigute,
libertade paltso-
-paltsoen truke.

Bai! Bai! Lege zarra
egiten negarra,
orduban eritu zan,
bai!, gure izarra. Bai!
Milla zortzi-eun
eta ogeiyan,
ogei ta iruko
tarte larriyan.
Kinta, petxa ta paper²
Euskaldun Erriyan
itsasi zizkiguten
paltsokeriyan.
Gamazoren alde
izatekotan³,
artzekua badu
bi milloietan...

Urrengo arte

El Cántabro, 1893-V-20

¹ Francisco Javier Castaños bat etorri zan Rejentiairen ordenaz Gipuzkoako Junta-ri, Kadizko Kortetan 1812-garren urtian egindako lege paltso ura juramentatu azitzera; guk geren etxian milla bider obia ez bagendukan bezela! (*El Cántabro*-ren oarra).

² Sellatuba. (Id.)

³ Esan nai det euskaldunagatik. (Id.)

Tokatzen zaionari

Oriya deitzen zaion ibaia,
Pazkua bigarrenian,
penatu giñan negar egiñaz
ikusi genubenian.
Zenbat, ai, zenbat arrai zetozten
gaxuak uran gañian,
bestek begiyak kloroz erreta
beste mundura bidian!

Libertadia... libertadia...
bai omen dago, zeñentzat?
Euskal Erriko Libertadiak
nai ez dituzten oientzat.
Guziro begi zorrotzak daude
arrantzan dabilzanentzat;
ez al da bear begiraturik
arraien borruentzat?

Zer baliyo du kartutxo batek?
Zer baliyo du kariak¹?
Zer lezateke iru malla ta
txingakin beste sariak?
Zer dirade, zer, agorte eta
naiz bestelako nekiak,
arrairik bage lajatutzeko
ibaia eder guriak?

Kloro jaun ori bearra bada
eteratzeko papera,
ez dedilla, ez, iñoiz gertatu
arrai guziyen galera!
Nocedal baten akta botako
balitzake gaur urera,
dauden banakak baietz eraman
arrandegira saltzera!

Dala bata ta dala bestia
dala txit puzuni txarra,
dago esaten gure Oriya
egiñaz samiñ negarra;
dago esaten Azpeitiyako
bizar kentzalle kaxkarra,
zerengatikan mami ta guzi
ebaki ziyon bizarra.

Arrantzale bat
El Cántabro, 1893-V-27.

¹ Esan nai det emen egiten dan karia. (*El Cántabro*-ren oarra.)

Bi anai turroi-jale aundiyen aitzen naia edo testamentua

Gaur ez naiz Sagasta,
ez naiz Luzbeltz-kasta,
lengo Luzbeltzkeriyak
basta ditut, basta. Bai!
Ni izan omen naiz
Patriyan aita...
(Ez beintzat bi milloi¹
aundiyak naita.)
Egiñ izandu ditut
zenbat milla falta!
(Mateo izanduba:
ori patata!!)
Damu det biziro,
damu det, Jauna,
«denbora onian
guziya janda.

Nere gaurko itzak
ez dirade beltzak,
baizik txuri-txuriyak
dirala deritzat. Bai!
Juan zaidalakoa
masoi-sasoia,
ezagutuzten det
nik arrazoia...
Sartu ziran ezkeroz
Juan Mella-k arpoia.
Gelbenzu izandu da
nere ill-oia.
Globuan banua
ni infernura,
jantzirik aitaren
murrion ura.

Ez naiz gaur Cánovas,
bañan bai Barrabas;
ikusi bearra naiz
denboraz Satanas. Bai!
Galduba naiz eta
nua mundutik,
Nocedal ta Pidal
biyan erditik.
Zenbat turroi jan detan
zuen ganbelatik
ez dizutet esango
ezerengatik,
zergatik liberal
katolikuak
geran ganbelaren
alderdikuak.

Auxen da, au, lotsa!
Au da eriyotza!
Españiya guziyak
oraiñ daukan poza! Bai!
Alfontso ari zait
deika zerutik...
Bañan, bañan, bañan
urrutitxotik.
Nere anaiak deitzen
ditet aldegotik,
argatik bear det jua
ezker aldetik.
Agur, partidu txar
parragarriya!
Agur, Luzbeltzkeri
errukarriya!

Requiescant in pace, amen!

El Cántabro, 1893-VI-3.

¹ Arpa jotzalliaren denboran. (*El Cántabro*-ren oarra).

Gamazo txit beltz, egiyazko libertadien etsaiari

Gamazo *Belia*
egorik gabia,
zer milla koloniyo
da zure kofria? Zer?
Dituzutelako
moko luziak,
zaude inbiriz
gure gosiak.
Zertan ez dauzkatzute
emengo legiak,
bizi zaitezten garbi
eta libriak?
Kastillarekiñ gu
berdindutzia
da lege santubak
deabruzia.

Euskaldun Erriyak
dirala garbiyak
diyo txor-zulotikan
Humboldt txit aundiyak. Bai!
A, Gaztelaniko
piper berdial!
Atoz zu onera,
atoz ordia,
ikusi dezazuben
euskaldun fedial
ez dala Gamazoren
adiskidia.
Azaldu bañan len
zure legial,
jakin zazu gure
eskubidia¹.

Al da euskaldunik
zure aldekorik,
gure Fueroen berri
zerbait dakiyenik? Ez...
Emen baldin bada
orrelakorik,
ez du, ez, berekiñ
euskal odolik;
ez du, ez, lotsarikan,
ez du nai onrari,
ez da traidore paltso
txar bat besterik.
Entzun utsarekin
zure kua-kua-kua,
zein izan, zein, zure
alderdikua?

Nai gaituzula jan
bazabiltza, Jerman,
zure asmuak baietz
aiziak eraman? Ez?
Lenago zeruba
da eroriko,
eta itsasoa
da txit lertuko.
Erdal gaiztoen mende
jarri ordurako,
turroi-jale guztiyak
zerate illko.
Egiñta daukagu
juramentuba
defenditzeko
Fuero Santuba.

R. A. eta O

El Cántabro, 1893-VI-10.

¹ *Medios que reservó Guipúzcoa para la conservación de sus derechos.* (El Cántabro-ren oarra.)

Oiekin iñora ere ez

Sagastan alde dan euskalduna,
beintzat paltsua ez bada¹,
bere Patriyan borrero txar bat
beste gauzarik bai al da?
Sagastan alde dan euskaldunak
garbiro esan dezala
Euskal Erriko liberaletan
Fuero-zalerik ez dala.

Zer egin zigun Cánovas batek?
Zer egiten du Sagastak?
Zer du egiten Martínez Campos
kaballeruan ezpatak?
Zer dirade zer Calbetón Blanchón
aberatsaren lanketak?
Beltzen semiak libratu eta...
katibatzia karlistak.

Ez al gerade gogoratutzen
denbora triste batian
nola ibiltzen giñan Ernanin
eta Donosti aldian?
Acilona² ta... alakoakin...
geren buruben kaltian?
Zer pozaz gauden Fernando Poo-n
arkitzen ez geranian!

Zer esperatu genentzake guk
fabrika batzubetatik?
Oker esan det: beti ganbela
nai duten gizonetatik?
Ondo itzezin aurrian eta
gero saltzia azpitik...
Ugatz-anaiak ezagutubak
dauzkagu aspalditxotik!

Iru txorroko txapelak sitsak
janda dauzkaten gizonak,...
aundi nai eta ezin izanik
tranpiyan darabiltzanak...
Naparra izan, Naparruari
segitzen ez diyotenak,...
dira biyotzez, dira animaz
semerik beltzen-beltzenak.

Irurogei bat urte oietan
ez bazan izan karlistik,
etzan, ez, Euskaldun Errietan
Fuero Santuben arrazik;
karlistak saldu zituztenian
gelditu ziran ill-otzik,
ez diratela jauntxo oriyek
esaten neri ezetzik?

El Cántabro, 1893-VI-17.

¹ *Me dirijo a los que tienen alguna idea de nuestra hermosa historia. (El Cántabro-ren oarra.)*

² *De funesta memoria para los verdaderos Fueristas, que son los carlistas. (Id.)*

**Tolosa txit noble,
leial eta doagaraiari**

Probintziyaren erdi-erdiyan
giyatzat zauden izarra,
Gipuzkoaren etxeoandre ta
Señora bakar-bakarra;
zeradelarik guztiz ederra,
zeralarikan zar-zarra,
etzera beintzat Gamazo baten
adiskide ta maiztarra.

Nola izango zera ordia
Gamazon adiskidia,
baldin Señora izan ezkerro
bazera zere jabia?
Gaur lur azpiyan negarrez dago
zure Domenjon Andia,
esanaz guztiz paltsua dala
Sagastan libertadia.

Paltsua nola ezta izango
Mateon libertadia,
golpa batian jan baziguben
bein batez milloi paria?
Gañera balitz Sagasta zana
bildur santurik gabia...
jango liyoke Gamazo bati
utsikan daukan kofria.

Jakin dezala Jerman Gamazok,
dezala jakin Sagastak,
irten dirala txor-zulotatik
Beotibarko umantak¹,
jantzirik lengo kapusai aiek,
jantzirik beren abarkak,
irrintz egiñaz ta kantatubaz
Astabizkar zanan kantak.

R. A.

El Cántabro, 1893-VI-23.

¹ Héroes. (*El Cántabro*-ren oarra.)

Ongi etorri

Izan zaitetze bada
ongi etorriyak,
San Juanez Tolosara
zatozten erriyak.
Gure eliza eder
adoragarriyak
dirade, bai, ixpillu
txit dizdizariyak.
Gure garbi-leku ta
gure iturriyak,
dira guztiz eder ta
oso egokiyak.
Guk arratsetarako
dauzkagun argiyak,
dirurite zeruko
izartxo berriyak.
Gure Igarondoak
eta Zumardiyak,
guzi-guziyak dira
atsegin-tokiyak.

Gure erriko pesta
alai ta aundiyak
izango dira noski
poz emangarriyak.
Ostatu guztiz eder
eta txit garbiyak,
atea zabaldu ta
daude irikiyak.
Bañan Sagastarentzat
osoro itxiyak,
eta Cánovasentzat
entengaz josiyak.
Jakin beza Gamazo
deabru larriyak,
bai ere bere asmo
guztiz itxusiyak,
diradela emengo
gure iritziyak
Fuero Santuben alde
galtzeko biziyak.

Urrengo arte

El Cántabro, 1893-VI-23

Gure erregiñ
D^a. Margarita Borbongoari
1892-garren urtian,
Garagar-illaren 10-an,
bere egunian.

Kantastea

*Biyotza ta begiyak
zuregaz jarrita,
diyogu: «Bizi bedi
Doña Margarita!»*

On Karlosen emazte,
perla atsegiña,
o biyotz biguñeko
gure Erregiña!
Bular gozozko Ama
ez baldin baziña,
guk zuri nola izan
maitetasun piña?
Biyotza ta begiyak...

Zerubak ere damu
gaur izango luke,
semeak maitatuko
ez bazinduzteke.
O gure Erregiña!
Nola genentzake
guk Ama salduzia
iñudean truke?
Biyotza ta begiyak...

Esaten ari zaigu
jende nun-naikua
zaitugubela Ama
bular gozozkua;
Ama txit katolika
doai aundikua,
Ama eta Señora
paregabekua.
Biyotza ta begiyak...

Urruti zaudelarik,
Amatxo zintzua,
edaten dizugu, bai!,
guk bular gozua;
zuk oiñperatutzian
iñude paltsua,
sendatuko dala oso
Españi gaxua.
Biyotza ta begiyak...

Santa Margaritaren
eguna nola dan,
nai dizkitzugu zuri
egun onak eman;
nola leial jaio ta
ala bizi geran,
ill ere nai genduke
Karlosen banderan.
Biyotza ta begiyak....

Kantatutzen dizugu
zortzikoa zuri,
igaro dezazuben
egun au txit ongi;
erregu egiyozu,
arren!, senarrari,
jarri gaitzala laxter
libre eta garbi.
Biyotza ta begiyak...

R. A.

El Cántabro, 1893-VII-1.

Aurretik, onako argibide auek ematen dira:

«Se nos han facilitado los siguientes versos pronunciados por su autor en el Círculo carlista de esta villa el año 1892, el día de Santa Margarita, en honor de nuestra nunca bastante llorada Reina. Q. E. P. D.»

Bertso auek Ramos Azkaratek 1892-an moldatu zituan, beraz, bere erregi-ñarentzat; eta urtebete gabe, 1893-I-29-an, leen esan degunez, Doña Margarita illa izango zan.

1/8 lerroan *naitetasun* du *El Cántabro*-k. *Maitetasun* bear dualakoan, onela idatzi degu.

Emengo mutillen orduko elkartasuna nun da?

Zazpi eun ta amaseian
zegoan Españi guria,
irakurritzen degubenez gaur,
moro-arabez betia;
barbaro aiek etzuten artu
euskaldun erri maitia,
zergatik gogor itxi zioten
gure aitona atia.

Alzamas jauna eta Munuza,
Conde Julian ta Opas,
zenbat millakiñ joan zitzaizkaten
menderatzera erronkaz!
Bañan guriak gogor eraso
irrintz egiñaz euskeraz,
musulman denak ziran arritu
mendi-mutillen sarreraz.

O, D. Pelaio, infante umant¹,
Fabila baten semia,
Infiestotik egin zenduban
iberotara bidia;
zure itzakiñ txit arrotu zan
Euskal Erriko jendia,
biraldutzeko Españiatik
fede paltsoen jibia.

Maomatarrak, galdubak galdu,
abiya ziran igesi,
kristaubak berriz opoz opora
esanaz: «Gaituk nagusi!
Zuen sinismen gezurrezkua
orra gaur zer dan ikusi,
Mesiastarrak garaitu naia
kosta zaizute garesti».

Asturias ta Bizkaia eder,
Gipuzkoa ta Araba,
Pelaiorekin laurak joan ziran
txit benaz Covadonga-ra,
antxe austeko kanpo eta barren
moro jendien sarrera,
aitarren seme, naiz ill, naiz bizi,
Patria salbatutzeroa.

Moro-taldeak izandu zuten
gutziz gertaera txarra,
ondorenean galdubaz joan zan
bere armaren indarra;
zazpi gizaldi luze aietan
bazuten gure bearra,
kenduko bazan ereje aiek
zabaldutzeroa negarra.

Gerala beti leialak izan
diyo Fuero zar zuzenak,
gu gerade, bai, Pelaio bati
ala lagundu giñenak;
gera itsasoz eta legorrez
garaitzallerik goienak,
gera euskera galdu ezker
bizi nai ez degubenak.

Armaz mendean artu ez gaitu
oraindikan iñunguak,
ez erromatar, ez hebreotar,
aiñ gutxi berriz goduak;
gera euskaldun, Tubalen seme
odol garbi-garbikuak,
gera ujolde² ura ezker
biztenlen³ aurrenekuak.

* * *

Azkarate-ko Ramos-ek
El Cántabro, 1893-VII-8.

Aurretik, onako argibide auk: «Juanito Mokorra-k pianua jo eta bestiak
kantatu ditzaten Pello Josepe-ren doñuan».

* * *

Kanta-paperetan ere agertu ziran bertso auk, *Tolosa: Imprenta de Eusebio López, 1898* moldiztegi. Baiña geroagoko argitalpena da, eta euskera garbitzen norbait ibili da, agian Ramos Azkarate bera eta agian besteren bat. Ortaz gaiñera, 5-garren bertsoa falta du.

Aldaketak: 1/2: nola zeguan España?; 1/3: irakurritzen degunez orain; 1/5: aietatikan libre izan zan; 1/8: gure asabak atea. 2/1: Ziñan, Pelaio, infante eder; 2/2: Fabila onaren semea; 2/3: Infiestotik iriki zendun; 2/4: kristau alde-
ra bidea; 2/8: etsai federik gabea; 3/1: Asturias ta Bizkaia ori; 3/2: Egiptuzua ta Araba; 3/4: txit pozaz Covadonga-ra; 3/5: bertan austeko kanpo ta barren; 3/6: moro jendearen sarrera; 3/7: Aitarren-semeen fedeengatik; 3/8: beren bi-
ziyak galtzera; 4/8: mendi mutillen bildurraz; 5-garrena: falta; 6/1: Moro jen-
deak izandu zuben; 6/2: guztiz asiera txarra; 6/3: ondoren beti aitzen juan zan; 6/4: beren armaren indarra; 6/5: Pelaio il da gero're bazan; 6/6: euskaldunaren
biarra; 6/7: isildutzeko toki askotan; 6/8: kristau gaxuen negarra; 8/3: ez erro-
matar ta ez arabe; 8/7: eta gu gera España ontan; 8/8: biztanle aurrenekoak.

Itz batzuen esan-naia ere ematen du: eskerkia: *valiente excesivo*; asabak: *antepasados*; kondaira: *historia*; gudariya: *guerrero*; biztanle: *habitante*.

¹ *Héroe*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

² *Diluvio*. (Id.)

³ *Habitantes*. (Id.)

Izarraitz-goiko Aita maitagarriari

Naiz nerez Tolosakua,
Andian seaskakua,
erri txit ederrekua.
Fuero-zale bat naizelarikan
ez naiz nozedalinua;
naiz laburra ta flakua,
beartsu gañ-gañekua,
egiyan banderakua.

Esango det nik garbiro,
naiz oraiñ eta naiz gero,
esan nubena lenago.
Kontra eskutik dagoalarik
jo nai dit noski ordago;
nork daukan joku geiago
ez diot bada esango,
pentsatu gabe lenengo.

«Bi errege ta zalduna,
zeukat joku bat zuzena
bedoitutzeko gizona.
Nere etsaia bakar-bakarrik
gutziz dek diruz gizona¹;
izan ez nadiñ kirtena
egingo diat onena:
ikusi nor dan geiena».

D. Karlos eta D. Jaime,
orra bada bi errege,
mantxikan gabe batere.
Bedorren kartak lauba ta bosta,
seia, zazpiya dirade,
jokuba daukat nik alde,
zaldunik agertu gabe
ez jokatzia du obe.

Tolosan, Uzta-illaren 21-an.
Ramos Azkarate-kuak
El Cántabro, 1893-VII-22.

¹ A zer kaltia! (Egillearen oarra).

Cerralbo-ko Markes txit geidiatia jaunari, zortzikua

Kantastea

*Biba, biba Cerralbo,
txit artzai azkarra,
biba Euskaldun Erri,
Tubalen izarra!*

Erregek Españiyan
daukan ordezkua
da Cerralbo-ko Markes
leial guzizkua;
Balentziyako umant¹
zori onekua
da zaldun argidotar²
mantxa gabekua.
Biba, biba Cerralbo...

Zure lan eta neke,
zure lo galdubak
bakarrikan sufritzen
dakite santubak;
Aita San Isidroren
perla jakintsubak
etsai guzi-guziyak
dauzka lotsatubak.
Biba, biba Cerralbo...

Ontasun ta tituluz
daudenak betiak,
zeñek dauzka gaur, zeñek
zure birtutiak?
Zu zaituban gisako
seme garaitiak³,
noiz izan ote ditu
Madrilko kortiak?
Biba, biba Cerralbo...

Nun-nai agertzen zera
muzorrorik gabe,⁴
laixter zabalduko dan
banderaren alde;
zuk, zuk ipiñi dezu,
zuk, gure Errege
otso artian zeukan
artaldian jabe.
Biba, biba Cerralbo...

Egiyazko fuerista
Aitorren semiak
gera guzti-guztiyok
Cerralbo-zaliak;
galdetutzen badizu
iñoiz Erregiak,
esan, esan generala
bere aramiak.
Biba, biba Cerralbo...

Ramos Azkarate-kuak
El Cántabro, 1893-VII-22.

¹ *Héroe*. (El Cáantabro-ren oarra.)

² *Ilustre*. (Id.)

³ *Hijos eminentes*. (Id.)

⁴ *Sin careta*. (Id.)

**Zazpigarren Karlosen
seme On Jaimeri
bere santuban egunian**

Zere seaskatxotik
Errege zerana,
o zer bular gozua
zeraden edana!
Zuk onratzen dituzu
aita eta ama,
zabaldubaz munduban
bertutezko fama.

Egondu baziñaden
zu iya galduban,
gure begiyak jarri
ginduzen zeruban;
Españiko karlistak
zer trantze estuban,
negar samiñ-samiña
egiten genduban!

Bañan gure otoitz
eta erregubak,
aditu zizkiguben
Jaungoiko santubak;
damu bazuban ere
Luzbeltz deabrubak,
zure gaitzak izandu
ziran sendatubak.

Ura lasaitasuna,
printzipe noblia,
aingeru katoliko
erdoirik gabia!
Karlista guziyoren
biyotzen jabia,
egiten ari zera
onera bidia.

Ama Begoñakoak
eskatzen bazaitu,
Arantzazuko Amak
berekini nai zaitu;
Excelsis-ko Migelek
txit asko nai dizu,
San Bernabe Araban
deika dadukazu.

Egiyazko euskaldun
fuerista garbiyak
egiten ari gera
erregu berriyak,
deitu dezaten laxter
Ibero mendiyak:
«Biba Karlos ta Jaime
ta Fuero aundiyak!».

Azkarate-ko Ramosek
El Cántabro, 1893-VII-29

Urolako Nocedal-en ostalariyari

Zerengatikan dabill ordea
zeñenak diran galdezka,
nere miñgaña eta biyotza
esaten ari bazaizka?
Geroztik jarri ditudan denak
gaur kantatuko banizka,...
azkar litzake *Txalkor* txar ura
nere gañera amillka.

Bost illabete joan ta ondoren
egillearen billaka...
Arranz-illunak Egiptuzuan
ez gera bada milloika.
Tolosan dago karlista txar au
galdu nai duben *Matraka*...
Bañan matxete guzi-guziyak
erdoiak galdubak dauzka.

Ez bitez asi bostak batian,
abiya bitez banaka,
gañerakoan laixter joango naiz
Benezia espaka.
O nere Aita! Zertan dago lo
arrazoirikan badauka?
Garbiroago nik nola esan
ez banaiz asten marruka?

Arranz-illun, dakigunez, Ramos Azkaratek erabilitako izenorde bat zan; eta berori nor dan jakin naian dago *Matraka* izenordeko beste idazleren bat.

Irugarren bertsoak Benezia aitutzen du. Don Karlos an bizi baitzan. Lore-dán-go jauregian.

Ni naizela, ni, egillea, bai,
ez al dit siñistatutzen?
Galdetu beza Peña-floridan,
ez diyotela ukatzen?
Ari nintzala egun batian
buru-luxiak altxatzen,
nun dan bedorri agur egiñaz
gure ondotik pasatzen!

Ez bedi bada zalantzan egon,
ez bedi egon kezketan,
bedorren orde izango dana
zeñek bentzutu legetan?
Ekarri beza naiz borrero bat
urka nazala gaur bertan,
ez dan gauzarik baldiñ badago
Arranz-illun-en kantetan.

R. Arranz-illun

El Cántabro, 1893-VII-29.

Zeberioko On Jose Maria zanari

Alde egin dezu Tolosatikan,
On Jose Mari maitia,
entzun nai ezik Fuero Santuben
agoni triste-tristia;
baldin zabalik billa badezu
zeruetako atia,
betikotasun guzi-guziyan
antxe gozatu zaitia.

Tolosan, Agoztubaren 5-an.

Ramos Azkarate-koak

El Cántabro, 1893-VIII-5

Jose Maria Zeberio Barandiaran jauna 1893-VIII-3-an il zan, berrogei ta amazazpi urterekin.

Bikast-en¹ pastelkeriak

Pastela noizbait agertzen zana
ez al zenekizun, Joakiñ?
Madridentzuk zer egin zenuen
agudo zan emen jakiñ:
goimallaraño igo zindezen
guk lagundu botuekin...
Pagu ederra eman diguzu
berriz joateko zurekin.

Gure oitura, lege zar eta
Fuero maiteen defentsan
zuk, bai, egingo al zenuena,
etzenuen ala esan?
Baña fueruak defendituta
turroirik espero etzan...
Argatik bota Gamazo bati
Naparra ondatu zezan.

Gure anaiak dira naparrak,
gure anaia maiteak,
eta zuk bota orien kontra
onda ditezen tristeak?
Badegu zuri zer esker eman
fueruen maitatzalleak,
azaña ori gogoango du
Euskal Erriko jendeak.

Errudun² zera, baña errua
ez da zurea guzia;
zure lagunak lendabiziko
eregin dute azia.
Zein da legedun azkarrak diran
ezetz konpondu pazia?
Karlistak baietz argitaratu
orien pastelkeria?

Beiñepin ez da pastel makala
orain konpondu dutena:
Probintziako agintariak
eman zutela ordena.
Zergatik, beraz, beste emengo
diputaduak bezela,
kontrara bota bagetanikan
ixilik egon etzera?

Cánovas batek... ez al daukazki
oiek apropos jarrita,
bere fabore ipiñitzeko
emengo jende karlista?
Baña gutarrak alde batera
pastelgilleak utzita,
esango dute: «Ez gatoz berriz,
otsegitea alperrik da».

Joan Dek-Au

El Cántabro, 1893-VIII-15

Aldizkari onek *araña* esaten du 3/7 lerroan. *Azaña* idatzi degu, ala bear dualakoan.

¹ *Mestizo*. (*El Cántabro*-ren oarra)

² *Culpable*. (Id.)

D. J. Sánchez Toca ta Toca,
o zaldun maitagarriya,
zu zera noski, zuk diozunez,
katoliko txit garbiya;
Fuero santubak defenditzeko
umant bat izugarriya,
nundikan sortu zaiguben guri
martiri kaltegarriya!

Katolikua izango zera...
bañan zu Fuero-zalia...
siñistu leike, ez baziñake
turroi gozoen jalia;
zeradela zu Cánovas batek
zakuban zauzkan alia
dago esaten Naparruari
eman ziñiyon bolia.

Urrengo arte
El Cántabro, 1893-VIII-19

**Aurtengo San Ignazioetan
Azpeitian iduki nuen pentsamentuba
doña Isabelekin.**

Zertan zabilta, Isabelatxo,
zertan zabilta ordea,
baldin ta baldin Euskal Erriya
ez baldin bada zurea?
Baziña ere Eleizgarai bat
dan beziñ Fuero-zalia,
onek bai, bañan guk ezin esan
zuri «Señora guria».

Ez daukagu, ez, emen aztuba
zure anaiak egiña,
iya itoan jarri gaituben
zori gaiztoko zotiña.
Ez al diguzu bada entzuten,
Doña Isabel, au miña!,
ez gendukela miñik izango
Doña Blanka bat baziña?

Blanka izena dubelako ta
berez dalako txuriya,
beti esango diyogu oni:
«Gure Señora aundiya!».
Errespetatzen digubelako
lege zar santu garbiya,
beti ojuka ementxe dauka
Aitorren Euskal Erriya.

R. A.

El Cántabro, 1893-VIII-19

Zer da indarra?... Elkartasuna

Zer euskaldun da? Zer español da?
Zer gizona da ordea,
gure Fuerua maite ez duen
Ama Euskeran semea?
Ara nun dagon Naparrua bat
erakutsitzen bidea,
nola bear dan gaur defenditu
daukagun eskubidea.

Bai! Bai! Desonra aundiya dala
ez dago ontan dudarik,
ez gintezke gu gauden bezela
iñola egon ixillik;
baldin badegu Roncesvalles-ko
gure aitonen odolik,...
Gamazok ez du emen egingo
berak nai duen jokurik.

Ara nun dagon negar egiñaz
eriyosuan Araba,
Gipuzkoari ta Bizkaiari
gogotik joaz aldaba;
entzungor egiñ nai izatia
gure desonra ez al da,
Gamazo bati lajatutzia
emen tratatzen garranga?

Ez degu bear eskupetarik,
ez eta ere kañoirik,
ez da eskatzen Fuero-zalien
elkartasuna besterik;
jarri gaitezen Laurok-batian
gorputz sendo bat egiñik,
gure Fueruak laxter ikusi
ditzagun bizi-bizirik.

Ala izan dedilla.

El Cántabro, 1893-VIII-26

Soñu gaiztoa jotzen dutela
zuretzat nere bertsuak,
zer pozaz nagon diyozunian
dirala egiazkuak!
Goitia ta zu, zu ta Goitia
aserre txantxetakuak...
Zeñek ez esan etzeratela
fuerista urrutikuak?

Katolikuen elkartasuna
galdutzen ari gerala!!
Pekiñ-en laxter esango dute
Nuncio-ren bat zerala.
Ez al dakizu Ama Eleizan
seme goienak gerala?
Karlista ezin izan leikela
katolikua ez bada?

Ez al ditugu ezagututzen
Cánovas eta Sagasta
nola dabilzan buru-belarri
galdutzen gure arraza?
Oriyen alde dan euskaldunak
onela aitortu beza:
«Fuegoengatik ganbela gabe
ez dek bizitzen erreza».

Gure banderan sarturik daude
Jaungoikua ta *Fuerua*,
Sort-erriya-ren ondorenian
Errege egiazkua;
Alfontso zortzigarren aundiyan
ber-beran biyotzekua,
nori beria eman nai diyon
Aitatxo bedeinkatua.

Larogei urte joan diranetan
ez al dakizu ordia
nola ondatu diguten beltzak
Aitorren Euskal Erria?
Bazerade zu, diyozun gisan,
Cánovas baten alia,
zerade gure borraruaren
guzizko laguntzallia.

Gure aitonen odolekuak
dirade gaurko karlistak,
Oktabiano eta Errondal
autsi zituzten fueristak;
deitzen badigu gaur edo bigar
Jesu-Kristoren Eleizak,
ementxen gaude defenditzeko
naiz galdu gure bizitzak.

Katolikuen elkartasuna
nola nai dezu ikusi?
Nocedal ta zu izan zaitezten
barruti biren nagusi?
Egiputzua bere jaun gabe
aixa nai dezute utzi,
Euskal Erriyen borruaren
mendean gaitezen bizi!

Siñisturikan Pidal añako
katoliko bat zerala,
errespetatzen zaitugu bada
bañan... gizona bezela;
nola asarre diraden beti
Fueruak eta ganbela,
ondo dakizu karlistak beste
Fuego-zalerik ez dala¹.

Egiya samiñ

La verdad amarga

El Cántabro, 1893-IX-2.

¹ Fuego oso-osuak zaliak. (*El Cántabro*-ren oarra).

Kalerik kale pregoia jotzen
zabiltzan pregonariya,
esan zadazu: zeñek pagatzen
dizu lan oixen sariya?
Itz-ontzi batek guri bota nai
diguen billaukeriya
erririk erri zabalduzkeko
zu al zauzkate jarriya?

Tratalariak baldin badira
zarabilztenak orretan,
gure betiko leialtasuna
loi-estaltzeko ustetan,
esan zaiezu: dala bai paper,
zillar edo naiz urretan,
gu erosteko adiña diru
ez dala sortu beltzetan¹.

Ber-bera
El Cántabro, 1893-IX-2

¹ Esan nai du liberal mota guzia. (*El Cántabro*-ren oarra).

Beñere gauz onik ez gaizki dabillanak

Asko da pixkatxo bat
pentsatzen jartzia,
eta etorkizunaz
gogoratutzia,
gorrotatzeko emen
daukagun *pestia*,
Euskal Erri gaxoen
eriyotz tristia.

Gure Ama Euskera
nai dute galtzia,
eta baso-erriyak
erdal biurtzia;
Fueroen arrastuak
lurperatutzia,
sort-erri apañena
larrugorritzia.

Nork ukatu lezake
ez dala *pestia*
Cánovas ta Sagastan
mende bizitzia?
Oien izenak emen
guk aitatzia
da gure eriyotza
gure eskatzia.

«Bizi bitez Fueruak!»
badiyegu deitzen,
Lonjinos baten gisan
dira abiyatzen.
Gurea ez danikan
al degu eskatzen?
Zertan, zertan orrela
gaituzte tratatzen?

Bata dan bezin beltza
nola dan bestia,
bururatu zitzaien
Laurak-bat iltzia;
len ostu baziguten
genuben dotia,
gaur lotu nai digute
betiko katia.

Begiratu Bilbaon
eta Bitoriyan,
begiratu dezagun
ondo Donostiyan,
Doña Kristina bera
dagan uriyan...
Inozentiak iltzen
ta... etoikeriyan!!

Lege guztiz paltsua
ekarri digute,
libertade txit santu
santu aien truke.
Toca-k eta Goitiak
au balekitek²,
ikarakin tisiko
sartuko lirake.

Oni deitzen badiye
gaur libertadia,
beaz da Isla, Matxin-
barrenan bidia,
maite dutelakoan
Gamazo-n kofria,
berenarekin irten
zaiote jendia.

A! A! Calbeton Blanchon,
pizti txar legorra,
tunika jantzi eta
jo zazu danborra,
esanaz: «Nun da nere
partidu dollorra,
Euskal Erri guziyen
lotsa ta desonra?».

Euskal txar bat besterik
nola etzeraden,
partidu difuntuba
zuk galdu zenuben;
mundurako bakarrik
nola ez geraden,
requien, bai!, *requien-*
cant in pace, amen

R. I. P.
Amen

El Cántabro, 1893-IX-9.

¹ Udara artan matxinada-moduko bat izana zan Donostian, Gernikako arbola jotzen etzutelako; eta bai eriotzen bat edo beste gertatu ere.

² Léase el capítulo 2º título 29 del Fuero. (*El Cántabro*-ren oarra.)

³ Latiñezko esaldi au onela da berez: *Requiescant in pace*.

Sagastari

Don Tranpas pin-pun masoi Sa
gasta, Ainbeste gizon etorritzia
etzeunden bizirola lasa, kankallu baten guardiyan,
kristal autsiyak konpondu gabe orrelakorik ez da ikusi
joan ziñaneko eskapa; oraindik Euskal Erriyan;
lenaz gañera istoriyantzatz zinduzelako okerrak egiñ
badezu borroi galanta, Donostiyako urian,
kanta dezazun: «Ni naiz, bai, ni irten nai ezik joan zerade zu
naiz kontentuz presondegiyan.
kobarde guziyen Aita».

Gizon-iltzalle baten gisara
joan zera Donostiyatik,
«Illko naute ni!» –a zer kaltia!–
ezin kendubaz burutik.
Zuk begiratu ziguzunian
Tolosan leio-zulotik,
zirudizuben orduban irten
ziñala sepulturatik.

Nork ikusi du oraiñ artian
Sagasta gizaraxua,
preso ezpada nai ez dubela
eman aurrera pausua?
Bera esaten abiya zaigu:
«Au libertade paltsua!
Au ikusitzen ez dubena da
itxuba edo gaiztua».

Ankak grilluz ta eskubak sokaz
lotzia falta zenuben,
siñistatzeko zere denboran
zer txarra izan zeraden;
sei bat sententzi¹ eta bi milloi
aundi-aundiyen ondoren,
urkamendira zeramaztela
denok pentsatu genuben.

Probatu dezu zeñ aldetara
dagoan emen balantza,
Calbetón eta Matxinbarrenak
egin nai arren arrantza;
Praxku Goitia, Bartolo, Toka,
denak alferrik dabilta,
ez dute ill da ez dute illko
Fuero-zalien arraza.

R. Arrantz-illun

El Cántabro, 1893-IX-16.

Leen esan bezela, odola ixuria zan udara artan Donostian, Madrilleko gobernu-burua Sagasta zala.

¹ Sei bider illtzeko sententziatuba. (*El Cántabro*-ren oarra.)

Gure Diputadu On Eusebio Zubizarreta eta Olabarria jaunari

O Zubizarretako
seme guztiz fiña!
O mantxikan gabeko
karlista berdiña!
Zuk ikusi zenuben
gure Erregiña,
lajatu zubenian
mundu txit samiña¹.
*Eskubetan jarririk
gurutze santuba,
txor-zuloratu zuten
Ama aingeruba.*

Amatxori jartzia
gurutze santuba
da erakutsitzia
nun dagon zeruba.
Zabiltza maitatubaz
bide seguruba,
utzirik ernegatzen
jende turroitsuba.
*Ama galdu ta gero
Aitaren agintzak
samiñak izan ziran
gure etsaientzat.*

Erregek aginduba
egiñ ziguzuben.
Ameztoi ta Goitia...
miñez nola dauden!
Don Tomasen *Primua*²
zu nola zeraden,
bitoriyakín sartu
ziñaden Madrilén.
*Cerralbo-ko artzaian
bildotx txit umilla*³
*portatzen zeralako
oraiñ esker milla.*

Agoniyan badaude
gure lege zarrak,
diz-diz egiten dute
karlisten izarrak.
Luzatuko dizkatzu
Jermani bizarrak,
esanaz: «Ez dubela
baliyo indarrak.
*Obe dala Erniyon
guziyok illtzia,
ez Tocatarran mende
emen bizitzia*».⁴

R. A.

El Cántabro, 1893-IX-23.

¹ Doña Margarita, Karlos VII-ren leen emaztea, 1893-I-29-an il zan.

² *Heredero del inmortal Zumalacarregui*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

³ Cerralbo-ko Markesa, Enrike Agilera Ganboa alegia, karlisten buru zan urte aietan.

⁴ Erromatarrak eta euskaldunak burrukatu ziran mendia, alegia.

Billa-frankan bizi dan D. Patxikotxo Goitia eta osto-beltzari

Burutik egiñ al zaizu zuri,
Don Patxikotxo Goitia,
Karlosengatik zuk esateko
«Fueroen galdutzallia»?
Ez al dakizu Don Karlos dala
guzizko gordetzallia,
ta beltz-arraza nola dan beti
euskeran ondatzallia?

Milla zortzi eun eta ogeian
ez al dakizu, Patxiko,
zuen ekaitza nola sartu zan
Euskal Erriyak galtzeko¹?
Ez al dakizu ondorenia
zenbatxe milla ostiko
eman dituzten zure lagunak
lege santubak illtzeko?

Ez al dakizu gure Fuerauk
dirala katolikuak?
Ez ditubela beretzako nai
zu zeran bezelakuak?
Ez al dakizu Fuero Santubak
ta Errege bidezkuak
izan dirala beti, bai, beti
anaia biyotzekuak?

Masoi xamarra bazerade zu
etzera Fuero-zalia,
bañan nundikan, maite badezu
paltsoen libertadia?
Karlita txarrak elbarrituta
bazaude... gaitzak erria,
ez aserratu guk esan arren
Sánchez Silva-ren semia.

Karlistengatik zuk esateko
Fueroen etsai gerala,
badirudizu *Patrio*-rekin
elkar artuta zaudela;
Egiputzua salbatutzeko
zuek besterik ez dala!
Zer medikubak lan ortarako
Goitia eta Lasala!

Zuek Cánovas eta Sagasta-n
alderdikuak izanta,
zer dakartzute euskaldunentzat
ez bada negar galanta?
Probentziyakin erriyetako
kutxa santuben billaka
bazabilltzate porrot-bidian
tiro paltsuak tiraka?

Zein errege ta zein erregiñek
juratu ditu Fueruak?
Azkar erantzun, Praxku Goitia:
errege txantxetakuak?
Pasa ditugu padezitubaz
larogei urte osuak...
Zuek, bai, zuek ill dituzute
gure lege zar gaxuak.

Juraturikan daukazkilako
euskaldun lege santuak,
gerade eta izango gera
Karlosen banderakuak;
Nocedal zer dan igarri ziyon
printzipe katolikuak
autsiko ditu, bañan denboraz,
liberal gezurrezkuak.

R. Arranz-illun

El Cántabro, 1893-IX-23.

¹ *Los Gobiernos liberales han sido siempre enemigos de los Fueros. En su segunda época o sea el año 1820, decretó para este País el papel sellado, contribuciones, aduanas, quintas, etc., aboliendo por completo nuestro sistema foral. No se llevó a efecto esta ley inicua gracias a los verdaderos Fueristas que se defendieron haciendo uso del derecho de rechazar la fuerza con la fuerza, consignado en el capítulo 2º del título 29 de los Fueros, como lo han hecho también con posterioridad varias veces. Los pocos liberales que había aquí entonces se pusieron, como están los de ahora, en favor del Gobierno central. (El Cántabro-ren oarra.)*

Beltzen mendian
Gaztelaniyan beartsu batzuek
zer gaizki bizi diraden

Ogeina duro bai omen daude
Gaztelaniyan etxiak,
Euskal Erriyan usatzen diran
ez bezelako klasiak;
arkitetuak lotan zeudela
aitxur utsakiñ altxiak,
subaren bildur gabetanikan
beren denbora pasiak.

Bizi diranak euteratikan,
orobat ospeletikan,
ez omen dute egunsentiyan
ikusten egualdirikan;
nola ez duten kandelarikan,
aiñ gutxi krisallurikan,
buruz beeraka noski irteten
dirade zulotatikan.

Ez argiñikan, ez arotzikan
beiñ bat ikusi gabiak,
bañan askotan buziñarekiñ
dakiten doratzalliak;
errementari, ojalatero
ta igeltsero jendiak
omen dauzkate leku aietan
paper guziyak erriak.

Ez dakitela zer dan aspua,
ez eta zer dan krispiya,
su-burnirikan, zartagirikan
eta... nun burrunzaliya?
Burruntzi ordeze usatzen dute
labana izugarriya,
arraï-barrilla da aientzako
mundu bat berri-berriya.

Tella bearrik ez omen dauke,
ez eta solaidurikan,
bañan bai bian lokatza eta
itute asko goitikan;
ez tximinirik, ez sukalderik,
ez alkoba ta salikan...
Ez dira beaz mundu ontako
linbo batzubek baizikan.

Muskar ta suge, zomorro, kilker,
sator ta beste piztiyak,
ostatuz antxe omen dauzkate
etxe barruban guztiyak;
elkarrekin jan (badutenian),
zer bizi-modu guriyak
ekarri dizten liberalkeri
guzizko nazkagarriyak!

Oyikan gabe larrugorriyan
daukate erdal jendia,
larruba kentzen asi zaiote
aurten Gamazo belia;
larrugorriyan jarri bañan len
Laurak-bat pare gabia,
deitu dezagun: «Ill dedilla, bai,
Sagastan libertadia!».

Osoro galdu bañan lenago
Laurak-bat dontsu-dontsuba,
ekarri zazu, Jainko maitia,
Don Karlos bedeinkatuba,
erakustera Sort-erriyari
emengo bizi-moduba,
esan dezaten danak batian:
«Au da munduko zeruba!».

R. A

El Cántabro, 1893-IX-30

Astigarragako sagar-jotzalliak bazekitek elkarren berri

Patxikotxo Goitia
eta Sánchez Toca
txantxetan ari ziran
elkarri tiroka;
nola jardun ziraden
Fueroaren kontra,
Goitia batez ere
guri ostikoka,
biyak gelditu dira
betiko kojoka.

Dubende biren gisan
zomorro-zomorro,
batak tori ta tati,
bestiak to... ta... to...
Ez baldin badakite
tranpiyan obeto,
nola ez geran bizi
berak bezin tonto,
botuetan egingo
dute biyak poto.

Toca-n suspiriyuak,
Goitian marrubak!
Ziruditen su artu
zubela mundubak.
Oiek aitatzeakin
Lege Zar santubak,
ezagun zan zeudela
lendandik oitubak,
Pilatosen gisara
garbitzen eskubak.

Izandu ez ditezen
beti berritsubak,
San Pedrotan ixiltzen
dirade kukubak;
Goitian sermoi eta
Toca-n eskridubak
kukubarekin nola
zeuden kutsutubak,
etorkizunangatik
daude mututubak.

Ainbeste kulpa batak
besteai emanta,
aitzenik zein izan da
biyetan umanta¹?
Alferrik ibillirik
trinpi eta tranpa,
bata itzuli joan da,
bestia eskapa,
Sagastaren moduban
daukatela anka.

Ernai-ernai bitzitu
gaitezen karlistak,
ez bata ta bestia
ez dira fueristak;
oriyen mingaña ta
oriyen biyotzak
ez dute ukatutzen
ez dirala beltzak;
euskara salbatzeko
a zer aberatsak!

R. A. eta O

El Cántabro, 1893-IX-30

¹ *Héroe*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

**Nere Aita P. J. P. eta F.
maitagarriyai**

Zer ikusteko ote nago ni,
Jaungoiko maite-maitia,
eman baniyen gure etsaiari
oñazez dauden golpia?
Fuero-zalia naizelakoan
lotzen baditet katia,
zer pozarekin deituko detan:
«Biba intrigo jentia!».

O, nere Aita maitagarriyak,
ez dute bear pentsatu,
eman dituzten pausoengatik
banaizenikan izutu;
ez dezatela nere kontrara
letradu beltzik agertu,
beok daukaten purutasuna
ez dediñ oso mantxatu.

Aziyerarik ez degubenak
errez gerade galdutzen,
bear ez detan lekubetara
ote naiz bada sartutzen?
Banaute ere merezi gabe
txit gogor kastigatutzen,
Jesus maitiak erakusten dit
etsai guztiyai barkatzen.

Aurretik esan detan bezela
paltatu badet ezertan,
ez al daukate konfiantzarik
Mendizabalen dotetan?
Sorabillako suiak txit ondo
baldin badaki legetan,
ikusiko da Sardá Salvany
nik alde nola daukatan.

Bai, pekatu da liberalkeriya.

Auxe zan, leen ere esan bezela, Felix Sardá Salvany-ren liburu baten izenburua: *El liberalismo es pecado*.

El Cántabro, 1893-X-7.

Liberalkeri madarikatubaren aitzena edo agoniya

A, libertade liberalkeri
pobrien presondegiya,
sort-erri dena gosiak illtzen
daukazu animaliya!
Zeradelarik txit traidoria
zera txit nazkagarriya,
zera zurea ez dan gauzaren
arrapatzalle aundiya.

Nola etzera bada izango
pobrien presondegiya,
baldin zuk kendu badiozkatzu
fedia eta ogiya?
Bazerade zu, zeran bezela,
gizondiyaren etsaya?
Zertan ill dezu, ill dezun gisan,
Bartzelonako anaya?

Ez al zerade zu ibillitu
Pallás-en¹ gisa tiroka,
gebiltzalako bear bezela
«¡*Vivan los Fueros!*» ojuka.
Zuk gizonak ill eta zu libre,
biziyak preso artuta...
Au anarkiya ez baldin bada
gaude burutik galduta.

Zuk galdu edo saldu zenuben
Colón-en Mundu Berriya,
nun daukazu gaur ainbeste urre
ekarritako tokiya?
Zertarako zuk ote daukazu
Habana miragarriya?
Gizendutzeko zuen arteko
gizon txar jokulariya?

Ainbeste gauza Elizarenak
bide txarrian salduta,
osoro merke zedorrentzako
ez al dauzkatzu ostuta?
Errukitsuen etxeak eta
ospitalairi kenduta,
zenbat ontasun erri gaxuai
dauzkatzu arrapatuta?

Amazazpi bat urte oietan
zorrikan ez daukatela,
pagatu dute Euskal Erriyak
merezi ez dezubela;
beti gosiak nola daukazu
Candelas zanan sakela,
ezetz ukatu mundu ontatik
bestera bazuazela?

Berreun milloi bear dirala
korritubantzat urtero!
Ori gañera urre garbieran,
eta urrea nun dago?
Rochil-enian, anguanian,
saltzeko garestiyago,
zer gerade gu Jesus ill zuten
mendian jarri ta gero?

Orañ Gamazo-k nai ditubenak
tiroka bear kobratu,
dituzulako Españiyaren
bazter guztiyak nekatu;
dituzulako tragatu edo
dituzulako ondatu,
denbora asko bañan lenago
bear dituzu pagatu.

Zeradelako mikrobiyo bat
guziyen galdutzallia,
zure kontrara altxatu dira
aberatsa ta pobria;
kontra daukazu tratalaria,
bai ere fabrikantia,
daukazu kontra ardozale ta
nun-naiko aitxur-landia.

Eta aitzenik: nola daukazu
Laurak-bat maitagarriya?
Esanaz: «Nik, nik jo bear dizut
agoni lotsagarriya».
Moruak burla egiten dizun
guzizko lapurreriya,
an daukazu zai Luzbeltz gaiztoa
zabaltzen ate gorriya.

R. A.

El Cántabro, 1893-X-7

¹ Pallás anarkistak Martínez Campos jenerala il nai izan zuan. Preso artu eta Barzelonan afusillatu zuten.

Sail ontako sei bertso beste aldizkari batean ere agertu ziran. Tolosako Manuel Urreta zanak jasota zeuzkan, aldizkariaren izenik eta egunik apuntatu gabe. Bertso oiek 1, 2, 5, 9 eta 10-garrena dira. Eta beste bertso berri bat.

Aldaketak: 1/1: O «libertade» liberalkeri; 1/4: daukazu zatar pixtiya; 1/5: zera-delako azpi-lanean; 1/6: guztizko kaltegarriya; 2/5: zuk galdu edo saldu zenuben; 2/6: Kolon'en Mundu-Berriya; 2/7: nola daukazu ainbeste ondasun: 2/8: izandutako tokiya?; 5/5: Errukitsuen etxean eta; 5/6: zauri-etxeai kenduta; 9/3: zure kaltean jasoko dira; 9/5: aurka daukazu langille gizon; 9/6: baita oia-nagusia; 9/7: daukazu aurka alegiñean; 10/2: euskaldun maitagarriya; 10/5: guztiak ziñu egiten dizun; 10/7: an daukak bai zai Luzbeltz gaiztoa.

Eta bertso berri au ere bai:

Gurutzekoak nola diraden
euskeran libertadiak
eta saldubak dauzkatelarik
Judas paltsoen semiak...
denbora gutxi barru kantatu
baietz Euskaldun-Erriak:
«Don Karlosekin gaude gozatzen
Lege Zar tranpa bagiak.

**Aitzen-naia edo testamentuba
nere ongille aundiyenaren
alderako**

O, nere Jaungoikoa,
Aita betikoa!
Oraiñtxe naiz, oraiñtxe,
zori onekoa!
Arkitzen naizelako
burutik sanua,
aitzen-nai guzizko bat
egitera nua,
txit lasai bizi dediñ
jende intrigua.

Katolikua naiz ta
apostolikua,
ez naiz nocedaltarra,
bai erromanua.
Bizi bedi euskara,
bai ere Fuerua,
bizi bedi Errege
bañan... bidezkoa...
traidoriak lajatzten
dakiñ alakua.

Euskaldun esaerak
kantatzen dit neri:
*bi argi ipintzeko
beti etsaiari.*
Dagokiyon bezela
gure dotriñari,
zabaldu nai nituzke
fortunak txit garbi,
esanaz zer tokatzen
zaion bakoitzari.

Eun baserri eder,
bere lur ta guzi
Azkoitiko Aitari
nai dizkiyot utzi.
Pataten osto gabe
ezin badu etsi,
Tolosakua izan
dedilla nagusi,
amarrenak zer diran
dezan erakutsi.

Erri bat osua ta
lau milla pagadi
lajatutzen dizkiyot
Errezillkoari.
Aralarren baditut
ogei milla ardi,
eman Amezketako
nere Aitatxori,
gazura edan eta
jarri dediñ guri.

Diru garbiyan dauzkat
eun milla duro,
oiek ere beontzat
dirade izango.
Bañan... kontsejutxo bat
diyotet emango:
Sagasta-k bi milloiak
diyozkate jango,
Nocedal diputadu
bazaiote joango.

Beste txirri-mirri ta
gañerako gauzak
utzitzen dizkiyotet
etorkizunantzat.
Ez det ezer lajatzten
gure Kausarentzat,
zergatik aberatsa
dagola deritzat,
Jaungoikoa daukala
bere banderatzat.

Arrezkeroz ikasi
baldin badu *partir*,
gauzen buru jarritzen,
diyotet kir, kir, kir.
Poz atsegiñagorik
ez da gaur nerekin,
peleatzia gogor
Fuero-etsaiakin,
naiz arrazoi izan ta
presondegiyan ill.

R. A.

El Cántabro, 1893-X-21

Bere ondarea, eta ez nolanaikoa, *Azkoitiko Aitari* uzten dio Ramos Azkarak-tek; eta bai *Errezillkoari* eta *Amezketako nere Aitatxori* ere. Baiña bere jaiote-rikkoa aaztu gabe: «Tolosakua izan dedilla nagusi». Itzaurrean esan degu jaun auek nor diran: erri oietako erretoreak, Ramos auzitara eraman eta galtzaille atera ziranak.

Fuerista izatekotan bearko izan karlista

Biyotza lorez jantzita,
osoro nago etsita,
naizelarik karlista,
egiyazko fuerista,
dantzatu nezatekela
Nocedal banintz bezela.

Ez det nai izan Nocedal
naiz ari jan ta jan ta jan.
Euskal jaio ta azi,
euskaldun nai det bizi,
euskeraz nai nuke're ill,
naiz intriguak ler egin.

Esan niyela ganbela
dala oriyen bandera!
Ni beziñ gaiztorikan,
ez dala *motin*-ikan,
omen diyote jendiak:
«Intrigo turroi-zaliak!».

Ez esan ez dan gauzikan,
ez det *motin*-en antzikan.
Nik ez det galdu nairik
iñortxoren onrarik,
baizikan diyot beti nik
ez dutela nai Fuerorik.

Beon kargu ta lanetan
ez naiz sartutzen ezertan.
Beon aunditasuna,
beon purutasuna
dakitan errespetatzen
ez diratela ukatzen?

Bakar-bakarrik Fuerotan
ekiten diyet askotan.
Ta... ez nago damutan
kantatuba benetan
dirala Fuero-etsaiak
Nocedal-tarren artzaiak.

Alaxe nago gaur ere
Don Tirso zaldunan alde.
Don Karlos izan gabe
lege zarrak nun daude?
Barkatu bitet mesedez,
beokiñ beintzat iñun ez.

Jaungoiko Jauna bakarrik,
ez al da bear besterik?
Ez da bear Fuerorik?
Ez eta Sort-erririk?
Ez dute naiko errege,
erregiñakin badaude...¹

Kantatuzeko nor geran
laurak dauzkagu banderan;
beok eta Nocedal
bizi bitez erderan,
dadukatela aukeran
gozo-gozoa ganbelan.

Gure aitonen modura
juan nai det beste mundura:
begiraka zerura,
kantatzen lengo ura:
«Izatekotan fuerista
bearko izan karlista».

R. A.

El Cántabro, 1893-X-28

¹ Intrigoak-edo, integristak alegia, «Jaungoiko Jauna bakarrik» bear zala zioten. Ramos Azkaratek. berriz, «laurak dauzkagu banderan» esaten die: Jaungoikoa, Sorterria, Fueroak eta Errege.

Karlista ez dan guztiya beltza da

Gerra, gerra itzetan,
kanta ta letretan,
gerra, gerra, bai, beltzai,
gerra botuetan.
Gerra nocedaltarrai,
baña txit benetan;
len karlistak ziranak
gaur daude beltzetan,
paltatutzen dutela
Jaunaren legetan.

Oiek baldin badaude
mantxarikan gabe,
askozaz garbiyago
bizi zan Voltaire.
Karlisten familiya
ta beren errege
beltzak omen generala
garbi-garbi diye;
paltsuak dira edo
billatuak daude.

Nork eta oiek esan
bear karlistentzat
aita eta semeak
geradela beltzak!
Au al diye esaten
Jesusen biyotzak:
faltsuak izateko
lagun urkoentzat,
fedia defenditzen
iltzen diranentzat?

Zer uste dute bañan,
zer, nocedaltarrak:
gezurretan iltzia
egiyan indarrak?
Karlosek zitubela
galdu lege zarrak!
Au esaten dakite
beltz petral baldarrak,
estalitziagatik
dauzkaten makarrak.

Zertan izan zerate
karlistak geroztik,
D. Karlosek Fueruak
galdu ezkeroztik?
Famili txit txuriya
galdutziagatik,
nai zenduten jostatu
erregeen gañetik,
arturikan sariya
iñoiz beltzetatik.

Errege bidezkuak
tratu gaiztorikan
nola egiñ zezaken
iñorengatikan?
Ta gerran bukaeran
al zan Fuerorikan,
libertade santuban
puska bat baizikan?
Lapurtu zizkiguten
gutziz aurretikan.

Maroto traidoria
zalako bitartez,
euskal geienak bizi
gerade oñazez.
Egiya da lendandik
ez geundela pozez,
Kadiztik asi ziran
zulatzen arantzez,
ondo asperturikan¹
gaude beltzen gaitzez!

Alfontso zortzigarren
aundiya ezkeru,
errege guztiz onak
izan dira gero.
Aieri eragiña
Benezian dago,
dizkiguna denbora
obeak emango,
palsuen ganbelatik
ez dubena jango.

Gaur gure erregeaz
ernegatutzia
da euskaldun erriyak
beltzai saldutzia.
«Juratu bazituben...»,
ontan dudatzia²
da zeon traidoretza
ezagututzia,
ta *La Voz*-tar guziyak³
tranpan laguntzia.

Askoz obeagoa da
emen sufritzia,
ta Eleizan burubak
errespetatzia,
gure Fuero ederrak
ondo maitatzia,
gure aitona zarrai
begiratutzia,
ez Marotokeriyan
aberastutzia.

R. A.

El Cántabro, 1893-XI-11

¹ *El Cántabro* aldizkarian; *ondo asperturik*. Neurria osatzearen, *ondo asperturikan* idatzi degu.

² Galdetu diyotela nola juratu zituben beren dianagusi izeneko D. Ramon Zavala jaunari, zeñek jakin bear duben txit ondo. (*El Cántabro*-ren oarra.)

³ Donostiako *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikazalea.

Nere primo Amezketakoari

Aurtengo azaroa
dalarikan beltza,
Aralarrek daduka
txuriyaren antza.
Ogei milla ardiyak
galdutzeko kezka...
Martinez lagunari
eman beio giltza,
onek denak airian
etxerako dizka,
bordan larru ta guzi
jaten ez badizka.

Beltzetikan txurira
nintzala etorri!
Beaz ez diyotet nik
zorrikan beoidi.
Zor diyot Monecillo
bezelakoari,
diyot zorra Fueruen
galera txar ari;
zorra diyot gañera
gure kondairari,
eta Euskal Erriyen
errege jaunari.

R.

El Cántabro, 1893-XI-25

Amezketako Primo ori bertako erretorea da. Leen esan degunez, berak eta Azkoiti eta Errezilko erretoreak auzitara eraman zuten Ramos Azkarate, eta au libre atera.

Aurreko sail batean «Don Tomasen *primua*» esaten zion Eusebio Zubizarreta jaunari; eta ori esanez zer adierazi nai zuan onela argitzen zuan oar batean: «*heredero del inmortal Zumalacarregui*». Amezketako erretorea alakotzat artzen du Ramosek, Azkoitiko eta Errezilkoekin batera, aurreko sail batean *aizen-naia edo testamentua* egiñez esaten duan bezela.

Biba gu ta gutarrak

Zergatik daude emengo beltzak
erdaldun legien alde?
Zerengatik lege beltzakin
guztiya daukaten libre.
Zergatik Ama Euskerarekin
bizitzen dira aserre?
Zergatik ezer ez diran oiek
Lege Santubak baleude.

Amazazpi bat urte oietan
zer dira emengo beltzak?
Cánovas eta Sagasta bañan
gaiztuaguak guretzat;
jateko gauza datorrenian
guztiya dute berentzat,
soldaduzka ta paga bearrak
bakarrik karlistarentzat.

Euskal legiak dira libriak
bañan dirade justubak,
gure aitona jakintsu aiek
gurutzetikan artubak;
dira argiyak eta garbiyak,
txit berdin dauden pixubak,
beltzen pauso ta beltzen lan denak
dauzkate kondenatubak.

Justizietan ez dutela nai
izaterikan karlistik!
Eragozpenak txarrak bait dira
oientzat aldamenetik;
zer sartutzen dan, zer irteten dan
erriko kutxa santutik,
numeruetan azaldu arren
oiek jokuba eskutik.

s

Ortikan saltsa, emendik tranpa,
deitubaz *libertadia*...
Beltzak ekarri dute onuntza
Riffeñotarren *pestia*;
berak txit libre izan dezaten
kutxetatikan jatia,
mantenu-truke saldu digute
Euskaldun Erri maitia.

Amairu urte luze aietan
ziranak beti alkate,
karlisten kontra osoro gogor
kantatzen omen dakite;
beñ bear eta beintzat onetan
guzirotan arrazoi dute,
berak zer diran guk esan gabe
berak esaten digute.

Ez da ardura sei eta zortzi
zortzi ta zazpi izanta,
zergatik ondo irabazirik
daukagun koroï galanta;
dantza ditezen Pidal, Nocedal,
Cánovas eta Sagasta,
zortziko auxe Fuero-zaliak
biar diyotegu kanta.

Lauburugatik erromatarrak
ginduzen ala umildu,
euskaragatik godoen mende
ez giñan bada egondu;
fedeagatik arabetarrak
ziran kanpora biraldu,
Fueroengatik gure Don Karlos
jargoira altxako degu.

R. A,

El Cántabro, 1893-XI-25

Laugarren bertsoa onela asten da: «Amazazpi bat urte oietan zer dira emengo beltzak?». Fueroak galdu ziran ezkeroztik, 1876-garrenetik, alegia: 17 erantsi eta 1893 degu, bertso auk argitaratu ziran urtea.

Egunkariaren batean ere agertu ziran bertso auk. Paper-punta batean jaso ditugu. Baiña ez da esaten ez zein egunkari dan, eta ez egunik ere.

Baiña 6 eta 7-garren bertsoak falta ditu; eta besteetan aldaketa auk arkitu ditugu: 2/6: aiñ berdin daude pixubak; 3/4: Frantzikotarren pestia; 4/1: Irurogei bat urte oietan; 4/3: Cánovas eta Gamazo bañan.

Kanta-paper batean ere, karlisten aldeko beste bertso batzuen artean, sail ontako leenengo lau bertsoak azaldu ziran. Aldaketak: 2/6: aiñ berdiñ daude pixubak; 3/4: Frantzikotarren pestia; 4/1: Jaio ziraden eskeroztandik; 4/3: Espartero ta Kanobas bañan.

Donostiako *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian, 1912-II-4-an, sail ontako bost bertso agertu ziran: 1, 2, 3, 4 eta 8-garrena.

Aldaketak: 2/6: aiñ berdin daude pixubak; 3/4: Prantzikotarren pestia; 4/1: Amazazpi bat urte oietan; 4/3: Kanalejas ta Canobas bañan; 8/7: *Fuero*-engatik gure On Jaime.

Intrigo petral, pastelero txar,
pizti beltz arro samiñak,
galtzak soñian dauzkate bañan
geienak dira sorgiñak;
agiri zaizte Cánovas baten
basurdiaren agiñak,
autsi nairikan gure banderan
dontzella dauden dotriñak.

«Gerra purubak» berak diyote
eskribuz eta mingañez,
bañan... diyote beren zakuba
gizendu dediñ turroiez.
Fedeagatik al diye ezer?
Fueroengatik beintzat ez,
naiz gaur ikusi euskalen amak
semeen faltan negarrez.

Euskal Erriko Pallás-tarrakin
tratu gaiztuak egiñez,
masoi-taldea ari dirade
sendotu naian indarrez;
beltzak oieri, oiek beltzari
beren botuak emanaz,
Sardá Salvany-n liburu ona
estali dute makarrez.

Bestela galde Leaburun ta
galde Idiazabalen,
galde nai bada Donostiyan gaur
ta Billabonan zer diyen;
galde, bai, galde Billafrankan, bai,
Isidruk lotsa baduben,
galde Tolosan oien buruba
botikan zertan dabillen.

Ameztoi zanak artuko balu
Leaburuko erriya,
esango luke: «Emen jauntxuak
egiñ ziraten paltsiya!
Nere botuak Goitiarentzat!
Au da, au, nazkagarriya!
Alfer-alferrik ari zerate
egiten torre berriya.

Botuen gisan ekar zazute
Txaramatikan arriya,
ta nere kontu egin dedilla
eliza izugarriya;
txit egiazko katolikuen
Ama adoragarriya,
boto-tratora ez dediñ igo
geiago masoneriya».

Ameztoiko B-tok

Ez diradenak eskribitubaz
joan dan aspaldi onetan,
des-atsegiña zabaldu dute
famili paketsubetan;
gizon aundiyak baldin badira
euskaldun traidorietan,
oien gañeko tradorerikan
ez dago Pallás-tarretan.

Zuen gezurrak, zuen agiñak,
zuen egiñal guztiyak,
badakizute aspalditxotik
daudela baztar utziyak;
Erregerekin karlista denok
gaude gaur bizi-biziyak,
ez eskerrikan zueidi bañan...
Jaungoikuari graziyak.

O. A. R.

El Cántabro, 1893-XII-2

¹ Leen ere esan degunez, Pallás anarkistak Martínez Campos jenerala il nai izan zuan. Preso artu eta Bartzelonan afusillatu zuten.

² Bigarren bertsoak Euskal Erriko amak negarrez daudela esaten du. Maiz samar aitatzen du bidegabekeri ori Tolosako bertso-jartzailleak: aita liberala zuan mutilla libre zala, alegia; karlisten semeak, berriz, soldaduskara joan bear...

**Errifa errial batian,
nocedalkeriyaren errifa,
errial batian!**

Zer dirade, zer, jende maiteak,
zer dira nocedaltarrak?
Ez al dirade anarkist oien
arbol gaiztoan adarrak?
Ez al dirade paltsiyan ere
Judas zan bezin baldarrak?
Gutxi ta txarrak izanagatik
tranposo kaskar-kaskarrak?

Gurekin petral dabiltzan oiek
gerran ziraden epelak;
oker esan det, geienak otzak,
beste banakak ustelak;
zerbaitengatik saltsan dabilzki
zori gaiztoko ganbelak,
noizbait bear ta aurten errifan
agertzen diran pastelak!

Seta txar orren errifa noski
omen da Eguberritan,
milla billete errial banan
loteriyaren legetan;
eun ez beste guztiyak saldu
dirade tertulietan,
beren moduko traidore paltso
Madrillko pastelerotan.

Berreun txartel artu dizkate
masoi Sagastak beretzat.
Pidal santubak beste sei eun
Cánovas okerrarentzat;
Gil Robles eta Orti y Lara-k
eun bakarrak, zeñentzat?
San Castelarri San Itz-jariyo
ganbela-zaliarentzat.

Eun billete gelditu zaitze
ziran guztiyak saltzeko,
Erdal Erriko Azkarateri
esan diyote artzeko';
Erramontxoren akta zikiña
al badu... garbitutzeko,
bere moduban trinpiti tranpan
gezurra defenditzeko.

Billafrankako «ez naiz puruba»
daramakite eltzetat,
gizenegiya dagoalarikan
ez du lan ona beretzat!
Onen azpiyan jarriyagatik
Sánchez Toca bat maiatzat...
Sardá Salvany-n milla liburu
sartuko dizte txarteltzat.

Pidal y Moñ ta Canga-Argüelles
txartelak eteratutzen,
Campión eta Rivas ariko
dirade irakurritzen;
sari petral au Cánovas-eri
baldin bazaio erortzen,
gure Fueroen borrero denak
asiko dira dantzatzen.

Errifatzen joango dirade
Nocedal buru dutela,
esanaz: «Guk, guk egingo degu
aundiyagua pastela;
ez degu ill nai ezerengatik
Margallo zana bezela,
ez bagera gu paltso portatzen,
denok urkatu bestela».

Errifa auxen jokatu da
erregiñaren aurrian,
geldituzteko nai eta nai ez
austríaca-ren mendian;
nola diraden beti turkoak
naiz gerran eta pakian,
oien bearra badago noski
oraiñ Afrika aldian.

Nocedal-tarrak, Nocedal-tarrak,
esan dezute egiya,
bere errege saldu dubenak
salduba dauka Patriya;
traidoreari nola esaten
diyozuten *txit aundiya*,...
nora joaten dan ikusiko da
liberalkeri berriya.

R. A.

El Cántabro, 1893-XII-16

¹ Sei eun eta berrogei ta amar errialian errifatzen da nocedalkeri guztiya. Au pre-
ziyua gauza ona izateko! (*El Cántabro*-ren oarra).

Alanbrian biraldu digute segitzen duben parte au Madrillen 23-an, arratsaldeko 5-tak eta amar minutuetan

Tolosako *Cántabro*-ren Direktore edo zuzendari jaunari: Kunplitu nai det eskeñi niyotena. Ez da oraiñdiokan ordu laurden bat jokatu dala Nocedal-keri farragarriyaren errifa; sariatuba izandu da 799-garren numerua (biyaz utsegin du Castellar-ek). Txartel au azaldu du Zan-Antonio Cánovas legoirik ez duben Castillo-k. Batere sesiyo gabe sekta petral au erori da jauntxo onentzako. Nork esan zenbat biba, zenbat txalo ta zenbaterañoeko poza artu duten beltz guztiyak! Baratzako pikuan doñuban dantzatu dira «Ez naiz puruba eta» Sánchez Toca ez beste guztiyak. Billafranka-ko «eltziak» errifa egiñ bitartean egon bear izan du ler egiteko zoriyan. Eskerrak uztai bat altzairuzkua zeukala gerritikan ederki lotuba; gañerakuan, Pallás-en bomba Lizeokuak bañan criyotza geiago egingo zituben. Kontuba etera besterik ez dago: Sardá Salvany-ren milla liburu barrenen eduki bear ta... nola dijiritu? Sánchez Toca gizarajuak ere sufritu du asko ta asko, eta sufritzen dago, nola pixu aundiyak jaso bear izan dituben,... aurreko besoak eta atzeko anak solaidubari batetik bestera pasatu eta... ezin ateratubaz ostera. Koitaduba! Antsiyaz arkitzen da; sendakiñak eta beste politikuak tratatzen daude zer egin bear diyoten: beso oñak moztu edo... solaidu ta guzi oiera eraman. Pidal eta Moñ, Canga-Argüelles, Campion, Ribas, Gil Robles, Orti y Lara eta beste ganbela-zale guztiyak, Sánchez Asensio-k pianua jo eta Riego-ren imnua kantatu eta beriala,... Erramuntxo Nosedar-ek itzegin diyote modu onetan: «Jaunak: Nik emen dauzkaten lagun *pixka* oietako batek konpondu duben imnua edo kant-ona orain bear degu kantatu, ez meritu aundiyak ditubelako beraren letrak, baizikan jakiteagatik España guztiyak zer *pixti* beltz arruak izandu geran gu. Entzun, bada, arreta aundiyarekin, eta ondorean juzgatuko gaituzte,, (len ezpagaude juzgatubak)». Segituban abiyatu ziraden Noceda-tar *pixtiyak* ondorengo bertso oiek kantatzen.

Intriguan imnua edo kant-ona

agertuba Abendubaren 23-an Madrillan.

Beraren egillea da A-zill-oña Bizkaiakua.

Cánovas-en mende
gaurtik omen gaude!
Len ere ala geunden
errifatu gabe. E!
Cánovas da pizti
arrantzalia,
legorrez igeri
dakin balia,
gu geran bezelako
mau-mauren zalia,
eze eta igarren
tragatzallia.
Okerra dan partez
balitz zuzena,...
au beti litzake
pizti txarrena.

Eguberri jaiak
ditugu alaiak,
gizendu bear gaitu
Cánovas kapoiak. Bai!
Artu dezaguben
beraren salda,
naiz txit aserratu
D. Felix Sarda.
Beltza gaur izatia
pekatuba bada,...
txorakeri oieri
egin algara.
Emen ondo bizi
baldin al bada;
zer izango degu
bestera joanda?

Intrigo guztiyak
gaude ikusiyak
gaudela Jaungoikuak
eskutik utziyak. Bai!
Esan dezatela
traidore txarrak,
Karlosen aldeko
gizon azkarrak.
Turroirik nai ez duben
partidu bakarrak,
bakarrikan nai ditu
lege zar-zarrak.
Lege beltz, nabar ta
zar edo berri,
ganbela guria
galdu ez bedi.

Ainbeste urteetan
euskal erriyetan
ezin genuben gaitzik
egin karlistetan. Eetz!
Len da gero bañan
gogorraguak
daude gaur karlista
euskerazkuak.
Maitatzeko fedia,
bai ere Fueruak,
maitatzeko Patriya
nun alakuak?
Ez dauke saltzeko
an erregia,
dalako guziyen
salbatzallia.

Gastatu diruba,
nekatu buruba,
fueristan ezin illa
au da, au, damuba! Baaai!
Don Tirso daukate
ango buruba,
gu ez bezelako
kristau puruba.
Nola zegon gurekin
eskarmentatuba,
ezagutu ziguben
tranpa-jokuba.
Aiek fiñak dira
aitonetatik,
gu berriz faltsuak
zakubengatik.

Gure deskarguba
dago bukatuba:
oraiñ Afrikarekin
daukagu kontuba¹. Bai!
Nosedar guk nola
degun maisuba,
pastelak egiten
dago oituba;
gu Morerira joan ta
da txit seguruba,
Españiya betiko
desonratuba.
Biba Sagasta ta
biba Cánovas!
Patriyaren kontra
zuekin goaz.

Imno au izandu da guztiz ondo errezibituba eta txit zelebratuba liberal klase guztietan; eta ontan akabatu zan puntziyo errifakoa, eta joan ziran guztiyak bazkaltzera Cánovas-en etxera; eta nola ez dan an sarrerik neretzat, ezin esan nezake zer edo nola izango dan bazkari aundi au.

Abisatuko diyot alanbrian, beste nobedaderik edo gauza berririk jakiten badet. Agur.

Errota berri gorri goiko errotako etxe berrikua

El Cántabro, 1893-XII-23

¹ Melilla aldean gerra zebillen garai artan.

Kantastea

*Gau daukazu esanaz
zere Donostiya,
egiñ nai dizugula
ongi etorriya.*

O Euskaldun Erriyen
izar gidariya!
O gure biyotzeko
Okendo aundiya!
O umant'! O illezkor²
garaitezgarriya³!
O parerik gabeko
itsas-gudariya⁴.

Zenbat, zenbat lezaken
benazko Fediak,
lotsaturik uzteko
Lutero-zaliak!
Mundubak badakizki
zure birtutiak,
dirala eun bider
bentzutezgarriak⁶.

Ondo euskerazkua
da zure biyotza,
dakiyena zer diran
desonra ta lotsa.
Da Fede Santubaren
atsegin ta poza,
da zeruban erdiyan
dagoan arrosa⁵.

Argatikan daukazu
zeruban kantari
biyotz-biyotzetikan
Aita Larramendi,
Txurruka, Bidazabal,
Lezo ta Legazpi;
kantari daukazkitzu
Elkano ta guzi⁷.

Euskaldun egiazko
zar ta gazteriyak
zu ikusteko gaude
gutziz edarriyak.
Egiño dizkitzu, bai!,
zure Kantabriyak
merezi dituzuben
ongi etorriyak.

Bizi diran artian
Ibero mendiyak,
ez dira, ez, aztuko,
ez, euskal gloriyak.
Adieraziko du
zure oroikarriyak⁸,
zein diran Gipuzkoan
ondo mereziyak⁹.

Ramos Azkarate-kuak
El Cántabro, 1893-XII-30

El Cántabro aldizkariaren oarrak dira auek danak:

¹ *Héroe.*

² *Inmortal. Debe entenderse: ill ezkorra.*

³ *Invencible.*

⁴ *Guerrero.*

⁵ *Considerando piadosamente.*

⁶ *Invencibles cien veces.*

⁷ *Piadosamente considerando.*

⁸ *Su monumento.*

⁹ *Beneméritos.*

El Cántabro
(1894)

Nere Aita eta Primo
Azkoitiko, Errez-illko, Tolosako¹
eta Amezketako ongille aundiyenai
(Potajiaren doñuban)

Nintuben ondasunak
nizkaten lajatu,
alaz guztiyaz ere
ez dira kontentu!
Fueroen etsaiakiñ
ez nintzan portatu?
Don Antton kir-kir-kir-ek
ezetz gaur ukatu,
naiz berriz kajatikan
Kristok eskapatu?

O mantxikan gabeko
Aitatxo garbiyak,
Ramon Pontifizien²
martiri aundiyak!
Amezketa, Errez-ill
eta Azkoitiyak,
jaio, bizi, ill ere
nai nuken erriyak,
artu-azi dizkitet
benazko neurriyak.

Lengo testamentuba
nua mudatzera,
nere Aita zekenak
utsik lajatzera;
nua *primo* berriyak
gaurtik lonbratzera,
nua txirri-mirri ta
denak zabaltzera,
nua gauzen burutzat
beste bat jartzera.

Ez det esan bearrik,
naiz katolikua,
ez naiz Araban jaio
nintzan judiyua;
ez naiz ni armiarma
itsas-barrukua,
ni ez naiz gezurretan
firmatutakua,
baizik naiz Fuero-zale
erri ontakua.

Eun baserri eder,
lur beltz eta naste,
Juantxo Azilonantzat
badira bastante;
ta pataten ostuak,
botika ta traste
Enredando jaunari
eman bizaizkate,
aspaldi egin zuten
pastelaren truke³.

Lau milla pagadiyak
zabal-zabalikan,
Duke Mingrana-rentzat
dauzkat utzirikan;
eta erri osua
nere gogotikan
Sánchez Toca-rentzako
dago bertatikan,
ez dezan Goitiakin
egiñ burrukikan.

Aralarren dauzkaten
ogei milla ardi,
ez dizkiyot utzi nai
aiek edozeñi;
Amezketan bizi dan
Martínez bateri,
jan ditzan garizuman
ezur eta mami,
baimena eskatuta
Felipo Praxkuri.

Eun milla duruak
ta txirri-mirriyak
Satrustegi jaunari
eraman erdiyak;
eta Donostiyako
Sanz illunegiyak
jarri ditzan *Fuerista*-n
txit gezur larriyak,
goza ditzala beste
gañeko guztiyak.

Egin ziyolakuan
Fuegoari gerra,
gauzen buru jarritzen
diyotet Eperra;
sumatzen izan arren
jaun au txit azkarra,
partitutzen da kir-kir
dan bezin alperra,
Fuerua saldu zuen
alkate bakarra.

Lotzen banaute tranpan
jende intriguak,
orduban kantatuko
ditugu Fueruak;
maite ote dituben
Karlos Borbonguak,
edo saldu dituzten
paltso emenguak
Maroto-ren seme txar
traidore gaiztuak.

R. A. de O.

El Cántabro, 1894-I-21

¹ Erri auetako erretore jaunak Ramos Azkaraterekin auzitan ibiliak ziran, leen esan degunez. Onek, testamentu moduko bat egiñez, beste bertso batzuk eskeiñi zizkien aiei, *El Cántabro* aldizkari ontan, 1893-XI-25-an. Onako au bigarren testamentua da. «Nere Aita ta Primo» esaten die. Kontuan ar dezagun *Primo* itza zera dala Ramos Azkaratereztat: oiñordeko edo *heredero*.

² Ramón Nocedal, alegia.

³ *Para evitar una protesta contra La Voz de Guipúzcoa hacia el año 1888, cuando aquel periódico publicó un impío artículo acerca del escapulario.* (*El Cántabro*-ren oarra.)

Iparragirre-ko On Jose Mari illezkorrari

(Aizkibelen doñuban)

Zer da bañan gertatzen
gaur Egiputzuan,
Migel Legazpi-koa
jaio zan auzuan,
Urretxu deritzaion
uri txit zintzuan?
Izar bat agertu da
seaska gozuan.

Zer da sartuagatik
gizon bat itxiyan.
ispilluba utziyaz
guri agiriyan?
Zer da arkitutzia
naiz Mundu Berriyan,
bizi nai dubenentzat
eusker a garbiyan?

Da Iparragirre-ko
gure Jose Mari,
diz-diz egiten duben
learande ori!
egiten ote digun
euskaldunai argi,
begiratu besterik
ez dago berari.

Argatik etorri zan
Amerikatikan,
antziñako bandera
erakutsirikan,
koroizugarriya
irabazirikan;
begira zer diyon gaur
arri gañetikan.

Ama Euskerarekiñ
itzak neurritubaz,
zortziko txit ederrak
dabil zabalubaz,
Gernikako Arbola
ernai kantatubaz...
Iparragirre preso
sartzera dijoaz!

«Lenago eroriko
dirade izarrak,
ez erdaldun biurtu
Euskal Erri zarrak;
lenago urak edo
subaren indarrak
galdu beariko ditu
kantauritarrak.

Ibilitzen gaituzte
onera ta ara,
Prantziyako andare
askoren gisara,
batzubetan gora ta
bestietan beera;
bañan gu nola galdu
euskalak bagera?

Ez du nai, ez, euskerak
erdal biurtzia.
baizik seme guziyak
elkarganatzia;
nai du bere kondaira³
benaz maitatzia,
eta etsaiari ortzak
erakutsitzia».

Alfer-alferrik dabill
Llorentekeriya²
bere modura jartzen
Aitorren kabiya:
oraindik ikusiko
da Euskal Erriya,
arkume bat dalarik,
lotsatzen legoya.

Jose Mari aundiyak
egindako lanak,
arren!, kanta ditzagun
euskaldun geranak;
egiten baditugu
beraren esanak,
euskeraz illko dira
euskal erri denak.

Ramos Azkarate-koak

El Cántabro, 1894-I-28, aurretik onela esanez:

«*El día en que en Villarreal de Urrechú se inauguró la estatua que por suscripción pública, a la que contribuyeron también nuestros hermanos que se hallan en Ultramar, se erigió en memoria del bardo euskaro Iparraquirre, tan popular entre los bascongados, nuestro amigo D. Ramos Azcárate cantó esta composición que a continuación insertamos*».

¹ Prototipo. (*El Cántabro*-ren oarra.)

² *Los antifueristas*. (Id.)

³ *Historia*. (Id.)

Au lasaitasuna!

Zer pizti ote dira
jende intriguak,
bota zitubeneko
Karlos Borbonguak?
Ez balirake oiek
ezkerretakuak,
ez ziguben esango
Aita Burgoskuak
dirala fariseo
aien antzekuak.

«Gu bakarrikan gera
mantxikan gabiak».
Ja! Jai! Zuek nundikan
sorreraz garbiak?
«Gu gerade dotriña
onenan jabiak».
Bai, ez baldin balira
Maroto-zaliak,
Cánovas-ek lebitan
dauzkan ojaliak.

«Gu gerade, gu, piñak,
karlistak bastuak».
Ori esaten dute
bakarrik astuak.
«Nocedal-ekin daude
euskaldun Fueruak».
Ori dute sinisten
tonto... nolakuak?
Tonto guziyen tonto,
tonto lapikuak.

«Kristoren Erregetza
ipiñi nai degu».
Ameztoiren botuak
dauzkate testigu.
«Karlosen familiya
nik bear det galdu».
Bai, uste duben aña
jakinduri balu;
lenago daukan gaitzak
eraman biar du.

«Jaungoikua bakarrik
basta degu, basta».
Bai ere bai geiago
laka eta laka.
«Konde artillerua
Olazabal da ta».¹
Egin zutelakuan
Azpeitiyan tranpa,
agoniyan daukate
Erramuntxon akta.

«Kafetero goiena
Cerralbo daukate».
Onen aunditasuna
artuko luteke.
Nosedar nola ez dan
iritxitzen pintxe,
Amezketan artzantzan
jartzia daukate,
ogei milla ardiyak
artu nai badute.

«Batzubek ikusita
Karlosi segitzen,
gure biyotzak penaz
daude erdibitzen».²
Eta zu ikusirik
bi paga kobratzen,
zergatikan ote dan
ez gera nekatzen,
ez dituzubelako
bi leku serbitzen.

«Auzitan omen dabiltz
leal, integruak,
maite ote dituben
Karlosek Fueruak».³
Fueruak balirake
zure gogokuak,
etzinduzke artuko
gaur botikakuak,
boltsillubak gizentzen
diran aldekuak.

Ardiyak erretzeko
makina bat noski
Amezketako Praxkuk
omen du erosi.
Abisatutzen diyot
ango Martinez-i
ez niztela biyentzat
ogei millak utzi,
baizikan berarentzat
azkazal ta guzi.

Mokadurik Praxkuri
ematen badiyo,
artaldiak diyote
egingo adiyο.
Badakit Martinez-ek
dubela baliyo,
janarekin egiten
milla misterioyo,
lengo errot-arriya
galdu ez bazayo.

R. A.

El Cántabro, 1894-II-11

¹ *Versos infames publicados en El Fuerista. (El Cántabro-ren oarra.)*

² *Palabras tomadas del 13º verso de los muy calumniosos publicados por los integristas contra Don Carlos, y esparcidos en todos los pueblos de Guipúzcoa con permiso, según se dice, del Sr. Alcalde de San Sebastián, el año 1889. (Id.)*

³ *Esto se decía en unos versos titulados «Nork esan lezakean!», diseminados también por los integristas con gran profusión y que tendían asimismo a calumniar groseramente a Don Carlos. (Id.)*

Berrio-Ochoa eta bere etsaiak

Bizkaiari nork esan
ez dala baratza,
fedearen aldeko
leku aberatsa?
Sartuba daukalarik
Luzbeltz-ek arantza,
dauka bere Lauburu
donearen antza.

Doagaraia³ onen
bear-gai erraza⁴,
galdutzat gertatzea
izango zan beltza!
Zan adoratutzea
Neron katamotza,
ta galtzea Bizkaia
ederraren lotsa.

O fedetsu doaitsu
Berrio-Otxoa,
Elorriyoko izar
zori-onekoa,
Tonkin-go Apaizpiku¹
biyotz aundikoa,
omenez beterikan
zerura igoa!

Au onela gertatu
bañan lenagotik,
Lekobide jetxiko
zaiote zerutik,
bere ille zuriyak
ditubela zutik,
etsaiaren zuaitza
galtzera zañetik.

Onelako onrarik
al du oraindano
Bizkaiak, altxatzeko
izarretarano?
Bere seme gaiztoak
nai luteke baño...
doatsugin² bat ezin
galdu egundano.

Gezari gaur esaten
diyote gaziya,
gizon ederrenari
dala itsusiya;
fedegatik eman
dubena biziya
da oriyen artean
gaizki ikusiya.

Lapurrai deitzen diye
ondo mereziya⁵,
ta gizon etoiari⁶
guzizko argiya;
urkatzen ari dana
gaur Euskal Erriya
da euskaldun txar oien
bide galgarriya.

Alper-alper-alperrik
dabiltza etsaiak,
ez dirade garaitzen
donegingarriyak⁷;
txit argidotarrari⁸
dizkan zor aundiyak,
pagatuko dizkiyo
bere Sort-erriyak.

Ramos Azkarate-koak
El Cántabro, 1894-III-18

¹ *Obispo.*

² *Beatificado.*

³ *Insigne.*

⁴ *Expediente.*

⁵ *Benemérito.*

⁶ *Traidor.*

⁷ *Canonizables.*

⁸ *Ilustrísimo. (El Cántabro-ren oarrak.)*

Jesu-Kristo gure Jaunak gurutzean esan zituen zazpi itzak

Lendabiziko itza

«Nere Aita, barkatu egiezu ni orrela
tratatzan nautenai, bada ez dakite
zer egiten duten».

Zer ixpilluba jarri ziguben!
Zer ejenploa guretzat,
gorrotoakin elkarrentzako
bizitzen geradenentzat!
Beraren Aita Betikoari
erregututzen... zeñentzat?
Gurutzeturik iltzez josita
zeukaten etsai denentzat!!

Bigarren itza

«Gaur egongo zera nerekin batera
Paradisuan».

Etortzen dana bide txarretik
txit umill leku onera,
Jesusekin bat arkitutzen du
gloriyan bere sarrera.
Emen, bai, emen ikusten degu
lapur onduba ber-bera
nola dagoan Paradisuan
Mesiasekin batera.

Irugarren itza

Ama Santisimari esan zion, San Juan
señalatubaz: «Orra zure semea». Eta
San Juani esan zion, Ama Santisima
señalatubaz: «Orra zure Ama».

Ama guziyen Ama goiena
badegu adoraturtzen,
Amak bezela semeak Ama
baldin badegu maitatzen,
bitarteko bat zintzoagorik
ez degubela billatzen,
dizkigubena zorion denak
zeruetatik biraltzen?

Laugarren itza

«Nere Jaungoikoa, nere Jaungoikoa,
zergatik desanparatu nazu?».

Beraren Aitak nai zutelako
ainbeste sufritutzia,
Jesus maitiak egin nai zuben
Aitaren borondatia;
gure pekatu aundiyengatik,
bildotx txit inozentia,
arkitutzen zan miñ-eriturik
munduban Salbatzallia.

Bostgarren itza
«Edarriak nago».

Etzan bakarrik gorputzarena
edarri ura inondik,
baizik askoren galdu bearra
sentitzen zuben barrendik.
Zekiyelako gure animak
daudela beti bizirik,
nai zubena zan ikusitzia
zeruban gloriz beterik.

Seigarren itza
«Guzia dago kunpliturik».

Bere Aitaren borondatia
egin zubela osoro...
Zeñek ez diyo gurutzeari
beti laztan bat emango?
Zeñek ez dizka Jesukristori
aita-gureak esango,
gañerakuan beñere lasai
ez baldin bada egongo?

Zazpigarren itza
«Nere Aita, zure eskuetan nere Espi-
ritua enkomendatzen det».

Itz au esan ta berialaxen
Jesus maitean begiyak
pazientzirik aundiyenakin
izandu ziran itxiyak;
entzunikan, ai!, zenbat birau ta
blasfemi izugarriyak,
iriki ziyon bere alboa
soldadu lotsagarriyak.

* * *

Eta egiñik etsai aurrean
mirari arrigarriyak,
erakutsirik dotriña santu
guzizko garailariyak,
bedeiñkaturik mundu guztiya
justuban odol garbiyak,
geroz garbiro esaten digu
Kalbariyoko mendiyak
juduak nola diran ta izango
beti desonragarriyak.

Ramos Azkarate-koak
El Cántabro, 1894-III-22
Euskalzale, 1898-IV-7

Gamazoren illeta edo entierroa

bere joaira

edo martxa negargarriyakin

(Iruña-ko Orfeoari donkitua)

Gamazo,
erori zerade oso,
ai, ai!

Zuk Naparrua galdu nai,
naparrak diye: Ja, ja, jai!

Bai, bai!

Zuen legeak
dira erreak,
lotsagabeak,
katibatzeke

euskaldun libre-libreak;
lege zar maitagarriyak
Aitorren seme argiyak
zintzo dauzkate jarriyak,
gutxi ta garbi-garbiyak.

.....

Bai, bai!

Egonagatik
euskalak umill,
ernai daude oraindikan
emen *lau mutill*;

asten badira
indarrakin,

zure moduban zure anaiak

bearko dute ill,

bai, bai!

Naparrak

ez dirade, ez, zabarrak,
ez, ez!

Bañan... bai guztiz azkarrak
kentzeko zuri makarrak,

bai, bai!

Diputadubak
gizon prestubak,
korajetsubak,
gorde dituzte

zintzoro juramentubak;
Laurak-bat Roncesvalles-en,
euskal naparrak Navas-en,
zekiten peleatutzen,
etsai gogorrek garaitzen.

.....

Bai, bai!

Gerretan nola
pakian ala
badakizu Naparrua
portatu dala:
goiendu dute
lege zarra,

esateakin zure aurrean

fueristak dirala,

bai, bai!

Ill zera,
lengo Gamazo etzera,
ez, ez!
Baizik zerade ustela,
Valladolid-ko pastela,
bai, bai!
Ziñan irauli
guztiz elbarri,
txit lotsagarri;
zure illeta
gaude guztiyok kantari;
bele zar kaltegarriya,
pizti txar negargarriya,
ganbela-zale aundiya,
topatu dezu ill-oya.

.....
Bai, bai!
Zaramazkite
ezkerretatik¹,
Españiya guziyaren
gogo aunditik;
deika daukazu
infernutik
zure osaba Ponzio Pilato
su-garren erditik,
bai, bai!

Seguru,
izango zera deabru.
Baietz?
Gamazo, prestatu zaitetz
apaiñdutzeko su-gaitzez,
bai, bai!
Zer mixerian,
tximu-jantziyan,
erdal krispiyan
egongo zeran
Pedro Boteron ontziyan,
betikotasun guztiyan,
infernu gorri-gorriyan,
Sánchez Silva-ren azpiyan,
Lonjinos dala guardiyan!

.....
Bai, bai!
Ai, ai! Gamazo,
ez gera bildur;
badakizu guk Fuerua
zer maite degun,
dakizu nola
ill zaitugun...
Urrengo arte, agur, Gamazo!
Agur, agur, agur!
Agur!

Azkarate-ko Ramos-ek
El Cántabro, 1894-III-25

Bertsoen aurretik, adierazpen au:

«El poeta euskaro D. Ramos Azcarate ha dedicado al Orfeón de Pamplona, con el título de «Entierro de Gamazo», la composición que a continuación publicamos, la cual puede cantarse con la música de la marcha fúnebre que el compositor Don Ramón Crespo dedicó al inmortal Rossini».

¹ *Políticamente hablando. (El Cántabro-ren oarra.)*

Españiako katolikoan bataunari

Amairu mende¹ oraintxen dira
Españi maite-maitian,
bere jabiak jarri zirala
atsegiñ aundiyeñian.
Jarri ziran, bai, bañan zer goian,
bañan zer ordu onian,
Errekaredo fede santura
etorri zitzaieñian!

Nolatan etzan txit aundituko
gure Españi ederra,
jende guziyak ala arturik
sinistamen bat bakarra?
Sinistamen bat elkarkoentzat
jakintsuba ta azkarra,
sinistamen bat zerutik deika
ari zaiguben izarra?

O, Rekaredo, biyotz aundiko
errege maitagarria,
guzierako koroi santuban
lendabiziko jabia!
Zer ontzat artu ziguzuben zuk
Mesiaseren fedia,
gizondiyentzat² bizitu zedin
Españiyako jendia!

Zenbat errege, zenbat erregeñ
guzizko miragarriak
arrezkerotik eman dituan
gure Sort-erri maitiak,
indarrarekin porrokatzeko
etsai guziyen katiak,
eta goientzen zizkigutenak
zeruko libertadiak!

Garaitzallea bentzutubakiñ
osoro anaiaturik,
lege zuzenak erabakitzen
etzan arkitzen dudarik.
Ama Eleiza guziz santari
pake gozo bat emanik,
Sort-erri dana laxter jarri zan
birtutez aberasturik.

O zenbat santu, o zenbat santa
Españiyako lurretik!
Zenbat doaitsu, zenbat jakintsu
izandu diran geroztik!
Zenbat umanta, zenbat illezkor
alderdi guziyetatik!
Zenbat aitona ote dauzkagu
izar guziyen gañetik?

Ote da inñun erreinoren bat
birtutez ederragorik,
España zarra zan bezelako
munduban arrigarririk?
Nola itsasoz ala legorrez
onretan aundiyagorik,
Jaungoikoari ainbeste glori
eman izandu diozkanik?

Bestela galde Covadonga-ri,
galdetu Roncesvalles-en,
galde Otumba-n, galde Lepanto-n,
galde nai bada Navas-en;
galde Sevilla-n, galde Granada-n,
Pavia-z oroi gaitezen...
Juan de Urbietan³ zalduntasunak
nola gaituban altxatzen!

Gurutzeakin arki zituben
Colón-ek mundu berriyak,
fedegatik ziran billatu
urrezko kabi aundiyak.
Fedegatik ziran ekarri
ontasun izugarriyak,
fedearekin zenbat ugarte
geran gu irabaziyak!

Mundu guziya altxa bazuben
Elkano baten gloriyak,
zergatikan ez Urdanetaren
birtute zoragarriyak?
Eta nola ez gure Okendo
beti bentzutezgarriyak,
kantabriatar Españiaren
illezkor onragarriyak?

Gertatu arren jatzarre ura
Luterotarren aldera,
egiñ, bai, nun-nai Trafalgar-eko
umant aundiyen galdera.
An koroitu zan perla ederrez
katolikoan bandera,
an igo ziran Txurrukarekin
onra guziyen gañera.

Fede santubak animaturik
españolaren biyotzak,
fede santubak ausi zituben
arabetarren ekaitzak;
fede santuba txit bearra zan
Flandes-en ere guretzat,
fede onek berak kendu zizkiyon
Bonaparte-ri indartzak.

Lengo gizonez oroitu eta
kondairak daude negarrez,
ikusirikan oraingo asko
au nai det eta ori ez.
Urrena berriz ori nai nuke,
au txarra dala esanez...
Biyen bitartez erreino dena
turmoi lodiyen bildurrez!

Fede batekin arkitzen giñan
guztiz bizitza gozoan,
elkar amatzen, elkar maitatzen
lurreko paradisoan.
Arrotu ziran Luzifertarrak
Kadiz-en zori gaiztoan,
ordu ezkeroz ez dago onik
gure Españi gaxoan.

Mendi guziyak elkar jo arte
ta itsasoak ler egiñ,
Jaungoikoaren etsai oiekiñ
bizi gaitezen desberdiñ.
Gu ertsitubak⁴ arkitu arren
biyotzetikan otsegiñ:
elkarkoaren galtzalleakiñ⁵
nai degubela utsegiñ.

Oroikidatu⁶ dezagun beti
Maiatz illaren zortziya,
erakutsiyaz gure etsaiari
deguben fede biziya.
Bear bada, ill; bañan ez galdu
guraso zarrak utziya,
gero zeruban gozatutzeko
betikotasun guziya.

Azkarate-ko Ramos-ek
El Cántabro, 1894-IV-1.

Aurretik onako argibide au:

«*A continuación publicamos una composición de nuestro amigo Don Ramos Azcarate, la cual fue premiada en Madrid, en las fiestas celebradas por los Monárquico-Traditionalistas de España, con motivo del 13º centenario de la conversión de Recaredo*».

¹Trece siglos. (*El Cántabro*-ren oarra).

²Para la humanidad. (Id.)

³El que apresó en Pavía a Francisco I, Rey de Francia. (*Gloria de Hernani*). (Id.)

⁴Sitiados. (Id.)

⁵Con los enemigos de la sociedad. (Id.)

⁶Conmemorar. (Id.)

On Jose Maria Etxeberria eta Drabasa zanari

Begira egon bear gendukeen
ixpillu miragarria,
gaur ere diz-diz egiñaz zauden
On Jose Etxeberria,
ziñadelako Erregeari
paltsirik egin gabia
zu illagatik dago bizirik
ziyozun leialtadia.

Berastegiko erriyak izan
ote du iñoiz semerik
besteren gauzai begiratzeko
zu bañan zintzoagorik?
Gabanarekin ibilli arren
bai al da baratzgillerik,
nagusiyentzat ainbestetxe on
egin izandu dubanik?

Iñorenakin zintzoa eta
zedorrenakin zer ziñan,
nekazari bat bañan geiago
baldin saiatzen baziñan?
Zartuta ere aitxur-lanian
iñoiz aspertzen etziñan,
zenbat alditan arriturikan
begira egoten giñan!

Zere denboran eteraturik
izerdi izugarriyak,
Asteasura joan ziñaden, ai!,
istera zure begiyak;
nunbait andikan deitzen zizuben
emazte maitagarriyak,
bere onduan desegitera
zure ezur ta mamiyak.

Asteasuko eliz ederrak
ikusit al du oraindik
illaren biyan zure illeta
izan dan bezelakorik?
Erri osoa kanpotarrakin
barrenen ala bildurik,
ez gendukala eseritzeko
guztiyontzako lekurik?

Berrogei eta geiago meza
ziraden zelebratubak,
zure animan sufrajiyuan
guziyak errezatubak.
Requiem-goan zer kantak eta
o zer musika soñubak!
Bazirudiyen Paradiso bat
orduban eliz-barrubak.

Bizi ziñala zure semeak
bazinduztela txit maite,
eman dituzten pauso zuzenak
garbi esaten digute;
arbol piñari bere adarrak
ondo jarraitu diyote,
Aita zintzo bat nola onratu
irurak jakindu dute.

Zabal-zabalik billatu dezu
zeruetako atia¹,
andik saiatu zaitez libratzen
Euskaldun Erri maitia,
goza ditzagun Fuero Santubak,
dezagun goza pakia,
dedin izandu gure bizitza
txit zori-onez betia.

R. A.

El Cántabro, 1894-IV-8.

Jose Maria Etxeberria Drabasa jau-
na 1894-III-18-an il zan. Asteasun.

¹*Considerando piadosamente.* (*El Cántabro*-ren oarra).

Nere lau Aita Profetai

«Zibillak esan diyo Iparragirreri»

kantatutzen dan doñuban.

Auxen da, au, ikara!
Auxen da au lana!
Txit damu det lau Aitak
egiyak esana.
O *maskarik* gabeko
Fuero zar laztana!
Zuretzat etoia da
karlista ez dana.

Garbiro aitortzeko
ez naiz bada lotsa,
nola entzuten nagon
borrerruan otsa.
Eriyosuan dabill
gaur nere biyotza,
esanaz: «Nocedal da
gure eriyotza».

Diye osoro umill
bazala orduba
neri ipiñitzeko
gañetik eskuba.
Biralduko dirate
noski... mandatuba,
nola izango naizen
martirizatuba.

O mantxikan gabeko
Nocedalinuak,
iñor ez bezelako
biyotz berakuak!
Lotu, bai, neri lotu
kate burnizkuak,
Goitiak boto truka
dauzkan alakuak.

Naizela *kanariyo*
gutziz berritsuba,
Nocedal-tarreatatik
asko kantatuba!
Agudo omen naiz ni
oso mututuba...
(eman ordurakoxe
Jaunari kontuba).

Nere Aita maiteak
kupi bitez, arren!,
zergatik Silvela-kin
kontratuban dauden.
Nik beoiri gezurrik
esan ote niyen?
Ez diratela baietz
esaten ondoren?

Llorente zana ere
kanonigua zan...
Fueruen etsai beltz bat
besterik bai al zan?
Gezurrarekin asi
zalako arrantzan,
Salcedo-k¹ eman ziyon
golpeakin ill zan!

Zertarako ibilli
beti deadarka?
Bigarren testiguba
dago Billafranka;
Nocedal-en kapa ta
Erramuntxon akta,
biyak dute izena
laka... eta... laka.

Naiz Nocedal-engatik
ixuri odola,
beok Fuero-zaliak
ez dira iñola.²
Testigu an daukate
Gernikan arbola,
bera sendatutzeko
D. Karlos dagola.

Beok ez diralako
ezertan itxubak,
arrazoi ez dutela
daude siñistubak.
Defenditzeagatik
Lege zar santubak,
betoz nere gañera
nai dan kastigubak.

R. A.

El Cántabro, 1894-IV-15

Irarkulea oartuko zanez, auzitara eraman zuten lau apaizengatik ari da emen gure Ramos Azkarate.

¹ *El insigne hijo de Vizcaya, y defensor acérrimo del régimen foral. (El Cántabro-ren oarra).*

² «Utzi Errege Karlos
egiñ alegiñak»...

El que así escribe ¿es fuerista? No, mil veces no. (Id.).

**Baldespina-ko Markes
txit geidiatia¹ zanari
bere irugarren urtebetian**

Iru urteak oraiñtxen dira
joan ziñadela mundutik,
Orbe deritzan jauregi eder
zere seaska gozotik;
geroztik zaude (gure ustean)
izar guztiyen gañetik,
eguzkiyaren printzaren gisan
diz-diz egiñaz zerutik.

Ez al dirade azkar aztuten
printzipe eta printzesak,
nola dukeak ala kondeak,
zaldunak eta markesak?
Berak illtzean zaizkate galtzen
munduko beren noblezak,
oroimenikan lajatu gabe
ondoren datorrenentzat.

Zenbat urte da beren *Errege*
ill zitzaiela Madrillen?²
Ez diradela gogoratutzen
urte guziyan lau bider?
Turroiagatik, bizi zanian,
maitetasuna baziyen...
ill eta gero a zer koroiak
gañetik jarri dizkiyen!

Nola ez dira bada aztuko
zulora ordurakoxen?
Beste munduban bizitzerikan
al dute sinistatutzen?
Gizon piñari «Ori astua!»
dakitelako deitutzen,
azken ezkillak jo ordurako
anaiak zaizte galdutzen.

Ia zenbat milloi santu ta santa
ditugun adoraturten,
nola zeruban ala lurrean
diradelako arkitzen!
Ia zenbat umant, zenbat illezkor
diraden beti bizitzen,
dizkatelako ondorengoak
oroit-karriyak³ altxatzen!

Bizirik dago San Inazio,
dago zutikan Elkano,
alxata dago Kosme Txurruka,
alxa leiteke Okendo;
Tomas aundiya Zegamatikan
argi egiñaz an dago...
Ara Durangon Astarloa ta
Bilbaon Lopez de Haro.

Zeñ palta zaizka altxatutzeko
Bizkaia Jabedeari⁴?
Berrio Otxoa, Novia Salcedo,
zergatikan ez zedorri?
Lege paltsuak ez baziraden
Euskal Erriyan ezarri,
nola santubak ala umantak
zutikan ziran agiri.

Sariatuta daukazkilako
gure Jaungoiko maitiak⁶,
guk sariatu ditzagun emen
merezi duten semeak,
diyegun zorra pagaturikan
azkar karlista jendeak,
katerik gabe bizi ditezten...
euskaldun erri libreak.

Gure Errege datorrenian
(etorriko dan bezela),
piñari piña esango zaio
ta ustelari ustela;
dakigulako partidu beltzak
birik-eriyak⁵ daudela,
joan biar dute mundutik laxter,
Nocedal buru dutela.

Ama Eleizan sendogarri ta
soldadu mantxa gabia,
naigabe asko igarotako
goi-goiko Fuero-zalia;
Sort-erriyantzat, Erregerentzat
zenuben leialtadia,
da, bai, karlista guzi-guziyok
maite deguben bidia.

R. A.

El Cántabro, 1894-IV-22

¹ *Excelentísimo*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

² Errege au Alfonso XII da, 1885-XI-25-ean illa, ogei ta zortzi urte betetzeko iru egun falta zituala, eta bere semea, Alfonso XIII izango zana, amaren sabelean utzita. Onek, Maria Kristina erregiñak alegia, izan zuan agintea, 1902-V-17-an beraren semeak artu zuan arte. Ramos Azkarateren bertso auk erregiñaren aginte-denboran jarriak dira, beraz.

³ *Monumentos*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

⁴ *Señorío* (Id.)

⁵ *Tísicos*. (Id.)

⁶ *Piadosamente pensando*. (Id.)

Nolako Mari alako Peru

Sagasta kojua ta
Nocedal errena,
zein ote da biyetan
biyotzez beltzena?
Nor da nor, nor oietan
pizti bizkorrena?
(Ai, utsegin egin det:
graduz aundiyena?)

Bere moduko ogei
laguntzat artuta,
dotriñan agindubak
osoro aztuta,
ez diraden kontuak
Karlosi sortuta,
banakatxo batzuek
dauzka erotuta.

Lenengo Erramontxo
ez da zuzenena...
Bañan bai beltz danetan
engañatzallena;
santu baten paperan
tranpan dabillena
da arkitu leiteken
gizon kaskarrena.

Erotuta... Zer diyot?
Askoz okerrago,
Ameztoi zana bañan
gutziz beruago,
Erramontxon izena
dutela naiago,
Euskaldun Erriyaren
lege zarrak baño.

Katoliko guztiyak
nastu zitubena,
Karlos turroiangatik
saldu zigubena...
Karlistak ezin illik
beti dabillena,
gaurko politikaren
sagu paltsoena.

Eleiza badakigu
ez dagola libre,
ta ez dala izango
Don Karlosik gabe;
Eta gure Fueruak
beltzakin nun daude?
Zer da, zer, izatea
Nocedal-en alde?

«Ez dala orrelako
diputadurikan,
onek aña dakiyen
teologorikan!
Ez dala korterako
beste gizonikan,
Fueruak ekartzeko
zuzenagorikan!».

Maroto bat balego
oraiñ bizirikan,
kantatuko liguke
garbi bertatikan
ez dubela izandu
iñoiz semerikan,
beltzai lagundutzeko
bizkorragorikan.

Betor Sánchez Silva bat
beste mundutikan,
edo esan dezala,
dagon tokitikan,
Nocedal-ek maitatzen
badu Fuerorikan...
Al duen D. Jermanek
anai oberikan.

Ez dezute ikusten,
anaia maitiak,
ez dirala fueristak
onen bigotiak?
Zuen buru batzубek
dira tunantiak.
Cánovas ta... bezela
komediantiak.

Eleiza nai badegu
ikusi libria,
nai eta nai ez bear
degu Erregia:
Errege bidezkoa
da gure bidia,
nai badegu salbatu
Euskaldun Erria.

Igandian garbiro
Ramontxok esan du
Sagasta dala *Mari*,
bera dala *Peru*.
Gure lengo anaiak,
badezute ordu,
oni fiñ segituba
izateko damu.

R. A.

El Cántabro, 1894-IV-26

**Don Karlos
eta Doña Maria Berta
gure buruzari
katoliko fuerozialai
beren esposarioko egunean**

Daudelarik oñazez
Ibero mendiyak,
gaur arkitutzen dira
osoro alaiak;
pozaz daude errekak,
zelai ta ibaiak,
elkartu diralako
bidezko Artzaiak.
Nola kantatzen duten
euskal egaztiyak,
alabatzeagatik
errege garbiyak!
Kantatu ditzaguben
karlista guztiyak
biyotzean dauzkagun
atsegiñ aundiak:
deitubaz dago eta deituko du, bai,
Laurak-bat miragarriyak,
beren Fueroengatik:
«Biba ezkon-berriyak!».

O, euskaldunen Aita!
Badakizu ongi
talderi onek zenbat
nai dizuben zuri.
Nai geniyon aiñgeru
bizitu zanari,
zeruban gertatzen dan
Ama maitiari.
Diyegu naitasuna
denon Don Jaimeri,
Doña Blanka, Beatriz
eta Elbirari;
nai diyogu benetan
Aliziatxori,
bai ere beren Ama
egin zaienari;
argatikan ojuka ta erreguka
gaude Jaungoiko Jaunari
zaitzaten Españira
agudo ekarri.

Zer esango dizugu,
euskaldunen gala,
Margarita zanaren
ordezko laztana?
Printzesa katolika
jakiñik zerala,
nola izan zintezke
emazte bat txarra?
Jaungoikoan Letartak¹
nai zubela ala:
Don Karlos izatea
zuretzat senarra;
nola maitatzen duben
onek Lege zarra,
artu zaitu beretzat
txit lagun azkarra,
bildur santuban azi eta bizitu
zeran Rohan-go alaba;
zu izango zerade
karlistaren Ama.

Gaur da fueristentzako
egun bat aundiya,
argatik dantzan dabill
gure Kantabriya.
Zoririk gaiztoneko
Luziferkeriya,
Españiya guztiya
jan diguzu iya!
Daramazun galera
da lotsagarriya,
zuk, zuk jo bear dezu
zere agoniya;
zure illtzearekin,
gure Españiya
izango da guztiyon
beneragarriya.
Deitu dezagun bizi dedilla Karlos
eta famili guztiya!
Biba Fuero santubak!
Biba Euskak-Erriya!

R. A.
Tolosan, Apirillaren 28-an
1894-garren urtean.

¹*Providencia*. (El Cántabro-ren oarra.)

Bertso auen azpian adierazten dan egun ortantxe, 1894-IV-28-an alegia, artu zuan Don Karlosek bere bigarren emaztea: Maria Berta de Rohan printzesa.

Nocedal eta bere lagundiya

Zer pasatzen ote da
Nocedal-tarretan.
orrela mututzeko
guziyak batetan?
Patera egiñ arren
ez daude, ez, lotan;
jokatzen ari dira
Madrillen pillotan,
Ramuntxo diputadu
jartzeko asmotan.

Nun da akta eriyen
bizar-kentzallia,
Azpeitiyako *pizti*
tripazai zalia?
Etzalarikan izan
labanan trebia,...
sasi-letradu arrek
zuben baloria,
zikiñtzeko geiago
intrigo jendia.

Gaur ere gizajuak,
dagoan lekuban,
dardarizuba baietz
daukala eskuban?
Setoso oien lotsa
galdu zan orduban,
irten ziran zakutik
tximuben moduban,
esanaz: «Bizi gera
ganbela santuban».

Aitzeneko *sermoian*
Erramun txikiyak
zizon: «Ez gerade gu
iñundik garbiyak.
Izatia daukate
karlista guztiyak
egiyaren aldeko
martiri aundiya;
gu gizenduko gaitu
liberalkeriyak».

Aktarik grabiena
amabi gizonak
ontzat eman dutela
daki edozeñek.
Zergatikan ote dan
kontatuko al det?
Badiyotet esaten
miñ emango diyet:
oien biyotz gogorran
bildur aundiya det.

Leialtadia eta...
alakoxen itzak,
zer gozoak ziraden
Doña Kristinantzat!
Bai ere, bai, gañera
bere semiantzat,
Cánovas ta Sagasta
ta Castelar-entzat,
Españiya guztiya
galdu dutenentzat.

Esatia daukate
gure Erregeri
zeiñ diraden beltzakin
tratuban ibilli!
Kantatzia daukate
oraiñ Don Tirsori
nor dagon guztiz zikiñ,
zeiñ dauden txit garbi,
paltatubaz Jaunaren
lege santubari!

Eskribitzia dute
Karlosengatikan,
nastu nai izan duben
bere banderikan!
Cánovas-ekiñ izan
duben tratorikan
beltzakin ezkontzeko
gure Jaimerikan,
ta iñoiz ukatutzen
digun Fuerorikan.

Don Karlosen dotriñak
beti dira lenak,
Sort-erri gaxoaren
sendakiñ onenak;
dira Euskal Erriyan
bide santubenak,
Erramuntxonak nola
diran paltsoenak,
pagatu nai dizkiye
lanik alperrenak.

Zergatik pagatu nai
dizkiye pausuak?
Zergatik politikan
diraden paltsuak.
Zergatikan beltzentzat
gera gu gaiztuak?
Nai ditugubelako
Lege zar zintzuak.
Jesukristok betiko
zabaldutakuak.

Entzun, Don Erramuntxo,
oraingo galdera:
zer da defenditutzen
dezuben bandera?
«Egin nai det Pidal-en
jokuba berbera,
Jainkoan izenian
nua ni eskera,
esanaz: Ekatzute
kartoizko kartera».

R. A.

El Cántabro, 1894-V-6

**Gure buruzariyen
Infanta Doña Beatriz
Borbongoari**

bere santaren egunian,
1894-garren urtean

Beatriz! Beatriz!
Kantari bat banintz,
kantatuko nizuke
gaur nik eun aldiz. Bai!
Ez naizela bada
ni kantariya,
aitortutzen dizut
garbi egiya;
bañan nola dizuben
naitasun aundiya,
dadukazu kantuban
Euskal Erriya.
Euskeraz kantatzen
diraden kantak,
fedez beintzat dira
oso galantak.

Gaur da, bai, eguna,
gure zori ona,
Infanta bidezkoa
altxa nai deguna. Bai!
Nolako arbola
alako fruta,
ikusten zaitugu
begiratuta;
gure biyotz barrenan
zauzkagu sartuta,
Kantabriko urakiñ
bedeiñkatuta.
Sinista eiguzu,
Maiatz-loria,
gure izatea
dala zuria.

Esan zaitzu garbi
guraso onairi,
bai ere zure aizpa
eta anaiari, bai!,
arkitzen gerala
guztiz edarri,
argatik gaudela
beti kantari:
Errege bidezkuak,
betoz, betoz sarri,
egiya agindutzen
dezagun jarri.
Oraiñ agur, agur,
Beatriz piña!
Pasa zazu egun
txit atsegiña.

R. A.

El Cántabro, 1894-V-10

Astuan umeak astakumeak

Zenbat dakiyen (beren ustean)
emengo gazte jendiak
libertadian izenarekin
maitatzen beltzen katiak!
Gure izarra burlatutzeko
txit dira balientiak,
erdaldun mando, euskaldun asto,
Lutero zanan zaliak.

Ai! Igartuta ill-otzik zauden
arbola Gernikakua!
Nun da, nun, zure landatzallien
odol mantxa gabekua?
Euskaldun beltzak nai dutelako
bizi masoien modura,
gure izarra nai liguteke
sartu betiko zulora.

Bestela esan dezala oraiñ
Beasain deitzen zaionak,
ote ziraden umeak edo
ia al ziraden gizonak;
ez ote diran Euskal Erriyan
seme traidore zekenak,
Iparragirren zortzikoari
«¡Fuera!» deitutzen ziyenak.

Zerbaitengatik kantatzen zuben
beñ-bat Tolosan Goitiak
ugari bear dirala emen
liberal fabrikantiak,
preso artzeko guztiz polliki
euskaldun inozentiaik,
ez ditezen, ez, berekin bizi
gure Lege zar maitiak.

Emen musikak jo zubelako
zortziko maitagarriya,
zan abiyatu, bañan... nolatan?,
gazteri errukarriya,
aurretik zala (beti bezela)
erdaldunkeri larriya,
euskaldun txarrak lagun artuta
zatitzen aritz garbiya.

Kolejiyuak zirala ziyon
beltzen fabrikakgatikan,
profetak ez du oraiñdik esan
egi aundiyagorikan;
bere mendeko diszipuluak
ez dauke beste antzikan,
riffeño gaizto, barbaro asto
aien fedian baizikan.

Noiz ikusi da, noiz, San Martinen,
noiz, noiz sermoiko denboran,
ala ojuka eta marruka
korridetako moduban?
Noiz, noiz burlaka dira ikusi
Loinazen eliz-kanpuan,
Aita Arruek bere omena
altxatzen zuben orduban?

Aurten, bai, aurten pasatu dira
lotsagarrizko kontuak,
parragarriztat daudelakoan
Japongo martir gozuak!
Nola pentsuba daukaten libre
ikasle oien maisuak,
orrenxengatik dira izaten
beren antzeko astuak.

Arbasstak

Beasain-en, Maiatzaren 10-an.
El Cántabro, 1894-V-13

Elosegiko D. Antonio eta bere illobari ongi etorri bat

Iru illabetian
erritik kanpora,
etziran ibilliko,
ez, beti gustora;
ibilliya guztiya
nola dan nekia,
gogoratzen zitzaien
etxeko pakia.
Ikusi dituzute
baztar sagradubak,
gurutzean ill zanan
pauso txit santubak;
an lagundu zizuten
praile indartsubak:
Aita San Frantziskoren
seme jakintsubak.
Ibilli ziñaten, bai,
basamortuetan¹,
galdutzeko zoriyan
ganbelu² gañetan.
Dudarik gabetanik
zenbat karidade
zuen biyotz leialak
egiñikan daude!
Beste zenbat lekutan
zerate iritxi?
Eta zenbat gauza on
ziñuzten ikusi?
Egunik onenetan
gañera Erroman,

Aita Santubangana
zinduzten eramán;
arrek galdeturikan
zer zan zure naia
erantzun zeñiyozun
belaunikaturik:
«Jauna, bendiziyua
orain eman bedit,
bada ezin nezake
eramán emendik
ni ta familiyentzat
oroimen oberik».
Bendiziyó santuba
artu ta ondoren,
dakigu zeñ aldetan
ibilli zeraten.
Orra gaur zer kontentuz
guztiyok zaudeten,
Jaungoiko maitiari
graziyak ematen!
Ederrak izan arren
ango atz-erriyak,
dira ederraguak
Ibero mendiyak.
O euskaldun benazko
birtutez jantziyak.
Izan zaitezte bada
ongi etorriyak!

A.

El Cántabro, 1894-V-17

¹ *En los desiertos.* (*El Cántabro*-ren oarra).

² *Camello.* (Id.)

Biba Gipuzkoako Diputaziya!

Zer diradela uste dezute
liberal manduleruak,
gezurrarekin bizi diraden
Luzbeltz-en banderakuak?
Zer dirade, zer, guziyen gaiñdik
euskal txar ezkerrekuak,
iñorengatik erantzuteko
gobernatzalle gaiztuak?

Donostiyako *La Voz*¹ dezute
marruben egintzallia,
republikano azari petral,
erregiñaren zalia!
Ez digubela onek probatzen
ez dala gure jendia
probintziyari begiratzeko
beltz danak bañan obia?

Matxinbarrena! Mantxa barrena!
Zer uste dezu ordea:
zu zeradela, bizar da guzi,
Gipuzkoaren jabea?
Dezu pentsatzen izututzia
Diputaziyo gurea,
zeradelako Furoen etsai,
Judasen adiskidea?

Nagusi egon ziñatenian
ez al zerate oroitzen
Donostiyari, Zumarragari,
nola zeniyen laguntzen?
Ez al zenizten erri geienai
eskamen denak ukatzen,
aitzekiyakin Kutxa santuban
etzala bada arkitzen?

Ez dezazula, arren!, pentsatu
beñere orrelakorik,
zergatik gure diputadubak
ez duten zuen bildurrik.
Nola ez dauken beltzen modura
kontzientziko kargarik,
zuen marrubak eta ojubak
dirade alper-alperrik.

Gure dirubak bear badira
jauntxo beltzentzat bakarrik,
beste guztiyok ez degu bear
beltzekin bizi bearrik.
Obe genduke ala bageunde
Fueristak bakar-bakarrik,
inguratutzen etzigubela
liberal gezurrezkorik!

Bide labur bat ebakitzeko
ez omen dago dirurik!
Etzaio asko gogoratutzen
Antiguako tunelik;
ez eta ere Institutorik,
aiñ gutxi Alondegirik,
Doña Kristinan *etxetxua*... ta
Katalinaren zubirik.

Gipuzkua da Egi-putzua,
Donostiya da Donosti,
alaz guziyaz bere mendean
auspez nai gaitu eduki;
Fuero-zaleak dituztelako
baso-erriyak erruki...
nai diozkate Alegritikan
bide obeak ebaki.

Ez ote zaie bururatutzen
Jauregi Probintzikua,
kristal utsetan sei milla duro,
sei milla!, kostatakua?
Zenbat kostatzen zan lendabiziko
deskuido... erretakua?
Zenbat kostatzen dan bai al dakigu
berriro egindakua?

Alper-alperrik irten ziraden
Jauregitikan igesi,
Orendaiñ eta Abaltzisketa
ditezen neketan bizi;
ginga denboran bearko ginga
naiz ez-ta jaten ikasi,
zuen legean indarra oi da
beti izaten nagusi.

Beltzengatikan daude gaur triste
Bergara eta Oñati,
Fuero santubak genduzkanian
bizi ziranak ederki.
Zuek, bai, zuek gure Tolosa
dezute zatitu beti,
zeniztelako erdaldun beltzai
ate guztiyak iriki.

Alegritarrak, alegritarrak,
arren!, oroitu zaitezte,
beltzengatikan erri txikiyak
gosiak illko lirake;
orra zer egiñ dizuten oiek
zuen laguntzaren truke...
Ukatu beti zuen botuak
itxubak ez bazerate.

A. O. R.

El Cántabro, 1894-V-20.

Guk erabili degun bilduman, aldizkari onen zenbaki au falta da. Baiña Tolosako Manuel Urreta zanaren paperetan kopia bat agertu da, bukaeran onela diona: «El Cántabro-tik artuba, 20-V-1894».

¹*La Voz de Guipúzcoa*, Donostiako egunkari errepublika-zalea.

Donostiyako Matxin-barrengoari abisu bat

Matxin-barrengo Matxin-kanpoko
edo Matxin-erdikua,
Matxin-aurreko Matxin-atzeko,
Matxintxo nundinaikua:
Matxin Lasalan diszipulua,
Matxin turroi aldekoa.
Matxin Cánovas, Matxin Sagasta
Matxin republikanua;
Matxin guzizko *Fuero-zalea*...
Matxin txit *katolikua*,
Matxin Okendon antze-antzeko
gudari pijo-pijua,
Matxin biyotzez *aundiya* zeran,
o Matxin Donostikua!
Noiztik da libre biraldutzia
zigarro puzonitua?

Illtze erdoiez betetakua
zigarroaren barrenen!
Bai al dakigu Afrikan edo
Asian bizi geraden?
Ikusten gaude zigarrotikan
kolera nola datorren,
zergatik beti zuzengariyak
jaten bestetan ez dauden.
Ernaitu zaite Mantxa-kanpora,
zaite portatu len-bait-len,
dakizulako zigarroakin
zenbat galdutzen diraden;
begira zazu langilleetan
burutik ondo al dauden...
zergatik aien erokeriyak
sufritutzeko ez gauden.

Zuzendariya zeran ezkerero
nai dizut bada kontatu,
zere mendeko langille denai
diztetzun neurriyak artu;
ez naiz bada ni, ez, egundaño
iñorengana kejavu,
baditut ere zigarroetan
zikiñkeriyak topatu,
etzaitut, ez, nai bajatuazi,
ez eta ere altxatu,
baizikan bizi nai detelako
bear dirazu aditu:
nai dezu jakin eriyotzatic
nolatan nintzan libratu?
Ez nubelako fumara ura
bear bezela tragatu.

A.
El Cántabro, 1894-V-24

Biba Euskal Erriyak beren Fueroakin!

Beste munduko bidean dagon
liberalkeri otsuak,
sort-erriyari jarri nai dizka
eriyotzako lazuak;
dauzka itotzen Gaztelani ta
euskaldun erri gaxuak,
argitasuna deitutzen diyen
lapur, traidore, paltsuak.

Alde denetan kanta bat dago:
iskanbilla ta negarra;
lapurretakin jende illtzeak
daramakiyen indarra!
Ez degu noski kobratzekorik
bañan bai paga bearra,
bizitu dedin ondo ta ongi
enpleatuba bakarra.

Aitxur-landia dago galduba,
bai ere komertziyuak,
ardo-zaleak daude negarrez,
oñazez ofiziyuak;
Moret maletak, nola egiñak
daukazkin tratu gaiztuak,
fabrikanteai kanta nai dizte
requiem aitzenekuak.

Au baldin bada libertadea
ez da munduban katerik,
ate ondota al da ikusten
eskatzallia besterik?
Ez da, ez, sortu anarkistetan,
ez, orrelako bonbarik,
Patriya *martir* illazitzeko
Sagasta bezelakorik.

Zer esaten det Sagastagatik?
Zer dira gañerakuak,
nola Cánovas, Castelar, Pidal
eta republikanuak?
Partidu beltzen buruzariyak...
ta beren ondorengiak
dirade Jesus ill zuten aiek
bañan txit okerraguak.

Libertadia! Libertadia!
Kartzelan zauzkate beti;
tirakilloiak, tirakilloiak
txupatzen zaitu ederki.
Baionetakin bazituben bein
otsuak *kutzak* iriki,...
zer ostu duben orduezkero
Jainkoak bakarrik daki.

Kendu ta kendu alde batetik,
zorrak, bai, zorrak bestetik,
nai eta nai ez joan bearra du
arbola beltzak mundutik,
lotsagarritzko malkarrotakin,
Españiyako lurretik,
Pallás ta beste sei lagun aiek
alde egin zuten bidetik.¹

Gaurko legea edo D. Karlos
zeiñ da biyetan onena
salbatutzeko arteak eta
ipiñitzeko ordena?
Fabrikantiak, estudiatu
dezazuteke aurrena,
ez badezute nai galdutzia
langillearen urrenak

Ai! Ai! Karliten bandera zer dan
ikasi nai baluteke,
beste modutan batez ere gu
emen biziko giñake!
Libertadea lapurtu eta...
argollan jarri gaituzte...
Laurak-Bat-entzat ondamendiya
beltzak ekarri digute.

Fabrikantiak, arrazoiakin
noizbait keجاتu zerate...
Himno de Riego-n alderdikuak,
oraiñ oñazez zaudete.
Karlosengana milagro batez
etortzen ez bazerate,
alferrikan *kyrie eleison*-ak
kantatutzera zoazte.

A.
El Cántabro, 1894-V-31

¹ Pallás anarkistaren bukaera nola izan zan leen esan degu. Baiña beste sei anarkis-
ta ere afusillatuak izan ziran Bartzelonan, 1894-ko Maiatzean.

Alkate batek kantatu biar lukean epistola

Iya naiz alkate zana
nai dana... edo... al dana:
prueba *garbiyak* emana
naizela diña ta dana.
(*Rau, rau, rakataplau,*
bi doñutako kanpana?)

Naiz bada urria jana
eta zillarra edana:
izanagatik baldana
naiz Maroto-ren laztana.
(*Rau, rau, rakataplau,*
txit ondo dago esana.)

Eta naiz osoro zarra,
okertuba ta baldarra,
itxusiya ta zatarra,
pollit-urruti... zatarra.
(*Rau, rau, rakataplau,*
zergatikan ez txit txarra?)

Det erakutsi bearra
naizelako txit zabarra;
naiz ni Luzbeltzen makarra
kankallu *masoi* nabarra.
(*Rau, rau, rakataplau,*
Judaskeriyen azkarra.)

Ez naiz Eleizan zalia,
bañan bai turroi-jalia;
naiz ezkerreko *prailia*,
guzizko protestantia.
(*Rau, rau, rakataplau,*
Nocedal bañan obia?)

Ez det entzuten mezarik,
nai ez det konfesyorik:
neretzat ez da santurik
koaliziya besterik.
(*Rau, rau, rakataplau,*
ez dezu esan bearrik.)

Bañan nago ni alkate,
mau-mau gozoaren truke;
pizti bat ez banintzake...
agudo galduko nuke...
(*Rau, rau, rakataplau,*
erriyak mesede luke.)

Beltz-ola Jauna eta ni,
gu gera Peru ta... Mari;
onek esan ziran neri,,,
gerala Aita Santu bi.
(*Rau, rau, rakataplau,*
orrek egia diruri!)

Gu biyok Kristinan alde,
karlistak galtzeko gaude;
ni agiriyan ta trebe,
beltz-olak nai luke gorde...
(*Rau, rau, rakataplau,*
karlistak lotan baleude.)

Erri liberal batian,
gañera eliz-kalian,
karlistak gure aurrian
beltzak ondatu nayian!
(*Rau, rau, rakataplau,*
denboraz dira gañian.)

Konziliyo txit santubak
dakizki nere maisubak,
apaiz karlista prestubak
zirkuluetan bildubak!
(*Rau, rau, rakataplau,*
ez al zerate kaikubak?.)

Nik Erretore jaunari
karta bat niyon biali,
esanaz garbi berari
ber-berak esana neri.
(*Rau, rau, rakataplau,*
oraintxen zera erori.)

Libre du elkartutzia,
pakean batzartutzia;
bañan... karlista jendia
nola dan onran zalia...
(*Rau, rau, rakataplau,*
enbutubaren legia.)

Jaungoikoaren bildurrik
nolatan ez daukaten nik...
Ez balegoke jaterik
ez nuke kargu bearrik.
(*Rau, rau, rakataplau,*
Giz-ona zaude ixillik!)

Ez naiz egongo ixillik,
zergatik ez dan zerurik;
nai nukena da bakarrik
ez paltatzia pentsurik.
(*Rau, rau, rakataplau,*
ez al dezu zuk animik?.)

Bizitu naizen modura
joan nai det beste mundura,
artubaz tximu itxura,
Pilatos dagon lekura.
(*Rau, rau, rakataplau,*
denboraz dezu orduba.)

Iruretan-goiena
El Cántabro, 1894-VI-3

Lurak-bat-eko fabrikantien billera

Tolosan, garagar-illaren 3-an,
1894-garren urtian

Joan dan igande *gloriosoan*
liberal fabrikantiak,
Moret aleman Calvino-tarran
kontrako protestantiak,
naiz gerrarako (armikan gabe)
zeuden balorez betiak,
Lurak-bat-eko pobre gaxoen
aitatxo *inozentiak*.

Zenbat lezaken nai dubenian
Don Patxikotxo Goitiak,
Beotibar-ko plazan biltzeko
erdaldun lege-zaliak!
Nola diraden (beintzat geienak)
masoi Sagasta-n semiak...
ez dadukate *ixtillu txarra*
Alemani-ko jendiak!

Egiñ dituzte Beotibar-en
itzez gaztelu fuertiak,
kañonazoka ez ditzan autsi
Bismarck zarraren taldiak;
nola balore aundiyak dauzkan
Don Gergoriyo Mendiak,
Alemanian bearko bizi...
Moret-en tratabidiak.

Lizar-iturri *artillerua*
dago kañoian onduan,
ta Pikabea (bañan... algaraz)
gaztelubaren leiuan;
Ozamiz jauna pobriengatik
martir iltzeko moduan,
Eta Molina-k¹ Lekobideren
gloriyak dauzka auzuan.

Jamar Sagasta-n etsai *aundiyak*
(bañan... bakarrik izketan),
onek illko du *gobiernuba*
beti bezela txantxetan;
Patxi Goitia napparren alde
Gamazon kontra tranpetan!
Iñarra noski fabrikengatik
illko litzake gaur bertan.

Ortueta-ko Joxe daukate
gaztelubaren kanpotik,
Txirriskala-ren gisan kantatzen
diyela Bizkai aldetik;
Goitia, Arkaute eta Molina
agurtzen alanbretatik...
(Berak diyonez bere kantetan)
kotxero pixubangatik!

Jan ere noizbait egin bear ta
ari dirala bazkaltzen,
Patxi Goitiak (lenguak berak)
«Biba Laurak-bat!» du deitzen.
Angolottik² an Egiputzua
du zeruraño altxatzen,
Disdier³ batek Anton Cánovas
ez du laguntzat kontatzen.

Naparruako Iñarrak eta
ez dakit nungo Gracia-k,
Ibarrarekin Palacios ta
Gómez, Cánovas bestiak,
Villalonga-kin dirade zazpi
eta ez noski tristiak,
Donostiyako *Voz*-ak dakizki
zer diran oien txistiak.

Molino edo lengo Molina
oraiñ ari da sermoian,
metruak... eta kantak ipiñtzen
Iparragirren ill-oian;
Alzola-k berriz gure gloriyak
eta Tolosa goi-goian
jarritzen ditu, beltzak galduta
arkitzen diran sasoian.

Calbetón Blanchón gizarajoaz
noizbait dirade oroitu,
Villalonga-k bai beren etsaitzat
agudo zuben tratatu,
beste gizon bat (au zan Arkaute)
zan txit aserre altxatu,
Fermin zanari... entierrua
Tolosan diye kantatu.

Don Federiko Etxeberriak
Sagasta eta Gamazo
ez dakit tranpan edo benetan
zapaldu dizkigu oso;
La Época-ko Cárdenas beltza
jarririk guri ta gozo,
mundu guziko emakumiak
kopakin zituben jaso.

Biktor Chavarri (euskaldun piña)
bañan Sagasta-n kandela,
nai ote dute *kanonizatu*
santu bat balitz bezela?
Au ez ote da biargilliak
engañatzeko pastela?
Don Bedaioko itxu aundiyak
esan dezala bestela.

Refugium Fabricantium
El Cántabro, 1894-VI-10.

¹ *Descendiente de Errota-berri-gorri-goiko-errotako etxe berrikua. (El Cántabro-ren oarra)*

² *Natural de Régil, descendiente del caserío Odoldegi. (Id.)*

³ *Natural de Urrestilla, descendiente del caserío Anguanekua. (Id.)*

Sacedón-go alkate ganbeluari

O Sacedón-go alkate beltza,
zer nai zenduke ordea?
Lurperatzia zure patriyan
euskaldun boina noblea?
Ez al dakizu errespetatzen
gizonan libertadea?
Zu ganbelu bat izanagatik
daukaten eskubidea?

Zer topatuzten ote dezu zuk
txapela onradubetan,
ez baldin bada usatutzia
geiena Fuero-zaletan?
Gaur nun-nai dabill euskaldun
boina txuritan eta beltzetan,
Doña Kristinan familiyan ta
errege bidezkoetan.

Bai al dakizu nola asi zan
Bilbaon Martin Barea¹?
Boina zeraman guziyentzako
zabaldu zuben legea?
Jaio ta bizi zalako beti
mando zar onra gabea,...
launa tirokin nai zuben galdu
boinan aldeko jendea.

Amar eta bost pezeta aundi
zuk berriz pake-denboran...
zer legerekin ote diozkatzu
karlista bateri zuk jan?
Zergatik boinak Ama Euskaran
edertasuna daraman,...
gure mendiyen usai gozorik
ezin zenuben eraman.

Zuk etzenduke or bizi bear
baizikan Jerusalemen,
Erodes eta Pilatos baten
etxian barren-barrenen;
nola oraindik biyen ganbelak
oso-osorik an dauden,...
ondo dakizu ganbelubentzat
zer leku onak diraden.

Nik ganbeluba esaten dizut
(anima apartatuta)
egonagatik bizi zerala
ezker-bidiak artuta;
ote zaude zu buru-belarri
masoneriyen sartuta?
Ez dezu ezer aurreratuko
boinakin aserratuta.

Gure txapelak nolatan dauden
Jainkoak bedeinkatuta,
arkitzen dira (eta ez emen)
gizonak premiatuta;
nola dagoan munduban gisan
egoki borobilduta,
berarekin bat dabill jiraka
guziro anaiatuta.

Euskal boina da Aitor aundiya
zeruetatik botia,
argatik dauka mundu guziyan
beti zabalik atia;
gure boina da (beintzat guretzat)
kuttuna bezin maitia,
du bere boina gure Erregek
glorিয়েz bete-betia.

Bestela galde Baionan eta
galde nai bada Parisen,
emen (bi aldiz) galdetu zazu
zergatik duten altxatzen;
zizkiyelako euskal txapelai
meritu denak billatzen,
bi erri oien iru medallak
boina digute goientzen.

Erakutsitzen dizut aitzenik
uztarrirako laguna,
zure gisako gabeluba ta
zu bezelako gizona;
obispuaren aurrez jarrita
gaztatik egiñ zaiona,
apaiz karlistak elkartutziak
miña ematen diyona.

Zenbat medalla daukazkitzute
lanetik irabaziyak,
larogei urte juan diranetan
erdaldun gaizto guziyak?
Zuen buruko gorbeta... txano
ginballa farragarriyak,
esan dirazu ez ote diran
zeon desonragarriyak.

Alkate pare ganbelugorik
uztarriyari lotzeko,
ez naiz ni gauza, pagatuarren,
beste bi billatutzeko;
Beltz-ola jauna akullubakin
ona da itzai jartzeko,
eta *Puerta*¹ ona dezute
atzetik eragiteko.

Iruretan-goiena

El Cántabro, 1894-VI-17.

¹ *El que mandó fusilar en la primera guerra civil a un inocente chico de 18 años por el gran delito de que llevaba boina. Después fue fusilado él mismo por los suyos. (El Cántabro-ren oarra.)*

² *El cirineo del monterilla de Sacedón en el llamado Santuario de las Leyes. (Id.)*

**Gure Patroi San Juan Bautista
amaren semeetan
donerik aundiyenari**

Garagar-illaren 24-bean, 1894-garren urtean.

San Zakarias apaiz profetan
seme glorifikatuba,
Santa Isabel ama zarraren
sabel garbiyan sortuba,
Mesias baten etorreraren
abisu txit seguruba,
jaio bañan len aingeru batek
zera santifikatuba.
Mundu guziyak maitatutzeko
milagroaz argiratuba,
basamortuban billa zenuben
zeretzat bakar-lekuba,
sufritutzia izandu zedin
zuretztat gozamentuba;
zeruban alde antxe sermoiak
zerade predikatuba.
Israeltarrak Jaunarengana
ugari konbertituba,
Jaungoikoaren Seme Santuba
Jordan-en bataiatuba,
santu guriya, santu eztiya,
santu martirizatuba,
Beotibar-ko gerrero aien
laguntzalle txit altuba,
aien aita ta aien semeak
Patroi aunditzat artuba.
Nola Elizan ala kanpoan
egiyaz adoratuba,
zortzikorikan zarrenarekin
zaudena alabatuba,
zerade bada (guretztat beintzat)
Aita bat apartatuba.
Ikusten zaude zure Laurak-bat
nola dagoan galduba,

ebanjelari *gezurrezkuak*
libertadeak kenduba.
Zaude ikusten nola daukaten
kate gogorrez lotuba,
euskaldun paltso batzubengatik,
(bañan... ez menderatuba).
Berarengatik ipiñi zazu
gu salbatzeko eskuba,
euskerazkua izandu dediñ
emengo bizimoduba;
dezu sentitzen nola ari dan
Moret masoi ta juduba,
golpe ta golpe guri ekartzen
illko gaituben tratuba.
Zure bitartez etorri bedi
azkar Errege prestuba,
nori berea eman nai diyon
zaldun txit justu-justuba,
nola dadukan Fueroen alde
egiañ juramentuba,
nola daukagun gure legeetan
illtzeko pentsamentuba,
nola daukaten gure Fueroak
Sagasta kondenatuba,
nola zan lur au Fueroarekiñ
mundu ontako zeruba,
lasai ta lasai, libre ta libre,
beti garbiro oituba...
Zurekin gaude egiyan alde
naiz egiñ odol-putzuba,
Beltzen katetik libratu dediñ
Laurak-bat santu-santuba.

R. A. de O.

El Cántabro, 1894-VI-24.

Sacedón-go alkate ganbelubaren uztarriko lagunari

Obispo jaun bat zeran ezker
(bañan mitrarik gabea),
Judas paltsoan *primua* edo...
Maroto zanan semea,
zeradelarik (zere ustean)
erri guztiyan jabea...
zertan zera zu buru-belarri
orren agure berdea?

Ez dakit nola dan adiskide
zurekin Erretorea,
ez dalarikan bestien gisan
izandu *mikeletia*.
Zu izan arren *masoia* edo...
ezkerretako *prailia*,
ez ote dezu dantzan ikusten
erriyan gazte jendea?

Bai, egiya da sartu zerala
eriyotzako urteetan...
makar txit beltzak daukazkitzula
ezarririk begietan;
bañan sartutzen zeran ezker
karlisten zirkuloetan...
sartu bearrik arkitzen zera
alkatetzako lanetan.

Konziliyuak dakizkitenak
ez dira gizon itxubak...
Bañan bai bear diran gauzetan
paltsoak edo mutubak.
Dantza berdeak nolatan dauzkan
Eleizak debekatubak...
biyok zaudete eragozteko
osoro obligatubak.

Ikusi ditut dantza gaiztoak
Carnot zanaren Prantziyan,
ditut ikusi bañan ugari
Gipuzkoan ta Bizkayan.
Dantza denetan itxusiyenak
daude gaur zure erriyan,
nazkatutzeko jende guziya
egunan erdi-erdiyan.

Egunez ala dantzatzen dana
edozeñeren aurrian,
ez dago dudik nola ibilli
liteken gero *bailian*;
zerbaitengatik Castell *botoiak*
Donostiyako *Voz*-ian...
ditu ibilli orko neskatxak
ezin jasorik airian.

Nai al dituzu iñoiz ikusi
zure alabak dantzatzen,
begira dauden jende guziyak
dirala oso nazkatzen?
Dutela beren errespetua
beren kaltian galdutzen?
Naiz Jaungoikoaz, naiz gurasoaz
ez diradela oroitzen?

Nola dituzun adiskidiak
Beltzola eta *Beltz-ola*,...¹
nola dezuten iru jauntxuak
beintzat... euskaldun odola,
nola daukazun pregonari bat
kobratzen bizkor-bizkorra...
jarriko dizut publikak dezan
bando bat guztiz gogorra.

Aita Manuel Larramendi-ren
lurrean jaiua zera,
eta gaur Migel Dorronsoro-ren
lengo semia etzera;
jateagatik pasatu arren
kanpo txuritik beltzera,
portatu zaitez aita bezela
Buruntzakua bazera.

«Alkate jaunak ordenaz dago
gaurtandik debekatuta
ibillitzia neska-mutillak
dantzan elkarri lotuta.
Zumaiakuen neurriyak berak
omen daukazki artuta,
naiz Joxe Matxin-Matxinbarrena
gelditu lurperatuta».

Aran-batek

El Cántabro, 1894-VII-8.

¹Los dos Secretarios del Obispo de levita y autores o inspiradores de un famoso oficio... sin beneficio. (*El Cántabro*-ren oarra.)

Gure izar maitagarriya bere Españiyan

Maite deguben aingerutxo bat
Beneziatik lenguan
sartu zitzaigun usterik gabe
Egiputzura eguan;
gelditu zan, bai, gure izarra
bañan... nolako zuluán?
Bi urte barru bañubak artzen
ikusiko dan lekuan.

Olazabalko Tirso zubela
bere lagun ta gidari,
Donostiyako kaletan Jaime
nola zitzaien ibilli!
Gipuzkoaren jauna ez al dan
galdetu *Castell* beltzari...
Onek gezurra esan bear du
biziko bada txit guri.

Vitoriya-kin, Burgos, Santander,
Covadonga-n ta León-en
ibillitu da, Oviedo-n, bai!,
Toledon eta Madrill-en;
Jérez, Córdoba-n, Aranjuez-en,
Cádiz, Malaga-n, Jaén-en,
nola Sevilla-n ala Granada-n
begira nola dabillen!

Valenciya-n ta Bart-ze-lo-ona-n
iritxirikan aitzenik,
Montserrat-era bisitatxo bat
ondorenian egiñik,
karlistak dauken zirkulu ura
ikusirikan barrendik...
gure izarrak ez darabilki
nundik-nai eragozpenik.

Manuel Maria Sibatte-kuak
Jaimeren onorerako
bazkari on bat ipiñi ziyen
zaldunak alabatzeko,
izandu zedin printzipearen
itz aiek aditutzeko,
eta denbora bere-berean
karlistak gozatutzeko.

Konbidatubak zeudenak ziran
Solferino-ko Dukia,
Albi-ko Baroi, Bobadilla-kin
Arbelaiz-ko Kondia;
Jose España, Enrike Hernando
beti leial ta nobliak...
ziran Printzipe Borbon-goaren
bazkaldar jende maitiak.

Txanpain edaten asitzerako
altxa zitzaien Don Jaime,
itzegiñ zuben guztiyarekin
karlistak kontentuz gaude;¹
dakiyelako bizi dan arte
aita daukala Errege,
denak batera kantatzen zuten
daraman banderan alde.

Zer miñarekin ariko dan gaur
famiyari kontatzen
nola daukaten *liberal* beltzak
Españi dena urkatzen!
Zer pozarekin zaion ariko
bere aitari esaten:
«Urte bi barru Donostiyan naiz
itsas-bañubak artutzen».

Desatsegiñik gabetanikan
bukaturikan batzarra,
agurtutzian denak egiñik
amoriyozko negarra,
onezkeroztik etxean dago
Laurak-bat-eko izarra,
Margaritatxo aingerubaren
seme piñ bakar-bakarra.

Zergatik dute gaur Donostiyan
dutena adoratutzen?
Bere amaz ta Amadeogaz
ez al gerade oroitzen?
Matxin-barrenai nola zaioten
ganbelakua gustatzen,...
eguzkirikan beron-berona
dakite aukeratutzen.²

A.
El Cántabro, 1894-VII-15

¹*Dijo que siente grande afecto por su amada España y le venera con profusión a su Augusto Padre. (El Cántabro-ren oarra.)*

²*Como todos los Republicanos-monárquicos. (Id.)*

Euskal Erriko mutillak soldadu juateko denboran kantatu bear lituzkeenak

Beltzak diradelako
erdaldun legiak,
orra zertara geran
Aitor-en semiak!
Geradenak suerte
txarraren jabiak,
soldadu juateko
dauzkagu bidiak,
ai, begira baleude
aitona guriak!

Iturri txit garbitik
jaio giñalako,
ez degu, ez, griñarik
soldaduzkarako;
laxter Euskal Erritik
bagoazelako,
biyotzari ixurtzen
zaizte zenbat malko!
Igaro bear gera
naigabea pranko.

Ezkontzeko edade
onen-onenian,
egon bearrak gera
lotubak katian,
derrigor, txit derrigor
erdalen mendian.
Ai, ai, zer oñaziak
gure giyarrian,
boinak buruetatik
galtzen diranian!

Eziñ esango degu
«*Mi hermana monja*»,
zerengatikan iñun
ez leiteken topa.
Ezin asiko gera
iñoiz deadarka:
«*Mi tío canónigo
es de Salamanca*»,
aide guzi-guziyak
pobreak gera ta.

«*En mi país mucho* gari,
o zenbat *aceite!*»,
orrela mintzatutzen
ai bageñikike!
Itzegin utsarekin
asko balegoke,
ganbaran lizundutzen
bagenduzkaguke,...
«*uno, dos, tres*» esatera
joango ez giñake.

«*Por mi calaverada*
nator ni soldadu,
*el aita me quería
pagar con el diru*».
Ai, ai, portuna on au
oraintxen bagendu!
Ez degu nai urria
kobre-truke saldu...
Nai ez da joan bearra
auxe degu damu.

Iduritubagatik
gaudela umillak...
ez daude, ez, konforme
euskaldun mutillak;
Cánovas ta Sagasta
nola dauden illak,
nola diran aundiyak
gaurko iskanbillak,...
agudo dira libre
mendi biribillak.

Erregutzen diyogu
guk Erregeari,
nai dubenian deitu
deigubela guri;
lagundutzearekin
jaun *bidezkoari*,
diyogu lagundutzen
Ama Euskerari,
euskera izan dediñ
gure agintari.¹

R. A.

El Cántabro, 1894-VII-22

¹Como lo fue en 600 años con los Reyes tradicionales. (*El Cántabro*-ren oarra).

Gure Printzipe Don Jaime Borbongoari
Españiyako Patroia eta bere santubaren egunian
Uzta-illaren 25-an 1894-garren egunian

Zala mediyoz Uzta-illeko
erdaldun lege beltz ura,¹
Euskal Erriyan sartu zubena
Gaztelaniko tristura,
jarri diyona pixka banaka
lengoa ez dan itxura,
zubena bota usteldu zedin
Zurriolako putzura,
antxe daukana puzunitutzen
bañan... ez nai dan modura,
fedea galtzen, euskera illtzen,
Fueroak saltzen... pisura,...
zori onian egun batian
jausi zitzaidan burura
etorritera lotsak utzita
infernutikan zerura.
O gure Jaime, printzipe piña,
maite zaitudan izarra!
Esan nizuben Urruñan garbi
beltza izandu nintzala,
paper paltsua beste gauzarik
bazanik... ez nekiyela...
nola nebillen aizeturikan
gaur beste zenbait bezela...
nola ikasi ditudan zerbait
gure etxeko legiak,
nola gaur bizi geran preso ta
antzian giñan libriak,
nola sei eun urte osotan
emengo mendi berdiak
errespetatzen zituben beti
Errege Fuero-zaliak,
nola larogei urte oietan
Candelas zanan semiak

jan dizkiguten ezur ta mami
lege zar paregabiak,
etziradenak, ez, ez, aienak
baizikan gure-guriak,
erdaldun gauzak diraden bañan
bi milloi bider obiak,
gurasotatik semeetara
pasatzen ziran dotiak,
nola osoro gorrotatutzen
ditudan beltzen katiak,
saltsan da tranpan bizi diraden
alper tzar *gozo*-jaliak,
Españi dena larrutu duten
lotsagarritzko baliak.
Nola ez ditut gaur maitatuko
gure Errege maitiak?
«¡Viva los Fueros!» zuri Urruñan
aditu ordurakoxen,
Aitor aundiya abiyatu zan
«Viva Don Jaime!» deitutzen.
«¡Viva España! ¡Viva D. Carlos!»
baziguzuben kantatzen,
iberotarren mendi guziyak
asi ziraden dantzatzen.
Zure biotzak nunbait orduban
nindubelako eskatzen,
abiya nedin Arbol santuban
martiriyua kontatzen,
gure orduko batzarre ura
gaur ere gaude gozatzen.
Zer egiyetan nuben kantatu
aritzan eriyotzia!
Eta zer poza izandu nuben
zurekin juntatutzia!

Zer milagro da «¡Viva don Jaime!»
biyotzetikan deitzia,
Fueroengatik Aitaren alde
sinisten badet illtzia?
Sinistatzen det zure aurrean
berriro kontatutzia,
zerengatikan ezin leiteken
onela bizitutzia,
degu sinisten urte bi barru
Kortian ikusitzia...
Agur, don Jaime biyotzekua,
txit ernai bizi zaitia!

R. A. O.

El Cántabro, 1894-VII-25.

¹*Ley de abolición de Fueros, 21 Julio 1876. (El Cántabro-ren oarra).*

**Igaz ere Ssagasta Ssagasta zan...
ta aurten berriz
sssa...gas...ta...ssa...gasta...**

Al dakizute masoi Sagastak
nola dakiyen kantatzen?
Nola ziguben lengo batian
gure Don Jaime tratatzen?
Nunbait ez daki egiazkorik
gaurdaño errespetatzen...
pipar-morro au gezurrarekin
dalako beti bizitzen.

Kalabera bat dala esaten!
Zeiñ? Ta... gure Jaimeri!
Bere etxean bildurrik gabe
dalako lasai ibilli.
Nun det gogoa? An det zankua,
Tirsokin erririk erri...
(Ta beste moduz ibillitzeko
etzaizka joango urte bi.)

Anka bat iya sepulturaren... ta
bestea dar-dar izuban,
gerri gogorak, bizkar okerra,
iran-suge bat buruban;
sudur zorrotza, kokotz luzia
tximu zarraren moduban...
Zenbatxe gizon osoaguak
dauden gaur kanposantuban!

Artuko luke bere semeak
gure Jaimeren patxara!
Baña... noiz eta nundikan izan
aitaren adarra bada?
Masoi kankallu agure zarra,
kalabera... bat ez al da,
sei bizi izan balitu ere
seitan ill bear zana?

Zeiñ diradela uste du onek
prinzipa katolikuak,
ta batez ere Margaritaren
titiyan azitakuak?
Karlosen seme-alaba denak
dirade Jaungoikozkuak,
beste prinzipa eta infantak
ez diran bezelakuak.

Kalaberia ez baldin balitz
naiz eskubiz, naiz ezkerrez,
naiz aurreraka, naiz atzeraka,
naiz kanpoztu eta barrunbez,
ez litzake gaur ibillituko
Napar aldian bildurrez,
bolsillu denak daukazgiyela
bete-betiak txandarmez.

Desterratuba dagoalarikan
gure printzipe argiya,
dadukalako, zuk ez bezela,
bere anima garbiya...
Giz-on batekin bakar-bakarrik
Españi negargarriya
ikusteakin, sartu diyote
liberal beltzai ziriya.

Bañan Karlosek ez ditu, ez, nai
putre zar ego gabiak,
bi milloi janta... kastigurikan
ez daukan gezur-zaliak;
besteren bizkar loditu diran
urre arrapatzaliak,...
sort-erri dena tragatu duten
guziyan ondatzaliak.

Bazekiyela nola zebillen
erririk erri Don Jaime!
(Laixter Madrillen dalako, beaz,
utziko ziyon txit libre.)
Fuero-zaliak tiroz illtzen... ta...
fuerista denon Errege...
(nastu egin naiz) bigar baletor
zeundeke beraren alde.

Bakar-bakarrik nai ditu onek
Gurutzekoan legiak,
gobernatzeko lapurtu gabe
gizon noble ta libriak;
eta nai ditu (ez gaurko gisan)
faltsokerizko kortiak...
Eta gañera errespetatu
euskaldun Fuero maitiak.

R. A.

El Cántabro, 1894-VIII-12.

Dakigunez, bolara artan Don Jaime Espaiñian zebillen. Orren kontra norbaitek zerbait esan edo idatzi egingo zuan, eta Ramos Azkaratek bertso aukin erantzuten dio.

Irungo, Donostiko eta Tolosako distrito edo barrutietako nere anaia maitagarriyai

Badakizute, anai maiteak
badatozela egunak,
eta portatu bear degula
botoak ditugubenak;
Gipuzkoa da berez leiala,
beltzak dirade zekenak,
Euskal Erriyen borrreruari
beti laguntzen diyenak,
gaizki ez bada ondo beñere
egiten ez dakitenak,
gure istori garbi-garbiya
zikintzen ari diranak,
Fuero santubak aztuazitzen
faltsiyan darabiltzanak,
eta gañera Ama Euskera
iya ukatu dutenak,
iberotarren bizi lasaia
lurpera daramatenak,
beste erriyak naiz gosiak ill
Donostiyakin daudenak,
uri ontako *Voz* paltsoakin
jokua darabiltenak,
dakitelarik ez diradela
irixten gure laurdenak.
Alaz guztiyaz beti jan... ta... jan,
beti jan... nai lutekeenak,
gure semiak soldadu eta...
libre dauzkate berenak,
euskal karlistak murrionakiñ
eta etxian beltzenak.
Ai! Ai! Zer merke saldu zituzten
gure Lege Zar zuzenak,
Errege leial bidezkoakin
anaiatutzen ziranak,
beti leialak ziradelako
izandu gure aitonak,

nola Gernikan ta Villafrankan
pruebak dauzkate emanak,
nola gordetzen ziraden emen
euskaldun lege laztanak.
Somorrostron, ai!, gure fueruen
Lonjinos izandu zanak,
asko gozatu gabetanikan
beste mundura joan zanak,
Lasala eta Lasalatxuak
zitubelako lagunak...
Arrezkeroztik mendi berdeak
daude triste ta illunak.
Len Sagasta-nak zirala bañan...
gaur dira Cánovas-enak?
Zer esan det nik? Jan ezkeroztik
diranak edozeñenak,
oiek, bai, oiek mundu ontako
legerik zarren-zarrenak,
lege txit garbi, lege txit santu,
libertaderik onenak,
gaurko moduban garrangarikan
iñundik etzeukatenak,
Donostiyako urkamendira
eraman zituzten denak,
beltzak agintzen dauden ezker
odol-ustutzen zeudenak;
pixkabanaka sartu dituzte
gañera plaga txarrenak,
kartzeletara bideak zuzen
txit zuzen dakizkitenak,
negarra eta desatsegiñak
besterik ez dakartenak,
erdal gaiztoen beldur dirala
baratzetako txermenak,
azak, letxubak eta patatak
ez dira jabiarenak,

Jainkoak egin zitubelako
 omen dira denonak.
 Aitagure bat errezatutzen
erderaz ez dakiyenak,
 zenbat itxu ta zenbatxe mutu,
 baldarrak eta errenak!
 Zer alderdiya sendatutzeko
 miñ-eriturik gaudenak!
 Eta dirade gure etsaiak
 guztiyak edo... geienak.
 Oien izkuntza, blasfemi zikiñ,
 oien nun-naiko esanak,
 zeñek pasatu beltzen modura
 euskaldun txarra ez danak?
 Ez gera, baña bagiña ere
 diamantezko kanpanak,
 beartsubari lagundutzeko
 izan naiatik etzanak,
 arta-buruban lekuban eman
 bear balira txanponak,
 aurki lirake baserritako
 emakume ta gizonak
 arrazoiakin gogor dantzatzen
 laneko atxur-kirtenak.
 Ernaitu gaiten, Aitor-en seme
 egiazkoak geranak,
 autsi ditzagun beti-betiko
 gobernatzalle baldanak.
 Goazen, bai, goazen botuetara
 bañan guziyok batera,
 Gipuzkoaren tragatzallea
 azpiyan ipiñitzera.
 Datozenian euskaldun txarrak
 botuak eskatutzero,
 esan bildurrik gabetanikan:
 «Zoazte emendik kalera
 zuen kontrara joateko gaude
 edozeiñ lekubetara,
 zergatikan gu ez guazen, ez,
 Luzbeltz-i lagundutzero,
 baizikan gure aitonen gisan
 fedian alde iltzero.

Gu traidoreak ez gera izan
 eta izango ez gera;
 zueiri nola botuak eman
 Fuero-zaliak bagera?
 Zuen semeak libre-libre ta
 gureak soldaduskara,
 gure gaitzari zuek egiten
 diyozutela algara...
 Zuek, bai, zuek ez baziñaten
 etzan Kain-en aldera,
 etzenduten, ez, zeok jarriko
 zeon anaien galera;
 eta gañera zuek, bai, beti
 joaten zerate jatera,
 zeon fabrikak beintzat al balitz
 osoro gizendutzero,
 etorri arren gaitz aundiyeñak
 Euskal Erriyen gañera,
 egunetikan egunetara
 daramatenak lurpera,
 naiz jarri emen gure nagusi
 zori gaiztoko erdera,
 naiz galdu oso fede santuba,
 fueruak eta euskera,
 naiz baletorke infernutikan
 Judas paltsua ber-bera,
 eta ipiñi au batetikan
 eta Fuerua bestera,
 adoratzera baietz zuek joan
 traidore onen aurrera?
 Beragatikan eragotziya
 dadukazute sarrera,
 etorritzia gure etxera
 zatozten gauzen eskera,
 zergatik laixter zabalduko dan
 Karlosek daukan bandera.

*Gatz-arriyetan aboztuaren
 amalaubian, 1894-garren urtian.*

Gaintxurisketak
El Cántabro, 1894-VIII-19

«*El Padre Verdades*»

izendatzen dan periodikoen direktore edo zuzendari,
León-go katedraleko kanonigo
Don Antonio Fernández Vitora jaunari

Zer kantatuko ote diyot nik
Cántabro-n gure Aitari?
Nere biyotzak beti kantatu
nai liyokena berari:
liberalkeri *candelas*-tarra
nola dagoan elbarri,
guziya jan ta tellatutikan
nola dan oso erori,
nolatan dagon porrokatuba
otso au ezur ta mami.
Ez aurreraka, ez atzeraka
nola ezin dan ibilli...
Nola dakiyen bere galera
berak dubela ekarri,
nolatan zaion agoniya
ordu tristea etorri.
Nola diyoten pizti gaiztuak
iya ill dala igerri,
nola putreak ta sapelatzak
gañetik zaizkan ezarri,
nola arkitu bearko duben
oriyen tripetan sarri...
Nola bedorrek *liberal* denak
(paltatu gabe iñori)
dizkigun beti bakoitza bere
aldarrietan ipiñi...
Naiz mestizuak, naiz traidoreak
nola diraden agiri,
nola jarraitzen diyon zintzoro
dotriña zerukoari,
Jaungoikoana Jaungoikoarentzat
emanaz zuzen berari,

Erregerena Erregerentzat
erabakiyaz txit garbi...
Nola *eroa* esaten diyen
gizonik zintzoenari,
bildurrik gabe beti egiya
zabaltzen ari danari;
nola *tontua* diyen deitutzen
piñezan dabilleni,
nola diyoten gorroto txarra
gure Errege jaunari,
Errege leial gobernatzalle
tranpirik ez dubenari,
egiyarekiñ bizi nai duben
printzipe bidezkoari,
Eleizan alde, Fueroen alde
iltzeko dagoanari...
Nola arkitu nintekean, bai!,
bedorren gisan neroni,
presondegiyan katez lotuta
begira Jesu-Kristori,
oraiñ bezela... edo bestela
kantatzen naizela ari.
Bizi bat daukat, bañan banintu
baten lekuban amabi,
pertsegituko baninduteke
beñ batez buru-belarri,
«*Viva Vitora!*» deitzen detala
galdu bearko naute ni,
zergatik zori onenekua¹
gaur arkitzen dan bedorri.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1894-VIII-23.

¹ *Bienaventurados los que padecen persecución por la...* (*El Cántabro*-ren oarra.)

Liberala ta fuerista?... Adarra!

Zer desgraziya dan euskaldun bat
liberal izendatzia!

Zer samiña dan otso onekin
bildotxak txoratutzia!

Zer tristea dan paper paltsuak
bakarrik irakurtzia,
eta lau *jauntxo* tunanterekin
pobriak piyatutzia!

Len *liberala* deitzen zitzaion
ematen zekiyenari,
gaur *liberala* diye esaten
lapurtzen ari danari;
osoro gaizki begiratutzen
dakiye zuzenenari,
ta meritubak dizte billatzen
traidore paltsoenari.

Gipuzkoako *aberatsetan*
jarri gaitean begira,
(gure istori paregabea
irakurriyak... badira):
erdal gaiztoen alde zergatik
orrela ibiltzen dira,
puzunirikan txarren-txarrena
ekartzen Euskal Errira?

Larogei ta bat urte dirade
Debako erri batian
Jabier Castaños agertu zala
juntero aien aurrian:¹
lege paltsua juratu bazan
negargarrizko urtian,
arrezkeroztik gaude, bai!, gaude
erdal gaiztoen mendian.

Orduban gure Fuero gaixuak
lotu zituzten katian,
eta gaur illda arkitzen dira
kanposantura bidian;
geroztik goaz beti galdutzen
zorigaiztoko legian,
Kadizko Korte aien semeak
utzi nai ezik pakian.

Euskal Erriko *liberal* oiek
balira Fuero-zaliak...
gure aitonak ziran bezela
leialak eta nobliak,
ez lituzteke, ez, maitatuko
etoi paltsoen legiak,
jakiñik beren etxian askoz...
daduzkatela obiak.

Utsa balira erdal legiak
Patriya salbatutzeko!
Bañan sortubak nola diraden
bazar guziyak illtzeko,
ta kapaz dira Euskal Erriyak
guziro tragatutzeko,
ez dakit nola duten garboa
botuak eskatutzeko.

Nola ta nondik izan leiteke
liberala ta fuerista,
euskaldun txarrak erdal beltzakin
batian badarabiltza?
Zergatik dute gorrotatutzen
euskal piña ta karlista?
au sumatutzen, anai maitiak
ez da, ez, biziro gaitza.

Pagatu bear ez gendukenak
errialtxo bat bakarrik,
ez zedulikan, ez kintarikan
ez eta erdal petxarik...
Etzan, ez, emen begiz ikusten
sillatutako paperik,
ta ez genduben zigarroentzat
gaurko fabrika bearrik.

Euskal Erriko bilguma² denak
izaten ziran libriak,
Diputaziyo guriak berriz
batere kate gabiak;
ta alkatiak ez gaur bezela
erdal gaitzakin eriak,
erriyak berak aukeratuta
ziran alako nobliak.

Geok nonbratzen ginduzen berriz
eskoletako maisubak,
ez gaurko gisan *ereje* eta
erdaldun amorratubak;
galdu ditezen euskera eta
euskaldun erri santubak,
guk genduzkagun eskubidiak
dauzkate arrapatubak.

Karabinero eta txandarme,
juzgadu erderazkuak...
Irunen dagon aduana ta,,,
gañera gañerakuak;
pase forala kendutzia ta...
ez dira euskerazkuak,
baizik dirade Esparterotxo³
zanaren erregaluak.

Gaztelaniko lege paltsuai
libertadia deitzia,
ez al da gure Fuero maitiak
osoro ukatutzia?
Nere anaia maitagarriyak,
au ez da bizitutzia!
Au da gu *martir* ill azi eta
jauntxuak gizendutzia.

Botoen eske datozenian
ekin, bai, bildurrik gabe:
«Itz gutxirekiñ alde egiteaz...
egin zazute mesede;
daukagulako guk *Aitatxo* bat
euskaldun Fueroen alde...
ez genentzake iñola saldu
laxter emen dan Errege».

Gaiñtxurisketak

El Cántabro, 1894-VIII-26

Ramos Azkarate il eta andik bi urtera, 1906-VII-10-ean, sail ontako bost bertso atera zituan *El Correo de Guipúzcoa*-k: 1, 5, 8, 9 eta 13-garrena; baiña aitatzerik merezi duan aldaketarik gabe.

¹ *Primer paso del liberalismo en esta provincia haciéndole jurar a la Junta foral la Constitución de 1812, como si nosotros no la tuviéramos mejor en nuestra propia casa. (El Cántabro-ren oarra.)*

² *Ayuntamientos. (Id.)*

³ *Siendo Regente Espartero el año 1841, por el amor profundo que profesaba a este país, tuvo la galantería de hacernos tan preciosísimos regalos en desacuerdo con lo prometido por él mismo pocos años antes. Así sabe cumplir las promesas el liberalismo. (Id.)*

Arakist-aiñ-ek, Arakist-aiñ-ek

omen daduka famia
beria duela, beria duela
Nocedal zanan jendia.

Jesu-Kristoren denbora artan
baziran fariseuak,
ote ziraden gaurko *intrigo*
beltz oiek bezin gaiztuak?
Diradelarik txit traidoriak,
diralarikan paltsuak,...
ez al dirade (beintzat geienak)
Judasen erederuak?

Munduba mundu dan ezkeroztik
sekta bat beltzagorikan
al da etorri Españiyara
beñere Afrikatikan?
Al da ikusi etorri danik
pesterik Asiatikan,
Mesias-tarrak naspillatzeko
zomorro txarragorikan?

Bost puskeetan partiturikan
omen daukagu munduba,
kontatu zagon *pizti* oriyek
daukela menderatuba.
Ote genduke ezagutuko
Kristoren fede santuba,
oiek naikua izan ezker
zori gaiztoko diruba?

Darabizkiten pauso txarretan
begira jarri gaitian,
(dozena t'erdi ez diralarik
gure Probentzi maitian):
oiek, bai, oiek elkartu dira
Luzbeltz-tarrakin batian,
gizondiyaren salbatzalleak
lur azpiratu nayian.

Liberal beltzak ezin galdurik
dabiltza gure bandera,
beltz-intriguak darabilkite
joku alper au ber-bera.
A, zer polliki batzartzen diran
Satrustegikin batera!...
Ez al zaiote gogoratutzen
gure Fueruen galera'?

Agindu onak aztuta eta...
jurementubak salduta!...
Testimoniyo guztiz paltsuak
jateagatik sortuta!...
Lizarriturry, Laffite eta
Mercader-ekin nastuta...
Ez al dabiltza lotsa galdurik
lengo maskarak kenduta?

Gure banderan lenengo itza
beti da Eleizarena,
da bigarren go guk bakarrikan
salbatuko degubena.
Iruigarrena da Españaia,
beltzak saldu nai dutena;
da laugarrena traidore oiek
jan-truke utzi zutena.

Jaungoikoa bakar-bakarrik
«bastante omen zutela!»,
etzalakuan argitarako
zerabilkiten pastela.
Lenaz gañera ez da ikusi
Cánovas-tarrak dirala?
Miramar-eko familiyakin
aspaldi... etzan zirala?

Moderatubengatikan naski
dago Eleiza lotuba,
ontasun denak lapurtu eta
gañera pertsegituba;
oiek ondatu digute beti
euskaldun erri santuba,
berarengatik partidu beltz au
dago txit kondenatuba.

Gure Erregek eskribuetan
kantatzen digu garbiro
Eleizarentzat pake santuba
nai lukiala lenengo.
Katolikuen batasuna ta...
Fuero maitiak urrengo,
ta ez gerala Madrillen mende
gauden bezela egongo.

Eta nik oraiñ esan nai diyet
intrigo *pastel* oieri,
zergatik gerra egiten diyen
Errege bidezkoari.
Zergatikan len pobre ziranak
gaur dauden guri... ta guri,
eta txit beltzak diradelako
amalautatik amabi!

Alper-alperrik lapurtu zuten
integruaren kapia,
Arakist-aiñ-ek oraiñ badaki
zer dan, zer, oien fedia.
Txuriyak izan ez diradenak
beltzak dirade ordia...
Paltso bizitu ezpaziraden
askozaz zuten obia.

Bertandegi-n Agor-illaren 19-an.
Gaiñtxurisketak
El Cántabro, 1894-IX-23.

¹La funesta ley de 21 de Julio fue decretada en tiempo de Cánovas, correligionario de Satrústegui. (*El Cántabro-ren oarra*).

Arakist-aiñ-ek, Arakist-aiñ-ek

omen daduka famia
beria duela, beria duela
Nocedal zanan jendia.
Ai! Ai Maroto maitia!
«Turroia eta pakia».

Don Karloseri gerra egiten
dakiten *katolikuak*...
ta batez ere Ama Euskeran
titiyan azitakuak,
ez balirake diru ta guzi
jatorriz *beltzetakuak*...
nundikan izan Cánovas eta
Sagastan alderdikuak?

Nola bata ta ala besteak
euskaldun erri gaxua,
libre jaiua, libre oituba,
zintzua eta gozua,
biyak dantzatzen diye gañetik
Luzbeltz gaiztoen mazua,
infenu txar bat biurtu dedin
munduko paradisua.

Uztarripean egon gabeko
ibero mendi zar-zarrak,
libertadia nai dubenentzat
giyatzat zeuden izarrak,
ez erromatar, ez sarrazeno,
ain gutxi *arabetarrak,*
etziran gauza desegiteko
gure *ait-onen* bizarrak.

Zeñengatikan dauzkagu emen
daukazkiguben negarrak?
Aundiyaguak diradelako
erdaldun beltzen indarrak?
Ez balirake *euskaldun txarrak*
judaskeriyen azkarrak,...
etziraden, ez, emen sartuko
Luteron seme baldarrak.

Arakist aiñ-ek! Arakist-aiñ-ek
dakiyan aña jakinta...
formatu zuben partidu beltza
Fuero-zalia nundik da'?
Onen liburu *pare gabiak*
irakurritzen jarrita...
esan leiteke: «*Gizon aundi au*
nai ta nai ez da fuerista».

Bañan *al dana* ekarritzia
ta... orrelako kontubak,
euskera maite dubenarentzat
daude txit debekatubak.
Aitarren seme naiz gerrarako
gaudela obligatubak²
esaten digu Gipuzkoako
Fuero zar bedeiñkatubak.

Fueroak eta... doña Kristina
ez al dirade aserre?
Ez al gaude gaur onekiñ preso
bizitzen giñanak libre?
Guztiz *Señora birtuosakin*
kontentuz baldin badaude,...
beaz konforme dira arkitzen
batere Fuerorik gabe.

Dozena batek jateagatik
millakak ondatutzia...
Au da, bai, au da euskal odola
garbiro ukatutzia.
Au da euskaldun glori aundiyak
paltsiyan lurperatzia,
au da, bai, gure Ama Euskera
euskalak urkatutzia.

Sei-eun urte oso-osotan
Errege bidezkoakin
(iñoiz auziyak izanagatik)
anaitzen giñan aiekin.
Kadizko otso gose-goseak
beñ sartu ziran gurekiñ...
Euskal paltsuak diran bitartez
Lege santubak dira ill.

Ama Eleiza sendotutzeko
ez dago Karlos besterik,
Fuero maitiak errespetatzen
daki, bai, onek bakarrik.
Ez da, ez, jaiio Satrustegi-rik,
Toca ta Arakist-aiñ-ik,
gure Erregen juramentuba
gezurtatuko dubenik.

Bai! Bai! Alonso zortzigarrenak
milla berreun urteetan
artu ginduzen gure *ait-onak*
nai zuten kondiziotan;
gauden bezela oso etzanak
Aita Santuban oñetan,
gerade fiyo modu berian
Errege bidezkoetan.

Katolikuak nola diraden
Gipuzkoaren legiak,
katolikuen etsaiak dira
liberal protestantiak;
nai duben gisan erantzun beza
intrigo beltzen jabiak,
bageñekiyen zein da nor ziran
traidore miserabliak!

Itziarko Ama Birjiñiaren aurrian
Agorraren 27-an.
Lizarraga-berriak
El Cántabro, 1894-IX-30.

¹ ¡Unión Vascongada! Compañía arrendataria del turrón. (*El Cántabro*-ren oarra.)
² El derecho de rechazar a la fuerza con la fuerza. (Capítulo 2º, título 29 del Fuero.
(*Id.*)

Liberal katoliko mestizuai eta intrigo bezubai

Karlistai gerra egiten diyen
liberal katolikuak,
bere eskutik utzita dauzka
Jaungoiko egiazkuak;
bestela nola izan leitezke
Señoran banderakuak,
ez balirake (beintzat geienak)
Opas etoian primuak?

Obispo Opas traidore ura
moroen alde zan etzan,
gaurko Cabrera kristau paltsua
ber-bera dabillen gisan,
aurrenekua arabetarrai
laguntzen ibilli bazan,
bigarregua dago obispo
luteranuen elizan.

Katolikuai gerra jartzeko
al da izandu etsairik,
masoiak eta protestantiak
diraden bezelakorik?
Opasengandik Cabrerangana
al dago diferentzirik,
onek *eliza* tabernaren bat
idukitzia besterik?

Zeñengatikan daude gozaten
ernegatubak eliza?¹
Nork samindu du ezpada beltzak
Aita Santuban biyotza?
Nork sartu diyo Monecillo-ri
giyarreraño arantza?
Nork ez du entzun Nunziyuakin
obispo guztiyen otsa?

Gure aitonak lurren azpiyan
arkitzen dira negarrez,
arriturikan nolatan bete
geran orrela traidorez;
liberal pizti katolikuak
esan nazute mesedez:
gure asabak ez al ziraden
baliyatutzen indarrez?

Gaur don Karlosek daukan ban
dera
besterik agertu etzan,
zer pasako zan Covadonga-tik
Pelaio asi ez bazan?
Munuza, Opas, Conde Julian
alferrik tranpan zebilltzan,
moro-taldien ondamendiya
andikan abiyatu zan.

Gure aitona kosta zitzaizten
zazpi gizaldi osuak
Españi ontan desegitia
siñismen paltso-paltsoak.
Lagun egiñaz Aitarren seme
euskaldun erri gozuak,
geroz goi-goian kantatutzen du
bandera gloriosuak.

Zenbat neke ta zenbat naigabe,
zenbatxe jende galduta,
jarri zan noizbait gure Patriya
egiyak bekeinkatuta!
Bidez zetozen errege aiek
bandera ontan sartuta,
katolikuen bat-tasunakin
txit geunden aberastuta.

Malkarrota bat salbatutzeko
a zer nolako maiztarrak
artu dituben dirututzeko
Sagasta bizkar okerrak!
Zer alderdiya ixilldutzeko
Sort-erriyaren negarrak,
emen landatzen lajatutzeko
infernutarren belarrak!

Katolikuen bat-tasuna, bai,
daukagu gure banderan,
bandera onek berak nai diozka
jabeai beria eman.
Patriyarekin gero errege
naiz pakian ta naiz gerran,
zergatik lauren alde bizi ta²
illtzeko jayuaq geran.

Eleizarenak gera lenengo,
fuero-zaliak urrena,
au da euskaldun egiyazkuak
kantatu bear dubena.
Guk ez degu nai Cánovas-enik
ez eta Nocedal-ena,
baizik nai degu gurasotatik
deguben dote zarrena.

Nondik eta noiz izan leitezke
fuero santuben zaliak
naiz Cánovas-en, naiz Sagastaren,
naiz Nocedal-en jendiak?
Fuerotatikan kanpua nola
dauzkagun protestantiak,
alferrik dira ezer ez danan
birtute pare gabiak.

Bertandegiko ibaian, Urriaren 10-an.

Gaiñtxurisketak

El Cántabro, 1894-X-21.

¹ *Por Cánovas, Sagasta y compañía. (El Cántabro-ren oarra.)*

² *Dios, Fueros, Patria y Rey. (Id.)*

Don Karlos Borgon-goari bere egunian

Atoz, bai, atoz azkar onuntza,
buruzari txit noblia,
atoz agudo bildotxetara,
artzai parerik gabia;
atoz len-bait-len arren ta arren,
egiyan agertzallia,
oiñperatzera liberalkeri
gezurran estaltzallia.

Beneziatik diz-diz egiñaz
argitzen zeran izarra,
banderarikan santubenaren
abanderatu bakarra,
etoi guziyak gorrotatutzen
zaituzten Aita azkarra,
entzuten dezu zure bildotxak
egiten dauden negarra.

Oni etzaio pakia deitzen
baizikan gerra biziya,
otso beltz onek ito nai luke
zure artalde txuriya.
Bi kastakoak alde batetik,
bestetik masoneriya,
gu elbarritzen abiyatu da
deabrukeri guziya.

Baldin ta baldin piñak balira
Opas-en seme paltsuak,
lurpera laxter joan bear luke
Luzbeltz-en anai otsuak.
Bañan gizentzen nola daukazkin
gau eta egun turroi gozuak,
autsi zaizkate, noizbait bear-da,
gure kontrako lazuak.

Zer uste zuten Opas-tar oiek
zer dala juez jartzia?
Zala erreza Elizarekin
jostatzen ibillitzia?
Al dute uste bastante dala
nolanai eskribatzia,
ta gezurrari dala egiya
judaskeriyan deitzia?

Leku onian nai zuten jarri
Ama Eleizan besua,
beso doaitsu, beso jakintsu,
kristau fin oso-osua!
Aita Santuban niniya eta
gure guraso zintzua,
Luterotarrak autsi dituen
Aitona gloriosua!

Karlistai gerra egiteakin
bete ezkeroz zakuba,
zertan abotan artutzen dute
orrela Aita Santuba?
onek ez dauka gure dotriña
ezertan debekatuba,
bañan bai beltzen gezurrezkua
guziro kondenatuba.

Gure bandera maitagarriya,
Covadonga-tik asita,
dago zeruko, dago munduko
perla ederrez jantzita.
Balentin Gómez gizaraxua
ez ote dago etsita
nola dagoan kondenatuba
lengo bandera utzita?

Ez du Eleizak kondenatu ta
nola kondena lezake?
Zeñek egin du Eleizan alde
gure banderak ainbeste?
Fede oneko Nocedal-tarrak,
itxubak ez bazerate,
nora zoazten Erramontxokin,
arren kontura zaitezte!

Katolikuen bat-tasuna ta
gañera gure fueruak
ikusten dira gure banderan
bi perla aurrenekuak;
irugarrena ta laugarrena
dirade Eleizakuak,
gure Laurak-bat miragarriyak
diraden bezelakuak.

Cánovas, Pidal, Gómez, Nocedal
dabiltza alper-alperrik,
emen ikusten diranak dira
bi bide bakar-bakarrik;
ez da sortu ta ez da sortuko
gure bandera besterik,
baldin biraldu nai badituzte
protestantiak emendik.

Gaintxurisketak
El Cántabro, 1894-XI-4

Txiru-txiru-li ta miru-miru-li kanariyo karlista kantari

Guztiz *paltsuak* eta *gaiztuak*
al diran *puru* batzuek,
pixtuko balitz esango luke
zori gaiztoko Opas-ek;
luke esango infernutikan
pozarez pozaz Judas-ek,
baldiñ lajako baliyoke gaur
eskribitutzen Luzbeltz-ek.

Baldin zulatzen baditu iñork
alako moduz... kantetan,
ez pentsa oiek defendituko
dirala arrazoietan.
Morayta-n gisan asitzen dira
txit gogor tribunaletan,
naiz kalabaza beti eraman
gertatu diran danetan.

Dala bata ta dala bestia
beñepeñ oiek zer diran,
Ramuntxon alde jarri orduko
garbiro ikusten ziran.
Eta onekin nola piyatu
karlistak izan baziran?
Orain *purutzat* dauden oriyek
iñoiz karlistak etziran.

Beti asitzen diradelako
ez buru eta ez buztan,...
ez biderikan, ez arrazoirik
ez daukatela ezertan,
lotsan apur bat ez dutelarik
politikako gauzetan,
beartsu batek laja zituben
lengo batian lo... tse... tan.

Karlisten kontra buru-belarri
portatzen dira piñezan,
(zergatik Anton Cánovas-ekin
karlistak ez darabiltzan).
Balentin Gómez izandubakin
elkarren alde zebiltzan,
apasta guztiz paltsuarekin
alperrikako arrantzan.

Gizon beartsu Fuero-zaliak
izandu zuben moduba,
lege santubak defenditu ta
ez izateko lotuba;
oien pauso ta bitartekuak,
ukenduba ta diruba.
etziran gauza mutututzeko
kanariyuan kantuba.

Zer pasako zan Fuero santubak
egon baziran agintzen?
Ote ziraden atrebituko
itzikan eteratutzen?
Errege leial bidezkuakin
diranak paltso portatzen...
lanikan asko izango zuten
urkamentitik libratzen.

Salmerón-etik abiyatuta
Gómez difuntuba arte...
oriyek bañan *puru* batzubek
tranpa geiago dabilte;
naiz sort-erriyak malkarrot egin
oiek turroia badute,
naiz masoiez ta naiz protestantez
Españi guziya bete.

Osoro garbi kantatzen ditu
gure Fueruak egiyak:
lekurik eman gabetanikan
«illtzeko sabel zuriyak».
O zer justubak izandu ziran
gure Aitona argiyak,
aiñ zuzen egin zituzteneko
lege fin maitagarriyak!

Euskalduna ta... katolikua,
eta karlisten etsaia?
Beñepeñ bada euskerarentzat
Opas añeko etoia.
Obea luke batek, bai!, izan
Judasen botan takoia,
ta ez ibilli gezurran alde
darabilkiten timoia¹.

Donostiyako Gaztelu-pian, Aza-
ruaren 8-an.

Ibarzelaietak
El Cántabro, 1894-XI-11.

¹ ¡A no enfadarse, señores! Todo hablo políticamente. (*El Cántabro*-ren oarra).

D. Felix Sardá eta Salvany jaunari

D. Felix Sardá eta Salvany,
osoro gorde al zera?
Agertu zaitetz koroiturikan
munduban, bai, bazera,
zergatik zure *apostoluak*
egiten duten papera
da Judas beltzak Jesu-Kristori
egin ziyona ber-bera.

Zure dotriñan zabaltzalleak
eta kantari aundiyak
etziraden ta ez dirade gaur
purubak edo garbiyak,
baizikan dira janaren billa
ibiltzen diran *txoriyak*,
zure liburu miragarriya
saldu zizuten piztiyak.

«Bai, pekatu da; bai, pekatu da
liberalkeri guziya»
etzan nekatzen beti kantatzen
albist txirrixkal txikiya.
Ez eta ere onen moduban
Santxintxo txantxan-gorriya,
bizi-bizirik zeruban dagon
yo solus sanctus aundiya.

Biyak illtzeko prestatzen ziran
zedorren dotriñan alde,
lenenguak beñ kantatzen zuben:
«Nai banazute gaur erre».
Bigarrengiak, ta ez txantxetan,
(aserre gabe batere)
zuben kantatzen: «Kantatuko det
zepuan lotuta ere».

Martiri asko izanagatik
Jesu-Kristoren taldiak,
oien kantubak etzituzten, ez,
sinistatuzten jendiak.
Nola zebiltzan *señoran* alde
zure azpiyan gordiak,
ziran azaldu agudo asko
zedorren salduzalliak.

Boto batzuben izandu ziran
gure barruti garbiyan,
bat ibilli zan botuen billa
liberal biyen erdiyan,
katoliko bat derrotatzeko
ler egiteko zoriyan,
berarekin gaur iru beltz dauden
zori oneko erriyan.

Gizaraxua noski agudo
ikusen zuten negarrez,
esanaz: «Nere bildotx guziyak
botatu ditek aldrebes.
Emakumiak ere kontra ta...
eta... nolako balorez?
Oiek maskara kenduta nago
bete-betia oriñez.

Au agiriyan ibillitu zan,
besteak berriz gordeta;
(aztu egin zait) onen anaiak
ere bazuben kopeta,
ibillitzeko Goitian alde
mendirik mendi korrika;
bañan gaur denak ari zaizkitzu
zedorri arri tiraka.

Batetikan ni beltza izan ta
bestetik beltza nagusi...
(Goitiak galdu zubelarikan
gelditu nintzan itxusi).
Nintuben bada Nozedal eta
Gazetak tranpiyan utzi,
bestela ezin nintekelako
Karlosen erriyan bizi».

Gañerakoan gogora zaitte,
aitatxo maitagarriya,
zuk pekatuba dala probatzen
dezu liberalkeriya.
Eta Eleizak ontzat dadukan
liburu zoragarriya,
zer dala uste dezu oientzat
beren etsai txit larriya?

Jaun onek bezin garbi oraindik
al diyo iñork itz-egin?
Berrogei ta amar duro aundiyak
ematen diye nunbait miñ.
Tunelian ta... nagusiyakin
saltsan ez baldin badabill,
«Bai, pekatu da» kantatu baño
naiago duela gaur ill?

Amairutatikan bat traidorea
irten zitzaion Jesusi,
eta zureztat etera dira
amalautatikan zazpi.
Karlístak bakar-bakar-bakarrík
zurekin dirade bizi,
oiek okela janaz daude gaur,
Gómez paltsua eta guzi.

Erruki-mendiyan, Azaruaren 15-an.

Bidaurretak

El Cántabro, 1894-XI-18.

Masoi izandu edo... katoliko gezurrezkoai

Don Bi-milloien arrantzalia,
don Masoi konbertituba,
don Katoliko apostoliko,
don Erromatar dontsuba;
doña Isabel bigarrenaren
etsai txit pintarratuba,
don Amadeon, don Alfonsoren
soldadu leial justuba,⁽²⁾
doña Kristina alargunaren
guzizko santu artuba,
sei bizi izan eta sei bider
iltzeko kondenatuba;
don Piper-morro Erriojako
piperrez bedeinkatuba,
don Txandarmien bolsillubetan
zaudena beti sartuba;
Donostiyan beiñ kulpa gabeai
beren biziya kenduba,
Santo Domingon sarjento aiek
ausardiz fusilatuba.
Villacampa bat ere illtzeko
zeukazun apuntatuba,
bañan arekin egin zenuben
masoi guziyen jokuba.
Zori gaiztoan ekartzallea
eta onaren malluba,
beti tranpiyan bizi zeraden
gezur-jariyo kaikuba;
Sort-erriyaren bizkarretikan
zaudena aberastuba,
Naparrua bat nai dezubena
ipiñi katez lotuba;
erregalatu nai ziyozuke
erdaldun bizi-moduba?

Euskaldun erri maitagarriya
dadukazuna galduba,
libertaderik paltsoenakin
guziro kastigatuba;
bañan ez uste daukazutela
oraiñdik oiñperatuba,
zerengatikan ez dan beñere
izandu menderatuba,
Don Karlosekin anaiatzen dan
Laurak-bat santu-santuba;
zauden ezkeru zauden moduban
okertuba ta zartuba,
zan Juan Arana diña ta dana
bezela aguretuba,
zauzkan ezkeru gure Patriyak
osoro gorrotatuba;
diyozularik Luterotarra
egiñ Madrillen lekuba,
diyozun gisan (baldin bazaude)
Elizaz sinistatuba,
eta Morayta-n sekta gaiztotik
benetan eskapatuba...
Lotsagarrizko malkarrotaren
aita madarikatuba...
Badatorkizu (guri bezela)
eriotzako orduba,
eta dakizu badiradela
infernuba ta zeruba...
Berarengatik ematerako
Jaungoikoari kontuba,
beltza izana damu dezula
egizu juramentuba,
zergatik Ama Eleiza Santak
dadukan debekatuba,

laxter kantatu bearko dezu:
«Agur, ai, agur, munduba!».
Bañan lenbizi egin eiguzu
onela testamentuba:
beren jabetan partitutzeko
dezuben zaku-diruba;
gañerakuan Pedro Boterok
artuko dizu pultsuba.

Gaiñ-txurisketan, Azaruaren 23-an.

Ibarluzea-goikoak

El Cántabro, 1894-XI-25

Oroitza bat
D. Ramon Olazabal eta Garmendiari,
egilliak berak kantatuba,
Aizkibelen zortzikuan,
Belauntzan, Olabideko bentan,
Urriaren 25-an, 1894-garren urtian.

Olazabalko Ramon,
Ibartar leiala,
dakigu Amerikan
sendotu ziñala.
Badakigu beti zu
portatu zerala,
egundaño dollorra
izan etzerala.

Zure gurasoakin
zere senidiak
maite dituzubela
badaki jendiak.
Kuñado ta kuñata
ta beste aidiak
biyotzaren erdiyan
dauzkatzu gordiak.

Amerikanarekin
ezkondubagatik,
Euskal Erriya kentzen
etzaizu burutik.
Oraiñ joan bear dezu
munduko zerutik,
zu jaio eta azi
ziñan seaskatik?

Urez auzkaldetikan
ogei ta sei urte!
Etzera oraiñdikan
Amerikaz bete?
Zer da izanagatik
zuk señora maite,
Paulak ez baldin badu
bizi nai aparte?

Zer gauza oberikan
gizonan erriyan
bizitutzia bañan
bere familiyan?
Intxausti deritzaion
baserri argiyan
zerate, bai, biziko
zeruban erdiyan.

Bañan ez da erraza
golpez gelditzia,
Paulan ama ta aizpak
nagarrez uztia.
Ez eta kaltegarri
anbat gertatzia,
obea da askozaz
denok etortzia.

Berarengatik bada
urrengo aldiyan
etorri, bai, guziyok
udara berriyan,
esanaz: «Emen gatoz
atsegiñ aundiyan,
bizi eta illtzera
Aitorren erriyan».

Agur, Olazabalko
Ramontxo maitia;
agur, doña Paulatxo,
señora zuria.
Agur, o illobatxo
parerik gabia,
arren, ez bada aztu
Euskaldun Erria.

Ramos Azkarate-kuak
El Cántabro, 1894-XII-8

Aspaldiko partez...

himno nabarran

Nosedar kortian
badabill lanian
katu zar bat erbitzat
pasatu nayian. Bai!
Etzera lan ortan
oraiñ asiya,
beltzen *arrateran*
zauden piztiya.
Ez ote zerade zu
masoien ixpiya,
Morayta aita jaun
mandatariya?
A! Aitaren seme
tranpaz josiya,
Jainkoak eskutik
zauzka utziya.

Ezin dezu etsi
oraindikan noski!
nola zu diputadu
zintezke iritxi? Noiz?
Akta anka motza
dago elbarri,
zu eta zurien
desonragarri.
Ez diyo kulparikan
ematen besteri,
bakarrik Azpeitiko
arakiñari.
Mediku paltsuak
billatu arren,
beste anka moztu
bear diye len.

Llorens eta Mella-k,
gerrero abillak,
koitadubari joko
dizte ill-ezkillak. Dan!...
Bere entierroz
enkargatzen naiz,
ez naizelarikan
praile ta apaiz.
Intriguen moduban
portatzen ez banaiz,
tribunalera neri
deitu... deitu... maiz.
Ildakoarekiñ
nola portatu...
*Sánchez Ascenziyok*¹
ziran markatu.

Zumalakarregi,
entzun nazu neri:
traidorea esaten
zeñi eta zuri! Bai!
Jainkoan legeko
mandamentuban,
zortzigarenguak
diyon moduban...
pagatu bearco du,
bai, beste munduban,
estu-estu artutzen
duten orduban.
Don Tomas etzan, ez,
ez, traidoria,
baizik traidorien
garaitzallia.

Fedearen alde
bizitu zan galde,
galde mantxarik izan
al zuben beñere. E!
Irakurri onen
testamentuba,
bere istoriyan
argiratuba.
Intriguak gizentzen
badute zakuba,
onek sendotzen zuben
kausa santuba.
*Ezer utzi gabe
Zegaman ill zan,
santu martiri bat
illtzen dan gisan.*

Zalarik pobria
soldadu noblia,
bañan da kondia ta
gañera dukia. Bai!
Eleizan daduka
oroit-garriya,
zan bezelakoxe
txuri-txuriya.
Nosedar-keriyaren
etsai txit aundiya,
dago defenditutzen
Euskal Erriya.
*Erdoirik bageko
Aita garbiya
da, bai, gure izar
dizdiz-zariya.*

Tomasen aidia
ez da kobardia,
da bera bezelaxen
balorez betia. Bai!
Zubizarreta da
primo beria,
gure diputadu
mantxa gabia.
Egiya defenditzen
dabillen semia,
da Nosedar-en tranpan
agertzallia.
*Au izan ez bazan
aspalditikan,
katu zarra zegon
pasaturikan.*

Gezurra andikan,
tranpa emendikan,
oiek ez darabilte
beste biderikan. Ez!
Izen ederrena
lapurturikan,
Voltaire-n dotriña
ikasirikan,
edozein gauza esan
Karlosengatikan,
ez dedin, ez, paltatu
jatekorikan.
*Intriguak eta
bi kastakuak
dira Abarzuzan
eskolakuak.*

R.

El Cántabro, 1894-XII-16

¹ Si mal no recuerdo, este señor, que ha sido apaleado varias veces por báculos pastorales, tuvo la osadía de llamarle traidor en su periódico, mal llamado El Fuerista, al lealísimo e insigne guerrero Sr. Zumalacarregi. (*El Cántabro*-ren oarra.)

Ramos Azkaratekuari kapoia galdu; billatutzen duanak koipia badu.

Kapoi txar petral batek
goizian goizetik
zalapartan ni jaiki
azi nau oietik.
Banebillen segitzen
korrika atzetik,
esanaz: «Arrapatzen
baut gaur zintzurretik,
ez dek iges egingo
berriz iskindoitik!».

Aurreko tellatura
baiziran egatu,
andik kantatzen ziran
neri *kukurruku*.
Nere burubarekin
nintzan aserratu,
ezin zitzaidalako
bada bururatu
ain bertan ikusten da
nola arrapatu.

Begira nengoala
gabiraian gisan,
desleiala zebillen
kantari ta dantzan.
Nik uste gabetanik
andik ere joan zan,
esan nuben: «Alferrik
nebillék arrantzan,
ezpañak leguntzeko
ire esperantzan!».

Nola beste kapoirik
ez detan ganbaran,
benturaz alferrikan
gogoak dit eman
galdetzia Euskaldun
Erriyan ote dan.
Amaika pazientzi
bear da eraman!
Kapoia banuben ta...
iñola ezin jan!

Oraingo galderari
erantzun beiote:
nere kapoi berdea
ikusi al dute?
Edo nuntsu ote dan
beok al dakite?
Zer adituko detan
Tolosan naukate,
kanpoiaren antsiyan
triste... triste... triste...

Ikara ontatikan
illko banintzake,
ondorean jendiak
zer esango luke?
Argatikan jabiak
agintzen diyote:
kapoiari zer egin
billatzen badute,
kapillan segituban
sartu bear dute.

Mokadurikan gabe
iduki bezate,
bere testamentuba
ondo egin arte.
Au ongi egitian
nai badute bete,
lotubaz anketatik
txit gogor bi kate...
zazpi bat eskupeta
baldin badituzte,
(ez dalarik ikusi
beste orrenbeste),
zazpi tiro gogorrak
eman bezaizkate.
Zazpi tiratzalliak
ez badute kalte,
denbora gutxi barru
dirade alkate,
zergatikan Sagastak
naun osoro maite.

Tolosan, Abendubaren 23-an.

Ramos Azkaratekua

El Cántabro, 1894-XII-23

Arkibidea

Ramos Azkarate Otegi (1847 - 1904)

Agirietako argibideak	9
Lanbidea	10
Iñauterietako bertsoak, kanta-paperak eta esku-idatziak	12
<i>Euskal-Erria</i>	13
<i>El Cántabro</i>	14
Auzitara	17
<i>Pottaje</i> -ren eraso	24
<i>El Cántabro</i> -ren bukaera	25
Adurriaga anaien esku-idatziak	27
<i>El Correo de Guipúzcoa</i>	28
Zuzendari	28
Auzitegira berriz ere	29
Antzerkigille	29
Gaixorik	30
Erruki Etxean	33
Il-berria	34
Gure iritzi batzuk	36

Esku-idatzi eta bertso-paperak

Auxen da lana! (I)	41
Auxen da lana! (II)	43
Bertso Berriak Tolosako Galtzaundik bere burubari jarriak	46
Galtzaundiren piztuera	54
Zorioneko Karnabalak	59
Bertso Berriak Ijito-ezkontza	61
Tolosako ogi-gillearen juanera	65
Kaleko birunka	67
<i>Estudiantina</i> Baserritarrak	68
Himnua Tolosako zortzikua	69
Erromara juan ziraneko kondiziyuak	70
Egiputzua illezkorra	72
Gipuzkua bentzutezgarria	74
Santos iltzeko	77
Azpeitiar bati	79

O Egiptuzua gloriosua!	81
Gipuzkoak izan ditun semerik onenak	83
Ama Birjiña Izazkungoaren imajiña Tolosako parrokitik bere lekura berriro jasotzerakoan	84
Mariyaren Alabak Tolosakoak Birjiña Ama Izazkungoari	86
Ama Birjiña Izazkungua eta bere elizatzoa	88
Izazkungo elizatzoan adoratzen zan Ama Birjiñaren imajiña ber-bera	95
Ama Birjiña Izazkungoa bere agerlekuban berriro	97
Bertso Berriak Fernando Amezketarraren doñuban Lazkauko plazan jokatu ziran bi partidu	101
Txurruka biyotz aundiko umant denaren umantari	103
San Ignazio eta bere semeai	105
Tolosako Misiyo Santuaren oroipena	107
Ama Birjiña Arantzazukoari	110
San Ignaziori 1886-garren urteko erromeriyari	114
Aita Larramendi Garagorrikoari bere 2-garren eunkidan	116
Nocedal-tarrak iñor engañatu ez dezaten	119
Elosegiko On Jose jaunari	123
Baldespiñako Markes txit geidiatia jaunari	125
Gurutz-bide edo Kalbariyuak itz neurtuetan	128
On Antonio Okendokoari zortziko	135
On Karlos 7-nari bere egunian	139
Zer onra dan gipuzkoarra izatea!	140
Aita Julian Lizardikoaren bizitza eta eriotza	144
Zertarako oiekiñ ezkontzen zerate?	148
Elosegiko On Jose jaunari bere santuban egunian	153
Elosegiko On Antonio jaunari	154
Anzo-olako Elosegiko Antoniori	155
Urretxuko erriari	156
Jesusen Lagundiko Aita Jose Mari Laskibarkoari	160
Bertso Berriak Don Tirso Olazabalentzat	163
Nocedal-i euskaldunak	165
Azpeitiko distrito edo barrutiyari botuak dituzten nere anai maitagarriyai	166
Bi gizon beste aietakoak (Patri eta Txomiñ)	170

Euskal Erria eta beste zenbait aldizkari

Agur, agur, Bizkarrondo	177
-----------------------------------	-----

Ama Euskararen bakartasuna	180
Iparragirreri ill zan denboran jarritako bertsoak	182
Letemendiako On Modestori	186
Euskal Erriaren alde	187
Kristau guzien Batzarrearen errege maitagarriari	189
Euskal Erriari	192
Salzedo-ko On Pedro jaunari bere lendabiziko eunkidan	195
Iparragirreko On Jose Mari illezkorrari	196
Mariatxo Elosegi eta Larrañaga deritzan aingeruari	198
Jesus gurutzilltzetuari	200
Gure Jaunari zerurako igoeran	202
Apaiz jaun on Jose Juan Urangakoari	204
Ama Euskerak eliztar batzuei oju bat	207
Maiatz-illeko Loreak	213

El Cántabro (1893)

Ill da gure Erregiña!	217
«Moroa lenago karlista baño» esaten ari dan bati	221
Rau, rau, rakataplau, au dek umorea!	223
Ez aspertzia beti jipoiak artzen!	225
«D. Brixko jerente...»	226
Intriguak karlistai kanpanak jotzen!	228
Zazpigarren Karlosen onra aundirako	230
Cerralbo-ko Markesan onra aundirako	232
Sagastaren Haciendaren Ministruaren gabirai beltza	235
Tokatzen zaionari	237
Bi anai turroi-jale aundiyen aitzen naia edo testamentua	238
Gamazo txit beltz, egiazko libertadien etsai	239
Oiekin ñora ere ez	240
Tolosa txit noble, leial eta doagarriari	241
Ongi etorri	242
Gure erregiñ D ^a . Margarita Borbonguari	243
Emengo mutillen orduko elkartasuna nun da?	245
Izarraitz-goiko Aita maitagarriari	247
Cerralbo-ko Markes txit geidiatia jaunari, zortzikua	248
Zazpigarren Karlosen seme On Jaimeri	250
Urolako Necedal-en ostalariari	251
Zeberioko On Jose Maria zanari	252

Bikast-en pastelkeriak	253
Sánchez Toca-ri	254
Aurtengo San Ignazioetan	255
Zer da indarra?... Elkartasuna	256
D. J. Sánchez Toca ta Toca-ri	257
Itz-ontziak	259
Beñere gauz onik ez gaizki dabilenak	260
Sagastari	262
Gure Diputadu On Eusebio Zubizarreta eta Olabarria Jaunari	263
Billa-frankan bizi dan D. Patxikotxo Goitia eta ostu-beltzari	264
Beltzen mendian Gaztelaniyan beartsu batzuek zer gaizki bizi diraden	266
Astigarragako sagar-jotzalleak bazekitek elkarren berri	268
Nere Aita P. J. P. eta F. maitagarriyai	269
Liberalkeri madarikatubaren aitzena edo agoniya	270
Aitzen-naia edo testamentuba	272
Fuerista izatekotan bearko izan karlista	274
Karlista ez dan guztiya beltza da	276
Nere primo Ameketakoari	278
Biba gu ta gutarrak	279
Euskal Pallás-tarren anaiai	281
Errifa errial batian	283
Alanbrian biraldu digute segitzen duben parte au	285
Intriguan imnua edo kant-ona	286
On Antonio Okendokoari	288

El Cántabro (1894)

Nere Aita eta Primo	293
Iparragirre-ko On Jose Mari illezkorrari	295
Au lasaitasuna!	297
Berrio-Otxoa eta bere etsaiak	299
Jesu-Kristo gure Jaunak gurutzean esan zituen zazpi itzak	301
Gamazoren illeta edo entierroa	303
Españaiko katolikoen batasunari	305
On Jose Maria Etxeberrria eta Drabasa zanari	308
Nere lau Aita Profetai	310
Baldespina-ko Markes txit geidiatia zanari	312
Nolako Mari alako Peru	314

Don Karlos eta Doña Maria Berta	316
Nocedal eta bere lagundiya	318
Gure buruzariyen Infanta Doña Beatriz Borbongoari	320
Astuan umeak astakumeak	321
Elosegiko D. Antonio eta bere illobari ongi etorri bat	323
Biba Gipuzkoako Diputaziya!	324
Donostiyako Matxin-barrengoari abisu bat	326
Biba Euskal Erriyak beren Fuegoakin!	327
Alkate batek kantatu biar lukean epistola	329
Lurak-bat-eko fabrikantien billera	331
Sacedón-go alkate ganbeluari	333
Gure Patroi San Juan Bautista	335
Sacedón-go alkate ganbelubaren uztarriko lagunari	336
Gure izar maitagarriya bere Españiyan	338
Euskal Erriko mutillak soldadu juateko denboran kantatu bear lituzkeenak	340
Gure Printzipe Don Jaime Borbongoari	342
Igaz ere Ssagasta Ssagasta zan	344
Irungo, Donostiko eta Tolosako distrito edo barrutiyetako nere anaia maitagarriyai	346
«El Padre Verdades»	348
Liberala ta fuerista?... Adarra!	349
Arakist-aiñ-ek, Arakist-aiñ-ek omen daduka famia	351
Arakist-aiñ-ek, Arakist-aiñ-ek omen daduka famia	353
Liberal katoliko mestizuai eta intrigo beztubai	355
Don Karlos Borbon-goari bere egunian	357
Txiru-liru-li ta miru-liru-li kanariyo karlista kantari	359
Don Félix Sardá eta Salvany jaunari	361
Masoi izandu edo... katoliko gezurrezkoai	363
Oroitza bat D. Ramon Olazabal eta Garmendiari	365
Aspaldiko partez	367
Ramos Azkaratekuari kapoia galdu	369

Auspoaren azken liburuak:

- 276 Jose Insausti
Beti bertsoa buruan
- 277 Manuel Matxain
Uste gabea
- 278 Inozentzio Olea
Ostiraleko kronika I
- 279 Inozentzio Olea
Ostiraleko kronika II
- 280 "Ataño"
Markesgaiak. Dirua Jainko
- 281 Antonio Zavala
Estropadak bertsoan
- 282 J.M. Iriondo
Segi, Mugartegi
- 283 R. Iraola
Nañarriri begira
- 284 Ramon Artola
Sagardoaren graziya II
- 285 Leon Albeniz "Iruntxiberri"
Nere berriketa eta aitortza
- 286 Ramos Azkarate
Galtzaundi berriz ere (I)
- 287 Ramos Azkarate
Galtzaundi berriz ere (II)



Ramos Azkarate Otegi (1847-1904) Tolosan jaio zan eta bertan il. Bertso-jartzaille ugaria izan zan, iru milla ta bosteunetik gora jarri zituan eta, bi liburu lodi osatzeko ainbat, alegia.

Kanta-paperetan eta esku-idazkietan aurkitu ditugu aren saillik zaarrenak, amodioa eta Iñauteriak kantatzeko moldatuak. Auetan ezagunenak, *Galtzaundi* izenekoak.

Ondoren, aldizkari eta egunkarietan atera zituan bere bertsoak: *Euskal-Erria*, *El Cántabro*, *El Correo de Guipúzcoa*... Gaiak, berriz, Euskal Erria, Ama Euskera, Fueroak, politika, Tolosa, lagun eta adiskideak, bere burua...

Bi antzerki ere baditu: *Ijitoen kontratuba eta ezkontza* eta *Beotibarko jatzarraren oroipena*. (Ikus: Auspoa 197). Bai ipui batzuk ere.

Ramos Azkarateren bertso-bilduma leio egoki eta zabala da, orain eun urte gure Euskal Erria zer-nolakoa zan ikusteko.



Auspoa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza
Dirección de Cultura

TOLOSAKO  UDALA

ISBN 84 7907 440 X




9 788479 074401

Ramos Azkarate



Galtzaundi

berriz ere (II)





Ramos Azkarate Otegi
(1847-1904)

«Iñori gaitzik egin badiyot
bizimoduko lanetan,
eskatzen diyet barkaziyua
biyotzetikan benetan;
ta miña eman badiyet noizbait
politikako gauzetan,
ez det nik uste iñoiz paltatu
badetenikan ezertan».

Orrela zion Ramos Azkaratek, urteak aurrera eta burua atzera jiratu zuan batean: etzala bein ere iñori gaitzik egin asmotan ibili, ezta ere, zekiala beintzat, min eman eta paltatu nairik; ala balitz, barkazioa eskatzen zuala.

Aitorkea leiala da ori; baiña arek bere 3.500 bat bertsoekin altxor bat utzi zigun: XIX mendean Gipuzkoako iriburu zaarreko euskera; orduko gizartearen ispillua eta politikaren kronika, alderdi baten begiekin ikusita bada ere.

Orregatik, barkaziorik ez, baizik-eta gure eskerrak merezi ditu, dirurik izan ez eta alako ondare aberatsa utzi zigulako.

Galtzaundi
berriz ere
(II)

Auspoa Liburutegia

287

AZKARATE, Ramos

Galtzaundi berriz ere / Ramos Azkarate ; bilketa, argitaralpena eta itzaurrea, Antonio Zavala. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza, 2004.

<2> libk. : argk., mus. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 287)

Aurkibidea

LG SS 195-2004. – ISBN 84-7907-438-8

I. Zavala, Antonio. II. Gipuzkoa. Dirección de Cultura, ed. III. Título. IV. Serie.

821.361-1"18"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Tolosako Udalaren laguntza izan du liburu honek

1.000 aleko tirada

ISBN: 84-7907-439-6 (lan osoa)

84-7907-438-8 (II. tomoa)

Legezko Gordailua: S.S. 195/04

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Ramos Azkarate

Galtzaundi
berriz ere
(II)

Bilketa, argitaralpena eta itzaurrea:
Antonio Zavala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza
Dirección de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2004



Izaskun 1985-eko apirillaren 21a.

1. Zacarías Oyarbide; 2. ?; 3. Valeriano Mocoroa; 4. Bernardino Trebiño; 5. Arrezigor;
6. Pujana maisua; 7. José Muñoa; 8. Zumeta; 9. Alargunso; 10. José Azurza;
11. Teodoro Amonarriz; 12. V. Sebastián Mocoroa; 13. ?; 14. Ildefonso Calparsoro;
15. Gregorio Artech; 16. Antonio Andia; 17. Federico Gebara; 18. Salustiano Mocoroa;
19. Ramos Azkarate; 20. Imenarrieta; 21. Casimiro Saizar; 22. San Sebastián;
23. Ignacio Peña y 24. Juan Irazusta Zanoni.

(Liburu ontatik: Jose Maria Tuduri Esnal: *Argazkiak, Tolosa, Fotografias (1842-1900).*)

El Cántabro
(1895)

Bagendu bageñikike

Zer zorionekuak
Erregen egunez
dauzkatena kazuelak
beterik ollarrez!
Larru gorri biziyan
nola dauden farrez
etxe guzi-guziya
betetzen lurriñez,
galdetubaz: «Nor dago
agiñeko miñez?».

Beon larruban oraiñ
nor egon leiteken,
ollarren galderari
«Ni, ni» erantzuten!
Gero gozozki janaz
ezpañak leguntzen,
este ximur oriyek
guri-guri jartzen,
ez dakiten gaxuai
jaten erakusten.

Txerri gosiak beti
ezkurrakin amets,
ta ollarren jabiak
jateko bildurrez.
Aboko loaliak
esaten diranez:
apustu bat egingo
niyoteke legez,
daukaten aundiyena
osorik jan baietz!

Beok esango dute:
«Apustu, apustu!
Ez, ez, adiskidia,
ez ori siñistu.
Ollarrak puska asko
ta onak dizkitzu,
gaitz eginda oyian
jartzen bazera zu,
ametsetan jatia
askoz obe dezu».

Batzubek ametsetan,
bestiak benetan,
ase gera beñepeñ
denok zerbaitetan.
Zeiñ illtzen du gosiak
Euskal Errietan,
zerubak diruditen
ibar-mendietan,
Sagasta deabruzat
dagon lekubetan?

Abenduko illaren
ogei ta iruban,
al dakite kapoia
nun billatu nuban?
Kantatuko diyetet
bada segituban,
gaur arkitzen dalako
leku seguruban,
guardirik ez daukala
bere inguruban.

Arbelaitz deitutzen
zaion jauregiyan,
(au da D. Tirsorena)
Irungo erriyan,
bi torre antxen dauzka
guztiz agiriyan,
Birjiñatxo Ama bat
daukala erdiyan,
leialak batzartutzen
diraden tokiyan,
Amatxoren gañian,
atsegin aundiyan,
an zeguan kapoia
iskindoi garbiyan.
Ikusi zubenian
jabia balkoian,
ziyon: «Oraintxe nago
jateko sasoiyan».
Bere izenez deitu
niyon ordurako,

etorri zan nigana
salto eta brinko.
Loinazi eman niyon
biziya kentzeko,
esanaz: «Badegu au
zortzi eguneko,
zortzi bazkariyetan
janaz egunero».
Txilborrak ibillitu
ditugu txit bero,
zer nintzan ni kapoia
jan bañan lenago?
Zer naiz, nere kristabak,
ondo jan da gero?
Jokatu nai baditu
lau milla *mondongo*,
gauza naiz Nocedal-i
jotzeko ordago
ez dala diputadu
izaten geiago.

Ramos Azkarate-kuak
El Cántabro, 1895-I-6.

Don Arturo Campion fuerista ezkerrari

Zu izan arren zere ustean
gizon jakintsu osua,
badezkiyozu onra bat dala
eman dezuban pausua?
Ez bazerade karlistentzako
Nocedal bezin paltsua,
ez al zerade Naparruantzat
Carriquiri' bat mantsua?

Zure lauburu, gramatika ta
euskerak ikasitzia,
Donostiyako *Euskal-Erriari*
ainbeste eskribatzia,
zure *Aralar* zere Iruñan
jateagatik jartzia,
ez dirade, ez, beste gauzarik:
jendiak engañatzia.

Ezagun dezu izan ziñala
edo zerala libria,
dezubenian aurten zuk artu
Fuero-etsaien bidia.
Ez al dakizu nola dagoan
Naparruako jendia,
artu nai ezik lenaz gañera
erdaldun beltzen golpia?

Ondo dakizu nola dabilzan
Cánovas eta Sagasta
galdu nairikan zaiñ-zañetikan
Fuero-zalien arraza;
etortzen bada Naparruara
bildur diraden ekaitza,
zure pausuak ezagututzen
ez da, ez, biziro gaitza.

Proba dedilla (ai, ojala ez!)
zintzilik dagon legia;
zeñen firmakin agertuko dan
ez al dakizu ordia?
Erantzun nazu: nola zu izan
zintezke Fuero-zalia,
esan badezu: «Ni naiz etsaien
guzizko adiskidia?».

Eta bestetik iya illian
daukate Gaztelaniya,
aien moduban nai dute jarri
Laurak-bat maitagarriya;
fueristak nola maite deguben
bakoitzak bere Patriya,
jakiña dago zuk maiteago
dezula erdal turroya.²

Beltzen *legeak* eta Fueruak
guziro daude aserre;
beltzengatikan gaude katian
bizitzen giñanak libre.
Eta zu nola gertatzen zeran
borrero guzien alde,
zu borrorotzat tratatuzeko
ez dago lotsik batere.

Katolikua bazera ere
nundik zu Fuero-zalia,
zeradelarik eskribatzalle
turroian arrantzalia?
Laurak-bat-ek gaur ez baleukake
zu bañan Aita obia,
lurran azpiyan aurki litzake
Aitorren Euskal Erria!

Al dezu uste siñistatzia
napar leial bat zerala,
katolikuen Aitak esan ta
zauden lekuban zaudela?
Gure Karlosek nai dubena da
Eleizarena ber-bera,
bere bandera guziz santubak
esan dezala bestela.

Traidore izan bañan lenago
naigo badezu illtzia,
nola nai dezu ona utzita
gaiztua maitatuzia?
Obegua da bi milloi bider
martiri bizituzia,
ez libertade gezurrezkuak
jan truka adoratzia.

Zertan aboan artutzen dezu
bada zuk Aita Santuba,
aspaldi ontan ikusten bazan
zabilkizuben jokuba?
Beltzen dotriña daukalarikan
Eleizak kondenatuba,
zuk Korteetan esandakua
da bizitzeko moduba.

R. eta A.

El Cántabro, 1895-I-24

¹ *Carriquiri*, oker ez badaude, zezen-arraza baten izena da.

² *Políticamente hablando*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

Nolako neguba alako gizonak dira gure Sort-erriya ondatzen dutenak

Nola dauden gaur zelai-mendiyak
elur txuriyaz betiak,
daude txit triste kaliak eta
gure baserri maitiak.
Negarra ez bada farrikan beiñtzat
ez du egiten jendiak,
negu gogorak zatitzen gaitu
aberats eta pobriak.

Nun dira gure usariyuak
eta nun elkartasuna?
Nun daukagu gaur urkoarentzat
alako maitetasuna?
Nun ote dago emen izaten
genuben anaitasuna,
ta alkatien arbastentzako
lengo begiratasuna?

Alde batetik negu gogorra,
bestetik berri onik ez,
ezin aserik erdal gaiztuak
osoro gaude oñazez.
Gaztelaniya dago lur-pian,
Euskal Erriyak negarrez,
pixkabanaka lurren azpira
juango diraden bildurrez.

Zenek ekarri ditu onuntza
desordena ta kolera?
Nork dakar gure onra guziyen
zori gaiztoko galera?
Zerengatikana gera erori
erdaldun beltzen mendera?
Zerengatikana gure oiturak
dijuazkigu lur-pera?

Zenbateraño sufritu bear
degu, Jaungoiko maitia?
Noiz arteraño zeruetako
Ama oñazez betia?
Nun degu gure Aitona zarrak
utzi ziguten dotia?
Nun dira gure *Libertade* ta
bizitza pare gabia?

Ez degulako irakurritzen
gure istori ederrik,
geon etxera arri tiraka
gabiltza pozaz beterik,
paper paltsuak leturikan maiz
burubak aizez beterik...
Euskala edo moroa izan
iya ez digu ardurik.

Iru edo lau erdaldun gaizto
burutzat ezagututa,
euskaldun txarrak jateagatik
oiekin elkar artuta,
banderarikan argiyenari
illunpekua deituta,
libre ez bañan kate gogorrez
arkitzen gera lotuta.

Euskaldun Fuero maitagarriyak
dira errege-zaliak,
Don Karlosekin bakar-bakarrik
izango gera libreak.
Naiz Cánovas-en naiz Sagastaren
naiz Barrabasen bideak
dira euskaldun erri maitien
guzizko ondatzalliak.

Alde batetik Sagasta eta
bestetik Anton Cánovas,
ondorenian Ramon Nosedar,
—oker esan det— Barrabas;¹
turroian iru diszipuluak
bizi dirade algaraz,
buru dutela Emiliotxo
Castelaritxo-Satanas.

Artu, bai, bai, artu edozeñek
gure Fueruak eskuban,
Barrabas-ekin ibillitzeko
iñun esaten al duban.
Intrigo paltso lotsagarriya
orañ jardun dan moduban,
garbi esan du nola dagoan
Maroto zanan zakuban.

Gaintxurisketak

El Cántabro, 1895-II-2.

(1) *A no enfadarse, señor corresponsal azcoitiano del periódico mal llamado Fue-rista. (El Cántabro-ren oarra).*

Moruak baño askozaz moruaguak

Zein dirade zein moro txikiyak?
Nor dira moro aundiyak?
Gezurrarekin bizi diraden
traidore lotsagarriyak?
Zein dira gure Sort-erri dena
jan duten *animaliyak*,
gaur Españiyak ezin mantenduz
dauzkan desonragarriyak?

Gorrotatutzen degu osoro
Fuentes-ek gaizki egiña,
bañan egin zan tratu txar ura
dago eraman eziña.
Ta gaur dabilten pastelkeriya
nola dan guztiz urdiña,
moruak baño moruaguak
zein diran dago jakiña.

Al da munduban gobiernu bat,
naiz izan barbaroena,
bere Patriya (beñepein zerbait)
sendotzen ez dabillena?
Gaur Euriopan Sagastarena
ez al da bada txarrena?
Sidi-Brusharen sudur maitia
odolez jantzi dubena?

Karlistak nola ez geraden, ez,
moruen arrazakuak,
Sagasta eta erdaldun beltzak
diraden bezelakuak,
ez eta ere euskaldun txarrak
beltz oien alderdikuak,
gera Navas-en ta Covadonga-n
ill ziran jatorrikuak.

Fuentes erua dala diyote...
Ta baldin bada zintzua,
zeñengatikan sudurrian jo
zuben jaun onek morua?
Zergatikan txit goguan zeukan
Margallo gizarajua,
bai eta ere egin zalako
alako... konbeniyua.

Ango moruak adoratutzen
dute Mahoma bakarrik,
ta emenguak ez Mahoma ta
ez Jainko egiazkorik.
Juduben mende jarri gaituzte
naiz beren lotsa galdurik,
lapurra esan ta ostu ezker
ez diye bada ardurik.

Aiñ dirade aiñ lotsa-gabiak
politikako gauzetan,
Karlos balego Karlosen alde
lirake oiek gaur bertan.¹
Paltsokeriyan azkarra dana
eta jantziya tranpetan,
dago ministro dakielako
bakarrik berritzuketan.

Zazpi gizaldi luze aietan
Erdal-Erriyan moruak
etziran izan beltz oiek baño
batere okerraguak.
Orduban Opas ta Opas-tarrak
bañan traidoreaguak
izan ziran-ta, eta dirade
mestizo ta intriguak.

Oiek egiten dituzten lanak
dira guziyon kaltian,
denok ipiñi gaituzte gerran,
iñor ez dago pakian.
Ardo-zaleak, gari-zaleak
daude gerra egin nayian,
fabrika eta tratu-bideak
denboraz dira lur-pian.

Gaintxurisketak
El Cántabro, 1895-II-10

Bertso auetan esaten dana obeto ulertuko degu, Pedro Aguado Bleye jaunak bere *Manual de historia de España* liburuan diona irakurri ondoren:

«El general Martínez Campos fue a Marrakech como embajador extraordinario (enero 1894), y se llegó a un convenio, según el cual el sultán pagaría a España una indemnización de cuatro millones de duros, y se trazaría la línea poligonal que había de limitar por el campo marroquí la zona neutral de Melilla, dentro de la cual desaparecerían casas y cultivos.

«...apremiaba España por el cumplimiento de lo pactado. El Gobierno marroquí lo eludía con toda clase de pretextos, y envió a Madrid, como embajador a Sidi Bruscha (28 enero 1895). El día señalado para la

recepción (31 enero) ocurrió un lamentable incidente: al salir del hotel el embajador marroquí, un caballero, que luego resultó ser el general de brigada Don Miguel Fuentes, le dio una bofetada. El autor del atentado fue detenido, y más tarde recluso, por demente, en un sanatorio. Sidi Bruscha fue, después de alguna resistencia, a Palacio. Recibió pruebas de general consideración y las mismas satisfacciones que el representante de una gran Potencia; y logró su objetivo: la prórroga de los plazos para señalar la línea poligonal de Melilla y para los pagos de la indemnización (24 febrero 1895). Embarcó en Cádiz en el crucero español Reina Regente, que le condujo a Tánger (9 marzo). El crucero se perdió al retorno, con toda su tripulación, unos 400 hombres».

Bertso batzuk baditu Txirritak *Reina Regente* itxas-ontzi oni buruz.

¹Los primeros los Necedalinos. (Egillearen oarra.)

**Liberalak fuerista biurtzen
asi dirade eta...
ez gaude galdurik!**

Matxinbarrena eta Artetxe,
Artetxe, Matxinbarrena...
Zeiñ ote da zeñ pizti abetan
errebes liberalena?
Nor ote da nor bi gizonetan
euskaldunikan onena?
Aztu egin zait Odon Apraiztxo, ai,
dutela aurren-aurrena?

Artetxe deitzen diyotena da
Ar... te... txe Bizkaiakua,
au're omen da aurrekuaren
ber-beran banderakua.
Bañan errebes txit liberala
Cánovas bezelakua,
eta maitatzen badakiyena
Fuero zar Bitorikua.

Bitoriyako alkatea da
Sagastan ttuñ-ttuñerua,
bere patriya desonratutzen
ari dan seme gaiztua.
Baldin balitu onek lau anka,
a zer nolako astua,¹
belarri motzai eramateko
lege zar gozo-gozua!

Gobernadore, alkateakin,
zein da biyetan gaiztona?
Nor da eguzki beroenari
beti jarraitu diyona?
Gaur Sagastari erregututzen
nagarrez ari zaiona,
Fuerorik gabe gelditu dedin
Bitoriyako bilguma².

Matxinbarrena, Matxin-kanpora,
txin-txin Donostiyakua,
Matxiñ *erregiñ*-zalia edo
Pe-pe republikanua,
gizon ederra dalarikan txit
politikan da *mandua*,
bañan maitatzen ikasi du, bai,
noizbait euskaldun Fuerua.

«Bat zu zerade, bestea ni naiz,
ni ere banaiz zu aña,
fuerista oiek ez digute, ez,
jan bear esnian gaña.
Tranpiyan aixa irabaziko
geniyoteke azaña,
baldin ta baldin masoi Sagastak
artzen badiyo tamaña».

Bitoriyako bilgumak ez du
zuen tranparen bildurrik,
defenditzeko aski ditu, bai,
bere Fueruak bakarrik.
Ez dubelako ezagutu nai
erdaldun beltzen legerik,
alkate jauna geldituko da
betiko desonraturik.

Judaskeriyak lajatu eta
joka arpegi garbiyan,
fueristak gaude maskarik gabe
bizirik Euskal Erriyan.
Ez degubenak turroirikan nai
jaterik paltsokeriyan,
baizik nai degu gure Laurak-bat
ikusitzia goi-goyan.

R. A.

El Cántabro, 1895-II-17

¹ *Políticamente hablando*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

² *Ayuntamiento*. (Id.)

VARIEDADES.

Liberalac Fuerista biurtzen

asi dirade eta..... ¡ez gaude galduric!

Machimbarrena eta Arteche
Arteche Machimbarrena.....
¿Ceñ ote da, ceñ pissti abetan
Errebes liberalena?
¿Nor ote dá, nor, bi guizon.... etan
Euscaldunican onena,
(Aztu eguin zait) Odon³ Apraizcho ¡ai!
Dutela aurren-aurrena?

Bitoriyaco Alcatea da
Sagastan ttuñ-ttuñ erua
Bere patriya deshonoratuzen
Ari dan seme gaiztua.
Baldin balitu onek lau anca
¡Ah! ¡er nolaco astua (1)
Belarri motzai eramateco
Legue zar gozo-gozua!

(1) Politicamente hablando.

CANTABRO

Machimbarrena, Machin-campora
Chin-chin Donostiyacua,
Machin *Erreguiñ* zalia edo.....
Pe..... pe Republicanua,
Guizon ederra dalaricau chif
Politican da *mandua*,
Bañan maitatzen icasi du bai
¡¡Noiz bait!! Euscaldun Fuerua.

Arteche deitzen diyotena da
Ar... te... che *bizcayacua*
Aure omen da aurrecuaren
Ber-beran banderacua.
Bañan errebes chit *liberala*
Canobas becelacua,
Eta maitatzen badaquiyna
Fuero zar Bitori-cua.

Gobernadore, Alcateaquin
¿Cein da biyetan gaiztona?
¿Nor dá eguzqui heroenari
Beti jarraitu diyona?
Gaur Sagastari erregutuzen
Negarrez ari zayona,
Fueroic gabe guelditu dedin
Bitoriyaco bilguma? (2)

«Bat zu cerade, bestea ni naiz
»Ni ere banaiz zu aña
»Fuerista oyec ez digute ez
»Jan bear esnian gaña.
»Trampiyán aissa irabacico
»Gueniyoteque azaña,
»Baldinta.. baldin Masoi Sagastac
»Artzen badiyo tamaña.»

Bitoriyaco bilgumac ez du
Zuen tramparen bildurric
Defenditzeco asqui ditu ¡bail!
Bere Fuerua bacarric.
Ez dubelaco ezagutu nai
Erdaldun beltzen legueric,
Alcate jauna gueldituco da
Beticico deshonoraturic.

Judasqueriyac lajatu eta
Joca arpegui garbiyan:
Fueristac gaude mascaric gabe
Biciric Euscal-erriyan.
Ez degubenac turroirican noi
Jateric paltsoqueriyan,
Baicic nai degu gure Laurac-bat
Icusitzia goi-goyañ.

R. A.

El Cántabro, 1895-II-17 (facsimil).

(2) Avuntamiento

Verso Berriac D. Tirso Olazabal-entzat.

¹
Gure beguac naiz eguin negar
Biotzes maite sailtugu,
Gure aurreco legue ederrac
Zugana zuzentzen gaitu;
Naiz eta penac gau eta egun
Gure bicia laburtu,
Aurreta ere ill arteraño
Ex quenduque nay mudatu.

²
Euscal errian guizon jaquintzun
Eta prestubac badira,
Beragatican gare biotzac
postubac arquitzen dira;
Icasirican nota izen dan
Gure lenagoco jira,
Ez quenduque nay aurrera egon
Erdatdunari beguira.

³
Jaungoienari bear diogu
Euscaldunac erregutu,
Paque gozo bat gure gañera
Zurequin dezan biurtu;
Bada animo sendoz nay degu
Zure ondoren seguitu,
Ta gure arbol Guernicacua
Zure escutic aldatu.

⁴
O! gure arbol frutu chit gozo
Eta ederrac emana,
Erdera izanda zure sustrayac
Galdarazo dituana;
Nola litzaque gu elcartzea
Orain erdaldunengana,
Ez da beldurric ez da quenduco
Itz onaquin gure pena.

⁵
Sentimentuan dembora labur
Au igarotzen degunian,
Arbol maitea aditzera eman
Euscaldun danen artean;
Deadar eguñas atozte seme
Chit necatuac bidean,
Eceri eta descantatzera
Nere itzal ederrean.

⁶
Defenditzeco jarri nai degu
Buru D. Tirso Olazabal,
Jaun orren contra dabilitzen oyecc
Burutic ez daude cabal;
Obiagotzat jarri nai dute
Castellano bat Nocedal,
Orain integro omenda ori
Lenago zan berri leal.

⁷
Cabrera ere jefe ona san
Guzon ~~at~~ ~~aren~~ ~~auran~~,
Arc eguinaquin ez alcinaten
Escarmentatu orduan;
Mingaiti onaquin enganatuta
Faltsia eguin da juan,
Castillanac buru jarrita
Orra guero cer dagoan.

⁸
Don Tirso Juana etotri zaigu
Baliante eta amable,
Guizon batzuec jaun aundi ori
Icusi nai ez ala ere;
Leal guciac burua alchatu
Esau lotsarican gabe,
Castillanoric es degu biar
Gu euscaldunaren alde.

Orra euscaras verso berriac
Ondo enteratziara,
Badaquizute orain disputa
Nola guertatu dan emen;
Lenago ere erdalenaquin
Ondo aspertuta gneunden.
Oyec quenciaquin contentus guera
Au querta ded. a amen.

Eusebio Lopez-en Moldiztegián,

Alper-alperrik dabill liberalkeriya

Urtetikan urtera
Euskaldun Erriyak
atzo bañan gaur askoz
daude elbarriyak.
Bere oiturentzako
zer lotsagarriyak,
ta bere istoriyen
desonragarriyak,
pagatu zaizkiyon bai¹
erdal iduriyak,
etorkizunarentzat
ondamengarriyak:
bere bizitzarentzako
ango iritziyak,
ango dantza ta pesta
eta komeriyak,
ango somorro jazte
txit negargarriyak,
ango ibillera ta
angoen jantziyak
gaude iñauteriyaz
penaz ikusiyak,
penarik ez dubela
gaurko gazteriyak.
Gosiaren ondoren
a zer alderdiyak,
erremediatzeko
gaudenak eriyak!

Mendean artu gaitu
erdal mixeriyak,
negarrez daudelarik
Ibero mendiyak.
geldirikan gañera
fabrika aundi yak,
daudelarik zintzilik
gure baserriyak,
ta egiten ditugu
pesta galgarriyak,
nola lotsik ez duben
liberalkeriyak,
nola jan dizkiguben
alderdi guztiyak,
berak dana edanez
ta guk edarriyak,
traidore eta paltso
txurikalariyak...
Laxter ill biar duben
moro elbarriyak...
Euskaldun Fuero-zale
bentzutezgarriyak²,
egonagatikan gaur
(ta ez, bildurtiyak)
ikusit bear dira
istillu gorriyak.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1895-II-28

¹Gure iritzirako, *pagatu* esan bearrean, *pegatu* bearko luke. Moldiztegiaren okerra izango da

²*Invencibles*. (*El Cántabro*-ren oarra.).

Arrak ta ondo zarrak dira jende Nosedar-tarrak¹

Nosedar-tarrak, Nosedar-tarrak
daude txit umorekuak,
iñauteriyaz dira agertu
diraden bezelakuak.
Diradelarik (berak diyenez)
goi-goiko Jaungoikozkuak,
dira barrenen arra daukaten
alako... katolikuak.

Liburutxo bat egokigorik
Don Martzelino Soroak
ez du oraiñdik, ez, eskribatu
txistoso Donostikuak,
ikusitzeko intrigo oiek
al diran egiazkuak,
edo diraden beti paltsiyan
dabiltzan politikuak.

Astelenitaz (astelenian)
Zirkulo *Katolikuan*
guztiz garbiro omen ziyoten
zedukatena goguan.
Oien maisubak *arra* ta... *zarra*...
nola dadukan barruban,
puntziyo on au tiratutzia
txit ondo pentsatu zuban.

Iñoiz karlista izandu ez dan,
nai're ez degun *gizonak*,
(bañan dadukan etorri ori
karlistai zorra diyonak),
oraiñ fueristai gerra egin ta
sendoturikan dagonak,
len deabrubak ziraden aiek...
oraiñ daukazki lagunak.

Zer tristea dan, jende maiteak,
zenbaiten argaltasuna,
judaskeriyen egiñagatik
bizitutzeko fortuna!
Ta batez ere dakiyenentzat
zer dan, zer, etorkizuna,
ez da milagro idukitzia
barruban ar bat illuna.³

Arrak, bai, arrak eta txit zarrak,
eta guzizko aundiyak
eragin-azi diyozka aurtan
komedi farragarriyak.
Nola txit laxter bear duben ill
seta desonragarriyak,
onek badaki nola itxutu
lotan daudenen begiyak.

Ogei ta iru urte osotan
barrenen arra daukanak,
Frantziyatikan Dorronsorori
gerra egiten zionak,
zer diradela uste dezute
gaur gizon onen esanak?
«Moro lenago karlista baño»,
au ez da gezurra, jaunak.

Euskal Erriya modu onta ta
eta karlista ez dana,
zer da besterik euskerarentzat
ez bada puzuni txarra?
Asko geranak gosiak eta
txit gutxi naikua janda,
denboraz bada illko diyegu
oieri «*barrengo arra*».

Eleiza libre jarri nai duben
errege katolikuak,
juraturikan daukazkiyenak
gañera gure Fueruak,
gaur onen kontra ikusten diran
intrigo *apostoluak*
dira atzetik, dira aurretik,
euskal txar ezkerrekuak.

Urretabizkaiak
El Cántabro, 1895-III-3.

¹ Aldizkari onek *Nosedar-tarra* dio: *Nosedar-tarrak* bear dualakoan, orrela idatzi degu.

² Martzelino Soroa (1848-1902), donostiarra, euskal idazlea, Bidasoaz egoaldean euskal antzerkiari asiera eman ziona, ainbat antzeki, *epígrama* (txistea bertsoan) eta umorezko gai idatzi zituana.

³ Emen *ar bar* dio: *ar bat* idatzi degu.

Euskal Erria¹

Ai, ai, Euskal Erria,
daukazu bearra
egiteko txit gogoz,
txit benaz negarra.
Etsaiak sartu zizun
zuri atzaparra,
bere modura artu
zezazun indarra
zabaltzeko munduban
esankizun txarra.

Nun dira zure onrak?
Nun dira ordeak?
Deabruba ote da
guziyen jabea?
Gaiñ-gañean bizitu
ziñaden lorea,
munduban miragarri
parerik gabea,
lena ote daukazu
gaur zuk kolorea?

Izkuntza egun batez
bazitzazun nastu,
ordutik zure gaitzak
ziran abiyatu.
Arantza txit gogorrak
zaituzte zulatu,
ezin ill zerade ta
ezin zera piztu,
baizik galdu-birean
zaude estu-estu.

Denboraren batian
zure alkateak
jarritzen zizkitzuben
erriyan pakeak.
Bai, bai, ondo ta ongi
zure abadeak
para izan zizkitzun
txit zuzen bideak;
aztu ote zaizkitzu
orduko fedea?

Noiz ikusi dirade
euskal errietan
batak bestea illtzen
eta lapurretan?
Noiz, noiz ikusi dira
gure mendietan
orrenbestetxe negar
etxe barrunbetan,
atsegiñak galduta
beren sukaldeetan?

Noiz ikusi dirade
euskaldun erriyak
Jaungoikuari artzen
bere eskubiyak?
Noiz entzun dizkigute
gaurko blasfemiyak,
mintzen ditugubela
gure belarriyak?
Ama Euskerarentzat
zer lotsagarriyak!

Nor bere suerteaz,
ai!, kontentu balitz,
ez giñake galduko
orrenbeste aldiz.
Arkitutzean norbait
dabilhela zaldiz,
jarritzen bagerade
beraren inbidiz,
ez degu ikusiko
gauza onik begiz.

Itxasorik ez balitz
ibaiak nagusi,
gezurrak egiyari
nola irabazi?
Ez al digu Maisubak
beti erakutsi,
edo ez al genduban
guk ondo ikasi,
nor bere suerteaz
bear dala bizi?

Berdintasuna nola
liteke, ordea,
bata baña bestea
bazera ohea?
Zillarra ezin izan
leiteke kobrea,
kobrea nola izan
leiteke urrea?
Orra gauzak berdintzen
dagon lan-bidea.

Munduban ispillubak
agiriyan daude,
begira egoteaz
genduke mesede.
Bat gauza askorekiñ
pobre bazerade,
bestea gutxirekiñ
aberatsa zaude,
dezuban suerteaz
pozkiroz bazaude.

Adiskidia, galde
nai nizuke zuri,
dezuban fortunagaz
ez al zaude ongi?
Nai al diozu ostu
asko dubenari?
Daukazuna lapurtzen
badizute zuri?
Obe degu nor bere
alkiyan exeri.

Jaioa bazerade
pobre izateko,
ez da bide zuzenik
aberastutzeko.
Nork du eskubidea
ezer lapurtzeko?
Zein zan postura artan
biziya kentzeko?
Nor zan: borrororen bat
ala laurdentzeko?

Illa laurdendu ala
eta gerozkua?
Lotsagarriya da ta
ixiltxera nua.
Ai, ai, biyotz gureko
gure Jaungoikua,
gorde zazu jendea
Euskal Errikua,
bestela Zuregandik
aruntz badijua!

Ez degu ezagutzen
dala okerrago,
zenbat ta erdaldunetz
gauden nastuago?
Ez bagia oiekin
orrela etzango,
ez genduke Jaungoikoz
gaizki itzegingo,
ez eta beste gaitzak
egiten jakingo.

Zere oitueretan
galdutzen bazera,
gauza bearrenetan
atzenduko zera.
Utzi aurreari ta
begira atzera,
zedorri etzuazen
katez lotutzeraz,
lagun gutxi dituzun
tokiyan illtzera.

Zure kostunbre onak
zuk gorde zeretzat,
erdalen griña txarrak
utzi berarentzat.
Izan gaitzen onak
beti alkarrentzat,
izan zagun beldurra
agintarientzat,
eta maitetasuna
Euskal Errientzat.

Ala izan dedilla.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1895-III-10

Bertso auk Azpeitiko Txapel bertsolaria zanaren eskutik ere jaso nituan, makinaz idatzitako bi orritan.

Aldaketa batzuk badituzte, baiña gogoangarrienak auk: 11/9: begirozu su eman; 11/10: zere etxeari; 14/3: zenbat eta etsaiak; 14/4: zauden nastuago; 15/3: kristauaren gauzetan; 16/3: besteren griña txarrak.

¹*Poesía dedicada al país vasco con motivo de un horrible asesinato ocurrido en un lugar cercano a esta villa. (El Cántabro-ren oarra).*

Ez du zein erri dan esaten. Eta *El Cántabro* aldizkarian ere ez degu argibide ori arkitu. Baiña garai artako egunkariak eriotz orren berri emango dute, noski. Aietara joan bearko litzake, beraz, zerbait geiago jakin aal izateko.

Bizi bedi euskera!

Karlistak:

Gure Ama Euskera
ill bañan lenago,
da *Nosedar* mundutik
infernura joango

Nosedar:

*Len ere bi urtian
prejirituzen nago,
traidoria banaiz ta...
pagatzen det ondo.*

Karlistak:

Zeralarik tranposo,
txarra ta paltsua,
ez diguzu, ez, illko
Amatxo gozua.

Karlistak:

Ez da Cánovas-ikan,
ez da Sagasta-rik,
gure *izar* ederra
illko digubenik.

Nosedar:

*Erdaldunetan ez da
ni bezin gaiztorik,
zuen Ama zañetik
galdu nai dubanik.*

Karlistak:

Zu eta zuretarrak
naiagatik ala,
dakizute euskera
illezkorra dala.

Karlistak:

Karlistak geralako
euskeran zaliak,
ditugu maitatuzten
Fuero zar maitiak.

Nosedar:

*Gu berriz geralako
demoniantriak,
kontentatuzten gaitu
turroia jatiak.*

Karlistak:

Ori dakigubela
dira zenbat urte!
Bañan alfer-alferrik
nekatzen zerate...

Karlistak:

Errege bidezkoa
maite degubenak
gera euskeran alde
benetan gaudenak.

Nosedar:

*Geralarik paltsiyan
pizti aundiyanak...*

Karlistak:

Baletorke Don Karlos?

Nosedar:

Gu? Don Karlostenak.

Karlistak:

Deitu dezagun deitu
«Bizi bedi euskera!»,
zergatikan Fueristak
gu bakarrik gera.

Karlistak:

Zure *akta* zikiña
pasatu bañan len,
zure *Aita* Sagasta
ill dute Madrillen;
kantatuko dizugu
ogei milla bider,
zure alde dagona
dala, bai, Luzifer.
Aita San Ignaziok
nai diyotela... bai?
Nola naiko diyote
santu batek beltzai?

Karlistak:

Ignaziok maitatzen
daki bidezkoa,
Printzipe katoliko
txit egiazkoa.
Orain, bai, Lur Santuban
dagon alakua,
deitutzen diyotena
Karlos Borbongua,
Ignazio nola zan
gipuzkuatarra,
zan bere Erregeren
soldadu azkarra.

Altabizkar-ek

El Cántabro, 1895-III-24

Aste Santuba badator

Aste Santuba, Aste Dontsuba,
asterik sagraduena,
(fariseo ta judubentzako
dalarik beltzen-beltzena),
da katoliko benazkoentzat
aste bat goien-goiena,
Ama Eleizak guzizko zintzo
oroikidatzen¹ dubena.

Al da sortu ta al da sortuko
munduban sinistamenik,
Jesukristoren Eleizak ainbat
martiri baditubenik?
Al da izan ta al da izango
Don Karlosenak besterik,
fedian alde duten guziya
arraiskatutzen dutenik?

Nola ez, bada, oroikidatu
aste au katolikuak,
baldin guziya merezi badu
Martiri Golgotakuak?
Ez bagiñake Jesukristoren
ber-beran banderakuak,
ez ginduzteke gorrotatuko
orrela bestetakuak.

Beartsu jaio, beartsu bizi,
beartsu ill zanangatik,
beti gaude gu, naiz ill, naiz bizi,
beti, bai!, aurre-aurretik;
ori gañera turroirik jaten
ez degubela kutxatik...
baizikan lodi bizi ditezen
pagatzen degu larrutik.

Iya bi milla urte dirade
Jesusen alderdikuak
izan dirala (ta ez txantxetan)
txit gogor pertsegituak;
ez galararik santubak edo
martiri aietakuak,
beñepeiñ gera fedian alde
illtzeko beti prestuak.

Zer zan gurekin, Jesus maitia
ez bazan gurutzean ill?
Zer zan zer gutzaz, ez bazituben
mirari aundiyak egin?
Gaur Españaia arkitzen bada
sinismenetan desberdin,
zeñen bear dan bateratzeko
dago osoro agirin.


Jesus mundura etorri arte
jendeak ziran lotubak,
bañan txit libre jarri zituban
bere eriyotz santubak;
gu ere nola arkitzen geran
lotubak... eta galdubak...
libre ta ondo jarriko gaitu
bandera puru-purubak.

Batzubentzako onra ez bada
martiri bizitutzia,
naiz pakeakin, naiz gerrarekin
egiya defenditzia,
guretzat onra aundiyena da
Kristori jarraitutzia,
ta Karlosekin Eleiza eta
Fueruak salbatutzia.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1895-IV-7

¹*Que conmemora. (El Cántabro-ren oarra).*



Tolosako Napar-zubia, Idiakez jauregia, udaletxea
eta parroko kanpantorrea.

(Liburu ontatik: Jose Maria Tuduri Esnal: *Argazkiak, Tolosa, Fotografias (1842-1900).*)



Tolosako parroki-atariko San Juanen irudia;
atzean Aranburu jauregia.

Jesukristo gure Jaunaren piztuera zori onekua

Pazkua goizez zalako pixtu
munduban Salbatzallia,
desonratu ta oinperatu zan
betiko judu-taldia;
geroztikan da, bai, Jerusalem
zikiña eta pobria,
iya bi milla urte joan arren
gutzizko doakabia.

Zer dirade gaur aberats asko
(konde, markes ta dukiak),
Cánovas eta Sagasta-rekin
dabiltzan miserabliak?
Turroiangatik *onra* salduta
naiz gosiak ill pobriak...
dirade gure Sort-erriyaren
guzizko ondatzalliak.

Geroz argitu ditu erriyak
Jesusen lege santubak,
etera ditu illunpetatik
itxubak eta lotubak;
ez dute geroz gobernatutzen
erririk judu saldubak,
baizikan beltzen tranpak estaltzen
ditu Rochillen zakubak.

Zer dirade, zer, Euskal Erriyen
ezkerretako semiak,
jatorritikan diradelarik
aberats eta nobliak?
Baldin balira Jesukristoren
benazko *adiskidiak*,
etziraden, ez, emen galduko
lege zar tranpa gabiak.

Gurutzetikan etorri zan, bai,
benazko libertadia,
fedea onekin bizitu zediñ
pake gozoan jendia;
sortu zan arte erriyak illtzen
dituben beltzen legia,
naiz aberatsa, naiz beartsuba
zan elkarrentzat noblia.

Bañan oriyek egiten dute
berai konbeni zaiena,
bi *kastakuak* jateagatik...
intrigo beltzak urrena;...
lapurturikan katolikorik
garbiyenaren izena...
da sekta txar au gure Fuegoen
etsairik goien-goiena.

Gizonak bañan lenago dala
diyote oiek Jainkua,
ez al dakite gure banderan
au dala aurrenekua?
Defenditutzen dakigubena
Errege Israelkua,
degu maitatzen (*ta ez txantxetan*)
bidezko Españikua.

Guk Jaungoikuaz gañera bear
ditugu gure Fueruak,
protestanterik maite ez duten
lege zar katolikuak;
oriyen alde ez daudela gaur
intrigo *fariseuak*,
daude esaten Maroto zanan
seme txar egiazkuak.

Ikusirikan gaur Españiyak
daukazkin negar aundiyak,
gaur ikusirik iya illian
euskaldun erri garbiyak,
Karlosen kontra agertzen diran
emengo seme guztiyak,
dirade Jesus ill-azi zuten
alako... politikuak.¹

Jesus maitea zeukatenian
gurutzetikan zintzilik,
zenbat blasfemi entzun zituben
borrero gaiztoengandik!
Gaur don Karlosek nola ez daukan
defenditzerik iñundik,
edozer gauza eskribatzeko
oiek ez dute kupirik.

Ustez ill zuten oiek Errege
joku paltsuak egiñik,
bañan Nosedar ill zaie aurtan,
gu gaude bizi-bizirik;
oien tranpa ta... oien gezurrak
ez dute izan indarrik
lurperatzeko iru gerretan
ill ez diguten banderik.

Bidezkuaren etsaia danak
ez du nai bide zuzenik,
bidezko gabe gaudelako gaur
gaude arantzaz beterik.
Turroi gozoa janaz daudenak
ez dauke beste biderik:
Judasen alde ibiltzia ta
esan «Ez det nai Fuerorik».

Iruretagoienak

El Cántabro, 1895-IV-14

¹ *Politikuak* itz au ez da ondo ezkontzen gaiñontzeko puntuekin. Beste zerbait be-
arke luke.

Kanpora maskarak!

Bun-bun, Ramuntxo Nosedarkua,
txiñ-txiñ, Patxiko Silvela,
badakizute *dunbala* eta
txiñtxiña joaz daudela;
Balentin Gómez danborrarekin
irugarrengo dutela,
platilloekin dauke nagusi
Anton Cánovas pas... te...la...

Romeak bere mendean dauzkan
duke... markes... ta kondiak,
ez diralarik txit aberatsak,
ez eta beren jabiak...
beti paltsoak diradelako
judastar onen jendiak...
dantzatzen ditu nai duben gisan
Cánovas turroi-zaliak.

Oraĩndik ez da munduban sortu
lauko bat berdiñagorik,
(ez dutelarik onrarik eta
aĩn gutxi berriz lotsarik).
Laurak gaiztoak diralarikan,
musiko paltsoagorik
ez da jaiio ta ez da jaioko
Ramontxo bezelakorik.

Zeñek pentsatu, nola sinistu
badaukazkila botuak
Silvel beltzari lagundutzeko
Nosedar *apaizpikuak*?
Tranpa ez bada beste gauzarik
ez duben *fariseuak*...
ote dirade onen botuak
dozenan amairukuak?

Gezurrarekin estalitzen dan
traidore egiazkuak,
gure fueruak ill nai dituben
intrigo beltzetakuak...
Agindu diozka Silvel txarrari
Madrillen dauzkan botuak,
Siglo Futuro-k moldiztegiyan
daukazkin... aietakuak.

Botoak asko baldin badauzka
bere-bereak Madrillen,
zertan etorri Euskal Errira
maskararekin bi bider?
Bere moduko zortzi traidore
jan ta... jan... bizituarren...
esan bai garbi: «Paltsoak gera
zergatik beltzak geraden».

Txit garbiyago daki esaten
don Patxikotxo Goitiak,
(gutziz oitua dagoalarikan
artutzen jipoi fuertiak):
nai ditubela, ta ez nastubak,
erdaldun beltzen legiak...
berentzat zerbait izatia... ta...
(naiz ill Fuero zar maitiak).

Oiek karlistak izanagatik,
don Karlos etortzen bada,
amaika bider akordatuko
zaiote Santa Barbara!
Nola dakigun bere tronuban
denboraz jarriko dala,
dirade bildur ikusitzeko
bidezkoaren itzala.

Bañan intrigo *fariseuak*
darabilkiten maskara,
Gipuzkoako Fueroak diye
osoro paltsua dala:
oiek nai arren emen itsatsi
Gaztelaniko *baztanga*,
joan bear dute desonraturik
eta ez naikua janda.

Lendik Jainkoa aski zutela
nundik-nai kantatzen zuten,
oraiñ galdetu Jaiñkoa edo
Silvela naiago duten;
beltz guziyekin elkar artuta
ekiño digute aurten...
zergatik *Anton begi okerrak*
ala agintzen diyoten.

Iruretangoienak

El Cántabro, 1895-IV-21.

Irugarren bertsoak aitatzen duen *Siglo Futuro* ori garai artako egunkari-
ren bat zala uste degu, oker ez bagaude.

Fede oneko integroai abisu bat

Euskal Erriko liberala ta
euskaldun Nocedal-tarra,
aurrenekua errena bada
bigarrena da okerra.
Zeñek ukatu bi pizti oiek
anaiak ez diradela,
Anton Cánovas eta Sagasta
ber-berak diran bezela?

Euskalduna ta Nocedal-tarra
nolatan leiteke izan,
etera gabe egonagatik
gau eta egun eleizan?
Seta txar onen buruzariyak
bizi lasaian arrantzan,
el al ditugu beti ikusten
beltzetan nola dabilzan?

Milla berreungarregotikan
gaurko gizalde artian,
errege leial benazkoakin
konpontzen giñan pakian.
Ez gaur bezela presondegiyan
ta... gezurraren mendian,
baizikan libre eta txit lasai
zoririk ederrenian.

Zer da emengo kondaira, zer?
Zer dira gure legiak,
gure Aitonak Erregeakin
beti dontzella gordiak?
Sortu baziran beiñ-bat Kadizen
zori gaiztoko Kortiak,
zenbat sufritzen duten geroztik
euskaldun erri nobliak!

Larogei eta urte bi dira
Konstituziyo paltsuak
elbarritutzen daukazkiyela
euskaldun erri gaxuak.
Anton Cánovas (edo Herodes)
Andaluziko otsuak
jarri zituben odol-ustutzen
gure lege zar gozuak.

Zeñ izan dira gure Fueroen
borrerorikan goienak?
Maskarik gabe ta maskarakin
erdal beltzakin daudenak.
Eta nor dira euskeran alde
sakrifikatzen diranak?
Onrarik saldu gabetanikan
Don Karlosekin gaudenak.

Ai, ai, integro zeradetenak,
jarri zaitzte pentsatzen,
zuen jauntxuak nun-naiko beltzai
zergatik diyen laguntzen,
Oraiñ lau urte, oraiñ bi urte,
ez al zerate oroitzen
nola ziraden karlisten kontra
beltzakin elkarganatzen?

Ez al da bada Jaungoikuana
gure bandera maitia?
Zergatik oiek nai diye itxi
gezurrarekin atia?
Zerengatikan badadukaten
turroiarekin partia,
Fueroak bañan naiago dute
jatia... eta... jatia...

Zer erakusten dizute oiek
ez bada zeon galera,
ez baldin bada gorrotatutzen
gure Aitonen bandera?
Oiek bakarrik nai dutena da
gizendutzia ijara,
pixkabanaka zuek sartubaz
Urkamendiko plazara.

Guk nai ditugu Jaungoikoakin
gañera gure Fueruak,
nai ditugu guk Patriyarekin
Errege katolikuak;
erregetzakin gobernatutzen
dakiten egiazkuak,
ez jan bakarrik egiten duten
tripazai beltzetakuak.

Guk bezelaxe daukazkitzute
soldadu zuen semiak,
dakigu noski nola diraden
beltz guziyenak libriak.
Zer nai luteke zuen nagusi
Kristinan gordetzalliak?
Dozena batek ondo jan eta...
sendotu beltzen legiak.

Len ala ziran ta ala daude
bi bide bakar-bakarrik:
txuriyarena eta beltzana,
ez da agiri besterik.
Zuen nagusi guzi-guziyak,
eta ez jarri dudarik,
diradelako jatorriz beltzak
zauzkate engañaturik.

Iruretangoienak
El Cántabro, 1895-V-5

Gipuzkoako karlista maitagarriyai

Liberalkeri otso paltsoan
galera ikusirikan,
ez dadukala salbaziyorik
iñungo alderditikan,
denbora gutxi barru joan bear
du onek Españitikan,
Nocedal eta nocedaltarrak
mediku dauzkalarikan.

Zeiñ denboretan dira arkitu
karlistak gaurko moduban,
diz-diz egiñaz beren izena
maitatzen dala munduban?
Bide guziyak daudelarikan
gure bandera santuban,
dakigu nola eta zer egin
beartzen geran orduban.

Dakigu nola miña ematen
diyon turroia galtziak,
aundiyagua ematen diyo
karlistengatik illtziak;
Sort-erri dena odoldu duben
otso beltz zeken gosiak,
daukazki bada gizarajuak
urte onenak pasiak.

Cerralbo eta ondorengiak
ez daude gerran eskian,
baizik agintzen digute oiek
saiatutzeko lanian;
digute esan jokatutzeko
botuetan, bai, pakian,
gure erriyak gobernaturten
fueristak jarri artian.

Zer diradela uste dezute
otso au illtzeko lantzak?
Armikan gabe irabaztia
gizon leialak gureztat;
Campión, Gómez eta Nocedal
daukazkilarik indartzat,
atzo bañan gaur txit aurrerago
daude Fueristen biyotzak.

Badakizute karlisten kontra
daudela *peste* guziyak,
irabazirik dauzkagulako
arrazoietan auziyak.
Zergatik dauzka Jaungoiko Jaunak
bere eskutik utziyak?
Diradelako gure odoln
zurrupatzalle aundiyak.

Fuero-zaliak nolatan eman
Fuero-etsaiari botua,
ez dagoanak beltzen mendian
edo ez bada astua?
Botatu gabe gelditzen bada
da beltzak bezin gaiztua...
da pastel txar bat, da bildurri bat
edo da oso tontua.

Gerra, bai, gerra bai botoetan,
gerra etsai beltz guzizai,
Erdal-Erriko lege paltsuak
gustatzen zaizkizutenai;
gerra, bai, gerra, bañan txit beltza
ausardiz nocedaltarrai,
maskararekin bizi diraden
biyotz beltz klase txarrenai.

Goazen, bai, goazen botatutzero
bildurrik gabe batere,
esanaz: «Gu beltz jira bañan len
nai degu bizirik erre!»
Gure semeak soldadu eta
oienak... zergatik libre?
Zergatik ezer ez liraken, ez,
Fuero Santubak baleude.

Goazen, bai, goazen Fueroen billa
denok gizon bat egiñik,
guk ez daukagu maskarik eta
kontzientziko kargarik;
guk aski degu erakustea
gure bandera bakarrik,
mutututzero etsai guzizaiak
baldin balute lotsarik.

Urretabizkaiak

El Cántabro, 1895-V-12

Aurrera, anai maiteak, aurrera!

Al da Europan, al da Afrikan,
bai al da Mundu Berriyan,
karlisten gisan egoten danik
beti egiyan guardiyan?
Naiz botoetan pake-denboran,
naiz gerratetan mendiyan,
ezetz etera gure berdiñik
eguzkiyaren azpiyan?

Zer litzake, zer, Españiyakin
baleude beltzak bakarrik,
edo fueristak baldin egongo
bagiña geldi-geldirik?
Beste guziyak zertan agertzen
dirade elkar arturik...
utzi nai ezik karlista bati
begiratzeko lekurik?

Zerbaiten truke dira ibiltzen
nun-naiko partidu beltzak,
edozer gauza eginta ere
ez da *garrangik* oientzat;
beti gezurra defenditutzen
bizitzen diradenentzat...
armak ez bada beste gauzarik
gaur ez daukate indartzat.

Guk dauzkaguben buruzariyak
santubak ez diralarik,
oien mendian pozaz gaudenak
justubak ez gentalarik...
erriyak ondo gobernatutzen
bai al da zintzoagorik,
jaterik ez da karga goienak
gañean dauzkagularik?

Egiya egi, gezurra gezur
diradelako guretzat...
joaten gerade botuetara
geren kontura karlistak;
Nocedal eta nocedaltarrak
diralarikan txit beltzak,
gaur ezin dute pasa iñola
katu paltsua... erbitzat.

Zergatik bada gorrotatutzen
dute fueristan izena,
gauzari ondo begiratzeko
dalako gizon txarrena?
Ez, ez; karlista, karlista bada,
agertutzen da zuzena,
naiz an, naiz emen kopeta garbi
erakutsitzen dubena.

Dakigu beste alderdiyetan
gizonak badiradela,
bañan... nai arren ezin portatu
libre daudenak bezela;
Cánovas-ekin Sagasta-rekin
zerbaitengatik daudela,
ixpiyak eta gañerakuak
maite baidute sabela.

Ez degulako beñere saldu
janaren truka onrarik,
alde denetan ez degu izan
beltzetatikan lagunik;
degu jokatu guk botoetan
maskarik gabe bakarrik,
ez dagolako salbatzerikan
karlistik gabe erririk.

Fueristak bakar-bakar-bakarrik
dirade guztiz libriak,
(errespetatzen dakitelarik
zori gaiztoko legiak);
Gobiernuben mende zaudeten
aberats mi... se... ra... bli... ak,
etzerate, ez, gure moduban
zeon buruben jabiak.

Goazen, bai, goazen, anai maitiak,
goazen ausardiz aurrera,
erakutsiyaz gure etsaiari
salbaziyo bako bandera;
Korteetakoan oraiñ bezela
denok portatzen bagera,
igoko gera, bañan txit azkar
beste guziyen gañera.

Iruretangoienak

El Cántabro, 1895-V-19

On Benigno Rezusta eta Abendaño zanari

Jesukristo zerura igo zan egunian,
Maiatzaren 23-an, 1895-garren urtean.

Nora joan ote zera,
Benigno Rezusta,
zure bildotx maitiak
desanparatuta?
Emen gaude negarrez
artzai bat galduta,
arkitzen zeralako
lur azpiratuta.

Katoliko fuerista
erdoirik gabia,
Sort-erriyan aldeko
errege-zalia,
zaldun argirotarra
birtutez betia,
zuk onratzen zenuben
Okendon pontia.

Beti fedian alde
sakrifikatuba,
beti Fueroengatik
asko nekatuba;
arrazoia zalako
zure zimenduba,
ziñaden senadore
guztiz maitatuba.

Dirade, bai, mesede
izugarrizkuak,
bizi ziñadenian
zuk egindakuak.
Ez dira iñoiz illtzen
zu bezelakuak...
etsairikan ez duten
biyotz aundikuak.

Senadubak badizu
egin justiziya,
ez du geiegi egin
baizik mereziya;
zuk, zuk luterotarra
gerra txit biziya
irabazi ta zaude
koroiez jantziya.

Gu oñazez utzita
joan zera mundutik,
txit negarrezko balle
triste onetatik.
Zure Euskal Erriya,
Jaungoikoagatik,
saia zaitez libratzen
beltz oien mendetik

Ramos Azkarate-kuak
El Cántabro, 1895-V-23

Olazabalko On Tirso jaunari

Loinazko San Martiñen egunian,
maiatzaren 26-an, 1895-garren urtean

Batetik miñez eta negarrez
gaude artzai bat galdurik,
bestetik ezin guk galerazi
Jaunaren borondaterik:
Errezustako Benigno zana
karlistai gogoraturik,
atzo bañan gaur askoz geiago
gaude naigabez beterik.

Noiz eta bear geradenian
artalde errukarriyak,
joaten zaizkigu beste mundura
alako artzai aundi yak;
alako kristau, alako zaldun,
fuerista garbi-garbi yak...
Illundurikan lajatu ditu
Gipuzkoako mendiyak.

Bañan guk beti degu ikusten,
ekaitz gaiztoen ondoren,
gure mendiyak eguzkiyakin
nola argitzen diraden.
Modu berian daukagu poz bat
gure biyotzen barrenen,
zerengatikan zu bizitziak
atsegindutzen gaituben.

Nocedaltarrak gerra gogorra
paltsokeriyan egiñik...
nola etziñan zu gaxotuko
zaldun leial bat izanik?
Al da intrigo traidoreetan
zu bañan kristau oberik,
zu izan zeran eta zeraden
Fueroen zaleagorik?

Dakitelako petral oriyek
zaldunegiya zerala...
saldu zinduzten zerbaiten truke
Judasek Kristo bezela,
egiñaz beti edozeñekin
Maroto zanan pastela...
Ignazioren Patri santuba
beltzai saldutzen diyela.

Besterik ez da atrebitutzen
zu mantxatzerik ezertan,
(guztiz abillak diradelarik
Voltaire-n agindubetan),
nocedaltarrak bezin beltzikan
ez da iñungo beltzetan...
ez diran gauzak zabalduzeko
itxuben alderdiyetan.

Ez det esaten orrela dala,
ez det egin nai apustu
ez diyetela zure galera
Jaungoikoari eskatu.
Oiek dizuten gorroto *beltza*
ezin leiteke neurritu;
ez ote daude ernegatutzen
zeradelako sendatu?

Gure On Tirso biyotzekua,
doatsututzen dizugu:
zu bazerade beti gurea,
beti zureak gera gu.
Rezusta ill ta gure mendiyak
badira guztiz illundu,
zuk argituko dituzubela
guziro gaude seguru.

Gaitzak aundiyak dauzkagularik
erremediyo larriyak
daki biraltzen karlistetara
Jaungoiko maitagarriyak.
Zu bezelako artzaaien bear
dira gaur Euskal Erriyak,
baldin ikusi nai baditugu
denbora zoragarriyak.

Bai Olazabal, bai Lardizabal,
zure izendoñ ederrak...
gaur bizirikan baldin badaude,
Jaungoikoari eskerrak.
Dira karlisten begiyentzako
pare gabeko izarrak...
desegiteko probintzi ontan
betiko nocedaltarrak.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1895-V-26

Nere adiskide maiteenari itzegiten dala politikako gauzetan

Don *Alzo-muño* ...intrigo... edo
doña Lettarttar... Mendia,
nere erritar biyotzekua...
ta nere adiskidia...
zeradelarik jende itxuben
gutzizko ondatzallia,
ez ote zaitzu burutik... egin
edo zer dezu ordia?

«Utzi don Karlos, utzi don Karlos»
ari bazera ojuka,
ez al zaude zu erosiya ta
lotsa guziyak galduta?
Ez al daukazu Euskal Erriya
erdaldun beltzai salduta?
Ez ote zaude doña Kristinan
ixkindogiyan sartuta?

Don Karlosekin gaudenak degu
guraso zarren fedia,
ez degu tranpaz engañatu nai
zure moduban jendia.
Progatu zazu gure bandera
ez al dan salbatzallia,
naiz zerurako, naiz mundurako,
zuen bañan obia.

Zuk esan bear, zuk, *Karlos Txapa*
Errege bidezkoari,
Eleiza libre ipiñitzeko
biyotza badubenari!
Zuk esan bear itz larriyetan
ojalatero jaun oni,
gure Fueroak juratu eta
dauzkazkin Aita bateri!

(Oker esan det). Bai al dezute
dotriñik edo banderik,
Ramon Nosedal eta Romea,
Lucifertarra besterik?
Silvela-n anai paltso beltz onek¹
nola ez duben lotsarik...
zuk lotsarikan ez dezubela
kantatu bear dizut nik.

Deserrituta arkitutzen dan
printziperikan fiñena...
beltzen legetan Errege ez dan
eta izango ez dana.
Onen kontrako *katolikua*
da piztirikan beltzena,
gizondiyaren salbaziyorik
ikusi nai ez dubena.

Katolikoan bat-tasunakin
nai degu bizi karlistak,
deseginikan zuen *anaiak*
zabaldutuzten gaitzak.
Leial jaio ta geradelako
leialak Erregerentzat,
leialtadia da gure onra,
dollorkeriya zuentzat.

Gipuzkoa da berez leiala,
zuek zerate zekenak,
Ponzio Cánovas beltzan agintez
tranpiyan zabiltzatenak...
Zeon mendeko bildotx gaxuai
itxirik bide zuzenak...
zerate gure Probenziyaren
seme txar gezurtiyenak.

Ai, banintzake Altzoko ura
zan bezin gizon aundiya!²
Ez naizelarik aren laurdena,
ez naizelarik argiya,
kantatu nuben, kantatuko det
dala Necedalkeriya
Euskal Erriko Fuero dontsuben
traidore aundiyegeya.

Gipuzkoako Fueruak dira
guztiz Errege-zaliak,
Errege leial bidezkoaren
zintzoro serbitzalliak.
Elizpeetan irakurriko
balira euskal legiak,
«ill ditzaguben intrigo denak»
esango luke jendiak.³

Ez badezu nai karlista izan
ez esan beintzat gezurrik;
debekatuba dagon lekutik
ez da egiten gerrarik.
Ez badakizu errespetatzen
Printzipe Katolikorik...
probatzen dizut ez dezubela
lotsa pixkaren apurrik.

Bein bat iritxi bearko degu
Josefateko zelayan,
Jaungoiko Jaunak denok juzgatu
bear gaituben tokiyan!
agertuko da zein diran bizi
munduban judaskeriyan...
Nocedal nola bear genuben
garbitu Euskal Erriyan.⁴

Goiko-etxeak

El Cántabro, 1895-VI-2

¹ *Políticamente hablando*. (Egillearen oarra.)

² *Altzoko Aundia* esaten zioten erraldoia.

³ *Como manda el cap. II. título 29, de la Recopilación de los Fueros de Guipúzcoa*. (Egillearen oarra.)

⁴ *Como el judío Gaón en Tolosa*. (Id.)

Bizi geradenian kontentu

Berri bat onik ez da inñundik
bañan bai txarrak ugari,
gure España negargarriyak
kanpo santuba dirudi;
alderdi denai begiratuta
ez da besterik agiri,
«Au miseriya! Au miseriya!»
gaude guziyok kantari.

Begobitikan abiyatuta
egondu naiz ni begira,
galera asko ikusi eta
nentorren nere errira...
Begiratubaz zelaietara,
begiratubaz mendira,
izuturikan iritxi nintzan
Gipuzkoaren erdira.

Habanan gerra alakoa ta
emen ez dago pakerik,
paga bearrak daude aundiyak,
bizi modubak galdurik;
jaten dutenak badaude ongi,
bestek ez dauka gozorik,
orain ez dago tranpa ta saltsa
eta gezurra besterik.

Beterriyetan aundiyak dira
izandu diran kaltiak,
arrazoiakin negar egiñaz
arkitzen dira jendiak.
Bañan Tolosak dauzkan mendiyak
eta daukazkin kaliak,
ez dakit nola ez dizkiguben
eraman uran aldiak.

Oñaze oien ondorenian
izugarrizko ekaitzak,
zeñek neurritu Euskal Erriyan
zabaldutubena gaitzak?
Zenbat kastigu daukazkiyen gaur
Jaungoiko Jaunak guretzat,
ta batez ere Probentzi eder
maite deguben onentzat!

Ez det ikusi goi alderikan
ibar-zelaiak besterik,
bañan badakit onen moduban
daudela asko galdurik.
Urak kanpoak elbarrituta
begiyak malkoz bustirik,
nekazariyak, baratzgilliak
naigabez bete-beterik.

Nola ez dago Jaungoikoari
kontrarik egiterikan,
ez dago noski kalte guziyak
sufritutzia baizikan.
Etzaigunian emen gertatu
Consuegra-ko gaitzikan,
jendeak bizi geradelako
egon gintezke pozikan.

Denborarekin osatzen dira
ekaitzak galdutakuak,
aundi-aundiak diradelarik
aitzena izandakuak.
Kastigu beltz au eman badigu
udara ontan Jaiñkuak...
uste bañan len berak emango
dizkigu gure Fueruak.

Gaiñtxurisketak

El Cántabro, 1895-VI-9

Bostgarren bertsoak uraldiak izanak zirala esaten du. Zer-nolakoak izan ziran, onela adierazten du *El Cántabro* aldizkaria 1895-VI-6-an:

«Terrible temporal de aguas se ha desencadenado estos días sobre la provincia de Guipúzcoa; y si bien por la falta de comunicaciones no es fácil apreciar hasta ahora la importancia de los desperfectos originados, se calcula que éstos serán de mucha consideración.

Afortunadamente nada se dice de que hayan ocurrido desgracias personales.

Imponente es el aspecto que ofrecía esta villa en las primeras horas de la mañana del martes. El río Oria, arrastrando una enorme cantidad de agua, amenazaba con inundar a la población, y por algunas de las calles corría el agua como si fuera el cauce de un riachuelo.

Por otra parte, las campanas de la Parroquia y de la Casa Santa de Beneficencia pidiendo socorro, para los pobres aislados, por haberse inundado hasta el segundo piso dicha casa a causa de un gran derrumbamiento de tierras que hubo en el monte situado a sus espaldas; la interrupción de la marcha de trenes, el estampido de los truenos, el resplendor de las chispas eléctricas, el continuo chasquido de la lluvia que incesantemente azotaba calles y edificios, todo contribuía a que este vecindario, alarmado ante lo que pudiera ocurrir, dejando a un lado sus faenas cotidianas, se lamzara fuera de las casas a prestar su ayuda allá donde fuera necesario.

Además del desprendimiento de tierras ya mencionado, hubo otros varios en término jurisdiccional de la villa, pero el de mayor consideración es el ocurrido detrás del juego de pelota, en el montazgo de Montescu que linda con la posesión del Sr. Elósegui. Es tal la cantidad de tierras y piedras derrumbados en aquel punto, y que han quedado depositados en la trinchera del ferrocarril, que se calcula será necesario el constante trabajo de diez o doce días para que pueda restablecerse el servicio de trenes.

La iglesia de San Francisco se hallaba inundada completamente, y en su interior flotaban las sillas sobre la superficie de las aguas.

El puente de la fábrica de papel «La Guipuzcoana» ha quedado completamente destrozado, habiéndose llevado la corriente parte de su material.

A la tarde, previo anuncio por pregón público, se hizo una procesión por las calles, en demanda de que cesase el temporal, llevando la imagen de la Virgen de los Dolores, a la cual profesan una especial devoción los tolosanos y de la cual dieron también pruebas en esa tarde; pues a pesar de la lluvia que sin interrupción caía, era inmenso el gentío, así de hombres como de mujeres, que asistió a la procesión y después a la salve que a continuación se cantó en la parroquia.

Por la noche hubo en la casa consistorial de la plaza de Idiaquez, un retén de bomberos dispuestos a acudir donde fuese necesario; pero afortunadamente no hubo que echar mano de sus servicios.

Ayer bajó ya muchísimo el nivel de las aguas en el río y es de suponer que el temporal de estos días no acarreará ya más fatales consecuencias».

Eta urrengo zenbakian, 1895-VI-9-an:

«Estos días no se habla de otra cosa que del temporal que, a Dios gracias, parece que a la hora en que escribimos estas líneas ha desaparecido ya por completo.

Grandes son los desperfectos causados, principalmente en las vegas situadas a orillas del Oria y Urumea.

También en las alturas hay daños que lamentar, ocasionados por grandes desprendimientos de tierras, que han ocurrido con abundancia tanta que no recuerdan los actuales habitantes de esta comarca haber visto cosa parecida.

En Zaldivia, que es uno de los puntos más perjudicados por la tormenta, el río derrumbó diez puentes y un molino.

Las comunicaciones han estado interrumpidas, así por los ferrocarriles como por las carreteras.

Las averías que más han entorpecido el tránsito, por una y otra vía, se han ocasionado en Tolosa. El desprendimiento habido detrás del juego de pelota, que impedirá la libre circulación de los trenes por varios días; y el corte de la carretera frente a la presa de la fábrica de papel «La Guipuzcoana», causa única de que ni la correspondencia pudiera trasladarse aprovechando esa vía de tránsito; pues en el resto del trayecto está transitable el camino real...».

Infernuko Patroiai (Politikan itzegiten dala)

Zein da Andaluzian
dabilen *erlea*,
Cánovas-en apostol
txit doakabea?
Nor da Ramiñ... Nocedal
guzizko Ro... mea...
infernubaren *Patroi*
mantxarik gabea,
dabillena kristautzen
morotar jendea?

Bai, bai, Erramun-txo-txo
dabil urrutiyan,
bere anai maiteak
dauzkakin tokiyan.
Nola... Azpeitiyako...
barruti garbiyan
dagon bere izena
gaur birik-eriyen¹,
zegoan Sebillako
intxaurren premiyan.

Da urrutiyetako
intxaurren zalia
Romea-ko Zan Ramon
parerik gabia;
turroiaren aldeko
aitaren semia...
Dabil Gipuzkoara
egiten bidia...
Cánovas-en kaiolan
dagon *dubendia*.

Sardá-Salvany zanan
dotriñak salduta,
bi-gote traidoriak
ondo zorrozuta...
Se...billako *moroak*
ala erotuta,
Españiya guziya
dago... *arrituta*...
nola ez dan arkitzen
martirizatuta.

Zenbat, zenbat lezaken
jana badubenak,
Kristinantzat *animak*...
biltzen dabilenak!
Zenbat, zenbat lezaken
andare beltzenak,
bereganatutzeko...
piztirik *txarrenak*,
bere gisan jatorriz
beltzak diradenak!

Nork daki zenbat milla
gorputz ta... anima
etzan... azi zituben
turroiarengana?
Zerbaitezaz *munduban*...
zabaldur du fama,
zergatikan altxa nai
duben beltzen *ama*,
naiz deitu edozeñek
Judasen laztana!

Izan ere omen da
nun eta Utreran!
Sánchez-Silva... zanakin
ibilli da egan.
Zer egin ote zuben
bada Barramedan?
Elkanoren gloriya
nola bizi dan an...
euskaldun leial oni
ekin ziyon gerran.

Billa-ona-ko beltzen
defenditzalliak,
ustez ondo dakiyen
eskribatzalliak...
Obeto esateko
Don *Molke* guriak
(len ez bañan... gaur diru
askoren jabiak)
kanta ditzala azkar
zortziko beriak.

Nola Romea-k eta
Le...ttar...ttar Mendiak
badituzte birtute
donegingarriak.²
Kristinan ixkindoiko
ollanda pariak...
diralarik traidore
berdiñik gabiak...
dira infernubaren
patroi txit berdiak.

Gaiñtxurizketak
El Cántabro, 1895-VI-16

¹*En tisis.* (*El Cántabro*-ren oarra.)

²*Canonizables.* (*Id.*)

Nere moduko gizon eder bateri adiskidetasun guziyan

Izengoitiyen jarritzalle bat
bazaude Egiputzuan,
Andoaingoa... zeran edo ez
orain ez daukat goguan.
Zuk emandako tituluekin
emen naukazu auzuan,
bildur-bildurrez noiz arrapatu
bear nazuben lazuan.

Edertasuna! Edertasuna!
Erosi al banezake!
edo bestela zuk pixkatxo bat
emango bazirazuke...
Zure arpegi *zuri-gorriya*...
nerian ordeztan banuke,
«Ori bai dala gizon ederra!»
jendeak esango luke.

Dotatsariya¹ ta kantariya
zeradelako kasuan,
kantatu zazu, badakizu-ta,
gure itzkuntza gozuan.
Zertan kantatzen dezu erderaz
ni ixilltzeko asmuan,
ez banaitzazu ni mututuko
nere bizitza osuan?

Ederrak burla errez egiten
daki, bai, itxusiyari!
(Ez det esan nai egin ziyola
zartagi zarrak pertzari.)
Cántabro-tikan jaten ari dan
pobre... beartsu bateri...
Al dakizute zer esan ziyon
zozuak bele beltzari?

Japones, txino, malaio, indio
zuk kantatubagatikan,
ez dizut, bada, o nere Aita!,
batere gorrotorikan.
Zer kulpa det nik banintzan jaio
amaren sabeletikan,
zuk daukazuben *edertasunan*...
apurrik gabetanikan?

Badakizute, bañan berritu
bear det biyen ipuya:
noski dakigu ez bat ez beste
ez dala *zuri-gorriya*.
Bañan zozua *bere ustian*
zalako *ipur-txuriya*,
ipurdi-beltza onek deitzia
ez al zan farragarriya?

Ez dakitenak begiratutzen,
iñor burlatu bañan len...
gutziz ederrak... edo zatarrak...
berenez ote diraden...
Gelditzen dira itxusi denak
itxuski lau milla bider,
zerengatikan zatarrak zatar
beti izango geraden.

Baldiñ orrela ekiñ baziran
Doña *Le...ttar...ttar Mendiak*,
(ditubelarik biyon moduban
kolore *ori-berdiak*)...
Onek daukazkin pollitasunak
dirade *paregabiak*,
bai eta ere Don Karlosentzat
bota zituben *loriak*.

Berriz ezkondu bear banuke
Jaungoikoaren eleizan,
zatarra edo ederra naizen
egongo nintzake bistan.
Edertasuna nolatan ez dan
saldutzen dendan ta plazan...
naiz zu ta naiz ni gizon ederrak
nai arren nundikan izan?

Nik euskalduna ez badirudit...
eta zuk... zer dirudizu?
Tximu zarraren ispillutxuan
mesedez begira zazu;
Malayo onek izen berri bat
jarri nai baldin badizu...
oraiñ beñepeñ nagon ixillik,
lenguak pranko dituzu.

Gaiñturisketak

El Cántabro, 1895-VII-7

¹ Poeta. (*El Cántabro*-ren oarra.)

Ez dakit jakiñ edo
egin detan amets,
zabiltzan aurreraka,
zabiltzan errebes...
Edozeiñ moduz dala
egin dezu gañez,
zedorren setakuak
oraiñ diyotenez...
(Beintzat baten abotik
aditu detanez)
arrantzan ibillitu
zerade legorrez:
jende guzi-guzi
zegoen bildurrez,
asi ziñadelako
armaren indarrez...
Estali bazenuben
erriya txartelez,
Don Anton Cánovas-en
legez eta bidez...
kargatu bazinduzten
kobrez... ta... zillarrez...
gaur ezin jasorikan
nun zaude negarrez?
*Tripa nai degu bete
ollo ta ollandez,
bai ere ollarrez ta...
gañera kapoiez.
Guri ibiltzen gera
gabaz ta egunez,
len egindako barau
askotxoren partez,*

naiz prankotan txakur bat
gerenik izan ez...
arkitzen gera oraiñ
ortzetako miñez.
Dakizu aberatsa
naizela ni nerez,
(ai!, esan nai nizuke
naizela artalde),
eta zu aberatsa
zerala balorez
badakigu, pruebetan
ikusten degunez.
Berarengatik bada
zuk neri, mesedez,
ardiyen erostuna
billa nazu zerez,
nik apaiñdu zaitzatan
Bankuko paperez.
Zertarako zabiltza
nekatutzen oñez,
eman nai ez dizuten
intrigoen galdez?
Nik, nik jarriko zaitut
txutik karidadez.
.....
*Fuerista-n eskribatu
zenuben beiñ errezez...
Bada karta auxen da
zurian ordañez.*

Artzai batek

Larraitzen, Uztaillaren 9-an.

El Cántabro, 1895-VII-14

Aita Zirilo

(*Erderatik euskerara biurtuba eta dago artuba egunaria edo kalendariyo batetik.*)

Jaio zan gizon aundi au Torrejón-en guraso nekazariyengandik. Egin zan Aita San Frantziskoren erlijioke seme Madrill-en amabost urte zitubenia eta, irabazirik sermoigille guzizkoen fama, joan zan misionero 1808-garren urtian Montevide-ra, eta an izandu zan español on bat eta gañ-gañeko erlijiosua. Gero pasa zan Brasilera, nun izandu zan errezibituba grazi aundiyan Braganza-ko Printzipeakgandik; izandu zan enkargatuba moldatzeko Don Fernando zazpigarrenan eta Don Karlosen ezkontzak, gero biyen emazte izandu ziran bi printzesakin. Zazpigarren Plok lonbratu zuben frantziskanuen Ordenako Buruzari edo Jeneral; kargu onetan erakutsi zuben zenbaterañoeko langillia zan, zelebratubaz batzarre bat Alkalan. Gero izandu zan lonbratuba Kubako Santiagoko Artzobispo, bañan itzuli egin bear izandu zuben andikan 1837-garren urtian orduko naraspilla edo gerraren bitartez; etorri zan Don Karlos bostgarrenaren kortera, eta emen, izanik Jaun onen Aitajaun, portatu zan Maroto zana bezela. Bergarakuak baliyo izan ziyon Toledoko silla aundiya, eta emen izan zan edo egin zan karlisten etsai ainbesterañoekua... bada San Karlos Rapita-ko denboran izandu zuben ausardiya *basatiyak*¹ edo salbajiak deitzeko soñu aundiko irakasde² batian. Aita Zirilo ill zan, Agorreko naraspilla-zaliak egindako neurkida edo konstituziyua Españiako obispo jaun guztietan berak bakarrik juramentuta.

Onek, bai, onek bururatzen dit
oraiñ Le...ttar...tar Mendia,
ez dalarikan Zirilon gisan
kargu aundiyan jabia.
Zerbaitengatik salduko zuben
lengo Errege beria,

txit egiazko katoliko ta
guzizko Fuero-zalia,
liberal denak gorrotatutzen
duten Printzipe noblia,
salbaziyoko bandera daukan
zaldun txit paregabia,

¹ *Hordas.* (*El Cántabro*-ren oarra).

² *Documento.* (Id.)

deserrituta arkitutzen dan
egiyan adiskidia,
lur azpiratu bear dubena
erdaldun beltzen legia,
eun errege bidezko aien
illoba maitagarria;
ez balitzake intrigo denak
bañan askozaz obia,
ez baldin balu defenditu nai
guraso zarren fedia,
jan besterikan ez leukake gaur
zuen moduban *urria*.
Ikusirikan iya illian³
Españi negargarria,
iya galduban ikusirikan

Aitorren Euskal Erria...
zer da, bañan zer, D^a Le...tar...tar,
zuk nai dezuben bidia?
«Utzi Don Karlos» oju egin ta
sendotu *etxeko-andria*.
Zuk tratatzeko –*ojalateros*–
Karlos ta bere taldia,
leku artatik bai al zenuben
alako eskubidia?
Zu aberatsa bazera diruz
buruz zerade pobria,
obetoago esango dizut
Voltaire miserabilia,
Ramon Necedal eta Romea-n
anai pentsakallaria⁴.

J. A. Goiko-etxeak

El Cántabro, 1895-VII-21

³ Lerro ontako *iya* itza guk erantsia da, ala bear dualakoan.

⁴ *Calumniador*. (*El Cántabro*-ren oarra).

Santocildes-ko On Fidel Alonso zanari Españiyako Patroiaren egunian.

Itzak ongi neurritzen
baneki indarrez,
edo kantari on bat
banintzake nerez,
jarriko nuke goian
Fidel Santocildes,
apaindurik euskerak
daukazkiyen lorez.

Txurrukari belaun bat
purrukatuarren,
«Au ez da ezer!» oju
egin omen zuben;
etsairikan ontziyan
ikusi bañan len,
katoliko fiñ ura
ill zan Trafalgarren.

Ez itz-neurritzallea
ta ez kantariya,
euskeraz ere nola
naizen elbarriya,
nola apainduko det
gizon gudariya,
baldin laburra bada
nere alderdiya?

Ala illtzen dakite,
bai, katolikuak,
Damian bezelako
biyotz aundikuak,
soldadu leial eta
fedez bizikuak,
eguzkiyan azpiya
onratutakuak.

Sort-erriyangandikan
ill dan seme bati,
nolatan ez diyogu
kantatuko beti?
Españiyaren onra
salbatzeagatik,
alakoak pagatzen
dakite larrutik.

Modu berean ill da
gure Santocildes,
Patriyari gloriyak
ugari emanez;
ez da ernegatzen ill,
ez eta negarrez,
baizik «Zerura nua»
beregana esanez.

Katoliko karlista
joan zaigu mundutik,
Españiyan *ur arte*
aberatsenetik;
lagunduko digu, bai,
Txurrukan ondotik
Sort-erriya libratzen
moroen mendetik.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1895-VII-25

Fidel Alonso Santocildes Burgos probintzian jaio zan, Cubo deritzaion errian, 1844-an. Militar egiñik, Santo Domingo eta Kubara bialdu zuten, ugar-te ontako gerran parte arturik; eta jeneral izendatua zala, Peralejo burrukaldian il zan, 1895-VII-9-an. (*Enciclopedia Espasa*-tik artutako argibideak).

Eraneun arratsian kantatu nintubenak ametsetan

Aita Mendiburu edo Ciceron euskaldunaren

doñu ederrian.

Gerra, gerra ta... gerra,
gerra Nocedal-i,
gerra Euskaldun Erri gozoen
etsai goienari!
Gerra, gerra beretarrai,
euskeraren seme txarrai,
gerra, gerra gezurrakin
bizi diradenai!
Gerra, bai, gerra Fieron etsai!
(*Bañan bakarrik oien artzai*)
Gerra gogorra eta biziya,
gogorra, Maroto-zaleai!

Guda, bai, guda, guda
Patxi Silvela-ri...
Erramontxoren... *anai propiyo*,
anima beltzari!
Ekin, ekin pizti oni,
Luziferren... *semeari*,
Voltaire-ren jatorriko
erdaldun txarrari.
Guda ta guda turroi-jaleai,
gaur *agoniyan* dauden guztiyai,
guda Campion, Sánchez Toca ta
gezurran lagundutzalleai!

Zertarako guk izan
begiramenturik,
baldin Fueruak ez badiyote
utzi nai bizirik?
Gure lege sagradubak,
Don Karlosek juratubak,
ditzaguben ondo egin
beren agindubak.¹
Gure aitonak ziran justubak
digu esaten Gaon judubak...
Du erakusten nola gordetzen
diraden lege zar santubak.

Arren!, obra dezagun
Fueruaz konforme,
naiz au, naiz ori, naiz ura izan
begiratu gabe.
Artzai utsak garbituta,
arkumeai barkatuta...
Gipuzkoa *pestetikan*
dago libratuta,
Ramon ta Patxi katez lotuta
bizi-bizirik lurperatuta...
Euskal Erriko Fuero maiteak,
maiteak, daude salbatuta.

Gaiñturisketak

El Cántabro, 1895-VII-28

¹ *Guipúzcoa, al unirse a Castilla, reservó dos medios indispensables para mantener sus franquicias: fue el primero, la facultad de reconocer las disposiciones y providencias de los Reyes, del Gobierno y demás autoridades, por si contenían o no algún contrafuero, para en el caso afirmativo negarles el pase, y en el negativo darles curso. Fue el segundo, el derecho de matar al que intentara llevar a efecto cualquier contrafuero con... o sea el de rechazar la fuerza con la fuerza.*

(En el capítulo segundo título 29 del Fuero, se consignan tan preciosos derechos.)
(El Cántabro-ren oarra.)

**Erderatik euskerara biurtuba eta dago artuba egunaria
edo kalendario batetik.**

Nocedal eta Probidentziya edo letarta

1888-garren urtean, (bada-ezpada ere San Ignazio egunean), agertu zan ezkerko Burgos-ko agiria edo manifiesto *fama aundiko...* ura, kontatuko degu Erramuntxorekin gertatu zana bere Ama *Romeak* argitara eman zubenian.

Jaio zan urtearen aitzenian, da esatia San Silbestre egunian, alako denbotetan ezikan onen aita D. Kandidok González Bravo eta Zarate-ko Gil-ekin pasiatutzen zuben egunetan. Negubaren biyotza zalarikan, guzizko egoraldi ederra egin zuben, eta orregatik balkoiak eta leiuak zeuden zabal-zabalik. Bi jesuitak jarri zutenian aur au seaskan... gertatu zan, bada, sartutzia balkoi batek egazti txiki bat (izan bear zuben torre-txoriya edo xagu-xarra, zergatikan illunabarra zan) eta txori au gelditu eta egon zan aurraren onduan denbora luzian. *Ala bearrak ala gertatu...* denborak ikusi zuten gertaera *arrigarrizko* au, zeñengatik geroztik askok dute sinistatutzen (moruen gisan) Nocedal-ek itzegin eta tratatzen dubela Probidentziyarekin, agertu zitzaiolako torre-txori edo xagu-xar baten itxuran. (Oneraño egunariya).

Zerbaitengatik izendatzen zuten diputadu letartakoa edo probidentziala oraingo eta betiko intrigo fariseuak! Bañan... zergatik uste dezu? Zergatikan Duke *Mingranan*, Konde *Guakiren*, Narros-ko Markesan botuak izanagatik... arraspa... ukendu... bizar-ebaille eta beste deabrukeriyak eginta ere... ezin kabituko zalako Korteetako atean. Eta nola kabituko zan anak aundiyegeyak bazituben? (Urrengoan kabituko da, Probidentziyak eta karlistak nai badute).

Gaur gizon *sabel-zuriya*
eta traidore aundiya
omen da *gutziz argiya*;
perla oiekin abiyatu zan
emen *Nosedar-keriya*
saldutzen Euskal Erriya
eta istori garbiya,
munduban arrigarriya.

Gaiñtxurisketak
El Cántabro, 1895-VIII-8

Aita San Ignazio Loiolakoari

San Ignaziyo Loiolakoa,
soldadu eta santuba,
intrigo gaizto guziyak illko
dizkigutzuben malluba...
Nocedal edo *Maroto-tarrak*
zauzkate guztiz salduba,
daukate zure leialtadia
paltsiyan kondematuba.

Jesus maitean Biyotz Santuba
beti abotan artuta,
zure Patriya nai dute galdu
azpitik puzunituta,
Errege leial Fuero-zalea
osoro gorrotatuta,
dadukate gaur Doña Kristina
Amatzat ezagututa.

Nola bestela bildu leitezke
zure seaskan jendiak,
Toca, Silvela ta... Erramontxo,
Luzbeltzen adiskidiak?
Nola, bai, nola zabaltzen dizte
deabru beltzai atiak,
jakiñik oiek ill zituztela
gure lege zar maitiak?

Beltzen ordenaz lonbratutako
alkate bat ikusita...
iru txorroko txapel txiki bat
buru aundiyan jantzita...
Sánchez Toca ta... Silvelatxoren
erdi-erdiyan jarrita...
a zer nolako irutasuna
entengaz ondo josita!

Maisu sakristau Beizamako bat
zure erriyan alkate!
Ta emen dabil guri esanaz:
«Bagendu bageñekike».
Txapel txatarra duben tokiyan
aundiyegiya baluke...
«Ni naiz, ni, txori-izutzalle bat»
berak esango liguke.

Ongi bazkaldu eta ondoren
jarriko balitz baratzan...
zer pozarekin abiyatuko
liraken bariak dantzan,
esanaz: «Asi gaiten bertatik
onen zakutik arrantzan...
gosiak illko giñikian gaur
au emen sortu ez bazan».

San Gregoriyo Ataungoan
sakristau zanan semia...
au len sakristau Beizaman eta
oraiñ alkate guria,
ontzat arturik liberal beltzen
zori gaiztoko legia...
Esan eiguzu, San Ignaziyo,
au al zan zure bidia.

Nola emango ziyon bestela
Azpeitiyako *arbazta*,
ez baldin balu gogotikan jan
infernutarren apasta?
Bai, Ignaziyo, zure erriyan
daukagu alkate *beltza*,
zatitzen gure Fueruak eta
Jesus maitian biyotza.¹

Zu errezatzen, zu, egunero
denon Jaungoiko Jaunari,
errege leial bidezko denak
goberna zezaten garbi.
Alkate onek nai diyo berriz
Ponzio Cánovas beltzari...
Euskal Erriko Fuero dontsuben
borrero gaiztoenari.

Ai pizti txar bat etera bada,
Aizpuru ez da obia,
santu-paperan... ibillitzen dan
pizti txar berde-berdia.
Alkatia da onen senarra,
au berriz bere andria,
bañan denboraz artuko dute
eriyotzako golpia.

J. Zabalbidekoak

El Cántabro, 1895-VIII-11

¹ *Políticamente hablando*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

Azpeitiko sekretariyo edo goarpelariyari

Zertan zaude zu, *pizti berdia*,
zintzilik edo *balantzan*,
txori gaixo bat iya illean
iñoiz arkitzen dan gisan?
Zerengatikan ez dezu nai zuk
beltza zeradela esan,
zure erriko *dunbaleruak*
ondo ezagutu zaitzan?

Aizpuru edo Joxe Maritxo,
nere moduko *lau begi*,
letradu *azkar*, *sermoi-egille*,
dagoana *goarpelari*...
Aboztubaren laubean noski
onetxek buru-belarri
esan zizkion, ta nolakuak!,
Karlosen familiyari.

Burutik ondo etzan egongo
zerbait sartu ta... ondoren,
edo bestela suge *beltzen* bat
bazeukan bere barrenen.
Karlisten kontra bota zituben
zapoak ainbeste bider!...
Nunbait *aingeru maisubarena*
bere aurretik zebillen.

«*Usteldutako partiduba... ta...
zuen etsairik goienak*»
zuk diozunez, zuen bidean
laxter jarriko geranak...
Eta diyozu lotsa gutxikin
puska askotan gaudenak?
Esan zenduben zeradetela
Cánovas beltzen lagunak

Ez al dakizu jaió giñala
maskarak purrukatzeko,
desegiñ eta ondorenian
traidore... denak illtzeko?
Ai, Joxe Mari! Ori bildurra
daukazu *jana* galtzeko,
ta antziñako kontu urdiñak
karlistai erakusteko!

Zirkuluaren errentarikan
ez dizutela pagatzen!
Etzera beaz alferrik jardun
aurten buztiñez... pintatzen!
Abiya zaitetz alik laxterren
kanpo ta barren doratzen,
ia Nocedal ta beste *piztiyak*...
diran astero etortzen.

Bestela azkar kantatuko da
zure etxian *illeta*,
joaz Arresek *figlia* eta
Artetxe batek tronpeta.
Dunbalerua platilluakin
txin... txin... txin jotzen jarrita,
entzun bearrak gerade noski
martxa bat guztiz pollita.

Españiyari jarriko zaio
ogei urteko... *lutoa*...
lurperatzian Azpeitiyako
Zirkulo *Katolikoa*.
(*Oker esan det*) Joxe Mariren
biltoki beltzetakoa,
Ignazioren *leialtadia*
saltzeko jarritakoa.

Markes Murua ta Sánchez Malco
joango dirade produan,
Murua *Anton* eta Egaña
Erramontxoren onduan;
Barragan eta Bidaurreta
abiyatzian kantuban,
bai Amorenak bai Sánchez Asok
a zer *arrantzak* orduban!

O, Joxe Mari *biotzekoa*,
adiskide txit maitia,
egin eiguzu bada mesede
obeto itzegitia.
Ezertan asi bañan lenago
Azpeitiyako jendia,
Arresen bidez goarpelari
Beizaman jarri zaitia.

J. Zabalbidekoak

El Cántabro, 1895-VIII-18

«Zer da Nocedal...»

Aitzena joan dan osteraeguneko *Cantabruak* burura azitzen dit oraiñtze lau urte, milla eta geiago pertsonen aurrian, kantatu nuben bertsoetako bat.

Zer da Nocedal, ez baldin bada
erdal txar amorratuba?

Zer da Ramontxo, ez baldin bada
Satanas-tarren buruba?

Zer da, bañan zer onen dotriña,
ez bada kondenatuba?

Zer da *Romea*,... ez baldin bada
pairazo beltzen maisuba?

Bañan *zomorro* ibilli arren
egin dute, bai, noizbait ler:

aiñgeruba da *egiyazkua*,
gezurrezkua Luzifer;

Don Karlos utzi zuten ezker
dabiltza guziri oker...

izandu dira *Artzaiengandik*
kondenatubak... lau bider.

Nere orduko galdera oiek
diraden egiyak irten...

Negargarriyak dirade bañan
agertu zaizkigu aurten.

Zenbat naigabe dizkiyen oiek
Erromakoai... ematen...

naiagatikan ez da erreza
bear bezela esaten.

Fede oneko Nocedal-tarrak...
ez al dezute ikusten,

eskubitako bidetik nola
ezkerrataraz zoazten?

Ez dakizute, anai maiteak,
galdubak nolaz zeraten?

Judasek Jesus bezela nola
Ramontxok saldu zinduzten?

Leku onian arkitutzen da
oriyen *purutasuna*,

deitubagatik eguzkiyari
«*Ori gauza txar illuna!*»

Zenbat alditan esaten ziyen
oiek gaubari eguna,

itxu tartean itxusitzeko
egiyan edertasuna!

Ez baldin badu ezagutu nai
beretzat *agintaririk*...

Jesus maitean *Biyotza* eta...
Kristoren Ama besterik...

ez al du bear Eleiza Santak
Erroman *Aita Santurik*?

Ez degu bear gobernatzeko
Errege *egiyazkorik*?

Katolikoan bat-tasuna ta...
ez degu bear fuerorik?
Ez degu maite Sort-erriyakin
español denon *Aitarik*?
Gipuzkoako katolikoak,
ez al dezute begirik
ikusitzeko Nocedal-ekin
nola ez dagon gauz onik?

Dozenaterdi bakarrak dira
gure probentzi maitean,
nai zaituztenak betiko jarri
euskaldun *beltzen* mendean.
Ez *zerurako*, ez *lurrerako*...
zertan zaudete aidean,
batzuben *jana* zuek pagatzen
ezkerretako bidean?

Atozte, bada, arren!, atozte
Azpeitiyako errira,
emen lautatik iru *intrigo*
jatorriz karlistak dira.
Goazen Azkoiti, Tolosara... ta...
Donostiyako Urira,
zeiñ ta nor diran oien *jauntxoak*
jarri gaitean begira.

Nocedal ori ezagutzeko
ez al dezute modurik?
Orrek ez dauka Doña Kristina
sendotu naia besterik.
Eta onekin dauden artzaiak
nai dutena da bakarrik:
beren denboran ez dedilla, ez,
guretzat izan fuerorik.

Beltzen mendian badakizute
gaudela elbarriturik,
ta zuengana ez daukagula
gorrotoaren apurrik.
Ez dizutegu bada eskatzen
odolik eta dirurik,
baizikan zuek artzeko gaude
geren besoak zabalik.

J. Zabalbidekuak
El Cántabro, 1895-VIII-25

Egundaño aztuko ez dana

«Egun oietan baita ere eskatu biar diyogu gure Jaungoikoari Errogatiba Santuetan, katolikuaren uniorako, zer dan gure Aita Santuak klamatu eta agintzen diguna katoliko guztiari, eta ez diogu obedezituko Kristoren Bikarioari? Bai, nere aditzalleak; Karlos eta beste pertsonari baño lenago, obedezitu biar diyogu Erromako Aita Santuai. Nor da Aita Santua? Da Kristoren Bikarioa lurrean, zeñari guztiok gauden obligatuak obedezitza. Bañan gauza negar-garria, odolezko malkuakin negar egin bear gendukena: ez diogu obedezitu nai Kristoren Bikarioai eta, unitu bearrean, burruka biziyan gabiltza katolikoak bata besteakin, gauza tristea eta penagarriya. Ea, bada, katoliko egiazkoak bagera, utzi ditzagun alde batera ojalateruak eta segi diogun gure Aita Santuari, obligazioa degun bezela».

Esan eiguzu, adiskidia,
zaiguzu esan mesedez,
katolikoan *elkartasuna*
nai al dezuten edo... ez;
zuek gauza bat mingañian ta
obretan beti errebes...
bizi zerate *anaia beltzai*
atsegiñ denak emanetz.

Calbetón eta *Matxinbarrena*
apostol beltzetakuak.
Sánchez Toca ta Toca ta Toca
ta onen *lagundikuak*...
egin dituzte Necedal-ekin
nolako konbeniyuak!
A zer moduba elkartutzeko
ziñezko katolikuak!

Esan zadazu Doña *Le-ttar-ttar*,
erantzun nazu ordia:
ez al dan zuen *seta pittiña*
Maroto zanan zalia.
Ez al dezuten guziro maite
turroia eta... pakia,
ez al zeraten ille ta guzi
ojalatero jendia.

Zeñiek esango eta oriyek
guri *ojalateruak*!
Zori gaiztoko *maskara* dauken
Burgosko pasteleruak!
Eleizetako *karabinero*
santu zar ezkerrekuak...
kontrabanduan bizi diraden
pizti txar argizaizkuak!

Zertan aboan artu zenuben
Leon amairugarrena?
Jende itxubak sinista zezan
agintzen ez digubena?
Eleizak ez du kondenatutzen
bandera Eleizarena,
bañan bai zuen maskara eta...
maskara sortu zubena.

Katolikuak desunitzeko
Karlosek al du agindu?
Al du Erregek zuen moduban
bere banderarik saldu?
Beltzen legea nai balin balu
berearekin konpondu...
Bañan au egin gabetanikan
onrakin illtzea nai du.

Guk nai ditugu Jaungoikoa ta
lege zar gloriosuak,
ta Sort-erriya gobernatzeko
errege *leial* gozuak.
Odolezkuak... nola ez diran
zuen negar txit paltsuak,
zerate bada fariseoen
ikasle gaizto-gaiztuak.

Zuen *Romea*, zuen *Nosedar*,
zuen *Ramontxo* maitiak,
nai ditu noski zerura altxa
Españiyako *kortiak*.
Bañan *Aizpuru* eta *Arrese*,
Sánchez-Toca ta bestiak
dauzkate bada, *gizarajuak*,
txit etorkizun tristiak.

J. A. Goiko-etxeokak
El Cántabro, 1895-IX-8

«Esaten bagenuben...»

Azpeitiko Landetan lengo arrats batian intrigo banaka batzuben kantatu zituztenak Riego-ren himnuan edo kantonan.

Esaten bagenuben
«Gu gera»¹ santubak;
bañan... bañan... zer geran
gaude agertubak.
Karlosentzat bagera...
izan *deabrubak*,
Eleizarekin ere
gera berdintsubak.
Gure dotriña gaizto
Ramontxok sortubak
dira izan Erroman
txit kondenatubak.

Orrenbeste denboran
ez ezagutzia
guk nai ez degubela
martirizatzia!
Gure bildotx purubak
ez ikusitzia...
nola nai deguben guk
ondo bizitzia!
Gure jarraitzalliak
ez konturatzia...
nolatan ez dan aski
beltzez... jantzitzia!

Ez dute kulparikan
arkume... itxubak,
guregatik arkitzen
dirade galdubak,
Oraiñtxen ere... nola
dauden siñistubak
gaudela bizirikan
kanonizatubak!
Bañan,... *gizarajuak!*,
dauzkagu saldubak,
balirake bezela
artzaian *kaikubak*.

Zergatik izandu zan
guk Karlos uztia?
Maite degubelako
birtutez betia.
Errege bidezkoa...
da gauza tristia,
ibillitzeko *guri...*
tripa zar maitia.
Obea da askozaz
txit lasai jatia...
ez egiyangatikan
martir... izatia.

Argatikan gaude gu
Señoran kabiyan,
anima... eta guzi
liberalkeriyan.
Negarrez egon arren
gaur Gaztelaniyan...
eta... Euskal Erriyak
iya agoniyan,
naiago degu bizi
janaz... pikardiyan...
ez karlisten moduban
onraren erdiyan.

Juramentatu arren
Karlos Borbonguak,
zertarako ditugu
emengo Fueruak?
Paltsuak bagera gu,
gera *intriguak*,
Marotoren aldeko
Nosedar eruak!
Gaur nola *traidoreak*
diran aguduak,
gera *traidoreetan*
beti lenenguak.

Habanan palta balitz
Marototarrikan...
joango giñake pozik
gu bigartandikan.
Ez dutela billatzen
pizti oberikan
egiteko *beltzakin...*
konbeniyorikan?
Ta... gerrarako berriz
ustelagorikan...
ez da munduban jaio
beste setarikan.

Jarriko balitz Karlos
guziyon nagusi,
gu jana eskatzera
baitz joan lenbizi?
Esango giñiyoke:
«Ez gu baztar utzi,
zergatik ez deguben
platera bat autsi».
Bañan... Don Karlos noizko
onera iritxi!²
Gerra! Gerra *Fuerista-i*
arraspa ta guzi!

J. I. Z. eta A.³

El Cántabro, 1895-IX-15

¹ «Gu gera» karlisten bigarren gerrateko kanta baten asiera zan.

² Erantzun zigubena baserritar batek balkoitikan: «Nocedal diputadu etera bañan lenago etorriko da Don Karlos Azpeitiyara».

³ Ramos Azkaratek ainbeste izenorde erabili baitzituan, au ere oietako bat al degu? Ez dakigu. Baiña bertsoak, beintzat, aren itxura dute.

Fede oneko integristai

Al dakizute, anai maiteak,
nola gertatzen zeraten?
Doña Ramontxo lenbizikoak
saldubak nola zauzkaten?
Ez dituzute Ama Eleizak
esandakuak ikusten?
Dozena t'erdi jateagatik
galdubak nolaz zaudeten?

Nun dute oraiñ *Bai pekatu da
liberalkeri guztiya*,
Albizturkuak zabaldu zuben
liburu zoragarriya?
Nun aditzen da ainbeste aldiz
deitzen ziguten... *egiya...*
gero Karlosi sortu ziyoten
pentsakallu¹ txit aundiya?

Anai gureak, anai gureak,
siñistu zazute, arren!,
zuen Ramontxo... santu-paperan
dala bigarren *Luzifer*.
Onen moduko setoso oiek
ondo dakite nun dauden:
bizi-bizirik kondenatuta
beltzen kaiolan barrenen.

Karlistai gerran ekin ziguten
berak zeukaten mantxakin,
masoiak duten... *anima* bañan
askozaz beltzaguakin.
Gezurra andik, tranpa emendik,
Voltaire-n eskolarekin,
zortzigarrengo mandamentubak
galazten dubenarekin.

Erromatikan oien dotriñak
badaude kondenatubak,
alaz guztiyaz ez pentsa iñoiz
daudela umillatubak.
Beltzen moduban asi baziran...
saldutzen juramentubak...
dauzkate Fuero... eta Patriya
janaren truke saldubak.

Ez da agertu, ez, Españiyan
katolikuen Artzairik,
karlistentzako beiñ bakarrikan
kontra itz-egiñ dubanik.
Oientzat berriz Urgel-kuak ta
Erroman bertan aitzenik
diye daudela ezkerretako
ontziyan bizi-bizirik.

Baldin argitzen badituzute
agudo zuen begiyak...
baietz bajatu ber-bertatikan
betiko zuen *artzayak*?
Zergatik dira oiek agertzen
gure *banderan* etsaiak?
Diradelako *turroia*... jaten
ari diraden anaiak.

Zerura dago bide medarra,
infernurako zabala,
(ez det esan nai karlista denok
glorira joango generala.)
Bañan Eleiza sendotutzeko
emen banderik bai al da?
Ia nork nori esaten diran
beste bat nonbait badala.

Eleizarentzat leiala dana
Fueroentzako da ala,
Patriya eta Erregerentzat
dakigu bageradela.
Bandera *santu-santu-santuba*
gurutzekua ez bada...
ber-bertatikan Ama Eleizak
nai badu esan dezala.

Ai, Gipuzkuan leialtadia
Errege bidezkoentzat!
Zuen *artzaiez* gogoratuta
biyotza erdibitzen zat.
Fuero Santuben etsai aundiyak
badira euskaldun beltzak...
aundiyagua da Erramuntxo
Laurak-bat eriyarentzat.

Errespetatu nai digubena
gure *lege zar* santuba,
ta ez txantxetan, baizik egiñik
daukana juramentuba...
Egiyan kontra abiyatu zan
seta txar kondenatuba,
dago prejitzen Pedro Boteron
ontzi berian sartuba.

Katolikoek desuniyua
zeñek ekarri ziguben?
Gure anaia maitagarriyak,
denok bat ez al giñaden?
Nosedar orren seta petrala...
zer zan, zer, orain bañan len?
Paltsua eta txit etoia² zan,
gerran ikusi genuben!

Gaiñtxurisketak

El Cántabro, 1895-IX-22

¹*Calumnia*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

²*Traidor*. (Id.)

Balladolid-tik infernura¹

(Erri bereko beltzen himnuan)

Nabarrak
bagerade gu Nocedal-tarrak...
ta txarrak,
txaldanak eta baldarrak...
zitalak
ta guzizko petralak...
Gañera gu gera, gu gera, gu gera
arratoi zar-zarrak,
arratoi zar-zarrak.
Omen gaude gu... kondenatuta,
bañan... zer digu, zer, guri,
baldin ta baldin *rusoen* alde
jarri bagiñan aspaldi?
Milla oñaze eman diozkagu
Ama Eleiza Santari:
kanpotik laztan, barrendik saldu,
noizbait bear ta gerade galdu:
Pedro Boteron ontzira zeñek
gurekin etorri nai du?

Deabru
lonbratubak omen gaudela gu,
dakigu,
ala merezi bait degu.
Zer digu,
naiz erre, naiz kixkaldu,
guk beti nagusi, nagusi, nagusi
naiago badegu,
naiago badegu?
Pozaren pozaz kanta dezagun
«gu gera» infernukuak,
Aste Santuban agertzen diran
ber-beran itxurakuak.
Egurrezkuak badira aiek,
gera gu aragizkuak:
gera *Luzbeltzen* banderakuak,
Opas paltsoen eskolakuak,
giñan ta gera onrarekin gu
Voltaire-n... jatorrikuak.

(1) Azpeitiko San Ignazio kalian billatubak galdu zitzaizkalako egilliari. (*El Cán-tabro*-ren oarra.)

Integristak batzar aundi bat egin berria zuten Balladolid-en.

Argatik
 bagoaz infernura bertatik,
 ta pozik,
 txit *arro* Balladolid-tik,
 gogotik,
 ezkerreko bidetik
 karlista fuerista, fuerista karlista
gaizto.... oiengatik,
gaizto... oiengatik.
 Nocedal, Robles ta Asensiyo
 ganbelu... baten gañian,
 Aizpuru... eta Azpiazu bat
 subak arturik aidian...
 beste amairu *karabinero...*
 goaz gurdi zar batian.
 Kanta dezagun alegiñian:
 Gu bizi, gu... iñoren mendian?
 Goazen, bai, goazen infernura ta
 nagusi jarri gaitian.

Dan, dan, dan,
 ni naiz, ni, bada, *Judas* Nosedar.
 Dan... dan... dan...
 ez dakizute zein geran?
 Din... din... dan...
Judasek: «*Ez gera zuen bear:*
len ere, len ere deabru paltsuak
bagaude aukeran,
bagaude aukeran.
Obe dezute ate ondolik
egin itzuli agudo.
Zuen anaiak... ezin prejituz
bizi da Pedro Botero,
berarengatik zuentzat emen
sarrerarikan ez dago».
 Leku guzietan gu alrebes,
 emen ere ametitu nai ez!
 Abiya gaiten ojuka eta
 denok batian negarrez.

Luzifer!
 Luzifer... Luzifer milla bider!
 Satanás!
 Biyotz gureko Barrabas!
 Pilatos,
 ateraño zu atoz.
 Ai, ai, ai, D. Kaifas, D. Anas, D.
 Judas
 Malko ta Lonjinos,
 Malko ta Lonjinos!
 «*Zoazte, bada, bañan txit azkar*
Linbo aldera emendik,
zerengatikan ez deguben guk
beste Judasen bearrik.
Lendandik ere arkitzen gera
Nosedar-tarrez beterik»
 Guretzat ez da iñun lekurik?
 Infernuban ere ez aitzenik?
 Ez da munduban oraindik sortu
 seta bat gaiztoagorik.

J. I. S. eta Arregi
El Cántabro, 1895-X-13

**Korritutzen ez duben diruba
kredo botatzen, bataio batian,
intrigo berekoi bat mutill koskorrai**

Zure arraza dena
dalakoan ala,
zu ere nunbait zera
gutziz liberala;
dakizubelarikan
pekatuba dala...
zera *peña-arkaitzan*
txit lagun leiala,
Andoainguak maite
zaituben *oiala*.

Lengo ostegun batez
eta arratsaldez,
aita-ponteko ziñan
esan ziratenez;
mutillak *kredo* bota
bazeniyen... *farrez*...
nere seme maitiak
asi ziran galdez.
Semiak: Ama! Zeiñ da, zeñ, ori?
Beltza al da berez?

Ama! Nola leiteke
gizon ona izan,
guziyok engañatu
bagaitu gaur plazan?
Onek *kredo* botata
txanponen arrantzan
ibillitu bagera
arratoien gisan,
zer diru diran abek
bear digu esan.

Amak: Bost zentimoko auxen
da Don Karlosena,
obeto esateko,
gure Erregena.
Beste aundiyago au
da Isabelena,
Errege Alfonsoren
amonatxorena.
Egiya da *Biz-olak*
bota ditubena?

Semiak: Ez dakigu *biz-ola*
edo dan *tximela*,
bañan bai orrek plazan
bota ditubela.
Jesuita joateko
ibillitu zala,
munduban zeukanian
amatxo laztana!
Nork esan, nork, orduban
santuba etzala?

Amak: Korritutzen ez duben
dirurik botatzen,
ez det nik *santurikan*
iñun sentitutzen.
Dabillena... umeak
tranpan engañatzen,
berak beti tranpiyan
dira bizitutzen,
Fueruaren kontrako...
janez gizendutzen.

Semiak: Ez diyo, ez, gezurra,
amatxo guria,
jana da orrelako
santuben fedia.
Guztiyoi gustatuzen
bazaigu kobria,
Bankuko paperakin...
zillar ta... urria,...
lendabizi ez al da
Jainkoan legia?

Amak: Bai, bai, aurtxo neriak,
arrazoi dezute,
Jaungoikoan legian
bizitu zaitezte.
Intrigoetatikan
ibilli aparte,
ta esan, esan Karlos
dezutela maite,
aitzeneko asnasa
paltatzen dan arte.

Isabelen txanponak
ur aundira bota,
eta nik ekarriko
dizutet pelota.
Karlosenak nai ditut
iduki gordeta,
zergatikan izango
duten azkar benta,
ta laixter dira oiek
bizirik erreta.

Elordieta-ko txabolan, Ama-
Birjiña Pillareko egunian, 1895-garren
urtian.

Joxepa Ozerinjauregikoak
El Cántabro, 1895-X-20

Biz-ola

eta

San Bartolome

(Nagusi jauna-ren doñuban.)

Biz.-

San Bartolome, bazaude trebe,
gerra Karlosenai kuartelik gabe!
Joxepa... Ozerinjauregiri,
lengo jaieko kantariyari,
 kausa formatu,
naiz milla duro neri kostatu;
arrazoi badu, kartzelan sartu.

San.-

Ai, ai, Biz-ola, ez izan tonto:
gertatu ziñezke... Joxepan asto.
Len ere giñokan bein eraso,
artu bear genubela preso,
 bañan... alferrik:
gelditu giñan desonraturik,
denok bat egin gendubelarik.

Biz.-

Bitartekuak... goienekuak,
dauzkat billatubak *beltzetakuak*,
masoi Sagastan partidukuak
Cánovas-enak, Pidalinuak,
 turroiezkuak;
karabinero... Elizakuak,
Erramontxo ta... infernukuak.

San.-

Zertan zerade bada fundatzen
abiyatutzeko kausa... formatzen?
Ez gaiten ibilli jostatutzen,
orrek gezurrik ez du kantatzen,
 baizik egiyak;
defenditubaz fuero garbiyak,
daki jarritzen traba aundiyak.

Biz.-

Fundamentuba da seguruba,
Biz-olan tximelan dago galduba.
Ain zuzen baneuka nik zeruba...
(Bañan ez det nai utzi munduba.)
 Ekin, bai!, ekin,
jesuita ta... kontu oiekin;
indar guziyak daude gurekin.

San.-

Indar petralak eta argalak
dira *Biz-ola* ta gaztaiñ *tximelak*.
Jesuita ta... dira pastelak
berotutzeko *gizon* epelak,
 bañan kartzela...
dalarik ori *pizti* leiala,
maitiago du etxe zabala.

Biz.-

Nere lekuban trantze estuban
gaur ez dago iñor Egiputzuban.
Dirubak credo bota nintuan,
ostegun artan zori gaiztuan;
dago kantuan,
Ozerinjauregi Kantabrua-n,
paper txar petral katolikuan.

San.-

Joxepa orri pakean utzi
eta *Kantabrua* beti erosi.
Deskuidatzen danian lenbizi,
badakizu zuk nun naizen bizi.
Segi janian,
turroian alde *Arkaitzarian,*
karlisten kontra *tonto* lanian.

Biz.-

Au da, au, lotsa! Lantza zorrotza!
karraxika daukat nere biyotza.
Ikusteakin bertso bakoitza
dar-dar-dar dabill nere kokotza.
Auxen da lana!
Joango ote naiz *Rezolangana?*...
Donostiyako *piztiyangana?*

San.-

Alfer-alferrik zerade joango,
nik bezela arrek dizu esango.
Dakizu kantatzen zuk geiago,
Motin-ek bañan itxusiyago...
karlistengatik;
zuazkit azkar nere aurretik...
ura darizula begietatik.

B. S. R. R.

El Cántabro, 1895-X-27

Urrengo orrialdeetan bertso auek bear duten doiñua eskeintzen degu, leenengoa kanta-bilduma ontatik artua: J. A. Santesteban: *Aires Vascongados*; bigarrena, beste ontatik: Echeverría y Guimón: *Ecos de Vasconia*.

Andantino.

URRA PAPI TO

f

1^a 2^a

cresc.

ff

1^a 2^a

Nº 9.

Juana Vishenta Olave.

Canto vascogado.

Poesia de Vilinch.

Música de R. Surriegui.

Andante. M. M. $\text{♩} = 100$.

The musical score is written for voice and piano. It consists of six systems of music. Each system has a vocal line on a treble clef staff and a piano accompaniment on a grand staff (treble and bass clefs). The key signature has one sharp (F#) and the time signature is 2/4. The tempo is marked 'Andante' with a metronome marking of 100. The score includes various musical notations such as dynamics (p, pp, f, ff, rall.), articulation (accents), and phrasing slurs. The lyrics are in Basque and are written below the vocal line.

System 1:
 Jua-na, Jua-na Vi-shen-tu Vi-shen-tu Jua-na Vi-shen-tu O-la-ve.

System 2:
 Na-gu-si Jan-na, su-shen-da la-na, a-mak bi-gal-tzen nau be-ro-rren ga-na.

System 3:
 ¡Ay! ¡Ay! bi-gal-du-ko ba-zin-du-ke maiz, zu i-ku-si ta kon-so-la-tzen naiz, chi-

System 4:
 nis-ta za-zu o-so zo-ra-tu-ri - kun nau-ka-zu! O-rren po-li-tu no-

System 5:
 la ze-ra zu. la ze-ra zu. O-so zo-ra-tu-ri - kun nau-ka-zu O-rren po-li-ta no-

System 6:
 la ze-ra zu. lu ze-ra zu JUANA-cho po-li-ta ze-ra zu, ze-ra zu.

A. Diaz y Cia editores San Sebastian

Don Karlos zazpigarrenari Azaroaren iruban

Bildotxetatik aparte zauden
fuerista denon artzaia,
gure biyotzen jabia zeran
*Aitatxo doagaraia*¹,
deserrituta bizi zeraden
gezur guzilyen etsaia,...
bigar da, bigar, karlistentzako
egun bat zoragarriya.

Ez dezubela amore eman
ta... nola dezu emango,
baldin ta baldin onrarengatik
illko bazera lenago?
Zure itzeko Printziperikan
gaur Euriopan al dago,
Eleizaren alde illko dala
badubenikan esango?

Esan bakarrik ez dezu egin,
bai eta ere obratu;
gañerakuan *Laurak-bateko*
mendi ederrai galdetu.
Ez al ziñaden jatzarreetan
umantan² gisa portatu?
Ez al zeniyon Covadonga-ko
Pelaio bati jarraitu?

Zer esan nai du kantatu arren
au edo ori ziñala?
Zer da gaur zuri esanagatik
mudatu egin zerala?
Ez al dakigu gezurrarekin
moruak bizi dirala?
Moroen gisan *fariseuak*
zurekin asi zirala?

Nola batzubek ala bestiak
dira gezurti aundiyak,
politikako gauzetan beiñtzat
izugarrizko anayak.
Bañan derrigor nola ill bear
duben liberalkeriyak,
denboraz goian kantatuko du
bandera maitagarriyak.

Ez baziñake, *Aita maitea*,
printzipe *Letartakua*³,
Ama Eleiza libratutzeko
zori onean jaiua...
Ez baziñake fuerista eta
ziñezko katolikua,
etziñaden, ez, gaur arkituko
orrela deserritua.

Etzenuben ta... gaur ez dezu nai
izan zuk *beltzen* errege,...
baizik español guzizon Aita,
partidu gaiztorik gabe.
Katolikoen bat-tasunari
paltatu bage beñere,
zuk daukazuben banderarekin
erriyak dirade libre.

Beñere bañan askoz geiago
daukagu zure gosia,
zerengatikan ez dan erraza
orrela aguantatzia.
Naiz Cánovas-en naiz Sagasta-ren
mendian bizitutzia,
da uste kabe puzuniyakin
geon burubak galtzia.

Gaur Probenziyak eta erriyak
gertatzen dira galdubak,
dauzkatelako txit Jaungoikozko
libertadiak kendubak.
Liberal beltzen *lege* beltzakin
arkitzen gera lotubak,
ta batez ere *Laurak-bateko*
zure arkume prestubak.

Jaungoikoari nai dakiyola,
gure *Aitatxo* maitia,
Habanakua bukatutzian
zu onuntz etorritzia.
Naiago degu fueroen alde
odola ixuritzia.
ez euskaldunen borrarorikan
ezertan serbitutzia.

Gaiñtxurizketak

El Cántabro, 1895-XI-3

¹ *Insigne.* (*El Cántabro*-ren oarra.)

² *Héroe.* (*Id.*)

³ *Providencia.* (*Id.*)

San Ignazio Loiolakoari bere martxa edo joaira ederrian

Ignazio,
izar dizdizariya,
perla zoragarriya,
aundiya,
mundubaren argiya,
euskaldun garbiya,
umant-gudariya¹,
garaitezgarriya²,
gure gidariya,
o gure Aita maitagarriya,
santu doagaraya³.
Dollorren etsaia,
leialen Artzaia,
zu zera karlisten
zori on guztiya.
Zuria al da Nocedarkeriya?
Ez, ez, ez!
Oiezaz pentsatzez
zaude zu oñazez,
dabiltzalakoan
zurekin errebes.
Zure istoriya
da miragarriya,
da guztiz ederra,
pakia... ta... gerra,
da zure bandera,
guria ber-bera;
berarengatik gu beti zureak gera,
geran, geran bezela,
bezela.

Nork ditu
iru gerra pasatu,
eta miñak sufritu?
Nork ditu
masoi beltzak bildurtu?
Nork zure etxia
nai du itxitzia?
Nork dizu iriki
oraiñdaño beti?
Karlístak, Jaungoikozko fuerístak
(*ta ez Nocedalistak*).
Ez gera santubak
kanonizatubak,
bañan gerade gu
sakrifikatubak,
ondasunez, diruz ta odolez,
balorez.
Gerrako orduban,
zedorren moduban,
zurekin, zurekin
pakeko denboran...
Jaungoikoan alde
lendabizi gaude.
Euskaldun Erria
nola dan libria...
nai degu guk bizi
fuero zar ta guzi,
Errege bidezkoa degula nagusi,
gezurraren igesi,
igesi.

Itxusi
naiago dute bizi,
naiz zu *itzez* igurtzi,
tranpiyan,
Gipuzkoa garbiyan,
zure Azpeitiyan...
zure Azkoitiyan...
dabiltz pikardiyan
lertzeko zoriyan:
jendiak, jende miserabliak,
Cánovas-en umiak.
Ez bildurtutzia
odola saltzia,
zerbaitengatikan
beltzai laguntzia,
eta beartsubak engañatzia?
Ai, ai, ai!
Indarra masoiai
diyote eman nai,
agertzen dirala
egiyaren etsai;
beltzetan nastuta,
Fueruak salduta,
gezurrak sortuta,
diruba artuta,
maskarak kenduta,
daude lodituta,
Elizaren banderakin aserratuta,
lotsa denak galduta,
galduta.

J. Zabalbidekuak
El Cántabro, 1895-XI-10

¹ *Guerrero héroe.* (*El Cántabro*-ren oarra.)

² *Invencible.* (*Id.*)

³ *Insigne.* (*Id.*)

Bergarako Konbeniyo ondorian

bi Marototarrek egin ziyoten

aziyua bi karlista aita-semeai

Ardogi.-

Maria J., au lanbidea!,¹
ikusi dirazu sudur nerea.
Ardoarekin daukat errea,
masustan gisa more-morea.

Zer det ordea?

Banaiz guzizko zurrut-zalea,
artu det txarra bañan ohea.

Beltza.-

Kontzientziyak ez dit agintzen
abiyatutzeko iñor galdutzen.
Artu badezu sudurrekua,
ez da karlistak emandakua.

Zera erori?

Egin diyogun gogor *matsari*,
irauliazi zaitubenari.

Beltza.-

Auxen da auxen zurruterua,
uste nuben bañan aundiyagua!
Sortu bazuben Noek ardua
(etzalarikan *igeltserua*)

etzan txorua:

zera beraren alderdikua,
sekretoaren banderakua.

Ardogi.-

Naizelako ni ardogizkua,
neronek artu det *lukainkakua*.
Nere anaia biyotzekua,
karlisten etsai goienekua,
lagundu neri;
ondatu arren karlista txar bi...
zer digu bada zuri ta neri?

Ardogi.-

Utzi zaiozu Noe zanari,
ardo maitearen egilleari.
Zer dirudi, zer, sudur maiteak?
Diruditena nere illeak;

naiz nagusiya

detalarikan kulpa guziya...
Don Karlosenai gerra biziya.

Beltza.-

Judaskeriyen... eta gañera
naiz zu eta naiz ni anaiak gera.
Bañan karlistak kastigatzia...
kulpikan gabe ondatutzia...
ez derizkiyot;
lan oni gaur ekiten badiyot,
infernubari jarraitzen diyot.

Ardogi.-

Laja zaiozu kontu oieri:
purgatoriyo ta... infernubari.
Ez diyogu egin Erregeari
edo bandera txit santubari
tranpa gogorra?
Gaur da munduban gizon bizkorra
dana paltsua eta dollorra.

Beltza.-

Paltsokeritik, dollorkeritik,
daukagu ugari bi *perletatik*.
Bañan gaur zure sudurratik
ez naiz jarriko beintzat aurretik,
baizik atzetik,
toriatubaz barreretatik
deitzen detala: *Nik ez det kulpik*.

Ardogi.-

Naiz aurretikan, naiz atzetikan,
nai baldin badezu, barreretikan.
Bi famili guk galdugatik
ez da kontzientziyan kargikan.
Abiya zaite:
banengo juez ta zu alkate,
aita-semiak illko ginduzke.

Beltza.-

Banua bada eskribitzera,
kulpik ez dutenak desonratzera.
Nua familiya bi galtzera,
kontzientziya... kargatutzera
txit *sekretuan*,
ez dezatela jakin auzuan,
galduba naiz ni gañerakuan.

Ardogi.-

Zuk eskribatu, bestek firmatu,
zeñek bear dizu kargurik artu?
Emen jendia bizi danikan
nik bezin ondo ez al dakizu
aspalditikan?
Ez dadukazu galdutzerikan.
leku paltsuan zaudelarikan.

Beltza.-

Bejundaizula, *anai* maitia,
guk ohea degu lasai jatia.
Eskribatu det bada partia,
oraiñ falta du firmatutzia,
dakizu zeñi...
Firmatu-azi eta birali
Marototarren desonragarri.

Karlos 5-garrenen soldadu batek²

El Cántabro, 1895-IX-17

¹ *Maria J.* ori ez dakigu *Maria Jesus* edo *Maria Jose* edo zer izango dan.

² Ez degu uste soldadu ori Ramos Azkarate beste iñor izan ditekunik, naiz eta Karlos bostgarrenaren gerratea (1833-1839) gure tolosar bertsojartzaillea jaio (1847) aurretik gertatu zan.

Intrigoen txorakeriyak

2.312-garren numeruan, *Fuerista*-k esaten du, ill onen 14-an, ondoren gaztelanibaz datorren au:

«*El número último de El Cántabro publica unos versos, en que nada más parece pretenderse que hacer tragar a sus lectores que San Ignacio de Loyola es carlista, y también que son ellos muy amigos de los hijos del glorioso santo guipuzcoano. Los que tengan un poco de memoria recordarán que el mismo periódico, y de esto no hace mucho tiempo, decía, en vascuence, que los jesuitas habían mecido en la cuna a don Ramón Nocedal; y tampoco habrán olvidado que el periódico carlista, ya difunto, La Fe, publicó un inconveniente artículo contra la ínclita Compañía de Jesús.*»¹

Gezurrarekin bizi diranak
beti... Voltaire altxatzen:
San Ignaziyo karlista dala
ari omen naiz kantatzen!
Soldadu leial umant aundiya
nuben *Artzaitzat* tratatzen,
zekiyelako Leialtadia
animatikan maitatzen.

Gure Iñigon denboran Karlos
bostgarrengorikan etzan,
seigarrengorik, zazpigarrenik
artian izandu al zan?
Bañan Errege bidezkoaren
lagun maitia nola zan,
bere bandera gurea dala
gezurra al niyon esan?

Ez ote digu erakutsitzen
Aitatxo gloriosuak
maitatuzeko Jaungoikoa ta
gañera gure Fueruak?
Sendotutzeko Sort-erriyakin
printzipe katolikuak.
Nosedar-tarrak ez bezelako
egiyan alderdikuak?

Zeñek ez ditu bada maitatzen
Ignazioren *semeak*,
baldin badira Aitalen gisan
leialak eta nobleak?
Zeiñ dirade, zeñ, oiek birali
azi zituzten *jendeak*?
Zeñek iriki izan dizkiye
Etxe Santuko atreak?

Zer da, bada, zer, nik esan arren
seaskan sartu zutela,
jaio zanian, *Sanson Romea*
Mesias beltz bat bezela?
Ez al dakite erderazkotik
euskeraz jarri nubela...
ta biyengatik gañerakuak
kulpikan ez daukatela?

Jesus maitean Lagundiyari
zer egin ziyon Fedeak¹?
Iru edo lau politikokin
zituben kontu bereak;
benturaz *leial* bateri itxi
zizkiyelako bideak...
agertu ziran zeñ etziraden
Fueroen adiskideak.

Aita Iñigok digubelako
erakutsitzen bidea,
maite degu ta maiteko degu
bandera bere-berea.
Dollorkeriya bañan obea
dalako Leialtadea,
gu gerade, gu, Loiolarenak,
bera da Artzai gurea.

Leialak nola ez bada izan
Gipuzkoako semiak,
ala giyatzen baldin bagaitu
kondaira miragarriak?
Dira leialak Euskal Erriyak,
Fuero zar paregabiak,
Don Karlosekin bakarrik daude
emengo Libertadiak.

Guziyen buru dadukatela
zori oneko Iñigo,
ziran leialak Legazpi, Lezo,
Urdaneta ta Elkano,
Andia, Urbieta, Garibat, Regil,
Txurruka eta Okendo,
Aita Manuel Larramendi ta...
Erro ta... zenbat geiago!

Leialtadean Gipuzkoakin
berdintzekorik nun dago?
Beste gauza bat: dollorkeritik
euskaldunentzat zer dago?
Bañan *intrigo fariseuak*
ez digute, ez, esango,
gaur nola bizi geraden emen
eta zer giñan lenago.

Oiek ez dira errukitutzen
euskaldun mutillengatik:
beltzen moduban sartu gaituzte,
bai eta... zerbaitengatik.
Purutasuna gañetik eta...
judaskeriyen azpitik...
dozena batek ondo jan eta
zer diye besterengatik?

Gure Aitonak asi ziraden
lenbizi Covadonga-tik,
Pelaiorekin arabe denak
biraltzen Españiyatik;
gizaldietan gerra biziyan
beti moroen atzetik,
leial izan ta milloika glori
izan ditugu geroztik.

J. Zabalbide-kuak

El Cántabro, 1895-XI-28

¹ *El periódico La Fe. (El Cántabro-ren oarra).*

Jeremiasi eskerrak!

Geroz or daude tripako miñez
Nocedal buru dutela,
ez barberorik, ez medikurik
iñundik ez daukatela;
Eleizarekin denboraz dira
Erregerekin bezela,
Burgos aldeko Arzobispuai
ia begiratu bestela!

(Orain sei urte, beste bertso
batzuben tartian, kantatu niyoten
aurretik dijuan zortziko au.)

Ez naizelarik nerez *profeta*,
ez eta ere *aztiya*,
naizelarikan gauzak pentsatzen
guztiz motza ta txikiya,
bañan zerutik *profetan* batek
egiten ziran argiya...
ikusi nezan nolakoa zan
zana... Nosedar-keriya.

Bestela nola nezakean nik
gerta zaiena kantatu,
ez baninduben *Jeremiasek*
ainbesteraño argitu?
«Itxubak gera» esan oi degu
bizi geranak beartsu,
ez naiz aserre ez nubenian
etzan gauzarik kontatu!

Burgosetikan abiyatuta,
Urgel ta... Salamankatik.
txit *makillazo* gogorak artu
zituzten iruretatik.
Toledotikan ekin ziyen ta...
gero Erroman bertatik,
ez daude umill alaz guztiyaz
bildotxak izanagatik.

Arrokeriya bañan ohea
dalako umildadea,
naiz mundurako, naiz zerurako
ona da Leialtadea.
Egiya maite duben Errege,
bai ere bere taldea...
nola aita ta ala semeak
maitatzen dute fedea.

Balladolid-ko *protestantiak*
katolikoan Aitari
parte *ezkerra* zerengatikan
ote ziyoten birali?
A!, pasa nai ziyoten *ziriya*
guziya dakiyenari,
bañan Erroman ez egon lotan,
ez eta burutik mangi.

Ala biraldu *partia...* eta
zer egin ziyen Erromak?
Seme guzizko gaitzoarekin
egiten dubena amak.
Nun dira oraiñ, *doña Lettartar*,
igande artan esanak?
Ezetz gaur deitu zein da nor diran
kondenatuta daudenak?

Zeñek burutu baleude oiek
Aita Santuban lekuban,
Pedroren Sillan exeri eta
Leon Aundiyan moduban!
Berak egingo lirake santu
(bañan bakarrik munduban),
naiz martiriyak gozatzen bizi
oriyen partez zeruban.

Ez al zekiten biraltzerako
kondenatubak zeudela,
liberalkeri guzi-guziyak
arkitzen diran bezela?
Zer uste zuben: *ziriyarekin*
izkutatzia pastela?
Ez al dakite Ama Eleizak
paltatzen ez dakiyela?

Gure Erregek egin ziyena
egin diyote Eleizak,
txit illunpean omen daduzka
Erroma aldeko ekaitzak;
tximista baten argiyan billa
omen dijoaz berentzat,
beste argirik ez dagoalako
karabinero oientzat.

Ta oraiñ nola asi zaizkigun
astoen gisan *arrantzaz*,
txit *katoliko...* nazionalak
bete-beteak *arantzaz*.
Anas Silvela, Kaifas don Toka,
Nosedar ero don... *Judas*,
gizarajuak ari dirade
makarrak ezin kendubaz!

Gaiñtxurisketak
El Cántabro, 1895-XII-1

On Juan Etxeberria eta Agirre zana

Abendubaren lenbizikoan
zeiñ galdu zaigu Tolosan,
Gipuzkoaren erdi-erdiko
Fuero-zaleen baratzan?
Idiakez-en jauregiyan, ai!,
eta bigarren bizitzan,
euskal karlisten izar argiya
betiko izkutatu zan.

Zenbait bezela etzan itxuba
izandu dirubarentzat,
bañan bai guztiz Aita zintzo bat
famili aundiyarentzat.
Zan txit leiala gurasotatik
Errege bidezkoentzat,
zan gidari bat goienekua
Karlosen artaldientzat.

Bildotx umillen artzai umilla,
doai larriyen jabea,
urrutitikan asko ikusten
zekiyen euskal noblea;
ziran berdiñak On Juanentzako
aberatsa ta pobrea,
naiz izan bere etsaia eta
naiz bazan adiskidea.

Zan letraduba argirotarra
garbi esaten zubena,
itz gutxi eta ondo obratzen
zintzoro bazekiyena;
zan katoliko diputadu bat
jakintsu goien-goiena,
eragozpenak erabaki ta...
utzitzen zizkigubena.

Zan biziyoen etsai aundiya,
bai ere guztiz formala,
etzan estutzen askorengatik
zalako gizon azkarra.
Txit seriyua zalarik bera
urruti bazuben farra,
zan kaballero edo zaldun bat
onraduba ta leiala.

Zan gure Kausa Santuban alde
iñoiz nekatzen etzana,
naigabe asko pasatu arren
zan lore onak emana.
Eta zan gure *Dianagusiya*¹
leial guztiyon laztana...
da karlistentzat Juanen izena
beñere illko ez dana.

Ill zan igande egun erdiyan
aita bat guztiz zintzua,
utzirik bada negar egiñaz
bere famili osua;
ordu ezkeru dago txit triste
jauregi eder gozua,
izandu zana karlistentzako
lurreko *Paradisua*.

Gure erreguz sartutzen bada
edo badago zeruban,
andikan lagun egingo digu
emen zaneko moduban;
barrenerago sartu gaitezen
Kausa guztizko santuban,
ikusi dedin Don Karlos laixter
tokatzen zaion lekuban.

Bere semeai ta senideai
bazaie *perla* bat galdu,
beste karlistai izar argiya
betiko zaigu illundu.
Berarengatik egin deiogun
Jaungoikoari erregu,
Juanen anima koroi ederrez
dezan zeruban apaindu.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1895-XII-5

Juan Etxeberria Agirre, tolosarra, lege-gizona eta diputadua, Tolosan il
zan, 1895-XII-1-ean.

¹ *Presidente*. (Egillearen oarra).

Zenbat baliyo duben gizon aundi batek!

Gure Aitona jakintsu aiek
bizitzen ziran esanez:
«*Batek baliyo litzake milla,
bai ere millak baterez!*»
Asko baliyo zituben On Juan
galduta gaude negarrez,
gaude zalantzan zeñ jarriko dan
Aita zanaren ordañez.

Nun izan dira itsas-gudari
Okendo bezelakuak,
iñork bentzutu etzubenaren
alako ausardikuak?
Noiz dira izan Bidezabal ta
Lezoren balorekuak,
Egiputzuba onratzen duten
leialen odolekuak?

Euskal karlisten artzai-gaietan
badira gizon abillak,
asko egin ta orgullu gabe
gordeak edo isillak,
Etxeberria zanan griñako
goi-goiko zaldun umillak,
bañan berdiñak ez dira noski
irin bateko opillak.

Zer pasako zan Trafalgar-ean
Txurruka bizitu bazan?
Jende ta guzi *Nepomuceno*
an ondatuko ez al zan?
Eritu eta bere bildotxai
zer ziyen aitzenik esan?
«Onrarengatik iltzen naiz» eta
ontziya errenditu zan.

Ogei opillen tartean izan
oi dira txarki erriak,
ustez txit berdin tratatu arren
okindegiyan jabiak.
Alaxen dira gizonak ere
onak bai bañan obiak,
diradelarik gure Banderan
gutzizko maitatzalliak.

Zer igaro zan galdu zanean
Tomas Zumalakarregi,
ber-berarekin artzai on asko
ziradelarik ibilli?
Bere gloriyak guztiz garbiro
ziraden bada agiri...
bañan Tomasi jarraitutzeko
al ziran izan beste bi?

Eskubetako beatzen gisan
denok ez gera berdiñak,
naiz izan buruz gizon azkarrak,
naiz izan karlista fiñak.
Dorronsoroko Migelek aña
Probintziyantzat egiñak...
onek sututa gaur ere dauzka
Doña Kristinan sorgiñak.

Beñere bañan bearrago gaur
gaude gu *artzai* ederrez,
ez dalakoan gerra egiten
bakarrik armen indarrez:
gutziz biyotzez aundiya eta
goienekua balorez...
Juanen eskola badakiyen bat,
al balitz, zanaren ordez.

Gerra bukatu zan ezkeroztik,
politikako gauzetan
Etxeberrian bearra bazan,
eta geiena Tolosan.
Barruti ontan karlistentzako
aundiya izan ez bazan,
dagon bezela gure taldia
benturaz egongo etzan.

Emango digu Jaungoiko Jaunak
bear geraden *Artzaia*,
Juanen moduban jakintsuba ta
bizkorra eta erñaia;
maite dubena biyotzetikan
Aitorren Euskal Erriya,
dubena maite animatikan
lege zar maitagarriya.

Gaiñtxurizketak

El Cántabro, 1895-XII-8

Goazen aurrera!

Zer gertatuko litzaguke gaur
ez balitzake karlistik,
ez balegoke egiazko bat
begira Beneziatik?
Denak nai dute jan ta jan bizi
bañan guziyak gogotik,
galdubak daude edo bestela
egin zaiote burutik.

Aiziak nola ibiltzen diran
iñoiz burruka biziyan,
ala dabilta *Luzifer-tarrak*
Españi negargarriyan;
tximistik gabe turmoiak joaz
Madrill txit parragarriyan,
gaur gañetikan dagon Cánovas
jarri naiean azpiyan.

Habanan illtzen diranengatik
zer errukiya daukaten!
Berak esaten ari zaizkigu
nola lotsikan ez duten;
sartu Cánovas... eta... etera,
Sagasta sartu... ta... irten...
ez aspertzia bi *deabrubak*
Sort-erri guziya jaten!

Bañan galduko dirala laixter
dira arkitzen etsiyak,
ala eskatzen dubelako gaur
jaten ez duban guziyak.
Nola luzaro bizi leitezke
kankallu... tranpaz josiyak,
baldin badaude Jaungoiko Jaunak
bere eskutik utziyak?

Erriojako *Piper morrua*,
Andaluziko *Oliyo...*
aurrenekuak Antoni gerra
zergatik egiten diyo?
Bigarrenguk *txakur* txiki bat
ez dubelako baliyo...
biyak dabilta Madrill aldera
egiyazkoan... karrayo.

Bata omen da txit *errebesa*,
bestea berriz *ezkerra*,
lenbizikua biyurriya... zan...
bigarren *beltza* okerra...
Ez ote dan gaur Cánovas otza
eta Sagasta *epela...*
Cabriñana-ko Markesak berak
esan dezala bestela.

Al dauke biyak berotutzeko
su-txingartxo bat inñundik?
Zan... Arseniyo Maroto ...edo...
gudari txar bat besterik?
Ez onek eta bi aguriak
ez daukate gaur odolik,
estalitzeko naiagatikan
Madrillko *Candelas*-tarrik.

Dala bat edo dala bestea
goazen gu beintzat aurrera,
esanaz lotsik gabetanikan:
«Fuero-zaleak gu gera!»
Erdaldun beltzak asi dirade
bakoitza bere aldera...
ekaitz aundi bat badatorkiye
uste bañan len gañera.

Gaur justiziya dala eskatzen
bañan... nork egin lezake,
agintzen dauden *agintariyak*
indarrrik ez badaukate?
Eta gaiztuak kastigatzia
benetan nai baluteke...
kulpak dutenak agertutzia
konbeni ote zaiote?

Desordenakin dirade illko
piztiyen gordetzalleak,
ez diralako *piztiyak* baño
ezertan *pizti* obeak;
karlisten kontra diradelarik
elkartzen turroi-jaleak...
denbora gutxi barru Jargoian¹
dira Errege gureak.

Gaiñtxurizketak

El Cántabro, 1895-XII-15

¹ *En el Trono*. (*El Cántabro*-ren oarra).

Kontzientziya kargatu gabe izan leiteke apaiz jaun bat gure Bandera Santubaren etsaia?

Izan dedilla nai baldin badu
jakintsu izugarriya,
dedilla izan pekatubaren
goi-goiko garailariya¹,
eta orobat seaskatikan
guzizko doagaraia²...
bañan apaiz bat nola gaur izan
gure Banderan etsaia?

Beti ziran ta dira izango
Luzifertarrak bakarrik,
naiz ez dutenak iñoiz ikusi
Eleizan sendogarririk.
Zenbat karlista gaur dira bizi
ondasun denak galdurik?
Ta zenbat milla lurren azpiyan
daude begiyak itxirik?

Gure galdera idurituko
zaie samiña benturaz,
bañan Voltaire-n eskolarekin
apaizen kontra ez goaz,
baizikan beren aunditasuna
gure gañera jasoaz,
diyet galdetzen: «Elizarekin
karlistak ez al dijoaz?»

Martiri asko baditu izan
Jesukristoren Eleizak,
martiritzat gaur kontatzen dira
ala ill ziran karlistak,
desegiñean mundu onetan
infernutarren ekaitzak...
Paradisoan izango dira
gozatzen ango arrosak.

Katolikua izan leiteke
karlista izan ez arren,
bañan Karlosen Banderan kontra
nor da, ez bada Luzifer?
Txuriyak eta beltzak bakarrik
ezagututzen giñan len;
pintarratubak ondo dakigu
zer pizti txarrak diraden.

Emen izandu diraden gerrak
ez dira gizonengatik,
baizik bidezko lege santubak
kanta zezaten goi-goitik.
Maroto asko badira izan
paltso au sortu zanetik,
etoian alde ezin leiteke izan
gaurko munduban apaizik.

Jaungoiko Jauna eta Fueruak,
Sort-erriyakín Errege,
eguzkiyakín iru izarrak
Karlosen banderan daude.
Onen kontrako apaizik al da?
Bai? Egin bada mesede:
ez al gaude gu zuzen ta ongi
Gurutze Santuban alde?

Ez da Eleiza jarduten dana
bere etsaiak deitutzen,
erakutsiyaz bide zuzena
jendeak irabazitzen?
Ez al gera gu orrela ari
egiya erakutsitzen,
gorrotorikan gabetanikan
jende *leialak* ekartzen?

Biyotz gureko apaiz prestubak,
arren!, erantzun bezate:
Luzifertarrak karlistak gerra
zertan egiten diyote?
Oiek ez dute Ama Eleiza
guziro naigabez bete?
Errespetatzen duten pittña
norgatik... ez al dakite?

Gaur daramagu beti bezela
Ama Eleizan eskola,
eta prest gaude beraren alde
ixuritzeko odola,
lozez apaindu nai degubenak
Gernikan dagon arbola;
gure banderan kontra apaizik
al leike izan iñola?

Al da agertu irakustanik³,
Aita Santutik asita,
esan dubanik: «Kondenatuba
dago bandera karlista»?
Nola esango degu gaur iñork,
badago perlas jantzita,
Jaungoikoaren Letartan bidez
zeruetatik jetxita?

Karlista izan nai ez dubena
bizi dedilla pakian,
beltzai laguntzen ibilli gabe
bakoitza bere lanian.
Nai dute sartu daukaten baño
askozaz leku obian?
Birtuteakin irabazi ta
gozatu ordu onian.

Gaiñturisketak

El Cántabro, 1895-XII-22.

¹ *Vencedor*. (*El Cántabro*-ren oarra).

² *Insigne*. (Id.)

³ *Doctor*. (Id.)

El Cántabro
(1896)

Goazen botuak ematera On Luis Etxeberria eta Agirre-ri

Gaur zortzi eman bear diozkagu
karlista bati botuak,
beraren gisan amarengandik
karlista jaiotakuak;
fuerista bizi, fuerista ill nai
deguben banderakuak
izan gaitezen On Luisentzat
bera dan bezelakuak.

Tolosak eman ziyon karguban
beti izan da justuba,
farra urruti dubelarikan
gañera guztiz prestuba;
oraindiokan gaztea bada
badaki zer dan munduba,
onratuzeko bear bezela
anaia zanan lekuba.¹

Beltzen odolen tanto bakar bat
ez duben Etxeberria,
da burutikan oñetaraño
bere aitaren semia;
da gezurraren etsai aundiya,
egiyen adiskidia,
da maitatutzen badakiyena
zintzoro leialtadia.

Ez bada izan diputadu ta
gañera errejidore,
beti karlistai lagundu diyo
atzendu gabe beñere;
ibillitu dan botaziyotan
On Luis egiyen alde...
Mokoroa-ko Migelengandik
txit ondo jakinda gaude.

Maroto... edo... Nocedalekin
ez du, ez, izan konturik,
ez dubelako zerbaiten truke
saldu nai odol garbirik;
egiñaz lana karlisten alde
bañan moduz ta ixillik...
gizon artean ez du ipiñi
oraiñdik esankizunik.

Diputadutza On Karlosenak
aurten diyote eskeñi,
bere anaia zanan aulkijan
dedin onrakin exeri;
Kausarengatik sakrifikatzen
ikusten degubenari...
nola gelditu gaur karlista bat
lagundu gabe berari?

Eun bat boto aski baditu
diputadutza artzeko,
ez al dirade bi milla obe
On Luis altxatutzeko?
Naiz guk bildurrik izan ez arren
partidurikan galtzeko,
zertarako gu nagiyak izan
indarrak erakusteko?

Botatu gabe geldituzia
ez dezaguben pentsatu,
baizik Erregek nai duben gisan
bear degu guk obratu;
ondo merezi dubenarekin
gaitezen ongi portatu,
Etxeberrian arbola beti
dedin goi-goian agertu.

Ezer kostatzen ez dan gauza bat
nola ez degu egingo?
Nola ez gera botatutzera
libreak geranak joango?
«Oztutzen ari dira karlistak»
beltzak luteke esango,
zabartasunez botatu gabe
bagiña lotan egongo.

Habanarekin² bañan geiago
dira gurekin nekatzen,
guk daukaguben elkartasunak
ditubelako bildurtzen;
bat egiñikan botoetara
Luisen aldera goazen,
intrigo eta beste *piztiyak*
Tolosan urtu ditezen.

R. A. O.

El Cántabro, 1896-I-19

¹ Juan Etxeberria Agirre, alegia, artean il berria eta Ramos Azkaratek bi bertso-sail eskeiñi zizkiona.

² Kubako gerra beroenean zan garai artan.

A fede gaiztoko intergo buruzariak!

Euskal intergo ezkerrekuak,
zertan zaudete ixillik,
ez bada zuek zeraten bañan
kantari... aundiyagorik?
Ez al dezute oraiñ sei urte
zenduten bertsolaririk,
zabaldutzeko itxu tartean
alako kanta paltsorik?

Aurretik esan detan bezela
izanik teologua,
Tomas Aquino ber-bera bañan
benturaz aundiyagua;
bañan *Tirso-ri* esan ziyona
konde ta... artillerua...
oraiñ orrela mutututzeko
gizon au... ez da lengua?

Orduban kantak jarri zituban
teologo txit aundiya,
intergo oker guzi-guziyen
ill-argi *diz-dizariya*...
dalarikan gu ez bezelako
euskaldun bertsolariya...
dauka, ai!, illun aspalditxoan
arpegi *zuri-gorriya*.

Gañerakuan zertarako ez
kantatu orduko gisan,
gure Erregek Zurbano bati
aitzenik zer ziyon esan?
Illa testigu ipiñitzeko
zuben ausardiya izan,
jende itxubak gezur paltsoa
osoro sinistu zezan.

Cántabro-rikan etzan denboran
beti zebillen kantari,
egiñaz gerra karlistai eta
Errege bidezkoari:
*Erramu-ok*er baziyon deitu
erantzun ziyon bateri...
Bañan gaur zertan dago gordeta
eman nai-ezik arpegi?

Kantatzen zuben Karlosek galdu
zizkigubela Fueruak,
Canovas eta Sagasta bañan
borrero aundiyaguak;
Euskal Erriko *liberal*... edo...
desleial pasteleruak
dirade gezur orrelakoen
egille bizkorraguak.

Oieri onek ikasi zion
kantatzen *beltzen* legian,
zerbaiten truke saiaturzen zan
alferrikako lanian.
«Baserritarrak jarriak dira»
jariyaz kantai gañian,
dago urtutzen iya Madrill-en
ikusten gaitubenia.

Nola gezurrak goza lezake
euskaldun baserriyetan,
nai au, nai ori, nai ura jarri
teologuak kantetan?
Beltzez jantzitzen diran batzubek
ondo badaude *beltzetan*,
Fuero-zaleak nai degu bizi
aitona zarren legeetan.

Arriya tira, eskuba gorde
egiten dakiyelarik...
ez ote daki Jaungoikoaren
legeko mandamenturik?
Naiz politikan ez dauka bada
gizonak eskubiderik...
juramentatu zitubenentzat
kantatutzeko gezurrik.

Argal onekin apustutxo bat
baldin jokatu nai badu,
ageturikan obra guziyak
bear bezela testigu,
probatzen badit zizkigubela
Karlosek Fueruak galdu,
urkamendiyan nazatela ni
Maroto-tarrak laurdendu.

Gaiñtxurisketak

El Cántabro, 1896-II-16

«Gu gera!»

Nun dabilta, nun, karlisten etsai,
etsai beltz goienekuak...
ainbeste gerra *Fuerista*-n guri
alferrik egindakuak?
Ez ote dira munduban bizi
intrigo gizarajuak,
erakutsitzen bazebiltzanak
sinismen ezkerrekuak?

Karlistak ill nai zituzten noski
pentsakalluak sorturik,
bañan dakite etzigutela
egin mesede besterik;
gezurrak ez du egiyan kontra
beñere izan kemenik,
garaitutzeko eskribuakin
gerretan galdu ez danik.

Aspalditxoan ez da beñepein
pizti oriyen berririk,
badirudite ez daukatela
jolasutzeko gogorik;
ez dira bada orren mutubak
bizituzteko ixillik,
Erromatikan kondenatuta
arkitzen diradelarik...

Arrigarrizko gauza ez al da
oriyen *umilldadia*?...
Ote daukate puzuniyazko
zomororen bat gordia?
Ramon Nosedar eta Romea
da bada beren jabia...
Artuko zuten diruditenez
Balbedianon bidia.

Zeñek ez diye bada esango
dirala... gizarajuak,
baldin badira Martínez Campos
bañan txit okerraguak?
Nun dituzte gaur Karlosi sortu
ziozkaten *pentsakalluak*,¹
Aralar mendi aundiya bañan
askozaz aundiyaguak?

Nola dan jaun au intrigoentzat
osoro gizon prestuba,...
ta *maite* duben *biyotzetikan*
Romea santu-santuba,...
esan nai nuke noiztik egiña
ote daukaten tratuba,
nola sendatu ote leiteken
seta txar miñ-erituba².

Eleziyuak badatoz eta
izango dira kontuak,
ez diralarik tranpa egiten
bobuak edo *tontuak*;
Azpeitiyako arraspatzalle
azido-zale gaiztuak
billa litzake orduban baño
botika legunaguak.

Gañerakuan geldituko da
santuba... lengo moduan,
masoi Sagastak naiagatikan
aldaretikan kanpuan;
Zubizarretaz ernegatuta
Korteetako leiuan,...
a zer negarrak *jakintsu*... onek
egin bearko dituan!

Bañan ez diyo, ez, baliyoko
botikak eta arraspak,
ez *Azkarate* erdaldun eta...
ez ere anai Sagastak;
lendik gortuko gaitu guziyok
San Jeronimon tronpetak...
zergatik beltzik ez duban maite
Ignazioren kopetak.

Alfer-alferrik etorriko da
gure Iñigon lurrera.
zergatik ez dan *Romearena*
santu aundiyan bandera;
Loiolak maite du sinismena,
maite du bere euskera.
eta karlista guzi-guziyok...
bere-bereak «gu gera!».

J. Zabalbide-kuak

El Cántabro, 1896-II-23

¹ *Calumnias*. (*El Cántabro*-ren oarra).

² *Afligido*. (Id.)

Kapaz dirade laixter deitzeko deabruari santuba

Zeiñ zomorro da Azkoitiyako
Fueristan-n agertzen dan A.?
Bai omen da an nere etsai bat
zuzen-zuzena ez dana;
bai eta ere eskribatzalle
lau begi, guztiz *okerra*;
galdetuzeko daukat gogoia:
biyetakon bat ote da?

Beraz daukate, *gizarajuak!*,
eta nolako beldurra,
ikusi bear dutelakoan
bizkar gañetan egurra.
Berarengatik Kristinan alde
dute agertzen sudurra...
egiya saldu eta gañera
maitatuzeko gezurra.

Eleziyuak badatoz eta...
intrigo oien ikara!
Badirudite kañoitzat artu
dutela *Santa Barbara*;
jauregi eder arrizko beltz bat
erriyan erdiyan bada,
kezketan gaude artillerua
ote dan *Duke Mingrana*...

Zeñek esango eta... oriyek,
eta moldezko letretan,
ez degubela kontsegituko
guk ezer boto-lanetan!
Da esatia: Azeptiyako
barruti leial orretan,
elbarrituko omen gaituzte
karlistak gauza denetan.

Guziro etxe gogorra da, bai,
alderdi guzietatik,
defendituko lirake ondo
ez balitzake karlistik;
bañan talde au jarriko zaie
gaztelubaren gañetik,
intrigo beltzak gerran paltsuak
ta txarrak izanagatik.

Badakizkigu noski guziyok
txerri gosian ametsak,
ta ez diyola gaitzik egiten
ezkur gozoan ekaitzak;
modu berian dira gertatzen
intrigo biyotzez beltzak,
sabel-barrenak dizkiyotela
odoltzen gure arantzak.

Gañerakuan nolatan esan
printzipe bidezkoari
fuerista beltzak «gutirislea»¹
legarraukoa² danari?
Ez al zaiote sudurrak baño
askoz geiago agiri,
nola dabilzan emezortzi bat
urre tartian igeri?

Katolikoak... dirala eta
zeiñ dute bakarondia³,
deitze ezkeroz «*gutirislea*»
danari bapegania⁴?
Badakite, bai, zer jauregi dan
beltz oiek *Kristinania*,
ta ezagun da *Fuerista* dala
Lasala-n⁵ adiskidia.

Jateagatik zertara diran
pizti txar oiek erori:
«*gutirislea*» deitutzeroño
zeñi ta Karlos bateri!
Ai, Ignaziyok al baldin balu
bere lurrera etorri,
leialtadea kantatutzera
desleial gaizto oieri!

Izanik gure Egiputzuba
leiala antziñatikan,
bere lege zar edo fueruak
leialak diralarikan...
errege jaio zana errege
amaren sabeletikan,
oiek kanpotik daukazkinian
egon leiteke pozikan.

Oiek ez dute beste gauzarik
ez bada beren zakuba,
bakar-bakarrik ontan nekatzen
dakite denak buruba,
al dan guziyan eragotziyaz
anaiai bizi-moduba...
Kapaz dirade deitzeko laixter
deabrubari santuba.

Gaiñtxurisketak
El Cántabro, 1896-III-1.

¹ *Pretendiente*. (Egillearen oarra.)

² *Legítimo*. (*Id.*)

³ *Monarquía*. (*Id.*)

⁴ *Tradicional*. (*Id.*)

⁵ Fermin Lasala, alegia, garai artako politikari bat. Aren izenarekin plaza bat da gaur egunean Donostian.

Gipuzkoako karlista fuero-zale bakar-bakarrai

Etzi da, etzi, anai maiteak,
Epa-illaren¹ amarra,
gure Erregek jarri diguben
jai aundi dierritarra²;
onkeriolak³ onratutzeko
zein da guretan zabarra,
erakusteko gure asabai⁴
naitasunezko sugarra?

Fedeagatik ill ziradenak
dira ondomereziyak⁵,
argatik nai du onratutzia
txit ondo Buruzariyak;
berak lenbizi jarri baditu
ixpillu dizdizariyak...
nola ez bada zuzen jarraitu
Aitari seme guztiyak?

Ez digu noski guri agindu
beste munduko gauzarik,
berarengatik guk ez daukagu
idurikatu⁶ besterik;
gure *umantak*⁷ onratu gabe
guretzat ez da onrarik,
ta ontarako nork aukeratu
egun bat obeagorik?

Egun berean ill zan Karlosen
aitona maitagarriya,
argatikan da guziyontzako
guztiz gogoangarriya:
Karlos Maria Isidro zana,
Fernando zanan anaia,
zan illobaren modu-moduko
liberal beltzen etsaia.

Etxadi⁸ onek onkeriolak
ugari izan baditu,
Karlos Maria genentzake guk
lenengoetan kontatu;
Marotok... saldu zuban ezker
zizkiyen... bada lapurto,...
argatikan au eta besteak
bear ditugu onratu.

Pentsa dezagun beintzat daudenak
miñez satikuztegiyan⁹,
nola egongo diran negarrez
gure laguntzan premiyan;
berarengatik Jaungoikoaren
Eliz garaitezgarriyan¹⁰
belaunikatu bearrak gera
jai guztiz maitagarriyan.

Belaunikatu bakarrikan ez,
baizik egiñaz erregu
miñkaitz oñazez dauden guziyai
zeruratutzen lagundu;
begiratubaz *Gurutzean* ta
gogoratubaz *Lau-buru*,...
jardungo gera errezatutzen
Jaungoiko Jaunak nai badu.

Anai batzubek baditugu guk
galdubak jatzarreetan,s
bai eta ere onrarentatik
errukitsuen etxetan;
ta zenbat daude beste munduban
galdu ziranak letretan?
Eta zenbat ill dira gosiak,
gañera atzerriyetan?

Nola batzubek ala bestek
bandera dontsubangatik
aldegin zuten beti-betiko
onrakin beren lurretik.
Zer mirari da guk egitia
pittin bat *Aitonengatik*,
gure guraso, gure anaia
oñazez daudenangatik?

Gera karlistak duda gabeko
ziñezko katolikuak,
gera Fueroen, Sort-erriyaren
txit lagun goienekuak;
gera Errege bidezkoaren
soldadu benetakuak,
gera gu Ama Eleiza Santan
ber-beran banderakuak.

Argatik illak illen moduban
bear ditugu onratu,
eta lan ontan ez gaitezen gu
lotsatu... edo... bildurtu;
fedea maite ote deguben
Monecillori galdetu,
zer digu guri etsai guztiyak
ezin badute sufritu?

Epa-illaren amarra bada
karlistentzat jai osua,
ez da samiña, ez da tristia,
baizikan guztiz gozua;
bi aldeetan ill ziranentzat
zer egun gloriosua,
guk lagundu ta baldin arkitzen
badute Paradisua!

Naiko genduke noski guk ere
bageunde aien tokiyan,
ala penatzen... ala sufritzen...
aiñ era errukarriyan...
Bada... guk egin bear diyegu
al dana fede biziyen,
biyetakuak goza ditezen
laister zeruban erdiyan.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1896-III-8

¹ Marzo. ² Nacionales. ³ Mártires. ⁴ Antepasados. ⁵ Beneméritos. ⁶ Imitar. ⁷ Héroes. ⁸ Familia. ⁹ Purgatorio. ¹⁰ Invencible. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Egiputzuko karlista onkeriolai

Epa-illaren 10-an, 1896-garren urtean

Nundikan asi ta nun bukatu?
Nola moldatu ordia,
naiagatikan ez baldin banaiz
euskaldun dotatsaria¹?
Eta bestetik nola ez naizen
jakinduriyan jabia...
noizko nik egin onkeriolai²
kantazko apaiñgarriya³?

Dakit jaiotzez dotatsariak
euskerak baditubela,
nik esna baño lotan geiago
bakoitzak badakiyela;
bañan... au lana!, zer det egingo
banaiz kantari epela,
onratutzeko gure umantak⁴
merezki duten bezela?

Nik egin bearko detana da
zerura altxa begiyak,
ia argitutzen ote nauben ni
Borbongo izar argiyak;
bai al dit andik lagun egingo
Karlos bostgarren aundiya,
onkeriolen buruzari ta
gezurran garailariyak?

Dala batera edo bestera
abiya nadin kantari,
nik ezer kendu gabetanikan
beste ill-ezkor askori;
gure probentzi Egiputzuban
Zegaman dana agiri...
ez al da bada ill-ezkorrena⁵
Tomas Zumalakarregi?

Denak garaitzen bazekiyen ta...
zeñek ill onen izena,
bada Europa guzi-guziya
aidean jarri zubena?
Nork Espartero, Jauregi, Rodil,
Quesada, Mina zarrena,
bat eta beste kristino denan
garaitzallerik goiena?

Al da izandu Erregerentzat
soldadu umillagorik,
soldadu leial, soldadu zintzo
ta zaldun zuzenagorik?
Bai al da konde bertutezko bat
munduban aundiagorik?
Noiz ta noiz izan au bezelako
Bitoriyaren Dukerik?

Suautsa⁶ sortu zan ezkeroztik
nun da bat bizkorragorik,
ainbeste glori bandera bati
eman izan ziozkanik?
Gauza gutxi ta... naigabe asko
igaro zitubelarik...
etzuten *beltzak* au erosteko
añako poltsa dirurik.

Orañ begira jarri gaitzen
beste *artzai* on bateri,
Tomasen gisan bizi-bizirik
ikusten degubenari.
Zeiñ fuerista da nai ez diyona
Dorronsoroko Migeli,
fuero-zaleen gidari fin bat
beti izandu zanari?

Bañan Begoñan bala *beltz* batek
zori gaiztoan jo zuben,
zer zan gertatu onek Jaunari
kontuba eman bañan len?
Nola Tomasek ondasunikan
eta txanpon bat etzuben,
andreak nola alabak ala
beartsu utzi zituben.

Egiputzuba gezurretikan
libratutziagatikan,
onkeriolak etzuben izan
ezertan sosegurikan;
ezpatarekin gudalaria
izandu etzalarikan,
gauzak egiten zituben zintzo
karlisten onrangatikan.

Orra beartsu bizi eta ill
Ormaiztegiko semia,
bañan Tomasen izen aundiya
bizirik dago ordia;
eta nola ez talluntza⁷ edo
dadukan oroikarria⁸
ez da izango karlistentzako
ixpillu miragarria?

Probentzi onek onkeriolak
izandu ditu ugari,
bañan guziyen izenak nola
ditut esango kantari?
Onratzeakin Dorronsoro ta
Tomas Zumalakarregi,
beste guziyak onratu eta
dirade noski agiri.

Ramos Azkarate-kuak
El Cántabro, 1896-III-10.

Sail au egunkariren batean ere agertu zan. Baiña beraren izenik eta egu-
nik ez dakigu; Tolosako Manuel Urreta zanaren *recorte* batean arkitu genduan
eta aldaketa batzuk baditu, baiña aitatzerik merezi ez dutenak.

¹ Poeta. ² Mártires. ³ Ornamento. ⁴ Héroes. ⁵ El más inmortal. ⁶ Pólvora. ⁷ Estatua. ⁸
Monumento. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Bi kaleetan badauzkatzute Luzbeltzen jatorrikuak

Ez al da bada gaur guretzako
egun guztiz egokiya,
bedeñkatzeko erramubakin
Nocedal-en talderiya?
Oien karlisten kontra daukaten
gorroto izugarriya
dago esaten zer gaiztoa dan
seta txar errukarriya.

Dakigu noski nola dagoan
Done¹ Migelen azpiyan
Luzbeltz deabru desegoki bat
ler egiteko zoriyan;
Jaungoikoaren etsai beltzena
dago errabi aundiyan,
beste guziyak ezin sartubaz
Pedro Boteron ontziyan.

Modu berian dira gertatzen
nun-naiko Nocedaltarrak,
kondenatuta dauzkan ezkerro
Ama Eleiza azkarrak;
erakutsiyaz su tartetatik
infenukoen adarrak,
gure azpiyan daude kixkaltzen
integro nabar-nabarrak.

Egiyan kontra buru-belarri
altxatu ziran ezkerro,
bide ezkerro erakutsitzen
dabiltza guziro bero;
Luzbeltz Migelen ezpatapean...
eta prejitzen badago,...
oiek ez daude beren ustian
askozaz ederkiyago.

Gurutz-illtzatu zutenak Jesus
etziralarik kristaubak,
illazi zuten ziradelako
judubak eta itxubak;
bañan oriyek izendatutzen
diradelarik *dontsubak*,
badaukazkite karlistentzako
blasfemi debekatubak.

Eleizan alde ill ziradenai
deitutzen eralpertiak²,
deitzen leitsuak³, nori eta zeñek?,
eta integro jendiak!
Txit puzuniya gutxiyago du
mendiko iran-sugeak,
ez diralarik bada ezertan
egiyan laguntzalleak.

Lengo batean esaten ziyen
Gaiñtxurizketak egiya,
naiago nuke beraren gisan
banintzake ni aztiya;
deabrubari santuba deitzen
ez al dirade abiya,
dozena t'erdik izan dezaten
beren denboran jakiya?

Guk martiriyak onratutzia
ezin eraman badute,
gurutzekuan sinistamenik
sinistatuzten al dute?
Ainbeste milla milloi martiri
Jesusek ez balituke,
oroikidatzen⁴ lan aundirikan
izango ote genduke?

Iru bat gizon katolikoai
deitutzen iru *krisallu*,
modu onetan iskribatziak
barkaziyorik bai al du?
Oiek Eleizan *karabinero*...
eta kanpoan *deabru*...
joan-etorritan oraiñ artean
ez dira gaizki konpondu...

Pipiyak janda baldin baleude
Tolosan infernukuak,
eta nik jarri bear banintu
bertatik ordañezkuak...
Pilatos, Judas eta Barrabas,
Malko ta bezelakuak...
Bi kaleetan badauzkatzute
Luzbeltzen jatorrikuak...⁵

J. Zabalbide-kuak

El Cántabro, 1896-III-29.

¹ *Santo*. ² *Tunantes*. ³ *Majaderos*. ⁴ *Conmemorar*. ⁵ Beste egun batean zeñ diran esan-go ditugu. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Jesus gurutz-iltzatuari

Ez baldin banu Jaungoikoari
kontuba eman bearrik,
basatiyen basatiyena¹
banintzake ni bakarrik,
ez baneukake beste biziyan
sinistatzeko argirik,
eta ez banu *Pedro Botero*-n
ontzi guriyan bildurrik,
ez balitz Satikuztegirikan²
eta ez ere Linborik,
ta ez banuke nik sinistuko
badanik Paradisorik,
mundu guziya neretzat dala
ez naukakela illtzerik,
samintasunik batere gabe
gozatutzia besterik,
ez dezatala gañera izan
biyotz nerean kezkarik,
ez bazenduke juzgatu bear
beñ bat zuk nere animik,
ta ez dezala zuregandikan
izandu barkaziyorik,

da esatia, ez baldin banu
espero salbaziyorik...
nola ez dizut nik kantatuko
biyotzan barren-barrendik?
Zure Pasiyo negargarriya
negarrez irakurririk,
ta ikusirik larru gorriyan
guruzetikan zintzilik,
koroï arantza beltzezko ori
buru santuban jantzirik,
eskubak eta zedorren oñak
entenga lodiz josirik,
ostiral santu arratsaldean
Jaunari kontu emanik,
Lonjinos beltzak zure biyotza
lantzakin erdibiturik...
zure taldea laja zenuben
gloriyaz bete-beterik,
eta judubak ziran gelditu
betiko desonraturik.

Iruretan-goienak

El Cántabro, 1896-IV-1

¹ *Salvaje*.

² *Purgatorio*. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Al da gertatu Euskal Erriyan beñere orrelakorik?

(Orra nun dan Urnieta-ren doñuban)

Karlista maite-maiteak,
Fuero santuben zaleak,
izan bai balienteak;
ekin digute gerra biziyen
txit gogor *apaiz* jendeak,
apaiz jaun *miserableak*,
ez dira beren jabeak,
baizikan *beltzen* aideak.

Dabiltza baserriyetan
zenbait apaiz jaun benetan
lardasturikan *beltzetan*;
Zubizarreta Fuero zalean
kontrara boto lanetan,
ospelik gabe oñetan,
bizitzetan ta... dendetan,
Luzbeltzen bide txarretan.

Bota dituzte maskarak
intrigo nabar-nabarrak,
politiko txit zatarrak;
dituzte saldu *mau-mau*-rengatik
euskaldun Fuero zar-zarrak;
probatzen beren indarrak
déabru oien adarrak...
dirade baldar-baldarrak.

A pizti saldinkariyak,
zaudete negargarriyak,
gutziz errukigarriyak;
bazabiltzate tranpan, bai, tranpan
egiñik zikinkeriyak,
saldubaz Euskal Erriyak...
Sardá Salvany-n egiyak
zuentzat dira ipuyak.

Paulotxo beltzaren alde
dabiltza guziro trebe,
lotsatu gabe batere;
Al da ikusi Euskal Erriyan
orrelakorik beñere?
Integro beltzak nun daude?
Luterorekin al daude?
Edo... zer pizti dirade?

Seta txar kondenatuba
dago txit desonratuba,
osoro puzunituba;
Arkitutzen da deabrubakin
osoro parte artuba;
da gertatutzen salduba,
turroiak menderatuba,
Kristinarian sartuba.

Burgosko arzobispuak
oieri esandakuak
etziran gezurrezkuak;
esan ziyoten fariseo... ta...
gañera... gañerakuak...
Ondoren Santanderkuak...
ta gero Urgel-ekuak...
Zer Aita egiazkuak!

Apaiz integro diranak
gaur ez dirade oienak,
nai dute izan zuzenak;
Luzuriaga ta beste asko
fedea onean zeudenak,
gaur dira Don Karlosenak,
onra nai duten gizonak,
fedea maite dutenak.

Karlisten subak erreta
illundurikan kopeta,
beltza da oien arreta;
Jeronimotxok jo omen diye
eriyotzako tronpeta,
presta dezaten maleta
tranpak barrenen gordeta...
Orain da oien illeta.

Goazen guziyok batera
Zubizarretan aldera,
erakutsiyaz bandera;
bota ditzagun Paulotxo eta
Romea beltza lurpera,
esanaz nun-nai «Gu gera»¹,
igoaz biyen gañera,
deitubaz: «Biba euskera!».

Gaur ez daukate kaparik
estalitzeko besterik,
Kristinarena bakarrik;
Paulotxorekin ezkondu eta
ez dago barkaziyorik,
ain gutxi purutasunik,
ez eta sinistatzerik
geiago oien gezurrik.

Iruretan-goienak

El Cántabro, 1896-IV-12.

Orra nun dan Urnieta... Orrela asten ziran leenengo karlista gerrateko bertso batzuk. Ikus.: Auspoaren sail nagusia, IV, 281 orrialdean. Ondoren, Elizanburuk doiñu ortan moldatu zuan bere *Ikusten duzu goizean* sail ezaguna. Irakurleak badaki, beraz bertso auek zein doiñutan kanta bear diran.

¹Leen ere esan degunez, «Gu gera» karlisten kanta bat zan, beren azken gerratean (1872-1876) asko erabili zana.

Akinoko Tomas Done¹ aundiyari

Composición leída en el Real Seminario de Vergara en la velada celebrada en honor de Santo Tomás de Aquino. el 7 de Marzo úldimo.

Biyotz nereko Ama Euskera
izkuntza eztitubena,...
emen naukazu seme argal bat
txit asko nai dizubena;
beste izketa ttattar guziyen
antzikan ez dezubena...
zeradelarik osoro zarra²
etzera beartsubena.

Baizikan zera garbiya eta...
onretan aberatsena,
etsai taldeak aldi askotan
garaitu dituzubena.
Oraiñ nola ez, bazerade zu
zerutar indartsubena,
ez dezu naiko alabatzia
donerik jakintsubena?

Zuk lagunduko dirazubela
Akino alabatutzen,
nere Amatxo maitagarriya,
ez det dudarik jarritzen.
Tomas aundiyan bertuteakin
daukat biyotza zorutzen,
berarengatik abiya nadin
al dan moduban kantatzen.

O Akinoko eguzki eder
gutzizko dizdizaria,
Landulfo eta Teodoraren
zori oneko semia!
O Italiyan onra aundiya,
Paradisoko loria,
zerutikako jakinduriyan
ziñezko egokindia³!

O bizimodu Donedakoan
goi-goiko apaiñgarriya⁴,
argirotarra⁵, ziaditia⁶,
eta aitorkidalia⁷!
O Eleizaren irakasle⁸ ta
munduban argikaria⁹,
iñork berdindu ezin zaituban
Tomas Jainkojakindia¹⁰!

Zu etzinduzen ezerk jolasten
ez bazan artikasiyak¹¹,
ez baldin bazan etaitzak¹² eta
Jaunaren Ama Mariyak.
Nai zizkitzuten zuri itxutu
begietako niniyak,
bañan zureztat ziran samiñak
munduko gozagariyak.

Begi ederrak beti zeruban
zeukazkitzuben jarriyak,
egin zitzazun Eleizarentzat
pillare sendogarriyak.
Zeñek neurritu, Tomas maitea,
zure lan izugarriyak,
ni bañan askoz... aundigoentzat
badira larriyegiyak?

Nola etzera bada egongo
eskoletako aingeru,
baldin Eleizak zure lanari
jarraitutzia nai badu?
Nork ziyozkan, nork infernutarrai
muzorro¹³ paltsuak kendu?
Zeñek Erroman etsai aundiyak
zituban ala ixilldu?

Nola etziñan nun-nai izango
paregabeko maisuba,
zure aratoitz¹⁴ bakarra bazan
beti Gurutziltzatuba?
Naiz Parisen ta naiz Bolonian
baziñan izan goituba,
Fondinen, Pisan ta Orbieton
izandu ziñan dontsuba.

Esker maiteko ezkutapea¹⁵
zan zure maitagarriya,
zure izar ta zure Eguzki,
zure zorion guztiya.
Zu zera ala Eliz egintza
berarentzako jarriya,
Aita Urbano laugarrengua
zania agintariya.

Seaskatikan zera Jaiñkoan
Amaren biyotzekua,
ontartua¹⁶ ta beraren kuttun¹⁷
eta onez bedatua¹⁸.
Zan Erregiñ au zedorrentzako
txit lagun goienekua,
argatik zera milla mirari
aundiyak egindakua.

Gañerakuan nola, bai, nola,
eta txit urte gutxian,
ainbeste on zezazukean
egiñ Europa guzian?
Nola Kristoren etsai aundiyak
zeukazkitzuben azpiyan,
ez bazinduzen Amak iduki
beti biyotzen erdian?

Zergatik deitzen ote zizuten
lagunak... *Idi Mutuba*,
zenubelako zuk argituko
ondorenian munduba?
O bildotx ixill, aingeru umill,
aratoitz bedeinkatuba!
Onkeriola, onkeriola¹⁹
zan zure bizimoduba.

Etzekizuben zuk arpegira
emeai begiratutzen,
aragiyazko pekatu *beltza*
zenduban gorrotatutzen.
Ama Mariyak Sortzez Garbiyak²⁰
zinduzen garbi gordetzen,
bere moduban kastidadean
txit txukinkiro bizitzen.

Nik baditudan bost sentidubak
balira guztiz azkarrak,
ta banintuke itzak neurritzen
nai dan añako indarrak,
bear bezela kantatutzeko
zure bertute ederrak,
kontatzen jakin bearko nuke
zeruban dauden izarrak.

Ni banintzake doneen gisan
euskaldun dotatsariya²¹,
kantaz egingo nizuke azkar
koroï bat ikuskarriya.
Egin ta ere... bai al daukazu
ipiñitzeko tokiya,
baldin daukazu koroïa bada
eguzkiyaren azpiya?

Eguzkiyaren azpiya eta
izar argiyen gañetik,
arkitzen zera koroiturikan
alderdi guzietatik.
Zer egingo det, Tomas gurea?
Zer det egingo zuegatik,
ez baldin bazait ezer irteten
iñola nere burutik?

Ai, banintzake Done Domingon
goi-goiko apaiñgarriya,
nintzakeala Jaiñkojakinde¹⁰
ta egokinde³ aundiya,
pozik altxako nizuke letraz
Bergaran oroïkarriya²²,
zuri kantatzen bizitu dedin
Aitorren Euskal Erriya.

Bañan dakizu naizela nerez
argala eta txikiya,
zortziko zuri altxatutzeko
talluntza²³ miragarriya.
Beragatikan bukatzerako
nere ezerezkeriya,
agur ta agur izango dezu
nerekikako sariya.

Agur ta agur leaurande²⁴ ta
ixpillu ikuskarriya,
agur, done ta doagaraien
gañeko doagaraia²⁵.
Agur, bai, agur, umant illezkor²⁶
beti garaitezgarriya,
guzietara egiazkoen
zori oneko *patroia*.

Ramos Azkarate-kuak
El Cántabro, 1896-IV-26

¹ Santo. ² El Cántabro-k: ceralaric. ³ Filósofo. ⁴ Ornamento. ⁵ Ilustre. ⁶ Ingenioso. ⁷ Confesor. ⁸ Doctor. ⁹ Lumbreira. ¹⁰ Teólogo. ¹¹ Estudio. ¹² Oración. ¹³ Máscara. ¹⁴ Oráculo. ¹⁵ Sacramento de la Eucaristía. ¹⁶ Favorecido. ¹⁷ «ta» itza guk erantsia, neurria osatzeko. ¹⁸ Estimado. ¹⁹ Martirio. ²⁰ Purísima Concepción. ²¹ Poeta. ²² Monumento. ²³ Estatua. ²⁴ Prototipo. ²⁵ Insigne. ²⁶ Héroe inmortal. (El Cántabro-ren oarrak, 2 eta 17 izan ezik).

Gure buruzari, senadore,
On Tirso¹,
txit geidiatia jaunari²

Seaskatikan karlista zeran
mantxa gabeko On Tirso,
fariseuak gerra biziyan
bazizuten beñ eraso...
zu oientzako bildotx bat ziñan,
oiek zuretzako otso...
Berak zaituzte txarrak izan ta
goi-malletara zu jaso.

Nolatan aztu zuretzat sortu
zituzten *pentsakalluak*³,
izanik bada Aritxulegi
dan bañan aundiyaguak?
Salamankako erdaldun gaizto
maketo goienekuak...
Nun daduzka gaur Sánchez Asensiok
zuretzat esandakuak?

Zenbat naigabe, zenbat oñaze
zuk dituzuben igaro
badakiyenik, gure artean
zu besterikan ez dago;
gezurrarekin Karlosen kontra
abiya ziranai bero,
egiyarekin zuk irabazi
diyezu joaz *ordago*.

Pare gabeko umildade... ta...
zedorren kristautasunak
desegin ditu Egiptuzuban
odoi txar illun-illunak;
zuk badezuben modubak eta
goi-goiko zalduntasunak
ekarri ditu karlistentzako
gozatzen gauden egunak.

Alde batetik zeradelako
On Karlosen *ordezkua*,
zeradelako bestetik berriz
fuerista benetakua...
eta guziyen gañetik nola
zeraden katolikua,
deitubaz gaude... «Bizi dedilla
Tirsoren garaitondua⁴!».

Gaiñtxurisketak

El Cántabro, 1896-V-3

¹Tirso Olazabal jauna, Gipuzkoako karlisten buruzagia garai artan. ²*Excelentísimo*. ³*Calumnias*. ⁴*Triunfo*. (*El Cántabro*-ren oarrak, leenengoa izan ezik).

Gure diputadu On Eusebio Zubizarreta jaunari

Nola ill etzan ta illko ez dan
Tomas Zumalakarregi,
nola karlistai dagon egiñaz
Eleizan barrendik argi,
nola dituban umant aundiyak
garaitondoak ugari...
bere *primuak* izandu ditu
Tolosan garaitondo bi.

Guk lagundu ta zuk ill dituzu
Tolosa maitagarriyan
Goitia, Ameztoi eta Alzola
Gipuzkoaren erdiyan;
dituzu jarri Nosedaltarrak
eriyotz errukarriyan,
politikakin kantatzen dala
sarturik lurran azpiyan.

Bai, Eusebio Zubizarreta,
bai, zure garaitondoak
zeñek ukatu ez diradela
izandu milagrozkok?
Atsegin eman ziguben noski
oraiñ iru urtekoak,
Goitia eta Ameztoi zana
lur-azpiratutakoak.

Zuk onratutzen dezubelako
Tubalen Euskal Erriya,
doatsututzen¹ dizugu denok
pozaz bigarren gloriya;
zuaz kortera eta an esan
«Ni naiz bertzutezgarriya²,
nik garaitu det beti-betiko
lagundi negargarriya».

Poz atsegiña artutzekoa
zan izan biyen illeta,
(jo ziyelarik San Jeronimok
juiziyoko tronpeta);
bañan aurtengo gure etsaiak
altxa nai zuten beleta,...
ill da Ramontxon maskararekin
estalirikan kopeta.

Gaiñturisketak
El Cántabro, 1896-V-3

¹*Felicitar*.²*Invencible*. (*El Cántabro*-ren oarra)

Ignazioren sort-erriko diputadu On Joakin Maria Arana-koari

Zori onean Azpeitiyara
zaitu Jainkoak ekarri,
barrutirikan euskaldunena
kentzera erdal beltzari!
Izarraizko mendi ederra
diguzu onraz estali,
emateakin eriyotza bat
etoi desleial bateri.

Beltzak gerala geradenian
bear bezela agertu,
gezurrarekin asi giñan ta...
egiyak zatitu gaitu.
Joakin Maria, Joakin Maria,
gaizki esanak barkatu,
gaur bertatikan gure illeta
bezate nun-nai kantatu».

Eman diyezun eriyotza da
iñoiz altxako ez dana,
argatik dago Azpiazu bat
esanaz: «Auxen da lana!
Zeñek ekarri zuben onera
Joakin Maria Arana?
(Nere aurtxoa kristautu ziran,
ai, nere Romea zana!).

Gaztelaniko karlistak eta
Laurak-bat-eko guziyak,
eman diozkagu biyotzetikan
Jaungoikoari graziyak,
Zure bitori aundiyangatik
pozaz bustirik begiyak...
deitutzen degu: «Biba Aranan
bertute garailariyak!».

Tranpak egiten ez degularik
beñere izandu lotsik,
oraiño ontan ez al zan bada
autsikan eta arraspik?
Utzi gaituzte nagusiya ta...
intrigo denok ill-otzik,
konfesatzeko ez gubela
iñun billatzen apaizik.

Gaiñtxurisketak
El Cántabro, 1896-V-3

Intrigoen illeta

On Jose Crespok Rossini illezkorrari

donkitu ziyon joaira edo martxa negargarriyan

Nocedal,
dakizu nor geran
noski;
zaitugu ill-otzik utzi,
zure lagundi ta guzi,
bai, bai!
Katolikua
ezkerrekua,
ziarkakua,
ziñaden umill,
aitatxo bezelakua.
Maketo egiazkua,
piztiyen apaizpikua¹,
martiri Azpeitikua.
o santu turroiezkua!
Txiñ.. txiñ..
etorri ziñan
gure etxera,
Iñigoren sort-erriya
desonratzera;
Karlos eta gu
galdutzera.
Gipuzkoako Fuero dontsubak
tranpiyan illtzera,
bai, bai.

Alferrik...
Ez dezu kemenik,
ez, ez!
Ez eta ere tranparik.
illtzeko Fuero santurik,
ez, ez.
Joakin Aranak,
gure laztanak,
karlista danak
garaitu ditu
intrigo baldan-baldanak.
Llorenten jarraitzalleak,
Sánchez Silva-ren umeak,
trinpiti-tranpaz beteak,
zu eta zure semeak,
bai, bai.
Daude kantari
zuen illeta
diputadu Arana ta
Zubizarreta.
Naiz Azpeitiyan,
naiz Tolosan,
irakurritzen degu biyetan:
«Erramontxo, ill zan!
Ill zan!».

Bi argi
Romea zanari
jarri;
naiz izan ogei ta bi,
ez dirade, ez, geiegi,
ez, ez.
Martir oieri
laguntzen ari
buru-belarri,
erregutubaz
Jaungoikoaren Amari,
jarri dediñ bitarteko,
Sortzez Garbiya dalako;
oiek etziradelako...
daukate lanikan asko,
bai, bai.
Atera mezak
nun-nai ugari,
begiratu gabetanik
milloi bateri.
Zer diyo bada
Aranari,
gastatu arren oiek salbatzen
naiz izan amabi?
Zer? Zer?

Kupitu,
etsai... barkatu,
bai, bai!
Izan ditzagun erruki,
lagundurikan guk beti.
beti:
gure goguan
pentsamentuan
kristau moduan,
arren!, iduki
daudenak beste munduban.
Guk nai deguben lekuban,
Josafateko orduban...
lagundu itxu-itxuban
sartu ditezen zeruban.
Bai, bai!
Malkoz bustirik
gure begiyak,
zabaldurik jarri gaiten
gu beso biyak.
Ziradelako
martiriyak,
deskantsa bitez pake-pakean
intrigo guziyak!
Amen!

Ramos Azkarate-kuak

El Cántabro, 1896-V-10

Bertso-papera, moldiztegi-izenik
gabea.

¹ *Obispo*. (*El Cántabro*-ren oarra).

On Jose Crespoe Rossini illezcorra-ri

DONQUITU CIYON MARCHA EDO JOAIRA NEGARGARRIYAN.

(Intrigoen illeta.)

— 1 —

Nocedal
Daquizu nor gueran
Nosqui;
Zaitugu ill-otzatic
Zure lagandi ta guci,
¡Bai! ¡bai!
Catolicua...
Ezquerrecua...
Ciaracua...
Ciñaden *umill...*
Aitacho beclacua.
Maqueto egufiazcua
Pisstiyen Apaizpicua (1)
Martiri Azpeiticia
¡Oh *santu* turroyezcua!
Chiñ... chiñ:
Etorri ciñan
Gure echera
Inigoren Sori-erriya
Desonratzera;
Carlos eta gu
Galdutzera
Guipuzcoa-co Fuero dontzubaç
Trampiyen illtzera
Bai bai.

— 2 —

Alferric...
Ez dezu quemenic
¡Ez! ¡ez!
Ez eta ere tramparic
Illtzeco Fuero Santuric.
Ez: ez:
Joaquin Aranac
Gure laztanac
Carlista danac
Garaitu dita
Intrigo baldan-baldanac.
Llorenten jarraitzalleac...
Sanchez Silbaren umeac
Trimpiti-trampas beteac
Zu eta zure semeac.
Bai bai.
Daude cantari
Zuen illeta
Diputadu *Aranu* ta...
Zubizarreta.
Naiz Azpeitiyen
Naiz Tolosan
Iracurritzen degu biyetan...
¡*Erramoncho!* ¡ill zan!
¡ILL ZAN!!

(1) Obispo.


— 3 —

Bi argui
Romea zanari
Jarri:
Naiz izan oguei eta bi
Ez dirade ez, gueyegui.
Ez: ez:
Martir oyeri
Laguntzen ari
Buru-belarri
Erregutubaz
Jaungoicoa-ren Amari:
Jarri dediu bitarteco
Sortzez garbiya dalaco
Oyee etziradelaco...
Daucate lanican asco...
¡Bai! ¡bai!
Atera mezac
Nun nai ugari
Beguiratu gabetan
Milloi bateri.
¡Cer diyo bada
Aranari
Gastatu arren oyee salbatzen
Naiz izan amabi?
¡Cer? ¡cer?

— 4 —

Cupitu
Etsayai... barcatu
¡Bai! ¡bai!
Izan ditzagun erruqui
Lagundurican guc beti
Beti:
Gure goguan
Pensamentuan
Cristau moduan
¡Arren!! iduqui
Daudedac beste munduban.
Guc nai deguben lecuban
Josafateco orduban...
Lagundu ichu-ichuban
Sartu ditecen ceruban.
¡Bai! ¡bai!
Malcoz bustiric
Gure beguiyac
Zabalduric jarri gaiten
Gu beso biyac.
Ciradelaco
Martiriye...
¡Descansa bitez paque gozoan
Intrigo guciyac!!
¡Amen!

RAMOS AZGARATE-CHAC.



Tolosa, Arremeleko zubia.

(Liburu ontatik: Jose Maria Tuduri Esnal: *Argazkiak, Tolosa, Fotografias (1842-1900).*)

**Nere adiskide maite
On Frantzisko Zeberio
eta Barandiaran jaunari**

Eldu zizuben (kulpikan gabe)
alfer-alferrik norbaitek,
baba-zorro ta Canovas beltzan
euskaldun *andare* batek;
naiz onek eta lagun erdalak
ontzat artu nai baditet,
bigarren Anas, bigarren Kaifas
pozik deituko diyotet.

«Argitasuna! Argitasuna!»
aboan dabilkitenak,
badakizkite, eta zer ondo!,
Linboko bide beltzenak.
«Gizona libre! Gizona libre!»
deitutzen darabiltzanak,
dauzkate kausa santubarentzat
katerik latzen-latzenak.

Guk gorrotatzen degu illuna
erakutsiyaz argiya,
argatik ezin ikusi dute
araña dizdizariya;
oiek oiñpean artu bañan len
maite deguben egiya,
gezur fabrikak bear du izan
eriyotz lotsagarriya.

Fuero-zaleak gaudelarikan
guziro pertsegiturik,
gure bandera defenditzeko
ez degu senti bildurrik.
Inguruetan, moldiztegiyan...
al da Madrillen besterik
España zarra altxatutzeko
Mella ta... bezelakorik?

Itxu daudenak argitutzeko
Mella da, Mella, mutilla!
Onen itza da liberal tranpak
elbarritzeko makilla;
au bada berez guztiz bizkorra,
zeiñ da, zeiñ, oietan illa,
erakutsitzen duten dotriña
dalarik umill-umilla?

«Ni karlista naiz» kantatutzeko
nor gerade, nor, gaur lotsa?
Nun ez dabil, nun, zañak egiñaz
Korteko fueristen boza?
Barrio Mier argirotarra
nola dan jakintsu utsa,
irazekitzen daki txit ongi
gure izarren biyotza.

Gurasoetan lenbizikua
daukagularik urruti,
nai eta nai ez bear diozkate
laxter ateak iriki;
onekin beste buruzariyak
ditzaguben guk iduki,
aurre-aurretik gure gidari
koroiturikan ederki.

Zuk badakizu gerala biyok
osoro pertsegituak,
zutitzen ari geradelako
beti gezurtiosuak;
defenditubaz oraiñ bezela
Fuero zar gloriosuak,
izan gaitezen naiz ill naiz bizi
karlista oso-osuak.

Ia zenbat etsai badituben gaur
Martiri Golgotakuak.
mundu guztiya erredimitu
ziguben Gurutzetuak.
Zer mirari da miñ izatia
kauza guzizko santuak,
erori arte *pentsuba* libre
jaten diguten astuak?

Lagun maitea. egin ditzagun
beti alegin aundiyak,
erakutsiyaz gazte jendeai
lege zar gozagariyak:
gerra egiten digubelarik
fuerista ez dan guziyak,
denak lurrera botako ditu
deguben fede biziya.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1896-VII-11

**Ondarrabiyako
praile Karlosen etsai
Aita Ignazio famatubari**

Errespetatzen diozkat, Aitatxo,
sinismena ta koroia,
bañan ez gure kontrara daukan
puzuniyazko erdoia;
ez balitzake bada bedorri
Doña Kristinan morroia,
ezin egingo luke iñola
beltzen moduko sermoia.

Noiztikan gera Mahomatarrak
bañon txit okerraguak,
guk bakarrikan nai baditugu
Laurak-bat-eko Fueruak?
Zertan etzuben deitu orduban
zeiñ diran sarrazenuak?
Ez diyot ondo, zeñ ta nor diran
euskaldun *fariseuak*?

Daukan ezkeror oraiñ bedorrek
griña ezkerretakua...
erantzun bezait: ez al da Karlos
printzipe katolikua?
Ez al da eun Errege aiek
ziraden arbolakua,
Euriopako Errege denak
ez diran bezelakua?

Noiz du agindu Aita Santubak
On Karlos lajatutzeko,
edo bedorren gisan Kristina
Amatzat ezagutzeko?
A zer ojubak zituben egin
protestantiak galtzeko!
A zer moduba katolikuak
zuekin elkartutzeko!

Bidezkoari gerra egiten
diyenak pulpitutikan...
(esan nai nuke bai ote duten
Jaungoikoan bildurrikan).
Al du bedorrek, orobat bestek,
iñoiz eskubiderikan.
ots egiteko itz-tokiyetan
karlistai ez dan gauzikan?

Ez badaduzka beste anaiak
ekartzen azkarraguak...
nola karlistak errespetatu
naiz izan kaputxinuak?
Eskerrik asko dakigubela
dirala obeaguak
irabazteko zerubarentzat
naiz izan karolinuak!

Karlista denok dakigu ondo
gerala pekatariyak,
nola ez geran Jesusen Ama
dan bezelako garbiyak;
bañan libratu nai ginduzke guk
Tubalen euskal erriyak,
biralirikan Luzbeltzengana
lege beltz negargarriyak.

Andigitarran¹ koroiangandik
ez giñezke besterendu²,
gure Fuerua biyotzetikan
baldin maitatzen badegu;
liburu santu maitagarriyak
ala kantatzen badigu,³
Fuero-zaleetan egiazkuak
bakar-bakarrik gera gu.

Bedorrek noski jakin bear du
Karlos ta karlisten berri,
zenbaiten gisan nola ez geran
morrontzan oraiñdik jarri;
gure *Aitonak* ziyelakoan
jarraitzen bidezkoari,
etziran bada iñoiz bizitu
Fueroen desonragarri.

Sinistu bezait gu ez gerala
Fuero-zaleak bakarrik,
katolikuak geradelako
gaude txit pertsegiturik;
Jaungoikoakin fueristarikan
al dan karlistak besterik,
arren!, lenbaitlen gure izkuntzan
mesedez esan bear dit.

Gure asabak Erregeakin
txit bizimodu gozuan
ziran izandu libre-libreak
gure lur maite gaxuan;
eta bedorri konforme bada,
naiz egon denok lazuan,
On Karlos jauntzat jarri ta gera
libreak Egiputzuan.

Iruretangoienak
El Cántabro, 1896-VII-25.

¹ *Real regio*. (*El Cántabro*-ren oarra).

² *Guipúzcoa no puer ser enajenada de la corona real*. (Id.)

³ *Como nos canta*. Título 2º, capítulo 6º de los Fueros. (Id.)

Oiartzungo Necedaltarrai

Bertso berri batzuek nai ditut atera,
nua jende tristea kontsolatutzera.
Deklaratu bear det Necedalen prueba,
nola zan beñ etorri Azpeiti aldera,
egiñik sarrera
euskaldun lurrera;
bañan gu aurrera
deitubaz: «Gu gera!»;
merezi zenduan ta ondatu zera.

Lenbizi erraturik Konstituziyuan,
kunplitu gabe iñoiz obligaziyuan...
Guregatikan daude murmuraziyuan,
jarri geradelako satisfaziyuan;
beti biziyuan
ta traiziyuan,
beltzen leziyuan,
oien soziyuan...
Ala etorri ziran koaliziyuan.

Tranpa egin dizute zeren gurasuak,
jatorriz diralako osoro paltsuak,
eta ez txikiyena Necedal gaiztuak;
ez dira gustabliak orlako kasuak,
ixurtzen malkuak
penagarrizkuak...
Gu gera linguak,
onra aundikuak,
ez zuek bezelako iru karakuak.

Oiartzunen izan dan predikadoria,
karlisten kontra badu abilidadia;
Necedal desiatzen luke erregia,
dalako politikan lotsikan gabia.
Au Euskal Errira
zertan etorri da?
Arturik erida
oso erori da...
Oraiñ barkillo saltzen Kastillan jarri da.

Aita Santuba beti dauka mingañian,
onen etsaiak jartzen dabill indarrian;
dabilela turroian aldera lanian,
ezagutzen det ongi nere baldarrian;
beti maldadian,
Luzbeltzen bidian
dijoaz aidian
zuzen-zuzenian,
kixkaldutzera antxe eternidadian.

Erroma maite degu karlista guziyak,
Jaungoiko maiteari onetan graziyak.
Aitak eman dizkigun onra mereziyak,
oraiñ jakin ditugu ango notiziyak;
Necedalkeriyak
ditun maliziyak,
daude ikusiyak
diran itxusiyak,
oien pausoak dira lotsagarriyak.

<p>Kulpitura igotzen da apaiz bat onradu, ta bolara onetan kantatutzen digu, botoak galdu eta diruba ere galdu... Laxter bikariyuak zerbait esango du; Nocedal txit saldu askozaz obe du; guk Karlos badegu ta gaude seguru onen alde irtengo gerala soldadu.</p>	<p>O gure Aita Santu, guzizko argiya, ontzat artu bear dit nere eskeñiya: irabazi nai degu gure Españiya, On Karlos degubela guk buruzariya; egiyan kabiya galdu bada iya, gure ausardiya... dan garailariya, testigu emen dauka Nocedalkeriya.</p>
---	---

J. E. Laurtaungoak
El Cántabro, 1896-VII-29

Izenburuari eransten zaion oar batean onela esaten da:

«En carta que nos envía un amigo desde San Sebastián hemos recibido para publicarla esta composición que es conocida en algunos pueblos cercanos de aquella ciudad».

Baiña ori esan eta izenorde ori erabiliagatikan, bertso auek ere ez ote dira Ramos Azkaraterenak izango? Orregatik sartu ditugu liburu ontan, aita nor duten zalantzan gelditu bada ere.

Lagun urkoan gaitzez poztutzen diranai

Ez bagenduke joan bearrikan
mundu ontatik bestera,
guri animak alde egin ta
gorputzak desegitera;
sinistatuko ez bagenduke
bizitzerikan ostera,
laxter giñake (beintzat batzuek)
anarkistakin batera.

Bi illabete pasatutxoak
igaro ditut gaxoro,
gaur *integrak* edo... *osuak*
dauden bezin lasaiago;
galdu banintzan noski atsegin
omen niyen nik emango...
Jakin banuban, illko nintzan, bai,
Nocedal baño lenago.

Gaizki esan det, ez niyoke nai
Jaunari artu eskuba,
zerengatikan kristau guziyok
daukagun debekatuba;
On Erramontxok *Izarraitzen*
ill arren bere buruba,
Jainkoak egin dezala nizaz
beraren gogo santuba.

Ez dalarikan Euskal Erriyan
ni bezin gizon argalik,
nola sinistu gorrotorikan
osoak baziratenik?
Jesusen Ama Sortzez Garbiya
bezelakoak... izanik...
neri galtzea opatutzeko
zer egin diyet bada nik?

Ustez beñepeñ nere aldetik
ez diyet egin kalterik,
ez det kantatu nik *Kantabruan*
beñere ez dan gauzarik.
Bai al det egin Lege zar onak
defenditzia besterik,
ta probatzia Fuero-zaleak
geradela gu bakarrik?

Gañerakuan ez naiz ni sartu
oien bizi-moduetan,
nik ez diyotet izan ta izango
inbidirikan ezertan.
Ez dutela gaur bada arkitzen
nere itz neurrituetan
naizenik sartu etsaiarekin
bear ez nuben lanetan?

Etsiya nago urte askoan
ez naizela ni biziko,
bañan al badet lan santu oni
txit nekez diyot utziko;
ez apaiz jaunak ta ez prailiak
ez gaituzte ixilduko...
gure begiyak Euskal Erriyan
alde dirade itxiko.

Gaur karlistetan badaude bada
guzizko kantalarriyak,
kantatutzeko istoriyakin
etsai guziyai egiyak;
ta galdu arren geran guztiyok
jaioko dira berriyak...
onratutzeko bear bezela
Ibero-tarren mendiyak.

Neregatikan omen ziyoten:
«Enreadore gaiztua!
Noizbait bear ta mundu ontatik
bestera laixter dijua».
Zer uste dute: ez dagoala
jajorik ordañezkua,
lotsatutzeko euskal kantakin
fuerista gezurrezkua?

Gañerakuan nere galera
Jaunari eske zeudenak,
aditu gabe ziran gelditu
nere illetan kanpanak;
alaz guztiyaz gorde ditzala
gure Jaungoiko laztanak,
irakurriyaz bizi ditezen
nere kanta txar baldanak.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1896-VIII-2

Saguxarra gizonaren izenian

Saguxarretan tranposoena
badabil *tranpan lurrian...*¹
Ignazioren ama jaio zan
etxetik beste aldian;
Erramontxoren itxurako bat
erri euskaldunenian,
dabil *sorgintzan*, Romea dala
sinistu-azi nayian.

Eta ez pentsa badabilela
gordeta gure erriyan,
dabil *Pedro* ta don *Azpiyan-zu*
bi *santu* oien erdiyan,
illda piztuba balitz bezela
arrabi izugarriyan...
nai luke sartu gozatutzera
Joakin Aranan kabiyan.

Bañan ez gera Azkoititarrak
lau begi bezin kaikubak,
ez gaudelarik bere moduban
turroian alde saldubak;
gaude kontentu Aranarekin
emen karlista prestubak,
ditubelako jaun onek maite
Lege zar bedeinkatubak.

Bi bider jaio balitz Romea
Iñigo santuban gisan,
bañan bai al da Patriarentzat
beñere soldadu izan?
Eritu gabe abiyatzeko
eri gaudenan arrantzan...
alferrik dabill *santu* ezkerra,
emen betiko galdu zan.

Gaur eztaietan arkitzen dana
da Azpeitiya bakarra,
dutelakoan pizti *baldarrak*
nagusiyakin batzarra²;
Beloki batek galdetzen badu:
«Nun degu lengo indarra?»,
Jerusalenen entzungo dute
Saguxarraren negarra.

Bañan altxako dirade azkar
Uranga eta Sudur-pe,
ta Saguxarra billar zarraren
gañean jarriko dute;
Lizurume bat bigoliñakin,
dunbalarekin Arrese,...
a zer doñubak joko dituzten
eltxuak txoratu arte!...

Billarran jiran arkituko da
Diputaziyo forala,
batzarre denak sinistu dezan
saguba Nocedal dala;
ta itzegiten abiyatzian
diputadu txit *zabala*...
diz-diz egiñaz agertuko da
Siglo Futuro-n izarra.

Tiroz ez, baño berritzuketan
bai omen dute asmua,
bukatuzeko Habanan dagon
gerra guztizko gaiztua;
eta ondoren oien buruba
itxasoz omen dijua,
errepublika norteko artan
jartzera *terremotua*..

Maceo eta bere jendeak
bearko egin errendi,
saguxar oiek diradelarik
bakarrik dozena t'erdi.
Zer poza eta zer atsegiña
emango diyen Weylerri,
Kubara joan ta jartzian oiek
bere aurretik gidari!

Ainbesteraño dute maitatzen
tranpazko bizi-moduba,
zakubengatik daude gozatzen
mundu ontako zeruba;
bazkal ostean egingo dute
guziyak juramentuba,
oiek libratu bear dutela
Laurak-bat guztiz dontsuba.

J. Zabalbidekoak

El Cántabro, 1896-VIII-9.

¹*Meditación*. (*El Cántabro*-ren oarra).

²*Junta*. (Id.)

Un voto de gracias

Leemos en El Fuerista:

«El encargado de hacer el panegírico de San Ignacio era el Sr. Aparicio, joven y tan ilustrado como virtuoso sacerdote, que actualmente reside en Álava, pero que poco ha vino del Ecuador, en donde ha ejercido el cargo de secretario del señor Obispo de Loja.

En cuatro pinceladas nos puso delante de los ojos la vida del santo Patrón de Guipúzcoa, coronando tan hermoso cuadro con unos párrafos llenos de vigorosa elocuencia, que no podemos resistir a reproducirlos, siquiera en extracto:

“Aprendamos, decía, aprendamos del gran Ignacio de Loyola a conservar nuestra dignidad y a no vender nuestra conciencia por nada del mundo. Nada, ni nadie fue capaz de conseguir de Ignacio que sus ojos se deslumbraran al brillo del oro. Es esto propio de corazones viles y apocados; y el de Ignacio era noble y magnánimo.

Hoy el oro todo lo vence, y todo lo conquista y hay muchos que no pueden resistir a su luz. También aquí en España; en Guipúzcoa, en la tierra de San Ignacio hay muchos que no tienen inconveniente en vender su dignidad y su conciencia por un puñado de oro. Esos tales son indignos del nombre de españoles y más todavía de ser compatriotas de Ignacio de Loyola.

Mezquinos y rastreros son aquellos que por el vil metal no tienen inconveniente en entrar al servicio de cualquiera, siquiera sea enemigo de Dios y de la Patria. Aprendamos de San Ignacio a despreciar el oro y a tener en más nuestra dignidad y nuestra conciencia, que todo el oro del mundo y todas las riquezas de la tierra”.

Las anteriores líneas han inspirado a nuestro colaborador el vate vascongado J. Zabalbidecoa los versos que a continuación publicamos, y en los cuales se expresa el agradecimiento de los carlistas para con el predicador encargado de ocupar la cátedra sagrada durante la función religiosa celebrada por los integristas en Azpeitia el día 9 de los corrientes, con motivo de las palabras que en aquel acto pronunciara.

Apariziyo apaiz jaun gazte,
ziñezko argirotarra¹,
San Inaziyo maite dezuben
predikadore azkarra...
Fuerista... beltza zuregatican
dago botatzen aparra,
bazeukalako zu bezelako
maisua on baten bearra.

Zori onean Arabatikan
zinduzten onutz ekarri,
predikatzer urrian alde
dabiltzan *pizti* oieri!
Gure Iñigo zenubengan
agertu guziro garbi,
Nocedal-tarren kontzientziyak
lurrean ziran agiri.

Dezubelarik bada ikusi
Colón zanaren munduba,
txit noblea da zuk daukazuben
predikatzeko moduba;
erakutsitzen dezubengan
gorrotatzeko... diruba...
zuk ez daukazu urriangatik
kontzientziya salduba.

Zu jardun arren bear bezela
kristau on baten moduan,
kontzientziyan etsai goienak...
jan zuben zure onduan.
Ez al zenuben *urdai-jale* bat
ikusten zuen auzuan,
ase ta bete egin ta gero
txit berde nola zeguan?

Kontzientziyen erostun txar bat
bizi da Astigarretan,
agindu aña pagatu gabe
arkitzen dana zorretan;
baserritarren bildur-bildurrez
ez dago bere onetan,
diyo: «Ni laxter illko niotek
benturaz etxian bertan».

Amaika duro eta pezetan
erosten boto bakoitza!
Ez dakit nola ez diyoguben
purrukatutzen kokotza;
begi zuriyak ditubelarik
galdu du betiko lotsa,
bere gañetik dadukalarik
bere mendeko *bildotxa*.

Galde dedilla Zegaman eta
nai baldin bada Nuarben,
diruben truke kontzientziyak
zeñek erosten zituben;
dedilla galde Azpeitiyan ta
Azkoitiyaren barrunen,
juramentubak, kontzientziyak
zeñek saldutzen dituben.

Bai al da bada iñoiz gertatu
Inazioren patriyan
gaur bezelako des-elkarterik
barruti gozagarriyan?
Noiz da ikusi, Apariziyo,
probentzi miragarriyan
fueristen kontra ibillitutzen
ler egiteko zoriyan?

Karlisten kontra dabiltzanetan
badira *katolikuak*...
kontzientziyak eta gañera...
dirutan saldutakuak;
dira pobreen engañatzalle
mallarik goienekuak,
dira Romea erdal gaiztoan...
gaiztoan... lagundikuak.

Orañ atzenik guk esker milla
dizkitzugu gaur ematen,
zeradelako apaiz jaun on bat
bezela portatu aurten;
sagu-xar-tarrai esan diyezu
zer paper egiten duten,
zer bizi-modu lotsagarriya
munduban daramakiten.

J. Zabalbidekoak

El Cántabro, 1896-VIII-15

¹ *Ilustre.* (*El Cántabro*-ren oarra).

Denborarekin matsak eldutzen dira

Toca... ta Toca... amasei dira,
ta... Toca ogei eta lau;
Toca-ko Sánchez, On Joakin Toca,
berrogeikua da, bai, au;
irugarrengo aldiyan onek
Toca-ra konbidatzen nau,
pagatuko du gizarajuak
askotan tentatzen banau,

Ez al nizuben aspaldi batez
Kantabruan nik kantatu
nola zenuben Naparruako
Fueroen kontra botatu?
Zertan zeniyon Llorens jaunari
bada Kortean ukatu,
baldiñ baziñan *Iskariote*
gaiztoan gisan portatu?

Llorens-ek eta Zubizarretak
baziyan *maskara*...kendu,
orduban Toca zer gizona zan
garbiro zuten azaldu;
karlista biyek Kortean bertan
jan zizkiyen bi partidu,
galduko ditu aurrera ere
naiz joka beste amairu

Sánchez Silva bat zan bezelaxen
zertan ez izan klarua,
zeradelarik Cánovas *beltzan*
moduko *katolikua*?
Zeran ezkerro *kartera* edo...
sabelan banderakua,
esan: «Nik jango nuke bertatik
turroi bat kintalekua».

Denborarekin matsak eldutzen
dirala esan oi degu,
egiyarekin jokatziaz
zenbat baliyo ote du!
Orra nun dagon Toca... ta Toca...
Toca-tar denen testigu,
nai zubelarik *eltze* autsiya
gezurrarekin konpondu.

Zuk badakizu nik bezin ongi
Fueroak eta ganbela
txakurren eta katuen gisan
beti aserre daudela;
esan zazu beiñ aulki urdiñan
exeri nai dezubela,
jantzirik *Fermin Lasala* baten
iru txorroko txapela...

Toca... ta... Toca... Bergaratikan,
La...sa...la... Donostiyatik,
a zer bi seme diraden irten
Tubal-en Euskal Erritik!
Duquenomandas alde batean,
On *Lukaiñkatxo* bestetik...
zer mesedea biyak zintzilik
baleude pago batetik!

Etzalarikan euskalduna ta
ez eta ere kristauba,
Bitoriyatik etorri zan beñ
onera *Gaon juduba*;
nai zigulako derrigorrian
ementxe bildu diruba...
probatu zuben euskal legia
dala osoro justuba.¹

Beragatikan Fuero Santubak
dituzte gorrotatutzen,
eta euskeran *borreroekin*
dira orrela ezkontzen;
txit libertade paltsoarekin
badira lasai bizitzen,
karlista denok egiazkua
degu guziro maitatzen.

Gurutzekuak nola diraden
euskeran libertadiak,
eta saldubak dauzkatelarik
Judas paltsoan semiak,
denbora gutxi barru kantatu
baietz Euskaldun Erriak:
«Don Karlosekin gaude gozatten
lege zar tranpa bagiak»?

Ama Euskera arkitu arren
entenga *beltzez* josita,
seme leialak ez dadukagu
oraiñdik illtzat utzita;
baizik daukagu izugarrizko
koroï eder bat jantzita.
iñude txarra lotsatuzeko
Karlos jargoian² jarrita.

Orduban Toca-k eta besteak
esango dute: «Au lana!
–petxuba joaz, negar egiñaz–.
Damu det, damu det, jauna!
Arren!, biziya barka eiguzu,
gure Errege laztana,
oraiñ fueristak gerade eta
nai genduke guk zer jana».

Gaiñtxurizketak

El Cántabro, 1896–VIII-23

¹ *El año 1463 intentó llevar a ejecución un contra-fuero: el Judío se creyó sin duda fuerte, y no cedió de su intento, y los guipuscoanos, en uso de su fuero, le mataron en Tolosa. El Rey, que se hallaba por la parte de Irún, se encolerizó al tener noticia del hecho; pero enterado de la verdad y del derecho de la Provincia, no tomó disposición alguna en contrario. (El Cántabro-ren oarra).*

² *En el Trono. (Id.)*

Beñere gauz onik ez gaizki dabillanak

Sánchez Asensio, Asensio Sánchez,
maketo guztiz gaiztua.
katolikoan Artzai batzuen
etsai txar ernegatua...
Dezubelako naigabez bete
berriro apaizpikua¹,
izandu zera berarengandik
guziro gaztigatua².

Ekarri zuten Donostiyara
bidebagekiñ³ larriya,
txuriyatetik beltzetatikan
jatera emen eztiya;
izendatutzen zalarik bada
Fuerista-n zuzendariya...
len, oraiñ eta beti da izan
paltsoen estalgarriya.

Bigarren aldiz gaztigatua
eta beiñ kondentatua
arkitzen zera Salamankako
letradu *gizarajua!*
Gipuzkoako sei bat piztiren
ziñezko *Aita Santua*,
baldin umilltzen ez bazerade
betiko zera galdua.

Al dakizkigu onek zabaltzen
zituben *pentsakalluak*,⁴
bidez Errege danarentzako
zirala aurrenekuak?
Eta zer ziran Tirsorentzako
jaun onek sortutakuak,
eta fuerista egiazkoai
gañera esandakuak?

Zeñek neurritu Probentzi ontan
egin zituben kaltiak,
Egiptuzuban desonragarri
maketo miserabliak?
Romea zanak biralitako
gezurran adiskidiak,
erakutsitzen ondo zekiye
ezkerretako bidiak.

Karlisten alde lendabizitik
kantatzen zigubelarik,
gero guretzat etzuben izan
barkamenikan iñundik;
katolikuak deselkartzeko
au bezelako *sorgiñik*,
ez det sinisten gaur infernuban
bat bakarrikan badanik.⁵

Zer zuten egin Lutero-k eta
Calvino-k beren denboran?
Ez al ziraden Erroman kontra
txit klaro ibilli gerran?
Bañan Sánchez-ek gezurrarekin
gutxi zituban eraman
bizi zirala kixkaldutzero
Cánovas *beltzan* kalderan.

Zer ziran eta gaur zer dirade
au argitutzen zutenak,
karlistai gerra onen atzetik
ala egiten ziyenak?
Dira jatorriz, dira animaz
fueristen etsai beltzenak,
gu argaltzen da berak gizentzen
leku... onetan daudenak.

Irtengo balitz lur azpitikan
gure Zumalakarregi,
bere ezpata egingo luke
oiengatikan erdibi;
traidorea beiñ esan ziyoten
umant⁶ illezkor⁷ oneri,
txanpon bat utzi gabetanikan
Zegaman galdu zanari.

Luz-azpikorik errespetatzen
ez duten katolikuak,
izandu dira aldi askotan
Eleizak gaztigatuak;
ez ote diran zerbaiten truke
dabiltzan ziarkakuak,
ondo dakite Españiyan gaur
dauzkagun *apaizpikuak*.

Fede oneko Nocedal-tarrak,
ez al dezute ikusten
beiñ-bat nik esan nizuten gisan,
saldubak nola zauzkaten?
Zeok geiegi badakizute
galdubak nola zaudeten,
Ramontxorekin denak nekatu
zeradetelako aurtan.

Gure *Aitatxok* beti bezela
dauzka besoak zabalik,
guk ez daukagu zuenganako
gorrotoaren apurrik;
arren!, atozte lengo etxera
lotsak urtara botarik,
ez dagolako Don Karlos bage
fuegoak salbatutzerik.

Iruretangoienak

El Cántabro, 1896-VIII-30

¹ *Obispo*.

² *Amonestado*.

³ *Injurioso*.

⁴ *Calumnias*.

⁵ *Políticamente hablando*.

⁶ *Héroe*.

⁷ *Inmortal*. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Cánovas beltza, Sagasta beltza, biyak dirade anaiak

Masoi Sagastak bere Logroñoñ dauzkan begiratzalleak, jatorritikan dirade noski Riego paltsoan aideak; diradelarik Erriojako piper miñ... gorri-berdeak, dira *aitatxo* dan bezelako lotsan ale bat bageak.

Etzan motela otalariya² baizikan guztiz azkarra, bazekiyeñ, bai, nola *onratu Sorbete Dierritarra*³; ezagututzen zuben ederki Praxedes zabar-zabarra, *sumar*... ta... *partir* badakizkiyeñ *mutil-zar* nabar-nabarra.

Beti tranpiyan biziitzen dan Cánovas-en Práxedes-ek, (edo fueristak balazoz illtzen badakiyeñ Erodes-ek...); *piper morrosko* talluntzarikan¹ ez dauka munduban bestek, baizik bi milloi... jan zizkigubeneñ onraren etsai onetxek...

Gañerakoan nola altxatu oroitz⁴ bat bizi danari, ez bazitubeneñ Logroñoñ zenbait ipiñi guri... ta... lodi? Edo bestela berak ziyoteneñ *kutxa santutik* birali, bere talluntza beti «Neri zer?» egondu zedin kantari.

Nola moldatu ote ziyoteneñ piper utsakin gorputza, *bekoki larri, abo*... aundi ta... ogei librako *kokotza*? Nola ipiñi ziyeneñ aiñ ondo bizkar gañeaneñ *otasa*, pintatutzeko Mateo bera badirudiyeneñ talluntza?

Zubelakoan ala pintatu Sagastan oroikarriya, ez da pagatzen ezertxorekin berareñ otalariya; aiñ egin zuben (Mella-k ziyonez) «Neri zer?» farragarriya, noski nik esan omen neioke *Malkoren* eskalaproya.

Bai ote dauka gaur Españiyan
Mateok bere anairik,
Malkon bigarren eskalaproia
nik esan nezaiokenik?
Badaduka, bai, *begi oker* bat
turroiez ezin aserik,
Rochill-lagatzen gantxo batetik
arkitzen dana zintzilik.

Cánovas beltza, Sagasta beltza,
biyak dirade anaiak,
Malkon anketan sartuta dauden
urrezko eskalaproiak;
Pedro Boteron mendera datoz
Rochill juduban milloiak...
eta urtuko dirade azkar
lotan badaude *legoiak*.

Mugitu-azi ditzagun, arren!,
lotatik gure legoiak,
garaituzeko liberal edo...
zori gaiztoko masoiak;
gañerakoan jan bear gaitu
frantzes juduen erdoiak,
ez badiozkagu purrukatutzen
Rochilli bere arpoiak.

Mina aberats-aberatsenak,
gañera burni-bideak...
Cánovas eta Sagastak egin
dituzte tratu erreak,
Jesus ill zuten judubak izan
ditezen gure jabeak...
bañan lenago lurperatuko
ditugu *urre*-zaleak.

Gamazo eta Montero Ríos,
Sagasta eta Cánovas,
aurrenekua bada Pilatos,
bigarregua da Judas;
irugarrena (aurrez esan det)
da laugarrena Barrabas...
laurak España-tarren kontura
urretan dabiltz algaraz.

Bañan prest daude Laurak-bateko
Karlosen mendi-mutillak,
arturik beren esku banetan
elorrizko makillak;
iruditubagatik daudela
bildotxen gisan umillak,
oriyek laurai joko dizkiye
eriyotzaren ezkillak.

Gaiñtxurizketak

El Cántabro, 1896-IX-6

¹ *Estatua.*

² *Escultor.*

³ *Nacional.*

⁴ *Recuerdo.* (El Cántabro-ren oarrak).

Guregandikan txit maitatubak beti zerate izango

Masoi-taldeak Habanan eta
gañera... Filipiñetan,
gerra biziyan jarri gaituzte
ugarte¹ eder aietan.

Ez al daukagu bizi-yagua
ta beltza *etxean* bertan,
altxatu ezin giñezkiana
orrela gizaldiyetan?

Ez da ikusten inun urrerik,
ez eta lengo zillarrik,
aurki ez degu bada izango
ezertarako dirurik;
tratalariyak, aitzurkintzeak²
daude txit miñeriturik,
duikintsuak³ ez dadukate
bizitzerikan inundik.

Alde guziyai begiratuta
inun ez dago pakerik,
ibai nastuban daude gizentzen
igaran *beltzak*... bakarrik;
Españiyako katolikoak
ez ote degu indarrrik,
elkartutzeko masoien kontra
odol garbiyak suturik?

Nola salbatu Eleiza eta
beste gañerako gauzak,
ez baditugu irazekitzen
laixter elkarren biyotzak?
Nola sufritu gure gañera
badatozkigun ekaitzak,
judu gaiztoen oñazkar eta
turmoiak eta tximistak?

Emen ez dago beste biderik:
eskubiya ta ezkerra;
aurrenekua da txit zuzena,
bigarrenkoa okerra;
lenbizikoan katolikoak
bateratutzen bagera,
onran etsaiak denboraz joango
dira berenez lurpera.

Onran zaleak argaltzen eta
loditzen daude besteak,
beñere ezin ase diraden
masoiak eta putreak;
gerra biziyan darabiltzala
ausardiz galai gazteak,
lotu dizkiye Sort-erriyari
Rochill juduban kateak.

Oriyek eta beste miñ asko
dauzkan Españi tristeak,
esan digute karlistetako
gure guraso maiteak;
etzubelako *baso-mortuan*
baliyo predikatzeak...
utzi zituzten arrazoiakin
beltzentzat beltzen Korteak.

Lendandik esan dedan bezela
orra agertu bi bide,
liberaletan bat bakarrikan
ez dago Karlosen alde;
gañerakoan Pidal-i eta
Toca... ta... Toca-ri galde
katolikoak elkartzeakin
zergatik dauden aserre.

Elkartasuna indarra dala
biyak geiegi dakite,
argatik gerra Don Karlosenai
tranpan egiten diyote;
katolikoan bat-tasun gabe
bizitu naiago dute,
turroi gozoan arbola beltza
lurrera erori arte.

Bañan ziñezko fuero-zaleak
bear degu bat-tasuna,
iya illean dagon Patriyak
izan dezan osasuna;
elkartu gaiten gorrotatubaz
batzuben... ixilltasuna,
desegin dedin Egiputzuban
dagon odoi beltz illuna...

Gurasotatik... edo... bestela
karlistak ez diradenai,
ez diyotegu dei bat bakarrik
alfer-alferrik egin nai;
baizik sinismen onenarekin
itzuli joan ziradenai,
gure bandera berriotikan
laztandu nai lutekenai.

Atozte bada lotsak botata
Aitarengana agudo,
gure bandera sendotutzer
denok batean berriro;
bigar bañon gaur elkartutzia
nola deguben naiago,
guregandikan txit maitatubak
beti zerate izango.

J. Zabalbidekoak

El Cántabro, 1896-X-13

¹ *Islas*.

² *Agricultores*.

³ *Industriales*. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Zabal-zabalik daduka beti datorrenantzat atea

Nunbait Jaiñkoak ala nai eta genubelako merezi,
zortzi urtean katolikoak
bizitu gera itxusi;
dozena batek nai zutelako
Karlosen taldea autsi,
zitzaigun gerran ari bearra
zori gaiztoan iritxi.

Gure banderan nola dagoan
Jaungoiko Jauna lenbizi,
Leon amairugarrena dago
Ama Elizan nagusi;
Fuero, Patriya eta *Errege*
nola genentzaken utzi,
naiz gurutzean entenga lodiz
Kristoren moduban josi?

Lau izar oien argiyarekin
giñan gu pelean asi,
al diye iñoiz beste armarik
On Karlosenai ikusi?
Argatikan beñ joan ziradenak...
gugana datoz igesi,
esanaz gure arrazoiakin
naiago dutela bizi.

Gure lege on doatsuetan
dagon liberalkeririk
ez dadukate gaur Salamankan
galdetutzia besterik;
On *Gil Robles* bat karlisten kontra
txit gogor altxa zalarik,
autortutzen du ez daukagula
beltzen kutsuban apurrik.

On Manuel Sánchez Asensiok bai
zuzentzen duben paperak,
karlisten alde kantatu digu
Salamankatik ber-berak;
idurikatzen¹ dutenak Luzbeltz
argatik daude epelak,
zaizkatelako azkar galduko
gizentzen dauden ganbelak.

Aitortu dute eta zenbatek
beren firmaren azpiyan,
nola ez dagon zikinkeririk
gure agiri² garbiyan;
baizik gabiltza masoien kontra
beti gu gerra biziyan,
beti soldadu gaude karlistak
Ama Eleizan goardiyan.

Sabela guri dadukatenak
laguntzen diye masoyai,
ta batez ere bi kastakoak³
Karlosen etsai guziyai;
diye laguntzen *erriojatar*
eta *andaluz gaziyai*,
Sagasta eta Anton Cánovas
arrantzale txit biziyai.

Jende onradu guzi-guziyak
jarriyak daude begira,
beren begiyak malkoz bustirik
Beneziako urira;
txit egiazko katolikoak
ziñez elkartzen badira,
salbaziyoko banderarekin
denboraz Madrillen dira.

«Zuek bañon gu obeak gera»
ez degu bear kantatu,
modu oiekin ezin giñezke
era onean elkartu;
katolikoak geran bezela
beti elkarri barkatu,
nai baditugu Morayta eta
beste masoiak garaitu.

Nik beintzat gure anai maiteai
paltatu izan badiyet,
ber-bertatikan barkaziyua
negarrez eskatzen diyet;
bai eta ere iñoiz edo beñ
berak paltatu baditet,
biyotz eriyen erdi-erditik
pozaz barkatzen diotet.

Karlos tragatu ezin dutenai
zer diyotegu esango?
Gaur bezin lasai gaur urte bete
ez diradela egongo;
datorrenian... bere kotxera
zaizkala negarrez joango,
ta eskuban muñ,... utzi ezkeru,
pozik diyela egingo.

Gauzak dirudi badatorrela
zori oneko pakea,
katolikoak artu dezaten
eskubitako bidea;
ementxen dago karlisten *Aita*,
Aitatxo onran zalea,
zabal-zabalik daduka beti
datorrenantzat atea.

J. Zabalbidekoak

El Cántabro, 1896-IX-20

¹ *Imitar.*

² *Manifiesto.*

³ *Mestizos.* (*El Cántabro*-ren oarrak).

**Iru ziraden, iru ziraden
Elena baten alabak;
iruretatik etzuben amak
izandu mirabe on bat.¹**

Zer ederra dan odoietan gaur
agiri dan izarkea²,
badakarrena dirudiyenez
katolikoan pakea!
Diyo elkartu dedilla laixter
Jesukristoren taldea,
beltzak ber-berak dakartelako
tiraka Karlos gurea.

Anai maiteak, ez bildur izan
beltzak dakartelakoan,
nola dakarten begira jarri
gaitezen gañerakoan.
Nola bizitu katolikoak
Rochil juduban lazoan,
lurretik ezin altxa gerala
gure bizitza osoan?

Bai al digute liberal... zurrak
esan oraiñdañokoan,
miña ematen diyelarikan...
dadukatena gogoan?
«Galdubak gera! Galdubak gera!»
aitortzen zuten lengoan,
ta egiya da: zer dira oiek
Karlos etorritakoan?

Heraldo-k eta beste geiagok
kantatzen digute garbi
ez giñezkela katolikoak
gerraren billa ibilli;
Cánovas eta Sagasta nola
galduko diraden sarri,
biyotz oneko jende guziyak
daude Karlosen edarri.

Euskaldun beltzak suturik dauzka
izarke miragarriyak,
Donostiyako *Voz*-a ta... beste...
paper txar tranpaz josiya;
daude egiñaz bolara ontan
txit antzi izugarriyak,
Fuero santurik ez dezan izan
geiago Euskal Erriyak.

Bañan Fueroen gordetzallea
nola dakarten laixterka,
iru paperak negar... ta... negar...
daude *sugeak* botaka;
pasteleruen Voz-a dutela
lendabiziko *karraka*...
ezin moldatuz beren maletak
omen dabilta presaka...

¹Lerro auek erderazko kopia baten itzulpena dira: «*Tres eran tres / las hijas de Elena; / tres eran tres / y ninguna era buena.* ²*Cometa.*

Omen diyote: «Auxen da lana!
Auxen da, auxen, aitzena!
Iritxi zaigu euskaldun txarrai
bizimodurik txarrena.
Nun dirade, nun, Lasala eta
gure jaun Matxinbarrena?...
(Karlosengana umillatzia
izango degu onena)».

«¡Alerta!» deitzen abiyatu da
Gizon me edo *Enorme*,
errepublika-zaleak nunbait
arkitzen dira logale;
gogorregiyak diradelako
enbolaturik badaude...
galdetutzeko daukat gogoia:
«Castelar-ekin al daude?».

Guk mugitzeko asmorik ez da
deitzen badiye: «¡Alerta!»
Ruiz Zorrilla-ren jendeak nola
esango diyote *Aita*?
Zer du deituko ikusitzian
gure Karlosen kopeta,
odol-tanto bat ixuri gabe
nai badu izan umanta³?

Ai, ai, *Enorme* gizarajua,
Gaztelaniko semea,
ikasi zazu zer ederra dan
maite deguben legea,
Ez al dakizu euskera dala
errepublikan⁴ zalea,
eta Jaunetzat ezagutuzten
degula Karlos gurea?

Guk ez daukagu Erdal-Erriko
Neurkidaren⁵ bearrik,
ez eta ere *pentsuba* libre
daukenen *republikarik*;
nai ditugu guk gure *aitonak*
utzitakoak bakarrik,
gurutze gabe ez dagoalako
benazko libertaderik.

Ez dezazute, arren!, zabaldu
alferrik ez dan gauzarik,
zergatik zuen esanak iñork
ez dagon sinistatzerik;
katolikoak elkartzeakin
zertan zaudete suturik,
Karlos agintzen ipiñitzeko
ez bada bear gerrarik?...

Iru ziraden, iru ziraden
Elena baten alabak,
iruretatik etzuben amak
izandu mirabe on bat;
Elenan gisan kantatuzten du
Gipuzkoaren kondairak⁵
nola diraden guzizko txarrak
Donostiyako paperak.⁶

J. Zabalbidekoak

Izarraitz-ko mendiyen Agorrenaren 25-an.
El Cántabro, 1896-IX-27.

³ Héroe. ⁴ República cristiana es nuestro fuero. ⁵ Constitución. ⁶ Historia. ⁷ La Voz, La Unión y El Diario de... (*El Cántabro*-ren oarrak, leenengoa izan ezik).

Zer errukarriya dan gizon gazterik zartutakua!

Nolabaiteko udara joan ta gañean degu neguba, bekoki guztiz illunarekin agertutzen da zeruba; joan dan asteko ekaitzak sartu diratelako izuba, etorkizunan daukat jarriya neronen pentsamentuba.

Otzaren bildur ez diradenak egon leitezke kontentu, doñurik bage bear luteke errañubakin dantzatu; bañan labean sartuta ere ezin geranak berotu, asteak zenbat egun dituben bearko zintzo kontatu.

Kanpoan otzak ezin egon ta barruban noizko epeldu! Oiera joan ta eztulka berriz ezin gera gu ixildu; buruba sartu ankartean da gorputz guziya ozpeldu, argi-ezkillan nork eta zeñek gure ezurrak zuzendu?

Zenbait ikusi izandu ditut iñoiz neronen moduan: trikuban gisan borobilduta daudela oiko zuluana; ezur gogorak ezin zuzenduz zerbait gosetutakuan, beste batzubek gosaltzen senti zituztenian auzuan.

Altxa nai eta ezin altxarik gosetu nintzan batean, uste nuben beiñ elefanten bat baneukala nik gañean. «Gosari gabe geldituko nauk –niyon nik nere artean–, egoten banaiz otzan bildurrez jeiki nai ezik oiean».

Noizbait bear ta solaiduraño jetxi nintzan ni neketan, otz-ikarakin dantzan nebillen ezin sarturik galtzetan; niyon: «Ni zarra izandu banintz beste denbora aietan, ez nindukan ni zarra izango berrogei ta sei urtetan».

Ez bazitzaitan azkar etorri
laguntzalle bat aurrera,
gutziz seguru ni eroriko
nintzan agudo lurrera;
ez baninduben bertatik sartu
nere *kabiyen* ostera,
egun artantxen izan zeiteken...
benturaz nere galera.

Bai, bai, lan dago, adiskideak,
bizi laburtxo onetan,
gazterik zartu geradenentzat,
gauzarik bearrenetan;
oraiñ bezela baldin pentsatu
izan banuben gaztetan,
ogi legorra ugari jango
nuben nik oiean bertan.

Bañan legorrik ezin jan eta
bustiya ere txit gutxi...
Al dakizute zergatik naizen
era ontara iritxi?
Gabaz ibiltzen nintzalakoan
ñoiz oiaren igesi...
nola otza ta ala beroak
daude gaur nere nagusi.

Zarran itxura artu detala
esaten dirate neri:
diyete esaten: «Neronek dakit
gaitz onen berri geiegi;
norbaiti kulpa eman nai arren
nola nik eman ñori,
lagunak bañon okerragua
izandu banaiz neroni?»

Beste batzuek esaten dute
ez naizela ni lengua,
oraiñ amar bat urte nintzala
askozaz alaiagua.
Dudetatikan atera dute
gazterik zartutakua...
gozoa zana eta gaur dana
piper ozpiñetakua!

Zartzean gazte nai dezu izan?
Gazterik izan zar-zarra,
gañerakoan bearke egin
nere moduban negarra;
oiean ondo gozatzen dana
beti da galai azkarra,
gaztetan txit maiz ikusten badu
egun sentiko izarra.

Gazterik zartutako batek.
El Cántabro, 1896-X-18
Tradición Vasca, 1922.

Cánovas eta Sagasta gizarajoari

Milla milloiak prestatutzeko
Rochill *juduban* etxeak...
irakurritzen degubenez gaur
dirade berri tristeak;
Cánovas eta Sagasta nola
dauden txit diru-goseak,
gizarajuak doñubak joaz
omen dauzkate esteak.

Oraiñ dakitan moduban jakin
izan banuban lenago,
etziran Anton eta Praxedes
diru-goseak egongo;
milla milloien lekuban amar
niozkaten pozik emango,
etziralako diruben billa
abiyatuko geiago.

Almaden eta Tabacalera.
gañera burni-bideak,
bañan judubak izan ordea
zaku diruben jabeak;
eragozpenak nunbait jarritzen
diozkate frantzes taldeak,
ez diralako erdaldun beltzak
judubak bañon obeak.

Ez al da bada askoz obea
urrez beiñ estalitzia,
gure fueroen borrarero biyak
mundutik ezkutatzia?
Ez al da guztiz zuzenagoa
Patriya salbatutzia?
Bi agureak diruz lertuta
pakean bizitutzia?

Zerengatikan asi ziraden
diruben billa kanpoan,
baldin emango baniyoten nik
guziro era gozoan?
Ez al zekiten erdoiak galtzen
nola dauzkatan txokoan,
jateko onak ez diralako
zabaldutzeko asmoan?

Bai al genduke gabiltzan gisan
gerran ibilli bearrik,
baldin baleude *dubende* zarrak
urre tartean lerturik?
Etxe utsean ez dala palta
izaten iñoiz gudarik...
guraso zarrai aldi askotan
entzun izandu niyen nik.

Berarengatik nik amar milla
milloi prestatugatikan,
alaz guztiaz ez naiz gelditzen
dirurik gabetanikan;
beste ainbeste irtengo dira
emendik edo andikan,
bi *zomorroak* biyak batean
ler egiteagatikan.

Poz bat aundiya gelditutzen zait
milloiak zabalduatik,
eta poza au da etorriya
lenguan Beneziatik;
ez baldin banau ni eramaten
Jainkoak laixter mundutik,
ziririkubak tirako ditut
ugari kanpantorretik.

Jesus ill zuten judu gaiztoai
baldin bazaie damutu,
ia Cánovas-txo, ia Sagasta-txo,
oraiñ nerekin kontatu;
naiago det nik arditik gabe
larru gorriyan gelditu...
eta ez zuen negar samiñak
Tolosatikan aditu.

Zer dit ordea ez izan arren
nere mendean arditik,
fueroz beteko baldin bagera
Karlos sartutzen danetik?
Ogei milloian billa etorri
leitezke bada bertatik,
libra ditezen Euskal Erriyak
masoi-taldean mendetik.

Arren!, sinistu zazute biyok
ez geradela dollorak,
ez degubela etsaiarekin
izan nai biyotz gogorak;
zurak al geran esan dezala
oraiñ Castelar *kotorrak*,
zeñek pagatu nai dituben gaur
liberalkeriyen zorrak.

Diruben billa Tolosaraño
etorri bear dezute,
eta galdetu modu onetan
lotsatzen ez bazerate:
«Nuntsu bizi da deitzen diyena
Ramon... Ramos Azkarate?».
Ta edozeñek nun bizi naizen
erakutsiko dizute.¹

R. A.

El Cántabro, 1896-X-25

¹ *Si así lo hicieréis, Dios os lo premie; y, si no, os lo demande.* (El Cántabro-ren oarra.)

Amarruak eta bobasketak¹

(*Orra yabirun yabirun-en doñuban.*)

Españaia daukagu
txit errukariya,
dituben lur-apurrak
galdu ditu iya;
madarikagarritzko
liberalkeriya,
zu zera gauza oien
etsai galgarriya.

Trenian pasa ziran
lengo egun batez
mutillak Habanara
algaraz ta farrez;
tartian juanak dira
batzubek negarrez,
eskatzen zutelarik:
«Ura karidadez».

Argiyen eunkiya²
deitu gaudenari,
eta illunpekoak...
antziñakoairi...
Ori sinistatubaz
daudenak ugari,
dira begi zabalik
ametsetan ari.

Tren-bidera irten zan
gizon bat apaña,
lan asko... egin arren
du gorputz liraña;
aoa zabaldu ta
jasorik mingaña,
biyotzetik deitutzen
zun «¡Viva España!».

Errege bidezkoak
zutenian aintzen,
Españaia ziguten
lur berriz jantzitzen;
eta orain daudenak
larru-gorritutzen.
A zer argitasuna
duten erakusten!

Besteren umiakin
gerra egitia,
gauza motelarentzat
ona da *gatz txia*;
Ori deitzia bañan
ez al zun obia
aiekin biraltzia
beraren semia?...

Borondatezko³ asko
juan zan gerratian,
ikusi ordurako
karlistak mendian;
Sort-erritasun⁴ franko
orain mingañian,
zertan daduzkatzute
semiak etxian?

Sesiyorikan bada
kalian gertatzen,
«Aguazillak nun dira?»
dakigu galdetzen;
zerbait nunbaitetikan
badute ostutzen,
serenuak lapurrik
ez dute gelditzen.

Bilguman⁵ badauzkagu
gizon *liberalak*,
erriyaren poltsatik
geitutzeko *pagak*;
naiz beren mende dauden
langille argalak,
biraldu (edo beintzat)
gutxitu jornalak.

Oiek egin oi duten
lan guzti-guztia:
gizon ordi daudenak
pertsegitutzia;
aiek obe lukete
albait laguntzia,
ez kulparikan gabe
kartzelan sartzia.

Batez ere orretan
gure alkatia
esan dirate dala
osoro trebia;
bear bañan geiago
pagatzen *gatz txia*...
ez beretzat baluke
izango kaltia.

Alaz guztiyaz ere
grazi ugariyak,
oriyen karguba dun
buru-nagusiyak,
ez dakigu zergatik
ditun mereziyak...
Bototan irabazten
seiari zazpiyak.

Eme-arrak

El Cántabro, 1896-XI-1

¹ *Astucias y fatuidades.*

² *Siglo de las luces.*

³ *Voluntarios.*

⁴ *Patriotismo.*

⁵ *En el Ayuntamiento. (El Cántabro-ren oarrak.)*

**On Karlos zazpigarrenari
bere santubaren egunian,
1896-garren urtean, Azaroaren 4-bean.**

Gure *Aitatxo* maitea,
Artzai bertutez betea,
leku-aldatu zaitea,
Españiyan da Ugarteetan¹
goiendu dedin fedea,
dedin ill masoi-taldea,
jende gezurran zalea,
Luzbeltzen jarraitzallea.

Ugarte aberatsenak
daude errukitsubenak,
guda biziyan daudenak;
zizkiyelako masoiak kendu
sinismen doatsubenak;
gurutzeakin zeudenak
gaur dira Satanasenak,
argiyan etsai beltzenak.

Ai!, Colón eta Legazpi
balira munduban bizi,
zu zaituztela nagusi,
joango lirake masoi guziyak
infernuraño igesi,
Luzbeltz, Satanas ta guzi,
egiñaz lau milla antsi,
antxe ditezen egosi.

Bañan gizon *beltz* gaiztuak
ta libertade paltsuak
galtzen dituzte dontsuak;
masoien anai osoak dira
liberal katolikuak,
santu zar ezkerrekuak,
maskaraz jantzitakuak,
Señoran aldarekuak.

Goseak Gaztelaniya,
oñazez Euskal Erriya,
agoniyan daude iya;
zabaldu zazu, *gure Aitatxo*,
bandera maitagarriya,
galtzeko masoneriya,
seta txar lotsagarriya,
guziyan ondamendiya.

Zure Trento-ko pausua
etzan izandu paltsua,
baizikan gloriosua.
zu zera Ama Eleiza Santan
eskubitako besua;
zera kristau txit osua²,
Artzai guzizko gozua,
bildotxen paradisia.

Zuk badakizu txit ongi
gaudela zure edarri,
beti begira zedorri;
etorri zaitez, Aita maitea,
etorri zaitez, etorri,
aurretik zaitezen jarri,
esanaz artaldeari:
«Masoneriya ill bedi!».

Gaiñtxurizketak

El Cántabro, 1896-XI-4

¹ *En las islas.*

² *Integérrimo. (El Cántabro-ren oarrak.)*

Cánovas eta Sagastari bigarrena ta aitzena

Gaur dira noski amabost egun
*Kantauritar*¹ gurean
esan nubela diru-mordo bat
baneukala nik etxean;
badakizute zer larri nagon
denak prestatu naiean,
Cánovas eta Sagasta lertu
ditezen biyak batean.

Nere izen ta izen-gañaren²
azpiyan nizten eskeñi,
esan niyoten Tolosaraño
bear zutela etorri;
niyen esan nik galdetutzeko
nuntsu bizitzen naizen ni,
bañan etzaizkit diruben billa
ez bat ez beste agiri.

Zerengatikan ez ote dira
etorri milloien billa?
Naizelako ni *juduben* gisan
dollorkeriyen abilla?
Bein nik eskeñi ezkeroztandik
ez det nai izan zirtzilla,
baizik karlista naizen bezela
leiala edo umilla.

Ez niyen bada nik eskatutzen
Almadén-eko minarik,
ez eta ere Tabacalera
eta burnizko biderik.
Al niyon nik aduanetan
jarritzen eragozpenik³?
Artu eta joan besterik ez-da...
zertan paltatu diyet nik?

Ote nuban nik (nai ez nubela)
egin onela pekatu,
ama zanaren izen-gañikan
ez nubelako kantatu?
Au beste paltik ez baldin bada...
ta nai baditet barkatu,
ez dute bear, gizarajuak!,
milloirik bage gelditu.

Azkarate naiz aitangandikan,
amarengandik Otegi,
gaur arte Ramos izentzat beintzat
deitutzen dirate neri;
segurubago baldin jakin nai
badute osoro garbi,
galde, bai, galde... Orkaiztegiko
On Patrizio jaunari⁴.

Bataioaren fedea eta
gañera gañerakuak...
zeñek obeto dizte esango
ez bada bikariyuak?
Urte aietan egitekorik
etzuten juzgadukuak,
zutelarikan orduban ere
agintzen *beltzetakuak*.

Argatik bada erakutsitzen
diyet dakitan guziya,
On Karlos berak dakartelako
dakagu poz bat aundiya:
betoz len-bait-len artu dezaten
diru *erdoiez* jantziya,
ia sendatutzen ote zaioten
dadukaten miñ-biziya.

Zertan dabilta milloien billa
Españiyako Bankuban,
baldin nereak sartu besterik
ez badauzkate zakuban?
Zeñek emango diye ordea
diruba nere moduban,
ni bañan gizon leialagorik
ez baldin bada munduban?

Korriturikan batere bage
ogei milla milloi aundi!
Zeiñ agertu da eman naiean
bigarren aldiz kantari?
Bi *agureak* urre-pillakin
nola ez bada estali,
nai badituzte fuero santubak
Euskal Errira ekarri?

Andaluziko *gaziya*k eta
Erriojako *piperrak*,
karlisten alde dituzte eman
guzizko pauso azkarrak;
argatik eman nai diozkatet
nere urre ta zillarrak,
ta nere mende arkitzen diran
ezeak eta igarrak.

Lengo moduban esaten diyet
Tolosan bizi naizela,
ta oraiñgoan galdetu bage
ni billatuko nautela;
baldin portatzen ez baldin banaiz
bi *dubendiak* bezela,
Napar zubitik diru guziyak
botako ditut udera.

R. A.

El Cántabro, 1896-XI-8

¹ *Cántabro*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

² *Apellido*. (*Id.*)

³ *Impedimentos*. (*Id.*)

⁴ Tolosako erretore jauna, garai artan.

**Cántabro edo Kantauritarran
irakurlariyai agur bat,
bañan ez betiko**

Badakizute, anai maiteak,
ez naizela jakintsuba,
baizikan gauzak ikusten nola
naizen ni erdi-itxuba;
badakizute nola gazterik
arkitzen naizen zartuba,
daukatelarik nere bizarra
zillarrez bedeinkatuba.

Ta dakizute ez naizela ni
nere maisuben maisuba,
daukatelarik bizarran gisan
zuriturikan buruba;
negubak nola mututzen duben
txori askoren kantuba,
fueruak neri ekarri ditet
ixildutzeko moduba.

Ez ditet eman erriyetarik
beñere buruzariyak,
eskribatu ta kantatu izan
ditudalako egiyak;
bañan nik nola kantari esan
lotutzen banau neurriyak,
zer diran gure Gipuzkoaren
lege zar maitagarriyak?

Ez al da bada askoz ohea
Fueruak zabaldutzia,
Kantauritarran adiskideai
zer geran erakustia?
Ez al da guztiz egokiagoa
kantak geroko uztia,
eta On Karlos datorreneko
ederragoak jartzia?

Ni bañon gizon bizkorrago bat
zori onez da oroitu
Kantauritarran bear degula
Fuego guziya agertu¹;
nola denboraz bear ditugun
Laurak-bat-ean gozatu...
orra zer errez dezagukean
Fuerua eskutaratu.

Eskutaratu bakarrikan ez,
baizik ikasten saiatu,
gogoratubaz nola Karlosek
zituben juramentatu;²
oroitu gaiten, oroitu gaiten
nork dizkiguben lapurtu...
fuegoengatik karlistak beti
diradelako altxatu.

Masoietan ta liberaletan
ez da kabitzen Fuerorik,
Cádiz-ko *beltzak*³ jarri zituzten
gurutzeari josirik;
ordu ezkeru ez dute izan,
gaxuak!, egun bat onik,
baizik Jesusen moduban daude
larrugorriyan zintzilik.

Bañan Mesias piztu egin zan
irugarren egunian,
gurutzian ill eta sartuba
zeukatelarik lur-pian;
gure fueruak dira piztuko
Urdanetaren aurrian,
Billafrankako plazan on Karlos
ikusten degubengan.

Orañ batzuek esango dute
gabiltzala ametsetan,
ez daukagula ikusirikan
On Karlos Probentzi ontan;
orren seguru baleuzkateke
urre-morduak kotxetan,
ez luteke, ez, berriz esango
ari generala txantxetan.

Oiek al dana... esanagatik
gu egon gaiten prest beti,
onek iraun ez lezakela
edozeñ kaikuk badaki;
Nola Cánovas ala Sagastak
badakite txit ederki,
galtzaz pardela egiñ eta joan
bearko dutela aurki.

Berarengatik bukatzen dira
gaurkoarekin kantubak,
erakustea dalako obe
karlistai fuero santubak;
ez gaiten izan iñoiz dollorrak
baizikan beti prestubak,
agertu dedin gu ez generala
gezurti ernegatubak.

Agur ta agur, adiskideak,
bañan bañan ez betiko,
ez ote naiz ni gure fueruak
piztu artean biziko?
Jaio banintzan gure *izarra*
argitu bage illtzeko,
beintzat bizirik nagoan arte
ditut nik lorez jantziko.

Ramos Azkaratekuak
El Cántabro, 1896-XI-15

¹ Aldizkari au Gipuzkoako Fueroa argitaratzen asi zan andik laster. Oni leku ematearren-edo, Ramos Azkarateren bertsorik etzuan bolara batean argitaratu.

² Don Karlosek Ordizian zin egin zituan Gipuzkoako fueroak, 1875-VII-7-an.

³ *Constitución del año 12*. (*El Cántabro*-ren oarra).

Bertso auetako batzuk bein eta berrero argitaratu ziran bai bertso-paperetan eta bai egunkarietan. Ez du merezi aldaketak aitatzerik.

El Cántabro
(1897)

Irun edo Uranzuko karlistai

1897-garrengo urte berri egunean

Jaunak, gaur dira zortzi bat egun
nagoala ni Irunen,
gure On Tirso buruzariyan
jauregi onen barrunen;
Arbelaizko Konde aundiya
jaioa dalako emen,
nik bezin ondo badakizute
zer birtuteak dituben.

Gaur Done Juanen bizitu arren
On Jaimen lagun aundiya,
ez dago lotan euskal karlisten
eguzki gozagarriya;
baizik ari da Egiptuzuban
irazekitzen argiya,
beltzen *linbotik* libratu dedin
gure Euskaldun Erriya.

Entzun izan det Tirsorengatik
dala gizon onegiya,
ez dubelako etsaiarekin
izan nai gogorregiya;
dakiyelako politika bat
Elizak erakutsiya,
artutzen daki Elizan gisan
fedez datorren guziya.

Ez al da guztiz ederragoa
zer geran erakustia,
ez datorren bat karlistetara
makillka biralitzia?
Ez al da milla bider obea
itxubak argitutzia,
eta txit umill datorrenari
besoak zabaldutzia?

Bai, Uranzutar maite-maiteak,
ardi galdubai deitzia
da gurutzean ill zigutena
benetan onratutzia;
da fedearen martiri denak
goi-gora altxatutzia,
da Luzbeltz eta Satanastarrak
kixkaltzen idukitzia.

Nola zaudeten Egiptuzuko
lendabiziko uriyan,
zuen *Aitonak* ainbeste gaizto
galdu zituzten tokiyan...
Glori berriyak irabazteko
San Marzialko mendiyen...
egon zaitezte guziro ernai
bakoitza bere kabiyan.

Bada denboraz agertu leike
maite deguben *izarra*,
dubena maite gure moduban
euskaldun lege zar-zarra;
masoneriya galduko duben
donekar bakar-bakarra...
da gure biyotz guzi-guziyak
berotzeko su-txingarra.

Ez dezute nik esan bearrik
zer egin agertutzian,
zerengatikan eragozpenik
ez dan izango bidian;
Tolosaraño joaten bagera
gure bi oñen gañian,
andik aurrera Madrill aldera
joango gera gu trenian.

Orañ Leandro Pikabea ta
Felix Mendizabalkua
agurtzeakin agurtutzen det
Junta ateratakua:
Juan Ezeizabarreneko ta
On Juan Mokorreakua...
biyotzetikan det agurtutzen
Junta gaur sartutakua.

Zer besterikan esan lezake
Ramos Azkaratekuak,
bazeradete zuek guziyok
ni bañon argiyaguak?
Berarengatik urrengo arte,
anaia biyotzekuak,
agur ta agur, gure Tirsoren
arkume Uranzukuak.

R. A.

El Cántabro, 1897-I-10

El Cántabro-k dionez, Irungo karlistetan kargu berriak aukeratuak ziran.
Izenak eman ondoren, onela jarraitzen du:

«Por iniciativa plausible de un Sr. Socio, tuvo lugar el 1º de Enero un banquete, al cual concurrieron no solamente los individuos de la junta que ha cesado, y los que han sido nombrados por unanimidad para el corriente año, sino otros caracterizados carlistas, habiendo reinado completa armonía y entusiasmo indescriptible, sobre todo cuando llegó el ansiado momento de todos los comensables, para escuchar la arrebatadora palabra del vascófilo y consecuente tradicionalista D. Ramos Azcárate. El tema sobre que disertó, remito a Ud. adjunto, para darle publicidad en el periódico de su digna dirección. Los aplausos fueron continuados para Ramos Azcárate, hasta que se levantó el simpático y valiente carlista Don Juan Eceizabarrena, nuevo Presidente de este Círculo, quien pronunció un oportunísimo discurso, que fue colmado con entusiastas ovaciones.

El Sr. Picabea habló sobre la unidad y disciplina que tanto caracteriza al partido carlista, y que en los tiempos actuales son imprescindibles más que nunca, para que siga en progreso ascendente la gran Compañía tradicionalista; excusado es decir que el señor Picabea, al terminar su discurso, fue aclamado con nutridos aplausos.

Hablaron otros Señores de un modo admirable, pero a fin de no dar mayor extensión a lo expuesto cierro la presente crónica, deseando a Ud., Sr. Director y demás carlistas de Tolosa, feliz entrada del año.

El Corresponsal

Irún 6 de Enero de 1897».

Gipuzkoako diariyo
edo egunerokoaren zuzendariyari itz bi
(Politikan itzegiten dala.)

Liberala al zera,
erdaldun *delorme*,
zaudena libertade
paltsoaren alde?
Liberala al zeran...
zertan egin galde,
liberal diranakin
aserre bazaude?
Osiñaren moduko
belar txar berdia,
txit euskaldun gutxiren
engañatzallia,
egiyaren kontrako
saltsaren zalia,
zauzelako saltsakin
osoro erria,
alferrikakua da
zure lanbidia.
«*Carlitos Chapa*» deitzen
zaude zu trebia,
Alfontsoaren aldeko
zomorro gordia;
zuk bakarrikan izan
nai dezu libria,
Katipunan lagun zar
ondorik bagia;
ta zeraden ezkerro
eskribatzallia,
izan zaite zu beintzat
gizon bat noblia,
orain zeraden bañon
askozaz obia,

bazerade zedorren
buruan jabia.
Bada zuk mesederik
ez dezubengan,
arren!, laga eiguzu
karlistai pakian;
paltatzen ez dubenik
oraiñgo legian,
ote da gaur gizon bat
lurraren gañian?
Bañan zuk nai zenduke
gu preso artzia,
zu fiskal zeradela
al balitz illtzia...
Orren aundiya bada
daukazun gosia,...
nai dezuben ezkerro
Cántabro galtzia,...
etzaite bada izan
zu ego-aizia,
dozena bat *kaikuren*
morroi txit tristia.
Obe degu norik bere
lanari jarraitu,
ta lagun urkoari
ez gaitzik opatu,
ixpiyen... agindubak
ez fedetzat artu,
zergatik justiziyak
ernaituko gaitu.

Errendosorok

El Cántabro, 1897-I-17

On Ladislao Zabala eta Salazar zana

Tolosako karlisten
Aitarik zarrena,
larogei ta amaika
urte zitubena,
biyotz-biyotzetikan
maite genubena,
ill da aste onetan
gure Aita-lena!¹

Ill da, ez utzi gabe
guri oroipena,
etsai bat bakarrikan
iñun etzubena;
beraren illeta da
testigu onena,
Ladislao nola zan
txit kristau zuzena.

Tolosan jaio zan da
zan Tolosan azi,
Tolosan naia zuben
ill artean bizi;
uri aundiyetara
joan bage igesi,
bere seaskan ditu
bi begiyak itxi.

Conde Villa-Fuertes-en
seme bat zalarik,
etzekiyen gordetzen
urgullu apurrik;
ez da aberatsikan,
al da beartsurik,
zanak giza-legean
paltatu diyenik?

Bere familiyaren
buru doatsuba,
samiñikan bageko
artzai eztitsuba
joan da, bañan utzirik
denoi ixpilluba,
esaten digubena:
«Izan onraduba».

Katoliko osoa.
lege zar zalea,
Sort-erriyakin maite
zuben Erregea;
Ladislao zekiye
Fueroko bidea,
ta ala gorde zuben
beti onorea.

Zaldun goienekotan
zan zaldun goiena,
zan maitagarriyetan
maitagarriyena;
zalako Probenziyan
seme leialena,
zan Aita egiazko
Gipuzkoarena.

Irudikatu zagun²
gure perla zana,
aztu ezin zaiguben
Aitatxo laztana;
zeruban gerta dediñ
esan salbe bana,
andikan begiratu
dezan guregana.

R. A.

El Cántabro, 1897-IV-25

Ladislao Zabala Salazar jauna 1897-IV-21-ean il zan, larogei ta amaika urterekin, Tolosa bere jaioterrian.

¹ *Patriarca*.

² *Imitemos*. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Zorionekoak integro egiazkoak!

Izugarriya, izugarriya
da gure garaitondoa¹,
orain kantari abiyatzeko
eman dirana gogoa;
degubelako glori au baño
beste bat aundiyagoa,
integro guztiz egiazkoak
alabatzer a nioa.

Bañan al dute guregandikan
alabantzaren bearrik,
alabatzeko aski badira
beren pausoak bakarrik?
Fede onean baziran egon
aparte anaiengandik,
aurten agertu dira txit txuri
beltzak beltzentzat utzirik.

Nola. bai. nola ziraden joango
Laskibar *zaldunan* alde,
onen *liberaltasun* guziyak
txit agiriyan badaude?
Nola *liberal* diradenakin,
santubak... izan ta ere...
integro fiñak boto lanetan
egingo ziyen mesede?

Nola botoak eman ordea
Eleizan etsaiantzako,
ta euskaldunen lege santubak
galdu zituztenentzako?
Nola *liberal* batek botoa
eman Ursinorentzako,
naiz Arrueko Anastasio
errejidorientzako?

Aurrenekoa ta bigarrena
dirade kristau gozoak,
eta ez dira Elizantzako
Taxil bezela paltsoak;
bañan *liberal* jendea eta
katoliko txit osoak...
nola konpondu leitezke ondo
eroak eta *zintzoak*?

Aurten agertu dira garbiro
zeiñ diran egiazkoak,
agertu dira zeñ ta zer diran
integro gezurrezkoak;
karlisten alde botatzeakin
apaiz jaun birtuosoak,
dira agiri bildotxak jaten
bizi diraden *otsoak*.

Bota digute integro askok,
bai ere buruzariyak,
altxatuazi zitubelako
ezkontza lotsagarriyak;
nola gezurra garaitu duben
bear bezela egiyak,
argitu bear dirade laxter
beste geiagon begiyak.

Ibillitu da botoen billa
bizitzetan ta dendetan,
pobre bat baño nabarmenago
baserri eta kaletan;
nunbait aserre jaioa da ta...
ez daki boto lanetan,
dira karlistak bizkorragoak
politikako gauzetan.

Suerte txarra nola baiduben
gezurrezkoen *artzaiak*,
beti jokuban irabazitzen
diye karlista ernaiak;
au baño lagun obeagorik
ez badu gure etsaiak,
berriro ere bearko artu
aurtengo gisan *jipoiak*.

Anaitu gaiten karlistak eta
integro egiyazkoak,
salbatutzeko alik laixterren
ondasun katolikoak;
gorrotaturik biyotzetikan
lege beltz infernukoak,
saia, bai, saia piztu ditezen
Fuero zar gurutzekoak.

O. A. R.

El Cántabro, 1897-V-16

¹*Triunfo*. (*El Cántabro*-ren oarra).

Fede oneko integroai

Naizelako ni Jeremias-en
gutzizko adiskidia,
nere biziyen nai nuke izan
beraren maitatzallia;
izandu banaiz batzubentzako
kantari lotsa... bagia,...
ez al naiz izan Nocedal-ekin
beti asmegitaria¹?

Zenbat alditan diyotan esan
gure Fueroen etsaia,
ainbeste aldiz egiten ziran
Jeremias-ek argiya;
nola dan jaun au desleiala ta...
euskerarentzat *etoia*²,
bere moduko *Fuerista* bati
emanik dauka jipoia.

Gutxiyagokin garbitu zuten
Tolosan Gaon juduba,
nai zubelako bakar-bakarrik
eraman gure diruba;
Bañan *Romea Mister Maketok*
gure liburu santuba,
zeñek ukatu ez dadukala
Luzifer-tarrai salduba?

Nocedal eta bere lagunak
balira fuero-zaliak,
Donostiyako *Fuerista*... bati
nolatan itxi atiak?
Ertsitu³ eta daukate miñez
bearrenaren gosiak,
pena ematen diyola noski
Romeak kondenatziak.

Iya illean dago kantari
oien ezkontza zikiñak,
Don Karlosenak urkatutzeko
beltz guziyekin egiñak;
Fuerista ill ta uste badute
ez diradela sorgiñak,
bañan dakigu dirala oiek
guzizko belar samiñak.

Satrustegikin ez omen zuten
nai oiek ezkonduzia,
bañan bai *La Voz* infernukoan
lagunak sendotutzia;
geien ematen dubenarekin
libre da elkartutzia?
Beaz arrazoi dauka *Fuerista*-k
zatarrak ateratzia.

Erramontxoren ardi gaiztoak,
egin nazute mesede,
ez al zerate Satrustegikin
ezkondu izan beñere?
Agiñaga ta alakoekin
zertan zaudete aserre,
karlisten kontra joan bazerate
edozer gauzaren alde?

Emen iñoren baimenik gabe
dabiltza nai dutenakin,
Unión-eko eta *La Voz*-ko
konbeni... zaiotenakin,
Euskal Erriyen lege zarraren
etsairik aundiyenakin;
da esatea: gurekin ez-da
bai beste edozeñekin.

Beste gauza bat: zer egiteko
du Donostiyan Romea-k,
Agiñaga-ta... katez lotzeko
badira berez libreak?
Esan digute Ramon Zabalak,
bai ere beren jendeak,
ez dutela nai iñola izan
fuero dontsuben zaleak.

Egiya esan bear balute
Alzolak eta Goitiak,
bai eta ere Satrustegi ta
Calbetón diru-zaliak,
azkar utziko lituke askok
intrigo *beltzen* bidiak,
guk bezelaxe dituztelako
nai euskaldunen legiak.

O. A. R.

El Cántabro, 1897-V-30

¹ *Profeta*.

² Politikan itzegiten dala.

³ *Sitiado*. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Beñere gauz onik ez gaizki dabillenak

Edan-buru-ko gobernadore
edo sekretariyua,
nai eta nai ez izan bear du
integro *ziarkakua*;
guziro maite dubelarikan
egaztiyaren egua...
da *urdai-jale* Erromatarra¹
dan bañon lasaiagua.

Gañerakoan da guzirozko
gizon ederki egiña,
bakarrik dauka *lengusubakin*
iñola etsi eziña;
bide zabalak, bide txiurrak
ez ditu beretzat diña,
beti badabill botak zikintzen
tellatu-peko sorgiña.

Oraiñ norbaitek galde lezake:
«Gizon-modu au sorgintzan?»
Ez al diteke Nosedal-tar bat
turkoren sorgiña izan?
Sorabillako sorgintegiyan
geiegi sartu ez bazan,
Arzi-bestean aidearekin
tratuban asiko al zan?

Edan-buru-ko kontubak beti
txit dira negargarriyak,
zer milagro da an izatea
botoak masoneriyak?
Idi ta beirik bear ez duben...
Andoaiñ nekazariyak...
erosi ditu dirurik gabe
ganadu guri-guriyak.

Ganadu oiek dauzkan lekuban
galai txit *pintarratubak*,
esan ote du bere etxean
nola daukazkin saldubak?
Buruko miñik ez diye egingo
kutxan barrendik dirubak,
ez eta ere ondorenean
emango diyen pagubak.

Naiz politikan errukarriyak
diraden orrelakuak,
Gipuzkoako *Motiñekin* gaur
dabiltzan katolikuak,
oien tratubak ez badirade
irteten gezurrezkuak,
urka nazala *Don Erramontxo*
gezurran apostoluak.

Ikusten danez nai luke izan
lau bat urteko *Sindik*o,
dirudiyenez zaldun-moduban
azkar litzake jantziko;
banintzake ni orain *Errege*
ogei eta lau orduko,
Edan-buruban jarriko nuke
alkate beti-betiko.

Jaun au alkate ipiñitza
zergatik uste dezute?
Dakiyelako bere ustean
Salomon zanak ainbeste;
zertan gelditzen dan istoriya
jakiten deguben arte,
lengoa bera egon dedilla
sekretario ta alkate.

O. A.

El Cántabro, 1897-VI-6

¹ *Romano*. (*El Cántabro*-ren oarra).

Azpeitiko On Ignazio Ibero-koa zana

Badakigu betiko
jaio ez giñala,
ta ill bear degula
nola... edo... ala;
bañan jakiteakin
Ibero ill dala,
iduritutzen zaigu
bizi ez gerala.

Bañan Jaunak deitzean
joan bear ordea,
zergatikan bera dan
guziyon jabea;
Iñigo argidotar
zaldun txit noblea
zan izan katoliko
mantxarik bagea.

Ari-albañotikan
gaudenak zintzilik,
ez bagaude txit illak
al gaude bizirik?
Zarrak ez badauka
eskapatutzerik...
al daukate gazteak
ordu segururik?

Zan gizon elizakor
eguterakua,
zan Fueroen zale bat
txit benetakua;
zan karlista aundi bat
zori onekua,
zan birtuteen jabe
goiko mallakua.

Ez dago Iberokin
pentsatu besterik,
beti gizon gordiña
izandu zalarik,
iya larogei urte
bazitubelarik,
bai al da Gipuzkoan
gaur ederragorik?

Santu baten moduban
bere Azpeitayan
bizitu zan beraren
denbora guziyan;
lasaitubaz zeudenak
janaren premiyan,
zan *Aita* on bat izan
Miserikordiyan.

Gogoratutzen naiz beñ
beraren etxean
kantatutzen ni jardun
nintzala batean;
Nocedal-en jokuba
entzun ziranean,
zoratu nai zitzaien
bere sill-oiean.

Aiñ zan, aiñ, euskalduna,
Ibero ezikan,
ez niyon nik aditu
erderaz itzikan;
itz-egin izandu det
iñoiz geroztikan,
bañan entzun ez niyon
euskeraz baizikan.

Itz batez esateko
zan txit doatsua,
guztiz maite zubena
seaska gozua;
Aita San Ignazioen
sort-erri dontsua
gaur dago nai ta nai ez
miñez eritua.

Andre, seme ta alabai
guk sentimentuban
lagundutzen diyegu
bear dan moduban;
Iñigo gerta dedin
gozatzen zeruban,
obra onenak egin
ditzagun munduban.

Ramos Azkaratekuak
El Cántabro, 1897-VI-13

Inazio Ibero Maiz jauna 1897-VI-10-ean il zan, Azpeitian, irurogei ta amabi urterekin.

Bakoitzari berea

Beti maitatzen geranak bizi
sinismen Gurutzekuak,
(gu bakarrikan geradelarik
Fuerista egiazkuak),
liberaletan ere badiran
ziñezko katolikuak,
guk esan gabe digu esaten
alkate Tolosakuak.

Jarraitu zazu, *anai* maitea,
kristau bidean orrela,
etzeralako zenbaiten gisan
alkate epel-epela;
politikan bat ez geralarik
sinistu emen gaudela,
ta guretarrik beñere kontra
irtengo etzaizubela.

Nola gu irten txit benetako
alkate jaun baten kontra,
gabazko dantzak badauzkatzu zuk
osoro gorrotatuta?
Ta blasfemiyak maskil¹ azpiyan
dauzkatzu debekatuta,
nola gu izan zure etsaiak
neurri oriyek artuta?

Zileikindean² zure taldea
nai dezu bizitutzia,
dezu nai sorgin-dantza zikiñak
gabaz beñepeñ galtzia;
ta nai dezuben ezkeroztandik
blasfemi txarrak illtzia,
merezi dezu euskaldun on bat
bezela tratatutzia.

Euskal leial bat zerade eta
segi zintzoro lanean,
dantza *zikiñak* ta blasfemiyak
lur-azpiratu artean:
Ama Euskara, euskal oiturak
sendotzen saia gaitean,
«*Bizitu bitez gure Fueruak!*»
deitubaz denok batean.

Sinisten degu guk aña maite
dezubela zuk fedia,
ta etzerala zorigaiztoko
desordenaren zalia;
guziro garbi dezubengan
jarritzen erri guria,
zu alabatzen bizituko da
Tolosan jende noblia.

A.

El Cántabro, 1897-VII-11

¹ *Multa*.

² *En la moral*. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Bizi bedi euskera!

Lenago eroriko dirade izarrak,
ez erdaldun biurtu Euskal Erri zarrak;
lenago urak edo subaren indarrak
galdu bearko ditu kantabriyatarrak.

AZKARATE

Beñ txit lapurtu bazizkiguten
gure lege zar gaxoak,
beñere ase ezin diraden
Gaztelaniko otsoak...
oieri lagun emen egiñaz
Aitorren seme paltsoak,
ia itoan zituzten jarri
euskaldun pesta gozoak.

Gipuzkoako Diputaziyo
edo gure gurasoak
ikusirikan urkamendiyan
euskal pesta txit zintzoak,
zori onean beñ erabaki
zuben bilguma osoak,
ziñez salbatu bear zirala
oitura gloriosoak.

Mondragoitikan abiyatu zan
euskaldun pestak piztubaz,
asnasik gabe zeudenak iya
Eleizarekin goitubaz;
Unzeta zarra aurreku zala
dantza garbiyak sutubaz,
ganadu eta beste gauz onak
txit moduz sariatubaz¹.

Monzon ta Pepe sokan sartuta
Esteban² zanan uriyan,
dantza luzia zuten onratu
errespeto txit aundiyan;
Begira egon bazan Garibai
zeruetako gloriyan,
esango zuben: «Ez dituk bizi
oraiñdik Gaztelaniyan...».

Donostiyako *Euskal Jostalde*
Batzarre benetakuak,
sariaturik itz neurtu ta
itz larri euskerazkuak,
au lagun ona zuben izandu
gure Diputaziyuak,
altxatutzeko goi malletara
euskal pesta lenenguak.

Bukatu ziran Mondragoikoak
txit ondo joan zan urtian,
ta aurtenguak ditugu izan
Oiartzungo Ibarrian,
erdal gaiztoak zañikan egin
izan ez duten lurrian,
Mendiburuko³ gure Aita bat
bataiatu zan pontian.

Done Esteban Lartaungoa
da Oiartzungo eleiza,
antxe guben zintzoro entzun
obispo jaunaren meza;
antxe jardun zan predikatutzen
argidotar⁴ Vinuesa,
euskal izkuntzan gora altxatzen
Euskaldun Erriko pesta.

Arratsaldeko seiak aldean
Diputaziyo gureak,
bazirudiyen gozatzen bizi
gerala euskal legeak,
errespetoko soñak jantzita
gure guraso maiteak,
plazara irten ziran dantzara
nola zar ala gazteak.

Auresku zala dantzari eder
Egaña Bergarakua,
eta atzesku dantzari txukun
Jose Elosegikua,
guziyak egin zutelakuan
jende euskalen gogua,
koroiez jantzi guben denok
Diputaziyo goitua.

Entzun ginduzen musikak eta
kanta poz-emangarriyak,
ginduzen entzun danboliñaren
zortziko maitagarriyak;
ganadu eta... euskaldun letrai
emanik beren sariyak,
ziran bukatu Uztan seiean
pesta txit ikuskarriyak.

Bizi dedilla Gipuzkoako
Diputaziyo goituba,
dedilla bizi Bilguma edo
ango Aiuntamentuba;
bizi dedilla *Euskal jostalde*
Batzarre guztiz dontsuba,
dedilla bizi Euskal Erriko
bizi-modu zar santuba.

Emen bizirik dauden artean
guraso egiazkuak,
ta euskal letrak sariatutzen
dabiltzan batzarrekuak,
sendotzeakin euskara eta
oitura euskerazkuak,
zañikan ez du iñoiz egingo
Luzifer *Castillo-kuak*.

A.

El Cántabro, 1897-VII-18

¹*Premiando*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

²Esteban Garibay eta Zamalloa, Españiyako kondaira edo istoriya lenbizi eskribatu zubena. (Id.)

³Ciceron euskalduna deitzen ziyen jesuita eta euskera-zale gañ-gañekua. (Id.)

⁴*Ilustre*. (Id.)

Oiartzungo Euskal Festak 1897-VII-3-7 egunetan ospatu ziran. Antxe izan zan, bertso auetan ageri danez, Ramos Azkarate. Bai ere Pedro Maria Otaño, Txirrita, Pello Errota, Lexo, Kaskazuri eta abar...

Festa auei buruz, ikus *Oiartzungo Euskal Festak* atala, *Auspoaren Sail Nagusia*-ren leen liburuan.

On Juan Jose Elorza eta Aizpuru zanari

Nundik asiko ote naitzazu,
Juan Jose Elorzakua,
nik oroipentzat zuri jarritzen
zortziko euskerazkua?
Nola moldatu zure izenak
merezi bezelakua,
baziñaden zu argidotar ta
goi-goiko katolikua?

Ondo dakizu, anai maitea,
nola naizen moldakaitza,
bear bezela zu onratzeko
neretzat dala txit gaitza;
bañan zedorren bizitza daukat
neronentzako laguntza,
eta al detan moduban nai det
poztu gaur nere biyotza.

Katolikoaz gañera ziñan
eleiz-gizon txit osua,
(ez Erramontxo ta beretarrak
bezela fariseua);
baizik Iñigo bezelakoxen
leiala eta zintzua,
ziñan zaldun bat, ziñan kristau bat
benazko birtuosua.

Ziñan letradu kontzientziko
onraduba ta gozua,
iñoiz izandu etziñadena
desleiala ta paltsua;
neronek dakit diruba kentzen
etziñadela gaiztua,
etziñalako nerekin izan
nere bildotxan *otsua*.

Ziñan fuerista eta karlista
baña txit benetakua,
Dorrnsoarekin goarpelari¹
aldiyaz izandakua;
naiz pakean ta naiz gerratean
asko sufritutakua,
eta ziñaden Gipuzkoaren
Aita on guzirozkoa.

Ziñadelako Azpeitiyari
guziya nai zeniya,
ziñaden izan zure seaskan
goi-malletako gizona;
ziñan emazte ta familiyak
maite zinduzten kutuna,
argatik dago negar egiñaz
zure semeen aitona.

Familiyentzat da aundiyena
izandu zure galera,
bañan sinistu zazu negarrez
dagola gure bandera;
guk uste degun bezela baldin
zeruban arki bazera,
antxe gozatu zaite guziro
Ignaziokin batera.

Ramos Azkaratekoak

El Cántabro, 1897-VII-21.

Aldizkari onek berak, beste toki batean, argibide auek ematen ditu Juan Jose Elorza Aizpuru jaun oni buruz: Azpeitian jaioa, 1841-V-16-an. Bergaran eta Zaragozan ikasketak egiña, lege-gizon izateraiño; 1868-an, Gipuzkoako Aldundiaren sekretario izendatua; bai 1872-an ere, baiña karlisten Aldundiarena: ondoren. lege-gizon Azpeitian, eta abar; 1897-VII-13-an il zan.

¹*Secretario. (El Cántabro-ren oarra.)*

On Jaime Borbongoari

Uzta-illaren 25-an

bere santubaren egunean

Tolestatuta daukalarikan
zure aitatzok bandera,
Pelaio batek moroen kontra
ibilli zubena bera,
nai eta nai ez zabaldurikan
ikusi bearrak gera,
beintzat mundutik bestera laxter
joaten ez baldin bagera.

Españiyaren etsai goienai
libertadeak eskeintzen...
ta libertade gurutzekoak
Euskal Erriyai ostutzen!...
Sort-erriyaren salbatzalleai
ezer ez diye barkatzen,
geradelarik gu beti ari
beltzen zakubak betetzen.

Jaungoikoari nai dakiyola
berriz zu ikusitzia,
eta Urruñan bezela emen
zurekin batzartutzia;
bai eta ere borrero beltzen
mendetik libratutzia,
ta libertade palto guziyak
betiko lurperatzia.

Ikusirikan euskaldun txarrak
erdalak adoratutzen,
uztarriean gu nola lotu
diyenak erakutsitzen;
ari badira geiegiyakin
gañez eragiñazitzen,
nola gu bizi gaituztenakin
guziro larrugorritzen?

Zintzurreraño okitu gera
Cánovas eta Sagastaz,
ziradelako askoz obeak
Pilatos eta Barrabas;
biyakin egin ote leiteken
Habana añako Judas,
Mac-Kinley eta Maximo Gomez
neurrituzera dijoaz.

Eskerrik asko ari dirala
partidu *beltzak* galdutzen,
eta asiko dala denboraz
gure bandera zabaltzen;
nola ez duten oien sermoirik
jendeak sinistatutzen,
alferrik dabiltz Silvela eta
Moret bat predikatutzen.

Gurekin asko arkitzen dira
len liberalak ziranak,
txakurrak eta katuben gisan
beti aserre giñanak;
gaur aski luke agindutzia
zure aitatxo laztanak,
esnatutzeko bere banderan
oraiñ etzanda gaudenak.

Zu zeralako zure Aitarene
soldadu aurrenekua,
Margaritaren sabeletikan
zori onean jaiua,
sinista zazu euskal karlistak
dizuten amoriyua
dala zuk uste dezuben baño
gutziz nagusiyagua.

Bañan agintzen ez dubelarik
beti gaude gu zalantzan,
Artzaiangana fiyo geraden
arkume umillen gisan;
nola dakigun eriyosuan
otsoak gaizki dabilzan...
irakurriko degu denboraz:
«Liberalkeriya ill zan!».

R. A. eta O.
El Cántabro, 1897-VII-25

Gure Aita San Ignazio Loiolakoari

Uzta-illaren 31-an

O Aita Ignaziyo
Azpeitiyakua,
zure jauregi Loiolakuan
bi bider jaiua!
Zaldun leial,... onraduba,
Erregeren soldaduba,
Iruñeko¹ gazteluban
perlaz koroituba;
gero animen salbatzallea,
Lagundiyaren² fundatzallea,
zera Done³ bat Eleiza Santan
etsaien garaitutzallea⁴.

Joan diran sei urtetan
zure Sort-erriyan⁵
zomorro beltz bat ibillitu da
maskaran azpiyan;
zure ponte txit garbiyan,
euskerazko barrutiyan⁶,
nai zituben zañak egin
Izarraitz mendiyen;
pizti txar gaizto erderazkua,
deitzen ziyena *Letartakua*⁷,
zan gu galdutzen alfer-alferrik
alferrik ibillitakua.

Setarik dollorrena
zalarikan izan,
Aranak eman jipoia eta
txit elbarritu zan;
balantzaka bazebiltzan
doñu gabe sorgin-dantzan,
bañan lengo botoetan
Donostiyan *ill zan!*
Bizi al diran galde Tolosan
(ez Laskoaingo baten baratzen),
baizik Ursino eta Arruek
dakite, nai badute esan.

Nolako asiera,
alako aitzena,
Erramontxoren kondairak⁸ diyo
izandu dubela;
zan gezurti aundiyena,
egi-zale txikiyena,
ta euskera Jaunik gabe
utzi nai zubena.
Biba Iñigo maitagarriya,
etsai paltsoen garailariya!
Zure bitartez galdu da emen
betiko Necedalkeriya.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1897-VII-31.

¹ Pamplona. ² Compañía. ³ Santo. ⁴ Vencedor ⁵ Patria. ⁶ Distrito. ⁷ Providencial. ⁸ La historia. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Ill zan Cánovas Castillo-kua, baña ez gure Fueruak

Uztaren ogei eta batean
oraiñ ogei ta bat urte,
Euskal Erriyak Gaztelaniko
odoiez ziraden bete;
geroztik gure ibar-mendiyak
daude txit illun ta triste,
erdaldun *beltzen* ekaitz gaiztoak
sufritu ezin dituzte.

Lege zarrakin ziranak bizi
pake txit maitagarriyan,
guziro pozaz ta atsegiñez
bakoitza bere kabiyán,
gaur ernegatzen zenbat dabilztan
negarrez mundu berriyan,
euskaldun galai gazte ederrak
ogi-puskaren premiyan!

Gure pagadi, gure arizti,
sagasti, gaztañariyak,
gure ibai ta gure errekek,
gure iturri garbiyak,
gure baratza, gure soroak,
gure baserri txuriyak,
ekaiz azpiyan daude egiñaz
txit antsi izugarriyak.

Ta beste zenbait euskal guraso,
semeak gerran galdata,
dira arkitzen negar... ta... negar
tximinipean sartuta,
erdaldun *beltzen* uztarriyari
kate gogorrez lotuta,
duten pittña... asko dutenak
derrigorrian kenduta.

Erdal Erriko oñazkar gaizto,
tximistak eta turmoiak,
erri txikiyai eman diozkate
aundiyangatik jipoiak;
bañan euskaldun paper paltsoak
biraltzen dizte *ipuiak*¹,
galdu ditezen Aitorren seme
benetakoan doaiak.

Santa Agedan Jaungoikoari
kontuba eman ziyona
zan gure Ama Euskara illtzen
ipiñi zuben *giz-ona*;
zalarikan guk guziro gaizki
begiratutzen giñona...
gaur da fuerista egiazkoak
zeruba opa diyona.

Poz bat daukagu euskal karlistak
ta da poz-emangarriya:
etziyolako iñoiz kendu nai
guretakuak biziya;
zanak ondatu zigubelarik
lur maite zoragarriya,
atzerritarran eskutan izan
du aitzen errukarriya.

Ill zan Cánovas Castillo-kua
bañan ez gure Fueruak,
Gaztelaniko gauza geienak
bañon txit ederraguak;
laixter badatoz Beneziatik
onera ifar-lañuak,
desegitera beti-betiko
odoi *beltz* demoniyuak.

R. A. eta O.

El Cántabro, 1897-VIII-15

Antonio Cánovas del Castillo jauna, euskal fueroak kendu zituztenean Espaiñiako gobernuaren buru zana, iru tiroz il zuan Angiolillo-k, Arrasateko Santa Agedan, 1897-VIII-8-an.

* * *

Eriotz onen berri onela ematen zuan *El Cántabro* aldizkariak:

Carta de Mondragón

9 de Agosto de 1897

Muy señor mío: Tomo la pluma hoy para darle a Vd, cuenta de un suceso ocurrido en ésta en el día de ayer, y que por lo inesperado ha de causar en todas partes honda sensación, y mucha resonancia en España y fuera de ella, particularmente en el mundo político.

Supongo adivinará Ud. ya me refiero al crimen cometido en el balneario de Santa Águeda en la persona del señor Cánovas del Castillo.

A la una próximamente de la tarde de ayer llegó aquí todo azorado y fuera de sí, desde el citado balneario un caballero montado en bicicleta y a todo correr, en busca del reputado doctor en medicina D. Ricardo Añíbarro. y al mismo tiempo divulgábase la primera noticia de la muerte del Sr. Cánovas.

En los primeros momentos nadie daba crédito al rumor esparcido, pero pronto se convenció la gente de que algo grave había ocurrido en Santa Águeda; pues vimos que el doctor Sr. Añíbarro y el caballero de antes regresaban apresuradamente a la misma.

Para cerciorarme de la verdad marché yo también allí, y según me acercaba al sitio del crimen era mayor la afluencia de gente; el rumor de la muerte se confirmó en el camino.

A testigos presenciales oí relatar cómo se había perpetrado el atentado y por los detalles que anoto verá Ud. que el criminal ha demostrado una serenidad pasmosa.

Ni Pallás, Ravachol y demás sus cofrades del anarquismo le han superado a este joven imberbe de 26 años de edad en arrojo y valor para llevar a cabo la perpetración del crimen.

Mas vayamos por partes.

Hallábase el señor Cánovas sentado en una silla en la galería baja del establecimiento, entretenido en leer un periódico, que creo era El Nacional, sobre la una menos cuarto, después de bañarse, cuando de improviso se presenta delante de él un hombre, huésped también de la casa desde el día 2, armado de un revólver, y con la mano izquierda apoyada en una puerta vidriera, sin duda para no errar el golpe, disparóle casi a quemarropa tres tiros con tal aplomo y seguridad que dos de los proyectiles le incrustó en la cabeza, y el tercero no muy lejos de ella.

Al recibir el primer tiro. el Sr. Cánovas parece dio unos cuantos pasos, pero no por eso se inmutó el asesino, antes al contrario debió poner todo su cuidado en aquel momento en consumir su obra vengadora, porque los tiros siguientes no demuestran en su pulso alteración alguna por cuanto fueron disparados en la misma dirección que los primeros, esto es, a la cabeza.

La muerte por tanto fue instantánea, como la agresión.

Consumado el atentado no opuso resistencia alguna el agresor y, claro está, fue detenido en el acto.

Manifestóse satisfecho y contento diciendo había cumplido con su misión y, haciendo desprecio absoluto de su vida, les dijo a los allí presentes que le matasen, que bien sabía lo que después le esperaba.

Resulta de todo que es un furibundo anarquista, de nacionalidad italiana, el cual durante su estancia en Santa Águeda ha procurado buscar varias veces una ocasión propicia para la realización de sus intentos.

Hoy ha sido conducido a la cárcel de Vergara, escoltado por varias parejas de guardiaciviles, a disposición del Juez instructor del partido, quien se personó ayer en las primeras horas de la tarde en Santa Águeda a instruir las primeras diligencias.

También vi allí, de los primeros que llegaron, a todas las autoridades locales de ésta, tanto civiles como eclesiásticas.

Se me olvidaba consignar un dato, y es que el autor del atentado, al consumar el crimen, gritó: «¡Viva España!».

Para terminar le diré a V. que ayer y hoy en esta villa se nota extraordinario movimiento de ir y venir coches el balneario, llenos de políticos de talla, y mañana probablemente será conducido el cadáver del Sr. Presidente del Consejo a Madrid.

Esta mañana se han celebrado varias misas en la Capilla ardiente del establecimiento, donde reposan los restos mortales del finado.

Sin tiempo para más, de V. aftmo. correligionario s. s. q. b. s. m.:

El Corresponsal».

¹Fábulas. (*El Cántabro-ren oarra*).

**Nere adiskide maite
On Gregorio Gogorzakoen
bi arreba Simona eta Juliana
ziranai oroipentxo bat**

Zer dizutet nik, zer, moldatuko,
ezagun aspaldikuak,
neskatxa zintzo, neskaxa garbi,
alaba Gogorza-kuak,
mirabe alai errespetoko
Mariyan banderakuak?
Zer kantatuko dizute bada
Ramos Azkaratekuak?

Baldin oñazez banago oraiñ
zuen galeran bitartez,
biyotz eriya baldin badaukat
bete-betea naigabez,
itzak neurritzen abiyatuta
asitzen banaiz negarrez...
Aizpatxo biyok lagun nazute
zeruetatik¹ mesedez.

Nola moldatu gañerakuan
zortzikotxo bat zuentzat,
ez bazaituztet bada artutzen
erregutubaz laguntzat?
Munduban nola izan ziñaten
guziro onak neretzat,
zeruban ere zeradetela
esan dit oraiñ biyotzak.

Jatorritikan katolika ta
eleizkoi goienekuak,
odoletikan fuero-zale ta
karlista benetakuak;
batere arrotasun gabeko
txit biyotz umillekuak,
ziran izandu mundu onetan
aiñgeru Belauntzakuak.

Ama zarraren alaba maite
biyotz txit gordiñekuak,
ama maitatzen ikasitako
egiyan eskolakuak;
señide, aide ta ezagunen
lagun on egiazkuak,
ziran etsairik iñun etzuten
bertutez betetakuak.

San Juanetan ta Eguberritan
zer pozarekin Belauntzan
bi aizpatxoaren aurrez kantari
ni jardun izandu nintzan!
Zenbait maitatzen zuten euskera
ezin nezake gaur esan,
zergatik biyen biyotzak beti
euskerarekin zebiltzan.

Euskeraz jaio, euskeraz bizi,
ill ere ziran euskeraz,
Jaungoikoari (gure ustean)
kontuba zuzen emanaz:
argatik daude oraiñ zeruban
intza gozoak edanaz,
«Agur, Mariya, guztiz garbiya»
denon Amari esanaz.

Ramos Azkaratekoak
El Cántabro, 1897-VIII-22

Aldizkari onek, 1897-VIII-18-an, onela esaten zuan:

«Nuestro muy querido amigo el Señor Secretario del Ayuntamiento de Belauntza, D. Gregorio Gogorza, de cuya enfermedad dimos cuenta anteriormente a nuestros lectores, sigue todavía en estado de relativa gravedad. No parece sino que la desgracia se ceba en la familia de nuestro leal y entusiasta correligionario, pues con pocos días de intervalo han fallecido sus dos hermanas D^a. Juliana y D^a. Simona, víctimas de la misma enfermedad que aqueja a aquél, y que, según hemos oído decir, se atribuye a las miasmas que se desprendían de una casa próxima, en cuyo interior se habían enterrado hace algún tiempo animales muertos.

Pidan nuestros lectores a Dios por la salud del enfermo y por el eterno descanso de sus citadas hermanas ya difuntas».

¹ Konderatubaz biyotz beraro. (*El Cántabro*-ren oarra).

Utzi pakean jardun dedilla Fueroen kontra kantari

Gipuzkoako, ez, infernuko
Voz-a dala maratilla,
aitortzen degu dabillelako
nagarrez janaren billa;
Miramar-eko republikano
paper zar *sorgin zirtzilla*,
masoi Sagasta-n pelukarentzat
a zer nolako orkilla!

Gezurrak esan eta baleuzka
gaur milla pezetakuak,
gizendutzeko inoiz bezela
Castell ta... panderokuak;
daude guziri *errukarriyak*
jan... ta... jan oitutakuak,
ezin sendatu dituztelako
oñaze sabelekuak.

Asnasa estu dadukatela
dabiltz eriyosuan,
«Ill bitez *karkak!*» deitzen dutela
etxeoandrian leian;
zulatu eta ezetz odolik
ikusi oien besuan,
boina txuri bat borla batekin
senti badute auzuan?

Karlistak miñez gaudelarikan
Patriyan gaitzak sufritzen,
oriyek berriz fueristen kontra
beti gezurrak zabaltzen;
beltzen semeak etxean eta...
nor dira Habanan illtzen?
Zeiñ dirade, zeñ, Filipiñetan
onrarenatik galdutzen?

Alaz guztiyaz ezin eraman
dute guk agindutzia,
Probentziaren ondasun denai
zintzoro begiratzia,
zer artutzen dan, zer gastatzen dan
garbiro erakustia,
da *La Voz*-eko familiyaren
esteak zimurtutzia.

Zergatik bada eskribatutzen
ari dirade alferrik,
zortzigarrenko mandamentuba
lur azpiratu eziñik?
Bai al daukagu D. Karlosenak
mendirira irten bearrik,
ez badaukate lege *paltsuak*
urte beteko bizirik?

Ez al dirudi *liberal* obrak
orain *Babel-ko* torria,
ta orla ezin bizi leikela
pagatzen duben jendia?
Ez al dakite itxubak ere
nola Luzbeltz-en taldia
badijoala beste mundura,
guziro gaitzak erria?

La Voz-ek zenbat eta geiago
ari dan gezur kontari,
orduban eta poz aundiguak
ematen dizkigu guri;
utzi pakean jardun dedilla
Fueroen kontra kantari,
denbora gutxi barru bearko
egin emendik itzuli.

Oker esan det, ez da, ez, joango
Iruneraño igesi,
datorrenian... berak deituko
du «Biba Karlos!» lenbizi;
Amadeo ta Republikakin
janaz ziradenak bizi,
lotsan bildurrez ezetz apustu
maskararikan erosi?

Alfontso zanan ama joan bazan
Frantzira Donostiyatik...
zer etzituzten bada esaten
Borbon-tar guziyengatik?
Orra gaur berriz nola dabilzan
Doña Kristinan albotik,
eguzkirikan beroenaren
alderdi ederrenetik.

A. O.

El Cántabro, 1897-IX-5

Neska zar edo atsuak

Liberal beltzen paper txar petral
maxiatzalle gaiztuak,
gezurrarekin bizi diraden
neska zar edo atsuak,
itz-ontzi eta itz-jariyo beltz,
argi-zale... txit paltsuak,
dira karlisten kontra ostiko
tiratzen duten astuak.

Zer ezagun dan pentsuba libre
nola daukaten geienak,
jende *illuna* itxutxen duten
gezurtiyetan txarrenak!
Bañan karlistai begira daude
zer galdu badaukatenak,
dakitelako zein ta nor diran
iya galduban daudenak.

Dakitelarik ez degubela
joan bearrikan gerrara,
turmoirik gabe nola aitatzen
dakiten Santa Barbara!
La Voz Voltaire-n alaba beltzak
zer da dadukan ikara?
Bai ote daki ez dala joango
Probentziyaren *kutxara*?...

Zerbaitengatik bildurtutzen da
baña arrazoa dauka,
uste etzuben *txakurren* batek
egin diyolako zaunka;
naiz katarratu artean jardun
agintariyai marruka,
Don Karlosenak galdu bañon len
ill bearako du eztulka.

Alferrik lagun egingo diyo
zorigaiztoko Lasalak,
alferrik *Duke Tetuan*-goak
edaten ditu gesalak;
alferrik dira *Matxinbarrenak*
ta alferrago *Jamarra*,
nai eta nai ez ill bear dute
Fueroen etsai baldarrak.

Cánovas eta Anguiolillo
ill baziran errukarri,
modu artako eriyotzikan
guk eziñ opa iñori;
bañan Luzbeltzen *Voz*-a zergatik
gaur dabill gezur kontari,
eta jakiñik ez ditubela
engañatutzen amabi?

Gu bentzutubak gaudela eta
zer da, zer, oien bildurra?
Ote zaiote kozkaka asi
aragitikan txakurra?
Bestetik berriz oiek luzia
nolatan duten sudurra,
usantzen dute nola gañean
duten agudo egurra.

Argatik gaude gu ernai-ernai
bakoitza bere etxean,
artalde umill-umillan gisan
artzai zintzoan mendean,
onek agintzen duen guziya
zintzoro egin naiean,
La Voz ta paper gezurti denak
lertu ditezen batean.

Ez dadukate fuero-zaleai
ematerikan kulparik,
zerengatikan (oraiñ beñepein)
bizi nai degun geldirik;
baldin ikusten badute berak
nola dauden zintzilik...
eroritzeko aski luteke
ba-lan-txa-txo bat bakarrik.

A. O.

El Cántabro, 1897-IX-12

Gure adiskide maite On Ramon Bandres eta Azkue zanari

Gure erriko sekretariyo
edo goarpelariya,
Tolosan jai, Tolosan bizi
zeran letradu argiya;
zuk dezubela osoro maite
Euskaldun Erri garbiya,
jakin nubela seitxo bat urte
oraiñtxen dirade iya.

Gañera entzun banizkitzuben
Gaztelaniko kontubak,
ango beartsu gizarajuak
dauzkatzen bizi-modubak...
pentsatu nuben: «Aiek euskalai
esaten ziyek *kaikubak*...
jauntxoan mende bizi diraden
Adanen seme saldubak»...

Bai al dakizu zergatik sartu
ziñaden nere gogoan,
Zumardi edo Igarondoko
arbola baten ondoan?
Maite ditudan gauzak nik entzun
nizkitzulako orduban,
bertatik gure adiskide bat
zurekin kontatzen nuban.

Bai, bai, Ramontxo biyotzekua,
gu gerade, gu, libriak,
emen jaiuak diradelako
zeruko libertadiak;
lurrari azpiyan bizitzerako
Euskal Erriko jendiak...
gure nagusi izango dira
gure Fueroen zaliak.

Ainbesteraño zure esanak
ninduten ezik gozatu,
zeñen pozaren pozaz larrubak
ezin ninduban kabitu;
«Euskal Erriyan aldekoa naiz»
nizubenian aditu,
nere biyotza odoietara
zuk zirazuben altxatu.

Esaten dute euskal batzuek:
«Ez du baliyo euskerak»;
oraiñ dakite baliyo duben
esaten dutenak berak;
zure lekuban sartu nai arren
Ebroz aruzko erdalak,
oraiñdik maite dute euskera
agintari txit leialak.

Bedeinkatuba izan dedilla
gure Bilguma¹ azkarra,
eta oro-bat astelenian
izandu zuten batzarra²;
kometak utzi ta aukeratu
zuten Norteko izarra...
sendatu dedin bide ontatik
euskaldun erri zar-zarra.

Dakiyelako nolatan kendu
erriyetako negarra,
felizitatzen det biyotzetik
Bilguma argidotarra³;
berak dauzkakin eskubidetan
ez du nai izan zabarra,
baizik orrela erakusten du
bear danian indarra.

Biyotz nereko On Ramon Bandres,
felizitatzen dizut nik,
nere barrena dadukatela
poz-atsegiñez beterik.
«Biba euskera!» deitzeko, arren,
ez izan iñoiz bildurrik,
zergatik Aman legerik gabe
emen ez dagon gauz onik.

Gaiñtxurisketak

El Cántabro, 1897-IX-19

¹ *Ayuntamiento*.

² *Junta*.

³ *Ilustre*. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Navarro Reberter-i politikan itzegiten dala

Navarro Reberter,
Reberter Navarro,
bizi-bizi-bizirik
infernuan dago: *Ooo!*
Uste zuben zala
jolastutzia,
Eleizan *arrantzan*
ibillitzia?
Jabean naian kontra
jan nai izatia...
ez al zekiyen zala
kondenatzia?
Berak naiko zuban
kixkaldutzia,
eta onena da
lajatutzia.

Mendizabal-ekin
bat-batera dabill,
Pedro Boteron pertzan
prejitzen pill-pill-pill: *Bai!*
Alderdi bat ondo
prejitutzian,
ta beste aldera
jiratutzian...
bear dan bezelaxen
baniatutzian,
zer eztaiak dauzkaten
Luzbeltz-etxian!
Arrantzale biyak
legatzen ordez
deabrubak jango
dituzte farrez.

Dedin libre bizi
Eleizari utzi,
zalako ala jaio,
bai ta ere azi: *Bai!*
Artutzen dubenak
eskubidia
esateko «Au da
legez guria»,
lenbizi begiratu
baduben jabria,
naiz izan *Mendizabal*
beltzan zalia.
Aboan dutenak
libertadia,
berentzat bakarrik
dute ordia.

Maite du Eleiza,
bai ere Fueruak,
bere animatikan
Karlos Borbonguak: *Bai!*
Ematearekin
nori berea,
guk altxa nai degu
Jaunan legea;
guk nai degubena da,
bai, Libertadea,
eguzkiyan azpiyan
paregabea;
libertade zarrak
zabalduzuan,
guziyok biziko
gera pakean.

A. O. / *El Cántabro*, 1897-IX-26



Tolosa, Napar zubia, Zerkausia eta Idiakez jauregia.

VARIEDADES.

On Carlos zazpigarrenari

BERE SANTUBAREN EGUNIAN

1893i garren urtean Azaroaren 4-bean.

Gure *Aitacho* maitea
Artzai bertutez betea,
Lecu aldatu zaitea;
Españiyan ta Ugarteetan (1)
Goyendu dedin Fedea
Dedin ill masoi tal lea,
Gende guezurran zalea
Luzbeltzen jarraitzalea.

Ugarte aberatsenac
Daude erruquitsubenac
Guda biciyan daudenac;
Cizquiylaco masoyac quendu
Sinismen doatsubenac
Gurutzequin ceudenac...
Gaur dira *Satanas-enac*
Arguiyan etsai beltzenac.

¡Ay *Colon* eta *Legazpi*
Balira munduban bici
Zu zaitzela nagusi!
Joango liraque masoi guciyac
Infernuraño iguesi
Luzbeltz, *Satanas* ta guci
Eguñaz lau milla antzi
Anche ditecen egosi.

Bañan guizon *beltz* gaiztua
Ta libertate paltzuac
Galtzen ditazte dontzuac;
Masoyen anai osoac dira
Liberal-catolicuac
Santu zar ezquerrecuac
Mascaraz jantzitacuac
Señoran aldarecuac.

Goseac *Gaztelaniya*
Oñacez Euscal-erriya
Agoniyan daude iya;
Zabaldu zazu gure *Aitacho*
Bandera maitagarriya
Galtzeco masoneriya
Seta char lotsagarriya
Guciyon ondamendiya.

Zure *Trento* co pausua
Etzan izandu paltzua
Baicican gloriosua;
Zu cera AMA ELEIZA SANTAN
Escubitaco besua
Cera cristan chit-osua (2)
Artzai gucizeo gozua
Bildocheñ paradisua.

Zuc badaquizu chit ongui
Gaudela zure edarri
Beti beguira cedorri;
Etorri zaitez *Aita* maitea
Etorri zaitez, etorri,
Aurrelic zaitecen jarri
Esanaz artaldeari:
«*Masoneriya ill bedi.*»

GAIŠCHURISQUETAC.

-
- (1) En las islas.
(2) Integérrimo.

El Cántabro, 1896-ko azaroaren 4-an.

On Migel Lopez Legazpi zumarragatarrari

bere estatua edo talluntza
agertutako egunian,
Urriaren 2-an, 1897-garren urtean.

Migel Lopez Legazpi
Zumarragakua,
o euskal leial egiyan zale
goi-goi mallakua!
O kristau on ospatsuba¹!
O letradu jakintsuba!
O soldadu argidotar²!
o zaldun prestuba!
O Urolaren argikariya³!
O Gipuzkoan izar zuriya!
O Filipinas arkitutako
eguzki garaitez-garriya⁴!

Urrutiko ugarte⁵
zuk irabaziyak,
dirudite deabru biurtu
dirala guziyak;⁶
zure ango gurutzia
nai luteke galdutzia,
eta gure soldadubak
armaz garaitzia,
Españiyatik apartatzia,
Jaungoiko bage bizitutzia;
nai dutena da zure izena
betiko lurperatutzia.

Ez dago lur aietan
iñoiz pakerikan,
errespetatzen ez duten arte
zure izenikan;
naiz batzuek, naiz bestiak
dira senar-emaztiak;
naiz onrik ez, biyak dira
diruban zaliak;
argatik zure izen maitiak
baditu etsai guztiz gordiak,
urrea izan ezkeroztandik
diranak... lotsikan gabiak.

Bañan zure izena
lurrak jan baño len,
masoiak eta beren lagunak
egingo dute ler;
zu zerura Manilatik
joan ziñaden bidetatik,
lendandikan zu jextiko
zera aietatik;
zu zaitugula buru aurretik
joango gera gu Zumarragatik,
masoi-taldea biraldutzera
betiko Filipiñetatik.

Ramos Azkaratekoak

El Cántabro, 1897-X-3

Bertso-papera, *Tolosa*: F. Muguerza, 1897.

¹ *Famoso*. ² *Ilustre*. ³ *Lumbrera*. ⁴ *Invencible*. ⁵ *Islas*. (*El Cántabro*-ren oarrak).

⁶ Gerra piztu dutela, alegia, beren askatasuna lortzeko.

Jaungoikoaren lege santuko
mandamentu batzubetan
orain artean beintzat paltatu
izan det aldi askotan;
bañan Voltaire-n *Voz*-ari gerra
egiteakin benetan,
ia zeñek neri proгатzen diran
paltatzen detan ezertan.

Zer da ordea paper *beltz* onen
lanbide lotsabagea,
eta jaio zan ezkeroztandik
dabilikin buruzbidea?
Zer da beretzat bakar-bakarrik
nai duben *libertadea*,
dalarik gure fuero-etsaien
lenengo defensora?

Erregiñaren aldekoa... ta...
republikano... epela,
euskaldun gaizto *ziarkakuak*
gordetzen diran upela...
Itzegiñakin Pasaian bizi
diran *atsuak* bezela,
baniatzen du itxubentzako
puzuniyazko pastela.

Ez ote zegon *atso* petrala
bear bezela burutik,
eskribatzeko astelenian
aiñ gaizki Karlosengatik?
Zertan zetorren asteartean
damutan... beste bidetik,
esanaz: «Atzo esandakuak
etziran gure gogotik?».

Lenbizikua al zuben bada
Don Karlos maxiatzia,
testimoniyo paltso askokin
itxusi agertutzia?
Bañan Karlosek zertarako du
La Voz-ek edertutzia,
onen lan denak badira beti
alrebes iskribatzia?

Arma leialak artuta gerra
egingo baligu moduz,
sutunpa denak kargaturikan
nai baldin badu deabruz...
Bañan legezko gerra egin ta
nola beteko da diruz,
beti karlisten armak badaude
kargaturikan aiñgeruz?

Pentsakalluak² alferrik dira
ta arma gezurrezkuak,
sagardotegi ta tabernetan
benturaz sortutakuak:
Ez Karlos eta ez Karlosenak
ez geradela tontuak
ondo dakite kristau-itxuran
ibiltzen diran astuak...

Zituztelako txit merke saldu
Gipuzkoaren Fueruak,
dabiltza gerran karlisten seme
koitadu gizarajuak!
Oiek ez dira, ez, euskaldunak,
ez eta kastillanuak,
baizikan dira beti gosiak
dauden ojalateruak.

Zer izandu da Voltaire-n *Voz*-a
Probentzi maitearentzat,
gure istori, gure Fuero zar,
oitura garbienenentzat?
Zer izandu da apaiz ta fraile
ta beste fedetsubentzat?
Zer da, zer, izan eta zer da gaur
sufritzen dubenarentzat?

Argatik nai du oraiñ karlistak
mendira biralitzia,
gezurra andik, saltsa emendik
ta berak gobernatzia;
bizi laburra nola daukaten
nai luke gizendutzia...
eta Don Karlos datorrenian
Don Karlos adoratzia.

Bi gerra aundi guztiz tristeak
Patriyak dauzkalarikan,³
zer dute egin, zer, *La Voz*-tarrak
Españiyarengatikan?
Beste español guzi-guziyak
negarrez daudelarikan,
zergatik oien semeak libre
daude soldaduzkatikan?⁴

Gaiñtxurizketak
El Cántabro, 1897-X-10

¹ Donostiako *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublika-zalea.

² *Calumnias*. (Egillearen oarra.)

³ Kubako gerra eta Filipenetakoa.

⁴ Karlisten gerratean (1872-1876) liberalen alde arma artutakoen semeak soldaduzkatik libre zeuden. Baita beste edozein ere, milla erreal batzuk pagatu ezker. Aberratsentzat mesede ederra, beraz. Bidegabekeri oiek bein eta berriro salatzen ditu Ramos Azkaratek bere bertsoetan.

***Cántabro* edo *Kantauritarran* irakurlariyai**

Beti izan naiz argala eta nolabaiteko xamarra, ezurrez oso-osoa bañon guzizko gizon ttattarra; bestetik berriz naizelako ni *pollit-urruti* zatarra... kana ta laurden ez ditut palta izateko txit... baldarra.

Iru edo lau bider bota du aurten zerubak intz-otza, bizitatzeko minberatuaz len eri dagon biyotza; ezker aldeko saietsetikan zatitzen ziran gorputza... ez nuben uste banubenikan illtzeko alako lotsa.

Beak metuta loditu zaizkit aurrea eta bizkarra, naiz pixu oiek ibillitzeko auzoan izan indarra; zuri-zuriyak nola ditudan illeak eta bizarra, ez al dirudit, adiskideak, bakallo-saldan aparra?

Zolu erdiyak urratu eta zolu erdiyak itsatsi, oiek autsita al banyoke egin lotsari igesi... Eta Don Karlos datorren arte nai nuke munduban bizi, naiz baldar-baldar, naiz pixu-pixu eta naiz guztiz itxusi.

Era ontara ekarri nau ni gazterikan zartutziak, odeietako izar argiyak kontatzen... ibillitziak; neguko egun alaiak ere neretzat dira tristiak, irrikitutzen nagoalako osasunaren gosiak.

Beste mundura aldegitoko ez daukat bada gogorik, lenago nuben alaitasunan jabea ez naizelarik; naiz triste-triste beti bizi nai... bañan, ai!, alfer-alferrik. Alaz guztiyaz ez det egin nai berriro testamenturik.

Nunbait konforme arkitutzen naiz
lengo testamentubakin,
beragatikan, eskribaubak,
ez asi iñoiz nerekin,
nagoalako oraiñ kontentu
osasun pixka onekin...
zorrak zor eta konpondutzia
daukate artzekoakin.

Dakitelako ez daukatela
luzarorako bizirik,
badakizute nola daukatan
kezka bat bakar-bakarrik:
lengo Fueruak betoz agudo
illtzeko pozaz beterik,
ez diyot bada Jaungoikoari
eskatzen beste gauzarik.

Ramos Azkaratekoak
El Cántabro, 1897-X-17

Zori gaiztoko Masoneriyen guzialtuna gozua

Azkarraga bat irauli eta
altxa zan masoi Sagasta,
anarkistarik aundiyenaren
parerik gabeko Aita;
ditubelarik *piper* miñ... onek
bi beso eta bi anka,
arrantzan ezin ibillirikan
lanikan aski badauka.

Santa Agedan ill ziyelako
anaia maitagarriya,
Euskal Erriko lege santuben
borrero izugarriya,
arrezkeroztik dauka Sagastak
bildur ikaragarriya,
bere semeak diyelakoan
kenduko laxter biziya.

Ditubelako bere urteak
irurogei ta amabi,
nai duben eran lengo moduban
nola *arrantzan* ibilli?
Amadeoren denbora artan
igurtzi arren milloi bi,
amubarekin ekarritzeko
nun dirade gaur agiri?

Beragatikan libratzen ditu
presondegitik semeak,
bera izandu dan bañon ere
bi milla bider obeak;
Santo Domingon ill zizkiguben
sarjento doakabeak;
al dira aztu Donostiyan ill
zituben fuero-zaleak?

Zori gaiztoko masoneriyen
guzialtuna¹ gozua,
Maximo Gómez ta Aguinaldon
anaia oso-osua;
infernubaren gidari zauden
axari birtuosua,...
zergatik ezin azturik zaude
Cánovas gloriosua?

Zertan lajatu ziyon bizirik
beñ batez Villacampa-ri,
lau bizi izan balitu ere
laurak zor zitubenari?
Zertan kendu nai diyo Habanan
daukan mendea Weyler-i,
eta masoi bat onen lekura
diyo derrigor birali?

Ez du egin ta ez du egingo
beñere gauza zuzenik,
sudurrak eta kokotz luziak
elkar jo diyotelarik;
dierritarran *Sorbete* beltz bat
izendatutzen dalarik,
onek ez dauka Patriyentzako
ondamendiya besterik.

Ez dubelarik beste munduko
gauzetan sinistmenikan,
nere moduban anka bat oso
zuluan daukalarikan,
dar-dar izuba etortzen zaio
aldiz Beneziatikan...
ta bildurtzen da erori bear
dubela pentsaturikan.

Zer diyo oni Habana eta
Filipiñas-engatikan,
ez baldin badu bada maitatzen
bere sabela baizikan?
Zarra ta txarra eta kaskarra
dalarik jatorritikan...
daki partitzen... karlisten kontra
itz-egin ezkerotikan.

Ta fundatzen da, gizarajua!,
eta ez osoro gaizki,
obea luke korapilluak
bertatik askatzen asi;
gañerakuan bere buruba
ikusiko du itxusi,
gure Karlosen kaiolatikan
ezin egiñaz igesi.

Gaiñxurisketa

El Cántabro, 1897-X-24

¹ *Omnipotente*. (*El Cántabro*-ren oarra).

La Voz ta On Fermin Lasala

«Por tratarse de un hombre tan sagarduo como don Fermín Lasala, de quien políticamente nos separa un abismo, pero a quien respetamos como se merece...».
(Palabras de La Voz de Guipúzcoa.)

Duquenomandas titulatuzen dan donostiar bateri, Gipuzkoako Fuero Santuben etsairik aundiyanari, *Maketaniko Voz*-ak pollita esaten diyo jaun oni, dirudiyena esan ziyona zozuak bele beltzari.

Duke *aundi* ta... *bialkiña*¹ ta... diru askoren jabea, letretan esan *sagarduo* ta Fermin bai dala pobrea; nunbait itsatsi zaio guziro Maketaniko legea, eta egin da politiko bat ajolarikan gabea.

Biyai esango diyotet orain far-irudiyan: «Nork nori!». Bai eta ere osoro farrez «Zartagi zarrak pertzari». *Sagarduo* bat dala esaten badiyo *Voz*-ak aitari, zer uste degu: eman diyola oñazerikan Fermiñi?

Bañan *La Voz*-ek esaten diyo errespetatzen dubela, bere antzeko fuero-etsaiak merezi duben bezela. Zer ezagun dan Fueroen kontra aita-alabak daudela, eta dutela txit maitatuzten Maketaniko *ganbela*!

Aita-alabak daude esanaz: «A zer bi geran zu ta ni! Gu biyok aña kalte nork diyo egin euskaldun lurrari? Aserre geran paperian gu jardunakgatik kantari, guk Probentziya ondatu arren al digu ardurik guri?

Milloiak asko banintuke nik Fermintxo baten moduan, ta *sagarduo* entzungo banu neregatikan beiñguan, *La Voz* jarriko nuke zintzilik Donostiyako zuluana, ta euskalduna naizela esan bearko luke orduan.

Bañan damutan egon leiteke
Fermintxo emen jaiua,
ministro eta *bialkiña* zan
aberats... ordagokua;
deitubagatik *sagarduo* ta
Maketaniko *talua*,
ez diyotela oni aitatu
Gipuzkoako Fuerua!

Lendandik esan dedan bezela
La Voz ta *Fermin Lasala*,
bigarrenkoa aurrenekuan
aitatxo ziñezkua da;
lenbizikua nola dan berriz
bere *aitaren* alaba,
biyak entzuten dute jotzian
bati bakarrik aldaba...

Gaiñtxurizketak

El Cántabro, 1897-X-31

¹ *Embajador*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

On Karlos zazpigarrenari
bere santubaren egunian,
Azaroaren 4-an 1897-garren urtian

Euriopako andigitarren
ixpillu miragarriya,
artalde guziz katolikoan
artzai txit biyotz aundiya,
Laurak-bat-eko libertadean
eguzki gozagarriya,
atoz, euskaldun egiazkoen
aitatxo maitagarriya!

Zuri deitubaz arkitzen dira
iberotarren mendiyak,
ibar medarrak, zelai zabalak,
errekak eta ibayak:
ojuka daude egazti aundi,
bai eta ere txikiyak...
ta emen gaude zure gosiak
euskaldun leial guziyak.

Libertadea oju eginta
grilluen jarrizalleak,
argitasuna mingañean ta
illunpearen zaleak;
Españiyaren *etsai aundiyan*
gutzizko laguntzalleak,
dirade gure sort-erriyaren
benazko ondatzalleak.

Guri lapurtu bazizkiguten
ziñezko libertadeak,
Habana-tarrai nai diozkate
eman euskaldun legeak,
Españiyatik apartatuta
bizi nai duten jendeak...
Maketoentzat nunbait dirade
fueristak bañon obeak.

Beragatikan atoz agudo
zabaldurikan bandera,
Españiyaren onra ez dediñ
egundaño joan lurpera;
arren ta arren atoz lenbaitlen
zure bildotxen larrera,
ikararekin grillu-zaleak
jausi ditezen lurrera!

Zu eta zure bildotxak orañ
gaudelarikan geldirik,
masoi guziyak daude arrantzaz
tranpa ta saltsaz beterik;
gu mugitzean egongo dira
bildurrez ixil-ixillik,
zerengatikan ez dadukaten
dirurik eta kemenik.

Zabaldu arren beltzak nundik-nai
zure kontrako paperak,
denak dirala alfer-alferrik
dakite masoiak berak;
denboraz goitik kantatuko du:
«Ni naiz, ni, zure bandera»;
bai eta ere berarekin bat
gure Amatxo Euskera.

A. O.

El Cántabro, 1897-XI-4

**Errege, elefante eta
alkate baten istoriya**
(Politikan itzegiten dala.)

Naiz ni animaz beltzena,
desonraz aberatsena;
naiz dollorretan goiena,
izugarritzko kirtena.
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
Don Jan al dezu izena?

O, *elefante* zuriya,
Siango jainko aundiya;
zure Errege larriya
da gizon leialegiya.
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
ori bai dala egiya!

Naiz zarra eta aundiya,
gazte *petralen* niniya,
ibillitzeko saskiya
naukate ni jarriya.
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
a pizti farragarriya!

Baninduben ezagutu,
ezin aiñ ondo portatu;
bazuben nizaz galdetu
naiko ninduban urkatu.
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
obeak urkatzen ditu.

Nagolarikan alkate,
fiñ batek ez nau ni maite;
paltsuak nai badirate...
nai ditet zerbaiten truke.
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
zugatik jaten baidute.

Errege gozo prestuba,
nere antzeko *kaikuba*;
nintzalako ni justuba,
apaiñdu ziran petxuba.
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
nai ta nai ez zan itxuba.

Naiz gizon Judas-zalea,
itxusi pare gabea;
banaiz birtutez pobrea,
masoi beltza naiz ordea.
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
gurutze beltzan jabea.

Dala bat, dala bestea,
badet beiñtzat gurutzea;
dalarik elefantea
da nere lagun maitea.
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
gañean jarri zaitea.

Gañean jartzen banaiz ni,
esango dute: «A zer bi!».
Baietz jendea ugari
Eliz-kalera etorri?
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
elefanteai kantari?

Bai, kantatuko luteke
guziro ondo ta merke;
ta nik zer egingo nuke
burlaz entzungo banuke?
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
dantzatu ixilldu arte.

Ni eta elefantia
zer da, zer, anaiatzia?
Fueristak kantatutzia
ta dantzan ibillitzia...
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
da jaia zelebratzia.

Azaroaren amaikan,
Eliz-bideko karrikan,
banabill dantzan pozikan
osoro beroturikan...
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
besteren bizkarretikan.

Elefante Siangua
nere azpiyan dijua;
banaiz ni aundiyagua,
naiz askoz motelagua.
Txiñ, txiñ txiñ-txiñ-txiñ-txiñ,
tronpakin... bizkorragua.

Gaiñturisketak
El Cántabro, 1897-XI-14

Gipuzkoako gobernadore jaunari itz bi

Daki bedorrek nola geran gu
jatorritikan nobliak,
euskal arraza egiazkoan
benazko jarraitzalliak;
ez galararik *eguzkiyetan*
beroenaren zaliak,
oñazez baño errespetatzen
badakigu guk legiak.

Gure istori edo kondairaz
gu gorrotatu bañon len,
irtengo dira lur azpitikan
Larramendi ta Aizkibel;
altxako dira beren oiean
Novia Salcedo ta Mogel,
Astarloako Pedro Pablo bat
dutela lagun bostgarren.

Guk maitatutzen degubena da
gure *aitonen* bandera,
eta maiteko degu izarrak
erori arte lurrera;
gu katoliko fuero-zaleak
odoletikan bagera,
nola On Karlos utzi ta gu joan
Doña Kristinan aldera?

Maketaniko *Voz*-ak zergatik
nai du gu katez lotzia,
edo bedorrek guri kargubak
indarren bidez kentzia?
Galdetzen diyot: ez al da obe
guk gauzai begiratzia,
ta Jaungoikoan bildurrarekin
erriyak gobernatzia?

Erreka, ibai, iturri gozo,
bai ere mendi berdeak,
negarrez eske daude Jaunari
euskaldun libertadeak;
ta gu izanik (dakin bezela)
seaskatikan libreak,
nork eragotzi guri maitatzen
Ama Euskeran legeak?

Al dute *erre* iñoiz gureak
Probentziyaren etxerik,
baserri baten modu berean
lau paretekin utzirik?
Bedorrek bezin ondo nork daki,
santubak ez galararik,
gobernatzeko bai al dan iñor
gu bañon zintzoagorik?

Zertan birali nai gaitu bada
maketa *Voz*-ak mendira?
Ibilli dedin iñoiz bezela
gizentzen jira ta bira?
Zertan ordea petral txar ori
iñor berotzen ari da,
Calei-cale-n kontu guziyak¹
sagarduanak badira?

Eskerrik asko oiek zer diran
bedorrek badakiyela,
eta ez dala *asto kaiku* bat
Jimeno-lerma... bezela;
askoz obe du alde bat utzi
La Voz sorgin zar ustela,
beti negarrez, beti eskian,
erotuko du bestela.

Nolatan esan gañerakoan
alako astokeriyak,
ez bazituben *sagarduakin*
garbitu...bere begiyak?
Zenbateraño gizona jarri
lezaken *zizar* berriyak,
Astigarragan zoratzen duben
emazte maitagarriyak!

On Godofredo, zaldun prestuba
ez izan gure bildurrik,
ez eta ere *Voza*-n esanai
eman beñere federik;
gure Artzaiak agindu arte
egongo geran geldirik,
ez dauka Karlos Borbongoari
galdetutzia besterik.

Gaiñtxurisketak
El Cántabro, 1897-XI-21

(1) *Calei-cale* Donostiako egunkariren bateko periodista bat zan.

Sejismundo Moret-i

politikan itzegiten dala

Onra maitatzen dutenengandik
badago gorrotatuba,
zer kasta eta zer deabru da
Sagastan gobiernuba?
Habanan egin zubelarikan
alako odol-putzuba,
oraiñ nai luke onuntz ekarri
onraren kanposantuba.

Patriya baño txit maiteago
badute beren sabela,
ez dezatela bada sinistu
luzaro jango dutela;
badakite, bai, onra-zaleak
eriyosuan daudela,
eta denboraz nola kenduko
diyoten gaurko ganbela.

Españiyaren etsaienezako
badauzkan libertadeak
dira goseak emen iltzeko
lanaren paltan jendeak;
gureztat paga bearrak eta
txerriyentzako... urreak,
nai liozkake erregalatu
Moret desonra-zaleak.

Ainbeste milla español ill ta
ainbeste baztar ondatu,
ainbeste milloi gastatu edo
beñepeñ esku-aldatu.
Zergatik oraiñ masoiengana
dira masoiak makurtu?
Ditezen gure *ondatzalleak*...
erori gabe gelditu.

Gogoratzen naiz nork esan ziyon
Sejismundori *maleta*¹,
eskola-maisu gizarajoa
arki zalako erreta;
zalarik izan maisu argiya
txit egiazko profeta,
iñork lotsatu ez dubena du
Moret *maletak* kopeta.

Ez al da bada lotsagarriya
Moret gaiztuan planua,
edo *txerriyak* gizendutzeko
darabilkiten asmua?
Kataluñi ta beste lekubak
illtzera zertan dijua,
ogirik gabe gelditu dedin
beartsu gizarajua?

Egin ziyona Judas paltsuak
Jaungoikoan Semeari,
ez ote dauka ala egiña
Moret-ek Españiyari?
Zeñek ez diyo oraiñ esango
Don Judas Sejismundori,
oso-osorik Judas ber-bera
dala baldin badirudi?

Zertan etzuten pakea egin
Calleja baten denboran?
Zertan berreun milla soldadu
bada gerrara eraman?
Zertan gu gaizki lajatu eta
txerriyak bear dute jan?
Ezer izango al da denboraz
españolentzat Habanan?

Riegok Mejiku galdu bazuben
kosta zitzaion biziya,
urkamendiyan garbitu zuten
masoi traidore larriya;
bañan Sagasta-k nola illko du
Don Sejismundo piztiya,
ama-semeai segurubago
jartzen badiye jakiya?

Beñere egiñ izandu duben
Moret-ek gauza zuzenik,
ez dago bada onra-zaleai
galdetutzia besterik;
ez dubelako bada izan nai
lotsa pixkaren apurrik.
Moret Maleta, Maleta Moret
beti deituko diyot nik.

Gaiñtxurizketak

El Cántabro, 1897-XI-28

¹ *Se lo dijo un maestro de escuelas en "La Educación", siendo Moret ministro de Fomento. (El Cántabro-ren oarra).*

Mac-Kinley eta euskal liberalkeriya

Eman diozka libertadeak
Moret-ek habanatarrai,
Españiya txit ondatutzeko
armetan altxa ziranai;
bañan *basati*¹ infernukuak
ez dituztela artu nai
diye esaten, eskeñitzera
joaten diraden guziyai.

Alferrik dabil Canalejas bat
gastatzen diru-putzuba,
dirudiyela *Heraldo* baten
guzizko jabe *santuba*;
lenago bañon gorago oraiñ
daukan *Maximok* buruba
gisan daduka begiratzeko
nai badu... kanposantuba.

Giza-erriya kixkaldu dute,
bai ere ango jendeak,
ikatz biurtu-azitzeraño
koitadu doakabeak;
ta arboletan urkaturikan
Patriyan adiskideak,
ta al dakigu al diran bizi
ango soldadu gureak?

Weyler andikan ekarri eta
Blanco pizti bat birali,
orra zer duben Moret *maletak*
Españiyantzat irauli;
orain kontentu dagon edo ez
galde Mac-Kinley jaunari,
txerri utsakin bildurra sartzen
diyoten *txerrizaiari*.

Itzak legunak ditubelarik
obrak dituben samiñak,
garbiro asko kantatu digu
gure etsaian mingañak;
sartu dizkigu *koipe*... tartean
biyotzeraño agiñak,
esateakin Moret-en lanak
dirala guziro fiñak.

Nolatan ez du gora altxako
español masoneriya,
txerriyentzako bada Habana
ganbela bizigarriya?
Bañan luzaro bizitzen bada
euskal liberalkeriya,
ikusi bear izango dira
laxter itxillu gorriya.

Argatik bildu omen ziraden
ostegunian Tolosan,
larogei eta bost bat laguntxo
bazkaltzen Fuegoen Plazan;
noski Don Segismundo *maleta*
Madrildik etorri bazan,
elefante zar zuriyarekin
ederki dantzatuko zan.

Ziyon irundar liberal batek
eta guziro polliki:
«Oien kasino edo etxea
oraindik zioz urrutu;
burniya bear lendabizi ta
emen ez diat nik senti,
erri ontako jauntxo oriyen
ametsak alferrik beti».

Bañan Don Karlos ta Karlostenak
omen zituzten dantzatu,
beste etsairik bazutenikan
etziran nunbait oatu;
Kuba aldera papera saltzen
ez baziraden nekatu,
nai eta nai ez Moret *argiya*
bear zuten an zatitu.

Bañan ondatu ezkeroztandik
euskaldun libertadia
oiek diote: «Auxen diagu
maite deguben bidia;
guk erri ontan nola ez leiken
geiago agindutzia,
onen-onena dek guretzako
ez alfer gastatutzia».

Aurreragoko lanik bazuten
Moret-en kontubak baño,
iñoiz iñungo bazkarietan
pasa ez dana gaurdaño,
sermoian ari zan potzolo bat
negarrez asitzeraño,
zer gertatzen zan kanpotar denak
osoro arritzeraño.

Gaiñtxurizketak
El Cántabro, 1897-XII-12

¹ *Salvajes*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

Don Migel Arkaute jaunari adiskidetasun guziyarekin

*«Don Miguel Arcaute, en breves y
enérgicas frases, dijo que los liberales
tolosanos están dispuestos a luchar en
todos los terrenos con los carlistas.
Que lucharán en las urnas, y también
en el campo si les llaman.»*

(De La Voz de Guipúzcoa.)

Arkaute! Arkaute!
bear zaitut maite,
Jaungoikoak nai badu...
bizi naizen arte. Bai!
Zeralako gure
etsai klarua,
nai dizut nik izan
amoriyua;
zerade zu zaldun bat
oso onradua,
zeralarik gerrero
gutziz berua,
zera liberal bat
leialagua...
turroi-puska baño
gozoagua.

Diyozu benetan,
moldezko letretan:
«Gerra! Gerra karlistai
toki guztiyetan!»? Bai?
Llorens-ek badauzka
armak ugari,
eta bitarteko
jarriko naiz ni.
Nik eskatuta baietz
gaur bertan birali
Arkauteko On Migel
arabarrari?
Nai badezu armaz
serbitutzia,
badakizu nun dan
zure etxia.

Orren gerra-zale
sututa... bazaude,...
len-bait-len asitzia
eiguzu mesede. Bai!
Zuek guri ekin
ezkeroztandik,
gu ezin egongo
gera geldirik;
ez degu biyotzian
sentitzen bildurrik,
kir-kir-kir zuen alde
dezutelarik:
kilkerrak, sapoak
eta sugeak
garbituko ditu
gure taldeak.

Oraingo aldiyan
karlistak zelayan,
zuek ibilli bear
dezute mendiyen. Bai!
Belabitatikan
Somorrostrora,
Abarzutatikan
Lakar, Lorkara,
Urnietan, Mendi-zorrotz
ta Peña Platara,
laguntzat arturikan
Santa Barbara...
Santa au zuentzat
bada etsaia,
joan bear dezute
Blanco-rengana¹.

Blanco da mutilla,
soldadu abilla,
illtzeko ikarakin
dabil pake billa. Bai!
Zuentzat jeneral
ederragorik
ez det sentitutzen
bada inñundik;
Donostiko semea
ta *beltza* dalarik,
guregandik jipoiak
dago arturik;
eta zuek ere,
miñeriturik,
zaudete jipoiaz
gogoraturik.

Arkaute maitia,
birtutez betia,
nai al dezu karlistak
tiroz galdutzia? Bai?
Arma biralduko
dizkitzut laixter,
zaitezten gerrara
mendira irten;
zeiñ geiagoak geran
jipoiak ematen,
badakizu mendiyak
nola dakiten;
gu zelaien ta
zuek menditik...
Illtzeko prest gaude
Fuegoengatik.

Gaiñtxurizketak

El Cántabro, 1897-XII-19

¹ Bertso ontako leku-izenak, karlisten azken gerratean guda-burrukak izandako tokiak dira. Blanco, berriz, jeneral bat izan zan.

Jesukristo eta gure bandera santuba

Abenduko illaren
ogei eta bosta
da gure atsegiñ ta
guzirozko poza;
daukaguben ezkerro
gozatzen biyotza,
oroikidatu¹ zagon
Jesusen jaiotza.

Zenbat, zenbat bandera
gure Españiyan
dauden txilipurdika
iya eroriyan!
Diradenak gizendu
Luziferkeriyan...
denboraz dira Migel
santuban azpiyan.

Belengo estalpean
pobre jaio zana,
guregatik biziya
Golgotan emana,
guziz maite deguben
Jesukristo Jauna,
da gure banderaren
lenengo laztana.

Jaungoikoan kontrako
bandera dutenak,
goiz edo beranduban
illko dira denak;
ta bandera santuba
maite degubenak
gera banderarekin
illtzen ez geranak.

Sinistatutzeakin
ill ta piztu zala,
gaude sinistaturik
illezkorra dala!
Badakigu banderak
asko badirala,
bañon Jaungoiko gabe
galdutzen dirala.

Amaika apostolo
Jesukristorenak
dira Maisuban gisan
illtzen ez diranak;
bañan Judas ta bere
seme *beltzeranak*
dira Marotorekin
galdu ziradenak.

Iru gerretan gure
bandera santuba
izandu dalarikan
paltsoak salduba,
nola duben Jainkoa
bere zimenduba,
denboraz ikusiko
degu zabalduba.

Aranguren ta Ruiz,
Ruiz, Aranguren,
Moret dala... ez dala
orra gaur nun dauden;
jateagatik onra
beltzak saldu arren...
judastarrai agintzen
nola utzi emen?

Nola garaitondoa²
daukan seguruba,
dago garbi esanaz
Moret deabruba;
ikusitua baño lantik
Habana galduba,
Jaungoikoari eman bear
diote kontuba.

Aski dezute, aski,
masoi beltz larriyak,
aurten gure kontura
jatea kapoyak;
nazkatu ditu zuen
liberalkeriyak
Euriopa, Afrika
ta Mundu Berriyak.

Gaiñtxurizketak

El Cántabro, 1897-XII-25

¹ *Commemorar*.

² *Triunfo*. (*El Cántabro*-ren oarrak).

Kantabro edo Kantauritarran irakurlariyai agur bat despedidakua

Buruzariyen erabakiyak
benaz errespetaturik,
beragatikan *Kantauritarrak*
ez dauka segimenturik;
alde batetik oñazez baño
bestetik pozaz beterik,
despedidako agur bat egin
bear dizutet bada nik.

Kantabro-aren ordañezkua
Donostiyako Uriyan
badakizute nola irtengo
zaiguben urte be berriyan,
Maketaniko *Voz*-a berbera
antolatzen dan tokiyan,
maketarekin ari bearko
dubena gerra biziyan.

Urrutitikan bañon obeto
gingo diyote gerra,
ta batez ere euskal karlistak
ondo portatzen bagera;
dalarik *Voz*-a euskal gaiztuask
moldatutako pardela,
berak dakite pardel ta guzi
iya galduban daudela.

Ontzi bat nola gertatutzen dan
itxasoaren gañean,
iñola ezin salbaturikan
ekaitz aundiyan mendean,
gaur ala daude partidu *beltzak*
negarrez gure aurrean
esanaz: «Karlos baziatorrek
Españiyara aidean».

Txit gezurtiyak diradelarik
ote diyote gezurra,
baldin On Karlos Tolosan bada
egin baño len elurra?
Zertan daukate, gizarajuak!,
bidezkoaren bildurra,
berak egingo badiye azkar
lendabiziko agurra?

Ez diyot bada oñazerikan
eman nai etsai iñori,
ain gutxi berriz On Karlosenai
orañ atsegin geiegi;
nola batzubek, ala besteak,
kontura bitez erori
jarraitu bear diyotala gaur
asierako lanari.

Iya bost urte dirade noski
Kantabro etera zala,
eta geroztik *kanariyo*¹ au
kantari bizitu dala;
intrigo batek beñ esan ziran
*erramu-oket*² nintzala,
eta nik orain aitortzen diyot
kaiku bat izan etzala.

Uste det berak esan zirala
zapaterua neroni,
bai eta ere *Kantabro*-n jaten
nubela guziro ongi.
«*Japones, txino, malaio, indio*»
kantatu baziran neri,
«Gizon eder ta zuri-gorriya»
erantzun niyon berari.

Eraman ere izandu naute
erri batetik bestera,
da esatea *Kaifasenetik*
Iru *Pontzion* aurrera;
nola onrarik galdu ez niyen
libre ta lasai ostera,
ardi bat baño umillago ni
etorri nitzan etxera.

Iñori gaitzik egin badiyot
bizimoduko lanetan,
eskatzen diyet barkaziyua
biyotzetikan benetan;
ta miña eman badiyet noizbait
politikako gauzetan,
ez det nik uste iñoiz paltatu
badetenikan ezertan.

Animatikan agurtzen ditut
karlisten etsai larriyak,
apaiz jaun guztiz argidotar ta
beste jakintsu guziyak;
agurtzen ditut nere antzeko
erdi itxu ta eriyak,
bañan deitubaz: «Bizitu bitez
lege zar maitagarriyak!».

Nere kanta txar ezerezakin
ez bazerate kontentu,
zenbat gai detan ala naiz ustez
Kantauritarra-n portatu;
nai ez detala bost urteetan
badet ezertan paltatu,
agur, karlista biyotzekuak,
barka nazute, barkatu!

R. A. eta O.

El Cántabro, 1897-XII-29

Au izan zan aldizkari onen azken zenbakia. Erderaz eta prosaz ere ematen zaie irakurleei azken agurra, Ramos Azkaratek sail onekin euskeraz eta bertsoan egiten duan bezela. Ordaiñez, Donostiako *El Correo de Guipúzcoa* egunkaria asi zan.

¹ Necedaltarrak emandako titulua.

² Au ere bai. (*El Cántabro*-ren oarrak).

**Tolosako Fakundo eta
Timoteo Adurriaga anaiak
eta beste iturri batzuk**

Oarra

Itzaurrean adierazi degunez, *El Correo de Guipúzcoa* egunkariaren leenengo urtea oso-osorik falta da Donostiako udal-hemerotekan, eta beste iñun izan ditekenez ez dakigu. Baiña utsune ori beteko diguten beste iturri batzuk aurkitu ditugu. Oietako bat, danetan oparoena, Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaiena da.

Itzaurrean adierazi degunez, bi anai auek txapel-fabrikan lan egiten zuten. Fakundok bertan ari zala eskubiko besoa galdu zuan. Orregatik, *Besamotza* esan zioten andik aurrera. Onek esku ezkerrekin eta Timoteok eskubiarekin, album lodi bana bertsoz bete zuten.

Ramos Azkaraterenak ere kopiatu zituzten beren bilketa ortan. Nola ez, erritarra eta ezaguna zuten ezker? *El Correo de Guipúzcoa*-tik ere artu zituzten bertsoak.

Oietatik asko, Donostiako Udal-hemerotekan falta dan urtekoak: 1898-koak. Ordukoak dirala nundik dakigun? Bertso oietan Kuba eta Filipiñas nola galdu diran eta abar esaten dalako; eta gertakizun oiek, dakigunez, urte ortakoak diralako.

On Emeterio Arrese jaunari

Sariatuta arkitzen zeran
on Emeterio Arrese,
arrazoi dezu: ementxe gaude
Jaunaren legean gose;
baldin benetan lege santuba
badezu biyotzez maite,
etзера bizi gauza denetan
karlistengandik aparte.

Zuk badakizu baserritarrak
daudela lege zarrakin,
errespetatu nai dizkiguen
errege bidezkoakin;
beragatikan, zuk menditarrak
txit txukun altxatzeakin,
zaude esaten zu etzaudela
Luzifer dollorreakin.

Nola zu egon Luziferrekin
bazera aitan semea?
Ta bazerade txit benetako
euskaldun zarren zalea?
Nola bestela izan ziñezke
euskeran sendozalea,
Euskal Erriko usariyo ta
oituran famatzallea?

Ez bazenduke amodiyo bat
bandera gureantzako,
Euskal Erriyen bizi lasaia
dakarren santuantzako,
baserritarren bizimodua
al zenuben moldatuko
eta Zestuan lendabiziko
saririk irabaziko?

Dotatsariyak moldaeretan
ez badu ziñez sentitzen,
gorrotatutzen duben gauzarik
ez daki ondo apaintzen;
bañan zuk nunbait dezubelako
egiyarekin pentsatzen,
asi zerade aitan ta aman
sinistamenak altxatzen.

Ez dezuela nai sariatu
antolatutzen euskeraz
esanaz: «Bizi bitez Salmeron,
Morayta eta Barrabas».
Ezetz zuk deitu: «Bitez bizitu
Matxinbarrena ta Balbas»,
edo euskera maite ez duben
euskaldun *Duque no Mandas*.

Au ziñala ta ura ziñala
entzuten nubelarikan,
baña ikusten zaitut, Arrese,
birtutez apaindurikan;
gezurtaturik guzi-guziyak
zaude gaur agerturikan
ez dezubela euskerarik nai
Jainkorik gabetanikan.

«Utzi zaiozu» esan berari
ta eman azkar pausua,
emen izango zeradelako
guziro aundiyagua;
bi kastakua entzun baño len
zenduke bidez kogua
laztandutzia onra aundiyan
bandera izarrezkua.

Argatik oña ikusten zaitut
gure baratzen sartuba,
lajaturikan osindegi beltz
Eleizak kondenatuba;
zaitut ikusten, ta atsegin det,
batzarrak sariatuba,
dezubelako neretzat ere
osoro merezituba.

Eta guziyen gañetik orain
nik doatsututzen dizut,
sariya eta beste zorion
guziyak opa dizkizut;
zuregandikan nik esperantza
aundiyaguak baditut,
zeñen barkatu bear nazula
baldin paltatu badizut.

Ni ere itxu nengoanian
ez negon baratz dontsuban,
damu det bañan ibilli nitzan
osin beltz kondenatuban;
baña zu zenti zaitudalako
toki txit bedeinkatuban,
beste pauso bat emanda zaude
guraso onen lekuban.

R. A. eta O.

Fakundo eta Timoteo Adurriaga
anaien esku-idatzietatik.

Emeterio Arresek, tolosarra bera ere,
saria irabazi zuan Zestoan, 1898-ko
Euskal Festetan, *Nekazariyen bizimodua*
izeneko olerki batekin.

Nere ama maiteari (Pello Joseperen doñuan)

Petralen mundu ontako gauzak
utzirik alde batera,
itz neurtuetan laztan bazubek
pentsatu det ipintzea.
Lenengo itzak izango dira
zuretzat, ama maitea,
zergatikan zuk eman zeniran
mundu ontako izatea.

Magal zurian pasa nituben
lenengo egun gozuak,
ni laztandutzen pasatzen ziñun
gau eta egun osuak.
Zenbat alditan, gogoratzian
denbora artako kontuak,
biyotzetikan azaltzen zaizkit
begiyetara malkuak.

Aunditu ezkerro arroturikan,
azturik lengo kontuak,
eraman zuben amoriyua
infernuko deabruak.
Txarkeri denak azten dituben
bezela gure Jainkuak,
aztu ditzazu nereak, ama,
zabal nazkizu besuak.

Arro banintzan umildurikan
arki naiz gaurko egunean,
zenbat alditan agortu ditut
malkoak nik biotzean!
Fedeak eman zizkiran indar
denak aiturik lanean,
arkitutzen naiz kale erdian
bakartasun txit tristean.

Denbora zala oneratzeko
esaten zeniran neri,
baña ez niyon sekula ematen
aitzerik zure esanari.
Ez nekien, ez, zenbat zor diyon
umeak gurasoari,
nerekin zuri pasiak pasa
zaizkidan arte neroni.

Gurasoaren esaera onak
bagenituke aditzen,
ez giñake, ez, gu arkituko
geran bezela arkitzen.
Bañan gaztetan aien esanak
buruan ez dira sartzen,
eta ondoren orra nolako
gauzak zaizkigun etortzen.

Elurtasuna jartzen asirik
buru nereko illeari,
agur aundi bat egiten diyot
biyotzetik munduari.
Zabal zaizkazu oso besoak
zure seme galduari,
auxen bakarra eskatzen diyot
nere ama maiteari.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien esku-idatzietatik.

Bertso auk Ramos Azkaraterenak diranik ez du esaten, baiña arenak
dirala ez dago duda egiterik, gure iritzirako beintzat.

Getariako seme leial bat
beñere ez dedin aztu,
Tolosa ontako gazte jendiak
nai genduke txit onratu.
Delkano jaunak egindako lanak
zeñek aiek danak kantatu?
Onen istoria irakurri eta
guztiok zoratu gaitu.

Juan Sebastian de Elkano
au izan zan pilotua,
eguzkiaren azpi guzian
berdiñikan gabekua;
itxasoetan onek izan zun
biotza korajetsua,
barku batian aurren-aurrena
jiratu zuan mundua.

Milla bosteun da emeretzitik
oi ta bira bitartian,
sosegu gabe au ibilli zan
itxasoaren gañian,
isla berriak topatu naian
Españiyaren onian,
bere biziya arriskatuaz
salbajiaren artian.

Norteko izarrak artian illun,
bide batzuek itxiyak,
jakinduriaz iriki zitun
arkitu ziran guziyak;
baita billatu mundu berrian
isla ondasungarriyak,
Zeruko Aitak oni eman zizkan
beretzat zazpi doayak.

Goian zerua, beietan ura,
etsai gaiztoak nunaitik,
barkua berriz urez betetzen
ari zitzaion zulotik;
turmoi, tximistak, aize gaiztoa
alderdi guztietatik,
bere lagunak erdiyak iltzen
zitzaizkiola sustotik.

Bizi ziranak bere onduan
guztiz ziraden bildurtu,
kontrariyuaren eskuetan
naigo zutela gelditu;
Delkano zanak onelako itzik
etzuben nai izan aditu,
bere balorez koitadu aiek
guziak zitun salbatu.

Izan zalako gau eta egun
Delkano animosua,
Victoria-kin onek egin ziyon
munduari jira osua;
iru urtean pasatu zitun
amalau milla legua,
pozak zoratzen sartu ziraden
Barramedako portua.

Beren promesa kunplitutzero
juan ziran koitaduak,
erdiyak eta geiago zeuden
osasunetik galduak;
bestetik berriz beren gorputzak
iya larru-gorrituak,
jendea berriz airi begira
ezin sekatzuz malkuak.

Toki guztietan zabaldu izan zan
Juan Sebastianen izena,
nungua ote zan mundu guzia
jiratu zubena aurrena;
ala biarrak ala gertatu
egiazko euskalduna,
erderaz ezin ikasi eta
euskara maitn zuana.

Karlos bostgarren Españaiko
orduko enperadoreak,
merezi bezela etzizkan eman
oni bere onoreak,
pentsatu gabe nolatan pasa
zituben iru urteak;
jende guztiya arritzen zuan
onek egin zuben birajeak.

Mundu guziya lendabiziko
onek zubela jiratu,
izen orrekin zizkaten oni
neke guziyak pagatu;
bosteun dukat urteko agindu,
bat ere ezin zun kobratu,
beste biajian gizarajua
eriotzan zan gertatu.

Glori aundi bat izandu zuben
gure probintzi maiteak:
orrelako lan bat ondo egitea
emen bertako semeak;
famatzen dute mundu ontako
jaiota dauden jendeak,
nola ez gera gu oroituko
pasagatikan urteak?

Ramos Azkarate

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien esku-idatzietatik.
Bertso auek neurri traketsa dute zenbait alditan. Azkarate gutxitan deskui-
datzen zan ortan. Kopiatzaillearena izango da, beraz.

Malkuak

Txiki denboran inoiz entzuna
etzait beñere aztutzen:
zelaitxuetan baserritarrak
nola aitzen ziran kantatzen,
gizaseme ta emakumiak
etziran bada ixiltzen;
oroitutzian kanta maitiak
malkoak zaizkit etortzen.

Euskal Erriyak, galdu baño len
zaudezte nere kontuban,
bestela laister zerate bada
erdaldunaren moduban;
zuen legiak eta izkuntza
ementxe dauzkat besuan,
gauza oberik ez da izango
euskaldunentzat munduban.

Urte batzubek juanagatikan
ez nago bada aztua,
kanta biar det, euskaldun onak,
gure zortziko santua;
Gernikan dagon arboltxo bati
dezu ipiñitakua,
Iparragirre bizi zan batek
bere burutik sortua.

Baserritarrak zortziko auxen
kantatzen zuten orduban,
Euskal Erriko seme ederrak
bizi ziraden zeruban;
etzan negarrik orain bezela,
bakoitza bere lekuban,
obe genduke gaur euskaldunak
bageunde lengo moduban.

Tolosako Fakundo eta Timoteo
Adurriagaren esku-idatzietatik.

Lagun artean egindako sagarduaren gertaerak

Zortziko batzubetan
guaz agertzera,
gure lagun artean
pasatubak dira;
kontatu bear degu
geren gertaera,
jendiak jakin dezan
gure asmo ederra.

Egun batez pentsatu
lagunen artean
sagardua egitea
guztiyon artean;
sagastira juanda
igande batean,
eta danak ekarri
bizkarrak gañean.

Sagarrak ekarrita
nun jorikan etzan,
bañan onetarako
arkaitza bat bazan;
ederki garbiturik
Oriyako errekan,
guretzako makina
auxe izandu zan.

Amabost lagun juntaturik
geren sagardoteriyan,
banketetxo bat egin genduben
Jaungoikoaren graziyan,
alako bromik ez degu pasa
geren denbora guziyan.

Atsaldia ala pasa ta
urrengo egunian,
ia zein egongo dan
animo txarrian;
oso gogor eraso
genduben lanian,
txarragorik badago
lurraren gañian.

Biba tolosar gazte,
biba gure kuadrilla!
Urte askuan ondo
kontserba dedilla;
sagardua egiten
gerade abillak,
eta edaten gera
guztiz egokiyak.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik. Egillea nor dan ez da esaten. Ez du ematen Azkaratenak diranik. Ala ere onen liburuan sartu ditugu, beraren garaikoak eta Tolosakoak dirala kontuan arturik. Ramos Azkarate, izan ere, etzan bertso auetatik urruti ibiliko.

Nere lur maiteari

Euskal Erri maiteak
batera arren bildu,
eta umezurtz onak
lurrera azaldu;
ausarkiaz aurrera
danok jua biagu,
seme leial ta onak
baldin bagera gu.

Zeñek lege oik jarri
dizkigute guri?
Galde zaiogun gure
etsai gaiztoari;
aita zarrak guriak
balirake bizi,
seguru maiz esango
lutekela ori.

Oroitzen naizenean
umiltasuna bai,
oraindik umillago
erdaldunak gu nai;
erregututzen diot
Jaun aundi danari,
lengo legeak arren
emateko guri.

Ain maite det nik lur au
biotz-biotzetikan,
ez deritzat, ez, dala
iñon oberikan;
zernai gauza egingo det
nik zuregatikan,
nola ama onak
umiagatikan.

Nola oroi lezake
gure lur maiteak
bear dirala artu
onela nekeak?
Anaiak lenbailen, bai,
bat egin gaitean,
ordaintzeko euskara
gu bildu gaitean.

Nik esaten detan au
ez al da onela?
Etzait iruditutzen
danikan bestela;
munduan beste asko
diraden bezela,
ara gureztat seme
bat guztiz leiala.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik. Egillea nor dan ez da esaten. Ramos Azkaraterenak agian.

Aita San Joseren gozuak

Espiritu Santuak
egiñik itzala,
Mariagan Jainkoa
gizon egin zala
jakiñik, aingeruak
ziyuan bezela,
zure atsegiña zan
esan eziñ ala.

Sazerdotiak berak
zuenian esan
Aurtxo orrek zer izen
bear zuen izan,
zure biotza pozez
saltoka asi zan,
nor zori obekorik
lurreko bizitzan?

Jesus jaio berria
segidan Belenen,
adoratzera ziran
artzaiak juan lenen;
ikustian zertara
etorri ziraden,
pozaz esan ziñien:
«Ona Jesus emen».

Arkitzen ziralarik
iñon errian,
Ejipton ikustian
begiyen aurrian
gezurrezko jainkoak
boteak lurrian,
pentsamentuaz zaude
zeru ederrian.

Jakitean ipiñi
ziyoten izena,
aingeruak esanik
zala Jesusena;
au zala salbatuko
danok giñuzena,
beste danen artian
ziñan zu pozena.

Aingeru bat jetxirik
zerutik zugana,
esaten dizu Jaunak
deseoa dubena:
Judeara juatea
zala obeena;
berri txit gozoa da
aingeru orrena.

Jerusalengo Tenplu
aundi ederrian
ara Jesus jakintsu
guzien erdian,
erakusten diyela
izkuntza garbian
bere dotriña, modu
txit arrigarrian.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik. Egillea nor
dan ez da esaten. Ramos Azkaraterenak bearbada.

Nere buruari

Ni bezin txarrak eta petralak
balira karka guziyak,
nere moduban baleuzka Jaunak
bere eskutik utziyak,
nere gisara *sumar* bakarrik
baleudeke ikasiyak,
ez lituke, ez, gorrotatuko
orrela masoneriyak.

Ez naizelarik beartsuba ni
baizik aberats xamarra,
naiz jatorriaz etxerakoia
eta azeri azkarra;
argatik laja nuben betiko
Karlosen bandera zarra,
eta naiz onra aundiarekin
benazko Necedaltarra.

Nik ez det bada igarotu nai
al balitz naigaberikan,
esan nai nuke egiyangatik
sufritu oñazerikan;
argatik maite naute masoiak
tres puentes naizelarikan,
eta nik maite ditut masoiak
diru santubagatikan.

Argatik bada izandu naiz ni
aurten konpromisariyo,
zerengatikan gauza abetan
askotxo dedan baliyo;
Etxeberria jaunari orain
iñork galdetzen badiyo,
ezetz ark esan neregatikan,
ez naizela itz-jariyo.

Ondo artutzen dakitelako
nagusiyari pulstuba,
arkitutzen naiz ustez betiko
karabinero sartuba;
argizaietan nekatutzen det
beti nik pentsamentuba,
argitan noiznai egondu dedin
gure fabrika dontsuba.

Ostiral santuz Donostiyara
joan giñan Potzolo ta ni,
biyon botuak tiratutzera
Romea eta Blanchón-i;
larunbatean nola biar zan
maia jaierako jarri,
ederrak antxen eman zizkigun
presidente jaunak guri.

Gure bullarekin etzan entzuten
Luis diputaziyuan,
ta etzitzaion barerik altxa
arrazoi zibelakuan;
onen lekuban ni egon banitz
aginteakin orduban,
ni eta beste protestantiak
agudo ziran kanpuan.

Eskerrik asko geradela gu
politiko txit paltsuak,
ta ez degula iñoiz izan nai
karlista birtuosuak;
masoi ta guzi geradelako
izan istoriazkuak,
jakin zazute nola ez geran
irixten kristau osuak.

Ain ondo noski egin nioben
paper bat Luterorena,
bañan alferrik, etzan estutzen
Don Luis kristau zuzena;
izandu balitz presidente bat
ustela edo errena,
itoko nuben lagun neukala
Don Bizar Matxinbarrena.

Bizitu bitez Calbetón, Blanchón,
Nocedal eta Romea,
dedilla bizi Doña Kristina,
erregin paregabea;
bizi gaiten lasai ta ongi
karabinero jendea,
eta ill bedi alik laisterren
Aitorren Euskal Erria,

Matxin maketo legoian gisan
ta ni azeri moduban,
«todos los guiris hoy protestamos»
oju egiten genduban;
bañan aitaren seme leialak,
anai zanaren moduban,
protestantiak sartu ginduzen
Mac Kinley baten zakuban.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik. Egillea nor dan ez da esaten, baiña Ramos Azkaraterenak dirala ez det uste duda egin ditekunik. *Nere buruari* dio izenburuak, baiña bertso aukerista edo olakoren baten aoran jarrita daude, arek itzegingo balu bezela.

9/8 lerroan aitatzen dan Mac Kinley ori, Estadu Batuetako leendakaria zan Kubako gerra-denboran.

Nere kontubak beti farragarriyak

Neronen kulpaz deitzen dirate
jende guziyak *dir-dir-dir*,
eta ni jarri izandu banaiz
besterenetik *pill-pill-pill*;
beintzat nik *sumar* badakit ondo
bañan ez dakit, ez, *partir*,
ez eta ere ez pentsa ilko
naizela beñere *martir*.

Berriz galdetu niyon jaun oni:
«Ez al da justizirikan,
Zubizarreta eramateko
gaiztategira ortikan?
Ez al daukazu, o lagun zarra,
orain eskubiderikan,
karlista denak presondegian
sartutzeko bertatikan?»

Deitutzen ditet sorgiña eta
Posta-kaleko juduba,
itxasoaren armiarma ta
diruba eta diruba;
ditet deitutzen tratalari txar,
intrigo pintarratuba,
nagoalako argizai-tantoz
guzirotz bedeinkatuba.

Libre al dute gure arteko
zatarrak ateratzia,
eta oiean lotan geundenak
orrela esnatutzia?
Nere García biotzekua,
au ez da bizitutzia,
ta egidazu bada mesede
txandarme denai deitzia».

Botoetako gaubean noski
omen negon ni mutilla,
ezin eraman nubelakoan
aurreko karlisten bulla;
balkoira irten ta asi nintzan
García fiñaren billa,
ta esan niyon: zirkulo ori
bertatik itxi dedilla.

«Ai armiarma karlistak ari
badira beren etxean,
zer egiteko dadukagu guk
baldin badaude pakean?
Zu okerrago zaude balkoian
paltatzen gure legean,
jende guziya guri begira
jarritzen Posta-kalean».

«Ez al dago gaur denbora artan
zegon Aiuntamentuba,
ibillitzeko legez kanpotik
imutu debekatuba?
Ni karlistetan nengoanian
etziñan orren justuba,
amaika aldiz gutxiyagokin
dantzatu dezu eskuba».

«Goazen, bai, goazen, senar nerea,
gure kabira agudo;
goazen, aitatxo, bedorri preso
eraman bañan lenago;
Tovar-ekin gu baliyatuta
arkitzen geran ezkeror,
or konpon bitez eta guk egin
dezagun lasai lo ta lo».

«Berritxuketa gutxiarekin zu
zuaz ortikan oiera,
pianuaren doñu gozoan
kir-kir-kir kantatutzero;
zuaz argizai-tanto guziyak
azkazalakin kentzero,
gañerakuan zeorri laister
kartzelan arkiko zera».

«Ondo esaten dirazute ta
guazen munduko zerura,
igartzen diyot nola ez dan au
aberats baten itxura;
goazen irurok salto ta brinko
bakoitza bere lekura,
esanaz: Aldi batian jango
degu Tovar-en kontura».

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik. Ez da egillearen izenik esaten, baiña bertso auek Ramos Azkaratek jarriak diranik ez dago dudarik. Karlistak irabazi dituzte auteskundeak, eta auen bulla ezin eramanez, balkoira irtezen da auzoko integrista bat. Andik aurrerakoa elkarrizketan dijoa.

Euskerazale ezin geiago
izan naiz ta nai det izan,
Larramendiren jaioterriyan
zorionez jaio nintzan;
onen laguna, onen anaia,
Mendiburu Sebastian,
gogo biziyaz gaur det agurtzen
nik dezakedan gayian.

Eragozpenak ark ditu kentzen,
onek itzkaiak eratzen,
ez au ez ura alkarren lanaz
dirade iñoiz bekaitzen;
Manuel aitak poz guztiyaz du
Mendiburu alabatzen,
dakusalako itz euskerazko
lan ederretan mintzatzen.

Asko dakuskut jakin nayian
zein dan lenen, zein bigarren;
utzi bitzate auzi oriyek,
utzi bitzate lenbailen.
Zait agertutzen Andoaingoa
euskal bideak askatzen,
onen ondoren Oiartzungoa
ark askatuak zabaltzen.

Eta alkarrez ain adiskide
berak izandu baziran,
zeri dagoka gu ibiltzea
aien izenez auziyan?
Bat ondratuaz biyak ondratzen
dira nere iritziyan,
baita biyakin euskal maitale
guziyak al dan neurriyan.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik. Egillearen izenik ez da esaten, eta Ramos Azkaraterenak ote diran ezin seguru jakin.

Beti orrela

Pentsa zazute zer nolakuak
diran republikanuak,
aita Castelar artiriñaren
semetxo pasteleruak;
noski bildurtzen ditubelako
karlisten garaitonduak,
nai dute izan doña Kristinan
aldeko artilleruak.

Sagastangana arrimatuta
dauden ojalateruak,
pentsamentuba libre daukate
jateko milla duruak;
Weyler jauna ta Polavieja-ren
kontrako eulimanduak
dira Kristinan musikan dauden
ziñezko dunbaleruak.

Gure Karlosek zabaldu duben
agiri guzirozkuak
ditu bildurtzen republikakin
ministro izandakuak;
oiek ikusten ez ditubenak
dirala ganbelakuak,
dirade asto kaikubak baño
askozaz kaikubaguak.

Pi garbi-garbi arkitutzen da
etxekoandrian etsaia,
Habana beltzai edo masoiai
eman nai dien masoia;
dalarikan au Salmeron eta
beste piztiyen anaia,
onek garbiro digu deitutzen:
«Bizi dedilla urdaia!».

Baña Sagasta eta Moret bat
nola dabilzan tranpetan,
txerriyai gerra egin nai ezik
alferrikako lanetan;
republikano erregiñanak
senti gaituzte atetan,
eta ganbela alde altxatu
zaizkigu denak batetan.

Ogei ta amar milla errial
kortean daduzkatenak,
Jesukristoren argitasuna
etsairik beltzen-beltzenak;
anarkistetan gazte jendea
sarrazi izan dutenak,
lotsatu gabe diyote garbi:
«Gu gera Kristinarenak».

Ai, pizti oien alde zaudeten
biyotz gureko anaiak,
al dakizute zerengatikan
zeraten gure etsaiak?
Zein dira bada zuen jabeak?
Nor dira gure artzaiak?
Zeñek ondatu ditu emengo
lege zar lotsagarriyak?

Ordutik gaude gauden moduban
atzo bañon gaur gaizkigo,
beltzen gauzetan korapillatuta
Fueruak aztutzeraño;
bañan Karlosen banderan bertan
salbaziya bada go,
zergatik bada gezurrezkua
dezute zuek naiago?

Ez Jaungoikorik, ez Sorterririk
ez duten turroi-jaleak,
lapurtu eta il dizkigute
errepublika gureak;
eunki onetan lotu gaituzte
bizi giñanak libreak,
ta zuek ere lotzen zaituzte
Luzbeltzen libertadeak.

Biyotz gureko anai maiteak,
ez al dezute ikusten
jan ta jan bizi diranak nola
engañatuzten zaituzten?
Al dakizute guk erregea
zergatik degun maitatzen?
Gaitubelako bere aurrekuak
bezela errespetatzen.

Errepublika aundiyagorik
gure Fuerua dan baño,
bestek munduban ez du, ez, sortu
Jesus ezkeru gaurdaño;
gure bidezko erregeakin
gizaldi onetaraño
libre bizitu giñan Kadizko
Korteak baño lenago.

Sei gizalditan egon bagiñan
bidezko jaun oien mende,
ez genuben guk kintarik izan
Euskal Erriyan beñere;
argatik gaude zintzo ta ernai
Karlos ta banderan alde,
zergatik iñoiz beltzakin ezin
bizi giñezken gu libre.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik. Ez da esaten ber-
tso auk norenak diran. Baiña Ramos Azkaraterenak dirala nork duda egin?

7/1 lerroan *lege zar lotsagarriyak* arkitu degu gure iturrian, eta ala kopia-
tu. Baiña *lotsagarriyak* esan bearrean, ez ote du *miragarriyak* edo olako beste
zerbait bearko?

Laurak-bateko ibar-mendiyak
badaude miñeriturik,
beren lege zar zorioneko
aiezaz gogoraturik,
alaz guziyaz bai al da iñon
erri paketsuagorik,
auzoko gizon batzubengatik
sufritzen bizi dalarik?

Colón doatsu jaungoikozkoan
konpañi edo lagundiyan,
nunai bezela euskaldun asko
baziran onen ontziyan;
ziran iritxi aita onekin
lenbizi Mundu Berriyan,
esker gaiztoko basati oiek
gerran dabiltzan tokiyan.

Bañan lur santu Tubalen perla
nola dan Españatarra,
aspalditikan da españolen
lagundutzalle azkarra;
esan dezala Gaztelaniyak
euskera al dan zabarra;
galde al zuben moro-denboran
mendi-mutillen bearra.

Orduko euskal gloriosoak
Noaiñen eta Belaten,
an lengo guraso zarrak
frantzesan ondatu zuten;
amabi kañoi jatzarre artan
arrapatu ziozkatzen,
argatik orain Gipuzkoako
armetan dira ikusten.

Zazpireun urte luze aietan
euskalak Erdal Erriyan
ziran ibilli moro-taldeak
garaitzen gerra biziyen;
ziran portatu Orreaga ta
Beotibarko zelaian,
baita eta ere Flandes, Lepanto
eta Pavia-ko uaian. (*sic*)

Onen ondoren dabil Elkano
bolari jira ematen,
eunki ontan Legazpi dabil
ugartea irabazten;
Urdaneta bat gurutzeakin
dabil itxubak argitzen,
kristautu eta bide zuzena
zerura erakutsitzen.

Oien urrena dabil Okendo
etsai gogorrek garaitzen,
eun jatzarre irabazita
euskal odola onratzen;
onen ondoren euskal Txurrukak
ditu begiyak itxitzen,
esanaz: «Onra aundiarekin
Nepomuceno-n naiz iltzen».

Ondorenean Napoleonek
gaitu paltsiyan artutzen,
gero Kadizko Korte gaiztoak
digu Fueroa odoltzen;
milla zortzireun da ogeyian
berriz gaituzte zatitzen,
bañan euskalak ala bearrak
ditu lenean utzitzen.

Euskaldun onak euskaldun txarrak
asi giñan aserraten,
ordutik gure lege santubak
zituzten elbarritutzen;
Espantero bat abiyatu zan
gure Fueroa urkatzen,
eta Cánovas eta Sagastak
dituzte lurperatutzen.

Alaz guziaz pake-pakean
arkitzen galararikan,
gure semeak bakar-bakarrak
soldadu daudelarikan,
oñaze eta naigabe asko
sufritzen gaudelarikan,
ez dute bada eragozpenik
izango guregandikan.

Jakin bezate agintariyak
zer dan karlista jendea,
Patriya gerran dagoanian
errespetatzen legea.
Bai al dakite bestek al duben
Sort-erritasun ohea,
erakusteko ez dakiyenai
onraren alde bidea?

Buruzaritik abiyatu ta
atzeneko soldadubak,
txerriyen kontra bakar-bakarrak
dauzkagu pentsamentubak;
derrigor egin bear badira
orain beon agindubak,
gure partetik izango dira
zintzo errespetatubak.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik.
5/3 lerroan itzen bat falta da.

Izenburuak dionez, bertso auek *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian agertu ziran, 1898-an seguru asko, Leen esan bezela, urte ortako periodikoak ez ditugu iñun ere aurkitu. Egillearen izenik ematen ez bada ere, sail au ere Ramos Azkaraterena dala dudarik ez da.

Kubako gerra orduan zebillen. Ori ondo kontuan artu bearra dago, 4, 10 eta 12-garren bertsoak ulertzeko. 12-garrenean *txerriyak* aitatzen dira. Oiek, bearbada, ipamerikarrak ditugu, gerra artan sartuak ziran eta. Espaiñiako egunkariak, izan ere, aiek urdai-jale aundiak zirala eta abar esaten zuten. Ortik etorritako iseka izango da. Era ortako izketa-modu itxusiak gerra guzietan erabiltzen dira.

Zubenak aski, berak diyonez,
Jaungoiko Jauna bakarrik
esan zubenak milla bat bider
«guk ez degu nai besterik»,
nai etzubenak fuerorik eta
sorterri ta erregerik,
gaur Calbetón-en señora dago
birtutez aberasturik.

Mejiko galdu zuben Riegoren
kantona edo himnua,
begira nola jotzen diguben
Nocedal-ek organua;
bidezkoaren kontra altxa zan
Romea artillerua,
naiz il naiz bizi ta guzi
gerrara ote dijua?

Nola bestela zazpi bat milla
pezeta eman litzazke,
senarra eta erregetxo bat
goitu nai ez balituzke?
Nola txerriyen kontra joateko
beltzai esango liyeke,
Blanchón jaunakin ezkondu eta
kontentu ez balegoke?

Argatikan da farragarriya
Pazkotan ezkontutzia,
nolako Mari alako Peru
betiko elkartutzia;
orain ezkontza lotsagarriya
pezetaz estalitzia
da biyak duten naitasun zarra
obeto agertutzia.

Gañerakuan ikusi gabe
nork bear zuben sinistu
letartako bat deabrubakin
ditekiala elkartu?
Don Kristina eta Alfonso
egon litezke kontentu,
beren jargoia ezkonberriyak
nai diyelako salbatu.

Baña alako kondiziyuan
dizte agintzen pezetak,
tiroka autsi bear diztela
txerri guziyai kopetak.
«Ta ez badute ala egiten
—dio señora maketak—,
biltzen dan diru guziyen jabe
egingo dira karlistak».

Begira nola etzan zaiguben
Don Karlosen agiriyan,
bañan etzandu Karlos ikusten
dubelakoan guardiyan;
bestetik berriz nola ez dan arki
gaur bizimodu berriyan,
Blanchón-ek nunbait Don Karlos
diyo biyotzan erdiyan.

Bedeinkatuba izan dedilla
ezkondu ziñan eguna,
bai eta ere, o Ramonatxo,
zure sorterritasuna;
zeruba orain egonagatik
tristea eta illuna,
Karlos izango da ondorean
seguru zuen aituna.

Gañerakuan zeñek pentsatu,
zeñek sinistu ordea
Erramuntxo sorterriyantzat
gaur dala onen noblea?
Nunbait eguzki beroena da
ezkonberriyan jabea,
ta naiko dute senadoretzat
baño ganbela obea.

Bi aldeakin guziro ondo
iduki ezkeroztandik,
ez daukazute zuen ustean
iñola utsegiterik;
biyon moduban gaur Españiyan
al dago ezkonberririk?
Gerra galdu ta irabaziya
bai al dizute ardurarik?

Tolosako Fakundo eta Timoteo
Adurriaga anaien idatzietatik.

2/7 lerroa ezin izan degu osorik irakurri. Eta 5/8 lerroak *nai diyela salbatu* dio Adurriaga anaien idatzian. *Guk nai diyelako salbatu* idatzi degu, ala bear dualakoan.

Orain ez da pestalarietan ibillitzeko denbora

Ez dirudigu guk euskaldunak
euskaldun iberotarrak,
baizikan erdi txoriak edo
ajolakabe zabarrak;
lurren azpitik orain irtengo
balira gure asabak,
makillazoka purrukatuko
lizkiguteke bizkarrak.

Infernuko en arteak ditu
Ciruela Bulebarkuak,
irabazteko ni bezelako
jende tonto lapikuak;
esan zazute neronekin bat,
fuerista Goierrikuak,
ez al geraden Matxinbarrenan
billete poltsillokuak.

Etxerakoiak diradelako
Donostiyako nabarrak,
aitortzen degu gu engaňatzen
dirala guztiz azkarrak;
berak ekarri zituztelarik
Gipuzkoara negarrak,
gañera jan nai lizkiguteke
ezeak eta igarrak.

Naigabe asko ekartzen duten
pesta zorigaiztokuak,
euskaldun pesten ondatzalle ta
jolaste infernukuak;
Donostiyako iru edo lau
jauntxo gizendutzeukuak
dira Mac Kinley poztutzeuko ta
gerok desonratzeukuak.

Beltzez jantzita ibilli bear
genduken egun abetan,
zezenetara goaz millaka
igande eta jaietan;
naiz bazkaririk, naiz afaririk
ez egin illabetetan,
eskarrik asko ogiya ekartzen
badakigula zorretan.

Ainbeste jende, ainbeste ontzi
nun dauden gogoratuta,
erri indartsu izugarriyak
txerri-zai aiek artuta,
aitzen-aitzenik ugarte maite
gozo-gozoak galduta,
alaz guziyaz gu zezenetan
zurrutez bedeinkatuta.

Gure soldadu ausarditsubak
negarrez datozenian,
anaia maite maitagarriyak
iltzen dirala bidian,
lenaz gañera Euskal Erriya
kargatu digutenian,
deabru beltzak gizentzen gabiltz
txit saldu gaituztenian.

Ez pentsa bada ari naizela
pobre gaixoen kaltean,
baizikan pestak ez datoz ondo
negarrarekin batean;
ta pesta oiek nola diraden
lau jauntxoren mesedean,
gañera miñak aztu-azi nai
dituzte era berean.

Fuero-zaleak soldadu eta
Fueroen etsaiak libre,
gure dirubak berenganatzen
dabiltza lotsatu gabe.
Nola ez dira bada egongo
oiek onrakin aserre,
guri apasta bota ta berak
loditurikan badaude?

Baña karlista naizelako ni,
karlista biyotzekuak
maitatzen ditut, Beterrikuak,
bai ere Goierrikuak;
nik bezin ongi badakizute
zer diran Bulebarkuak,
zein da nor diran Ciruela-nian
dabiltzan lagundikuak.

Tolosako Fakundo eta Timoteo
Adurriaga anaien idatzietatik.
Egillearen izenik ez da esaten, baiña
bertso auk Ramos Azkaraterenak dira-
la ez dago zer duda egin.

Sail au 1898-an agertuko zan, *El Correo de Guipúzcoa*-n. Leen esan degunez, egunkari orren urte ori ez degu iñun arkitu.

Kubako gerra bukatu da: «aitzen-aitzenik ugarte maite / gozo-gozoak balduta»; eremu aiek ipar-amerikarrak artu dituzte: «erri indartsu izugarriyak / txerri-zai aiek artuta». Iseka ori nundik datorren leen adierazi degu. Angotarrak txerrizaitzaille eta txerri-jale aundiak zirala, alegia.

Badatoz andik soldaduak: «Gure soldadu ausarditsubak / negarrez datozenian». Baiña zenbait aldiz «anaia maite-maitagarriyak / iltzen dirala bidian». Gertatuak gertatu ondoren, «beltzez jantzita ibilli bear / genduken egun abetan»; baiña jendea festetara dijoa, ezer ez balitz bezela: «zezenetara goaz millaka / igande eta jaietan». Eta Ramos Azkaratek ezin du ajolagabeke-ri ori begi onez ikusi... Festetan ibiltzeko garaia ez dala esaten du izenburuan.

Mac Kinley Moreti

Moret Mac Kinley, Mac Kinley Orra zuk zertan jarri dezuben
Moret, ugarterik ederrena,
bazera ero gaiztua, Habana zala esan leiteken
Españiyantzat dollorra eta perlarik aberatsena;
desleialentzat prestua, orra Cavite eta Manila,
bai al dakizu fiña zeraden esan bear dizutena
edo al zeran faltsua? besterik ez ta zu zerala, zu,
Ez ote zera zerri-zaientzat kiskaldu dituzubena.
txerri beltz gloriosua?

Badirudizu beintzat obretan
Apolo oso-osua,
Españiyaren etsaiak maite
zaituzte urdai gozoa;
zuk Habanari jarri zeniyon
ito nai duben lazoa,
dago esaten zu txerriyentzat
zerala aita

Zuek iduki zazuten beti
zartagiya ren kirtena,
nai zenduteke salbatuzia
estalitzen zaituztena;
baña nola dan kerizpe ori
garestiya ta errena,
Mac Kinley Moret, Moret Mac
Kinley,
badator zuen aizkena.

Zuk traidoreai eman zinizten
zori gaiztoko eguak,
lur azpiratu zitezen gure
soldadu gizarajuak;
zuk Weyler andik kendu ezkeru,
Blanco ta pasteleruak
dira Máximo Gómez ber-bera
dan baña ezkeraguak.

Migel Legazpik irabaziyak
gaur daude iya galdurik,
Urdanetaren gurutzeari
dauzkate iltzez josirik;
ainbeste jende, ainbeste ontzi
uretan ezkutaturik,
ugarte eder Filipisenak
arkitzen dira zintzilik.

Argatik bada zuk ez daukazu
luzarorako bizirik,
zergatik zure pekatubentzat
ez dagon gaur barkaziyorik;
ta erakusten ez dezulako
infernubaren bildurrik,
ez dezu bada zere buruba
iltzia bezelakorik.

Dakizu noski nola eskatzen
dauden gaur zure buruba,
eta aitortzen ez dezulako
zaudela kondenatuba;
eta alderdi guzietatik
zauden ezkerro galduba,
beltza da baña diozu
Jaungoikoari eskuba.

Begira jarri zaite zer egin
ziyoten Riego zanari,
Mejiko galdu ziguben masoi
traidore aundiyenari;
urkamendiyan etzan zaite zu
Rafaelen gisa txeri, (*sic*)
txit ondo edo artu ditzazu
alík laisterren tiro bi.

Bañan iltzeko nola biar dan
gutziz balore aundiya,
esango dizut zeñek kenduko
dizuban azkar biziya:
Sampson txerriya nola dezuben
señide maitagarriya,
juan zaitea ta esan zaiozu:
«Arren, il nazu, anaya».

Tolosako Fakundo eta Timoteo
Adurriaga anaien idatzietatik. Egillea
nor dan ez da esaten; baiña garbi dago,
guk uste, sail au nork jarria dan.

Bi tokitan, 2/8 eta 9/7 lerroetan zerbait falta da, noski. Utsuneak puntuz bete ditugu.

Bertso gogor auen atzetik ere Kubako gerra dago. Izen-mordoa agertzen da: Mac Kinley, Estatu Batuetako leendakaria zan; Moret, Espaiñiako gobernuaren goi-maillako jaun bat; Weyler (Valeriano), jenerala, Kubako gerra artan Espaiñiako soldaduen buru; Máximo Gómez, ango askatasun-zaleen burua...

Gezurrarekin bizi diraden
desonran ekartzalleak,
Melillan nola Habanan ala
portatzen diran jendeak,
txerriyen bildur-bildurrez dauden
anima beltzen jabeak,
buru autsitzen daude gurekin
maketo miserableak.

Illotzikan gaur ez baleudeke
masoi tarteko legeak,
ez lirateke, ez, gure alde
egongo jende libreak;
laister ikusi nai diralako
benazko libertadeak,
daude Sagasta eta besteak
piperrarekin erreak.

Egin dutena egin ta gero
lotsatu gabetanikan,
datoz *Heraldo* ta *Imparcial*
guziro arroturikan;
datoz sapoak eta sugeak
boteaz guregatikan,
agindu arte geldi-geldirik
pakean gaudelarikan.

Argatik gerra diye egiten
Correo Español-ari,
bildurrik gabe ari dalako
egiyan alde kantari;
ditubelako Karlosengana
biyotz nobleak ekarri,
dabiltza beltzak gure anaia
il naian buru-belarri.

Zer ezagun dan ez daukatela
orrela bizitzerikan,
oriyen gaitza sendatutzeko
ez dala botikarikan;
begira daude aruntz ta onuntz
bañan alfer-alferrikan,
berez il diran lege beltzentzat
ez dago osasunikan.

Bañan alferrik salatzen dute
gure anaia prestuba,
beti aurrean jarriko diye
onek bandera santuba;
defenditutzen bizitzen dana
guzizko kausa justuba,
gorrotatzen du infernuba ta
daki maitatzen zeruba.

Beragatikan gure anaia
ari da gerran aurretik,
liberal gaizto guzi-guziyai
eragin azten burutik;
eragozpenak fiskalak edo
norbaitek jarriyagatik,
Correo ilko duten baño len
joan bear dute mundutik.

Naiz *Heraldo* ta naiz *Imparcial*
jardunagatik marruka,
ta maketoren *Voz*-a ojuka
biyekin bateratuta,
gure anaia ixiltzerako
masoiak ikaratuta,
aurretik beltzak arkiko dira
eltzekondua galduta.

Correo jarri azi zubenak
ondo zekiyen noiz jarri,
erakusteko bide zuzena
len etzekiyen askori;
ditubelako karlistetara
gizonak ekarri,
daki Sagastan gobiernubak
ill bear dubela sarri.

Masoiak damu badute ere
Mesias dator bidian,
eta ikusi bearrak dira
usterik gutxienian;
gaur ari diran edo ez diran
alferrikako lanian
esango zaie, Irun aldera
agertzen zaiotengan.

Tolosako Fakundo eta Timoteo
Adurriaga anaien idatzietatik.

Ainbestetan esan bezela, sail onen aita nor dan ez da esaten; baiña Ramos Azkarate dala dudarik ez.

Emen aitatzen diran *Correo Español*, *Heraldo*, *Imparcial*, *Voz*-a (*La Voz de Guipúzcoa*) egunkariak ziran, baiña ez danak alkarren adiskide miñak...

8/6 lerroan itzen bat falta dala ematen du.

Goazen begiyak malkoz bustirik Jesusen Amagana

Bi mundu eder aundiyen jabe
izandu giñadenak len,
orra liberalkeri otsoak
nola ondatzen dituben;
Sagasta, Moret, Moret, Sagasta,
begira zer lasai dauden,
diruditela bi deabrubak:
Satanas eta Luzifer.

Zintzilik daude gaur Filipiñak
beltzak desanparatuta,
ainbeste jende, ainbeste ontzi
Maiatz illean galduta;
ordu ezkerro daude Cavite
txerriyak arrapatuta,
ta Aguinaldo-k dauka Manila
ustez bereganatuta.

Pake paltso bat egin ta gero
Aguinaldo traidoreak,
Primo zakubangandik arturik
Españiyaren urreak,
eta emanik Devey-k Cavite-n
pozikan arma gureak,
españatarrak galdu nai ditu
Judasen seme urdeak.

Judasek Jesus saldu bazuben,
zuben il bere buruba,
arrek zekiyen erakutsitzen
gaitz egiñaren damuba;
bañan Primoren Primo txit beltzak
jan arren zaku diruba,
ez bera, baño besteak iltzen
dauka gaur gozamentuba.

Jaungoiko Jauna, Jaungoiko Jauna,
ez al gaituzu gaur maite?
Era onetan bizitu bear,
Jaungoiko Jauna, noiz arte?
Gure Legazpik irabaziyak
lapurtzen badizkigute,
guk ez gerala onra-zaleak
aitortu genentzaguke.

Noiz arte, bai, bai, noiz arte gaude
egiyazko españolak,
guziya galtzen diguben arte
masoi-talderi dollorrak?
Ote dauzkagu ur biurtuta
onra-zaleak odolak,
burla egiten lajatutzeko
usteldutako arbolak?

Aguinaldo bat jarritzen bada
Filipiñetan nagusi,
eta Habana joaten bazaigu
Españiyatik igesi,
Mejiko galdu ziguten beltzai
nola guk bizirik utzi,
ez bagñezke eunkiyetan
iñola soseguz bizi?

Da Sagasta ta Moret maletan
moduan gozatutzia,
biyak diruba *Voz*-ari eman
ta onek kantatutzia;
da aitzenikan onen bizitza
gazteak engañatzia,
nai dubena da Nosedal-ekin
ez iñoiz aserratzia.

Txutikan doi-doi nola dagoan
Riego paltsoan arbola,
erroinarikan bear zubena (*sic*)
espalda ematen diyola,
baldin ta baldin galtzen baditu
ez da biziko iñola,
zerengatikan saldu diguben
onra ta gure odola.

Ditubelako bada ikusten
odeiak guziro beltzak,
badaki *Voz*-ak nola datorren
ekaitz aundi bat beltzentzat;
argatik dabil pakean eske
naiz izan kalte guretzat,
eta daduzka lore guziyak
masoi beltz traidorientzat.

Zer da bada, zer, gañerakuan
Voz-aren eskribatzia?
Lotsatu gabe maketa onek
pakea eskatutzia?
Gipuzkuako paper beltzaren
munduko bizitutzia
da gure Euskal Erri ederran
etsaien laguntzallia.

Goazen begiyak malkoz bustirik
Jesusen Amarengana,
kupitu dedin alik laisterren
fuerista guziyon Ama,
esateakin biyotzetikan
euskeraz salbetxo bana,
zeruetatik salbatu ditzan
Filipinas ta Habana.

Tolosako Fakundo eta Timoteo
Adurriaga anaien idatzietatik.

Leengoa berriz ere esango degu: nork duda egin dezake bertso auk
Ramos Azkaratereneak dirala, naiz eta beraren izenik ageri ez?

Besteak beste, emen aitatzen dan Aguinaldo ori (Emilio izena)
Filipinetako askatasun-zaleen burua zan.

Valladolid-ko On Jerman Gamazo

Uste det esan nizubela bein
ego gabeko belea,
zeradelako Laurak-bat-eko
gari garbiyan zalea;
jaio baziña zu itxasoan
ziñan izango balea,
Kantauriko antxoia ta sardin
guzi-guziyan jalea.

Al deizkiyozu arrazoizkua
txerriyen buruzbidea,
edo indarrez lapurtutzia
oiek Habana gurea?
Al dezu uste zu zeradela
Mac Kinley baño ohea,
ez badezu nai errespetatu
Lurak-bat doakabea?

Garirik asko badezu noski
sartuba zure zakuban,
ibilli gabe Laurak-bat jartzen
agoniyako moduban;
Naparruakin baziñan asi
legerik gabe orduban,
eriyotza bat lotsagarriya
argatik izan zenduban.

Deabrurikan gaiztona baño
gaiztoagoko Gamazo,
gutxi dutenai kendu ta bizi
nai zenduteke eroso;
zauden ezkerro gure morroi ta
ama-semeen guraso,
guri utzita txerriyai gogor
bear diyozu eraso.

Beragatikan jarri nai zaitut
berrizko ere kontuban,
esanaz andik-andik ibilli
maketoakin tratuban;
ta nai badezu balean gisan
arrantza egin putzuban,
txerri mardulak jan ditzazu, jan,
gure gariyen lekuban.

Ministro izan zeratela ta
zuek artu eta artu,
gerran daudenak gosian eta
zuek urretan kobratu;
zuek Eliza, zuek erriya,
zuek Fueruak ondatu,
zuek beti jan eta karlistak
oñaze denak sufritu.

Ez da ardura zu izan arren
ministro pake-zalea,
obetoago esango dizut:
txerriyen adiskidea;
gerran gaude ta salbatu dedin
Españiyaren onrea,
laja zazute lo egin eta
jan diguzuten urrea.

Egin zazute erriyan gisan
zuek sakrifiziyua,
lajaturikan erriyentzako
gogozko erretirua:
utzi zazute ministro denak
urteko paga osua,
salbatutzia nai badezute
gure España gaxua.

Zuek diruba, zuek jendea
eman ez, baizik eskatu,
eta erriyak ixil-ixillik
eskatzen dana pagatu;
zuek lanketa guziyak galdu,
zuek ogiya altxatu,
zuek sorterritasuna noiznai
mingañarekin kantatu.

Gañerakuan ikusi bear
zerate egun gorriya,
orain etzanda dagoalarikan
Españiyako legoia;
artu baño len txerriyengandik
gure erriyak jipoya.
gure legoiak izan bear du
dollorren urkamendiya.

Guretzat beti egun tristiak,
zuentzat daude alaiak,
zuek jan gure ollo-ollandak,
ollarrak eta kapoiak;
artutzalleak daude nagusi,
emantzalleak morroiak,
orra gu zertan jarri gaituzten
txerriyak edo masoiak.

Tolosako Fakundo eta Timoteo
Adurriaga anaien idatzietatik.

Auek ere Ramos Azkarateren bertsoak, dudarik gabe, beraren izcnik ager-
tzen ez bada ere.

Jerman Gamazo orrek, Espaiñiako *hacienda*-ministra zalarik, *Ley de
presupuestos* izenekoa atera nai izan zuan 1893-an, Naparroako zergak altxa-
tuz eta abar. Baiña naparrak sutan jarri ziran, ikaragarritzko protestak egiñez,
eta ministroaren asmoak lur jo zuten. Orduan gertatutakoa itz batean biltzeko
La Gamazada izena sortu zan.

Lera ardoko integruak beren erregiñ maiteari

Bizi geranak Lera ardoko
itxaso bazter onetan,
etzaten gera, o erregiña,
txit ziñez zure oñetan;
geralarikan Noen semeak
sinista zazu benetan,
txerriyen kontra gaudela ernai
gerrako ontzi abetan.

Jakin nai zuten gure ustean
zer ziran emengo kayak,
eta zer ziran arsenalak ta
gure gerrako ontziyak;
lapitzarekin zituztez
txit borroi izugarriyak,
eta txalupan Gazteluraño
aldegin ziguten biyak.

Montejo eta Cervera baño
soldadu ederraguak,
Cervera eta Montejo bezin
edo txit bizkorraguak,
emen dauzkazu, Ama maitea,
Romean igeltseruak,
naiz ill, naiz bizi, zu salbatu nai
zaitugun artilleruak.

Bañan berotu giñadenian,
gure gobernadoriak
agindu zigun ekarritzeko
txalupa artako jendiak;
nola azkarrak diran itxaso
gerrako ontzi guriak,
laister iriki ginduzen bada
Gaztelurako bidiak.

Lengo batean izan da emen
Dogson ingeles aundiya,
euskaldun gazte alai batekin,
zirudiyela ixpiya;
utzi geniyon bada pakean
bete zan arte neurriya,
bañan ondoren ikusi zuten
biyak istillu gorriya.

Oroitu azi genduben bada
ango alkate prestuba,
gizon bizartsu errugabeko
buruz guztiz onraduba;
ta ontzat nola artu ziguben
gure keja txar justuba,
laja zizkigun kulpa gabeak
bertatik gure kontura.

Aruntz itxasoz juañ giñan baño
legorrez giñan etorri,
preso bezela ginduzen biyak
Tolosaraño ekarri;
esan geniyon: «Ara... bi... bi»
don Juan García jaunari,
ta gero Culomano-nian gu
ez geunden biziro larri.

Plan aundiyak eraman izan
ditugularik askotan,
orrelakorik ez da igaro
oraindik integroetan;
ez gera bada jaietan beintzat
egoten oiean lotan,
egon izandu geraldarikañ
pozikan ardangeletan.

Jaun on Luis Ruiz Azkaute
Tolosako alkateak
esan omen du dirala biyak
batere errugabeak;
dirala gure Ama Euskara
glorijan zale-zaleak;
diyote biyak ez diralako
Romean adiskideak.

Egin deguben utsegin txar au
nai degu argiratzia,
eta degu nai guk gure kulpak
garbiro aitortutzia;
Dogson Gebara, egin beigute
mesede barkatutzia,
zerengatikan gure-gurea
izan dan utsegitia.

Tolosako Fakundo eta Timoteo
Adurriaga anaieñ idatzietatik.

Egillearen izenik ez da ageri, baiñan norenak diran nork duda egin?
Izenburuan eta leen bertsoan ageri dan *lera ardo* ori guk beintzat ez
dakigu zer izan ditekean.

Irakurlea oartuko zanez, 4/5 lerroan itzen bat falta da,

Bi senadore, bost diputadu gure Gipuzkoarenak

Al dakizute nundik dabillen
Fi...gueroa eta Torres,
Romanones-en anai markesa,
Rodrigo duna izenez,
Idiazabal bete zubena
paperez eta zillarrez?
Gaur ez dakigu maketo jaun au
bizi ote dan edo ez.

Lengo batean ala omen ziyon
dantzaturikan kokotza:
«Bost duro kosta zitzaidan neri
zan intrigitas bakoitza». (*sic*)
Argatik dute bada txit maite
Jesus maitian Biotza,
eta zerura joateko gero
daukate orlako poza.

Ainbeste dunbal, ainbeste txintxin,
ainbeste platillo jua,
ainbeste santu eta deabru
bereganatutakua;
ainbeste puru eta don diru
emen partitutakua,
ez bada galdu, ez al dirudi
onek mututegikua?

Dala bat eta dala bestea
beti beñepein boltsara,
ez dadukate ikusirikan
alako diru bolara;
baña turmoiak jo bear du ta
ez dauke mangi ganbara,
eta zerura begira daude
esanaz: «Santa Barbara!».

Baietz esaten jakingo du ta
ez al da bada naikua
etxeratzeko bototan eman
ero gastatutakua?
Zer da ardura au izan arren
Moret-en lagundikua,
bada Gamazo infernutarran
aldeko infernukua?

Guziro goibel dagoalarikan
lanean dabil tximista,
ta aize gaizto naraspillatuak
badakar ekaitza;
oiek bildurtzen ditubena da
mudatutzia bizitza,
naiz datorrenak libre lagata
Fueruak eta Eleiza.

Ote da galdu Maketaniko
Patriziotxo Garcia,
Inaziori sartu ziyona
masoi Sagastan lantzia?
Mutuba al da zori gaiztoko
diruban partitzallia,
barrutirikan euskaldunen
ziñezko ondatzallia?

Azkoitiyako Azpiazu ta
Azpeitiyako Aizpuru,
Astigarretan bizituzen dan
don Begi urdin katillu;
Amezketako don Triste Prasku
ta beste zortzi jostallu,
omen dirade Patriziori jan
ziyenak zaku bat diru.

Baietz ta ezetz jakingo du ta
zertan bear du itzein,
Moret-en alde botatu eta
baldin kobratzen badabill?
Zer diyo ni Eleizarekin
ibillitza desberdin,
pozaz badago bere ustean
Iñigo dubelako ill?

Ote dago lo Calbetón, Blanchón,
Nocedal eta Romea,
deirikan gabe ezkonduko
senar-emazte para?
Nun bizi dira Santillana ta
Mondragoi goiko Garcia,
eta don Brunet, bai, Brunet
Voz-aren adiskidia?

Bañan Iñigo bizirik dago
García-n dirubangatik,
euskaldun gaizto Nocedal-enai
gerra egiñaz zerutik;
dabil bizirik mundu guzian
masoi-taldeen gañetik,
esanaz nola datorren laister
izar bat Bruselas-etik.

Bi senadore, bost diputadu
gure Gipuzkoarenak,
itzegiteko zeñek sinistu
dirala orren errenak?
Ez badirade probintziyantz
dollorak eta zekenak,
dira zazpiyak fuerotan beintzat
Gamazo-rekin daudenak.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik. Egilcaren izenik
gabe, baiña Ramos Azkaraterenak dirala dudarik ez.

6/4, 8/5 eta 11/7 lerroak itzen bat falta dute eta neurrian erren daude.

On Juan Ignazio Odria eta Larrarte jaunari

Odriako Iñigo
izan ziñadena,
eta gaur lur puska bat
baizik etzerana,
ziñalako aita bat
nai zirazubena,
etzait iñoiz aztuko
zure oroipena.

Nocedal-en garrangan
erori gabea,
liberalkeriyantzat
zan txit aserrea;
beartsubaren lagun,
Fueroen zalea,
ta lagunarterako
zan guztiz trebea.

Bazera Inazion
uriyan jaiua,
zera bere seaskan
gozatutakua;
Odria jauregiko
odol garbikua,
euskaldun benetako
leialetakua.

Ez dakit zer izan zan
apaiza bezela,
bañan Elizarentzat
etzan, ez, epela;
izandu zan beñere
zabar ta ustela
Ibarreko jendeak
esan dezatela.

Beti egiyan alde
sakrifikatuba,
berezgoko karlista
asko sufrituba;
presondegiyan ere
aldiz probatuba,
zan kausa santubantzat
soldadu prestuba.

Iduritubagatik
gizatxar xamarra,
zuben biyotz ona ta
guzizko leiala;
askorentzako zuben
eskuba zabala,
zirudiyelarikan
osoro medarra.

Ogei ta amazazpi
urte badirala
jakin det Ibarrean
erretore dala;
uri ontan zanaren
etsairik bai al da?
Politikaz kanpora
nork esan badala?

Eranegun ikusi
zan bere illetan
Iñigok etsairikan
zuben mundu ontan;
ainbeste lagun eder,
gauden egunetan,
ez dira errez biltzen
erri txikiyetan.

Denok nola geraden
bada desberdiñak,
guziyontzat badira
munduan sorgiñak;
neurritzen baditugu
geon utsegiñak,
ez gaitu argalduko
eraman eziñak.

Baña Odria zana
leiala zalako
irabazi zituben
borondate asko;
izandu bazan ona
mundubarentzako,
ala izan dedilla
zerubarentzako.

Bertso auek ere Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzie-
tatik artuak ditugu. Egillearen izenik ageri ez bada ere, Ramos Azkaraterenak
dirala dudarik ez dago.

Alferrik dira Gamazo eta Gamazotarren asmuak

Badakizute nola galdetu
nuben nik mutuba al zan,
masoi Sagastan diputadu au
berririk inñundik bazan;
bañan lenguan Tovar, bai, Tovar
izandu degu Tolosan,
ta esan ditet aita lenakin
nola egondu omen zan.

Orain norbaitek galde lezake:
Ez al da jaun au markesa,
izanagatik Moret turmoian
aldameneko tximista?
Ez bada ona euskerarentzat,
beintzat jo zuben Tolosa;
ta aditzera eman ziguben
nola zekarren ekaitza.

Fraile karrikan kotxe nabar bat
genubenian ikusi,
uste genduban Jaime ote zan
ainbestez onuntz iritxi;
bañan ezkillak etziranian
berenez bueltaka asi,
Moret turmoian tximista zala
azkar gendubena ikasi.

Zer uste dute bada izatea
Sagastan diputaduba,
barruti ontan partitu arren
alako zaku diruba?
Zeñi zer diyo izanta ere
izketarako mutuba,
onek nai badu ikusitzia
Fueroen kanposantuba?

Jaungoikoari graziyak eman
gabetanikan elizan,
sartu zalako gure etxean
agintari baten gisan,
osasanakin etorri arren
elizara joan ez bazan,
nola Jaunari eman eskerrak
naiz au maketo bat izan?

Ez al dakigu nork ill dituben
euskaldun bizi-modubak?
Tovar zergatik etzan izandu
lenguan adoratuba?
Zerengatikan Euskalerriyai
badatorkiyen orduba,
ta entzun nai du sendatu dedin
sendakiñaren ojuba.

Agoniyara erri guziya
ekarri dutelarikan,
Mundu Berriko urrezko lurrak
negarrez daudelarikan,
Naparruari nai diye egiñ
itximur biyotzetikan,
Gaztelaniyan modu berean
lurperatzeagatikan.

Naraspillatzen dakitelarik
jende beartsu itxuba,
saltsa emendik, tranpa andikan
joaz txin...txi...ñan soñuba;
ematerako ibar-mendiyak
Jaungoikoari kontuba,
entzun zazute, infernutarrak,
lau zerutarren kantuba.

Lenago sutan ikusiko da
arrigarrizko putzuba,
ta ez euskara eta nafarrak
saldu lege zar santuba;
lenagotandik Jaungoiko Jaunak
desegingo du munduba,
eta ez euskal on Karlosenai
masoiak artu pulsuba.

Alferrik dira euskaldun txarrak
darabizkiten pausuak,
alferrik dira Gamazo eta
Gamazotarren asmuak;
dira alferrik elkartasun ta
anaiatzeko lazuak,
gu ez gaituzte irabaziko
iñoiz traidore paltsuak.

Guk ez degu nai Españiyatik
beñere apartatzia,
baizik nai degu fueroz konforme
Patriya serbitutzia;
guk ez degu nai Madrilletikan
masoiak gobernatzia,
eta dauzkagun eskubideak
zintzo errespetatzia.

Nai degu lege paltso zikin bat
emendik ezkutatzia,
ez karlistak ill eta besteak
bizirik gelditutzia;
onrarekin guk nai deguna da
aitonai jarraitutzia,
milla berreungarrenge urtean
biyotza idukitzia.

Eta nai degu bidezkoakin
txit ondo antolatzia,
Gaztelaniyan kalterik gabe
gu emen gozatutzia;
euskeran jαιο, euskeraz azi,
euskerarekin illtzia,
euskeran alde Euskal Erriya
betiko lajatutzia.

Tolosako Fakundo eta Timoteo
Adurriaga anaien idatzietatik. Egillearen
izenik gabeko bertsoak auek ere; baiña
Ramos Azkaraterenak dirala dudarik ez.

Zer moduz dago Montojo jauna? Nola dago gaur Cervera?

Auxen da auxen ondamendia!
Jesus, Jesus milla bider!
Jaungoikoaren letartak nola
desanparatu gaituben!
Santiagoko ur gaziyetan,
Cavite-koan ondoren,
orra zer jipoi negargarriya
Sampson-ek eman diguben!

Zer pasatu dan Cavite-n eta
Santiagoko lurretan,
zer igaro da Cervera-rekin
Sampson-en kontra uretan?
Legorrez ondo, bañan itxasoz
besterik mundu onetan
al da arkitu gure moduban
aitzeneko arnasetan?

Beti aundiyak izan geranok
itxasoz eta legorrez,
iñork berdindu ez gaitubenak
gerrateetan balorez,
onrarenatik kondaira bete
bagendubena izarrez,
masoneriyak ipiñi gaitu
era onetan negarrez.

Begira jarri gaiten Lepanto-n
eta Dumas-ko (*sic*) portuban,
begira zagun zer gertatu zan
Trafalgarreko putzuban;
pentsa dezagun zenbat oñaze
Elkanok pasa zituban,
ibillitzeko iru urtean
Colón dontsuban munduban.

Estadutako txerriyak eta
emengo pizti nabarrak,
nola diraden arbola baten
zori gaiztoko adarrak,
illundu azi nai lituzteke
gure onidan (*sic*) izarrak,
arraiak jaten dizkigutela
gure soldadu azkarrak.

Garesti kosta zitzaigularik
jatzarre Trafalgarrekua,
zan izan gure sorterriyantzat
gloririk goienekua,
itxasoetan bestek izandu
ez duben bezelakua,
istoriyaren ostu ederrak
urrez apaindutakua.

Galdu bazuten españitarrak
ontzi-talderi guziya,
milla gizon ta geiagok eman
ziyen onrari biziya;
antxe Gravina-k eta Txurrukak
daukate irabaziya,
nola zeruban ala munduban
bizituzteko graziya.

Ez nua ezer kantatuzera
Austriako Juanengatik,
zerengatikan koroï aundi bat
eraman zuben mundutik;
euskal Okendo, euskal Elkano
dauzkala alde bitatik,
negarrez daude iru izarrak
guri begira zerutik.

Nola ez dute negar egingo
Txurrukak eta Gravina-k,
errenditzia bañan iltzia
naiago izan zutenak?
Nola ez dira miñez egongo
Lezo eta bere lagunak,
Méendez Núñez ta Cadarso zana
ta orain galdu diranak?

Zer moduz dago Montojo jauna?
Nola dago gaur Cervera,
nola bata ala bestea
erori gabe urpera?
Zer moduz daude Espaiñiya ta
Sorterriyaren bandera?
Presondegian jende asko ta
ontzi geienen galera.

Al du izango erantzuerik
egingo detan galderak?
Zer laja dute istoriyantzat
Montojo-k eta Cervera-k?
Datoztenian Madrid aldera
esango digute berak
zerengatikan izan ditugun
orrenbesteko galerak.

Tolosako Fakundo eta Timoteo
Adurriaga anaien idatzietatik.

1/5 eta 1/6 lerroetan Santiago eta Cavite aitatzen dira. Baita ere 41 eta 42 lerroetan. Leenengoa Kubako itxas-portu bat da; eta bigarrena, Filipinetakoa. Ipar-amerikarrak toki oietan apurtu zituzten Espaiñiakoa itxas-ontziak.

Pascual Cervera Espaiñiatik Kubara joan ziran itxas-ontzien almirante edo buru zan. Patricio Montojo, berriz, Filipinetan ziran espaiñiar ontziena. Eta Sampson, ipar-amerikar ontziena.

Cavite-koa 1898-V-1-can gertatu zan; eta Santiagokoa 1898-VII-3-an.

«Elkartu gaiten» diyo Sagastak

Masoi Sagasta gizarajua
iya mototsa galduta,
eriyotzako argollan nonbait
arkitutzen da sartuta;
nola il bear duben agudo
guziro desonratuta,
bere moduko infernutarrai
abiyatu da ojuka.

Ez dago lasa beltzen nagusi,
nagusi errukarriya,
Donostiyako maketo baten
tranpazko arabakiya;
il baño lendik altxaturikan
daukanak oroigarriya,
bere semeai esan diyote:
«Gañean zauzkagu iya».

«Elkartu gaiten» diyo negarrez
Mateo piper morruak,
golpe batean bi milloi jaten
dakiyen Logroñokuak;
diyo: «Elkartu gaiten agudo
partidu beltzetakuak,
iya malkarrot egin deguben
pizti beltz infernukuak.

Erdi itxuba eta baldarra
eta masoia dalarik,
Sagastak ez du ikusitzeko
besteren begi bearrik;
dirubak bizi diran etxeak
nola dauzkaten itxirik,
laster erori ta ez daukate
geiago altxatutzerik.

Begira nola datozkiguben
karlistak gure gañera,
tirorik tira gabetanikan
aurrera eta aurrera;
baldin indarrrik ez degubenak
elkartutzen ez bagera,
ni ilko naiz ta bazoazteke
osin berdeak jatera».

Naiz alkartu ta naiz desalkartu,
naiz gerra egin karlistai,
ez dizkigute nagabe asko
berriz emango fueristai;
Euskal Erriyak laister jarriko
dirade libre ta lasai,
ta apostolo gezurrezkuak
denboraz dira txerri-zai.

Antxe bizitu bearko dute
Mac Kinley arruan mende,
txori tartean gozatu arren
emengo ganbelik gabe;
bañan onean datoztenentzat
besoak zabalik daude,
deitzen degula: «Bizi dedilla
maite deguben Errege!».

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik.

Antonio Okendoren bizitza eta azañak

Donostiako uri ederrak
zenbat ume eman ez ditu,
ala itxasoz nola idorrez,
dutenak mundua arritu?
Oen arteko baten omenak
iñondikan al banitu,
euskal izkuntza paregabe
nai nituzke otsezditu.

Izena zuen Antonio ta
Okendo berriz lonbrea,
aitaren gisa gaztetandikan
itxas-lanetan trebea;
amasei urte zitueneko
juan zan itxastar ernea
Napolis-eko ontzidietan
etsaia garaitutzea.

Oriek jakin erazitzeko
zertarañoakoak diran,
nere etorki bañan obea
duenak bear ditu esan;
itz-neurtutzalle gaiñ-gaiñekoa
bereziturik aukeran,
nere ustean ez ditu esango
ari dagokion eran.

Arrai aundiak txikia iristen
duen gisa ber-berean,
denbora aetan indar aundia
zutenak nagusi ziran;
oñazpituak gizarandeak
begirun izan ordean,
arrazoia maiz arkitutzen zan
indar utsaren mendean.

Bada aiñ aundiak izandu ziran
bere bizitza ta azañak,
ezik itz bitan dio Henao
kondairagille zuzenak:
oso pizkorrak izandu arren
len da gero itxas-gizonak,
aiñ azkar eta jakintsurikan
etzuela izan Españak.

Orregatikan itxasaldeak
nasten zituzten ontziak,
itxas-lapurrez ondo ornituak
ziran ikaragarriak;
Espartatarren gisa alkarri
esanaz: «Ea, mutillak,
danak garbitu bear dizkigu
ill edo bizi etsaiak!».

Ingeles arro baten mendean
gebiltzan gure uretan,
ikara erazten ugarotarrak
eta beti lapurretan;
buruzari asko izanagatik
azkarrak itxas-udetan,
Okendo aren kontra juateko
autatu zan guztietan.

Milla seireun eta laugarren
urteko Agorra zala,
Dobladilla ta Delfin arturik
irten zan etsaien billa;
ingeleza ere jatzar oetan
izanik gizon abilla,
naiz zuena zan aren etsaia
azkarra izan zedilla.

Ikusi bezin laister aurrez aur
ekin zioten alkarri,
sartu ere eun gizon ontzira
ingelesak Okendori;
merezi zuten bezela onek
egiñaz ongi etorri,
lendabiziko pelea alditik
odol asko zan isuri.

Unesun (*sic*) berriz jende berriya
botatzen zion ontzira,
lengoen gisa are aisago
porrokatuta urera;
mutil bikañak galdu ta gero
portxan Okendon mendera,
bere etsaiakin txit garailari
sartu zan Cascaes-era.

Odeiaz goitik altxatu zuten
garaipen ospatsu oek,
eta etzituen ogei ta zazpi
urte gai pizkor onek;
Bizkaiako ontzidien buru
izenda zuen erregek,
Kantauriako agintza danak
etzuen laster ark bestek.

Jipoi ederrak eman zizkion
Olandako armadari,
kalteak egin zituelako
gure uretan ugari;
beste azaña eta serbizo
pranko eginda askori,
izendatu zan itxasotako
ontzi danen agintari.

Malla goien au iritxi eta
andik denbora gutxira
mairu samalda izugarriak
ertsitu zuten Marmara;
agudo juañ zan Okendo ernea
irriskutik libratzera,
baita desegin eta uxatu
biziro beuden etxera.

Baña Okendok izan zituen
jatzarrerik gogorrenak,
kondairak dio izan zirala
orain esango diranak;
batzuek ziran Brasilgo uretan,
ipar aldean besteak,
jendez ta ontziz askoz geiago
zirala beti etsaiak.

Santu Guziak ta Pernambuco
deritzazkioten plazak,
desegindurik lurperatuta
zeukazkiten olandesak;
gaztiga zuten Españiara
nola zebiltzan an gauzak,
Okendo laister bideratu zan
arturik neurri zorrotzak.

Brasil aurrean ontzidi biak
ikusteratu ziraden,
bi kapitanak laister alkarri
portizki ekin zioten;
gurutzatuak bezela trabes
buruz-buru burrukatzen,
zortzi orduan seta aundiaz
odol asko ixur zuten.

Hanspater jaunak ikusirikan
auzia oso galdua,
lotsaz beterik botatu zuen
urera bere burua;
irabazirik itxas-jatzarrak,
gelditu zanean sua,
etzuen iñork iges egingo
ezpazan añ urbil gaua.

Modu onetan itxaso aek
menderatuaz gañera,
garaitzen asko ekar zituen
berekín Españiara;
oetatikan erregalatu
zituen Arantzazura
bi arroako bala itxatxi bat
eta amabi bandera.

Oroikarriak izandu ziran
ipar aldeko jatzarrak,
ta batez ere irozotua
bakarrik Okendo azkarrak;
eun ta amalau ontzi zituen
olandesak txit gogorrak,
Okendok berriz nolapaikoak
ogei eta bat bakarrak.

Uruñ (*sic*) aundiaz eraso zion
olandesak Okendori,
begiraturik bien arteko
indartza desberdiñari;
biak alkarri ondoratuta
ontzi lodiak ugari,
ertsi zioten alde guzitik
gure umanta erneari.

Ondorazteko onen ontzia
edo ertzez ertz jotzeko,
egin zituen zenbat alegin
aditu ez bezelako;
nekez arturik etsimendua
etzutela garaituko,
Mardicen (*sic*) sartu zan geldituaz
guda tokia arendako.

Gortean estu-estu arturik
Tromp olandes jenerala
nola etzuan garaitu etsaia,
erantzun zuen onela:
kapitan ontzi españatarra
Okendo buru zuela,
egi garbiaz mintzatutzeko
garaitezgarria zala.

Lotsa aundiaz oso nastua,
etzekiela zer esan,
burua makur-makur zuela
aur bat bezela mintza zan.
Ote lezake esan etsaiak
geiago itz gutxigotan,
izan dan umant aundienaren
onra eta alabantzan?

Ainbeste neke, ibillera ta
jatzarretako erasoak
ekar erazi zizkion noizbait
gutziz ondore gaiztoak;
bere indarrak jausbetiturik
makaldu oso beruak,
laister Coruña-n eman zioten
etsimena sendakiñak.

Jaungoikoari kontu eman zion
Pesta Berri egunian,
sutunpariak ari zirala
prozesio bitartian;
bere burua miñez nasia,
oetik altxa nayian
burrukatzeke, urbil etsaiak
ziradelako ustian.

O Okendo jaun, Kantauriako
illezkor umant aundia,
berrogei ta bi urtez serbitu
zenduen Jaioterria;
sekula iñork desegin gabe
zure mendeko ontzidía,
zeñen ederki eman zizuten
izeden (*sic*) ain egokia.

Zure indarrak eta erruak
etzuten izan bildurrik,
askoz geiago aurkeztu arren
etsaiak ondo orniturik;
zure ontzia ta estandartea
onorez ondo beterik,
mundu guzia egon zitzaizun
begira txit arriturik.

Izan zitezen jatzar danetan
zure seña agiriak,
zira curaiá esagerata (*sic*)
biotzeko funts aundiak;
zure ametsak pake denboran
liburu ta ikas naiak,
erakusteko itxas-mutillai
gubernatutzen ontziak.

Biotz garbi bat izan zenduen,
sekula beztu gabea,
gutzik bezela izan ziñion
Españari amoreá;
Erregek zauzkan perill aundiak
ziradeneko gordea,
zekielako gertoi estuan
iñor etzala obea.

Iñork etzizun ezagutu, ez,
aundinai ta kutizirik,
zure ondoan etzenduen nai
ikusi losintzaririk;
joia berriak Españiarentzat
irabazkidatu nairik,
etzan izandu eun gudetan
bein garaitu zinduenik.

Arturgiezko oleder bana (*sic*)
o tallutu bear ziran,
gipuzkoatar onen azañak
irago ziraden eran,
bere oroitza aztu etzedin
gerozko giza-jendeetan,
ta batez ere itxasorako
jaiera duten aietan.

Altxa bezate bada lenbailen
oroikarri bat ederra,
ondorengoak jakin dezaten
nor zan Okendo illezkorra;
guzi-guziok nai degu ikusi
an umant kantauritarra,
galanki urbetatutzen duela galan
irospe baten gallorra. (*sic*)

Baña utsaldi au nere ustean
beteko dute euskaldunak,
dirala aurrena Donostiako
seme noble ta leialak,
zeren ez duen mugarik izan
iñoiz oen eman naiak,
onratu bear diradenean
alako ume argiak.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik.

Bertso auk nork jarriak diran ez da esaten; baiña Ramos Azkaraterenak ematen dute.

«Altxa bezate bada lenbailen / oroikarri bat ederra» eskatzen du 33-garren bertsoak. Tailluntza eder bat, gaur egun ere bertan irauten duana, 1894-IX-12-an altxatu zuten donostiarrak. Fetxa au baiño leenagoko bertsoak izango dira, beraz, auk.

24/8 lerroak, dagoan bezela, puntu txarra du. Bearbada, *etsimena medikuak* bearko luke.

Kosme Damian de Txurruka

Ez da egia gizaldi askok
zura dutela usteltzen,
ez da ziurra urtiak ere
gaztea dutela zartzen,
ez da jakiña gure bizitza
denborak duela aitutzen;
eta umantak beti bizirik
nola ditugu ikusten?

Umant aundiak nola dituan
ainbeste Euskal Erriak,
gaur alabatu gura nituzke
baten bertute argiak;
milla ta eunak badira ere
emengo aitz zein mendiak,
dira geiago ta aundiagoak
seme txit miragarriak.

Gizon guztien egin guztiak
kia bezelaxe beti berdin,
eriotzak bein orduko
oi ditu beti desegin;
umant aundien azaiñ argirik
denborak noiz ta noiz du ill?
Noiz eriotzak burrukatzeko
biotzik dauka oiekin?

Beraz etzaite, Arno oi ere,
etzaite izan aiñ arrua,
ainbesteraño altxaturikan
lerden-lerdenik burua;
seme bat badek ire errian
askozaz altuagoa,
zeiñen oñ-alki gaur ipintzeko
ez aut billatzen naikoa.

Nola zanpatzen duten umantak
oñakin galat (*sic*) ederra,
beren azañak zanpatu zuten
eriotz zital okerra;
illunduko onek aisako luke
egunsentiko izarra
itzali baño gizon ospatsu
eta umanten izena.

Motrikok dauzkan mugen artian
i aiz txit errez barrutzen,
Kosme Txurrukak leku geiago
ordea ziguk eskatzen;
erria ez-ezik erresuma bat
ez diat diña billatzen,
bere izena nijoalako
mundu guztian billatzen.

Apolo, zure laguntasuna
ederki letorkit emen,
bial zadazu musa eder bat
argituzera gaur, arren,
bazter danetan nere kantua
gozoro adi dezaten,
eta euskaldun umant batekin
arri ta zurtu ditezen.

Zurtu ditezen txikiak oso,
zurtu ditezen aundiak,
zurtu ditezen gizon illunak,
zurtu ditezen argiak;
zurtu ditezen denak guztiak
entzunik bertute aundiak,
Gipuzkoako gizon ernai baten
guztizko miragarriak.

Miragarriak dirala guztiz
esaten ez det lotsarik,
probatzeko ere itztxo bi baño
ez ditut biar besterik;
mundu guztiak ikusi beza
ote diodan gezurrik,
ote diodan Txurrukagatik
izandu ez dan gauzarik.

Nun da bestela itxas-gauzetan,
nun da onekiñ berdiña?
Nun da Txurrukak aña lan aundi,
nun da beste bat egiña?
Nun armari ta buruzaririk,
nun da au lako lapagiña?
Nun iskribatzen, nun arkitzen da,
nun Kosme bezin bikaña?

Ez det billatzen liburuetan
bat jartzekorik onduan,
ez det billatzen ainbeste doaz
jantzirik onen onduan,
ez det billatzen antziñaeran,
ez det billatzen gaurkuan,
ez det topatzen, ez det arkitzen
iñortxo ere munduan.

Bakar-bakarrik billatutzen det
Kosme Txurruka aundia,
bakar-bakarrik topatutzen det
doai danakin jantzia;
bakarrik nola izar danetan
argien dan eguzkia,
Kosme ere da itxas-gizonen
umant danetan nausia.

Kondairak kanta beza, nai badu,
il zala gure umanta,
irabazirik Trafalgarreko
jatzarren koroi galanta;
kantatuko det bañan nik beti
ori orrela ez dala,
koroi ederra gozatzeraz igo
zuela zeruetara.

Kantatuko det bizi zaigula
gizon ain miragarria,
kantatuko det bere bizia
dala ezin illgarria;
kantatuko det bizitza ori
dala umanten saria,
umant artean zeruan berriz
dala Txurruka jarria.

O, Kosme, jaso al banizuke
gaur nai nukean derria (*sic*)
itxasoaren erdi-erdian
Olinpo bezin aundia,
bere gañian ikustearren
altasunez zu jarria,
zeradelako España baten
seme ain onragarria.

Orrelakoxe jargoi eder bat
zerorrek dezu merezi,
arrigarrizko bertute oiekin
dezubelako irabazi;
mundu danakin beatz onekin
zatzaiodan irabazi,
oiuz esanaz: Ara an Txurruka,
nun jarri dedan ikusi!

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik.

Bertso auek nork jarriak diran ez da or esaten; baiña Ramos Azkarateren
lana dirala dirudi eta orregatik eman diegu leku liburu ontan.

2/3 lerroa ezin izan degu osorik irakurri.

5/1 lerroan aitutzen dan Arno oi, Deba eta Motriku bitartean dagoan
mendi bat da.

Bertso auetako lerro guziak ez dira ulerterrezak. Alde batetik,
Adurriagatarrak al zuten bezela kopiatuko zuten; eta nik ere aien kopiatik al
nuan bezela kopiatuko nuan...

Mutil zar gastatu baten birtuteak

Emilius, Castelarius, Maquetorum, Politiqui, Republicui, Anarqui, Federati, Untati, Erremi-orum, Conquistatorius, Libertas, Modernius, Deabrorum, Escritoris, Chuquinquerius, Omenatuz, Revolucionen, Francoisen, Discipulis, Voltairerum, Tribunus, Itzontzirus, Itzjariyorum, Desarrazoirum, Cesantorius, Comentorius, Ondatorius, Patriorum, Catoliqui, Apostoliqui, Romanius, Astesantorum, Libre, Cultistis, Pastelerius, Turronarius, Janorun, Tripanorum, Beticus, Nai bai, Beticorum, Amen.

Beltzarro Carmen

Zer birtuteak dituben gure
Castelar gizarajuak,
Olentzaro bat dirudiyen
buru txit galantakuak!
Kristinarekin kontentu zegon
mutil zar ganbelakuak,
lengo batean eman diozka
amari ipurdikuak.

Urregorritzko mokua duben
maketo kartoiezkua,
Manterolako Bizente zanak
oiñazpiratutakuak,
republikakin dianagusiya
izan zan pasteleruak,
jango lituzke, berak diyonez,
pozikan eltzekondua.

Blasco Ibañez jaunari esan
ziozkan bezelakuak,
ditu esaten bakar-bakarrik
pentsuban alderdikuak;
itz asko eta obra bat onik
ez duben politikuak,
diyo On Karlos baño obeak
dirala infernukuak.

Mami osuak jan dituzte ta
laster jan bear ezurrak,
guziro damu badute ere
uritarmenten sudurrak;
oso bukatu baño lendandik
txerri-tratuko apurrak,
juan bear dute larren azpira
Sampson, Devey ta lapurrak.

«Erregeentzat gure erriyan
ez da arkitzen lekurik,
—diyo Castelar uritarmenak
On Karlos gogoraturik—;
republika ta ni gabe emen
ez dago salbaziyorik,
zergatik Karlos badator eta
ez dago eltzekondorik.

Liberal danak bat egiñikan
jarriko da republika».
Karlisten kontra alkartu eta
noizko dezu Amerika?
«Absolutorik ez degu bear»,
a pizti gezur-fabrika!
Libertade au galdu ezkeru
urkamendira korrika.

«Ez det pentsatzen nere etxetik
batere mugituzia,
ta sinisten det neronen billa
jendeak etorritzia;
eta Thiers-en moduban nik
erriya salbatutzia».
Ori bai dala bizi guziko
ganbela eskatutzia.

Ez al dakigu Emiliotxo,
egun batez Zaragozan
jendea gerran jarri azi ta
andikan nola irten zan?
Republikano kartoiezku
leiala izandu bazan,
Doña Kristina eta Alfonso
maitatzen biziko al zan?

Ez baleukake erri maiteak
au beste salbatzallerik,
ez balegoke redentore bat
bizi-patzalle oberik
baleukateke txerri mardulak
onen beldurra bakarrik,
Maine ta guzi emen lirake
«Biba lapurrak!» deiturik.

Bañan dakigu nun daukaguben
gure bizi-patzallea,
Castelar eta pintarratuben
erdoi en kendutzallea;
Euskal Erri ta Gaztelaniyan
benazko salbatzallea,
txerriyak eta txerri-zaleen
onrazko garaitzallea.

Bukatzerako esango diozkat
Emiliori bi egi:
ari-albaño baten gañian
ez dedin dantzan ibilli;
bere denboran ez dubelako
ganbelatikan geiegi,
obe dubela Londres aldera
agudo iges itzuli.

Tolosako Timoteo Adurriaga
zanaren bildumatik.

Bertsoak norenak diran ez da esaten. Baiña Ramos Azkaratek moldatuak dirala ez det uste iñork dudarik egingo duanik.

On Kosme Damian Txurrukakoari

Bizitu ziñan gizondiyantzat,
ziñan il Patriyangatik,
zure anima joan zitzaizuben
zerura Trafalgarretik;
bañan munduban zure izena
bizirik da il geroztik,
koroï ederrez apaindurikan
inguru guzietatik.

Umant illezkor gipuzkoatar,
Motrikoako semea,
itxaso baztar aldapatxoan
daukazu zure ponteaz;
antxe daukazu altxaturikan
oroigarri bat zurea,
esanaz nola ziñan ta zeran
Españiyaren onrea.

Kosme doatsu eta jakintsu,
katoliko txit aundiya,
Luterotarrak zapal dutako
zaldun bentzutezgarriya;
itxas-gudari danentzat zaude
ixpillu miragarriya,
onraren billa abiyatu da
Sorterri negargarriya.

Zuregatican irakurtzen det:
«Il zan omenez beterik»;
bañan, len esan dedan moduban,
arkitzen zera bizirik,
onra-zaleak Españi ontan
nola badiran oraindik;
bañan Patriya galdu dutenak
ez dute il nai txerririk.

Bai al zenuben *Nepomuceno*-n
zuk esan: «Biba errege!
Au ez da ezer!» deitubagatik
belaun bat galduta ere?
Eta bestetik gaur españolak
orduko gisan al gaude?
Al gera egon, gauden moduban,
masoien mende beñere?

Baña gaur ere badira noski
Opasen jarraitzalliak,
ibai nastuban modubarekin
dabiltzan arrantzaliak,
goi malletara igo ta gero
turroi gozoen jaliak,
Sagasta eta Moret santuban
benazko adiskidiak.

Traidoriakin ez dago bañan
jaten ez duben jendea,
gaur Españaia dagoalarikan
beartsu edo pobrea;
nai da salbatu armen indarrez
Sorterriyaren onrea,
lajaturikan alde batera
Moret eta etxeoandrea.

Esan zaiezu Urdaneta ta
Legazpi doatsubari,
Lezo, Elkano, Bidazabal ta
Okendo illezkorrari,
erregutzeko guregatican
Jaungoikoaren Amari,
zerri ta guzi ontzi guziyak
ondu ditezzen sarri.

Kosme Damian Txurrukakoa,
lagun egizu zerutik,
begira zazu Españiyara
arren Jaungoikuagatik;
illtzen diranak igo ditezzen
zerura zure bidetik,
bizi diranak izan ditezzen
txerri guziyen gañetik.

R. A. eta O.

Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik.
Bertsoak norenak diran, aldi ontan esaten da.

Iparragirreri

Gernika aritz kantalaria
il dala aiturik dianari,
negar-malkuak ixuri zaizte
Euskal Erritar onari.
Zorioneko Iparragirre,
baldin bazera kantari
Paradisoko arbolapian,
esker millaka Jaunari,
ala izan dedin guk erregutu
zaiogun ziñez berari.

Bertso bakar au ere Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaien idatzietatik artua da.

Nork jarria dan ez da esaten; baiña Ramos Azkaraterena dala ematen du.

**Bizente Manterola,
eliz-gizon, jakintsu ta
aitamen aundiko itzlaria**

Aurten omen batetzaz
autu du agorra,
giza-irudi bat jaso
bearra dagola...
Noizbait ordaindutzia
izaten da zorra,
eta uriyan zaie
etorri gogora
zala Donostin bein bat
jaio Manterola,
eleiz-gizon jakintsu,
itzlari jatorra,
uka nai etzuen
euskaldun odola,
naiz goiak artuz egon
liberal eskola.
Kortietan nabarmen
sinistgabekorra,

an dijoa apaiza
gogoz azarora;
baita jetxi azi ere
arroen gandorra,
zartatuz doñu gabe
utziz beltz-danborra;
bere itza da antxe
zorrotza aizkora,
ebakitzen duena
gezurti dollorra,
denen gañ garailari
irtenaz goi-gora...
Ura da itzegitia,
bai, arrano pola!
Ark mututu zun ziur
Castelar kotorra...

Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jasoa, makinaz idatzitako orri-
txo batean.

El Correo de Guipúzcoa
(1899-1904)

On Ignazio Nuñez zanari

Ez nuen asko nik pentsatutzen,
ai Ignaziyo maitea,
ikusitzerik gure *Correo*-n
zure ill-berri tristea,
ziñalarikan nere aldean
alaia eta gaztea;
bañan zer egin, bada izandu
Jaunaren borondatea?

Baizikan ziñan pobrearekin
aberatsakin bezela,
naiz gerratean, naiz botoetan
ez baziñaden epela;
besteren gauzai begiratutzen
etziñalako motela,
iduritzen zait Markes leialak
negarra egin dutela.

Makiñatxo bat urte badira
ezagutu zinduztala,
Iraetan ta beste lekutan
zurekin bildu nintzala;
ezpada ondo nik esatea
txit atsegiña ziñala,
Olaskoaga Aizarnatarrak,
nai badu, esan dezala.

Barka dirazu, Nuñez maitea,
utsegin badet ezertan,
zergatik oraiñ ere zurekin
ondo gelditu nai detan;
errezatuko dizut euskeraz
egunaz eta gauetan,
gertatu dedin zure anima
gozatzen zeru goietan,

Gutziz alaia izanagatik
ziñaden kristau osua,
euskal garbiya, karlista fiña,
leñargi¹ eta gozua;
ziñan guzizko kanta-zale bat,
lagun artean prestua,
ta etziñaden beartsubakin
gordetzen ziñan paltsua.

Ramos Azkaratekuak

El Correo de Guipúzcoa, 1899-III-11

¹Noble. (Egillearen oarra).

Orañ degu denbora

Gerra, bai, gerra egin deiogun
Jaungoikoaren etsaiari,
gerra itzetan, gerra obretan,
gerra maketo guziaz;
gerra bototan euskaldun gaizto
Tovar, Patriren anaiari,
Euskal Erriya maketotu nai
duten euskaldun samini.

Orañ elkartu geradelako
euskaldun katolikuak,
lege zarrak txit maite ditugun
ibero benetakuak,
daude kiskaltzen, daude prejitzen
Kaiñen alderdikuak,
Maketaniko *Voz*-a ta beste
paper beltz infernukuak.

Nola bentzutu izan ginduzen
erromatar ta goduak,
bai eta ere Gaztelaniyan
indar aundiko moruak,
nola garaitu bear gaitu gu
tranpiyan edo diruak,
badira beltzak, aiek bezela,
guretzat estranjeruak?

Argatik goazen botoetara,
goazen gu elkarturikan,
Euskal Erriyan ez dedin irten
geiago maketorikan;
goazen, bai, goazen bildurrik gabe
esanaz biyotzetikan
guk ez degula maketorik nai
munduko gauzengatikan.

Ez gaiten aztu nola lapurtu
zituzten gure Furuak,
ez gaiten aztu zer egin zuten
orduban euskal gaiztuak;
beren semeak libratzeakin
ez dira katolikuak,
baizik anaiak galdu zituzten
Kaiñen banderakuak.

Biktor Pradera eta Larumbe
da Iruñeko semea,
San Fermin jaio zan erri artan
dago jaun onen ponteak;
da katoliko, da euskaldun bat,
da onran adiskidea,
da beargille, da iztun eder
izugarritzko trebea.

Ez dakit bada Juan Olazabal
danaren bizitzarikan,
bañan euskaldun argi bat dala
badakit aspalditikan;
katoliko ta fuero-zalea,
dala pruebak emanikan.
irten bear du, bai, diputadu
Iñigon barrutitikan.

Katolikuak elkartasuna
zintzoro gordetzeakin,
ez gaituzte gu iñoiz galduko
tranpa ta dirubarekin;
elkartasuna dala indarra
guk aurten kantatzeakin,
Maketaniya baietz biraldu
laisterka maletarekin?

Nola Pradera ala Olazabal
diradelako osuak,
biyak jarri nai ditu goi-goian
gaur Euskal Erri gaixuak,
beragatikan eman ditzagun
bear bezela pausuak,
ez dezan iñoiz bururik altxa
gure borrero paltsuak.

Euskaldun batek
El Correo de Guipúzcoa, 1899-IV-15

Liberal batzuen lengo eguneko kanta

Maketaniko Torresko Tovar,
urre gorrizko Markesa,
gure igesi Frantzira joan ta
zer demoniño zabilta?
Zure kontura jan gendubentak
negarrez emen gabiltza,
gogoraturik lengo urteko
zure diruzko ekaitza.

Zer digu guri izanagatik
Judasen jarraitzalliak,
zu bañon Judas aundiaguak
badira gure jefiak?
Zer digu bada aitortutzia
gerala txiñ-txiñ zaliak,
nagusi oiek baldin badira
euskalen ondatzalliak?

Beragatikan etorri zaitte
bañan zakuba beteta,
gañerakuan egon ziñezke
Paris aldean gordeta;
ez bada emen azkar agertzen
zu eta zure maleta,
ezetz argitu zuri geiago
gure jefeak kopeta?

Katolikoek elkartasunak
sartu badizu bildurra,
zuk egin zazu zillarrarekin
zortzi kanako elurra:
guk ederki jan, obeto edan
ezkero zure kontura,
zer digu guri zuk autsi arren
bototan zure sudurra?

Badezu baña ez bazenduke
ugari diru santurik,
zure kontura farra egiñaz
gaur zenbait badaudelarik,
ez bazenuban ala partitu
paper, zillar ta urrerik,
zuk etzenduke iñoiz izango
gure boto bat bakarrik.

Argatik bada jarren bekarri (*sic*)
onuntz millaka duruak,
bai eta ere len bezelako
zigarro Habanakuak;
len arrapatu bagenituben
bañan, bañan nolakuak,
guk ebatsi nai ginduzke aurten
askoz borobillaguak.

Zerengatikan nai ez dezuben
berriz diputadu izan,
etzaiozula Jainkoangatik
Patriziori zuk esan;
zuk jakin arren au engañatzen
negarrez nola dabilzan,
aurten beñepein laja zaiozu
batzuek gizendu ditzan.

Argatik bada, Tovar maitea,
zaude Madrillko erriyan,
Parisetikan aruntz joan eta
pake poz emangarriyan;
zu txit aspertu baldin baziñan
Tolosako barrutiyan,
ezetz García berriz etorri
bere bizitza guziyan?

Bi kandelana, kandelana bi
kontatzen diotenian,
eta gu farrez, gu dantzatutzen
ikusten gaitubengan,
Biktor Pradera jipoi goiena
ematen digubengan,
zer komediyak diran izango
botoen ondorengian!

Zu bezin bero, zu bezin arro
jaun au ez dabillearik,
irabazteko ez bada senti
bear añako indarrik,
onen kontura gaudelarikan
lau egunian bakarrik,
ez digubela Don Patriziok
guri egiten agurrik?

Euskaldun batek

El Correo de Guipúzcoa, 1899-IV-16

On Biktor Pradera eta Larunbe jaunari

Dalarik lege infernukua
maketo beltzak sortuba,
ta debekatzen dubelarikan
dantzatutzia diruba,
bañan zabaldu dutelarikan
burni madarikatuba,
zakuba ustuta joan da itzuli
maketo gorrotatuba.

Zerubak entzun digubelako
katolikoai ojuba,
ibai Oriyak deitzen du: Biba
euskaldun diputatuba!
Dator deitubaz: Bizi dedilla
barruti bedeinkatuba!
Diyo Uzturre nola dan izan!
García-n kanposantuba.

Joan da, bai, joan da Donostiara
buruba makurturikan,
lotsagarrizko jipoi aundi bat
arturik zuregandikan;
joan da igesi zaku ta guzi
maleta arindurikan,
euskaldun gaizto maketotarra
agur egin nai ezikan.

Zu alai-alai baldin bazaude
gu gaude alaiaguak,
zerengatikan lur-azpiratu
ditugun estranjeruak;
deitubaz gaude gaur zedorrekin:
«Bizitu bitez fueruak,
eta bitez ill Euskal Erriyan
etsai beltz infernukuak!».

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-IV-20

¹ Uzturre Tolosa ondoko mendi bat da.

On Juan Olazabal eta Ramery jaunari

Ez jakin arren zenbaiten gisan
nik zure bizitzarikan,
bañan kantatu nai nizuke gaur
neronen animatikan;
zeradelako zu diputadu
atera Azpeititikan,
sinista nazu nola nagoan
osoro zoraturikan.

Katoliko ta fuero-zalea
zeradelako izketan,
zera euskaldun oso-oso bat
erru gabea obretan;
Praderarekin anaiaturik,
maketoekin Kortetan
fueroen alde ibillituko
zerate biyok burrukan.

Joan dan igande arratsaldean
ezagutu bazinduztan,
ez dezazula bada pentsatu
gaur nagoala damutan;
zaldun atsegin asko ikusi
baditut nere urteetan,
aietako bat zu zeradela
aitortzen dizut benetan.

Ez dirubakin, ez diru gabe,
ez da zuretzat etsairik,
ez daukalako ibai Urolan
otso paltsuak indarrik;
beragatikan felizititzen
dizut biyotzan barrendik,
gaudelako gaur euskaldun onak
guziro anaiaturik.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-IV-20

Pestak aurea obe du ondorea baño

Zergatik daude miñeriturik
euskal maketo-zaleak,
Euskal Erriya galdu nai duten
fueroen salduzalleak?
Zergatik daude orren aserre
gurasoan iltzalleak,
zori onaren ondatzalle ta
gaiztoan ekartzalleak?

Ama Euskera daukatelarik
erdalak gurutzetuta,
larogei urte joan diranetan
beltzak martirizatuta,
beraren seme gaiztoengatik
dago larrugorrituta,
ta aurten ill nai ziguten oiek
diruzko lantza sartuta.

Ez diyotegu iñoiz deituko
Judasen adiskidiak,
diralarikan beren anaien
lur-azpiratzalliak;
bañan zergatik ill nai dituzte
euskaldun libertadiak
eta zabaldu baserriyetan
Maketaniko legiak?

Bañan guk maite degubelako
gure Ama koitaduba,
bai eta ere Amarekin bat
Euskaldun-Erri dontsuba,
elkarturikan euskaldun onak,
gorrotaturik diruba,
Maketanira birali degu
Lonjinos... kortinatuba.

Partir, García, Fernán, Kortina,
au da anguanekua...
Kortin, Fernández, Garci, Partirzio
maketo zillarrezkua;
Potzolongeko Leonardo ta
Petrolo Iurrezkua,
deizkiyotzute irutasun au
ez dala infernukua?

Orañ diyote batzuek saldu
dutela kontzientziya,
batere lotsik gabetanikan
esan digute egiya:
Kortinas jaunak ez bazioten
ekarri zaku aundiya,
etzuben emen ala galduko
partidu lotsagarriya.

Aitortzen degu nola badiran
dirutan saldutakuak,
ezetz aitortu zenbat txupatu
dioten beltzetakuak?
Aberatsaren izeneko ta
gañera gañerakuak,
ugari aski badituzte gaur
Partir-en bost durokuak.

Len Jaungoikua deitzen ziyenak,
noski astelen goizian,
irten nai ezik gordeta egon
omen ziraden etxian;
Donostiyara lau begirekin
aldegin ziyen kotxian,
eta geroztik an omen dago
gizarajua oyian.

Ez dadukate arrapaturik
beste bat orrelakua,
beltzen botoa pagatutzeko
alako diru mordua!
Argatik deitzen ziyoten denak:
«Kortinas biyotzekua!».
Esaten ziyen: «Zu zerade, zu,
Jaungoiko egiyazkua».

Gizarajua deitutzen diyot
bañan ez atsegiñakin,
baizik botatu ziotelako
lagunak dirubarekin;
berriz etorri baño obe du
jolastu Kandidorekin,
illea ondo artutzen diyon
bandido gurearekin.

Euskaldun batek

El Correo de Guipúzcoa, 1899-IV-22
Zuzendua: 4/1: Ama Euskera dazatela-
rik.

On Anjel Kruz Otxoa eta Zabalegi jaunari

Roncesvalles edo Orreagako
gerrari aien jatorra
zeran edo ez dago esaten
liberalkeri dollorra;
Kortean izan baziñaden zu
napar koskor bat gogorra,
gaur zerade zu maketo beltzak
elbarritzeko zigorra.

Argatik burla egin zizuben
La Voz maketa paltsuak,
Maketaniko Matxinbarrenan
andre zar edo atsuak;
Txandan eta... letraduba ta
apaiz ta kanoniguak,
esan zituban zuregaitan
sorgin txar infernukuak

Boto erosten ainbeste diru
partitu eta ondoren,
bai al dakizu *Voz*-aren burlak
nola altxatzen zaituben?
Lau txakurrean edozer gauza
nola zabaltzen dakiyen.
onek burlatzen duben gizona
dago zeruban barrenen.

Argatik ala bota zizuten
euskaldun oso-osuak,
zuretzat pozaz zituzten eman
boto amodiyotsuak,
zuk Senaduban autsi ditzatzun
libertade txit paltsuak,
ditzatzun altxa lorez beterik
gure Fuero zar gozuak.

R. A.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-V-7

On Ignazio Etxaide eta Etxebeste jaunari

Oiartzuneko Ibar alaian
jaio ziñaden semea,
Done Esteban Lartaungoan
daukazu zure ponteaz;
oraiñdik Ama Euskera garbi
gordetzen duben jendea,
antxe bizi da ikusi nairik
euskaldun libertadea.

An maketorik ez dute maite,
ez ere euskal gaiztorik,
beren nekean mesedeakin
bizitzen diradelarik;
euskaldun dantzak, euskal oiturak
gaur arte daude bizirik,
Euskal Erriya, Euskal Erriya,
aientzat ez da besterik.

Oiartzundarrak euskal osoak
badira jatorritikan,
bizi diranak maketoekin
kutsutu gabetanikan.
Zer ote det nik gaur kantatuko
euskeraz zuregatikan,
euskal oso bat zu zeradela
banago sinisturikan?

Nik kantatuko dizutana da
Kruz Otxoari bezela,
dakitalako gure moduban
fuero-gosiak zaudela;
esan zaiozu Senadubari
elkarturikan gaudela,
Euskal Erriyen alde odola
ixuri nai degubela.

R. A.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-V-7

On Luis Zurbano eta Alzibar jaunari

Zure seaska maite dezuben
lore piñ segurukua,
erru ta tranpik bageko seme
zaldun leialetakua;
zeradelarik gurasotatik
argidotarretakua,
zera Irigoki ta Jaunmeneko bat
etsairikan bagekua.

Argatik zaude gaur senadore
zeradelako txit piña,
zeralakoan euskaldun zintzo
guzirozko atsegiña;
Otxoa eta Etxaiderekin
nola zauden bat egiña,
irurok antxe joko dezute
zortziko ariñ-ariña!

Txit aberatsa izanagatik
mendian bizi zerana,
eta zureztat bada Segura
amodiyozko laztana;
bada Segura euskaldun zaldun
goienekuak emana,
zu zera zaldun zaudena beti
fuegoengana etzana.

Ez izan arren bada zurekin
iñoiz tratamenturikan,
euskal zaldunak ezagutuzten
ditut nik istoritikan;
zerarengatik doatsutuzten
dizut gaur biyotzetikan,
itzak neurritzen eta kantatzen
argal bat naizelarikan.

R. A.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-V-7

1/7 lerroa egunkari ontan dagoan bezela kopiatu degu, baiña ez degu ulertzen.

Orañ juzgatu zazute zer dan konfiantza edo diruba

Diruba sortu zan ordutikan gure egunetaraño, aurtan Tolosan igaro danik ote da pasa gaurdaño? Esan oi degu diruba ohea dala konfiantza baño, diruba izan ezkeroztandik munduba estaltzeraño.

Orra García diru askokin ta Biktor diru bagia, orra diruban alde Leandro Arkaute eta Mendia; orra liberal katoliko ta republikano taldia, oiek dakite diruba edo konfiantza dan obia.

Dirubarekin billatu arren Judasen adiskidiak, badira ordea Euskal Erriyan oraiñdik onran zaliak, esan ziyenak tratariyai: «Maketo lotsa bagiak! Deizkiyozute diruban alde daudela boto guriak?

Len emen gaude negar egiñaz zuek fueruak salduta, fueroen truke zuek benturaz diruba pranko artuta; zuen semeak daude bizirik, gureak lurperatuta, ta boto eske zatozte oraiñ lotsa guziyak galduta?

Polavieja ta Silvelakin pastela antolatuta, Euskal Erriya nai zenduteke ipiñi gurutzetuta; iges Tovarri, aurtan Patriri borrorotzan lagunduta, al dezute nai zeru eder au jarri larrugorrituta?

Jarri zazute ordu onean gurutzeari josirik Ama Euskera, Ama dontzella, estalgarriyak kendurik; il zazute, il, bañan ez tranpan, maketo deklaraturik, il bañon lendik zaudetelako osoro kondenaturik.

Judasek saldu zubelarikan
dirutan bere Maisuba,
paltso aundiya izan zalarik
il zuben bere buruba;
Ama Euskerak ematerako
Jaungoikoari kontuba,
aldez aurretik kantatuko du
nun il zan Gaon juduba».

Iñoiz berentzat duro bat izan
ez duten baserritarrak,
erakutsitzen zizten zenbaitek
beren kolkoko bizarrak;
baziran noski langille eta
nagusi beltzen maiztarrak,
errez garaitu nai zituztenak
bost duro txarren indarrak.

Zer leziyua ziyoten eman
pobreak euskaldun txarrai,
gure istori maitagarriyan
etsairik beltzen-beltzenai,
bi milla bider Judas ber-bera
zan baño gaiztoagoai!
Itzegiteko ere lekurik
ez omen ziyen eman nai.

Orañ juzgatu zazute zer dan
konfiantza edo diruba,
sinistatutzen degubentzat
badala beste munduba,
konfiantzarik etzeukelako
García-n zaku dontsuba,
zaku ta guzi il zan Tolosan
maketo gorrotatuba.

Bestela galde Orejan eta
naiz Gazteluko uriyan,
galde Belauntzan, galde Berrobin,
galdetu *Muña... gorriyan*;
galdetu onen lagun *tximista*
apaiñdu degun erriyan,
Erriojako *pipermorrua*
ixpi... daukaten tokiyan.

Dedilla bizi, bizi dedilla
Euskaldun Erri kutuna,
bizi dedilla euskal ziñezko
guziyen elkartasuna;
ibar mendiyak izan dezaten
euskerazko osasuna,
gorrotatubaz bizitu gaiten
beltzen maketotasuna.

R. A. O. eta Z.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-V-12

On Ladislao Zabala eta Etxaide jaunari

Tolosan aukeratu ditugun bost erregidoreari

Dakitalako zeradela zu
atsegiña ta gozua,
euskaldun kristau, euskal leñargi
ta zaldun birtuosua;
zeradelako asabetatik
tolosar bat txit osua,
beti deituko dizugu zuri
anai amodiyotsua.

Toledo eta Balentziyatik,
Vich eta Hueskatikan...
nai ginduzteke bada eraman;
gogotik kantaturikan
ez gerala gu maketotuko
iñoiz iñorengatikan,
egon leitezke *Sanson* guziyak
guziro sinisturikan.

Zuk badakizu nik bezin ongi
zer era tristean gauden,
bai eta ere *artzai* goienak
nola lotu nai gaituben;
elkartasuna indarra dala
nola ikusi deguben,
modu onetan euskaldun txarrak
galduko ditugu emen.

Nola ditugun osoro maite
Jaungoikoa eta Fueruak,
Ama Euskaran erromeri ta
euskaldun usariyuak,
esan nai degu, zedorrekin bat,
euskal elkarganatuak
nai degubela guk beti izan
Aitorren odolekuak.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-VI-6

On Jose Elosemi eta Zabala jaunari

Tolosan aukeratu ditugun bost erregidoreari

Bedeinkatuba dedilla izan
Jainkoan Probidentziya,
zaitezela izan bedeinkatuba
gure Dianagusiya¹;
errubageko tolosar zintzo,
fuero-zale txit aundiya,
zer kantatuko ote dizut nik,
zaldun piñ maitagarriya?

Al dauka iñork eskubiderik
gu aruntz eramateko,
ta biyotzean dadukaguna
guri derrigor kentzeko?
Guk bai badegu eskubidea
erdalai erantzuteko,
ez degula aiek nai dutenikan
beñere ezagutuko...

Ladisi esan diozkatena
bear dizkitzut gaur esan,
zerengatikan gu lotu naian
alfer-alferrik dabilzan;
katoliko ta fuero-zaleak
nola nai degun guk izan,
nai degu bizi, nai genduke ill
euskaldun osoen gisan.

Milla berreungarren urtea
beti daukagu goguan,
Alfonso zortzigarrenarekin
nola giñaden orduan;
era artan gu jarri artean
Euskaldun Erri dontsuan,
gaur geradenak gera izango
gure bizitza osuan.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-VI-7

Zuzendutakoak: 2/3: zerengatikan gu lotu naia; 3/3: ta biyotzean dauka-
guna.

¹ Presidente. (*El Cántabro*-ren oarra).

Goierritarren lamentazio edo dolamenak egiyazko Gipuzkoaren maitatzalleai

Nola Euskaldun Erriya danik
ezertan ez dirudiyen,
nola Lege Zar santu dontsubak
lurperatutzen dabillen,
eskribak eta fariseuak
nola or bizi diraden,
ez Donostiya, baizikan deitu
deioguke... *Jerusalen*.

Al bagenduke urez bigaldu,
Matxinbarrenan barrenen,
Maketaniko ontzi beltz ontan
Txinara alik laisterren,
balegoke gaur *Jerusalen* au
lan txarrarekin... Pekiñen,
ber-bertatikan lege santubak
pixtuko lirake emen.

Gipuzkoaren ondatzalleak
nola or ugari dauden,
Egiputzuba maite dutenak
ere badauzka barrenen;
Bañan *jauntxo*en talderi orrek
zurrupaturzen dakiyen,
gurutz-illtzatu bear gaitu gu
denbora gutxi bañon len.

Diputazio goitua eraman
bazuban Tolosatikan
Premiñ Lartxarak, Aita Canovas
lumeraz igurtzirikan,
bai al du egin *Jerusalenek*
gaur arte ezer onikan,
gu ondatu ta bere buruba
edertutzia baizikan?

Gezurra eta biziyoekin
nola bizi bear duben,
edertzen dala tranpan ta saltsan
fuerua ill ta... ondoren;
Ponzio Pilatos pasteleruak
Jesus illazi bazuben,
pentsa ber-bera *Jerusalenek*
nola egingo diguben.

Probintziyako Palaziyuan
gastatu bazan diruba...
aldameneko etxean ere
eltzeak eta *kaikuba...*
Zartagiyakin burruntzaliya
eta *krispi* bat pixuba...
Maketotarrak noski eragin
azitzen dute kastuba...

Berreun milla pezeta aundi
bestetan bañon geiago,
pagatu bear Matxinbarrenan
botoa dala mediyo!
Ta *Laskibarri...* ote diozkate
berriz botoak emango,
onengatikan *Jerusalenen*
baditu urreak jango?

Tranpan ta saltsan diradelarik
guziro azkar-azkarrak,
berenetikan dira zurkaitzak,
besterenetik leialak;
ogei ta iru milla pezeta
Azpiri eibartarrak
kendu zizkigun orraztutzia
Matxinbarrenan bizarrak...

Itxusi bañon itxusiyago
dabil Diputaziyua,
esan nai nuke Matxinbarrena
bizarren amarrekua;
bañan izanik Luis Laskibar
seme jakintsutakua,
nola juan zera zu Matxiñekin
bazera Tolosakua?...

Naiz ezin bizi baserritar ta
gañera gañerakuak,
lotsatu gabe obratutzen du
Matxiñen amarrekua;
Ez badegu gaur gogorpetutzen¹
euskaldun egiyazkuak,
esango dute guregatikan
gerala pasteleruak.

Antiguako tunela eta
Amaran Ikaslekuba,
migeleteen mausera eta
Zurriolako kontuba...
Justiziyaren Palaziyo ta
lujo madarikatuba,
eta nork daki zer dan oraindik
Matxinen pentsamentuba?

Gogorpetatu dezagun denok
illundurikan kopeta,
gaudelako gu oien obrakin
zintzurreraño beteta;
guziro beltza eta lakatza
baña Matxiñen beleta,
txit beltzagua, lakatzagua,
izan dedilla *protesta*.

Goierritar batek

El Correo de Guipúzcoa, 1899-VI-8

¹ *Protesta*. (*El Cántabro*-ren oarra).

On Luis Zabala eta Esnarizaga jaunari

Tolosan aukeratu ditugun bost errejidoreari

Zeradelako tolosarra ta
guzizko Jaungoikozkua,
nai eta nai ez zera zu ere
euskaldun osotakua,
zure senide eta aideak
diraden bezelakua;
aberatsa ta gaztea izan arren
zaldun errespetokua.

Nik bañon askoz obetoago
ikusten dezubelarik,
nola dabilzan oraiñ batzuek
gu arrapatu eziñik;
aurreko biyai bezela zerbaít
kantatu nai nizuke nik,
maketotuta ez dagolako
fueruak gozatutzerik.

Al deizkiyotzu arrazoizkua
an goitik agindutzia,
eta ainbestez euskal osuak
osoro umillatzia?
Al deizkiyotzu bidezkoa dala
Amatzat... ezagutzia,
ta gure Ama Euskerazkoa
guregantikan iltzia?

Ez diyotegu guk paltatu nai
iñoiz fedeko gauzetan,
baizikan libre nai degu bizi
gure ibar mendiyetan;
berarengatik etzan baño len
euskal osuak beltzetan,
Japongo aiek bezela illko
gera gurutze banetan.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-VI-9

Zuzendua: 3/8: gugatikan iltzia.

On Juan Ignazio Erzilla eta Ziaurriz jaunari

Tolosan aukeratu ditugun bost errejidoreari

Baneki nola zurekin asi,
banekike zer kantatu,
bañan ez dakit nola demontre
moldaera antolatu;
zure itzaldi Zirkulokoak
bazaizkit gaur bururatu,
nere biyotza zuk dirazu, zuk,
bere lekutik mugitu.

Etzeralarik zu tolosarra
zera Alegriyakua,
zerade zure aita tolosar
zanaren odolekua;
zera kristau bat, zera euskal bat,
zera jakintsutakua,
ustez azkarrak diranak baño
benturaz bizkorragua.

Bañan besteai antolatu ta
zuri ez antolatzia
litzake Fuero-zale batekin
ni gaizki portatutzia;
argatik al dan bezela nai det
gaur zuri kantatutzia,
Gipuzkoako Korreo-tikan
ziñez felizitatzia.

Izanikan zu ala bear ta
egiyan banderakua,
zerade onra aundiyarekin
beltz bat garaitutakua;
onetarako nizubelako
eman lenengo botua,
felizitazen dizut biyotzez
gaur zure garait-ondua¹.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-VI-1

¹ *Triunfo*. (*El Cántabro*-ren oarra).

**Gure Diputaziyoko
Presidente edo Dianagusiya
On Jose Matxinbarrena jaunari**

*«Que la Majestad Real no pedirá
empréstito alguno a la Provincia, ni
impondrá en ella filfas, imposiciones,
ni tributos, ni enviará Corregidor sin
que la Provincia, o la mayor parte de
ella, se lo suplique a su Majestad».
(Título II, Capítulo VII de los Fueros
de Guipúzcoa.)*

Zeralarikan aberatsa ta
On Jose Matxinbarrena,
eta orobat donostiarretan
gutziz donostiarrena...
Zeradelarik Maketaniko
txarro *beltzaren* kirtena,
zera Kadizko Korte gaiztuak
sendotzen dituzubena.

Nola naigabe ta oñazeak
sufritzen bizi geraden,
zuek atea iriki eta
sartu ziralako emen;
nola ekaitz bat aundiyagua
Billaberdetik... datorren,
ikusi bear zera euskala
edo erdala zeraden.

Etzeralako Lasala bezin
argala eta errena,
baizikan gutziz jakintsuba ta...
izketan aberatsena;
baiñan erderaz goian dagona
nola dan arma zuzena,
da Gipuzkuan Aita guziyak
usatu bear dutena.

Pentsaturikan ez geradela
mundu ontako bakarrik,
nai bañon lendik nola joan bear
deguben denok emendik;
nola ez dagon libratzerikan
justizi zuzenangandik...
lenaz gañera ez dezazula
ekarri negar berririk.

Uzta illaren ogei ta bata
gogoan degu oraiñdik,
ogei ta iru urte aundiyak
ill ontan diradelarik;
zuen orduko jokubarentzat
al dago barkaziyorik,
ta arrezkero gu zatitutzen
nekatzen zeratelarik?

Ez al dezute onra apur bat?
Ez al dezute lotsarik?
Ez al dezute bada sentitzen
Jaungoikoaren bildurrik?
Egiputzuba gurutzetuta
ipiñi dezutelarik...
ote diguzu oraiño ontan
egingo judaskeririk?...

Zu eta zure bederatzikua
zerate amaika boto,
beste amarrak ez dituzute
iñola atzeratuko;
naiagatikan Maketaniyak
Euskaldun Erriya ito,
ala gertatu bañon lenago
zerate guziyok illko.

Euskal Pestetan ez badezu nai
entzun euskeraz sermoirik,
aurretik esan dizutana gaur
uste det dala alferrik;
alako lanak zere denboran
zaude... ezikan egiñik,
al dezu bada euskerazkorik
apellidua besterik?

Alaz guziyaz ez badezu zuk
gure errukimenturik,
esan nai nuke, ez badiguzu
ematen prueba oberik,
ez badezu nai legearekin
lotsatu Billaberderik...
denboraz zera buruz beera zu
odoietatik zintzilik.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-VII-9

Karmen Larrañaga eta Elosegikoa zanari oroitz bat

Iñigoren seaska
dagoan tokijan,
Azpeitiya deitzen
diyogun kabijan,
euskal on asko jaio
diraden uriyan,
santu aundiyan ponte
guzizko garbijan,
bataiatu zan Karmen,
nere iritziyan.

Karmentxo Larrañaga
Elosegikua,
senar gozotsubaren
emazte gozua,
lau aurren ama zintzo
zorionekua,
esankizunik iñoiz
jarri bagekua,
gaur txorzuluan dago
Karmen aiñgerua.

Gaitz beltz traidore batez
utzirik erruba,
nabaspillatzen ziyon
aldiyaz zentzuba;
txit gazterik Altzolan
utzi du munduba,
negarrez utzirikan
lagun koitaduba,
dago gaur ikusitzen
Iñigo santuba.

Senarra bakarrikan
ez dago negarrez,
gure Tolosan onra...
arkitzen da miñez;
onen illobatxuak,
nik entzun detanez,
omen dabilta beren
izarraren galdez,
baiñan aurtxo gaxuak
gaur amarrikan ez.

Ta nola egongo da
amona ta ama,
kolkotikan galdurik
alaba laztana?
Nolatan ote dago
gaur beste alaba,
Doña Karmenen aizpa,
alaba bakarra,
Konde Billafrankaren
erraña leiala?

Nola ote daude gaur
zanaren aideak,
odol garbi-garbiko
eleiztar loreak?
Ez al degu miñ artu
Tolosan jendeak,
aberatsen moduban
beartsu pobreak,
erri guzi-guziko
ar eta emeak?

Argatik ikusi zan
Karmenen illetan
ezin kabiturikan
jendea kaletan;
berrogei ta amar apaiz
gure aldaretan,
denak zeledatutzen
egun artan bertan
Karmen gertatu zedin
zeruko ateetan.

Antxe gerta dedilla
Karmen ospatsuba,
urrezkua deitutzen
ziyen aiñgeruba;
andik alaituko du
senar eztituba,
baita ere famili
miñez erituba,
antxe gozatu zaite,
Karmen doatsuba.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-VII-31

Karmen Larrañaga Elozegi andrea 1899-VII-28-an il zan.

Morayta eta Blasco Ibáñez

Al dakizute zer egin bear
luken Morayta masoiak
aitortuzeko Filipiñetan
egin dituben borroiak?
Jantzi zortzina kintal diraden
burnizko eskalaproiak,
ta itxasoan txutik ibilli
arrapatutzen txirloiak.

Zertan jantziko ditu ordea
eskalaproiak anketan,
arrantza ohea egin bazuben
beretzat Filipiñetan?
Zertan aitortu salkindaritza
bear du onek uretan,
zintzurreraño baldin sartuba
arkitzen bada loietan?

Judasi bere tunikatikan
galdu zitzaion botoiak,
Luzifer eta Satanas beltzan
zori gaiztoko morroiak,
masoi Sagastan pipermorruan
ixpiyak edo anaiak...
Españiyari ziozkan sartu
negargarrizko arpoiak.

Ta eman oni ainbeste boto
manduak edo... *astuak*...
Beintzat pentsuba libre daukaten
Balentziyatar gaiztuak!
Morayta eta Blasco Ibáñez,
a zer nolako ostuak
daukazkiyen gaur edertutzeko
gure Sort-erri gaixuak!

Blasco Ibáñez eta Morayta,
Morayta, Blasco Ibáñez,
itxu tartean bizkorrak dira
eta argitan iñor ez:
nola alrebes jaiuak diran
txit aulak dira indarrez,
orrelakuak tellagilleak!
egiten ditu buztíñez.

Bi pixti oiek estimatubak
al diran masoi beltzetan,
diradelako bakar-bakarrik,
kotorrak herritzuketan;
jardun zalako Blasco Ibáñez
Moraytan alde izketan,
exeritzen da lotsagarri au
Españiyako Kortetan.

Zer egin dute beren denboran
biyak gizondiyentzako?
Zer dute egin gerra oietan
onrea salbatutzeko?...
Al zuten esan biyak Kortean
gauz onik egiantzako?
Zer zuten bada biyak eskatu
Iñigon semeentzako?

Katolikuak gauden bill-billik
zintzoro elkaturikan,
beltzen bandera ezerengatik
sendotu gabetanikan;
kanta dezagun ez degula nai
maitatu Judastarrikan,
ugarte denak diruben truke
saldu dizkigubenikan.

Moraytak egin zubena egin ta
iñork ez erantzutia!
«Zuk mereziya daukazu plazan
gaur bertan urkatutzia!!»
Olazabalek itz egin arren
eman ziyoten atzia...
Eta nai dute katolikua...
masoiak maitatutzia?

Guri bizitza lasaia kendu,
gure Fueruak lapurtu,
lenaz gañera Euskal Erriya
nai liguteke txupatu...
Katolikuak bear gera ta
ongi gaitezen portatu,
Jesus maitean biyotzak ditzan
ibar-mendiyak salbatu.

A. R. O.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-X-11

¹ *El Correo de Guipúzcoa*-k: orlakuak tellagilleak.

Bizi bitez fuero-zale guziyak

Nola dagoan Patxi Silvela
ari batetik zintzilik,
fuero-zaleai gerra gogorra
egiñaz dabillearik!
Al dauka bada era orretan
iñola bizituzerik,
politikako gauza denetan
lotsikan ez dubelarik?

Zer uste du, zer, barreratikan
fueristak txuleatzia,
Galiziyako *txardiñen* gisa
armakin ikaratzia?
Ari albaño argal ortatik
obe du eroritzia,
ta ez arrazoï dutenarekin
jolasten ibillitzia.

Polavieja-ren agiriyakin
ganbela ebatsirikan,
Barzelonako beargilleai
gauz asko agindurikan,
oraiñ beltz oien lege beltzena
an dauka ipiñirikan,
geiena maite duten *jainkua*
poltsaratzeagatikan.

Lengo moduban nai dute bizi
alper txar politikuak:
lurrak galduta, lurrak salduta,
janaz millaka duruak;
konde ta markes, duke ta beste
zaldun beltz titulukuak,
denboraz dira zenbait izango
karabinerotakuak.

Argatik zaizka irten etsaiak
aurretik eta atzetik,
nola goitikan, ala beetikan
edo alde denetatik;
fuero-zaleak ito nai ditu
eldubaz gogor lepotik,
bañan lagunak bera bota nai
dute ganbela gozotik.

Edozer gauza deitubagatik
ez diye ardurarikan,
jan ezkeroztik milla duruak
besteren bizkarretikan;
Dukenomandas... euskalduna ta
aberatsa dalarikan,
ezetz pauso bat jaun onek eman
onorearengatikan?

Batzuek dira masoi Morayta
deabrubaren sugarrak,
eta besteak Sancho Panza bat
txit maite duten... *izarrak*;
aurrenekuak dirade Luzbeltz...
aitan abarka zatarrak,
bigarrengiak ere dirade
ber-beraren ezpantarrak.

Erakutsiko diyegu laister
gu españolak geran edo ez,
barkaziyuan eske gugana
datoztenian negarrez;
jende leialak nola okitu
dituzten bada gezurrez,
denbora gutxi barru jantziko
gera fueristak indarrez.

Argatik deitzen digute guri
ez gerala españolak,
itz-ontzi gaizto, itx-jariyo txar,
atso-sukalde petralak;
Sort-erri dana ondatu duten
zorigaiztoko *kotorrak*,
dira Llorente ta Sánchez Silva-n
seme gezurti dollorrak.

Jan baiñon lendik fuero-zaleai
ezurak eta mamiyak
Patxi Silvela-n *katoliko* ta
Moraytan masoneriyak,
joan bear dute Española-tik
traidore guzi-guziyak,
Jesus maitean Biyotz Santuban
etsai desonragarriyak.

O. A. R.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-XI-5

Edan gabeko mozkorra

Burutik egin azi diyote
fuero-zaleak Patxiri,
Frantzisko iñoiz izandu ez dan
Silvela maketoari;
aldero an ta aldero emen
iya-iya da erori,
Barzelonakin mozkortutako
ordi-pustx txar bat dirudi.

Txurrutik gabe orrenbesteko
mozkorra arrapatzia!
Bestela beintzat ezin liteke
orrela kantatutzia;
Patxik ez du nai bere biziya
bala tartean galtzia,
baizikan nai du *etxeoandre* ta
ganbela salbatutzia.

Zeñi etzaizka errukituko...
Patxiren alde-eruak,
badira bere eriyotzaren
billa etorritakuak?
Zenbat naigabe daramazkiyen
gizatxar gizarajuak,
ezin tragatu ditubelako
eskatzen diran Fueruak!

Bañan Narvaez zanak esanak
gaur onek berritutzia
da nola laister joan bear duten
ber-berak aitortutzia;
eta bestetik Narváez aña
badala pentsatutzia...
da Lasalari... (Salomon edo...)
euskaldun txarra deitzia.

Politikakin ebatsi badu
izugarrizko mozkorra,
bañan uste du badala oraiñ
Narváez beziñ bizkorra;
argatik bada Kortean bota
zuben *arrazoi*... gogorra:
fueristen kontra ixuri bear
omen du bere odola.

«Bazabiltzate gerraren billa
gerra izango dezute»
modu oietan mintzatutzeko
zer eman ote diyote?
Ez balitzaket aserratuko
au kantatuko niyoke:
«Illai pakean lajatutzeko...
guri agintzen digute...».

Antekerako ollasko beltza
txit gogor bazaio ari,
ortz aundiyakin lepo-lepotik
eltzen diyola berari,
onekin ez du gerrarikan nai,
baizikan nai du ekarri,
edan gabeko mozkorrarekin
ezin dalako ibilli.

Gañerakuan aspaldi erori
ziraden txilipurdika,
eta lurrean zebiltzan oraiñ
trikuen gisan jiraka;
bañan mozkorra igarotzian
ill bear dute presaka,
dirade illko fuero-zaleai
kañonazuak tiraka.

Eta erori ezpada lendik
eskerrak Sancho Panza-ri,
txilborrangatik martiri illko
litzaken liberalari;
graziyak onek baditubela
berek dozena t'erdi,
eta jateagatik eutsitzen
diyela... ildakoari!

Katolikuak ez diyote nai,
ereje beltzak ere ez,
burutik asi ta oñetara
beteak daude etsaiez;
oiek illtzean Gaztelaniya
nola jarriko dan farrez,
dira beteko Euskal Erriyak
txit euskerazko izarrez.

O. A. R.

El Correo de Guipúzcoa, 1899-IX-15

Misiyo Santuba Tolosan
1900-garreen urtean
(Atoz pekatariyaren doñuban)

Kantastea

Aita Aizpuru eta
Aita Ibaguren,
bedeinkatubak izan
bitez milla bider!

Inazioren seme
zorionekuak
dira Tolosan aurten
dauden misiyuak;
zabaldutzen sinismen
zerutikakuak
dirade guzirozko
euskal ziñezkuak.
Aita Aizpuru eta...

Gurutzetik kanpora
ez bada katea...
noiz goratu du iñork,
noiz, libertadea?
Jesukristok ipiñi
ziguen legea
da bakar-bakarrikan
guzizko librea.²
Aita Aizpuru eta...

Pekatuba garaitzen
ezpatikan gabe,
egunez eta gaubaz
jardun dira trebe;
deabru-kateakin
aserre badaude,
libertadearekin¹
adiskide daude.
Aita Aizpuru eta...

Ez degu, ez, iñora,
ez, joan bearrikan
ikusteko daukagun
libertaderikan;
zeñengandik arkitzen
gera loturikan,
euskal bizi-modubak
iya galdurikan?
Aita Aizpuru eta...

Nola antolatubak
dirade fueruak,
libertade txit santu
eta ondraduak?
Gurutzan, bai, gurutzan
dirade sortuak,
ta argatik izandu
dira urkatuak.
Aita Aizpuru eta...

Ez aitatubagatik
gure Misiyuak
nola sortubak diran
lege doatsuak,
egiten baditugu
bere aginduak,
denboraz gu izango
gera libratuak.
Aita Aizpuru eta...

Bederatziurrena
santuagorikan
al da izan Tolosan,
al da oraiñdikan?
Pasatuak aztutzen
zaizkidalarikan,
neretzat beiñtzat ezta
gozoagorikan.
Aita Aizpuru eta...

Egunean lau sermoi
egिñaz bakoitzak,
konfesiyaak eta
gañerako gauzak,
guri sartu azitzen
Jaungoikoan itzak,
urratu dira artzai
dontsuen biyotzak.
Aita Aizpuru eta...

Errukiko Etxean
egिñaz jan ta lo,
emanaz orrelako
bi milla ejemplo,
nola ez giñaden gu
aitortzera joango
ta ez giñezten pozaz
errubak esango?
Aita Aizpuru eta...

Kendu ezkeroztandik
dozena bat gaizto,
lotsatzen diradenak
egitea salto,
Moraytak dauzkalako
loturikan preso,
buru aizez betea
ezin dute jaso.
Aita Aizpuru eta...

Baiñan gañerakuak
ez dezagun etsi,
baizikan gurutzean
betiko itsatsi;
naiz Jesusen modura
bertan illtzez josi,
fedea ta euskera
ez galdutzen utzi.
Aita Aizpuru eta...

Goazen lotsatu gabe
guziyok batera,
bi artzai beartsubai
agur egitera;
goazen, goazen euskeraz
biyai kantatzera,
Jesusen Lagundiya
beraz onratzera.
Aita Aizpuru eta...

Bizi bedi gurutze
santuko fedea,
ta Jesusen Lagundi
fedetsu noblea;
bizi bedi euskera
ta bere legea,
bai ere, bai, bideko
gobernatzallea
Aita Aizpuru eta...

R. O. eta A.

El Correo de Guipúzcoa, 1900-III-19

¹Jesukristoren legetikan kanpora al dago libertaderik inorenzako? (*El Cántabro*-ren oarra).

²Progatu eta bedeitan (*sic*) zuan bezela Mella aundiak Korteko diputaduen aurrean. (Id.).

Jesusen Lagundiko Aita Aizpururi itz bi euskala bezela

Zergatik uste dezu naizela
gaur zure maitatzallea,
ni izan arren bada zurekin
iñoiz itzegin gabea?
Zeradelako Urrestiltar bat
ziñezko euskal-zalea,
Ama Euskeran itz eztsuben
moduzko zabaltzallea.

Jakin dezazun bada nor naizen
naiz Tolosako semea,
naiz Ramos Azkarate Otegi,
gure izkuntzan zalea;
iduritubagatik batzuei
naizela doakabea,
naiz doatsuba naizelako ni
egiyan adiskidea.

Zu ere etzera nere moduban
erri osoen jabea,
baiñan bai iztun ederra eta
bildotxen ekartzallea;
bai eta ere Larramendiren
benazko jarraitzallea,
ni bezelako euskaldun motzen
artzai on erakuslea.

Argatik esan nai nizuke nik
zerala maisu nereaa,
nere denboran nai nukiana
izan zure ikaslea;
baiñan ikasi naiagatikan
ez baldin banaiz trebea,
bakarrik izan bearko det nik
txori kantatutzallea.

Edozer dala zu izan zaite
Amaren sendotzallea,
gure Amatxo jakintsubaren
itzen agertutzallea;
izan aberats ta beartsuen
atsegin emantzallea,
euskera erakutsiyaz gure
animen garbitzallea.

Larramendiren denboran bazan
Ciceron euskerazkoa:
Mendiburuko Aita Sebastian
Jesusen Lagundikua;
naiz bazera ta naiz ez bazera
zana zan bezelakua,
beintzat esango dizut zerala
iztun onenetakua.

R. A. eta Otegi.

El Correo de Guipúzcoa, 1900-III-25

Aizarnako erretore jaun On Jose Gil Agirreri

Ogei ta amabi urte badira
ezagutu zinduztala,
da esatea zurekin zerbait
tratatu izan detala;
eta badakit bildotxentzako
artzai gozo bat zerala,
eta alderdi guzietara
nola zeran zu leiala...
benturaz kendu naiko zizuben
zuri bizitza bakarra.

Maketo batek zu ill nai arren
etzuben nai Jaungoikuak,
baizik lurrean gorde nai ditu
biyotz leialetakuak;
artzai guziyak gaur balirake
zu zeran bezelakuak,
burutik asi ta oñetara
guziro euskerazkuak,
Euskal Erriyak lirake izango
beti zorionekuak.

Dakitalako nai dizubela
artalde Aizarnakuak,
dizkitzut bada gaur kantatutzen
biyotzez amarrekuak;
zurekin guztiz kontentu dauden
euskaldun guzirozkuak,
nai dutelako beti izan nai
egiyaren aldekuak,
dirade eta dira izango
artzaian kerizpekuak.

Zeradelako beti izandu
nere adiskide fiña,
pentsa ezazu nola ez detan
izango gaur atsegiña!
Nere ondoan (edo erriyan)
baldin zu bizi baziña,
zure etxeko atadiyan nik
joko nuke danboliña,
naiz aserratu Maketaniko
biralitako sorgiña.

R. A. O.

El Correo de Guipúzcoa, 1900-IV-1

Himnua edo kantua Lezoko Gurutze Santubari

Kantastea

*Izan dedilla mundua mundu
guziro bedeinkatua,
dedilla izan onratuba ta
osoro alabatua,
Gipuzkoako Lezon daukagun
gure Gurutze Santua.*

Bizi-modu okerren
zuzendutzallea,
da libertade egiazkoen
ekarritzallea,
gizondean egillea,
pekatuen iltzallea,
eta da mundu guziyen
kitapetzallea.
Da Elkartean salbatzallea,
da Eleizaren fundatzallea,
da biziyuen galtzallea ta
animen zerutzallea.

Jaio baziñaden zu
gutziz beartsuba,
baiñan birtutez zereganatu
zenuben munduba.
Zer giñaden gu, zer, emen
zu lurreratu baiñon len,
deabruen kateetan
lotuta bageunden?
Bizierarik itxusiyenak
ziran orduko itxu aienak,
zuk erakutsi arte bildotxai
sinismen gizondiarenak.

Zergatik adoratu
zinduzten jendeak
Belengo inguruetako ta
iru Erregeak?
Ziñalako Jaungoikua
zeruko ta mundukua,
umezurtzez jabetzera
etorritakua.
Ama garbiyan Seme garbiya,
onkeriolen argikariya,
esan diteke zure gurutzan
dagola illezkortegiya.

O Miragille aundi
guzizko goiena!
Zu zerade, zu, gizon denetan
gizon... gizonena,
santuetan santuena,
umanteetan umantena,
erregeen gañetikan
Errege zaudena.
Almentsuetan almentsuena,
done guziyen done lenena,
zaude esaten nundikan dagon
zerura bide laisterrena.

Alaz guziyaz zaude
larrugorrituta,
Judas ikasle saldinkariyak
dirutan salduta.
Arantzekin koroituta,
gorputza dena zaurituta,
zaude lapurren erdiyan
gurutz-iltzatuta.
Borrero beltzai barkaturikan,
begi dontsubak itxuturikan,
daukazu Lezo mirariyak
osoro otsaunditurikan.

Argatik nekazari
Kantaurikuak
dira guziro antziñatikan
zure debotuak.
Itsas-jende fedetsuak,
aberats ta beartsuak,
zu maitatu ezkeroztik
dira doatsuak.
Euskal ziñezko gañerakuak,
zure biyotzan alderdikuak,
dira zurekin bizi eta ill
nai duten guzierakuak.

Nai degu beti izan
kristau ondradubak,
baiñan izanik era berean
zure soldadubak.
Beto, beto, deabrubak,
tximisteetan guritubak,
ia kendutzen dizkiguten
sinismen santubak.
Bizi dan arte Euskal Erriya,
jainko paltsoen garailariya...
zu zerade, zu, beti izango
euskalen izar gidariya.

Bedeinkatu itzatzu
ibar-menditarrak,
lur-azpiratu ditzaten beti
sinistamen txarrak.
Zure gurutzan izarrak
dira Euskal Erri zarrak,
dira izan nai dutenak
zeruko maiztarrak.
Gurutzeakin oraiñ eta len
nola bat egin izan deguben,
ala glorira joan nai genduke
esanaz: amen, amen, amen.

Ramos Azkaratekuak

El Correo de Guipúzcoa, 1900-IV-12

Piztu da Jesus!

Eriyotza bat lotsagarriya
Jesusi emanagatik,
judubak ustez birali arren
beti-betiko mundutik,
baiñan altxa da koroiturikan
piztuta illen artetik,
etsai dollorrek garaiturikan
alderdi guzietatik!

Len basatiyak¹ giñan jendeak
gaur gaude argiturikan,
guziro onra aundiyarekin
osoro kristauturikan;
piztu da Jesus txit libertade
santubak banaturikan,
lege paketsu maitagarriyak
guretzat lajaturikan.

Piztu da Jesus guri jarririk
bi aldetako bidea,
esanaz zer dan betikotasun
edo eternidadea;
piztu da Jesus erakutsirik
nolako umilldadea,
erakutsiyaz nola elkarri
guk egin karidadea.

Piztu da Jesus omenaturik
baiñan ez berriz illtzeko,
baizik zerutik artaldeari
zintzoro begiratzeko.
piztu da Jesus guri kontuba
nai dubenian artzeko,
bildotx txit onak sariyatu ta
gaiztuak... kastigatzeko.

Alaitu gaiten, kristau maiteak,
gaiten alaitu guziro,
gure Jaungoiko errukitsuak
gaitubelako maitaro;
baldin ta baldin gu portatutzen
bagera emen zintzoro,
gero betikotasun guziyan
biziko gera gozoro.

Ramos Azkaratekuak

El Correo de Guipúzcoa, 1900-IV-15

¹ *Salvajes. (El Cántabro-ren oarra).*

Gipuzkuatarrak, bizi bedi euskera

Utrera-n edo nun demoniño
ote da bada jaiua
Matxinbarrenak ginballan daukan
erdal Diputaziya?
On Manuel Sánchez Silva ta txirla
zalarik utreranua,
euskeraren borrerua,
fueroen etsai arrua,
Matxinbarrena *duquenomandas*
da askoz borrerogua.

Egiputzubak aitatzat jarri
zeiñ eta Matxinbarrena,
deitzen diyena aita denetan
aitarik goien-goiena!
Guziro maite dubelakoan
zartagiyaren kirtena,
ez du nai izan zuzena,
baizik maketo errena;
era berean da bere Ama
gorrotatutzen dubena.

Euskal pestetan sermoia egin
bear omen da erderaz,
ez dutelako ginballakuak
entenditutzen euskeraz.
A Matxin, Matxin, euskaldun gaizto,
Matxin Llorente Cánovas,
zedorri zaude esanaz,
guri arrazoi emanaz,
ginballarekin zeratelako
osatzen amaika Judas.

Ia ez ekarri oiei, maiztarrak,
Eguberritan kapoiak,
ikusitzeko bai al dakiten
egiten euskal sermoiak,
ia zerbait egin oien etxean
neskame edo morroiak,
ia, ia jan urdai azpiyak,
bi oñeko... arratoiak,
jakindu dedin ote dakiten
esaten euskal ipuiak.

Ama Euskeran aunditasuna
nai dute lurperatzia,
erdera eta erdal legeak
goi-gora altxatutzia;
dute nai gure Fuero ta beste
usariyuak illtzia,
gezurrakin bizitzia,
Satanas indartutzia;
da esatea: nai dutena da
guziyok maketotzia.

Gipuzkuatarrak, maita dezagun
benetan Ama Euskera,
eguzkiya ta izar guziyak
erori arte lurrera.
Diputaziyo txit goitubaren
erabakiyaz gañera
gu euskaldunak bagera,
goazen Amakin aurrera,
ez dedin entzun, ez, ez, beñere
euskal pestetan erdera.

Euskerazale batek

El Correo de Guipúzcoa, 1900-V-20

On Jose Urkia eta Arana zanari

Zenbat lan egin eta aldegin
ziguzuben zuk lurretik,
gezurra eta saltsa besterik
ez dagon ibar ontatik!
Ez ote ziñan zerura joan zu
Donostiyako uritik,
Elkanoren karrikatik,
bostgarreneko etxetik,
negar ta negar arkitutzen dan
familiaritxoan ondolik?

Beintzat dakigu etziñadela
izandu euskal paltsua,
baizikan Done Martin Loinazen
seme txit birtuosua;
emaztearen senar ona ta
aita amodiyotsua,
adiskide bat gozua,
leiala eta zintzua,
eta nork esan etziñala zu
katoliko txit osua?

Karlista jaio, karlista bizi,
onra onekin ill zera,
pausorik eman gabetanikan
ezerengatik atzera;
baizik gazterik joan ziñaden zu
errege serbitutzera,
gezurra lurperatzera,
fueruak salbatutzera,
infernutarrak ill ezin duten
bandera sendotutzera.

Argatik negar egiten dizu
gaur zure Euskal Erriyak,
senide, aide, adiskide ta
zure lagun zar aundiyak;
Agor-illaren zortziyan jaio
zan gure Ama Mariyak,
Ama txit sortzez garbiyak,
Ama atsegingarriyak,
an ez bazaude laister ipiñi
ditzala zugan begiyak.

Adiskide batek:

Ramos Azkarate.

El Correo de Guipúzcoa, 1900-IX-13

A, Patxi Silvela,
gezurren txapela!
Ezagun dezu iya
illean zaudela. Bai!
Zure Gernikako
eskribatzia
nork nai dezu emen
sinistatzia?
Arbola txin santuba
zuk beneratzia,
al dezu uste dala
jolasutzia?
A, zorigaiztoko
otso gosia!
Al dezkiyotzu on
burlatutzia?

Badezute maite
ta nai badezute,
lengo eran agudo
jarriko dezute. Bai.
Bota lur azpira
zuen katea,
ta utzi euskalai
libertatea,
Dadukagubelako
guk eskubidea,
nai genduke gozatu
bizi ohea.
Baiñan zuen tripak
dira aundiyak,
libre lajatzeko
ibar mendiyak.

A, a, Villaverde!
Askoz dezu obe
Gernikara joatea
maskararik gabe. Bai.
Zuk gure Aritza
alabatzia,
ta euskal legeak
altxatutzia...
Ez al da ori guri
illea artzia,
ta itz-ontzi guziyak...
desonratzia?
Ezagutzen degu
zuen koipea,
dalako puzuniz
bete-betea.

Zure esanikan
ta eskriburikan
ez degu sinistatzen
ezerengatikan. Ez.
Gauza bat esan ta
bestea egin...
Villaverde lasai
jan ta... jan dabil.
Euskal Erri maiteak
nai lituzteke ill.
Naiz koipe askorekin
emen itzezin,
zoazte emendik
alisk laisterren,
arbolaren zañak
lertu baiñon len.

Euskaldun batek

El Correo de Guipúzcoa, 1900-IX-22

Lezoko Gurutze Santubari erregu bat

Urre-illaren 14-an 1900-garrengo peregrinaziyuan
(Aita Mendibururen doñuan)

O Lezoko Gurutze
santuen santuba,
Kantauriko ibar-mendiyen
Jaungoiko altsuba!
Euskal Erri fedetsuba,
Euskal Erri indartsuba,
sendakiñan paltan dago
guztiz makurtuba.
Ai, ai, Gurutze miraritsuba,
iberotarren gorde-lekuba!
zerengatikan dadukazu zuk
euskera desanparatuba?

Artu ditugulako
erdal blasfemiyak,
anbat gaur negar ta negar daude
euskal barrutiyak.
Gure Fuero maitatiyak,
gurutzetik etorriyak,
daude samiñ, daude eri
cta elbarriyak.
Blasfemi zikiñ nazkagarriyak
artutzeakin Euskal Erriyak,
gaude sufritzen izugarrizko
naigabe ikaragarriyak.

Nola zuk guri eman
zorion linguak,
lurperatutzen ditugun arte
blasfemi morduak?
Baiñan euskal blasfemuak
dira pizti... txarraguak,
erbestetar danak baiño
ero gaiztoguak.
Ez federikan, ez euskerarik,
ez onrarikan ta ez Fuerorik;
ez dute maite blasfemiya... ta...
erdaldunkeriya besterik.

Beragatikan entzun
eiguzu ojuba,
animatikan maite zaitugun
Gurutze dontsuba!
Nola zeran zu justuba,
errukitsu onraduba,
arren,s ontzat artu zazu
gure erreguba:
sendotu zazu Euskal Erriya
biurtu arte onrategiya,
Erniyo-pean usteldu dedin
blasfemi desonragarriya!
Ala gerta dedilla!

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1900-X-14

Lezoko Gurutze Santubari

Erreğu bat Urre-illaren 14 am 1900
garrengo Peregrinaciyuan

(AITA MENDIBURUREN DOÑUAN)

¡Oh Lezoko gurutze,
Santuen Santubal
Kantauriko Ibarmendiyen
Jaungoiko altsubal
Euskal-erri fedetsuba,
Euskal-erri indartsuba,
Sendakifian paltan dago
Gutziz makurtuba:
¡Ay! ¡Ay! Gurutze miraritsuba,
Iberotarren gorde-lekuba!
¿Zerengatikan dadukazu zuk
Euskera desanparatuba?

Artu ditugulako
Erdal blasfemiyak,
Anbat gaur negar, ta negar daude
Euskal barrutiyak:
Gure Fnero maitatiyak
Gurutzetik etorriyak
Daude samin, daude eri,
Eta elbarriyak.
Blasfemi zikifi nazkagarriyak
Artutzeakin, Euskal-erriyak
Gaude sufritzen izgarritzko
Naigabe ikaragarriyak.

¿Nola zuk guri onan
Zorion lenguak
Lurperatutzen ditugun arte
Blasfemi n.orduak?
Baizian Euskal blasfemuak
Dira pisti.. charraguak,
Erbestetar danak kaino
Ero-gaiztoguak.
Ez Federikan, ez Euskerarik,
Ez onrarikan, ta ez Fnerorik;
Ez dute maite blasfemiya ta..
Erdaldukeriya besterik.

Beragatikan entzun
Eiguzu ojuba
¡Animatikan maite zaitugun
Gurutze dontsubal
Nola zeran zu justuba,
Errukitsu onraduba,
Arren ontzat artu zazu
Gure erreguba:
Sendotu zazu Euskal-erriya
Biurtu arte onrategiya;
¡Herniyo pean uzteldu dedin
Blasfemi.. desanfarriyal
¡Ala gerta dedilla!

El Correo de Guipúzcoa,
1900-10-14 (facsimil).

R. A. ETA O.

N.º 1. Drogné, J. G. NATIVIA Tolosa
TOLOSÁ: PLAZA DE IDIAQUEZ



Tolosako Udaletxea, Ramos Azkarateren garaian.

(Liburu ontatik: Jose Maria Tuduri Esnal: *Argazkiak, Tolosa, Fotografías (1842-1900).*)

Irugarren Ordenako nere anai-arrebai

Zer maite degun gipuzkoatarrak?
Jaungoikoaren Semea,
pekataridak galararika,
zeru aldeko onrea!
Gaur zortzi Lezok bazirudiyen
Paradisoko lorea,
lore erdoirik gabea,
lore izarrez betea.
An bildurika izugarritzko
ziñezko euskal taldea,
onraturika altxa genuben
zerutarraren fedea.

Amalau milla euskal leñargi¹
aberats ta beartsubak,
gazte eta zar, gizon ta andre
guzirozko fedetsubak,
nola genduzkan pozarez pozaz
biyotz gureak sutubak,
gure orduko kantubak,
zerubak bedeinkatubak,
zer pozarekin entzun zituben
Gurutze santu-santubak,
ainbeste milla mirari egin
dituben Jainko altsubak!

Bildubagatik Lezo txikiyan
ainbeste milla euskaldun,
nola erdaldun mordollorikan
geren artean ez gendun,
an gozatu zan pake santuba
al da gozatutzen inun?
Nola guk onra nai degun,
nun-nai gera gu ezagun;
argatik orain goi-mallatikan
gozoro kanta dezagun
Luzifertarrak bakar-bakarrik
bizitzen dirala illun...

Bizi dedilla fede santuba,
dedilla bizi euskera!
Altxa dezagun Lezon bezela
noiznai Jesusen bandera.
Goazen Lezoko artzai aiekin
San Frantziskoren larrera;
goazen gu beti aurrera
Luzifer oiñperatzera.
Jaungoikoa ta euskeran alde
gudan galdutzen bagera,
gero betikotasun guziyan
zeruban biziko gera.

Ramos Azkaratekuak

El Correo de Guipúzcoa, 1900-X-21

¹*Nobles.* (Egillearen oarra).

Bizi bedi euskera

Donostiyako uriyan bada
Artzai Onaren eliza,
ederra baiñon ederragoko
zeru-bideko arraitza.
Antxe ill onen amalaubean
ordu bi nintuben pasa,
entzunaz bertan bi meza,
ai ura igande goiza!
Ango euskeraz kantatutziak
itsatsi ziraden poza,
eta gaur ere zoraturikan
dadukat nere biyotza.

Bedeiñkatubak izandu bitez
an dauden abade jaunak,
Ama Euskera maitatzen duten
egiyazko euskaldunak.
Onragariyak dira alako
ministro Jainkoarenak,
Amaren alde daudenak,
.....¹
blasfemiyarik ez duben Ama
onratzen badakitenak,
dirade Ama diztiatutzea
lotsatzen ez diradenak.

Nola lotsatu leitezke bada
apaizak Jaunan arraitzan
onratutzia santu guziyak
onragarrizko izkuntzan?
Zergatik ez du Ama Euskerak
bizitu bear eleizan,
zerutik etorri bazan
Egille Dontsuban gisan,
Sánchez Silva bat lurrari azpiyan
ibillitu dedin dantzan,
ta Cánovas-ek euskerantzako
Requiem... kantatu dezan?

Artzai Onaren eleiztar aiek
badute Ama onratzen,
Ama eztitsu jakintsubakin
dute jendea gozatzen.
Diyelakuan apaiz batzubek
euskeraz erakutsitzen,
badiyet pozaz kantatzen,
diyotet erregututzen
ez nekatzeko Ama garbiya
gozoro diztiatutzen,
euskaldun fuero santu-santubak
Elizan piztu ditezen.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1900-X-28

¹ Inprentaren utsegitez-edo lerro bat falta da emen.

Orbeko Kontxita eta Vives Cañamás zanari

Zeruko Ama Sortzez garbiyan
aingeru dizdizariya,
erru gabeko mirabe gazte
argiya eta garbiya,
Baldepinako Markes leialan
alaba onragarriya,
guzirozko ongarrriya,
katolika txit aundiya,
joan da mundutik triste utzirik
Murgiako jauregiya,
lajaturikan negar egiñaz
Astigarraga guziya.

Negar egiten badiyo ziñez
Astigarraga osuak,
nola ez dira miñez arkiko
guraso birtuosuak?
Nola ez dira samiñ egongo
bere senide gozuak,
aide amodiyotsuak,
.....¹
gogoraturik aiñgeru arren
mundu ontako pausuak...
oroiturikan Kontxita zanan
doai guzizko altsuak?

Euskaldun jaiio, euskaldun bizi
zalako Doña Kontxita,
zalarik bere jatorritikan
aberatsa ta... pollita,
il zan, eriyotz onen-onena
egiten erakutsita.
Joan zan aiñgeru jantzita,
mundu paltso au utzita!
Arkitutzen da eliz barruban
begi ederrak itxita,
bere birtute txit doatubak
Murgian daude josita.

Baiñan zanaren anima orain
arkitutzen da zeruan,
errurik gabe bizitu izan
zalako beti munduan;
Ama Mariya Sortzez garbiyak
anbat dauka gaur kolkuan,
kutuntxo baten moduan,
gorozki bero-beruan;
antxe gozatu dedilla bada
betikotasun osuan,
bere aitona leial-leiala
daukala beti onduan

R. Azkaratekuak

El Correo del Norte, 1901-I-25.

¹Inprentaren utsegitez-edo, lerro bat falta da emen.

Arrantzale gizarajuak!

Kosme Damian Txurrukakoan
erritar doakabeak¹,
kristau fedetsu, kristau beartsu,
berran adiskideak,
euskera beste izkuntzik maite
etzuten arrantzaleak,
itxaso-gizon trebeak,
Kanta-uriko loreak
ur gaziyakin beti burrukan
ibiltzen ziran jendeak,
arraiak dira ogei eta bat
euskaldun aien jabeak.

Gogoratuko dira Bermeo,
Antxobe eta Algorta...
larunbat santuz zutelakuan
izandu negar galanta;
iruretarik galdu ziraden
larogeti eta amaika,²
zenbat seme, zenbat aita,
Jaungoiko maiteak naita...
itxaso baztar euskerazkotik
diraden munduban palta!
Motrikotarrak ere ederra
zuten aurreko lanbata!

San Jose deitzen ziyen txalupan
Motrikutar fedetsubak,
larunbatean ogei ta batak
izandu ziran galdubak;
denak uretan eman zizkiyen
Jaunari beren kontubak,
arrantzale koitadubak,
euskal-zale onradubak,
utzirik beren familitxuak
emen desanparatubak,
ditu eraman berarengana
Jaungoiko santu-santubak.

Zenbat alargun, zenbat umezurtz
ote daude gaur negarrez,
putzu aundiyak egiteraño
samintasunan indarrez?
Ama gaixuai ume gaixuak
esango diye: «Aitik ez!».
Amak orduban oñazez,
jantzi ondoren soiñ beltzez,
diye esango: «Gu bete arren
naigabez eta ekaitzez,
kantauritarrak lagun egingo
digute guri biyotzez».

Ramos Azkaratekuak

El Correo del Norte, 1901-II-5

¹ *Desventurados*. (El Cántabro-ren oarra).

² *En mi parecer*. (Id.)

On Pedro Jose Uranga eta Olasagirre zanari

Tolosan jaio euskaldun eta
Tolosan bataiatuta,
Tolosan bizi luzaroan ta...
kanpotan ibillituta.
Berriz etorri onuntza eta
bearrari jarraituta,
bearrarekin piztuta,
pixkabanaka goituta,
paper-ola bat artuta,
nagusitzari elduta;
joan da bai joan da Belauntzatan
bi bider aitonatuta,
larogei ta bat urte osuak
munduban igarotuta.

Familiya txit izugarriya
izandu zubelarikan,
etzuben bada seme denetan
ikusten sobranterikan;
nola andrea ala bineak (*sic*)
maitatzen geiagorikan...
senar gozoagorikan...
aita eztitsugorikan...
nagusi bat oberikan...
ez det sinisten danikan.
Langille zar ta elbarriyentzat
biyotz biguñagorikan,
paper-oletan ote da izan
beste bat alakorikan?...

Katolikua bezela berriz
utzi deiotan geldirik,
ez dubelako Uranga zanak
alabantzaren bearrrik;
politikako gauzetan ere
nola laja ez isillik,
ezpaldin bazun erdoirik,
ez eta tranpan apurrik,
ez bazuben atsegiñik
etzubenia berririk?
Gai ontan beintzat Jaunan aurrean
ez dauka ikuskizunik,
samintasuna franko munduban
igaro zitubelarik.

On Jose Joakin apaiz eginta
gozatzen zegoanian,
(lendabiziko meza ematen
ikusi ondorenian),
famili guztiz maitagarriya
lajaturikan lurrian,
dago gaur leku obian,
zerubaren barrenian,
Done Pedrokin batian,
Ama Mariyan aurrian.
Antxe gozatu dedilla bada
betikotasun guztian,
munduban utzi zuen bandera
andik sendotu nayian.

Ramos Azkaratekuak

El Correo del Norte, 1901-II-20

Errezatzera, errezzatzera

Gure aitona, gure guraso,
gure anaiak ziranak,
beren biziya onrarentatik
munduban galdu zutenak,
martir ill arren ez baziraden
santubak bezin zuzenak,
etziran kristau errenak,
ez eta gizatxarrenak;
baizikan izan ziradelako
fedetsu mardul gizenak,
ditugu onratzen urtero-urtero
aien ordeza (*sic*) gaudenak.

Al da munduban artalderikan
gurekin berdintzekorik,
badubenikan ildakoentzat
gure begiramenturik?
Pekatarियak aundiyegiyak
gu ere geradelarik...
bai al da iñun ardirik
gu baño zintzoagorik?
Artzaiak andik... agindu eta
kunplitzen badakienik,
ipiñi gabe aitzeki edo
beste tranpazko trakarik?

Epa-ill edo Martxo-illaren
amarra da guretzako
guregatikan il ziran denak
benetan onratutzeko;
emen sufritzen an sufritutzen
daudenak sendatutzeko,
gogotik errezzatzeko,
Jaunari erregutzeko;
mezan premiyen dauden animak
len-bait-len zeruratuzeko,
da esatea Garbitegitik
glorira biralituzeko.

Beragatikan goazen bada gu
asabak onratutzera,
bakoitzak bere deboziyua
deguben elizetara:
goazen gu gure Jaungoikoaren¹
aurrez belaunikatzera;
goazen gu eskatutzera
edo erregututzera
eraman ditzan anima aiek
zerura gozatutzera,
(gure istori eder-ederra
geiago edertutzera).

R. A.

El Correo del Norte, 1901-III-11

¹ *El Correo del Norte*-k; ¡Goazen! gu gure Jaungoiko.

Felizidade edo doatsuerak

Ez banizuke gaur kantatuko
zortziko euskerazkua,
biyotzarekin moldatutako
guzizko egiazkua,
aserratuko litzake noski
San Jose gloriosua,
Ama Mariyan Senar doatsu
zerutar birtuosua.

San Joserekin eta zurekin
ez det nai aserratzia,
baizik biyokin txit adiskide
munduban bizitutzia;
nai det Goikuan laguntzarekin
gaur zuri kantatutzia,
zortzikoakin zuri mesede
aundiyak pagatutzia.

Ta zu izanik adiskide bat
bizi benetakua,
beti deituko dizutana nik
ongille biyotzekua,
ez al ziñake aserratuko,
laguntzalle ziñezkua,
ez badizut nik gaur kantatutzen
merezi bezelakua?

Nai det zu ondo bañon obeto
munduban ikusitzia,
osasan eta ontasunetan
biyetan sendotutzia;
nai det ni bizi naizen artean
zuri felizitatzia,
ta zuk zorion guzi-guziyak
luzaro gozatutzia.

Ramos Azkaratekuak

El Correo de Guipúzcoa, 1901-III-21

Ez du esaten zorionak nori ematen dizkion; baiña Jose Elosegi jauna izan-
go da, onen santu-egunean bein baiño geiagotan ala egin zuan eta.

Zuzendua: 4/4: biyetan sendotzia.

Jesukristo gure Jaunaren gurutzeko zazpi itzak

Lenengo itza

Nere Aita, barka egiezu ni onela tratatzen nautenai, bada ez dakite zer egiten duten

Kantatzekua

O artzai umill, artzai zerutar,
Jaungoiko benetakua,
beartsurikan bada munduban
beartsu egiazkua!
Gurutzetikan zintzilik zauden
eguzki Belenekua,
donekar¹ Israelekua,
illargi Golgotakua,
erakutsirik mundutar denoi
zeruko amodiyua,
zaude eskatzen borroentzat
Aitari barkaziyua.

Bigarren itza

Gaur egongo zera nerekin batera
Paradisuan.

Kantatzekua

O gure Jesus txit errukitsu,
Jesus beneragarriya,
lapur onantzat bezela izan
zazu gure errukiya;
ona besterik ez dakizuben
gure gidari argiya,
okerran zuzendariya,
maiteen maitategiya,
nola ez diguzu bada egingo
Paradisuan tokiya,
baldin ta baldin guregatikan
bazaude iltzez josiya?

Irugarren itza

Ama, orra or zure Semea;
Juan, orra or zure Ama

Kantatzekua

Zer samiña ta zer tristea dan
gaurko zure agoniya,
negar egiñaz jarritzerano
zure Gurutze-mendiya!
Alaz guziyaz poztu nai dezu
Amatxo garbi-garbiya,
Amatxo eri-eriyaa,
Amatxo errukarriya.
Poztu nai dezu, Ama bezela,
Done Juan maitagarriya,
zuri begira urtutzen dagon
santu begiragarriya.

Laugarren itza

Nere Jaungoikua, nere Jaungoikua!
Zergatik desanparatu nazu?

Kantatzekua

O gure Jesus, Jesus ta Jesus,
gure artzai on maitia!
Ez al dakizu zer dan Zeruko
Aitaren borondatia?
Nunbait ark nai du zuk orrenbeste
oñaze sufritutzia,
zuk gu erredimitzia
eta zeruratutzia.
Nai du gurutze santu orretan
bertan odol-ustutzia,
bai eta ere arratsaldeko
iru ordutan iltzia.

Bostgarren itza
Edarri naiz

Kantatzekua

O Jesus ona, zer da ordea
daukazuben edarriya?
Zer da ordea zere barrenen
senti dezuben premiya?
Eguzkiyaren azpi guziya
nola daukazu bustiya
emanaz odol garbiya,
zuretza irabaziya,
gure pekatu aundiengatik
zuk eman arren biziya,
ardi batzuek galdutzea da
zure edarri larriya.

Seigarren itza
Kunplituba edo egikarituba
dago guziya
Kantatzekua

Zu era ortan ikusitzia
Erodesek du atsegin,
Lonjinos ere lantza zorrotz bat
odoldu naian badabil;
nola Anasek ala Kaifasek
pozaz badute irakin,
baiñan Pilatos nun dabil?
Eskuak garbitzen al dabil?
Judas paltsoa, etoi gaiztoa
zokorik zoko zer abil?
Jauna salduta, diruba artuta,
ere buruba nai dek ill?

Euskal Erria, 1901

Onen aldaketak: 1/1: O gure artzai, artzai zerutar; 1/2: Jaungoiko
Jaungoikozkua; 1/10: izaten amodiyua; 2/5: ogiya bañon gozoagoko; 2/6: gure
janari garbiya; 2/7: o gure zuzendariya; 2/8: zeruko maitategiya; 2/9: Nola ez

Zazpigarren itza
Nere Aita, zure eskuetan utzitzen det
nere espiritu edo bizikaia
Kantatzekua

Ill bearrakin nabarmendurik
ugeldu eta zauriyak,
biyotza lantzaz pasatu dizu
Lonjinos lotsagarriyak;
ikusirikan oraiñ guk ere
odolezko iturriyak,
oñazez gaude eriyak,
lurreko zure ardiyak;
daude antsiyaz itxasua ta
munduko ibar-mendiyak,
diradelako itzaltzen asi
zure begiyen niniyak.

El Correo de Guipúzcoa, 1901-IV-4

bada zuk guri egin; 3/1: Zer samia, zer trista dan; 3/9: Nai dezu poztu Ama bezela; 5/2: zuk daukazu egarria; 5/3: zure burutik oñetaraño; 5/4: baldin badator euria; 5/5: Eguzkiaren azpia nola; 5/6: daukazu ongi guztia; 5/7: birtutez irabazia; 5/8: kristauturik basatia; 5/9: ardaldearengatik ematen; 5/10: dezularikan biziya; 5/11: arkume batzuk galdutzea da; 6/8: esku garbitzen al dabil?; 7/1: Nabarmendurik oñazeakin; 7/5: ta ikusirik orain guk zure 7/7: gaude samia ta eriyak; 7/8: eginaz antsi aundiyak; 7/9: Daude negarrez itxasua ta; 7/11: zuazelako estalitzera; 7/12: begiyetako niniyak.

¹ *Soberano*. (*El Cántabro*-ren oarra.)

Bizi bedi euskera

«Zergatik ez du Ama Euskerak
bizitu bear Eleizan?»

Urri-ilean galderatxo au
egiten jardun banintzan,
galderatxoa norbaiti miña
ematekoa ote zan?
Ez nago beintzat kezketan,
ez eta ere zalantzan,
nola ez nabillen infernubantzat
pekatariyen arrantzan,
bizi dedilla Ama Euskera
nai det nik arretaz esan.

Bedeinkatubak izandu bitez
apaiz jaun euskal-zaleak,
naiz izan gure etsaiak eta¹
orobat adiskideak;
euskera maite duten apaizak
dira Amaren loreak,
oituran gordetzalleak,
onraren maitatzalleak,
Aldeegiko² Iriondo ta
gazte predikatzalleak
dirade beren Euskal Erriyan
benazko onratzalleak.

Blasfemirikan ez duben Ama
euskalak gorrotatzia...
edo elizan nai ez dutenak
euskera bizitutzia...
Ez al da bada Euskal Erriyan
etsaiari lagundutzia,
Ama ez maitatutzia,
Ama ez amatutzia?
Ez al dakigu ez dan guretzat
euskera lurperatzia,
nola dan gure oiturak eta
euskaltasuna galtzia?

Ama Birji³
arki nitzan Aldeegiyan,
goizean meza nagusiyan ta
arratsaldeko sermoian;
jaun On Toribio eta Uranga
eliz begiragarriyan,
bakoitza bere aldiyan,
euskera garbi-garbiyan,
aiñ gozo zuten biyak ipiñi
fedea santuba goi-goian,
zeñen oroitz ura nai nuke
gorde biyotzan erdiyan.

Zenbat on egin lezakean gaur
apaizak euskerarentzat,
Amasan praile bati entzuna
kontatzia on deritzat:
«Maisubak asko dezateke, bai,
egin gure Amarentzat;
baiñan geiago apaizak,
garaiturikan ekaitzak,
egin lezake euskerarekin
euskaldun erriyarentzat,
euskal jendeak ditubelako
naiago Amaren itzak».

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1901-IV-6

Zuzenduak: 1/5: galderatxoa norbait miña; 1/6: emateko eta san? 4/4:
Juan on Toribio eta Uranga.

¹Politikan. (*El Cántabro*-ren oarra).

²Léase Alegría. (Id.)

³Zimur batengatik ezin lerro au osorik irakurri.

On Biktor Pradera eta Larunbe jaunari

Poztu zaitea, poztu,
On Biktor Pradera,
deitubaz: «Bizi bedi
Fueroen bandera».
Zu bota naiagatik
etsaiak lurrera,
zuk etsai denak bota
dituzu oiñpera.
Kopeta garbiyak
joan zaite Korterera,
garait-ondo¹ goiena
erakutsitzera.

Liberal katoliko
ta abantzatubak,
masoi ta... Nosedaltar
elkarganatubak,
arkitzen ziralarik
diruz apaiñdubak,
On Karlosen artalde
gutziz fedetsubak,
gogoratubaz bere
Fuero zar santubak,
zuretzako zeuzkaten
boto indartsubak.

Argatikan ditu il
bandera txuriyak,
ez al zekiye bada
On Migel argiyak
indartsubak dirala
jende menditriyak,
ta geiago baliyo
dubela egiyak,
lagundu ziyolarik...
Nosedalkeriyak?²

Alaz guzi-guziyaz,
bear dan moduban
lagundutzen diyogu
guk sentimentuban;
Nosedaltar oiekin
badabil tratuban,
edo fiyätzen bada
oien aginduban...
obe du, bai, iduki
diruba zakuban,
eta pakean bizi
fabrika barruban.

Ta zuk, gure On Biktor,
Biktor argitsuba,
Ugarte gizatxarran
mallu indartsuba...
zeradelako bada
gizon fedetsuba,
guzizko argidotar
eta jakintsuba,
Kortean erakutsi
zazu tellatuba
nola daramakizun
lorez apaiñduba.

J. A. Goiko-etxeokak

El Correo de Guipúzcoa, 1901-V-30

¹*Triunfo.* (El Cántabro-ren oarra.)

²Gaiñontzeko bertsoak amabina lerro dituzte; onek, berriz, amar. Ziur aski, moldiztegiaren utsegiña izango da.

**San Inaziori bere martxa
edo joaira ederrian**
(Azpeitiyari donkitua)

Inazio!
Jarri zaite begira,
zure Euskal Erriya
zerutik,
euskal leiatillatik,
gaitzatzun ikusi
nola geran bizi,
gaitzatzuben gorde
erdaldundu gabe;
prest gaude
Ama zarraren alde,
naiz bizirikan erre.
Euskal txar *Tankredo*
(edo Unamuno)
mundu onetako
infernuban dago,
agerturik euskeraren borrero
bizi.
Ez lotsatuzia,
onra salduzia,
Aman eriyotza
aurrak eskatzia!
Nai du erdaltzia,
euskera galtzia,
gu gerran jartzia,
zikin bizitzia,
moro biurtzia
ta judastutzia;
euskal guzi-guziyok
madarikatzia
eta kondenatzia, bai, bai, bai!

Argatik
zure jaiot-erriyan,
Izerraizko mendiyen,
diyogu
juramentu azpiyan:
Gerade euskalak,
euskaldun kabalak,
ibero zar-zarrak,
ibar-menditarrak;
gerala
Amarentzat leialak,
onra-zale zabalak.
Gera fedetsubak,
gera indartsubak,
gera paketsubak,
gera onradubak,
bañan utzi ezkeroztik pakian,
lenian.
Gu gañerakuan,
oraindañokuan,
zer izandu geran
daukagu goguan.
Iñigo maitia
obe da iltzia,
ez onra saltzia,
ez erdalduntzia,
ez traidoretzia,
Unamunotzia;
ez madarikatuta
kondenatutzia.
Arren, jetxi zaitia, zaitia!

R. Azkaratekuak

El Correo de Guipúzcoa, 1901-IX-29

Unamuno Bilbon, 1901-VIII-26-an itzaldia egiña zan, euskera galtzera zijoala eta abar esanez. Au izan zan Ramos Azkarateren erantzuna.

Irun edo Urantzuko karlista gazteriyari

Zuen balore neurri gabeak
jarri azi nau kantari,
zarra naiz baño kantatu bear
diyot gaur gazteriyari:
Otsa-illaren amaseyian
testigu nintzan neroni,
nola benetan nai diyozuten
errege bidezkoari.

Guziro maite dituzutela
Jaungoikua ta Fueruak
zaudete bada garbi esanaz
karlista Urantzukuak;
Olazabalko Tirso jaunaren
erritar euskerazkuak,
zuek zerate Arbelaizko
zalduna bezelakuak.

Masoneriyak zañak egin ta
daukazkin erri batean,
Maketaniyak piper miñ-miñak
dauzkan uri leialean,
arrotz gaiztuak zuen dirubaz
gizentzen diran lurean,
zuek denboraz bear dezute
jarri guziyen gañean.

Nola etzerate bada jarriko
infernutarren gañean,
bizi eta il nai badezute
Jaungoikoaren legean?
Txit aberatsak ez bazerate
latzak zerate lanean,
eta alferrak bearko jarri
denboraz zuen mendean.

San Martzialko gerrero aien
semeak nola zeraten,
San Martzialen karrikan bertan
zerate bada bildutzen;
masoneriyak ta piper miñak
etzaituzte, ez, izutzen,
baizikan zuen elkartasunak
ditu etsaiak bildurtzen.

Egin zizuten sermoi eder bat
gure On Biktor Praderak,
esanaz zenbat alderdi eder
dituben gure banderak;
laister goi-goian kanta dezaten
fedea eta euskerak,
saiatu gaiten ziñez garaitzen
gambela-zale alferrak.

O. A. R.

El Correo de Guipúzcoa, 1902-III-2

Doña Maria Teresa Orbe eta Cañamás zanari

Santiago-mendi, Ametza-gaiña
ta uriyaren erdiyan,
Astigarraga izendatzen dan
uri atsegingarriyan,
Balde spinako markes leialen
jauregi onragarriyan,
daude tristura aundiyan,
oñazez urte t'erdian;
bi aiñgeruben gorputzak nola
dauzkaten gaur lur azpiyan,
nola ez dira bada egongo
miñez iltzeko zoriyan?

Zer kantatuko dizut bada nik,
Doña Maria Teresa,
banaiz ni aula, banaiz argala,
banaiz kantari traketsa?
Zer kantatuko dizut ordea
banaiz gizon ezereza,
eta banaiz moldakaitza
goitzeko zure bititza?
Bañan leialak ditutalako
anima eta biyotza,
al dan bezela moldatuko det
zuretzako nik oroitza.

Gaitz gaizto batek ill azi eta
eraman zaitu mundutik,
animatikan maite zenuben
Aitorren Euskal Erritik;
aldegin dezu goiko zerura
munduko Paradisotik,
Murgiako jauregitik,
fami liyaren erditik.
Eta an zaude lore turikan
alderdi guzietatik,
aitonari ta Kontxitatxori
eldubaz lepo-lepotik.

Gozatu zaite bada zu antxen
betikotasun osuan,
txit ona izan ziñadelako
munduko Paradisuan;
goza zaitezte ziñez irurok
lore tegi doatsuan,
dala Amaren besuan
edo beraren kolkuan,
ta erregutu Amari
iduki gaitzan goguan,
ibar-mendiyak ipiñi ditzan
denboraz pake gozuan.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1902-VII-27

Maria Teresa Orbe y Vives de Cañamás andreñoa 1902-VII-19-an il zan,
ogei ta bi urterekin, Astigarragako Murgia jauregian.

Tolosako Kantaritalde eta bere zuzendariari

Felizitatu bear dizutet
lenengo garait-ondua¹,
dezutelako Tolosarentzat
ekarri onra mordua;
bada Tolosa ta tolosarrai
diyetan amoriyua
nola dan guztiz berua,
izugarrizko sendua,
ta naizelarik gañera berriz
Arotz-kalean jaiua,
kantaritalde sariatuba²
onratutzer a njua.

Zuk, zuk benetan dezu onratu
Tolosa birtuosua,
Beotibarko umant aundiye
erri txit gloriosua;
Andia eta Idiakezen
erri onradu altsua,
zaldunen Paradisua,
erri paketsu gozua,
izerdiyakin bizitu oi dan
uri leñargi³ osua,
da oraiñ ari onratzen bere
kantaritalde zintzua...

Naiz Españiyan ta naiz Frantziyan
al da kantaritalderik,
zu lotsatuko zaitubenikan
zu zeran bezin gazterik?
Emeretzi bat illabetetxo
dituzu bakar-bakarrik,
eta al dago dudarik
aur bat zerala oraiñdik?
Alaz guziyaz zuk Donostiyan
onreak irabazirik
ziñan etorri, beste zenbaiti
kantatzen erakutsirik.

Nola etzaitu zu onratuko
erri eder maitiyyak,
zuk onratutzen badituzu gaur
tolosar guzi-guziyak?
Nola ez dizu gaur kantatuko
zuri Uzturre mendiyak?
Nola ez ibai Oriyak
eta Araxes garbiyyak?
Nola ezpada errekak eta
iturri zar ta berriyyak
ez dizkitzute erakutsiko
beren atsegin aundiyyak?

Zeñek ez du gaur bada altxatzen
Mokoroako Eduardo,
baldin Jurado guziyengandik
txit onratuba badago?
Gorriti zana, Gorriti zana
oñen gañean balego,
maite bazuben lenago
gaur luke bizirik jango.
Eta nola ez bere ikasle bat
izarraturik bizi,ro,
bere moduban goi-malletara
igotzen asi bazaio?

Pozaz negarrez felizitatzen
dizut nik animatikan,
zure ta nere iritzi denak
alde bat lajaturikan;
ta esan zaiezu lagun guziyai
lotsatu gabetanikan,
Jaungoikoarengatikan,
bañan nere partetikan,
Azkarateko Ramos pobrea
berez izanagatikan,
zuri bezela doatsututzen
diyela biotzetikan.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1902-XI-31

¹ *Triunfo.* (El Cántabro-ren oarra.)

² *Premiado.* (Id.)

³ *Noble.* (Id.).

Matxinbarrenaren Ebanjeliyua

Ni naiz, ni, Matxinbarrena,
eta ez euskal onena,
baizik naiz txarren-txarrena
nerau arritzen naizena.
(*Rau, rau, rakataplau,*
birtutez biartsubena?)

Ez kitorra ta zorua,
baizik naiz karramarrua;
naiz ni maketo arrua,
Sánchez Silva-ren primua.
(*Rau, rau, rakataplau,*
Utreran bertan jaiua?)

Ni ez naiz aberatsena,
baizikan naiz pobreena,
naiz ni guzizko zekena,
dollor guziyen kirtena.
(*Rau, rau, rakataplau,*
Fuerorik nai ez dezuna?)

Ez da Utreran jaiua
nere Konstituziyua;
da Kadizko deabrua
nere santu sagradua.
(*Rau, rau, rakataplau,*
Botellas-en kuñadua?)

Ez det nik bear Fuerorik,
ez eta gauza zuzenik;
ez det nik maite euskerik,
ez ere Euskal Erririk.
(*Rau, rau, rakataplau,*
zure gilborra bakarrik?)

Izan naiz Isabelena,
bai ere Serranorena;
ondoren Castelarrena
ta gaur naiz Alfonsorena.
(*Rau, rau, rakataplau,*
al zera edoziñena?)

Ez banu maite gilborra,
nola orla jo danborra?
Naiz ni guztiz bizikorra,
Fuero-iltzalle gogorra.
(*Rau, rau, rakataplau,*
itzontziya ta kitorra?)

Naiz bada edozeñena,
ez naizelako zuzena;
banintz ni On Karlosena,
nola izan onen gizona?
(*Rau, rau, rakataplau,*
nola da zure izena?)

Don Pepe Botellas zana
da nere izen laztana;
maketoz egiñik lana
etzait paltatzen zer jana.
(*Rau, rau, rakataplau,*
txit ondo dago esana.)

Il bear ditut Fueruak,
euskalen onra morduak;
baditut lagun beruak,
republikano tipuak...
(*Rau, rau, rakataplau,*
gaiztuak edo eruak?)

Eruak edo gaiztuak,
dira beintzat maketuak;
diradelako tontuak
dira nere debotuak.
(*Rau, rau, rakataplau,*
Indart dan bezelakuak?)

Indart ta beste lagunak
nun-nai dira ezagunak;
amarrak dira illunak,
jakinduriz alargunak.
(*Rau, rau, rakataplau,*
euskaldun txar erdaldunak?)

Bai bai.

El Correo de Guipúzcoa, 1902-X-19

Gipuzkoatarrai

Al dezute nai maitatuzia
gure Diputaziyua,
bere moduban maketotu nai
gaituben demoniñua?
Matxiñek sudur barruban daukan
amardun pipermorra,
Matxiñen gisa dalarik txarra
ta izugarri arrua,
probentzi eder euskerazko au
maketotzera dijua,
berak sarturik beti-betiko
lurpean gure fuerua.

Ez du nai lengo lege zarrikan
Alfonsori eskatzia,
bañan bai gure eskubideak
beti-betiko galtzia;
nai du ziñezko libertadeak
urkamendiyan iltzia,
berak illeta kantatu eta
berak lur-azpiratzia;
nai du euskalen onra guziyak
ezur uts biurtutzia,
era berean gipuzkoatarrak
osoro maketotzia.

Ez dezagun, ez, gai ontan beintzat
izan desberdintasunik,
baizik aitonen gisan gu jarri
gaitezen anaiaturik.
Al da probentzi Gipuzkoakoan,
fueroen berri dakinik,
bere buruba maketotuta
ikustea nai dubenik?
Bai al da gure borreroentzat
emen lagun bat bakarrik
La Voz ta bere amaikakua...
ta dozena bat besterik?

Ez omen dago Alfonsogandik
fuerorik izaterikan,
republikakin ere ez noski,
ez da Karlosengandikan.
Eskribatzalle orrelakuak
al du euskal odolikan?
Al daki zer dan Euskal Erriya
edo bai al du lotsikan?
Amabigarren Alfonso arte
al zan emen kintarikan,
Kadizko Korte infernutarrak
nai izan zutelarikan?

Milla berreungarren urtetik
zortzigarren urtean,
Gipuzkoako Fuero dontsubak
zeuden txit zorionean.
Gizaldi ontan Maketaniya
sartu zan gure lurtean,
euskaldun txarrak lagundurikan
asi zitezen lanean.
Fueruak il ta lotu gaituzte
fuero-zaleak katean,
eta gaur gaude guraso gaizto
gaiztoenaren mendean.

Ez al ditugu lotsatu bear
orrelako urgaz-aitak,
loturik denak kate gogorrez
beso biyak eta anakak?
Jantzi diztegun bada amaikai
bertatik burnizko prakak,
ta altzaidubaz moldatutako
txamarrak eta abarkak,
jarri ditzagun tximinitikan
buruz beera gaur amaikak,
esanaz: «Oiek ziran lenago
Maketaniko lukainkak».

Alfonso zortzigarrenarekin
egindako kontratuba,
probentzi onek defenditzia
ez du bada pekatuba;
kontratu au da Gipuzkoantzat
guzirozko indartsuba,
dalako izan bidezko Errege
guziyak aprobatuba.
Eta al zuben iñoiz kunplitu
Esparterok aginduba,
bidezko Errege izan zanean
Maroto batek salduba?

Bai bai

El Correo de Guipúzcoa, 1902-X-26

Zuzendua: 5/2: zortzigarren urtean.

Felizitzen diozkat Eguberri jaiak

Lengo urtean kapoi zar batek
egin baziran igesi,
jakin bezate arren berririk
etzitzaitala iritxi;
Eguberri jai oietarako
beste bat nuben erosi,
eta guztiro garesti,
jateko asmoan gozozki.
Eltze batean gaur nai nuban nik
eguardirako egosi,
bañan eltze zar alanbratuba
galdu zait kapoi ta guzi.

Uste det zuzen-zuzen joan dala
gure erriyan parera,
bai eta ere onezkeroztik
erori dala lurrera;
begira nago (baña alferrik)
nere tellatu gañera;
(banabil gora ta bera
egñaz tonto-papera).
Nai eta nai ez bedorri egin
bearko diyot galdera:
nere kapoi zar maitagarriya
erori zaion etxera.

Nere kapoi beltz txit ederrari
odolak aterarikan,
larrugorritu eta eltzean
sartu det txoraturikan;
bañan eltzea nolakoa dan
pentsatu gabetanikan,
(etzegon dinamitikan
edo polbora zarrikan).
Ez dakit nola beintzat eltzea
tiro batez lerturikan,
joan zait kapoia lañotaraño
etxea puskaturikan.

Olo, ollanda eta ollarrak
dauzkatelarik ugari,
nere kapoian berririk duben
galde nai diyot bedorri.
Al dit egingo bada mesede
erantzutea txit garbi,
jarraitubaz bertso oni,
tristurak ez nazan ill ni?
«Bai, zure kapoi beltzikan ez da
nere etxera erori,
bañan kapoia jango dezu zuk
jarduteakin kantari».
Ala gerta dedilla!

Ramos Azkaratekuak

El Correo de Guipúzcoa, 1903-I-12

On Pedro Alkorta eta Anabitarte zanari

Guretzat samiña zan
lengo astelena,
Martxo illaren egun
amaseigarrena;
arratsaldea zan, bai,
jakin genubena
uste gabe il zala
apaiz bat zuzena,
On Pedro, ai!, On Pedro
zubena izena.

Apaiz jaun egiazko
karlista leialak
gutziz maite zituben
Euskal Erri zarrak;
zituben maitatutzen
ziñez tolosarrak,
nola Belauntzakuak
ala Ibartarrak,
euskal guziyak ziran
zanaren izarrak.

Senideentzako zan
anai guzizkua,
kristau on bat bezela
biyotz onekua;
zan beartsubentzako
zorionekua,
eskuba luzetutzen
gañ-gañ-gañekua,
zan aberatsarentzat
gutziz moduzkua.

Argatikan illetan
aiñbestetxe jende
zanari lagundutzen
ikusiyak gaude;
banderarikan utzi
etzuben beñere,
baizik leialtadia
zubelako gorde,
bere banderakuak
gaur oñazez gaude.

Bere Elizarentzat
zan apaiñgarriya,
ispillu dizdizari
begiragarriya;
nola zuben fede bat
txit bizi-biziya,
gurasoetatikan
ondo ikasiya,
anbat dago zeruban
aiñgeru jantziya.

Eta arkitzen bada
gaur Garbitegiyan,
gure oraziyo ta
laguntzan premiyan,
gaitezen gu saiatu
fede txit biziyan,
nekatu gabetanik
arreta aundiyan
sartu dedin len-bait-len
zeruko gloriyan.

Ramos Azkaratekua

El Correo de Guipúzcoa, 1903-IV-6

On Julio Urkijo eta Ibarra jaunari

Gure On Tirso Olazabalko
alaba baten senarra,
guziro maite zaitugun Julio
Urkijo eta Ibarra;
nola dakigun katoliko ta
fuero-zalea zerala,
zaldun guzizko kabala,
karlista leial-leiala,
etzeralako zu politikan
ez makala ta baldarra,
markes dukeak zu bantzutzeko
nun daduka, nun, indarra?

Desleial batek nola garaitu
lezake leialtadia,
baldin desleial beltzak galduta
badago Euskal Erria?
Nola maketo batek bentzutu
Arbelaizko kondia,
konde guzizko noblia,
onraren jarraitzallia?
Nola karlista (karlista danak)
saldu gaur boto beria,
zu bazerade Arbelaizko
konde leialan semia?

Berarengatik ez dezazula
batere galdu lorikan,
zergatikan zu etorri zeran
bandera zabaldurikan.
Zu joango zera, zu, diputadu
Kortera Tolosatikan,
etsaiak bentzuturikan,
erdoirik gabetanikan;
zu joango zera, santu batzuek
ala nai ezagatikan,
Euskal Fueruak onratutzera,
osoro koroiturikan.

Euskaldun txarrak zure izena
daude tragatu eziñik,
zuri botoak irabazteko
ez dutelako dirurik;
bañan erdal bat bai omen dute
dagona diruz jantzirik,
tituluz bete-beterik,
dakartena arroturik;
bañan jaun onek ez du zillarrik,
ez urre eta paperik,
karlista fiñak erositzeko
añoako diru mordorik.

R. A. eta Altabizkar

El Correo de Guipúzcoa, 1903-IV-26

Tolosako

Orfeoi edo kantari taldearen zuzendariyari

Ez badizutet doatsutu nik
lenago biyotzetikan,
barkazu nazu, On Eduardo,
Jaungoikoarengatikan;
etorri bear izandu nuben
Tolosara Irundikan,
oso makaldurikan,
biyotza tristeturikan;
argatikan ni egon naiz bada
kantatu gabetanikan,
ez neukalako kantatutzeko
batere aldarterikan.

Nola aztuko zait bada neri
zuen Irungo sarrera,
uste banuben zerutik jetxi
ziñadetela lurrera?
Estaziyotik Plaza artean
il zan orduban erdera!
Guziyak ziyen: «Gu gera!
Bizi dedilla euskera!
Goazen, bai, goazen tolosarrakin,
goazen Erriko Etxera,
kantari talde erramutuba
txaloka onratutzero».

Bañan gaur nola arkitzen naizen
agure alaiagua,
bear dizutet ziñez kantatu
Irungo garaitondua¹;
oraiñdik aur bat zeralarikan
zu etzera onraz arrua,
baizik piña ta sendua,
.....
Irun guziyak an erakutsi
zizuben amoriyua,
da iru sari aundiyak bañon
askozaz aundiyagua.

Etzirudiyen San Juango Plaza
baizikan Paradisua,
sartu zanean errespetuan
gure Orfeoi zintzua.
Txiki ta aundi, andre ta gizon,
aberats ta beartsua...
An zan Diputaziyua
eta Bilguma² osua;
arratsaldeko iruretan, bai,
kantari talde altsua
zan izan alde guzietatik
goi malletara jasua.

Asteartean zaldun osuak
bezela portaturikan,
zeok Irun ta zeok Tolosa
guziro izarturikan,
San Martzialen joairarekin
trenera lagundurikan,
an etzan noski zarrikan,
ezda ere gazterikan
«Biba Tolosa!» ta «Biba Irun!»
deitutzen etzubenikan.
(Guzi-guziyoi doatsututzen
dizutet animatikan).

Ramos Azkaratekuak

El Correo de Guipúzcoa, 1903-X-16

Zuzendua: 2/6: Zu zera onra arrua. Eta 2/8 lerroa falta da, moldiztegiaren utsegitez-edo.

¹ *Victoria*. (*El Cántabro*-ren oarra).

² *Ayuntamiento*. (Id.).

On Emeterio Arrese jaunari itz bi

Mundu berriyan ama zanari
jarri ziozkatzun bertsuak
dira burutik oñetaraño
guzirozko fedetsuak;
nunbait argitu zituben ondo
Mesias gurutzetubak
bai zure pentsamentuak,
bai ere sentimentuak.
Neri isuri azitzerako
biyotz neretik malkuak
zure bertsuak (beinñzat neretzat)
dira zerutikakuak.

Ai bagiñake euskak guziyok
zure sentimentukuak,
zu bezelako kristau on eta
ziñezko katolikuak!
Zure gisako euskalak dira
euskaldun egiyazkuak,
euskal txit osotakuak,
guziz zorionekuak.
Euskaldun asko geralako gaur
erdalen alderdikuak,
dauzkagu miñez odol-ustutzen
lege zar gurutzekuak.

On Jose Ramon Errekarte ta
Doña Felipan semea,
galdetutzen det: nundikan izan
diteke Blasco-zalea?
Nundik Salmeron, Soriano ta
Luzbeltzen adiskidea,
bada euskaldun librea,
Gipuzkoaren onrea?
Eta bestetik dalako zazpi
doai dontsuben jabea,
nai eta nai ez gorrotatzen du
Maketaniko legea.

Sinisten degu, eta nola ez?,
zeruba ere badala,
ama zanaren anima anbat
orain an biziko dala;
eta diyozu otoitz egiten
beti jardungo zerala.
Bai, bai, Arrese leiala!
Jainkoak gorde zaitzala.
Zeñek ez dizu bada esango
.....
kantari argidotarren
gañetik zauden izarra?

Gauza bat esan, bestea egin
bai al dezake gizonak?
Ta batez ere zu bezelako
gañ-gañoeko euskaldunak?
Zure guraso bizikor aiek
etziran Luziferrenak,
baizik gurutzearenak,
politikan Karlosenak;
ondorengoai gauz asko eta
euskera utzi ziyenak,
ziran maketokeri guziya
gorrotatutzen zutenak.

Argatik ondo egin dezu zuk
zer zeran aitortutzia,
biyotz zureko sinistamenak
Irunen agertutzia.
Ondo ta ongi egiten dezu
ama bat altxatutzia,
ama on bat onratzia,
amagaz erregutzia.
Nai badezu zuk guziro ziñez
euskera salbatutzia,
lotsak botata salbaziyo
banderan sartu zaitia.

Nola etzuten gorrotatuko
ziñez maketokeria,
Maketaniko oiturak eta
Maketaniko legia?
Maketo beltzak lapurturikan
euskaldun libertadia,
lotu ziguten katia,
garrotxa beltzez betia.
Larogei ta amar urte oietan
Euskaldun Erri maitia
nai dute beren glori ta guzi
guziro maketotzia.

R. A. eta O.

El Correo de Guipúzcoa, 1903-X-24

Lerro bat falta da sail ontan, 4/10-garrena, eta 4/11-garrenean ere itzen bat ere bai, moldiztegiaren utsegitez-edo.

Tolosako Emeterio Arresek, *Ama* izeneko olerki baten bidez saria irabaziazuan: “berrogei ta amar pezetako sari bat eta bitezarra Irun-en irabazitako moldaera”.

Enkarnazion Maria Elosegi eta Larrañaga zanari

Ziñadelarik jaio ta bizi
gure Tolosa gozuan,
gaitz batek zu ill zaituben arte,
lurreko Paradisuan,
zortzi urtetxo igaroturik
jauregi euskerazkuan,
fedetsu guzirazkuan,
bizitza dontsu-dontsuan,
eranegun, bai!, igo ziñan zu
zeruetara eguan,
ta anbat oraiñ arkitzen zera
ama Karmenen besuan.

Senide, aide ta gurasuak
arki leitezke negarrez,
.....
naitasunaren indarrez.
Bañan dakite zu nola zauden
jantziya lore ederrez...
bedeinkatuba izarrez...
inguratuba koroiez.
Argatik ziñez esaten dizut:
Zeruban gozatu zaitetz,
ta Elosegitarrak Tolosan
luzaro bizitu bitez.

Ramos Azkaratekuak

Azaroaren 23-an, 1903-garren urtean.
El Correo de Guipúzcoa, 1903-XI-25
2/3 lerroa falta da, moldiztegiaren utse-
gitez-edo.

**Elosegiko On Jose jaunari
bere santubaren egunean
edo Martxoaren 19-an, 1904-garren urtean**

Neri egiten badirazu zuk
aldiyaz karidadea,
nolatan etzait gogoratuko
ongille maite-maitea?
On egin eta gaizki portatzen
dakiyen gizon pobrea,
iñola ezin izan diteke
bere buruban jabea.

Nola kantatu gabe utziko
dizut nik ezerengatik,
ta aiñgeru bat erregututzen
ari baizait gaur zerutik?
Zuk egindako karidadeak
birali gabe burutik,
felizitatu nai dizut ziñez
nere biyotz-biyotzetik.

Bizitu zaite urte askotan
gaitzikan gabetanikan,
euskalduntasun guziyarekin
euskera onraturikan;
euskaldunaren izen ederra
birtutez goiendurikan,
euskaldunaren izen ederra
biyotzez maitaturikan,

Bizitu zaite dezun gaiean
egiñaz karidadea,
esanaz nola maite dezuben
Jaungoikoaren legea;
eta nik beti deituko det, bai,
dalako nere oñera:
Bizi dedilla, bizi dedilla
pobreen laguntzallea!

Ramos Azkaratekuak

El Correo de Guipúzcoa, 1904-III-28.

Zuzenduak: 2/8: nere biyotzetik; 4/5: dalako nere oñera; 4/7: bizi dedilla!, bai dedilla!

Itzaurrean esan bezela, auk dira, guk dakigula, Ramos Azkarateren azken bertsoak, berak berrogei ta amasei urte bete bear zituan egunean argitaratuak. Baiña bera illa zan, bi egun leenago, 1904-III-26-an. Bertso-moldatze-ari azken orduraino eutsi zion, beraz, arek.

Makinaz idatzitako orritxo batean ere arkitu ditut bertso auk. Baiña ez nuan idatzi noren eskutik jaso nuan. Bearbada, Tolosako Manuel Urreta izango zan. Orritxo orrek itz auk ditu bertso oien azpian:

“Poesía póstuma dedicada a nuestro querido correligionario de Tolosa Don José Elosegui. (Falleció 27/3/1904)”. Ori oker dio: martxoaren 26-an il zan Ramos Azkarate.

El Cántabro (1895)

Bagendu begehikike	11
Don Arturo Campion fuerista ezkerari	13
Nolako neguba alako gizonak dira gure Sort-erriya ondatzen dutenak	15
Moruak baño askozaz moruaguak	17
Liberalak fuerista biurtzen ari dirade eta... ez gaude galdurik	20
Alper-alperrik dabill liberalkerriya	24
Arrak eta ondo zarrak dira jende Nosedar-tarrak	25
Euskal-Erria	27
Bizi bedi euskera!	30
Aste Santuba badator	32
Jesukristo gure Jaunaren piztuera zori onekua	36
Kanpora maskarak!	38
Fede oneko integroai abisu bat	40
Gipuzkoako karlista maitagarriyai	42
Aurrera, anai maiteak, aurrera!	44
On Benigno Rezusta eta Abendaño zanari	46
Olazabalko On Tirso jaunari	47
Nere adiskide maiteenari	49
Bizi geradenian kontentu	51
Infernuko Patroiai	55
Nere moduko gizon eder bateri	57
Intrigoetako elbi bati	59
Aita Zirilo	60
Santocildes-ko On Fidel Alonso zanari	62
Eraneun arratsian kantatu nintubenak ametsetan	64
Nocedal edo Probidentziya edo letarta	66
Aita San Ignazio Loiolakoari	67
Azpeitiko sekretariyo edo goarpelariyari	69
«Zer da Nocedal...»	71
Egundaño aztuko ez dana	73
«Esaten bagenuben...»	75
Fede oneko integristai	77
Balladolid-tik infernura	79

Korritutzen ez duben diruba kredo botatzen, bataio batian	81
Biz-ola eta San Bartolome	83
Don Karlos zazpigarrenari Azaroaren iruban	87
San Ignazio Loiolakoari	89
Bergarako Konbeniyo ondorian	91
Intrigoen txorakeriyak	93
Jeremiasi eskerrak!	95
On Juan Etxeberria eta Agirre zanari	97
Zenbat baliyo duben gizon aundi batek!	99
Goazen aurrera!	101
Kontzientziya kargatu gabe izan leiteke apaiz jaun bat gure Bandera Santubaren etsaia?	103

El Cántabro (1896)

Goazen botuak ematera On Luis Etxeberria eta Agirre-ri	107
A fede gaiztoko intergo buruzariak!	109
«Gu gera!»	111
Kapaz dirade laixter deitzeko deabruari santuba	113
Gipuzkoako karlista fuero-zale bakar-bakarra	115
Egiputzuko karlista onkeriolai	117
Bi kaleetan badauzkatzute Luzbeltzen jatorrikuak	119
Jesus gurutz-iltzatuari	121
Al da gertatu Euskal Erriyan beñere orrelakorik?	122
Akinoko Tomas Done aundiari	124
Gure buruzari, senadore, On Tirso, txit geidiatia jaunari	127
Gure diputadu On Eusebio Zubizarreta jaunari	128
Ignazioren sort-erriko diputadu On Joakin Maria Arana-koari	129
Intrigoen illeta	130
Nere adiskide maite On Frantzisko Zeberio eta Barandiaran jaunari	134
Ondarrabiyako praile Karlosen etsai Aita Ignazio famatubari	136
Oiartzungo Necedaltarra	138
Lagun urkoan gaitzez poztutzen diranai	140
Saguxarra gizonaren izenian	142
<i>Un voto de gracias</i>	144
Denborarekin matsak eldutzen dira	147
Beñere gauz onik ez gaizki dabillanak	149
Cánovas beltza, Sagasta beltza, biyak dirade anaiak	151
Guregandikan txit maitatubak beti zerate izango	153

Zabal-zabalik daduka beti datorrenantzat atea	155
Iru ziraden, iru ziraden Elena baten alabak	157
Zer errukarriya dan gizon gazterik zartutakua!	159
Cánovas eta Sagasta gizarajoari	161
Amarruak eta bobasketak	163
On Karlos zazpigarrenari bere santubaren egunian	165
Cánovas eta Sagastari bigarrena ta aitzena	167
<i>Cántabro</i> edo Kantauritarran irakurlariyai agur bat, bañan ez betiko	169

El Cántabro (1897)

Irun edo Uranzuko karlistai	173
Gipuzkoako diariyo edo egunerokoaren zuzendariyai itz bi	176
On Ladislako Zabala eta Salazar zana	177
Zorionekoak integro egiazkoak!	179
Fede oneko integroai	181
Beñere gauz onik ez gaizki dabillanak	183
Azpeitiko On Ignazio Ibero-koa zana	185
Bakoitzari berea	187
Bizi bedi euskera!	188
On Juan Jose Elorza eta Aizpuru zanari	190
On Jaime Borbongoari	192
Gure Aita San Ignazio Loiolakoari	194
Ill zan Cánovas Castillo-kua, baña ez gure Fueruak	195
Nere adiskide maite On Gregorio Gogorzakoen bi arreba Simona eta Juliana ziranai oroipentxo bat	199
Utzi pakean jardun dedilla Fueroen kontra kantari	201
Neska zar edo atsuak	203
Gure adiskide maite On Ramon Bandres eta Azkue zanari	205
Navarro Reberter-i	207
On Migel Lopez Legazpi zumarragatarrari	210
Voltaire-n <i>Voz</i> -ari	211
<i>Cántabro</i> edo Kantauritarran irakurlariyai	213
Zori gaiztoko Masoneriyen guzialtuna gozua	215
<i>La Voz</i> ta on Fermin Lasala	217
On Karlos zazpigarrenari	219
Errege, elefante eta alkate baten istoriya	221
Gipuzkoako gobernadore jaunari itz bi	223
Sejismundo Moret-i	225

Mac-Kinley eta euskal liberalkeriya	227
Don Migel Arkaute jaunari	229
Jesukristo eta gure bandera santuba	231
Kantabro edo Kantauritarran irakurlariyai agur bat despedidakua	233

**Tolosako Fakundo eta Timoteo Adurriaga anaiak
eta beste iturri batzuk**

Oarra	237
On Emeterio Arrese jaunari	238
Nere ama maiteari	240
Juan Sebastian de Elkano	242
Malkuak	244
Lagun artean egindako sagarduaren gertaerak	245
Nere lur maiteari	246
Aita San Joseren gozuak	247
Nere buruari	249
Nere kontubak beti farragarriyak	251
<i>Corona poética</i>	253
Beti orrela	254
<i>Gipuzkoako Correo</i> -n irakurleai	256
Nocedal	258
Orain ez da pestalarietan ibillitzeko denbora	260
Mac Kinley Moreti	262
Bizi bedi <i>Correo Español</i> -a	264
Goazen begiyak malkoz bustirik Jesusen Amagana	266
Valladolid-ko On Jerman Gamazo	268
Lera ardoko integrak beren erregiñ maiteari	270
Bi senadore, bost diputadu gure Gipuzkoarenak	272
On Juan Ignazio Odria eta Larrarte jaunari	274
Alferrik dira Gamazo eta Gamazotarren asmuak	276
Zer moduz dago Montojo jauna? Nola dago gaur Cervera?	278
«Elkartu gaiten» diyo Sagastak	280
Antonio Okendoren bizitza eta azañak	282
Kosme Damian de Txurruka	287
Mutil zar gastatu baten birtuteak	290
On Kosme Damian Txurrukakoari	292
Iparragirreri	294
Bizente Manterola, eliz-gizon, jakintsu ta aitamen aundiko itzlaria	295

El Correo de Guipúzcoa (1899-1906)

On Ignazio Nuñez zanari	299
Orañ degu denbora	300
Liberal batzuen lengo eguneko kanta	302
On Biktor Pradera eta Larunbe jaunari	304
On Juan Olazabal eta Ramery jaunari	305
Pestak aurea obe du ondorea baño	306
On Anjel Kruz Otxoa eta Zabalegi jaunari	308
On Ignazio Etxaide eta Etxebeste jaunari	309
On Luis Zurbano eta Alzibar jaunari	310
Orañ juzgatu zazute zer dan konfiantza edo diruba	311
On Ladislao Zabala eta Etxaide jaunari	313
On Jose Elozegi eta Zabala jaunari	314
Goierritarren lamentazio edo dolamenak egiazko Gipuzkoaren maitatzalleai	315
On Luis Zabala eta Esnarizaga jaunari	317
On Juan Ignazio Erzilla eta Ziaurriz jaunari	318
Gure Diputaziyoko Presidente edo Dianagusya On Jose Matxinbarrena jaunari	319
Karmen Larrañaga eta Elosegikoa zanari oroitz bat	321
Morayta eta Blasco Ibáñez	323
Bizi bitez fuero-zale guziyak	325
Edan gabeko mozkorra	327
Misiyo Santuba Tolosan 1900-garren urtean	329
Jesusen Lagundiko Aita Aizpururi itz bi euskala bezela	332
Aizarnako erretore jaun On Jose Gil Agirrerri	333
Himnua edo kantua Lezoko Gurutze Santubari	334
Piztu da Jesus!	336
Gipuzkuatarrak, bizi bedi euskera	337
On Jose Urkia eta Arana zanari	338
Silvela eta Villaverde	339
Lezoko Gurutz Santubari erregu bat	340
Irugarren Ordenako nere anai-arrebai	343
Bizi bedi euskera	344
Orbeko Kontxita eta Vives Cañamás zanari	345
Arrantzale gizarajuak!	346
On Pedro Jose Uranga eta Olasagirre zanari	347
Errezatzera, errezatzera	348

Felizidade edo doatsuerak	349
Jesukristo gure Jaunaren gurutzeko zazpi itzak	350
Bizi bedi euskera	353
On Biktor Pradera eta Larunbe jaunari	355
San Inaziori bere martxa edo joaira ederrian	357
Irun edo Urantzuko karlista gazteriyari	358
Doña Maria Teresa Orbe eta Cañamás zanari	359
Tolosako kantaritalde eta bere zuzendariyari	360
Matxinbarrenaren Ebanjeliyua	362
Gipuzkoatarrai	364
Felizitatzen diozkat Eguberri jaiak	366
On Pedro Alkorta eta Anabitarte zanari	367
On Julio Urkijo eta Ibarra jaunari	368
Tolosako Orfeoi edo kantari taldearen zuzendariyari	369
On Emeterio Arrese jaunari itz bi	371
Enkarnazion Maria Elosegi eta Larrañaga zanari	373
Elosegiko On Jose jaunari bere santubaren egunean	374

Auspoaren azken liburuak

- 276 Jose Insausti
Beti bertsoa buruan
- 277 Manuel Matxain
Uste gabean
- 278 Inozentzio Olea
Ostiraleko kronika I
- 279 Inozentzio Olea
Ostiraleko kronika II
- 280 "Ataño"
Markesgaiak. Dirua jainko
- 281 Antonio Zavala
Estropadak bertsoan
- 282 J.M. Iriondo
Segi, Mugartegi
- 283 R. Iraola
Nañarrirt begira
- 284 Ramon Artola
Sagardoaren graziya II
- 285 Leon Albeniz "Iruntxiberri"
Nere berriketa eta aitortza
- 286 Ramos Azkarate
Galtzaundi berriz ere (I)
- 287 Ramos Azkarate
Galtzaundi berriz ere (II)



Ramos Azkarate Otegi (1847-1904) Tolosan jaio zan eta bertan il. Bertso-jartzaille ugaria izan zan, iru milla ta bosteunetik gora jarri zituan eta, bi liburu lodi osatzeko ainbat, alegia.

Kanta-paperetan eta esku-idazkietan aurkitu ditugu aren saillik zaarrenak, amodioa eta Iñauteriak kantatzeko moldatuak. Auetan ezagunenak, *Galtzaundi* izenekoak.

Ondoren, aldizkari eta egunkarietan atera zituan bere bertsoak: *Euskal-Erria*, *El Cántabro*, *El Correo de Guipúzcoa*... Gaiak, berriz, Euskal Erria, Ama Euskera, Fueroak, politika, Tolosa, lagun eta adiskideak, bere burua...

Bi antzerki ere baditu: *Ijitoen kontratuba eta ezkontza* eta *Beotibarko jatzarraren oroipena*. (Ikus: Auspoa 197). Bai ipui batzuk ere.

Ramos Azkarateren bertso-bilduma leio egoki eta zabala da, orain eun urte gure Euskal Erria zer-nolakoa zan ikusteko.

Ramos Azkarate Otegi



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza
Dirección de Cultura

TOLOSAKO



UDALA

ISBN 84 7907-438-8



9 788479 074388